

Brasilgo kooperatibismoaren garapenerako oinarriak: begiratu kritikoa Euskal Herriko legedi eta errealitate instituzional kooperatibotik

Egilea: **AINHOA LARRAÑAGA ELORZA**

Urtea: 2009

Zuzendariak: JON SARASUA MARITXALAR, AITOR BENGOETXEA ALKORTA

Unibertsitatea: MU

ISBN: 978-84-8438-295-9

Hitzaurrea

Euskal Kooperatibismoa bere argi ilunekin, ibilbide arrakastatsu baten froga da. Faktore desberdinen fruitua da euskal kooperatiba mugimenduak Euskal Herriari eta errealitate kooperatiboari eskaini dion emaitza. Arrazoi asko aipatu daitezkeen arren, guri 4/93 Euskadiko Kooperatiba Legeari eta euskal kooperatiben egituraketa instituzionalari erreferentzia egitea dagokigu oraingoan.

Gure errealitateak izan ditu lekualdatu ezin diren faktore edo arrazoiak; legeak berriz, erraz onar dezake lekualdatzeko aukera. Euskal Legeak eta bertako administrazio publiko zein gainerako egitura instituzional kooperatiboak erraztu egin dute kooperatiben eraketa eta garapena. Funtsezkoa izan da, legeak eta administrazioak eskainitako babesa eta laguntza errealitate kooperatiboaren garapen eta hazkuntzan. Eta kontrara: errealitate kooperatibo indartsuak lege aberatsa eta irizpide kooperatibo argiekin funtzionatzen duen antolamendu kooperatiboa izatea ekarri dute. Elkar elikatu dutela esan genezake.

Hutsune nabarmena balio eta zentzu krisian dute gure kooperatibak, garai batean sortu ziren zentzu edo motibazio iturri sendo eta ugariekin, (motibazio erlijiosoak, sozialista, herrigintza ...) eta orain hauek, noraezean daudela sumatzen dugu. Batzuk ia desagertu dira, erlijiosoak kasu eta ahulduta bizi ditugu besteak, motibazio sozialista edo herrigintza edo aberrigintzari dagokiona.

Brasilgo errealitateari ekarpena egitea da gure helburua. Brasilen gurean krisian dauden balio edo motibazioak indartsu sumatzen ditugu; ekonomia solidarioaren esparruan batez ere. Hauek sendo dute kooperatiben zergatia eta norabidea, baina lege laguntza eta bultzada instituzionala beharrezko dute. Bi lurralde hauen artean bada beraz ze elkartrukatua. Gurera eurak piztuta mantentzen duten motibazio emaria ekarri beharko genuke eta guretik, legeak eta instituzioak eskaintzen dituzten erraz bideak jaso beharko lituzkete.

Ainhoa Larrañaga
2010

BRASILGO KOOPERATIBISMOAREN GARAPENERAKO OINARRIAK:
BEGIRATU KRITIKOA EUSKAL HERRIKO LEGEDI ETA ERREALITATE
INSTITUZIONAL KOOPERATIBOTIK

AINHOA LARRAÑAGA ELORZA

Zuzendariak:

Aitor Bengoetxea Alkorta

Jon Sarasua Maritxalar



Mondragon Unibertsitateko Doktore titulua
lortzeko aurkeztutako tesia

Giza Zientzien Departamendua
Mondragon Unibertsitatea
Data: 2009ko apirila

O rótulo jurídico confunde pois, mais do que identifica, o que é o cooperativismo. Sobretudo se se quiser identificar o cooperativismo conservador do renovador. O cooperativismo dos grandes daquele dos pequenos. O cooperativismo dos latifundiários daquele dos sem-terra. O cooperativismo capitalista do de perfil socialista.

Marcos Rafael Gonçalves

ESKERRAK

Lan honetan eta bizitzan bidelagun izan ditudanak eskertu nahiko nituzke honako lerro hauen bidez. Aitari eta amari bizitzan ahaleginaren fruitua lortzen eta gozaten irakatsi didatelako. Amari, zailtasunen eta eragozpen aurrean kikildu beharrear, borrokatuz egin duen ahaleginarekin eredu izan delako. Universidad Federal do Paranako ikerlari eta Movimento do Trabalhadores Rurais Sem Terra-ko abokatu den Eduardo Faria Silviri. Tesiaren gaineko aholku eta iritziak ematen lagundu didan Zuzendariari Aitor Bengoetxea Alkortari eta baita, hainbat atal garatzen laguntza eskaini didan Marta Encisori. Errukane Aperribai eta Nerea Azkarretari azken hilabetetan eurekin bulegoa konpartitzen laga didatelako. Eta azkenik eta bereziki etxeko gizonei, hilabete hauetan izandako pazientzia eta eskainitako laguntzagatik.

LABURDURAK

ABCOOP: Alianza Brasileira de Cooperativas

ACI: Alianza Cooperativa Internacional

ADIN: Acción Directa de Inconstitucionalidad

ANCOSOL: Associação Nacional do Cooperativismo da Economia Familiar e Solidaria

ANTEAG: Associação Nacional dos Trabalhadores em Empresas de Autogestao e Participação Acionária

AKE: Arrasateko Kooperatiba Esperientzia

BNC: Banco Nacional de Credito Cooperativoa

BNH: Banco Nacional de Habitação

BASINCREDI: Banco Cooperativo Sicredi S.A

BANCOOP: Banco Cooperativo do Brasil

BNDES: Banco Nacional de Desenvolvimento

BKL: Brasilgo Kooperatiba Legea

CBC: Congresso Brasileiro de Cooperativismo

CF: Constituição Federal Brasileira

CFC: Conselho Federal de Contabilidade

CLT: Consolidação das Leis do Trabalho

CNC: Conselho Nacional de Cooperativismo

CNI: Confederação Nacional de Industria

CNEC: Centro Nacional de Estudos Cooperativos

CONCRAB: Confederação das Cooperativas da Reforma Agraria

CONFEBRAS: Confederação Brasileira das Cooperativas de Crédito

CRESOL: Sistema de Cooperativas de Crédito Rural con Interação Solidaria

CUT: Central Única de los Trabajadores

EAJ/PNV: Eusko Alderdi Jeltzalea/Partido Nacionalista Vasco

EKE: Euskadiko Kooperatiben Erregistroa

EKL: Euskadiko Kooperatiben Legea

EKGK: Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua

EKK: Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa

FELEME: Federação Leste Meridional das Cooperativas de Economía e Crédito

FRENTCOOP: Frente Parlamentario Cooperativo

FUNACOOOP: Fundo Nacional do Cooperativismo

GEP: Goi Eskola Politeknikoa

GTI: Grupo de Trabalho Interministerial

INCRA: Instituto Nacional de Colonização e Reforma Agraria

ITCP: Incubadoras Tecnológicas de Cooperativas Populares

LMP: Lege Marko Proiektua

MCC: Mondragon Corporación Cooperativa

MK: Merkataritza Kodea
MPT: Ministerio Publico de Trabalho
MST: Movimento dos Trabalhadores Rurais Sem Terra
NKA: Nazioarteko Kooperatiba Aliantza
OCA: Organizaçao das Cooperativas da América
OCB/OCES: Organizaçao das Cooperativas Brasileiras/ Organizaçao das Cooperativas Estaduales
OEA: Organizaçao dos Estados Americanos
OIT/LNE: Organización Internacional de Trabajo/Laneko Nazioarteko Elkartea
PRONACCOOP: Programa Nacional de Cooperativismo
PT: Partido dos Trabalhadores
RECOOP: Programa de Revitalizaçao das Cooperativas Agropecuarias
SCA: Sistema Cooperativo dos Assentados
SECREDI: Cooperativa de Crédito Agropecuaria do Oeste Ltda
SENACCOOP: Secretaria Nacional do Cooperativismo
SENAES: Secretaria Nacional de Economía Solidaria
SESCOOP: Sistema Nacionl de Aprendizagem do Cooperativismo
SICCOB: Sistema de Cooperativas de Credito do Brasil
SIES: Sistema Nacional de Informaçoes em Economia Solidaria
SINCREDI: Sistema de Crédito Cooperativo
STF: Sentencia del Tribunal Federal
UCESP: Uniao das Cooperativas do Estado de Sao Paulo
UFDR: Universidad Federal do Paraná
UNICAFES: Uniao Nacional de Cooperativas da Agricultura Familiar de Economia Solidaria
UNICRED: Sistema de Crédito Cooperativo
UNISOL: Central de Cooperativas e Empreendimentos Solidários

AURKIBIDEA

I. ATALA.....	10
1. SARRERA.....	11
2. EUSKAL KOOPERATIBISMOA.....	17
2.1. GERRA AURREKO EUSKAL KOOPERATIBISMOA.....	17
2.1.1. Sarrera.....	17
2.1.2. Kooperatiba motak eta esperientziak Euskal Herrian 1884-1936... 20	
2.2. ARRASATEKO KOOPERATIBA ESPERIENTZIA.....	24
2.2.1. Sarrera.....	24
2.2.2. Lanaren uzta: enpresa kooperatiboen garapena.....	29
2.2.3. Gaurko errealitatea.....	37
2.3. ESPAINIAKO KONSTITUZIO ONDORENGO LEGEDI KOOPERATIBOA.....	42
2.3.1. Kooperatiben merkataritza izaera.....	42
2.3.1.1. Konstituzio ondorengo kooperatiba legedia.....	51
2.3.2. Gaurko Legediaren elementu esanguratsuak.....	52
2.3.2.1. Eraketarako gutxieneko baldintzak.....	52
2.3.2.2. Antolaketa ekonomikoa.....	53
2.3.2.3. Kooperatibako kideak: pertsona juridikoen egoera.....	54
2.3.2.4. Kooperatiba motak: kooperatiba errealitatera egokitzea.....	54
2.3.2.5. Erantzukizun erregimena: lege orientazio desberdinak.....	55
2.3.3. Ekainaren 24ko, 4/93 Euskadiko Kooperatiba legea.....	55
2.3.4. Ondorioak.....	57
3. BRASILGO MUGIMENDU KOOPERATIBOAREN HISTORIA.....	62
3.1. SARRERA.....	62
3.2. KOOPERATIBISMO AURREKO ESPERIENTZIAK (1530 ETA 1890).....	63
3.3. MUGIMENDU KOOPERATIBISTA BRASILDARRA LAGUNDU ZUEN LEGEDIA.....	64
3.4. KOOPERATIBISMO BRASILDARRA 1932 ETA 1964 BITARTEAN: LEHENGO KOOPERATIBA LEGETIK KOLPE MILITARRERA ARTE.....	66
3.5. 1964KO DIKTADURA MILITARRA ETA KOOPERATIBISMOAREN GAINEKO ESTATU ERREPRESIOA.....	70
3.6. ERREGIMEN MILITARREKO BIGARREN FASEKO KOOPERATIBISMOA ETA 5.764 LEGEA ETA OCB-REN SORRERA.....	72
3.7. 1988KO KONSTITUZIO ONDORENGO EGOERA.....	95
3.8. EKONOMIA SOLIDARIOA.....	100
4. BRASILGO KOOPERATIBA ERREALITATEA GAUR.....	109
4.1. KOOPERATIBEN TERZIERIZAZIOA (azpi-kontratazio fenomeno).....	109
4.2. EKONOMIA SOLIDARIOA: KOOPERATIBISMOAREN ADIERA BERRIA ..	118
4.2.1. Sarrera.....	118
4.2.2. Brasilgo errealitatea ekonomia solidarioari dagokioenean.....	123
4.2.3. Ekonomia Solidarioaren esparrua Brasilen.....	127
4.2.4. Mugak eta ekarpena garapen lokalari.....	129
4.2.5. Forma juridikoak.....	133
4.2.6. 5.764/71 Legearen gaineko irakurketa.....	134

5.	TEORIA JURIDIKO KRITIKO LATINOAMERIKARRA.....	139
5.1.	SARRERA.....	139
5.2.	PARADIGMA JURIDIKOAK, GAURKO MARKO TEORIKOAK	140
5.3.	TEORIA KRITIKO LATINOAMERIKARRA	142
5.4.	BORROKA SOZIALETATIK BERRERAIKITZEA	148
II. ATALA.....		152
6.	4/93 LEGEAREN ETA 5.764/71 LEGEAREN ARTEKO ALDERAKETA.....	153
6.1.	SARRERA.....	153
6.2.	KOOPERATIBA ERATZEKO ESKATZEN DIREN GUTXIENENKO BALDINTZAK	154
6.2.1.	Gutxienerako kapital soziala.....	154
6.2.2.	Gutxienerako bazkide kopurua.....	161
6.3.	KOOPERATIBEN ERREGISTROA.....	167
6.4.	EKINTZA KOOPERATIBOA: JARDUERA KOOPERATIBOAREN ARDATZA 174	
6.5.	BAZKIDE MOTA BERRIEN SARRERA.....	180
6.6.	KOOPERATIBA MOTAK.....	189
6.7.	BAZKIDEEN LAN ERREGIMENA: LAN ERREGIMENIK EZA.....	195
6.8.	KOOPERATIBEN KONTABILITATE ETA ZERGA ERREGIMENA	202
6.9.	KOOPERATIBAK ETA ADMINISTRAZIO BETEBEHARRAK.....	206
6.10.	KOOPERATIBEN ORDEZKARITZA OFIZIALA ETA 'ELKARTZEKO ASKATASUNA'	208
6.11.	SESCOOP ETA FORMAZIO KOOPERATIBORAKO LAGUNTZAK	219
6.12.	ONDORIOAK.....	224
6.12.1.	Eraketarako gutxienerako eskaeren gainean.....	224
6.12.2.	Bazkide moten gainean.....	225
6.12.3.	Kooperatiba moten gainean.....	225
6.12.4.	Erregimen fiskal eta kontabilitatearen gainean.....	225
6.12.5.	Eskakizun administratiboen gainean.....	225
6.12.6.	Ordezkaritza ofizialaren gainean.....	226
6.12.7.	Formaziorako laguntzen gainean	226
6.12.8.	Ondorioak ekonomia solidarioaren ikuspegitik.....	226
7.	LEGE PROPOSAMENEN AZTERKETA.....	236
7.1.	KONTSORTZIOAK ETA PARTZERIA	239
7.2.	KONTABILITATE ETA GAINERAKO TRAMITE ADMINISTRATIBOAK....	240
7.3.	DESEGITEA, LIKIDAZIOA ETA IRAUNGITZEA.....	240
7.4.	KOOPERATIBISMOAREN ORDEZKARITZA OFIZIALA.....	241
7.5.	KOOPERATIBA BEREZIAK	245
7.6.	SOZIJETATE SINPLE SOLIDARIOAK.....	245
8.	OCB EUSKAL INSTITUZIO KOOPERATIBOEN IKUSPEGITIK.....	251
8.1.	SARRERA.....	251
8.2.	ESTATUAREN ERAGINA KOOPERATIBISMOAN.....	252
8.2.1.	Estatuaren bi funtzioak: gainbegiratzea eta sustapena	263
8.3.	NAZIOARTEKO ALIANTZA KOOPERATIBOA.....	275

8.3.1.	Ezaugarri orokorrak.....	275
8.3.2.	Barne krisia eta printzipio berriak.....	280
8.3.3.	Autonomia eta Independentzia printzipioak	283
8.3.4.	Kooperatiben independentzia garapen bidean dauden herrialdetan 289	
8.4.	OCB.....	295
8.4.1.	Kokapen organikoa.....	295
8.4.2.	Funtzioak.....	298
8.5.	EUSKADIKO ORDEZKARITZA ETA GESTIO ERAKUNDEAK	305
8.5.1.	Euskadiko Kooperatiben Erregistroa.....	306
8.5.2.	Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua.....	310
8.5.2.1.	Sarrera	310
8.5.2.2.	Ibilbide historikoa	310
8.5.2.3.	Izaera eta funtzioak	318
8.5.2.4.	Ondorioak.....	329
8.5.2.5.	Gaurko errealitatea	330
8.5.3.	Euskadiko Lan Elkarteen, Irakaskuntza eta Kreditu Kooperatiben Federazioa eta Konfederazioa.....	334
	ONDORIOAK	339
	BIBLIOGRAFIA.....	352
	ERANSKINAK	364
	ERANSKINA (I).....	364
	ERANSKINA (II)	365

I. ATALA

SARRERA


1. SARRERA

Brasilgo errealitate kooperatibora gerturaten gara honako Tesi Doktoralean. Arrasateko Kooperatiba Esperientziak (AKE hemendik aurrera) frogatu du soberan esperientzia sozio-empresarial eraginkorra dela eta abiapuntutzat AKE hartuta aztertuko dugu Brasilgo errealitate kooperatibo juridiko-instituzionala.

AKE-ren ibilbide arrakastatsuan elementu desberdinak azpiarratu daitezkeen arren, gu, 4/93 Euskadiko Kooperatiben Legean zentratuko gara. Lege kooperatiboak pisu edo garrantzi handia izan du esperientzia kooperatiboaren garapenean.

Euskal Herria hiru errealitate administratibotan banatuta egotearen ondorioz, hiru lege kooperatibori erreferentzia egitea dagokigu. Euskal Autonomia Erkidegoko 4/93 Legea, Nafarroako 14/2006 lege forala eta Ipar Euskal Herrian indarrean den 10/9/1947 Frantziar Estatuko kooperatiba legea dira Euskal Herriko esparruan jarduten duten kooperatiben erregimen juridiko kooperatiboa erregulatzen duten legeak. AKE-ren baitan, orain arte eta nagusiki 4/93 izan denez gailendu den legea, berau hartuko dugu orokorrean oinarri gisa¹.

Gure errealitate kooperatiboaren azterketa bat egin beharko bagenu kooperatibak sektoreka edo jardueraren arabera edo motaren (lehengo, bigarren edo goragoko mailako kooperatibak, federazioak..) arabera sailkatuko genituzke. Ez genituzke ideologia edo helburu desberdineko kooperatibak bereiziko. Brasilen berriz, bi identitate desberdineko kooperatibak ditugu. Kooperatibismo mota batek enpresa bideragarriak izateaz gain, helburu sozialak ere baditu; neoliberalismoaren desorekak gainditzea balore edo printzipio zehatz batzuetan oinarritzen diren enpresa eta antolamendu moduan, kooperatibak erabiliz. Kooperatibismo tradizionalak berriz, formatu kooperatiboa kapital enpresa handien zerbitzura jarri du. Bigarren honi, kooperatinismo enpresariala deritzogu. Hauek etekin ekonomikoak lortzea eta enpresa bideragarriak izatea dute helburu baina, ez dute bestelako balio sozialetan erreparitzen. Gure errealitatetik begiratuta bereizketa honek ez du zentzurik. Gurean kooperatibismoa bakarra da.



¹ 1/2000 Kooperatiben legea arautzen duenak hainbat aldaketa sartuko dizkio.

Enpresa bideragarriak izanik, balio sozialak ere bere baitan dituzte. Beste kontu bat da, balio edo alderdi soziala zenbateraino zaindu den edo ez

Bigarren taldeko kooperatibak, OCB- Organizaçao das Cooperativas Brasileiras egituraren baitan mugitzen diren kooperatibak dira. OCB izan da eta da, oraindik, Brasilgo kooperatibismo ofiziala ordeztu eta kudeatzen duen egitura. Diktadura garaian eta helburu zehatz batekin sortutako egitura dugu, eta gaur oraindik, Brasilen, kooperatiben gaineko eskuduntza eta funtzioak egikaritzen ditu.

Enpresa bideragarritasuna baino haratagoko helburuak dituen bigarren taldea, 80.ko hamarkadan sortzen den Ekonomia Solidarioarena dugu. Ekonomia Solidarioa, Kooperatibismo popularra edo beste deitura batzuekin ere izendatzen da, eta perfil berri batetik eraikitzen ari den kooperatibismoa da. Talde askok osatzen duen errealitate hau definitzerako orduan esan genezake, ezaugarri komunak dituen errealitate anitza dela. Ez da talde homogeen bat eta oraindik ere bere egituratzea ematen ari da; Brasilgo errealitate kooperatiboan gero eta pisu gehiago dauka.

Aipatu berri ditugun bi talde hauen artean badira diferentzia nabarmenak; bat aipatzearen, OCB-k ordezkatzeko duen kooperatibismo tradizionala, kooperatibismo enpresariala izan da; merkataritza enpresa handien zerbitzuan egon den kooperatibismoa. Autogestio maila ahula izan duena². Sortzen ari den kooperatibismo berriak dituen helburuen artean dago langileen autogestio maila areagotzea. Hau litzake beraz, Brasilgo kooperatibismoak duen erronka nagusietako bat eta bi kooperatibismoak bereizi dituen ezaugarrietako bat.

AKE-ko esperientziatik abiatuz egingo diogu Brasilgo errealitate kooperatiboari azterketa. Bi izango dira aztergai izango ditugun objektuak; bata, 5.764/71 Kooperatiba Legea eta bestea berriz, OCB-ren ordezkartza instituzionalaren legalitatea. Euskal Herriko egituratze kooperatiboa hartuko dugu oinarrian eta hemengo saretik begiratuta aztertuko ditugu OCB-ren izaera eta funtzioak.

Bestalde, oso gaineratik bada ere, errealitate kooperatiboa baldintzatzen duen kooperatiben erabilera aipatuko dugu. Orain arteko ibilbidean kooperatibak markatu dituen beste elementua,



² Kooperatibismo tradizionalak, kooperatiba formula, eskulan merkea hornitzeko erabili izan du eta erabiltzen du. Bazkide gutxiko eta soldatapeko langilez osatutako kooperatibak izan dira.

hauen terziarizatzea (azpikontratazioa) izan da. Kooperatibetako bazkideak lan erregimenik ez izatean, eskulan merke gisa erabiliak izan dira. Lan indarraren bitartekaritza funtzioa bete dute eta honek eragin du besteak beste, kooperatiben ospe edo izen onaren kaltetzea. Kooperatibismo tradizionalak, kooperatiba, formula eskulan merkea hornitzeko erabili izan du eta erabiltzen du. Bazkide gutxiko eta soldatapeko langilez osatutako kooperatibak izan dira.

Laburtuz, Brasilen sortzen ari den kooperatibismo berri eta sozialago baten garapenean lagundu dezaketen elementu juridikoak proposatuko ditugu. Kontutan izanik beti ere, dagoeneko ari direla pausu garrantzitsu batzuk ematen: lan elkartuko kooperatiben lege berri bat onarpen bidean, kooperatiben gaineko lege orokorra eztabaidagai eta OCB-ren baitan ere eztabaida ematen ari da eta ikuspegi desberdinak azaleratzen ari direla dirudi.

Bestalde, teoria juridiko kritiko latinoamerikarra aipatzea dagokigu. Teoriak goitik behera sortutako araudiaren kritika egiten du. Indar hegemonikoen interes eta errealitatea kontutan izanik sortu eta egituratu den zuzenbidea kritikatzeko du. Beste errealitate batzuetatik eraiki beharreko zuzenbidea aldarrikatuz. Legedi kooperatiborako proposamenak zuzenbidearen egite konbentzionaletik eginak izan arren, helburu dute Ekonomia Solidarioak bere baitan daukan egoera eta adituen beharrak kontutan izatea.

Tesiaren objektua Brasilgo kooperatibismoa da. Kooperatibismoak bizi duen errealitatea aztertu eta gure esperientziatik ekarpenak egitea da helburu. Kooperatibismoaren bi adierak aztertu ondoren, sortzen ari den berriari, hau da Ekonomia Solidarioari hazteko proposamenak egitea.

Helburua beraz, Ekonomia Solidarioaren baitan sortzen ari den kooperatibismoa indartzea da. Hor baitago kooperatibismoaren etorkizuna. AKE-ko esperientziak izandako ibilbidetik Brasilerrako daukan ekarpen positiboa hara eramatea.

Metodologiari dagokionez bi izan dira nagusiki tesia egiterako orduan erabilitako bideak. Eta atalez atal, tesiaren egitura oinarri hartuta, azalduko ditugu emandako pausuak. Legeak alderatu ditugu batetik; herrialde bietako kooperatiba legediak eta kooperatiba mugimenduak egituratzeko dauden sistemak. Lege edo araudi alderaketa izan da beraz, erabilitako sistemetakoa bat. Bestetik, lege alderaketa osatu eta oinarritzeko elkarrizketak burutu ditugu. Brasilen mugimendu kooperatiboa, parlamentua eta unibertsitate munduko jendea elkarrizketatu dugu. Hauek baitira gure proposamenak balioztatu edo ezeztatuko dituztenak gero ere. Ikerketa burutzerako orduan izandako mugaren bat aipatzekotan urruntasun geografikoa aipatu beharko genuke. Oso urruneko errealitatea da aztertu duguna eta horrek berarekin dakar hizkuntza eta kultura arteko desberdintasunak izatea. Desberdintasun eta distantzia dira beraz eragozpen izan ditugunak.

Lehen atalean euskal kooperatibismoaren historiaren errebaso azkarra egiten dugu. Mugarririk garrantzitsuenak; bai orokorrean eta bai zehatzago, Arrasateko Esperientzian oinarrituz. Kooperatibismoaren errebasoarekin batera legedi kooperatiboak izandako bilakaera eta mugarririk nagusiak zein izan diren aipatzen ditugu. Legea esperientziaren garapenean ardatz nagusi izan dela kontutan izanik.

Ondoren, Brasilgo kooperatibismoaren historiari egiten diogu errebasoa. Kooperatibismoa aurreko esperientzietatik hasi eta OCB-ren sorreran arreta berezia jarritz. OCB, noiz eta zein helbururekin sortu zen azaltzen dugu. Eta baita diktadura garaitik datorren eta gaur indarrean dagoen kooperatiba legearen egitea eta onarpena nola gertatu ziren azaltzen dugu. Gaurko errealitatea ulertzeko beharrezkoa da OCB-ren sorrera eta honekin onartu zen legearen sortze eta garapena ulertzea. Biak interesgune beretik sortu dira eta.

Historiaren errebasoa egiterako orduan Ekonomia Solidarioaren sorreran jarriko dugu arreta ondoren. 80ko hamarkadan sortzen da eta errealitate berri honek kooperatibismo berriaren lekukoa hartzen duela esan genezake. Ekonomia Solidarioaren baitan dauden egiturak dira kooperatibismoaren oinarri eta baloreak praktikara eramaten dituztenak. Horregatik datoz gure ekarpenak ere errealitate horri laguntzera.

Lehen atal honetan historia deskribatzea denez helburu, gertakarietan oinarritu gara.

Bigarren atalean tesiaren ardatza ukitzen dugu. Euskadiko 4/93 legearen eta 5.764/71 legearen arteko alderaketa egiten dugu lehenik eta behin. Ez dugu atalez atalkako azterketa egiten, soilik kooperatibismoaren garapenerako lagungarri diren elementutan oinarritu dugu gure alderaketa. Atal bakoitzean legeen artikuluen edukia alderatu dugu eta desberdintasunak azpimarratu. Ondoren bertako protagonistekin izandako elkarriketak baliatuz, oinarrituko ditugu gure proposamenak. OCB-ko ordezkariekin, Ekonomia Solidarioaren ekimenetako protagonistekin, gobernuko eta senatuko kideekin eta Unibertsitate desberdinetako irakasle adituekin egon ostekoak baliatuko ditugu gure proposamenak oinarritzeko. Hauen esanak kontutan izanik eta gure esperientzietatik daukagun ikuspegitik proposamenak luzatzen ditugu.

Ondoren, eta alderaketara joaz hemen ere, Brasilgo kooperatibismoak duen egituratzeko instituzionalari begiratuko diogu. Orokorrean, estatuak kooperatibismoarekin izandako harremanari emango diogu begiratu. Zein funtzio eta harreman izan duen estatuak mugimendu kooperatiboarekin aztertuko dugu. Honekin lotuta, Nazioarteko Aliantza Kooperatiboak 'autonomia eta independentzia' printzipioen gainean eginiko ibilbidea aztertu dugu eta gaur egun printzipioaren gainean egiten duen interpretazioa.

Eta ingurumari honetan kokatuko dugu OCB ere. Brasilen OCBren izaera eta funtzioen gainean hausnartuko dugu, beti ere gure errealitate instituzionala abiapuntu izanik. Beharrezkoa da

Brasilen kooperatibismoa indartuko bada, Ekonomia Solidarioaren baitatik sortzen ari den errealitateari begiratzea. Ibilbide historikoa oinarri hartu eta etorkizuna eraikitzeko oinarriak jartzea izan behar da gure lana. Gure esperientzia kooperatiboa izan dadila Brasilgo errealitate kooperatiborako ernamuin edo hazi.

I. ATALA

EUSKAL KOOPERATIBISMOA

2. EUSKAL KOOPERATIBISMOA

2.1. GERRA AURREKO EUSKAL KOOPERATIBISMOA

2.1.1. Sarrera

AKEren ibilbidea ezagutzeko jatorrira joan beharra dago. Honako pasarte honetan urte batzuk egingo dugu atzera AKE-ren aurrekariak noiz, nondik eta zela sortuak izan ziren jakiteko.

Esan beharra dago, euskal gizartean betidanik ezagutu izan ditugula taldean edo komunitatean egindako ekintza-lanak³: Auzolana, lorra... Halere eta data bat finkatzearen Euskal Kooperatibismoaren sorrera 1870 urtean kokatuko genuke, garai horretan sortu baitziren kontsumoa, ekoizpena, edota lan baldintzei aurre egiteko sortutako langile elkarteak. 1891ean Eibarren sortu zen lehen kontsumo kooperatiba eta 1892an berriz, lehen industri kooperatiba sortzen da La Eibarresa eskopeten kanoiak egiten zituena, 146 bazkide zituen.


Nekazal munduko kooperatibei dagokienez Nafarroako herrialdekoek izan dute pisu gehien.

Hego Euskal Herriko kooperatibismoa kokatzerako orduan, ezinbestekoa dugu espainiar kooperatibismoari eta berau arautzen duen legediari erreferentzia egitea. Espainiara, Euskal Herrira bezala berandu iritsi zen bai industrializazioa eta baita kooperatiba mugimendua ere.

Era berean, mugimendua ez zen oso errotua izan, hasierako garaiak nahasi samarrak izan ziren marko legegilerik ez izateak markaturik. Lehen aldiz, 1887an Elkarteen legeak kooperatiben funtzionamendu legala ahalbidetu zuen.

1906an nekazal kooperatibentzat pizgarri izan zen Ley de Sindicatos Agrícolas zelakoa onartu zen. Azkenik, aurrera pausu handiak izango ziren bi gertaera:

- 1929an kooperatiben Federazio Nazionala sorrera.



³ KAREAGA, A. Gerra aurreko kooperatibismoa. 2001 (argitaratu gabe).

- 1931an kooperatiben lehen legea onartu zen.

Kooperatibismoa hornitu duen ideologiari buruz esan, nazioartean nagusiki kristautasunak eta sozialismoak hornitu dutela kooperatibismoaren pentsamendua. Euskal Herrian ere horrela izan da. Kooperatibismo katolikoak, Elizak, 'auzi sozialari' erantzun nahi zion eta horretarako kooperatibismoan oinarritu zen. Ordura arteko liberalismoak, kapitalismoak, sozialismoak, komunismoak eta anarkismoaren ibilbideak ez ziren baliagarriak, Elizak bere programa sozial propioa garatu zuen: katolizismo soziala. Hala ere, euskal herrian ere kooperatibismo sozialista eta kooperatibismo nazionalistak agertuko dira eta ideologia hauek ere eragina izango dute kooperatibetan.

Espainiar estatuan, Industri Iraultza berandu iritsi zen, era berean baita gizarteak berari aurre egiteko garatutako formulak ere. Giza arazo hauei ideologi ezberdinetatik begiratzuz, irtenbidea bilatzen saiatu ziren. Elizak defendatzen zuenez- liberalismoa, kapitalismoa sozialismoa, komunismoa eta anarkismoa- irtenbide teoriko faltsuak besterik ez ziren, eta honen aurrean, nahiz eta berandu izan, bere programa soziala garatzen saiatuko da, 'kapitalismo soziala' deiturikoa. Erreakzio antisozial, antianarkista, antiliberal moduan definitu daiteke⁴. Iraultzaren kontra doan mugimendu bezala.

Poliki-poliki nazio mailan federazioak sortzeko beharra nabarmenduko da. Honen aurrean Gisasola apaizak 1915. urtean Nekazal Idazkaritza osatu zuen. Bi helburu nagusi zituen: aktibitate ezberdinak sortu eta bultzatzea eta garapena bultzatzea, eta bestetik Nekazal Federazio Katoliko nazionala antolatzea. Ondorengo urteetan konfederazioa handitzen joan zen, Nekazal Sindikalismoko apostoluei esker, sindikatu eta konfederazioak bikoiztu egin ziren. Giza akzio katolikoaren barnean Konfederazio nazional Katoliko Nekazaria sortzea izan zen egin zuten ekintzarik garrantzitsuenak.

1906 urtean sortu zen Nekazal Sindikatuen Lege Berria eta honekin batera nekazal kutzak areagotzen joango dira nekazal sindikatu katolikoekin batera. Guzti honek gero eta kooperatibismo gehiago sortzea ekarri zuen leku ezberdin askotan, eta honekin batera bazkide kopurua ere asko igo zen. Guzti honen adibiderik nabarmenena Nafarroa izan zen.



⁴ ARRIETA, L; BARANDIARAN, M; MUJICA, A; RODRÍGUEZ RANZ, JA. El Movimiento Cooperativo en Euskadi, 1884-1936. SABINO ARANA Elkargoa.

Baina kooperatibismoa zeharo finkaturik gelditzeko bere estrukturazio organikora heldu beharra zeukan, momentu honetan mugimendu bezala hartuko baita. Honetaz aparte federazio ezberdinen sorrerek ere asko indartuko dute kooperatibismo katolikoa. Gainera, 1917ko apirilean nekazarien konfederazio nazional katolikoa sortuko da.

Poliki-poliki kooperatibismoa Euskal Herri guztian hedatuz joango da. Gehien bat nekazal kooperatibak sortuko dira. Nafarroakoak berriz, Espainia guztiko modelo bezala geldituko dira. XIX mende bukaeratik Gerra Zibilera arte EAJ izango da Euskal Nazionalismoaren ardatza. Beste faktore batzuek ahaztu gabe, kontutan eduki beharra daukagu XIX. mende bukaerako abagune sozio-ekonomikoak izan zuen garrantzia Euskal Herriko Nazionalismoaren sorreran. Lehenengo Euskal Nazionalismoak kapitalismoaren zeharo aurkako jarrera zeukan.

Geroago jarrera aldatuko du eta Euskal Nazionalismoarentzat kooperatibismoak ez dizkio aurrerapen ekonomiko, sozial eta kulturalak bakarrik ekarriko Euskal Herriari, gainera kapitalismo eta sozialismoaren artean emango den pilare nagusia izango da justizia kristaua.

1911 urtean Euskal Herrian sindikatu berri bat sortu zen, hain zuzen ere, izaera nazionalista zuen lehenengo sindikatua zen. Euskal Herrian emango den sindikalismo sozialista dela eta Eusko Langileen Alkartasuna delako taldea sortu zen. Beraien helburua langile euskaldunen interesak defendatzea zen.

Euskal Sozialistek ere kooperatibismoa arrazoi askorengatik defendatu zuten, baina bereziki euren ideiak eta proiektuak aurrera eramateko oso baliagarria zelako. Hori dela eta kooperatiba sozialista asko sortuko dira eta gehienak kontsumokoak izan ziren.

Euskal sozialistek, nazionalistek bezala, kooperatibismoa gizartea eraldatzeko tresna gisa ikusten dute. Sozialistek nabarmendu zuten lehen onura, ekonomikoa izan zen. Kooperazioa aurrera eramateko sozialismoa mugimendu egokiena zela pentsatzen zuten. Sozialismoarentzat kooperatibismoa izango da ardatz nagusia, gainera hauentzat zuzendurik egongo da irabazi edo onuren zati handi bat. Kooperatibak, euren ekarpenak zirela medio, herri bakoitzean zeuden zentro sozialistak sortu eta mantentzen zituzten. Honetaz gain, greban zeuden langileak ere mantentzeko gai ziren kooperatibak, kreditu batzuek eskainiz.

Lehenengo kooperatiba sozialistak Bilbon sortu ziren, hau Euskal sozialismoaren nukleotzat hartzen zen. Euskal Herrian sortu zen kooperatibarik garrantzitsuena, Cooperativa Socialista Bilbaína (Bilbon, 1903an sortua), bertan baitzegoen⁵. Denborarekin Gipuzkoan ere poliki-poliki sortzen hasiko dira mota hauetako kooperatibak.


Kasu honetan, kooperatiba sozialistak ez ziren bakarrik kontsumokoak izango. Euskal sozialistak gogor borrokatuko baitute kooperatibismo industrialaren alde ere. Lehenengo kooperatiba sozialista industrialak Eibarren sortuko dira, tradizio handiko industri gune bezala kontsideratua baitzegoen. Lehenengotarikoa Danok-Bat kooperatiba sozialista industrialak izan zen, bertan eskopetak produzitzen zituzten. 1920ko urrian Alfa sortu zen. Hasiera batean armak produzituko dituzte, baina gero josteko makinak egitera pasatuko dira. Kooperatibismo nazionalistarekin konparatuz, errepublika garaia ez zen oso momentu ona izan kooperatibismo sozialistarentzat, garai horretan Euskal Herrian kooperatiba bakarra, Pablo Iglesias kooperatiba, (Barakaldon, 1933an sortua) sortu baitzen.

Kooperatibismo sozialistaren etorkizuna Euskal Herrian zegoela garbi zegoen, Bilbok jarraitzen baitzuen, kooperatibismo sozialistaren nukleo izaten.

2.1.2. Kooperatiba motak eta esperientziak Euskal Herrian 1884-1936

Euskal Herriko kooperatibismoaren ezaugarri garrantzitsuenak lau dira: berantiarra, dinamikoa eta aldakorra eta poliedrikoa.

Berantiarra da, lehenengo euskal kooperatiba 1884an sortu zelako. Espainiako lehen kooperatiba baino ia lau hamarkada beranduago. Dinamikoa da, kooperatiba mota, kooperatiba kopuruan, bazkide kopuruan, garapenean... oso maila altua azaltzen zuelako Estatuko kooperatibismoaren mugimenduaren alboan. 1884-1936 bitartean 671 kooperatiba eratu ziren Euskal Herrian. Gaur egun datuak aldatu badira ere, Euskal Herria Kataluniarekin batera Estatuko kooperatiben ranking-aren buruan aurkitzen da. Eta aldakorra eta poliedrikoa da,



⁵ ARRIETA, L; BARANDIARAN, M; MUJICA, A; RODRÍGUEZ RANZ, JA. El Movimiento Cooperativo en Euskadi, 1884-1936. SABINO ARANA Elkargoa.

kooperatiba modalitate eta espresio guztietara zabalik egon delako. Sektore ezberdinetako eta tendentzia anitzetako kooperatibak ezagutu izan dira Euskal Herrian.

Kooperatiba motei dagokienean batez ere bi dira bereziki garrantzitsuak: Nekazal kooperatibak: 3 kooperatibatatik 1 mota honetako da. 1906tik aurrera Euskal Herri osoan eta batez ere Nafarroan indar handia izan zuten. Bazkideei beharrezko produktuak (makinak, haziak, ...) eskura jartzea helburu izan zuten. Eta kontsumo kooperatibak: bigarren bloke garrantzitsua osatzen dute 200 kooperatiba inguruk.

Euskal Herriari dagokionean esan, Euskal Kooperatibismo mugimendua XIX. mende bukaeran sortu zela, hain zuzen ere, kontsumo kooperatiben eskutik. Europarekin aldentuz atzerapen handiarekin, baina baita Estatuarekin konparatuz ere. Baina hasierako ahultasunaren ondoren, segituan hartu zuten indarra eta lehen esan dugun bezala, Kataluniarekin batera Euskal Herriko kooperatibismoa Estatuko indartsuenetakoa izango da, batez ere Bizkaian emandako garapenari esker.

Kontsumo kooperatiba Euskal Herriko kooperatiba mota garrantzitsuena da. Goiztiarrena eta klasikoena da, eta gainontzeko kooperatibentzat oinarria izan zen.

Kooperatiba martxan jartzeko orduan kapitala bi iturrietatik etortzen zen. Alde batetik, Estatuak ekarpen bat egiten zuen eta beste alde batetik bazkideek gainontzekoa jartzen zuten. Kooperatiba hauen beste ezaugarri garrantzitsu bat Estatuko ordezkari batek kooperatiba kontrolatzen zuela da, inspektore funtzioa betetzen zuen. Kooperatiba hauek, lehen mailako produktuez gain, funtzionarioei eta beren familiei etxeak prezio berezietan, mediku asistentzia, irakaskuntza... ere eskaintzen zien.

Kooperatibismo Nazionalista izango da Nazionalismoaren inguruan sortutako kooperatiba mugimendu kooperatibista, berezia eta bereziki dinamikoa izan zen, nahiz eta nahiko berandu azaldu. Izan ere, mota honetako lehen kooperatiba 1919an sortu zen, lehen kooperatiba baino 35 urte beranduago.

Kooperatibismo nazionalisten gorena II. Errepublika garaian eman zen, euskal gizarteak nazionalismo prozesu bat esperimendu baitzuen garai hartan. Aldiz, kooperatibismo nazionalistaren eklosioa bultzatu zuen faktorea Elkartasunaren II. Kongresua izan zen, 1933an Gasteizen egindakoa.

Kooperatiba hauen helburuari dagokionean, bazkideei ahalik eta ongizate onena ematea zen. Kalitate eta prezio onak eskaintzeaz gain, irabaziak ere banatzen zituzten, kontsumoa kontutan hartuz. Bestalde, 25 pezeta jartzen zituen edonor izan zitekeen kooperatibaren parte eta

beraren abantailaz baliatu. Ez zen eskatzen PNVko kide izatea, beraz, esan daiteke zentzu horretan kooperatiba irekiak zirela.

Lehen esan dugun bezala, lehen kooperatiba nazionalista 1919an sortu zen eta "La Cooperativa Vasca de Consumos" izan zen.

Kooperatibismo nazionalistak garrantzi handia ematen dio alderdi sozialari eta ez bakarrik momentuko irabazi ekonomikoei. Baita ere arreta berezia ematen diote hezkuntzari eta beraien ahaleginak euskal ikastetxeak sortu eta mantentzean zentratu ziren. Azkenik, aipatu, kooperatiba nazionalista hauek ez zirela normalki Estatu mailako kooperatiba taldeen parte izan.

Etxebizitza kooperatibak berriz, datoz garaiko arazo bati irtenbidea ematera. Etxebizitzen problematikak Europa osoari eragin zion. Garai hartan langileek baldintza penagarrietan bizi ziren hirigune industrialetan, honen ondorioz familiak pilatu egiten ziren osasun baldintza eskasak zuten etxebizitzetan.

Espainiari dagokionez 1911 eta gero arazo hau konpontzeko lehenengo saiakerak ematen dira etxebizitza eraikitzaileentzat. Euskal Herriari dagokionez bi tendentzia, zeharo ezberdinak, bereiz ditzakegu garai hauetan. Alde batetik, Bizkaikoa, eta zehatzago Bilboko eremu metropolitarrarena non azkeneko hamarkadetan garapen industrial, urbanizazio, immigrazioa eta populazioaren hazkundera era basati batean ematen den, eta bestetik gainontzeko euskal lurraldeak etxebizitza eskari gutxiagorekin eta garapen industrial mugatu batekin.

Lehenengo gerrate mundiala eta gero etxebizitzaren arazoa gero eta zorrotzago bilakatu zen Europan. Operazio militarrek hainbat etxe suntsitu dituzte, hirigune industrialetan errefuxiatuen etorrera izugarria dago eta hori gutxi ez balitz kapitalik ez dago, beraz, etxebizitza industria eten batean murgilduta geratzen da.

Hau guztiari aurre egiteko Botere Publikoek zenbait konponbide eskaintzen ditu, hala nola, etxebizitza berrien zerga eta eskubide salbuespena, maileguak eman interes tasa murriztean eta industria eraikuntza bultzatu hiru bide mota ezberdinen bidez: diru-laguntzak, etxebizitzen akzioak harpidetuz eta aurre ordainak emanez.

XX mendeko lehenengo hamarkadan etxebizitzaren arazoa areagotzen da Espainian industrializazioa eta urbanizazioa dela medio. XIX mendean hainbat enpresek berauen langileei etxeak eraiki bazieten ere, ekimen hauek oso murrizak ziren. Arazo hau zela medio eta konponbidea lortzeko asmoz hainbat lege kaleratzen dira.

Nekazal kooperazioari dagokionean esan Nafarroa izan zela nekazal kooperatibismoa gehien gauzatu zuen lurraldea. Neurri txikiagoan bada ere beste euskal probintzietan ere eman zen nekazal kooperatibismoa, nekazal sindikatuak, baserritarren kutxa eta kooperatiba batzuk sortuz.

Nekazal kooperazioa Araban bi instituzioetan banatzen da nagusiki: Arabar nekazal sindikatua eta Arabar nekazal federazio katolikoa. Araban bezala Bizkaian ere bi instituziotan banatzen da, *Bizkaitar nekazal sindikatua* eta *Bizkaiko nekazal sindikatuen federazioa*.

Gipuzkoako nekazal kooperazioaren egitura Bizkaikoaren oso antzekoa zen. Oinarrizko zelula nekazal sindikatua delarik, eta aurreko kasuan bezala federazio probintzial bat osatuko delarik.

Produkzio kooperatibak historiako lehenengo kooperatiba mota bezala kontsideratu izan dira. Hala ere, produkzio kooperatibismoa beti bigarren maila batean egon da, kontsumo kooperatibismoaren atzetik. Euskal Herrian mota honetako kooperatibak ez ziren I. Gerra mundialaren osterara arte azaldu, eta 30. hamarkada izan zen garairik oparoena.

Produkzio kooperatibismoa, kooperazio modu puruena eta konplexuena moduan hartu izan da, izan ere, nekazal, itsas edo kontsumo kooperatibek arlo bat bakarrik betetzen duten bitartean produktioak denak betetzen ditu. Produkzio kooperatibak bi taldetan banatzen dira: Kontsumo kooperatibek sortutakoak, beraiek behar dituzten produktuak lortzeko. Produkzio kooperatiba arruntak, eta bereziki produkzio industrialekoak.

Produkzio industrialeko kooperatibak, bazkideen errendimendua eta lan baldintzak hobetzen saiatzen dira, bai arlo ekonomikoan, sozialean, hezkuntzan ... Bazkideek kapitala eta lana jartzen dute eta gero irabaziak beraien artean banatzen dira, zati bat obra sozialetarako utziz. Kooperatiba honen ezaugarri nabarmenena bazkidea bera langilea izatea eta enpresaren izaera iraultzailea zen.

Esan beharra dago, kooperatiba honek funtzio ekonomikoaz gain dimentsio sozial bat ere izan zuela, honen adibide dira sortu zituzten osasun zerbitzuak, gaixotasun aseguruak, liburategientzat diru-laguntzak, formazioaren garapenerako jarduerak ...

Kooperatibaren antolaketari dagokionean, lehen esan dugun bezala, kooperatiba bazkide eta era berean langile direnez osatuta dagola. Bakarrik egoera oso konkretuan onartzen zen bazkide ez ziren langileak kontratatzea. Kooperatiba bazkide- langileak jarritako kapitalarekin sortzen zen, eta kooperatiba uzterakoan beraien zatia berreskuratzen zuten. Bestalde produkzioaren ondorioz lortzen ziren irabaziak kutxa kolektibo batera joaten ziren. Azkenik esan, produkzio industrialeko kooperatibetan, gainontzeko guztietan bezala, izaera demokratikoa zegoela.

Euskal Herrian, Produkzio Industrialeko Kooperatibek, beste batzuk (kontsumo, etxe, nekazaritza ...) baino garrantzi edo eragin gutxiago izan zuten. Honen arrazoietako bat kooperatiba martxan jartzeko behar zen hasierako kapital handia zen.

XIX mendetik Eibar izen zen Euskal Herriko armagintzan gune garrantzitsuena. Honen adibidea 1912an sortutako "Escuela de Armeria", Euskal Herriko lehena, beronek ingurua Gipuzkoako eta Euskal Herriko gune industrial garrantzitsuena izatera eraman zuen. Hala ere, 1920an egoera ez zen batere ona arma industriari dagokionean eta momentu horretan egin ziren lehenengo kooperatiben ahaleginak Eibarren.

Lehenengo kooperatiba, Danok bat kooperatiba izan zen, eta bere bazkideak sozialistak ziren. Bigarren produkzio industrialeko kooperatiba "Cooperativa de la Pistola Automatica Omega" izan zen, Sindikatu metalurgiko sozialisten laguntzaz sortua. 1933an EIAL, Euzko Izkiluginen Elkar Laguntza- Cooperativa de Armeros Vascos, kooperatiba sortu zen eta nazionalistak sortutako lehen kooperatiba izan zen. Aldiz, Eibarko eta Euskal Herri osoko kooperatiba esperientzia inportanteena Alfa izan zen, hau ere, armen produkzioarako sortua hasiera batean.

Luze iraungo zuen kooperatiba eibartarra 1920an sortu zen Eibarren. Sei hilabeteko greben ondorioz sortu zen, langileek eibartar jubilatutako erositako tailer txiki batean arma motzak ekoizteari ekin zioten. 1925 urtean ekoizpen produktua aldatzea erabaki zuten, armak egiteko josteko makinak egitera pasa ziren.

ALFA, 1920an bizi izan zen krisialdian sortu zen. Krisia zela eta Eibarko armagintza sektorean lan egiten zuten langileak produkzio industrialeko kooperatiba iraultzaile bat sortzeko ideia izan zuten, krisiari aurre egiteko asmoarekin. Kooperatiba honen helburua, inguruko beste enpresak baino prezio eta kalitate hobegoko armak produzitzea zen, eta baita ahalik eta lan baldintza onenak eskaintzea langileari. Kooperatiba honen ezaugarrietako bat sozialistaz osatua dagoela da, izan ere, kooperatibaren partaide izateko derrigorrezko baldintza zen erakunde sozialista baten parte izatea.

2.2. ARRASATEKO KOOPERATIBA ESPERIENTZIA

2.2.1. Sarrera

Arrasate historikoki herri industrializatu bat izan da. Burdinaren eraldaketa, burdinolak edo eta zerrajerak aski ezagunak izan dira tradizio industrialean. Erdi Aroan Toledoko Ezpatak ekoizten zituen, gaur egun, besteak beste, hozkailuak egiten dira. Baina industria horrek forma ezberdinak hartu ditu denboran zehar; XX mende erdialdetik aurrera, ordea, kooperatibak eta

talde kooperatiboak protagonismoa hartu dute, ekonomikoki izan duten garapenari dagokionean, baina baita sozialki izan duten eragin eta indarragatik ere.

Arrasateko Kooperatiba Esperientziak izan duen bilakaera historikoa azalduko dugu ondorengo lerroetan.

Gerra aurreko Arrasaten baldintza ekonomikoak onak baziren ere egoera soziopolitikoak puripuritan zegoen, industrien jabetza pribatua familia gutxi batzuen eskuetan zegoen eta gehiengoak baldintza eskasetan lan egiten zuten langileak osatzen zuen. Ugazaben eta langileen arteko tirabirek osatzen zuten egunerokotasuna, baita, politikan, ezker eskuin, abertzale, ez abertzale artekoek ere. Ez zen giro herrian.

Eliza eta batez ere Union Cerrajera ziren herriko bizitzaren zentro, bertako langileek, etxebizitzak, ekonomatza, haurrentzako eskolak eta gizarte segurantzaren funtzioa betetzen zuten "Caja de Auxilios" bezalako zerbitzuak zituzten⁶. Gainontzekoek aldiz ez zuten ikasteko aukerarik eta premia sozial handian bizi ziren.

Gerra ostean eta pizkundeari lotuta baldintza konkretu eta batez ere On Jose Maria Arizmendiari buruz bisio eta egitekoek Arrasaten izan zuten bere fruiturik emankorra. Gaur egun munduan ezaguna den Arrasateko Kooperatiba Esperientzia, egun MCC izenez ezagutzen duguna.

Jose Maria Arizmendiarieta Madariaga 1915eko apirilaren 14an jaio zen Barinaga auzoko Iturbe baserrian, Markinan (Bizkaia). Lau neba-arrebetatik zaharrena izanda ere, bere oinordekotzari uko egin zion eta apaiz ikasketei ekin zien, hamabi urte zituela. Gaztetandik zetorkion bokazioa: Arizmendiarieta, kooperatiben sortzaile eta pentsalari pertsonalistaz gain, apaiza izan zen batez ere.

Seminario Nagusiko ikasketak amaituta, Gasteizko apezpikuak Arrasateko parrokiara bidali zuten, laguntzaile gisa. Arrasatek, mendeetan burdinaren hirigune izandakoak, garai hartan 8.000 biztanle inguru zituen. Gerraren biolentziak moralki eta ekonomikoki lur jota utzi zuen herria: familia apurtuak, gosea, gorrotoa, langabezia. Herria gerraren irabazleen aldekoen eta



⁶ LANKI, Larritz Altuna. *La experiencia cooperativa de Mondragón una síntesis general*. 2008.

galtzaileen artean apurtua zegoen, zauriak oraindik bizi-bizi zeuden. Egoera horretan zail zeukan Arizmendiarrietak protagonista neutral eta bakezale izatea. Dena den, oztopo ugari aurkitu bazuen ere, gerrak utzitako haustura hori gaindituz elkartze berri baten bidetik jardun zuen bere abade bizitzan zehar.

Pertsonalismoaren ildotik jorratu zuen pertsona eta komunitatearen inguruko pentsamendu osoa. Pertsonaren kontzeptua oinarritzat hartuz (komunitatean integratutako gizakia, ez gizaki isolatua) Arrasateren berpizte ekonomiko, sozial eta morala bultzatzen saiatu zen.

Arrasatera iritsi bezain laster, gazte taldeekin lanean hasi zen Acción Católica elkartearen bitartez. Gazteengan ikusten zuen etorkizun askea lortzeko modua. Horrela, gazteen hezkuntzan eta parte-hartzean ahalegin nabaria egin zuen Arrasaten igarotako lehen urteetan.

Arizmendiarrietaren pentsamendua pentsamendu zabala eta malgua da, bilakaera gaitasun interesgarria agertzen duena. Hainbat iturritatik edan eta pentsamendu praktikoa propioa garatu zuen, ekintzara bideratutako filosofia sendoa. Bere iturri nagusiak ondoren azaltzen ditugunak izan ziren.

Arizmendiarrietaren iturririk garrantzitsuena kristautasuna izan da. Eta horren barruan, gizarte gaiez XX mendean Eliza Katolikoak garatutako Ikasbide Soziala: pertsonaren duintasun sakratuaren aldarrikapena eta horren gauzatze pertsonal eta komunitarioa ardatz nagusi hartzen dituen.

Inspirazio kristauko pentsamendu sozialari loturik, autore pertsonalista frantsesak izan zituen erreferentzia nagusi, Maritain eta Mounier bereziki. Haien bezala, modernitatea krisian ikusten du Arizmendiarrietak eta humanismo integrala edo gizarte pertsonalista irudikatzen du. Pertsona eta komunitatea dira bi iparrak, edo ipar bakarraren bi kontzeptu osagarriak. Arizmendiarieta, ordea, biziki praktikoa da eta gizarte berriaren oinarri ekonomikoak errealitatean gauzatzen saiatzen da: lanaren soberania kapitalaren gainetik, langileen autogestioa, erakunde zehatzak sortzea.

Sozialismoak osatzen duen familia handiaren barnean laborismoa izango da Arizmendiarrietagan kuriositate handiena piztuko duen adarra; J. Ramsey MacDonald, Stafford

Cripps, Attlee edo Leo Blum-en eskutik hainbat ideia jasoko du. Laborismoa sozialismo modurik helduentzat dauka, eta bere ikuspegi kristauarekin bateragarritzat⁷.

Euskal baserri giroko semea da Arizmendiarieta, eta giro horretako ohitura, ikusmolde eta zentzu komunitarioen zordun. Behin baino gehiagotan aipatuko du berak ezagututako 'euskal gizakiaren' izateko modua, lankidetzak behar duen pertsona ereduari lotuta: leialtasuna, lanerako joera, ideia gauzatzeko gaitasuna, askatasun egarria, komunitate zentzua.


Arizmendiarietaren ahaleginak 50. hamarkadan eman zituen bere fruituak: enpresa kooperatiboak eta Eskola Profesionalaren garapen eta finkatzea. Langileen partehartzea bultzatuz, eta beti komunitatearen zerbitzura, enpresetan eredu kooperatiboa txertatu zuen, gaur egun kooperatibismo arizmendiarra deitzen dugunaren eredu.

1955 urtean Arizmendiarietaren gizarte ekintzak goi mailako administrazioan iraultzailatzat hartuak izan ziren eta gogor salatuko zuten. Bestetik, beranduxeago, sektore marxista iraultzaileetatik ere kritikak jasango zituen. Kritiken erdian, baina, gero eta jende gehiago bilduz, berak inspiratutako eraikuntzak aurrera jarraituko zuen Ulgor, Euskadiko Kutxa, Lagun Aro edo Alecop-en fundazioarekin.

Bere ibilbideko emaitza guztietan gizartean eragin handiena izan dutenak enpresa kooperatiboak izan dira. Enpresa antolakuntza honen bitartez Arrasate astindu zuela esan

daiteke: aberastasun soziala eta ekonomikoa uztartu zituen lanaren eta eredu kooperatibistaren bidez. Eredu honen oinarrian bere filosofia pertsonalista sakona zegoen.

1936ko iraila eta 1939ko apirila bitartean gori-gorian bizi izan zen Gerra Zibila Arrasaten. Eskolak erdi hutsik zeuden, batzuek erbestera ihes egin behar izan zuten eta kaleak, plazak eta etxebizitzak tropen esku zeuden. Baina 1939ko apirilean gerra zibila amaitu bazen ere,



⁷ Aipatzekoa da, baita, Eibarko sozialismoarekin izan zuen hartuemana. Eibarko esperientzia kooperatiboa bereziki ALFA enpresa kooperatiboan gauzatu zena- Toribio Etxebarria euskal sozialista historikoak gidatu zuen, eta Arizmendiarietak harreman estua mantendu zuen berarekin (Joxe AZURMENDI, El Hombre Cooperativo, Azatza-Otalora, 1992, 605. orr.).

pobrezia ez zen desagertu, II. Gerra Europarra hasi baitzen urte bereko udan, eta hala ogia, lekaleak eta okela bezalako oinarrizko elikagaien falta sortu zen herrian, Espainia osoan bezala. Sua egiteko egur eta ikatza lortzea ere ez zen batere erraza. Industriak geroz eta pisu handiagoa zuen. Garaiko enpresa garrantzitsuena zen Unión Cerrajera de Mondragon-ek 1939ko irailean Aprendizzen Eskola (Escuela de aprendices) izeneko eskola sortu zuen. Handik bi urtetara iritsi zen On Jose Maria Arizmendiari Arrasateko parrokiara laguntzaile moduan. 26 urte zituen.

Gerraosteko egoera sozio ekonomikoa negargarria zen eta hasi berri zegoen kooperatiba esperientziak ilusio asko piztu zuen. Lan duina, pertsonarekiko errespetua, barne demokrazia, jabetza elkar banatua, soldata onargarria... Protekzionismo (politiko, sindikal, merkatukoa, ekonomikoa) egoera baten garatu zen hasierako enpresa jarduera. Arrakasta izateko aukera handiak zituzten gutxieneko seriotasuna erakusten zuten enpresa proiektu gehienek.

Baldintza horietan sortu eta hasi zen garatzen esperientzia. Gerraostea bizi zuen herriaren beharra ikaragarria zen eta itxaropen eta ilusioen zain zegoen gazteria.

Bestalde, Arrasate bere eskasia ekonomikotik ateratzeko giltzarria gazteen hezkuntzan ikusten zuen. Izan ere, bere iritziz hezkuntza hobetuz bakarrik izango da posible herriaren egitura sozialak aldatzea eta bere etorkizunaren norabidea erabakitzeke aukera lortzea.

Horrela, bada, bere lehen obra garrantzitsua Arrasateko Eskola Profesionala izan zen. Klase pribilegiatuak ez ziren gazteentzako prestakuntza aukerak zabaltzea giltzarria zen beretzat, eta izan zituen oztopoak gaindituz, 1943ko urriaren 10ean inauguratu zen eskola, 20 ikaslarekin. Horietatik hamabik 1952. urtean bukatu zituzten peritu industrial ikasketak. Urte horretatik aurrera ikastetxea hazten joan da etengabe, eta, batez ere, 1968an Ingeniaritza Tekniko Industrialeko eskola izendatu izan zenetik. Eskola Profesionala izango da urteetan zehar kooperatibak elikatu dituen erakundea.


2.2.2. Lanaren uzta: enpresa kooperatiboen garapena

50eko hamarkadan burutu zituen Arizmendiarrietak bere ekintzarik aberats eta garrantzitsuenak. Era berean, garai horretan finkatu eta sendotu zen Eskola Profesionala⁸.

Hamarkada horretako datarik aipagarriena 1956ko apirilaren 14a da. Egun horretan ULGOR enpresaren lehen harria bedeinkatu zuen Arizmendiarrietak San Andres auzoko lurretan. Arizmendiarrietak garatutako ideario kooperatiboa oinarritzat harturiko lehen enpresa handia izan zen ULGOR, gaur *Fagor Elektratresnak* deritzona. Enpresa horren eragina itzela izan zen, eta ondorengo urteetan bere inguruan lantegi ugari eraiki ziren filosofia berarekin. Gaur egun kooperatiba hauetako gehienak Mondragon Corporación Cooperativa (MCC) erakundean biltzen dira.

Nolanahi ere, Arizmendiarrietaren ekarria ez zen izan kooperatibak sortzeko bultzada bakarrik, baizik eta kooperatiben mugimendua artikulatzea sare moduan: dimentsio industrial, hezitzailea, finantzarioa, herriarekiko konpromiso sozialekoa, ikertzailea eta kontsumokoa ere izango zuen sare kooperatiboa bultzatu zuen, horretarako behar diren koordinazio gune eta erakundeak proposatuz.

Unión Cerrajera-ko langile eta zuzendaritzen arteko tentsioa gorantz zihoazen. Langileen artean konformitate eza handia zen, metodo autoritario eta paternalak ez zituzten konpartitzen. 1954 lehen haustura etorriko zen, On Jose Mariaren babesean ASTEC, aholkularitza teknikoa sortu zuten bertako langile batzuk. Inoiz ez zen merkataritza erregistroan erregistratuko baina esperientziaren aitzindariak izango zirenak biltzeko aitzakia izan zen.



⁸ 1943ko ekainean, Eskola Profesionala sortu baino lehentxeago, Soziologia Akademia bat sortuko du, etorkizunari begira garrantzi handikotzat joko duena. Akademia horren helburua Arrasateko gazteen kontzientzia soziala lantzea izango da. Astero antolatzen ziren bilerak eta hainbat ziren jorratutako gaiak. Lehenengo kurtsoan, esaterako, gizarte arazoekin lotutako gaiak aztertzen ziren: kuestio sozialaren historia, bere arrazoiak, jabegoa, kudeaketa eta etekinetan partehartzea, gizarte justizia, lana, duintasuna, soldatak, langileriaren hobetze materiala eta morala,e.a. Aldiz, bigarren kurtsoa gizarte sistemen analisira zuzenduta zegoen: liberalismoa, sozialismoa, korporatibismoa, nazional-sozialismoa eta nazional-sindikalismoa.


Lehen saiakera ez zen azkena izango. Azkenean eta beste bide batzuetatik lortzerik izan ez zutenez. Gasteizen salgai zegoen enpresa bat erosi zuten. Tailer honekin eta batez ere zuen ekoizpen lizentziarekin, 1955eko urriaren 20an protagonistek eurek izendatu zuten *Arrasateko Kooperatiba Esperientzia*. Urtebete beranduago, Arabako lautada utzi eta Arrasaten eraiki zuten lantegia.

Horrela sortu zen Ulgor (gaur egungo Fagor Etxetresnak), Zerrajera utzi zuten bost gazteen abizenetatik sortu zen izena eta euren kementetik izana. L. Usatorre, J. Larrañaga, A. Gorroñogoitia, J.M Ormaetxea eta J. Ortubai ziren gazte haiek. Enpresa kolektibo eta demokratikoa nahi bazuten ere orduko egitura juridikoek ez zuten horretarako aukerarik eskaintzen. Hiru urte baino gehiagoko ibilbidea behar izan zuten, kooperatiba gisa euren egitura legeztatzeko, azkenean 1956ko azaroaren 2an onartu ziren kooperatibaren estatutuak.

1956an jadanik Ulgorrek oso ekoizpen dibertsifikatua zuen, petrolioizko berogailua, DKV furgonetarentzat txapazko xafla eta arandelak⁹ ... 1958an etxetresnen sektoreaz gain, elektronika, fundizioa eta automozioan ere jarduten zuten. Era berean, langile kopuruak gora egin zuen: 1956an 24 bazkide izatetik 1960an 228 izatera pasa ziren. Urte bereko salmentak 114 milioi pezetatakoak izan zirelarik. Hazkuntzaren arrazoi garbi bat orduko ekonomia autarkikoa zen, ekoizten zen guztia saltzeko aukera zegoen.

Petrolioizko eta gas butanoko sukaldeak ekoizteari utzi gabe ere, 1963an hozkailuak ekoizteari ekin zioten, horretarako orduko Talleres Arrasatekin (gaur egungo Fagor Arrasate) elkarlanean aritu ziren. Baita lizentzia bidez Italiako etxetresna enpresa batzuekin ere.

Ulgorreko lehen urteak ez ziren oinarritzkoak izan soilik aspektu ekonomikoari dagokionean, berebiziko garrantzia izan zuen balore eta egite kooperatiboak abian jartzeko ere. Beraz, Ulgor beste kooperatiben umetoki izan zela esan daiteke, bertako langile eta diru fondoak jarri zituzten Lan Aurrezki kutxa (gaur egungo Euskadiko Kutxa), Eskola Profesionala (gaur egungo Mondragon Unibertsitateko GEP) eta Lagun Aro. Baita Ikerlan teknologi zentroa ere.



⁹ LANKI, Larraitz Altuna. La experiencia cooperativa de Mondragón una síntesis general. 2008.


Orduko kooperatiben elkartasuna Ularco taldearen eratzean gorpuztu zen 1964an. Ordurako, Lankide Aurrezkiak laguntza finantzario eta ekonomikoa bermatzen zuen eta kooperatiben arteko elkarlana geroz eta estuagoa zen. Horrela *Ularco Complejo Industrial Cooperativo* izenaz eratuak taldeak 1962 urte arte bitartean sortu ziren kooperatiba industrialak bateratzeaz gain enpresa arloa eta soziala sendotzea zuen helburu. Taldeko kooperatibek autonomia apur bat galduko bazuten ere, abantailak ugariak izango ziren. Interdependentzian oinarrituko ziren printzipio eta baloreak.

Enbrioi eta hastapen haietatik orain ezagutzen dugun MCC sortu zela esan dezakegu, maila apalagoan baina helburu berdinekin. Esperientzia hasi berriak asko zuen eskaini eta betetzeko: soldata duina, pertsonarekiko errespetua, barne demokrazia, jabetza kolektiboa. On Jose Mariak behin da berriz errepikatutako "estruktura aldaketek" forma hartzen ziharduten, bere hitz eta ekintzek gizartearen babesa zuten errealitate bihurtzen ziren heinean.

Arizmendiarretak finantziazioan laguntzeko erakundea bultzatzea proposatu zuen. Horrela, 1959an Euskadiko Kutxa ireki zuten. Berarekin batera, gaur egun Lagun-Aro deritzan Gizarte Aurreikuspeneko Entitatea. Gaur egungo gure ikuspegitik ezingo genuke AKE bere finantza talderik gabe ulertu. Halere, eta ia mende erdi atzera eginda, orduko intuizio berezi batek bakarrik asma zezakeen banku baten beharra.

Sortu berria zen Lan Aurrezkiaren (Caja Laboral) lehen egitekoa Gizarte Aurreikuspeneko Entitatea (Servicio de Provision Social) izeneko laguntza sortzea izan zen. Gaur egun Lagun Aro izenaz ezagutzen dugun zerbitzuaren sorrera 1967ko urtarrilaren 1ean gertatu zen, ordura arte kooperatibetako bazkideak medikuaren asistentzia izateko kartilaren bidez konpontzen ziren.

Egiteko honetan ezinbestekoa izan zen taldearen inplikazioa. 10 urtetan %71.6 haziko zen Lan Aurrezki Kutxa batz bestea¹⁰. Horretarako Kutxari elkartuta zeudenek era askotara lagundu behar izan zuten: sorreran parte hartuz, zuzendari baliagarriak utziz, ratio egokiak mantentzitan kapitala jarritz, euren entitate finantzario bakarra izan zedin onartuz. 20 urtetan



¹⁰ LANKI, Larraitz Altuna. La experiencia cooperativa de Mondragón una síntesis general. 2008.

kooperatiba bakoitzaren kapital sozialaren %25arekin abalatu (bermatu) zituzten Lan Aurrezkiak egiten zituen operazioak.

Euskadiko Kutxaren garapen ekonomikoak Kooperatiba Taldearen (Complejo Cooperativo) kohesioa ere ekarri zuen. Aurretik formula hau martxan bazen ere, formalki 1976ko uztailan onartu zen.

Gizarte proiektu bat aurrera ateratzeko ezinbestekoa jotzen zuen Arizmendiarrietak kanpoarekiko irekita egotea eta uneoro ikasten jardutea. Kooperatibak horretara bultzatu zituen behin eta berriz. Ideia horretan oinarrituz sustatu zituen ikerkuntza zentroak. Dena den, ezin izan zuen bere ideia martxan ikusi, Ikerlan, kooperatiben lehen ikerketa zentroa, bere heriotzaren ondoren sortu baitzen.

1966tik aurrera Eskolak berezko ikerkuntza zentro baten beharraz jabetuta, lehendabiziko ikerketak sustatzen hasiko da. 1968an Ikerkuntza departamentua sortu zen, eskolako irakasleek osatzen zutena, Ikerlan. 1982az geroztik Ikerlan Ikerkuntza arloko bigarren mailako kooperatiba moduan jardun du; gaur egun Europa mailako ikerkuntza enpresa onenen artean dago.

Kontsumo-kooperatiben formula ere laster bildu zen Arrasateko kooperatiba mugimendura. 1958. urtean, San José Kontsumo Kooperatiba martxan jarri zuten Arrasaten, industri kooperatibak lanarekin egiten zuten moduan, kontsumoa ere kooperatibizatu nahian. Honen atzetik beste kontsumo kooperatibak sortuz joango dira: "La Gernikesa", "La Zornozana", ... Hasierako kontsumo kooperatiba horiek izaera lokalekoak ziren, eta kontsumitzaileen aldetik kontrol handia zegoen: kontsumitzaileek aukeratzen zituzten Kontseilu Errektoreko ordezkariak.

Urteekin Deba Garaiko kontsumo kooperatibak elkartzen joango dira, 1969an Comercio taldea osatuz, hurrengo urtean Eroski izena hartu zuen kooperatiba. 9 Kooperatiben elkartetik jaiotako Eroski, sektore berri batean sartzea suposatzeaz gain eraberritze eta malgutasun handia eskatu zuen, isolatutako eta norabide zehatzik gabeko enpresa ezberdinak elkartzea eta aurrera ateratzea ez baitzen izan lan erreza. Urteekin ordea guzti horretarako gaitasuna erakutsi egin du, MCCren baitan pisu handiko enpresa bihurtu arte. Banaketa enpresa denez, beren erosketa ahalmena handitu nahian, penintsulako beste banaketa zentro batzuekin elkartzen joan dira, eta gaur egun Estatu osoan zabaldu du salmenta puntuen sarea. Egun estatu mailako banaketa talderik handiena da.

70. hamarkadan Espainiar estatuak erregimen frankistaren gainbehera eta amaiera bizi izan zituen. 1975ko Franco jeneralaren heriotza mugarriz izango zen, bere aldekoen indarrak ahultzen hasi ziren eta oposizioak bultzada bat hartuko zuen.

Oposizioak eta erregimenaren aldekoek aurrez adostutako erreforma martxan jartzeko 1977ko ekainean egin ziren lehen hauteskunde demokratikoak deiturikoak. Era berean sindikatu eta partidu politikoen legeztatzea etorri zen.

Eztabaida luzeen ostean espainiar Konstituzioa adostu zen. Azkenik, 1978 urtean onartu zen abenduak 6an egindako erreferendumaren bidez. 1979 urtean Euskal Autonomi Elkartean Autonomiarako Estatutua bozkatu zen, eta 1980.an legebiltzarrerako lehen hauteskundetan Eusko Alderdi Jeltzaleak (EAJ) alderdiak izango zuen gehiengoa, Garaikoetxea gerraosteko lehen Lehendakaria izango zelarik.

Panorama berrian gizarte gaietan instituzio publikoen esku-hartzea handia izan zen aurretik bizitako garaiekin alderatuta. Esku-hartze horrek gizarte mugimenduen indarra murriztu zuen. Elkar laguntza eta autogestio sareen beharra murriztu zuen nolabait eta ondorioz komunitatearen lana gutxitu egin zen. Bestalde, kooperatiben beharrak ere indarra galdu zuen. Gerra garaian behar sozial eta materialak agerikoak ziren eta garai berrian kooperatibek sortutako aberastasunak berak behar horiek erantzunda zituen maila baten behintzat, maila materialean bereziki.

Arizmendarreta 1976ko azaroaren 29an hil zen, bere pentsamenduaren eta lanaren isla ziren kooperatibak martxan zirela. Askorentzat trantsizio garai horretako gertaerarik tristeena izan zen, eta askoren iritzitan ere ordura arte gidari espirituala izan zenaren desagertzea suposatu zuen.

Testuinguru ekonomikoan 1973an hasitako petrolioaren prezio igoerak honekin lotutako produktuen igoera eutsiezina suposatu zuen. Espainiar estatuan pezetak 1967an izandako debaluazioak egoera larriagotu zuen eta depresio ekonomikoan murgildu zen inflazioak gora egiten zuen bitartean. Langabeziak gora egin zuen etengabe, jarduera ekonomikoa gelditzen ari zen, atzerriarekiko zorpetze handia zegoen, egitura ekonomikoetan gabedia handiak sortu ziren.

Guzti horrek Arrasate Kooperatiba Taldean ere izan zuen eraginik. Euskal Autonomi Erkidegoan %25eko langabezia maila zegoen, 250.000 pertsona zeuden langabetu egoeran. Kooperatibak ere kaltetu zituen krisiak, egoera larria bizi izan arren ez zituzten lanpostuak galdu. Alderantziz, 1976 eta 1986 urte bitartean 4200 postu sortu ziren kooperatibatan, Autonomi Erkidegoan aldiz, 150.000 galdu ziren. Era berean elkartasunerako tresnak izango zirenak sortu zituzten.

Hasiera baten kooperatibek ez zuten beraien arteko lotura zuzenik; estatutu, funtzionamendu eta finantza iturri berak zituzten, guztiek Euskadiko Kutxaren Batzar Orokorrean parte hartzen zuten. Beraz, lokarria Euskadiko Kutxa zela esan daiteke. Kooperatiba bakoitza autonomia

bazen ere, finantza eta arlo tekniko zein sozialetakoak ziren beharrak Euskadiko Kutzaren bidez asetzen zituzten.

1964tik aurrera ordea, kooperatiba gehiago sortuz joan ziren heinean, eskualdekako antolaketari ekin zitzaion. Merkatu autarkikotik merkatu zabalago batera igarotzean biziagotu zen lehiakortasunari aurre egiteko eta bizi izandako krisi finantzarioaren ondorioz, indarrak biltzeko beharra ikusi zuten. Kooperatiba taldeak inguruko aldaketetara moldatzeko gaitasun handia erakutsi zuen, eta etengabeko hazkuntza fasea bizi izan zuen hasierako urte horietan.

73ko krisialdiaren ostean, egituraketa juridiko berria errealitate bat zen: eskualdeko taldeak osatzeaz gain hauen talde izaera sendotzen joan zen.

Antolaketa berri honek kooperatiben arteko elkartasunean (enpresen arteko elkartasuna, Lagun Aroren prestazioak, Euskadiko kutxaren laguntzak...) eta komunitatearekiko zerbitzuan sakontzea lagundu zuela esan daiteke. Eskualdeko taldeek barne kohesioa indartu zuten eta garaiko testuinguruak eskatzen zuen berrantolaketak ekarri zituen koste sozialak lausotu eta gainditzen laguntzeko tresna izan ziren. Taldeetako kooperatibak inter-kooperazioaren printzipioa praktikara eramanez, euren baliabide ekonomiko eta pertsonalak partekatzen hasi ziren.

Eskualdeko taldeen gailentzearekin, Euskadiko Kutxak bere jarduera finantza arlora mugatu zuen, baina berrantolaketa prozesuan paper garrantzitsu eta pisuduna eduki zuela ezin da ukatu, batez ere laguntza ekonomikoa eta teknikoa eskaini zituelako eta nolabait erabakigune zentrala izan zelako. Gainera kooperatibak, salmenten gaineko galerak izan zituen arren, krisialdiari era solidarioan aurre egiteko gai zela erakutsi zuen, 1976tik 1986ra lanpostuak sortu eta EAEko batuz bestekotik gorago zegoen hazkuntza ekonomikoa bizi izan baitzuen.

1987an, Kooperatiben kongresuan parte hartzen zuten enpresak antolatzeko lehendabiziko gainegitura sortu zen: *Eskualdekako taldeen koordinaziorako plataforma*. Hala ere, gainegitura hau ez zen antolaketaren oinarri bilakatu. Azkenik, 1991ean Kooperatiben egitura berrikusi zen Kooperatiben 3. Kongresuan, eta enpresa taldearen izaera juridikoa Arrasateko Kooperatiba Taldetik Mondragòn Corporación Cooperativa izatera pasatu zen.

Geroago erabakiko da sektoreen araberako egituratzera igarotzea. Egituratze berri honek lehiakortasuna handitzea eta arrakasta ekonomikoa ekarri zuen, baina komunikaziorako gune naturalak eta ordura arteko elkartasun lokarriak apurtu zituela esan dezakegu: egitura handiago eta konplexuagoak nagusitzean gertutasun eta atxikimendu sentimenduak ere ahulduko dira pixkanaka, inplikazio eta parte-hartzerako bidea zailduz.

90. hamarkada horretan inguru eta estrategia ekonomikoan egondako aldaketaz gain, AKE testuinguru ideologiko eta soziologiko ezberdin batean kokatu zela esan dezakegu beraz. AKEk berak sortutako lanpostu eta aberastasunak eraginda, beharizanen kooperatiba izatetik ugaritasunaren kooperatiba izatera pasako da, ugaritasun eta kontsumo gizartearen elementu eta faktore bultzatzailea bihurtuz.


AKE-ren ibilbidean eragin duten klabeak bederatzi izan dira¹¹:

Arizmendiarretaren lidergoa. Sortzeko eta etorkizuna irudikatzeko gaitasuna izan zuen, kooperatiba ugariren sorkuntzan eskuartuz. Kontzientziak mobilizatzeko eta pertsonak konprometitzeko gaitasuna zeukan. Eta bere bizitza gizarte konpromisoan oinarrituriko testigantza bat izan zen. Eta bere ezaugarri nagusiekin amaitzeko ezin aipatu gabe utzi, hezkuntza ereiten egindako lan garrantzitsua.

Autarkia ekonomikoa eta hedakuntza. Bigarren klabea dugu gerraosteko egoera bera; produktu ugariren beharra zegoen eta honek zekarren ekonomia hedakuntza prozesua bizi izaten egotea. Lehiakortasun maila baxua izateak merkatuko sarbide errazten zuen. Eta autarkiak kanpoko produktuentzat mugak itxita izatea suposatzen zuen, honek ere enpresen indartzea erraztuz.

Kode moral zorrotza. Lan munduaren duintasunarekin bat zetorren enpresa eredua sortzea zen sorrerako definizioa. Indarrean zeuden baloreak: lana, elkartasuna, austetirate instituzionala eta emaitza kolektibo eta indibidualen arteko oreka ziren. Eta klabe honetan pisua zeukana zen baita hitzen eta ekintzen arteko koherentzia. Eredugarritasunean oinarritutako bizitzak ziren esperientziaren bultzatzaileek izan zituztenak.

Esperientziaren jatorriko baloreetan oinarrituriko araudia. Baloreak estatutu eta egitura operatibotara eramango dituzte. Kooperatiben arlo instituzional, sozial eta enpresariala oinarritzko arauen gainean eraikiko dute. Esaldi batean esateko baloreek efikazia operatiboa eskuratuko dute.



¹¹ LANKI, Larraitz Altuna. *La experiencia cooperativa de Mondragón una síntesis general*. 2008.

Enpresa efizientzia. Garbi zeukaten biziraupenerako aurreneko baldintza autofinantziaziorako etekinak lortzea zela. Gainontzeko asmo sozioekonomikotarako oinarria izango da enpresa efizientzia. Baina ez dago kontraesanik; ez da bata edo bestea. Baloreak eta enpresa efizientziak kausa harremana dute. Orekaren nozioa.

Izaera pertsonalista. Sistemaren esentzia: langile eta enpresari izaera bikoitza izatea izango da. Lanak du soberania eta bazkide izaeran gorpuzten da. Kapitalaren eta lanaren arteko harremanean hiru galdera daude argi: norena da enpresa? nori agintzen du? nola banatzen dira emaitzak?. Kapitalak beraz, izaera instrumentala dauka. Bazkidearen kapitalak eskuragarritasun mugatua du: eskubide kolektiboak bermatu behar ditu. Kapital ekarpenak bi funtzio nagusi ditu betetzeko: autofinantziazioa eta bazkidearen inplikazioa enpresaren martxan. Kontsumo pribatua eta inbertsio komunitarioaren arteko dialektika emango da. Eta eskubide kolektiboa lehenesten da, individuala automatikoki azaleratzen delako. Kapitalaren izaera instrumentalak bermatzen dituen beste bi ezaugarriak sustraitzea eta independentzia izango dira.

Taldekatzea eta lankidetzaren tresnak. Kooperatiben arteko taldekatze eta lankidetzaren tresnak, elkartasun printzipioen adierazpide dira. Kooperatiben arteko elkartasuna instituzionalizatuko da beharrei modu bateratuan erantzuteko. Merkatua konplexuago bihurtzen ari zen heinean, lan sarea osatu zen merkatuan lehiakorragoak izateko. Honekin kooperatiben arteko homogenizazio eta bateratzea ahalbidetuko da. Adierazpide ditugu: Euskadiko Kutxa, Lagun Aro, Eroski taldea, eta aurrera eraman zen taldekatze prozesua (Ularco taldea, gainerako taldeak, Mondragon ...). Lortu izan dena besteak beste izan da, sinergia eta eskala ekonomiak, Marka irudia, ikerketa eta garapenerako baliabideak, sare komertzial komuna. Tresnen artean daude: emaitzen birmoldaketa, birkokapena, Euskadiko Kutzaren laguntza finantzarioa, dibisio enpresarialaren eskuartzea eta kooperatiben arteko fondoak.

Partehartzea. Partehartze kooperatiboa ulertu izan da bizitza kooperatiboan eragiteko gaitasun eta borondate moduan. Bi arlotan bereiztu daiteke partehartzea: instituzionala eta laneko partehartzea. Partehartze instituzionala da oinarrizko eskubide instituzional eta politikoen adierazpena. Demokrazia errealak exijentzia behar du izan, diferentzia eta gehiengoaren borondatea onartzea eskatzen duelako, sistema kuestionatu gabe. Eta bere indar edo ahulezia prozeduraren sinisgarritasunean datza. Laneko partehartzearen arloan, eguneroko lana demokratizatzeko zailtasun historikoak egon dira. Kudeaketa eta ekoizpen metodo berrien arabera garatu dira lan molde partehartzaileak eta garapen maila desberdinak egon dira talde kooperatiboaren baitan. Borondatea beharrezkoa da bai erakundearen aldetik eta baita kolektiboaren aldetik ere. Definizio bateratuaren beharra dago interpretazio desberdinak ekiditeko.

Etengabeko bilakaeran murgilduriko prozesua. Arrasateko Kooperatiba Esperientzia prozesu irekia da. Formula kooperatiboa irekia da. Ez du dogmatismoa abiapuntua: printzipio eta baloreak elikatu eta eguneratu beharra dago. Egitasmoa kolektiboa da eta bertakotasun sentimendua elikatu beharra dago partehartze erreala bultzatuz maila guztietan.

Hauek izan dira azken berrogehitamar urtetan AKERen ibilbideak izan dituen klabe nagusiak. Era berean, MCCren politika edo ildoak jatorrizko eraldaketa proiektutik urruntzen joango dira. Merkatuaren erritmora egokitzeko saiakeran eta nazioarteratze eta hazkuntza ekonomikoaren mesedetan, gizarte erantzukizuna eta komunitatearekiko zerbitzu izpiritua ahuldu egin direla. Enpresa kooperatibo eta kapitalistaren arteko nolabaiteko homogenizazio prozesua martxan jarri zela esan daiteke, horren adibide garbia kooperatibetan indarrez sartu den management berria edo enpresa post-tayloristaren diskurtsoa dugu.

Arrasateko esperientzia lan komunitate izatetik antolaketa sare konplexu izatera igaro da; hala ere, Kooperatiba arteko *Elkar-laguntzarako Baltzu Zentrala* eta *Kooperatiben arteko Hezkuntza eta Sustapeneko Baltzuari* esker zenbait gizarte ekintza sustatzen dira: Hezkuntza kooperatiboko ekintzei, teknologia proiektuei etab. diru-laguntzak eta laguntza teknikoa (2003.urtean 6,1 milioi eurotan), kooperatiben indartzea bultzatzeko diru-laguntzak ...

Gainera, beste gaiekiko konpromisoak ere hartu izan dira azken urteotan: langileen asebetetzea, unibertsitatearen garapena, ingurumena, euskara planak enpresetan ... Gizarte eraldaketak ordea, AKERen puntu ahula izaten jarraitzen duela esan dezakegu. Azken urteetan martxan jarri diren mekanismoak asistentzialismo kutsua baino ez dute, eta gai garrantzitsu asko ez dira behar bezain beste landu (etxebizitza, emakumea ...).

2.2.3. Gaurko errealitatea

Arrasateko Kooperatiba Esperientzia gaur, Euskal Autonomia Erkidegoko lehen talde industrialia da, bai salmentei dagokionez eta bai langile kopuruari dagokionez ere; zazpigarrena estatu Espainiarrean, salmentei dagokionez¹². Honetaz gain nazioarte mailan aztertua izaten den mugimendu kooperatibo garrantzitsuena ere.



¹² LANKI, Larraitz Altuna. *La experiencia cooperativa de Mondragón una síntesis general*. 2008.

Jarduera desberdinak burutzen dituzten enpresez osatutako errealitate sozio-ekonomiko bat da. Arrasateko Kooperatiba Esperientziak bere baitan ditu kreditu kooperatiba bat, aurreikuspen sozialeko mutua bat, industri eta banaketa enpresa talde bat eta baita Unibertsitate kooperatibo bat ere. Gaur egun mugimendua osatzen duten sozietate gehienak kooperatiba dira nahiz eta badauden fundazio, sozietate anonimo eta erantzukizun mugatukoak ere. Eta Esperientziaren nazioarteko hedapenaren ondorioz, sozietate anonimoak gehitzen ari dira.

Arrasateko Taldea osatzen duten kooperatiba batzuk euren jarduera esparrutan posizio garrantzitsuak betetzen dituzte, Fagor Etxetresnak esate baterako. Hala ere taldea osatzen dutenen artean badira enpresa ertain eta txikiak ere.

Korporazioa osatzen duten oinarriko kooperatibak izaera sektorialeko Dibisiotan daude banatuta. Dibisio hauek merkatuari begira hiru Talde handitan sailkatzen dira: Finantza Taldea, Industria Taldea eta Banaketa eta hauekin batera Ezagutza arloa. Finantza arloan izen bera daraman Dibisioan sartzen da eta banka, aseguruak eta aurreikuspen sozialeko jarduerak ditu bere barnean. Industria arloa ehunka enpresak osatzen dute, izaera sektorialeko hamabi Dibisiotan banatuta. Banaketa arloa Dibisio bakarrak osatzen du eta banaketa komertzialak eta jarduera agroalimentarioak osatzen dute. Ezagutza arloan bi erakunderen lana azpimarratu beharra dago: Hezibide eta Gizabidea fundazioa.

2006an MCCko salmentak 13.390 eurotakoak izan zen eta hauetatik % 29,09a kanpo merkatuan sortuak izan ziren. Lagun Aroren emaitzak kontutan hartu barik, emaitzak 2006an 677 milioi eurotakoak izan ziren. MCC-ren Azterketa Ekonomikorako Unitateak eginiko txostenean Euskal Komunitatea Autonomoan izandako eragin sozio-ekonomikoa, Barne Produktu Gordinaren- % 4.1koa izan zen eta % 8.5koa industria arloan. Gipuzkoan tasa igo egiten da % 16.1era. Korporazioak burututako esportazioak 2006an % 13.2koak izan ziren.

Gaur Arrasateko Kooperatiba Esperientzia eta ondorioz, euskal kooperatibismoa mundu mailan erreferente direla esan daiteke. Muskulu ekonomikoa garatzearen ondorioz, enpresa kooperatibo errentagarriak egin ditugu. Enpresa bideragarriak dira eta enplegu asko sortu dute; bai Euskal Herrian eta baita munduko hainbat herrialdetan ere. Euskal Kooperatibismoaren erreferentzialtasuna baliatuz luzatuko ditugu beraz, geroago etorriko diren proposamen eta ekarpenak. Ezin da aipatu gabe utzi, muskulu ekonomikoa garatzen lan asko egin den bitartean soziala izan dela zaindu eta garatu gabe geratu dena eta hemen dagoela orain esperientziak duen erronka nagusia.

Esperientzia partekatzea


Arrasateko kooperatibismoari buruz bada kanpotarrentzat deigarri den zerbait, hain zuzen ere, bere burua “esperientziatzat” duela ikustea. Hitz adierazgarria da, munduan eta historian bere burua nola ikusten duen adierazten baita. Arrasateko kooperatibek esperientziatzat dute beren burua. Kontzeptu horrek saioaren eta ibilbidearen zentzua du, maila batean bederen. Arrasate giza geografia zehatz baten saioa eta ibilbidea da, eta orobat, sistema sozioekonomikoen bilakaerari egindako ekarpena. Zer egiten da esperientzia baten barnean? Bizi, hobetu. Zer egiten da esperientzia baten kanpoan? Partekatu¹³.

Arrasateko oinarrizko printzipioetan aipatzen da euskal izaera erroturik dagoela esperientzian, eta bestetik, mundu mailan izpiritu berarekin diharduten beste batzuegana zabaltzeko asmoa duela. Oinarrizko bederatzigarren printzipioak ez du, ordea, unibertsalera zabaltzeko asmo hori enpresaren alorreko hedapen zentzuan aipatzen, antzeko ideiak eta balioak bultzatzen dituzten beste eragile batzuekiko bokazio solidarioaren zentzuan baizik.

Esperientzia partekatzeko bulkada hori, ordea, ez da esperientziaren indargune izan (beste esperientzia eraldatzaileetatik ikasi eta norberarenak besteen esku jartzeko zentzu bikoitzean hartuta). Kooperatiba zabaltzeko politikaren oinarri izan da Otalora zentrorra sar zitezkeenei erantzutea eta kostuak ordaintzea, eta ez printzipioak definitzen duen profilarekin bat egiten dutenekin esperientzia partekatzeko politika proaktiboa. Bestalde, Mundukide fundazioak bere gain hartu du esperientzia partekatzeko ideia hori, nolabait, eta hegoaldeko herri kooperatiba txikiak izan dira bere lanaren ardatz.

Horrela, galdera bat sortzen da: zein eragilek aterako diote etekin gehien Arrasateko esperientziari gaur egungo munduan? Zein talde eta esperientziarekin partekatu lehentasunez eta era aktiboan euskal esperientzia hori? Horri erantzuteko, ordea, munduaren bilakaerari buruzko irakurketa konplexua egin behar da, eta ondo ezagutu behar da non sortzen ari diren alternatiba eta esperientzia eraldatzaileak.

Esperientzia enpresaren munduko eragileen, gobernuetako eragileen, federazioen eta kooperatiben erakunde ofizialen artean zabaltzeko arriskua dago, hau da, bisitak egiteko eta



¹³ LANKI, Larraitz Altuna. *La experiencia cooperativa de Mondragón una síntesis general*. 2008.

errepikatzen funtsak dituzten eragileen artean zabaltzekoa –eta huts hori hainbat hamarraldiz egin da–, eta eragin eraldatzailerik ez edukitzea izan da horren emaitza. Geruza pobreenei begiratzeko saio horretan bada, halaber, beste arrisku bat, alegia laguntzazko lankidetzaren burutzearena, epe laburrean ezin barneratu diren gakoak emanaz. Giltzarri horiek ezin dira epe laburrean gauzatu, estadio kultural eta motor ideologiko eraldatzaile jakin bat behar delako proposamenari oro har etekina aterako bazaio.

Edonola ere, Arrasateko esperientziak bidezko giltzarriak eskaini ditzake hainbat gunetan. Arrasate, funtsean, garapen komunitarioko esperientzia izan da, autogestioaren bidetik garatu dena. Hasi berri den mendean, garrantzizko hainbat eragile daude bide horretan lanean. Eragile horietako batzuk proposamen eta jardun sozioekonomiko alternatiboak eta enpresa-ezagutza kooperatibo eskaseko gizarte-mugimendu handiak dira (esate baterako, Brasilgo MSTk milioi pertsona ingururen bizitza antolatzen du). Modu zabalagoan, “ekonomia solidario” deiturikoaren eta nahiko ondo definitutakoaren mundua ehunka milaka ekintzaz osatutako uhartedia da. Bertan, gizarte-enpresa aukera zabala dago, besteak beste, bertako emakumeen artisau-sare txikiak eta mundu osoko industria kaudimendunak. Ekonomia solidarioa gizatiartzearen eremuko errealitate zabala da mundu osoan, planetaren hegoaldean bereziki.

Horietako askorentzat ‘Arrasate’ erreferentzia distiratsua da, lausoa, kontraesanduna, hotza... eta erakargarria. Baina, zer ekarpen egiten die Arrasateko kooperatibismoak autogestioaren sena duen ekonomia gizatiartzailean jardun nahi duten esperientzia horiei?

Euskal kooperatibek bost hamarraldiko esperientzia dute, eta denbora horretan, denetarik izan da: ideia onak, arazoak eta paradoxak. Arrasateko esperientziaren antzeko esperientzia eraldatzaileak, globaltasunaren une konplexu honetan, argi mugatuak dira, kontraesanez beteak, partzialak, alternatiba txikien argi bihur daitezkeenak. Arrasate eraginkortasun enpresarialeko esperientzia izan da, kooperatibaren izaeraduna, eta hainbat ideia praktiko ditu, ekonomia solidarioa izeneko uhartedi horretako eragileekin partekatzea merezi izan dutenak. Leire Uriartek garrantzizko argibideak ematen ditu harreman horri buruz egindako ikerketan.

Hasteko, mezu hau igortzen du: esperientziak adierazten du autogestioa egokia dela gizakiaren duintasunerako, eta gaur egungo merkatuan erakunde autogestionatu eraginkorrak eta indartsuak sor daitezkeela. Mende Erdiko ibilbide horrek erakusten du, merkatu kapitalistako sisteman jarduteak muga eta baldintza ugari ekartzen baditu ere, posible dela demokratikoa eta aldi berean eraginkorra izatea, eta halaber erakusten du zeregin zaila dela eta estuasun asko gainditu behar direla, baina posible dela, alegia, enpresa kapitalista onenak bezain lehiakorrak izan daitezkeen enpresak sor daitezkeela langileen subiranotasunean oinarrituta. Kooperatibismo gogorak funtzionatzen duela, eta indartsua izan daitekeela. Eta hori guztia egin daitekeela komunitatearekiko gizarte-konpromisoa edukita eta kooperatiben arteko kooperazio-sarean elkarri laguntzeko konpromisoari eutsiz gero.

Esperientziak partekatzeko zeregin horretan garrantzizkoa da, halaber, Arrasateko esperientziaren mugak eta hutsuneak zehaztea. Arrasatek autogestioaren esperientzia ekartzen du, baina ez du erantzun praktikorik gaur egungo beste erronka etikoei dagokienez, esate baterako garapen globaleko ereduaren iraunkortasunari dagokionez. Kontraesanak sortzen dira, halaber, printzipio batzuk betetzeko orduan (behin-behinekotasun tasak, nazioartekotzeko moduak...), eta garrantzizko hutsuneak aurkitu dira (hezkuntza kooperatiboa, esate baterako); dena dela, horiek konpontzeko ahalegina egiten ari dira. Horrek guztiak erakusten du esperientzia dinamikoa, konplexua eta paradoxikoa dela, zenbait alderdiri dagokionez. Laburbilduz, esperientzia bizia eta zaila dela.

Arrasate ez da imitatu beharreko eredu bat. Erreferentzia izan daiteke, bere ideia praktikoko batzuetan oinarrituta saioak egiteko erreferentzia alegia. Mugimendu bakoitzak bere bide autogestionatuei heldu behar die, bere historian eta giza geografian txertatuta betiere. Arrasate euskal komunitatearen ziguilarekin sortu zen, berezko ezaugarri historikoekin, baldintzekin eta gizarte-psikologiarekin. Edonola ere, interesgarria da Arrasateko arazoak ezagutzea, eta interesgarria da, halaber, Arrasaten zerk funtzionatu duen eta zein giltzarri izan dituen ezagutzea. Arrasateko esperientzia munduaren hegoaldeko ekonomia solidarioaren eremuan diharduten eragileekin partekatzeko ibilbide horretan, 2000ko hamarraldi ia osoan egindako lanak hainbat argibide ematen dizkigu: Arrasaten garrantzizko hainbat osagai daude ekonomia solidarioko esperientzientzat erreferentzia izan daitezkeenak. Aipa ditzagun horietako zortzi, esaldi bakar batez.

(1) Hezkuntza-estrategia garrantzizko ideia da, eta ideia nagusi bat azpimarratzen du, alegia, kooperatibismo eraldatzailea elikatu egin behar dela bere funtsaren elikagai izango den hezkuntza etiko-soziopolitiko eta teknikoaz. (2) Erdigunean eraginkortasuna jartzea ekonomia solidarioko ekintza ez oso zorrotzei kargu hartzeko modua izan daiteke. (3) Lanaren subiranotasunak eta langileak kooperatibako kide bihurtzeko formula juridikoek -baita beste talde batzuk kide izanda ere (nekazariak, kontsumitzaileak, erabiltzaileak...)- kooperatiben ikusmoldearen zenbait muga desblokeatzeko balio dezakete. (4) Interkooperazioa funtsezkoa da, eta euskal kooperatibak sare-formulei eta elkarri laguntzeko formulei esker garatu dira. Formula horietako batzuk erreferentziazkoak izan daitezke ekonomia solidarioan eskualdeko edo sektoreko taldeak sortzeko.

(5) Arrasateko ikuspegi praktikoa hainbat premiari erantzungo dioten egitura autoeraginkorrak sortzea izan da (ekoizpena, mailegua, gizarte-segurantza, hezkuntza, ikerketa teknologikoa...); era horretara, eremu bakoitzean kooperatiba autonomoak eraiki dira, talde osoari lotuak. (6) Eskualdeko komunitatearekiko gizarte-konpromisoa da, bestalde, kooperatiba eraldaketa-proiektu baterantz bideratuko dela ziurtatzeko lotura. (7) Parte-hartzearen dimentsio bikoitza, bai gizartearen egituraren (erakundearen edo politikaren parte-hartzea kooperatibaren

subiranotasunean) bai teknoegituran (lan-prozesuan parte hartzea), parte-hartze eraginkorraren erronkari erantzuteko modua da. (8) Azkenik, Arrasateko kooperatibek gestiorako tresna gisa zein tresna sozial gisa plangintza erabili izan dute (urteko gestio-plana eta plan estrategikoa). Plangintza, halaber, ezinbesteko osagaia da kooperatiben metabolismo sozial eta teknikorako. Ideia horiek eta beste batzuk dira Arrasateko beste latitude batzuetako kooperatibismo eta ekonomia solidarioko esperientziei egin diezaieken ekarpena, hainbat hamarralditako praktika eta hobekuntza direlarik horietako bakoitzaren berme.

Arrasateko esperientziak, bere historiaren une honetan, gogoeta egin behar du sorreran sustatzaile izan zituen eta gaur egun oinarri dituen ideien etorkizunari buruz: giza duintasuna, lanaren subiranotasuna, autogestioa, solidaritatea, parte-hartzea. Bere norabideari buruz egin behar du gogoeta –hausnarketa hori hasia da, nolabait– eta euskal esperientziaren protagonistei dagokie hori egitea. Gogoeta horretan, munduko beste esperientzia eta mugimenduen ideia, amets, ikuspegi eta esperientzien fluxuarekin harremanetan egotea komeni da. Begiratzen eta entzuten ikasi behar da, eta orobat jakin behar da bereizten non dauden balio sakonei dagokienez antzeko uhin-luzeraz dardaratzen duten eragileak, itxuraz alde handiak egonagatik ere.

2.3. ESPAINIAKO KONSTITUZIO ONDORENGO LEGEDI KOOPERATIBOA

2.3.1. Kooperatiben merkataritza izaera

Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren arrakasta ikusi izan dugun moduan elementu desberdinen ondorio izan da baina, 4/93 Legeak ere berebiziko garrantzia izan du. Legegileak jarrera irekia erakutsi du beti Arrasateko Taldearen beharrei erantzun bat ematerako orduan. Lege beraren garapena AKE-k markatuta etorri dela esan daiteke. Ondorengo lerrootan Legeak izandako ibilbidearen errepeaso azkar bat egingo dugu.


1978ko Konstituzioak dakarren lurralde banaketa berriarekin, eta honek dakarren Estatuaren (149 art.) eta Komunitate Autonomoen (148 art.) arteko eskuduntza banaketarekin, kooperatiben birkokapena planteatu beharra suertatzen da¹⁴.

Konstituzio Espainiarrak kooperatibak honako ataletan aipatzen ditu: 22 artikuluan, *‘elkartze askatasunarekin ‘ eta 38 artikuluan jasotzen den, ‘ merkatu ekonomiaren barnean kokatzen duen enpresa askatasunarekin ‘. Bai eta, 129.2 artikuluan jasotzen denarekin ere: *‘Botere publikoek enpresako partehartze mota desberdinak bultzatuko dituzte eta legedi egoki baten bidez sozietate kooperatiboak bultzatuko dituzte. Eta, langileek ekoizpen medioak eskura izatea bultzatuko dute ‘.**

Konstituzioko xedapenok, Enrique Gadearen esanetan oso kritikatuak izan dira oso azalekoak direlako eta ez dutelako legedi kooperatiboak dituen zalantzak argitzen, ezta legedi kooperatiboarentzat klabeak diren puntuak ere (kooperatibaren kontzeptu legala, izaera juridikoaren inguruko zalantzak ...) ¹⁵. Hala ere, garrantzia daukaten hainbat puntu bai argitzen dira.

Batetik, argi lagatzen du kooperatiba sozietate bat dela. Bai konstituzioaren aurreproiektuan eta bai proiektuan ere, ‘ enpresa kooperatiboari ‘ buruz hitz egiten zen. Sozietate kooperatibo terminoa erabiltzen da.

Kooperatibaren sozietate izaeraren gaineko eztabaidak gai orokorrago batean kokatzera garamatza: sozietate kontzeptuaren eztabaidan. Auzi honen inguruan bi korrante nagusi daude. Batzuen arabera, (KZ 1665 art eta MK 116 art.) ‘ irabazi asmoa ‘ ezinbesteko ezaugarria da, elkartze fenomeno batek sozietate fenomeno izaera daukala baieztatzeko. Arazoa da ez



¹⁴ GADEA, E. Kooperatiba legediaren bilakaera Espainian. Gasteiz, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua, 1999.

¹⁵ ‘ *El precepto constitucional ha sido criticado por su parquedad y porque no resuelve, ni siquiera en clave, ninguno de los problemas que la Legislación cooperativista tenía planteados (el concepto legal de cooperativa, la determinación de su naturaleza jurídica ...). Sin embargo, en base a las notas que se recogen en el precepto constitucional y a los rasgos definitorios del tipo cooperativista recogidos en nuestra tradición jurídica podemos señalar:....*’ GADEA, E. ‘Kooperatiba-legediaren bilakaera Espainian.’ CSCE/EKGG, 1999.

dagoela adostasunik, 'irabazi asmoa' zer den eta zer ez definitzeko. Postura tradizionalaren arabera, jatorrizko zentzuan ulertu behar da: hirugarrenengandik eratortzen den soberakina (irabazi objektiboa) eta bazkideen artean banatuko dena (irabazi subjektiboa)¹⁶. Hala ere, badira terminoari nozio zabalagoa aitortzen dioten autoreak¹⁷. Hauen esanetan, erakundeak edozein ondare abantaila lortzen duenean gertatzen da eta ez du zertan zuzenean irabazia egon behar; hau da, galera edo gastuak ekiditen direnean.

Jarrera germaniarrak berriz, J. Giron irakasleak defendatzen du sozietatea elkartetik bereizteko ez dela beharrezkoa irabazia egotea¹⁸.

Puntu hauen gaineko determinazioak markatzen du kooperatibaren izaera juridikoaren gaineko eztabaida. Irabazi terminoaren esangura zabala hartzen duten autoreek, kooperatiba irabazi asmodun sozietateen artean kokatu behar dela defendatzen dute; bazkideak kostua aurreztearen bidez lortzen dute irabazia (kontsumo kooperatibak) eta lan elkartuko kooperatibak ordainsaria gehitzearen bidez.

Kontzeptu tradizionalaren jarraitzaileek, bereizten dute 'irabazpidezko' kausaren eta kausa 'kooperatiboaren' artean. Korrante honen barnean daude defendatzen dutenak, kooperatibak irabazi asmorik ez izatean 'sui generis' izaerako erakundeak direla. Vicent Chuliá da jarrera hau defendatzen duenetako bat eta bere ustez, kooperatibak bestelako sozietateek jasan behar izan ez duten kontrola izan dute botere publikoen aldetik¹⁹.



¹⁶ CASTÁN TOBEÑAS, J., Comentarios al Código Civil, Tomo XXV, Madrid, 1933; Díez Picazo, L y Gullón, A, Sistema de derecho civil, 6 ed. II Tomoa, Madrid, 1989; Albaladejo, M., Derecho Civil, 8 ed., II Tomo, Barcelona, 1989. Garrigues., J Teoría general de las Sociedades mercantiles, RDM; Vicent Chuliá, F., Compendio de Derecho mercantil, Tomo I, Barcelona, 1986.

¹⁷ De Buen, D., Enciclopedia Jurídica Española, Tomo XVIII, Barcelona, 1910, De la Camara, M., Estudios de Derecho Mercantil, 2ed, Tomo I Madrid, 1977; Lacruz Berdejo, J., Elementos de Derecho civil, 2 ed. Barcelona, 1986.

¹⁸ GIRÓN TENA, J., Sociedades civiles y Sociedades Mercantiles: distinción y relaciones en el Derecho español, RDM, 1947.

¹⁹ VICENT CHULIÁ, F., Concentración y unión de empresas ante el Derecho español, Madrid, 1971.


Aurreko posturaren aurrean, nahiz eta irabazi kontzeptuaren termino itxia defendatzen duten, kooperatibak sozietate izaeraren barnean kokatzen ditu. Jarrera hau defendatzen duten egileek ez dute ezinbestekotzat jotzen, irabazi asmoa sozietate kalifikaziorako. Irabazi asmoa ez litzake kontratuko kausa izango; elementu natural kontsideratuko litzake, baina ez kontratu tiporako oinarritzko elementu. Sozietate kontratua definitzen duten hiru ezaugarrietatik: kapitalerako ekarpenak; komunean dagoen jarduera ekonomikoa eta irabazi asmoa, soilik lehenengo biak dira sozietate guztiek komunean dituztenak. Hirugarrena da irabazi asmodun sozietateen ezaugarri, soilik hauena.

Sozietate nozioan eragin zuzena izan duen beste elementu bat, Espainiako errealitatean, konstituzioko 22 artikulua izan da; elkartzeko askatasuna. Honek eragin baitzuen irabazi asmoa duten entitateen eta ez dutenen arteko desberdintasuna.

Irabazi asmoa terminoaren inguruan eta irabazi asmodun sozietate figuren kasuan, kooperatibak oso paper garrantzitsua betetzen dute aseguru mutuekin batera. Orokorrean legedi kooperatibista espainiarrak, 1931atik argitaratu dituen kooperatiben gaineko araudi guztietan 'sozietate' izaera aitortu die kooperatibei. Eta gaur egun ere, bai estatu mailan eta bai maila autonomikoan ere sozietate izaera hau onartzen zaie kooperatibei. Salbuespen gisa, Valentziako kasua daukagu.

Esandakoagatik ondoriozta genezake, kooperatiba sozietate bat dela ez soilik formazko arrazoiengatik baita fondoekoengatik ere²⁰. Beste egitura batzuei ere aitortu zaie sozietate izaera: Eraldaketarako Nekazal Sozietatea, Elkarrenganako Bermerako Sozietateak, Kirol Sozietate Anonimoak eta Interes Ekonomikoko Agrupazioak.

Kooperatiba irabazpidezko sozietatea da. Irabazpidearen kontzeptu klasikora jotzen baldin badugu, irabazi asmorik gabeko egiturak definitzerako orduan, irabaziak bazkideen artean banatzeari egiten dio erreferentzia. Hau da, irabaziak bazkideen artean banatzeko helburua duten egiturak lirateke irabazi asmodun egiturak. Edo helburu nagusizat bazkideei irabaziak



²⁰ Brasilen OCB-k nahi du Ekonomia Solidarioaren baitako jarduerak ez hartzea kooperatiba izaera, eta elkarte edo sozietate simple izaeran jardutea. OCB-ren esanetan ES-ko jarduerak ez dute eskalako aktibitatea burutzen eta ondorioz ezin dute kooperatiba izaera erabili.

banatzea dutenak. Honek ez du esanahi kooperatibak ezin duenik, ondare izaerako edo izaera ekonomikoko helbururik izan, ez eta lortzen den abantaila ekonomikoak ere txikiagoa izan behar duenik.

Kooperatiba sozietate irekia da. Sozietatearen alkantzua eta mugak zein diren jakiteko, beharrezkoa da hirugarrenekin egiten diren eragiketen bateragarritasuna eta kausa kooperatiboa zein diren aztertzea.

J. Gironek definitzen ditu sozietate tipoak esanez direla ' objektu edo jarduera bat aurrera eramateko (irabazi asmoarekin ala ez), legegileak sortu dituen egiturak '. Kooperatiba tipoaren izaerak, hau da, bere helburu ekonomiko sozialak justifikatzen du, eragozten du zentzu murriztean ulertua den irabazi asmoaren barnean kokatzea kooperatibak. Ondorioz, hirugarrenekin eragiketak burutzea ez bada irabazi asmoarekin egiten den zerbait, ez da izango kausa kooperatiboaren aurka burututako ekintza, eta beraz, ez du suposatuko sozietate tipo honen izaera kaltetzea. Laburtu genezake esanez, ez dela irabazpidezkoa izango, bazkideen artean onurak banatzea, helburu nagusizat ez duen bitartean eragiketak.

Azken batez esan genezake, merkatu ekonomiaren barnean bidera ezinak direla hirugarrenekin eragiketak burutzeko ezintasuna defendatzen duten planteamenduak. Ezin da erakundearen helburu printzipalen artean: irabazpidearen ukapena argudiatu.

Kooperatibak gainerako enpresen moduan, euren helburuak aurrera ateratzeko daude. Kooperatiba ez da soilik mutualitate izaera duen errealitate bat, baizik eta bere bazkideen onurarako lan egiten duen sozietatea; ondorioz, beharrezkoa da bere antolamendu egiturei ahalik eta etekin gehien ateratzea.

Gurean mutualitate eta kooperatiben artean dagoen nahasmenak eraginda, kooperatibak hirugarrenekin soilik bideragarritasuna bermatzeko adina eragiketa burutu ditzakeenaren uste okerra dago²¹. Uste honek eragozten du kooperatibak euren helburua betetzea. Beharrezkoa



²¹ Brasilen ekintza kooperatiboa da kooperatibaren izaera markatzen duen ardatza. Nire ustez murriztu egiten ditu kooperatibak izan ditzakeen aukerak; ekintza kooperatiboa izateko bazkideak kooperatibarekin edo kooperatibak euren artean jardun behar dute eta hau horrela isteak kooperatiben jarduera esparrua mugatzen dutela esan genezake.

da kooperatiba enpresa gisa sustatzea eta ahalbidetzea, kooperatibak mundu industrialean sartzea.

Kooperatibaren objektua, gainerako sozietateen kasuan antzera, jarduera ekonomiko komun bat aurrera eramatea da. Kooperatibaren eta irabazpidezko sozietate baten arteko diferentzia nagusia da, lehenengoak bitartekaritza lortutako irabaziak ez dira dibidendu eran banatzen baizik eta izaera ekonomiko- sozialeko helburutan.


Esate baterako Nekazaritza Kooperatiba batek, lehenik eta behin bere bazkideen produktuak saldu beharko ditu eta (bazkidek obligazioa du produktuak kooperatibara entregatzeko) behin hau eginda, ez legoke arazorik, hirugarrenen produktuekin salmenta egiteko, beti ere, eragiketa hauen emaitza ekonomikoak erakundearen objektuko parte badira. Kasu honetan adibidez, bazkide guztien onurarako den nekazal makinaria hobetzen inbertitzea.

Laburtuz esan genezake, kooperatibak gainerako sozietateen irizpide ekonomiko berdinekin jokatu behar duela eta bere jarduera merkatura bideratu behar dela. Kooperatibak hala erabaki duelako bazkideen beharrei erantzutera bakarrik jotzen duenean ere, beharrezkoa izango da merkaturako irizpideak jarraitzea; lehiarako joerarik adierazten ez badu, ezingo duelako helburu soziala bete eta ondorioz, sozietateak bere izateko arrazoia galdu egingo du²².

Lan Elkartuko Kooperatiben egoera bestelakoa da. Orain arteko hausnarketan esan dugu, sozietateak hirugarrenekin eragiketak egiteko aukera zeukala; ez zelako mutualitate printzipioa modu zorrotz batean aplikatzen. Lan Elkartuko kooperatiban kasuan beste panorama bat daukagu.

Lan Elkartuko kooperatibak bazkideei lanpostuak eskaintzeko sortzen dira. Merkataritza Kodearen terminologia erabiliz, ' langileak norbanako bakoitzaren baldintzak hobetzeko eta lan aukerak sortzeko ' biltzen dira kooperatiba mota hauetan.

Kontua da kooperatiba mota hauen helburu bakarra ez dela bazkideei lanpostuak eskaintzea. Honi lotuta azaltzen da baita, bazkide bakoitzaren egoera hobetzea. Bazkide bakoitzaren



²² Brasilgo Legedian jasotzen den 'ekintza kooperatiboak' murriztu eta eragotzi egiten du nire ustez merkaturan lehiatzeko aukera.

egoera hobetzeko, ondasun eta zerbitzu komunen ekoizpenetik ateratako emaitza ekonomikoak erabiliko dira.

Irabazien funtzioa ez da bakarra. Beraz, soberakinen banaketa irabazi terminotik nahiko gertu dagoela esan behar da. Irabazi asmodun sozietatetatik gertu daude kooperatiba mota hauek. Laburtuz esan beharko genuke, enpresa ekimen honek helburu duela langile multzo bateko izaera pertsonalista eta funtzionamendu demokratikoa duen enpresa eredu bat sortzea. Eta helburu hauen betetzerako erabiltzen den sistemak aurreikusten du besteak beste, hirugarrenengandik irabaziak lortzea, produktu eta zerbitzuen eskaintzaren bidez. Izaera instrumental honek justifikatzen du, irabazi asmoa nagusia den helburuaren barnean kokatzea, eta ondorioz, izaera osagarria hartzea.

Kooperatiba ez da irabazi ekonomian kokatzen, zerbitzu ekonomian baizik²³. Irabazpidezko sozietateak, hirugarrenekin burututako eragiketen bidez lortutako emaitzen banaketak oinarritzen dute euren erabilgarritasuna. Kooperatiba Elkartetan berriz, bazkideen beharrak asetzea da izatearen oinarria.

Kooperatiba enpresa parte-hartzailea ere bada. Konstituzioko 129.2 artikulua, kooperatibak sustatzeko mandatu inplizitu bat luzatzen die botere publikoei. Eredu ekonomiko konstituzionalak, ekonomia sozialeko merkatua kooperatiba enpresez hornitzeko helburua du. Ingurumari honetan, kooperatiba, langileek ekoizpen medioak eskura izateko eta enpresa parte-hartzaileak bultzatzeko eredu bihurtzen da.

1978ko Konstituzioak, kooperatibak, ingurumari egokian kokatzen ditu: parte-hartzearen ereduan; bai gaur egungo eskakizunen arabera eta baita legedi europarrak markatzen dituen irizpideen arabera ere.

J. Divarren esanetan sozietate demokratiko aurreratu batean, laneko parte-hartzeak balio sozial garrantzitsua dauka, eta hauek dira Zuzenbide justu baten oinarriak osatzen dituzten justizia




²³ GADEA, E. Kooperatiba legediaren bilakaera Espainian. Gasteiz, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua, 1999.

soziala eta etika soziala²⁴. Parte-hartzeak bere oinarrian, botere banaketa esanahi du. Beraz, benetako parte-hartzea langilea bazkide bihurtzea da (kogestioaren bidez), eta lan kontratuari sozietate izaera emanez, kooperatibetan gertatzen den moduan. Kooperatiben bereizgarria ez datza horrenbeste bere postulatu formaletan baizik eta demokratizazio ekonomikotako printzipiotan eta elkartasun sozialean oinarrituta arau sozio- juridikotan.

Beste alderdi kooperatiba eta merkataritza zuzenbidea erlazionatzen dituen da. 1885ko Merkataritza Kodea erakunde kapitalisten ekintza eta jarduera espekulatiboak arautzen dituen zuzenbidea da eta ez dute lekurik langileriaren erakunde ekonomikoak burututako ekintzak. Hala ere, hau ez da guztiz zuzena. M. Vergez-en esanetan Merkataritza Kodea ez da merkataritza hutsaren isla eta ez dago merkataritza eta kapitalismoaren arteko parekatzerik egiterik ere. Esan beraz, merkataritza zuzenbidea ez dela kapitalismo liberalaren zuzenbidea soilik eta ez zela bokazio horrekin sortu gainera.

Merkataritza Zuzenbidea kapital sozietatearen zuzenbidea soilik denaren ideia beraz, bazterrerara laga behar da²⁵. Broseta irakaslearen esanetan badira enpresaren gaineko bi teoria²⁶. Batzuk enpresa kontzeptua bakarrik, kapitalistentzako gordetzen dute. Inoren konturako lanak eta irabazi asmoa helburu duten egiturak kokatzen dira bertan. Bada zabalagoa den beste jarrera bat ere eta hauek, irabazi asmorik ez duten egiturentzako ere onargarri jotzen dute terminoa. Sektore garrantzitsu baten aburuz beraz, irabazi asmoa ez da ezinbestekoa enpresa izaerarako ez eta enpresari izaerarako ere. Bi kasuetan nahikoa da 'kudeaketaren ekonomi izaera'. Merkataritza izaera eta irabazi asmoa berdintzetik, merkataritza ekonomiarekin lotzera pasa gera.

Egia da merkataritza jardunean profesionalki aritu direnen motorra irabazi asmoa izan dela, baina esan behar da juridikoki honek ez duela eragin edo pisurik. Zuzenbide berezi baten



²⁴ DIVAR, J., Introducción al Cooperativismo, en primeras jornadas de Cooperativas de Euskadi, 1982. 'La Democracia Económica, Bilbao, 1990.'

²⁵ GADEA, E. Kooperatiba legediaren bilakaera Espainian. Gasteiz, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua, 1999.

²⁶ BROSETA, M., La empresa, la unificación del Derecho de obligaciones y el Derecho mercantil, Madrid, 1965

sortzea eragin duena ez da izan irabazi izpiritua baizik eta jarduera profesional bat aurrera eramatea. Izpiritu edo helburu hori ez da bihurtu merkataritza izaeraren oinarrizko ezaugarria baizik eta hartutako formak berak, hots, Sozietate Anonimo eta Erantzukizun Mugatuko Sozietate izateak.

Printzipioz esan daiteke, enpresa eta enpresari baten presentzia, nahikoa izan beharko litzatekeela hauek burutzen dituzten ekintzak merkataritza kalifikazioa izateko. Eztabaida antzu eta luzeak ekiditeko, ezin da merkataritza enpresari izaera utzi honek burutzen dituen jarduera ekonomikoen izaeraren baitan. Ezta onargarria bestalde, enpresa zibil eta merkataritzakoen arteko bereizketa egitea. Enpresa baten bitartez, merkaturan ondasun eta zerbitzuen bitartekaritza burutzeak eman beharko lioke titularrari enpresari izaera. Beraz esan daiteke subjektuaren merkataritza izaera, forma, metodo edo jarduera burutzeko daukan moduaren baitan egon beharko litzatekeela. J. Garrigesen esanetan, ardatza ekintzatik antolaketara pasa da.

Azken batean Zuzenbideak lortu behar du ekintzen helburua zein den kontutan izan gabe, merkataritza izaera hautatutako izaera formalaren baitan kokatzeko. Merkataritza izaera izango du, merkataritza sozietate forma aukeratu denean²⁷. Jarduera hauen ustiapena merkatura zuzenduta, ohikotasunez, antolatuta eta beraz, enpresa baten bidez eta merkataritza metodoak erabiliz egiten bada, ekintza burutzen duenak merkataritza enpresari izaera hartuko du eta hauen estatutua ezarriko zaie. Ezaugarri hauek aurkitzen ditugu baita kooperatiben antolaketa eta metodotan ere, eta ondorioz, izaera bereziko merkataritza sozietate kontsiderazioa izango dute.

Kapital Sozietate batek daukan hedapen tekniko eta ekonomiko bera duen formula juridiko berezia da kooperatiba; bere printzipio eta helburu espezifikoekin.

Atala amaitzeko A. Poloren iritzia jasoko dugu bera baita kooperatiben erregimen juridikoari arreta gehien eskaini dion autorea²⁸. Berak, tesi sendoen bidez frogatu zuen 'merkataritza' eta



²⁷ Brasilgo legedian egoera bestelakoa da. Ez da sozietate forma kooperatiba tratamendua baldintzatzen duena, burutzen den ekintzaren izaera baizik.

²⁸ 'El verdadero problema reside hoy en no poder encerrar en los moldes tradicionales del art.. 1 del CDC la enorme tipología de los actuales titulares o sujetos de la actividad económica constitutiva de

'kooperatiba' terminoak bateraezinak direla. Hala ere, argi zeukan bi terminoen arteko dibortzioak kaltea eragiten ziela kooperatibei eta ondorioz, berari, 1968an egiteko eskatu zitzaion Merkataritza Sozietateei buruzko aurreproiektu legean, Kooperatibak sartu zituen. Eta bere azken ekarpenetan, kooperatibak enpresa ekonomikoen antolaketa izateko duten premia aldarrikatzen du: merkataritza erregimen juridiko baten beharra alegia.

Ideia nagusi moduan esan behar da kooperatibak merkatuan lehiatzeko beharrezko tresnak izan behar dituztela. Hau da hain zuzen ere Brasilgo kooperatibismoari hemendik egin dakiokeen ekarpen interesgarrienetako; molde zurrunik eta eragozpenak ezabatu eta tresnak eta baliabide legalak eskaini gainerako sozietate formatuen parean jokatu ahal izateko.

2.3.1.1. Konstituzio ondorengo kooperatiba legedia

Espainiako kasuan, Konstituzio ondorena, ez da aurrerapen esanguratsua kooperatiba legediaren perfektionamenduari dagokionean. 1980ko Lege Proiektu Orokorra, 1982ko Euskal Legea eta 1983ko Lege Katalanak ez dute lortzen 1978ko legea gainditzea.

Aurreko legedia berritza ezinbestekoa zen; 1974ko legea aurrekari politiko desberdinetan oinarritzen zen eta horretaz gain, Estatu egitura berriarekin lege desberdinak onartu beharra zegoen.

Lege autonomikoen gaineko eztabaidetan, sortzen da merkataritzaz kanpokotasuna frogatzeko eztabaida; ez purutasun kooperatibistak eraginda, Konstituzioko 149.1.6 artikuluan oinarritutako eskuduntza galeraren beldurrez baizik. Euskal Legearen aurkatzeak Kataluniako Aholku Batzordeak Proiektu Legearen gainean emandako diktamena ekarriko du eta honen arabera: kooperatibek duten helburuen izaera sozialak mugatu behar du hauen izaeraren berezitasuna. Honen arabera merkataritza izaera duten ekintzak aurrera eramateko kooperatiba formatua erabiltzea ez da aholkatzen. Esanguratsua da, aipatu legeek, kooperatiben eraketari ematen dioten trataera. Erregistroari dagokionean, lege guztiek, merkataritza erregistroari dagozkion aipamen guztiak ezabatzen dituzte²⁹.

empresa...'. Gero zehazten du: ' se hace preciso, pues, contempla: el fenómeno de la tendencia a la ampliación del número de los titulares empresariales de la actividad económica , superando el rígido molde que hasta ahora nos brindaban el Código de Comercio (art. 1, 116 y 124) y algunas leyes especiales, para pensar en una serie de manifestaciones, algunas de ellas conocidas desde hace tiempo, de las que no cabe desoír su apremiante llamada para retornar al campo del Derecho mercantil, como, por ejemplo las Sociedades Cooperativas...'.

²⁹ Brasilgo errealitatera etorri ere haxe litzake egoerarik onena; merkataritza erregistroetatik kanpo lagatzea kooperatibak.

Materia desberdinen gaineko eskuduntzak gaurkotuta eta gobernu zentralaren jarrera malgua kontutan izanda, legegile euskaldunak eta katalanak euren legediak gaurkotu dituzte. Kataluniako kasuan 1991ako erreformaren bidez eta Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan berriz, 1993ko legearen argitalpenarekin.

Doktrinak kritikatu egin du Kooperatiba Lege Orokorren onarpena azken aurrekoa izatea. Hala ere, esan behar da lege orokorra guztietan hausnartuena izateak legerik onena izatea dakarrela. Seguruena, beste legeak dituzten hutsuneak betetzera etorri da.


1987ko legearekin (Euskal Legea baita, lege modernoaren ereduen artean kokatzen dena) kooperatibaren merkataritza izaera azpimarratzen da; enpresa jarduerak burutzen dituen sozietate gisa. C. Paz Ares-ek dioenaren arabera, Sozietate Anonimoen eta Erantzukizun Mugatuko Sozietateen merkataritza izaera hedatu da baita kooperatibetara ere.

2.3.2. Gaurko Legediaren elementu esanguratsuak

2.3.2.1. Eraketarako gutxieneko baldintzak

Eraketa prozesuari dagokionean esan behar da, orokorrean, lege orokorrean eta autonomikotan erregulazioa parekoa dela³⁰. Eraketari dagokionean hona kontutan hartu beharreko hainbat alderdi:

- Eraketarako eskatzen den gutxieneko bazkide kopurua. Gaur gurean bi eskatzen dira³¹. Kopuru egokia da kooperatibak sortzerako orduan egon den zailtasunetako bat gutxieneko bazkide kopurua lortzea izan delako. Hala ere, bada oso kopurua txikia dela argudiatzen duenik ere.



³⁰ GADEA, E. Kooperatiba legediaren bilakaera Espainian. Gasteiz, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua, 1999

³¹ 6/2008 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskadiko Kooperatiba Sozietate txikiei buruzkoa

- Beste elementu bat da Batzar Eratzailea. Sozietatea eratzeko orduan dagoen interesdunen taldea. Estatutuak lantzeaz, eskrituraren gutxieneko edukiaz eta eraketarako beharrezko gestioak egiteaz arduratuko direnak aukeratzeaz arduratuko den taldea da. Figura honen inguruan esan behar da, sortze prozesu guztiek dutela arraro xamarra den negozio juridiko bat. Berez, batzar izena duten arren, ez dira batzar bere zentzu juridikoan. Ez dira pertsona juridiko baten borondate adierazpena, izan ere, bertaratuak ez direlako oraindik bazkide. Ez dira guztien gain lotesle izango diren erabakiak hartuko. Espainiar legeak batzar eratzaile deitzen dituenak beraz, ez dira ez batzar eta ez eratzaile.
- Batzar Eratzaileko akta. Dokumentu hau litzateke kooperatibaren eraketa eskritura publikoan jasotzean, jaso beharko litzatekeen dokumentua. 1982ko legegileak ez zuen eskritura publikorik eskatzen, baldin eta ondasun higiezinaren ekarpena ez bazen egiten eraketa unean. Hau ezin baloratu daiteke modu positiboan. Nahiz eta akta batzarrak era kolegiatuan hartutako erabakiak islatzeko tresna izan, ez da bazkide bakoitzaren onarpen indibidualak jasotzeko dokumenturik egokiena. Gaurko egunez ez dago eskritura publiko gabe sortzen den kooperatibarik.
- Kooperatiben erregistroa. Lege autonomikoak eta geroago etorri zen lege orokorrak, publizitate materialdun erregistro bat eskatzen dute kooperatibentzako. Konstituzioko 149.1.8 artikulua, Estatuari esleitzen dio erregistro publikoen ordenaziorako eskuduntza eta honek zalantza batzuk piztu zituen arren, aurrera egin zen. Egoera hau egonkortu egin da Estatuak ez duelako auzitan jarri eta ondorioz, 1989ko Merkataritza Erregistroaren erreforman kooperatiben sarbidea ekiditea lortu zen. Espainiako errealitatea salbuespen bat da, inguruko kasu gehienetan kooperatibak Merkataritza Erregistroan inskribatzeko aukera dagoelako. 1898 alemaniar legeak dagokion Merkataritza Erregistroaren epaitegian dagoela kooperatiben erregistroa; italiar legeak berriz, kooperatibak 30 egunen barruan Enpresen Erregistroan inskribatu behar direla; Suitzako legeak ere Merkataritza Erregistroa bideratzen ditu kooperatibak; eta Merkataritza Erregistroa bideratzen ditu baita Belgika eta Luxemburgoko legeak.

2.3.2.2. Antolaketa ekonomikoa

Gutxieneko kapital soziala eskatzearen aldeko hautua egin zuen Euskal Legeak eta honekin lortu nahi zen azken lege joerekin bat etortzea batetik, eta hirugarrenei begira testigantza ekonomiko eta juridikoaren froga eskaintzea bestetik. Nolabait kooperatibak ere enpresa jarduera direla erakutsi. Hauek dira hain zuzen ere, Brasilen erabili ditugun argudioak gutxieneko kapitala eskatzeko. Hirugarrenen berme izatea eta beraz, enpresa jardueraren justifikazio edo ardatza izatea.

Bestalde kontabilitate sistemari dagokionez, lege guztiak eskatzen dute merkataritza kontabilitate sistemaren ezarpena. Brasilen, hemen ez bezala, 'ekintza kooperatiboaren' baitan dago bai zerga erregimena eta baita kontabilitatea ere, eta oso sistema konplikatu da. Beraz, sistema errazteko ekintza kooperatiboaren gainean egin beharko lirateke aldaketak.

2.3.2.3. Kooperatibako kideak: pertsona juridikoen egoera

Bazkideen erregulazioari dagokionez, esan behar da lan bazkidea dela arreta gehien jasotzen duen bazkidetza mota. Nahiz eta praktikan kooperatibak betidanik erabiltzen zuten bazkidetza mota izan 74-78-ko legetan erregulatzea erabaki zen, enpresarekin bazkidetza harremana zuten gainerako bazkidetzekin nahasmenik gerta ez zedin.

Legeak irizpide murrizta zabaltzen du eta aukera eskaintzen die bai pertsona fisiko zein juridikoei eta publiko zein pribatuei bazkide izateko. Jardunik gabeko bazkideen figura sartzeko da, bidezko arrazoiak direla medio, kooperatibaren zerbitzuak erabiltzeari edo lan ekarpena egiteari utzi dioten bazkideen interesak defendatzeko helburuz. Bazkide laguntzailearen figura sortzen da, finantza baliabideak hazten laguntzeko.

Espainiar legedian bi joera daude. Euskal legeak, andaluziarrak eta lege orokorrak aukera eskaintzen dute lehen mailako kooperatibetan pertsona fisiko eta juridikoak bazkide egiteko (publiko zein pribatu). Katalanak eta Valentziarrak berriz, debekatu egiten dute soilik pertsona juridikoz osatutako kooperatibak sortzea.

Aurrerago ere aipatuko dugun moduan, kooperatibetan bazkidetza mota desberdinei sarbidea emateak, egituraren figura desberdinak sartzeko aukerak eskaintzen ditu. Lan bazkidea izan arren pisu gehien duen bazkidetza mota interes eta posizio desberdinetan kokatzen den jendeari ere atea irekitzeko aukera positiboa da. Hau izango Brasilen proposatuko dugun beste aldaketetako bat. Gaur legeak debekatu ez arren, figurak ez ditu jasotzen eta definitzen eta hau da hain zuzen ere komeni dena.

2.3.2.4. Kooperatiba motak: kooperatiba errealitatera egokitzea

Legeak sistema irekiaren alde egiten du. Aukera eskaintzen dio erregistroko arduradunari legeak errekonozitzen ez dituen kooperatiba motak onartzeko, beti ere, kooperatiba jardueraren arabera. Berrikuntza desberdinak sartzeko joan ziren lege autonomikoan eta hauetako batzuk lege orokorrak bere gain hartu zituen, eta beste batzuk ez. Lege orokorrak berak ere sartuko ditu elementu berritzaile batzuk: hezkuntza kooperatibak eta osasun kooperatibak esaterako.

1982ko euskal legeak esangura handiko bi tipo berezi arautu zituen: ustiapen komunitarioko kooperatibak (61 art.) eta aseguru kooperatibak (63 art.). Kataluniako legea ez da bereziki berritzailea, baina bitariko kooperatibei erreferentzia egiteak merezi du; hauen helburua da, kooperatiba mota desberdinen helburuak pertsona juridiko bakarrean batzea (98 art.). Andaluziako legea da kontsumo kooperatiba tradizionalak erabiltzaile eta kontsumitzaile kooperatiba izendatzen dituen lehen legea. Eta, 1993ko euskal legeak sartu zituen irakaskuntza eta zerbitzu kooperatibetan berrikuntzak eta baita gizarteratze sozialeko kooperatibetan ere.

Bitariko kooperatiba izan da polemika gehien sortu duen kooperatiba mota. Akzioak sartzeko figura kooperatiboan aldaketa kualitatiboa izan da. Kooperatibei finantziazioa gehitzeko aukera eskaini duen bidea izan da eta baita neurri batean, botere kuotak ponderatzeko aukera eskaini duena ere. Honek dituen argi eta ilunekin. Aurrerago sakonago garatuko da baina, esan behar da kooperatibek merkatuan lehiatzeko dituzten eragozpenak gainditzeko baliagarri dela eta baita beste legedi eta herrialde batzuetarako ere.

2.3.2.5. Erantzukizun erregimena: lege orientazio desberdinak


Zor sozialen gaineko bazkideen erantzukizunaren gainean bi dira Espainiar legediak jarraitzen dituen irizpideak:

Kataluniakoak, andaluzak eta euskal legeak erantzukizun mugatua ezartzen dute eta ondorioz, bazkideek zorren gainean duten erantzukizuna harpidetutako kapitalaren araberakoa da.

Gainerako araudiek berriz, nahiz eta bazkideen erantzukizun mugatua duten oinarri, aukera eskaintzen dute Estatutuen bidez erantzukizun hori zabaltzeko eta harpidetutako kapitala baino erantzukizun altuago ezartzeko.

Baja den bazkideak bost urteko epea izango du kooperatibarekin dituen zorrak ordaintzeko.

2.3.3. Ekainaren 24ko, 4/93 Euskadiko Kooperatiba legea³²



³² 1/2000 Kooperatiba Legeak aldatua eta 6/2008 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskadiko Kooperatiba Sozietate txikiei buruzkoa

Onartzen azkena izan den legea dugu Euskal Autonomia Erkidegokoa. Kooperatiben gaineko erregulazio tekniko eta gaurkotua du. Kontutan izan ditu Merkataritza Zuzenbidearen erreforma eta sozietate zuzenbidearena orokorrean eta honela Europar Direktibetara egokitzea.

Hala ere, azpimarratzekoa da lege honek tresnak eskaintzen dituela kooperatibak bizi duten krisia gainditzeko batetik eta bestetik, kooperatibak jarduera ekonomikoan paper garrantzitsua bete dezaten. Erronka hauek gainditzeko kooperatibak beharrezko dute euren finantza baliabideak indartzea, edozein esparru ekonomikotan jardutea, beharrezko aliantzak lotzea eta gainegitura desberdinetan partehartzea hobeto lehiatu ahal izateko. Helburua da lehiakide diren

gainerako enpresen parean jarduteko dituzten eragozpen denak kentzea. Ondorioz, kooperatiba eredu tradizionaletik urruntzea suposatzen du eta kanpotik irabazi asmodun sozietate baten itsura hartzea. Brasilek ere eredu honetara jo beharko luke.

J. Divarrek dio 'kooperatiba berregituratu ' baten aurrean gaudela, zeinak helburu duen merkatu zail batean lehiatzeko baliabideak eskaintzea. Ondorioz, badirudi, printzipioen purutasunei uko egin diela legediak eta baita neurri baten elkartasun eta helburu sozialei ere.

Honako puntuok azpimarratuko genituzke puntu esanguratsu moduan:

- Sozietate kooperatiboen eraldaketarako aukera; marko juridiko kooperatiboak konponbide bideragarririk eskaintzen dituen kasutan kooperatiba, sozietate zibil edo merkataritza sozietate bihurtzeko aukera, beti ere, administratzaile edo Zaintza Batzordearen irispenez eta Kooperatiben Goren Kontseiluak homologatuta. Eraldaketak, kooperatibismoaren esentzia desnaturaltzea ekiditeko honako bi neurriok ezartzen ditu: banatzeko edo kooperatiba usteko eskubidea izateko bazkideak kapitalera eginiko ekarpenerako eskubidea izango dute; eta bestetik, eraldaketaren ondoriozko sozietatearen izeneko partizipazio kontu moduan Kooperatiben Goren Kontseiluan kreditatuko dira Derrigorrezko Erreserba Fondora eginiko ekarpenak eta banaezinak diren borondatezko ekarpenak.

- Edozein mota edo mailako kooperatibak bai euren artean edo beste pertsona fisiko edo juridiko, publiko zein pribaturekin aukera izango dute agrupazioak sortzeko. Azken hauek sozietate, kontsortzio, elkarte ala enpresa batasun izaera hartu ahal izango dute.

- Sortu ahal izango dituzte baita Korporazio kooperatiboak. Enpresa agrupazio hauek lehenengo, bigarren edo goragoko mailako kooperatibek sortutakoak dira eta helburu dute:

enpresen estrategia politikak finkatzea; bazkideen jarduera estrategiak finkatzea eta baita baliabide eta jarduera komunen gestioa ere.

- Bitariko kooperatibak ere beste formula bat dira. Batzar Orokorrean kapitala akzioka (ehuneko berrogeita bederlatzi) banatuta duten 'gutxieneko bazkideak' dituen kooperatibak dira. Merkatuko baloreen legearen arabera erregulatutako titulu baloreen arabera funtzionatuko dute.


2.3.4. Ondorioak

1.- Merkataritza Kodeak ez zuen sozietate kooperatiboa erregulatu, kodearen kontzepzio ideologikoa Merkataritza Zuzenbidean oinarrituta zegoelako eta hau zen espekulazio jardueretara bideraturiko subjektuentzako ezargarri zen legedia.

Merkataritza Kodeak ez zuen kooperatibentzako tratamendu bereziturik ezarri bereizketa argia egina zeukalako; merkataritza eta industria askatasuna eta langileria mugimenduaren parte zen mugimendu kooperatiboaren artean³³. Mugimendu kooperatiboa sortzen da XIX erdialdean, klase menperatzailearen interes ekonomikoei kontra egiteko. Kontutan izanik 1885ko Kodearentzat merkataritza zuzenbidea dela jarduera eta ekintza espekulatibo edo kapitalisten zuzenbidea kooperatibak kanpo lagatzea normala da. Ez da planteamendu zuzena; jarduera mutualistikotara bideratzen den edozein pertsona juridikok enpresa estatutua ezartzeko beharra izan dezakeelako, hau delako bere jardunari erantzun egokiena eskaintzeko aukera. Egitura modurik koherenteenean egituratzeko aukera eskaintzen duena.

2.- 1887ko Elkartearen Legeak bere esparruan kokatzen ditu kooperatibak; kapitalaren kontrako erresistentzia kaxa funtzioa bete dezaten.

Kooperatiben helburuen gaineko kezak irauten du 1978ra arte, ordura arte 1887ko Elkartearen Legean kokatuta zegoelako, hau da, irabaziak lortzea helburu eskusibotzat ez duten izaeren barnean. Barneratzeak kontrol edo polizia funtzioa zuen; kontsideratzen zen irabazi asmoa



³³ GADEA, E. Kooperatiba legediaren bilakaera Espainian. Gasteiz, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua, 1999.

zuten erakundeak Estatuari kaltea eragiteko aukerarik ez zeukatela. Aldiz, helburuok ez zituzten egiturek Estatuaren kontrako ekintzak burutzeko aukera gehiago zeukatenaren ustea zegoen, ondorioz, kontrol edo zaintza handiagoa eskatzen zuten. Horregatik, legea Elkarte eskubidearen alderdi politikoaz arduratzen da eta akademia, aisialdi zentro edo alderdi politikoak balira legez tratatzen ditu. Ez ditu arautzen Estatutuen interpretazio, erantzukizun soziala, administratzaileen ahalmenak bi hitzetan esanda, kooperatiben errealitate ekonomikoak eskatzen dituen barne eta kanpo harremanen dimentsioa.

3.- 1931ako legea gehiago arduratzen da kooperatiba eta merkataritza egituren arteko nahasmena ekiditeaz, kooperatibek negozio pribatuak aurrera eramateko dituzten beharrak aseko dituen legea emateaz baino.

1906tik 1931ara doan garaia, kooperatiba zenbaiti ezargarri zaien arauak markatuta dago, baina ez dago kooperatibak arautzen dituen marko orokor bat 1931ara arte. 1931ako legean

sortzen da lehen aldiz kooperatibentzako marko orokorra. 1931ako legeak kontzepzio murrizta hartzen du oinarri moduan kooperatibak arautzeko orduan eta babeserako sozietate itxi izaera aitortzen dio. Babesgabeen laguntzarako tresna eta desorekak gainditzeko egitura moduan hartzen du kooperatiba legeak. Izaera finalista eta antolaketazkoa batetik eta kooperatibak gainerako kapital enpresetatik bereizteko nahitik, egokia ez den erregimen juridiko batez hornitzen ditu kooperatibak eta ez ditu alderdi ekonomikoak kontutan hartzen. Guzti honekin erakunde ahul bat sortzen da; izaera mugatua izatera kondenatuta eta lehiarako asmotatik urrunduta.

4.- 1942ko Legeak desegituratze bikoitza sortzen du sozietatearen erregimen juridikoan: hierarkizazioari eta mendekotasun politikoari balio handiegia eskaintzen dielako, eta ahaztu egiten dituelako kooperatibaren alderi juridikoa eta teknikoa.

1942ko legearen kezka, politikoa da nagusiki; Espainiako errealitate sindikalista berrira kooperatibak egokitzeak hain zuzen ere. Arrazoi hori dela eta, 1931ako legeari ez zaizkio aldaketa sakonak sartu sozietatearen antolaketa eta barne erregimenaren gaian. Hori baino gehiago, 1943ko legeak sozietate egituraren antolaketa alderdiak albo batera lagatzen ditu eta izaera sindikaleko edo politikoko egiturak sortzea ekiditeko helburuz, kontrol administratibotan egiten du ahalegina.

5.- 1971ako Erregelamenduak erreformarako arrazoi nagusitzat enpresa eraginkorrakoak eta lehiakorrakoak sortzea du helburu. Beharrezko jotzen du ondorioz, interes pribatuekin bat datorren marko egoki batez hornitzea kooperatibak.

Errealitatearen eta arauaren artean zegoen desfasea gainditzeko, arau hau behin behineko izaeraz onartu zen. Neurri honek ez ditu aseko kooperatibisten beharrak. Kooperatibistek erregelamendu batek lortu zezakeena baino erreforma sakonagoa eskatzen zuten. Hala ere, arauak kooperatiben erregimen juridikoa hobetzen du, aurreko legeak kooperatibak izaera ahuleko egitura moduan ikusten baitzituen, hau da, merkatuan lehiatzeko ezintasunak zituzten egitura moduan. Azpimarratu egiten du legeak bizitza ekonomikoan partehartzeko aukera izateko batetik eta ordenu sozial eta demokratikoagoa osatzeko bestetik, tresna juridikoez hornitzeko beharra.

6.- Orientazio aldaketa etorriko da 74-78 Legediarekin. Beharrezko jotzen du sistema kooperatiboaren egituratzea, merkatu ahulen erreakzio hutsa izateri laga eta sistemaren funtzio integratzailea bete dezan.

Legedi honek helburu du kooperatibismoa sistema kapitalistaren elementu zuzentzaile izatetik, sistema solido bihurtzera pasatzea. Egitura sozio-ekonomikotan parte-hartzeko gai dena; parte-hartzeko aukerak eskainiko dituen enpresa izango dena eta errealitate sozialean eragiteko gai izango dena. Aipatutako helburuak lortzeko beharrezkoa da bere planteamendu sozialetan zorrotza izango den egitura eta aldi berean, teknifikatua eta merkatura adi egongo dena; trafikoaren eta hirugarrenen interesen defentsarako beharrezkoa izango da enpresariaren estatutua aplikatzea. Legedi honek hutsune askorekin bada ere, merkataritza enpresen eta bereziki, Sozietate Anonimoen legedia hartzen du eredu; alderdi batzuetan behintzat (eskritura publikoan, kooperatiben erregistroa eskatzen du). Kooperatibak enpresariaren Legediaren menpe izan behar dira, besteak beste, ordainketa etena eta porrot kasuetarako.

7.- Kooperatibari honako ezaugarriak aitortzen dizkiogu: kooperatiba sozietate bat da, ez irabazpidezkoa, irekia, parte-hartzailea eta merkataritza enpresariaren estatutua aplikatu behar zaiona.

Kooperatibak bere kideengandik bereizia den pertsonalitate juridiko propioa du eta sozietate bat da. Konstituzioko 129.2 artikulua honela xedatzen du eta baita berau xedatzen duten arauak ere. Irabazi asmorik ez izatea ezin da eragozpen izan sozietate kalifikazioa lortzeko, besteak beste, Konstituzioko 22 artikulua elkartzeko askatasuna onartu zuenetik. Sozietate kontzeptua gero eta zabalagoa da, bertan kokatzen direlako Sozietate Partikularra, Sozietate Anonimoa, Erantzukizun Mugatuko Sozietatea ...

Tradizionalki sozietate kontratuaren oinarriko elementu izan direnetatik (kapitalera ekarpena, jarduera ekonomiko komuna eta irabazi asmoa) bakarrik lehenengo biak dira sozietate guztietarako komunak; hirugarrena, bakarrik irabazi asmodun sozietate motaren elementua da.

Ez da irabazpidezko sozietate bat. Hirugarrenengandik irabaziak lortzea ondoren bazkideen artean banatzeko ez du helburu. Honek ez du esanahi, ondare edo izaera ekonomikoko helbururik ez duenik edo ezta lortzen diren emaitza ekonomikoak ere baxuagoak izan behar direnik. Jarrera hau bat dator Merkataritza Kodeak dioenarekin ' ez da irabazi asmoa mugimendu kooperatiboa bultzatu duena', eta irabazi asmo kontzeptua azaltzen du eta berau beharrezkoa da kooperatiba izaera mugatzeko.

Sozietate ireki bat da eta bere objektu sozialarekin bat datorren eragiketak hirugarrenekin egiteko aukera daukana. Kooperatibaren justifikazio edo izate arrazoia ez da 'irabazi asmoa ' baizik eta 'kausa kooperatiboa ' *'kooperatibaren helburu ekonomiko- soziala da ordenamendu juridikora kokatzen duena'* , eta honek eragozten du irabazi asmoa zentzu itxian izatea kooperatibak. Hala ere, operazioak egiteko aukera legoke beti ere, irabaziak zuzenean bazkideen artean banatzekoak ez badira. Kooperatiba zerbitzuaren gestioa ekonomizatzeak izan behar du helburu. Kooperatiba kapital enpresatik bereizten duena ez da irabazirik ez izatea baizik eta irabazi hauen banaketa.

Sozietate partehartzailea da eta konstituzioak ezarritako ekonomia sozialeko merkaturan paper inportantea jokatzea otutzen zaio. Demokrazia ekonomikoko eta elkartasun sozialeko eredu emango duen printzipio sozio- juridikoak ezarriko dituen egitura.

8.- Merkataritza Sozietateen moduan jokatzen dute kooperatibak. Kooperatibetara hedatu da Sozietate Anonimoei ezargarri zaien merkataritza kontzepzioa eta erantzukizun mugatua.

Espainiar araudiak hasierako zalantza eta guzti kooperatibak enpresariaren estatutuaren menpe jarri ditu. Laburtuz, 1993ko Euskal legeak kooperatibak gainerako enpresen parean jartzeko saiakera egiten du, honela kooperatiba irizpideen arabera jarduera ekonomikoa burutzeko aukera izan dezaten.

Atal honekin amaitzeko esan behar da, Brasilen eta Latinoamerikan orokorrean trantsizio fasean daudela kooperatiben izaeraren garapenean. Hemen egin den ibilbide bera egiten ari dira han ere. Egitura politiko izatetik eta elkarte funtzio betetzetik enpresa izaera hartzera eta merkaturan lehiatzeko beharrezko diren tresnak garatzera pasatzen ari dira. Hori litzake iraganbide naturala. Hemen egin dugun erreposoa baliagarri da han ematen ari den aldaketa ulertzeko.

Gurean legedi kooperatiboak izan duen bilakaeratik ikus daiteke helburua izan dela tresnak eta baliabideak eskaintzea kooperatibei merkaturan lehiatzeko. Balore eta printzipioekin leial izan arren nolabaiteko garapen bat eman da malgutasuna bilatze bidean.

I. ATALA

BRASILGO MUGIMENDU KOOPERATIBOAREN HISTORIA

3. BRASILGO MUGIMENDU KOOPERATIBOAREN HISTORIA


3.1. SARRERA

Ondorengo lerrotan Brasilgo mugimendu kooperatibo modernoaren sorrera eta garapena nola gertatu diren azalduko dugu³⁴. XVIII mendean sortuko da eta korronte teoriko desberdinen bulkada jasoko du. Brasilgo kasuan lehen kooperatibak inmigrante europarren eskutik sortuak izan ziren, eta legediak oso paper garrantzitsua jokatu zuen; garai bakoitzaren arabera legediak mugimendua indartu edo egurtu egin zuen. XX mendeko azken bi hamarkadatan joera indartsua sortuko da: sozialki baztertuta dauden hiritar multzoen balizko aterabide moduan elkartasunezko lankidetzak sortzen da.

Mugimendu kooperatibo modernoak XVIII mendean sortuko da eta sortuko da garaiko baldintzek sortzen zuten justiziarik gabeko eta gehiegikeriazko egoeren aterabide gisa. Egoera ekonomiko eta sozialak batetik eta indarrean zeuden doktrina nagusiak bestetik, eragina izango dute kooperatibismoaren formulazioan eta hedapenean.

Brasilgo sistema kooperatiboa arautuz, lege bat baino gehiago izan dira. Lehen legealdia 1932an (lehen kooperatiba legea) hasi eta 1964ko kolpe militarrean artekoa izango da (aldi honetan kooperatiben hedapena gertatuko da). Gero, diktadura garaian emango den zentralismo estatalak eragin handia izango du mugimendu kooperatibo brasildarrean. Garai honetan ere, bi aldi bereizten dira: bata, 1964tik 1975era doana eta bestea, 1985era iraungo duen aldia. Lehenengo aldiak legeak helburu izango du aurreko etapan ezarria izan zen ereduak, - neurri murriztaile ugariarekin betetako ereduak- desegituratzea. Bigarren aldia ez da horren zentralizatzailerik izango eta 5.764/71 legea onartuko da.

Azkenik, Estatuaren demokratizazioak eta 1988ko Konstituzioaren onarpenak, kooperatibismoaren eta oro har, elkartzeko askatasunari irekiko dizkiote ateak. Estatuaren esku-hartzetik askatzean, sistemak askatasuna eta bere hedapenerako onuragarria izango den legedi bat aurkitzen du. Hala ere, koiunturazko arazoei eta arazo politikoei egin beharko zaie aurre baina, honek ez du galdu araziko aurrera pausoak ematen joatea poliki-poliki.



³⁴ Hermi Zaar, Miriam. El cooperativismo agrario en Brasil, 2007. Universidad de Barcelona.

Modernizazioa eta merkatuen globalizaziora bidean emango dira pausuak. Lehen emaitzak 1990ko hamarkada erdialdean hasiko dira ikusten eta honekin batera baita beste ikusmolde batzuk ere. Indarrean zegoen kooperatibismoaren alternatiba moduan loratuko diren beste kooperatibismo esperientziei – herri ekonomiako eta elkartasun kooperatibismoa- erantzuteko helburuz sortuko dira esate baterako, kreditu kooperatibak; herri xehearen beharrei egoki erantzuteko helburuarekin.

3.2. KOOPERATIBISMO AURREKO ESPERIENTZIAK (1530 ETA 1890)

Brasilgo elkartzeko mugimenduaren lehen hiru mendetan bi adiera azpimarratu daitezke. XVI eta XIX mende bitartean herrialdeak bizi zuen egiturazko egoera dela eta, aurkitzen ziren elkarte autoktonoak bi eratakoak dira: lehen adieran batzuk, erlijio kutsua zutenak eta latifundio handien ugazabek zuten botere lokal edo erregionalaren aurkako jarrera erakusten zuten elkarte motak ditugu.

Bigarren adieran berriz, mugimendu kooperatibo europarrarekin erlazionatuta zeudenak. XIX mende hasieran etorri berriak ziren etorkinen eskutik sortuak; populazio gutxiko lurraldean antolatzeke beharra zuten kanpotarrek sortuak izango dira.

Brasilgo independentzia gertatu ostean, hegoaldeko lurralde hutsen okupazio politika inperialak XIX mendeko lehen erdialdetik aurrera immigrante europarren eskutik lehen esperientzia utopikoak Brasilerara ailegatzea ahalbidetuko dute. Talde sozial bat osatzen zutenaren kontzientziarekin eta langabeziak eragindako arrazoi ekonomikoak zirela eta, euren herrietatik ihesi, nekazaritza familiarraren kontzepzioa ekarriko dute eta berau izango da kooperatibismoaren ernamuina. Lurjabe txiki bilakatu ziren etorkinak, -eskolatuak gehienbat-, Brasilgo nekazal gunetan ezagutzen ez ziren ekimenak martxan jartzen hasiko dira.

Hainbat arazo eta eragozpen izanik: komunikazio falta, zerbitzurik eza eta Brasildar bitartekariengandik jasotzen zuten esplotazioak eraginda, euren arteko loturak sendotuko dira. Nekazaritzako, kredituzko, kulturako eta aisialdiko antolaketa komunitarioak sortuko dituzte.

Etorkin kopuru handia kontzentratu zen gunetan loratu zen beraz Brasilen kooperatibismoa. Rio Grande do Sulen sortu ziren lehen elkarteak, -lankidetzako integralko hainbat esperientzia eman ziren 1840 eta 1895 bitartean. Gero biderkatzen joan ziren elkar laguntzarako elkarteak, osasun laguntzarakoak, kirol arlokoak, musika eta arte mundukoak ere sortuko dira.

Lankidetzako hainbat esperientzia isolaturen ostean, eta hainbat faktorek eraginda Brasilen kooperatibismoaren ezarpena posible izango da. Faktore nagusien artean 1888ko maiatzaren 13an emango den esklabutzaren iraungipena dugu. Esklabutzaren iraungipenak

nekazaritzarako eskulan europarra berrantolatzea ahalbidetuko du. Bestalde, 1891an onartuko den Errepublikar Konstituzioak, bere 72 artikuluko 8 paragrafoan aitortuko du langileek sindikatu eta kooperatibetan antolatzeko eskubidea; 1903ko 979 Dekretu- Legeak eta 1907ko 1.637 Dekretu- Legeak ere, kooperatiben garapenerako lagungarri izango dira.

3.3. MUGIMENDU KOOPERATIBISTA BRASILDARRA LAGUNDU ZUEN LEGEDIA

1891ako Konstituzio errepublikarrak lehen pausua eman zuen kooperatibismo brasildarra legalizatzeko bidean. Aurretik indarrean zegoen 1824ko Konstituzioak debekatu egiten zuen ofizioen arabeko korporazioak eta bestelako edozein elkarte mota sortzea (179 artikulua, 25 paragrafoa).

Ondoren, 1903an urtarrilaren 6ko 979 Dekretu Legeak, aukera emango die nekazaritza eta nekazar munduko industrian dihardutenei sindikatutan antolatzeko, beti ere, euren interesen defentsan aritzeko baldin bada.

Hala ere, Brasilen legedi kooperatiboaren hastapen garbiena 1907ko 1.637 Dekretu Legea izan zen. Helburu garbia zuen: nekazari eta nekazar industrian zihardutenei euren interesen defentsan jarduteko sindikatuak antolatzeko. Honela arautu zituen: sindikatu eta kooperatibak, nahiz eta Sozietate Anonimo edo kolektibo edo komanditario eran antolatu beharra izango duten.

Dekretu honen hamargarren eta gainerako artikulutan bazetozen ondoren 1932ko Legedi Kooperatiboan jasoko ziren kooperatiben oinarrizko ezaugarriak. Brasildar legedia ere hasiko da lehentasuna ematen Rodachdaleko Aitzindariak ezarri zituzten arauak. Hauek, 1932ko 22.239 Dekretuak ezarriko ditu.

Azpimarratzekoa da 1925ean onartu zen 4.984 Legea; Luzzatti Bankuak eta Raiffeisen Kaxak jasotzen ditu bere 40 artikuluan. 1926an 17.339 Dekretu Legeak hauen garapenean lagunduko du. 17.339 Dekretu Legeak Caxias Raiffeisen eta Bancos Luzzati –ak fiskalizatzera zuzendutako erregelamendua onartuko du eta baita hauen federazioak ere.

Legedi honek XX Mende hasierako esperientzia kooperatiboak ahalbidetzea izango du helburu. Eredu rochdalearra jarraituz sortutako lehen kooperatibak brasildar ideologo eta etorkin europar batzuen bultzadaz sortuko dira. Hiriguneak eskaintzen duten baldintza ekonomiko, sozial eta kulturalak sozietate anitzago bat aurkezten zutelako bertan sortuko dira kooperatibak.

1895 eta 1900 bitartean lehen antolaketa eta elkarte sindikalak sortuko dira Brasilgo hirigune handienetan. Funtzionario publiko eta profesio liberalez osatutako klase ertain baten

existentziak aukerak eskainiko ditu klase honen beharrak asetzera bideraturiko kooperatibismo bat sortu dadin. Gerora, industri sektoreari erantzungo dion kooperatibismo bat sortzeko bide izango da. Azken hau nahiko sektore dinamikoa eta politizatua izango da eta 1903, 1906, 1917 eta 1929 urtetan hainbat greba burutuko dituzte. Estatu liberalak, aukera eskainiko du 1891atik aurrera kontsumo organizazioak sortu daitezzen eta honek aukera eskainiko die klase ertain eta langileriarri euren menpe antolamendu eta zerbitzuak edukitzeko; honek garapena ahalbidetuko duelarik.

Garraiobideen, komunikabideen eta finantza baliabideen urritasuna eta eskulana eskolagabea izatea izango dira mugimenduak aurrera egiteko izango dituen eragozpen nagusienak; bai hirigunean eta bereziki, nekazaritza munduan. Ezintasuna zuten ekonomikoki finantzatzeko eta baita elkarteak kudeatu ahal izateko ere. Honi gehitzen zitzaion legedi espezifikorik ez izatea eta honek eragiten zuen kooperatibak Sozietate Anonimo edo elkarte profesional izaera hartu beharra, bai sindikatu mundutik gerturatuz edo urrunduz.

Ingurumari honetan beraz, hiriguneko kooperatibismoak klase ertain eta industria eta zerbitzuetako langileekin espazioa aurkitzen zuen bitartean, nekazal munduan, nekazaritza kooperatibak eta nekazaritzako kredituko kooperatibak sortuko dituzte, Brasilgo hegoaldean, kolono italiar eta alemanek.

Brasilen Banku Popularrak eta Nekazaritza Kaxak eratzeko orduan jarraituko den eredu garrantzitsuenak, Banku Popular Luzzattiren ereduak izango da. Ereduaren ezaugarri garrantzitsuenen artean elkar laguntza printzipioa dago. Estatuaren laguntza ere onartzen da baina, aldi baterakoa denean eta desagertu beharrekoa behin sozietateak bere arazoak konpontzeko gai denean. Elkartasun eta konfiantza handiko giroan, Luzzatti Bankutan maileguak ohorearen izenean luzatzen ziren eta administratzaileak ez zuten ordainsaririk jasotzen.

Brasilen 1932ko 22.239 Dekretua eman zenetik 1964an Bankako Erreforma gertatu zen arte (diktadura militarrekin batera) banku hauek gainerako kreditu kooperatibetatik honako ezaugarri hauengatik bereizten dira: balio gutxiko kuota zatitan banatutako kapital soziala; sozietatearen konpromisoen gainerako erantzukizuna, ezarritako kuota zatiaren araberakoa izatea; kokatuta zeuden esparrura mugatutako jarduera izatea; jarduera esparruan bizi ziren biztanleei soilik maileguak eskaintzea.

Brasilgo legediak ezarriko du kooperatibetako estatutuak honako printzipio hauek errespetatu beharko lituztela: bazkideen irabazi edo onurarik eza; sozietatearen konpromisoen gaineko erantzukizun pertsonala, solidarioa eta bazkide guztiekiko mugagabea; erantzukizun honen kontrola batzar orokorrak burutuko duela eta jarduera nekazaritza esparru txiki batera mugatu beharko dela.

3.4. KOOPERATIBISMO BRASILDARRA 1932 ETA 1964 BITARTEAN: LEHENGO KOOPERATIBA LEGETIK KOLPE MILITARRERA ARTE


1932tik aurrera Getúlio Vargasen gobernuak martxan jarritako mekanismoak kooperatibismoa indartu zuten. Praktika hau legalizatu nahi zuten, Lehen Mundu Gerrak eta 1929ko Krisiak utzitako ondorioak gainditzeko helburuz. Brasilgoa oso egitura ekonomiko ahula zen, eta kafearen gain ekoizpenak eragindako krisia gainditu gura zen.

Ingurumari politiko eta ekonomikoaren ondorioz, 1932ko abenduaren 19ko 22.239 Dekretua izango da rochdaleko doktrinan oinarrituta, kooperatibei eraketa eta funtzionamendu askatasuna bermatuko dien lehen legea. Kooperatiba Elkartearantzako antolaketa eta funtzionamendu arau batzuk ezarri zituen eta kapital izaeratik aldenduz, kooperatibei pertsonen enpresa izaera esleitu zien. Sui generis izaera aitortuko die eta ezaugarri bereziak kreditu kooperatiben kasuan. Kreditu kooperatibei zegokienean mota berezi batzuk sortzea ahalbidetu zuen, nahiz eta batzuk gobernu baimenaren mende jarri.

Carlos M. Pinhoren esanetan 22.239 Dekretua benetako kodigo kooperatibistatzat hartua izan daiteke. Hona ezaugarri orokorrak³⁵:

- a) kapital sozialaren aldakortasuna;
- b) bazkide kopuru mugagabea, gutxienekoa zazpi izanik;
- c) bazkide bakoitzaren kuota zatien mugatzea;
- d) hirugarrenei kuotak eskualdatzeko ezintasuna;
- e) batzarren funtzionamendurako 'quorum'-a eskatzea;
- f) erreserba fondoaren banaezintasuna;
- g) jarduera esparru mugatua;

22.239 Dekretuari esker lehen graduko beste kooperatiba mota batzuk sortu ziren: nekazaritza kreditu kooperatibak; elkarri kreditua emateko kooperatibak; hiri krediturako herri kooperatibak. Nekazaritzako kreditu kooperatibak oso hedatuta zeuden caixas rurais raiffeisen –ekin batera



³⁵ PINHO, Carlos Marques. Evolução da legislação cooperativista no Brasil. In As grandes coordenadas da memória do cooperativismo brasileiro. Brasília: Organização de las Cooperativas Brasileiras,

eta hauek nekazariei kredituak ematera bideratzen zuten euren jarduna; elkarri kreditua emateko kooperatibak desjardims sistematik eratorriak zirenak bazkideen artean lotura izatea eskatzen zuten; hiritar maileguko kreditu kooperatibak – hitzak adierazten duen moduan hirian ematen ziren jarduerak finantzatzen zituzten eta gobernuaren baimena beharrezko zuten funtzionamendurako; eta kreditu profesionaleko kooperatibak bereizten ziren elkar laguntzako kooperatibetatik, hauetan ez zelako bazkideen arteko loturarik eskatzen, lotura profesionala soilik.

Martxan jarri zen prozesuaren jarraipen moduan 1933an Departamento de Assistencia ao Cooperatismo (DAC) sortu zen, eta berau lotuta egongo zen Secretaria de Agricultura de Sao Paulo-ra; azken hau Amerika Latina osoan aitzindari izango da kooperatiben zaintzan.

1934ko Konstituzio Federalak ere bermatu zuen elkartzeko askatasuna eta sententzia judicial bidez soilik desegiteko aukera. Aldi berean 24.647 Dekretu Legeak aurreko 22.239/32 Dekretua bertan behera utziko du. Honekin kooperatibismo librea ordezkaturik izango da, kooperatibismo sindikalistarengatik (113 artikulua), honela aniztasuna eta autonomia sindikala bermatuko dira (120 artikulua).

Getulio Vargas Lehendakariak (1935) emandako Segurtasun Nazionaleko Legeak eta 'sitio egoera' arautzen zuen Dekretuak, (1937tik 1945era zabalduko dena), eta Konstituzio Kartak, estatuak egikaritutako sindikatuen gaineko kontrol zorrotzeko garaia ekarriko dute. Hala ere, Konstituzio Karta honek bermatu zituen elkartze profesional eta sindikalerako eskubidea (22 eta 138 artikulua), eta Estatuari kooperatiben gaineko legedia emateko eskubidea esleituko die (18 artikulua), beti ere lege federalak zituen hutsuneak betetzeko helburuarekin. 1938an 581 Dekretu Legeak 24.647 Dekretua bertan behera utziko du, eta 1932ko 22.239 Dekretu rochdalearra berronartuz. Eta araudi kooperatiboa osatuz, aseguru kooperatiben gainerako eraketa, funtzionamendu eta fiskalizazio arauak eman zituen.

Guzti honen ondorio nagusia izan da 1930ko hamarkadan, 1go mailako nekazaritza kooperatibak ugaritu egingo dira eta baita lehenengo kooperatiben federazioak ere, esate baterako, Federação das Cooperativas dos Plantadores de Bananas do Estado de Sao Paulo, Federação das Cooperativas Rio Grandenses de Vино, Federação das Cooperativas de Alcool e Aguardente do Rio Grande do Sul eta Federação Paulista das Cooperativas de Mandioca, Federação das Cooperativas de produção de Mate de Santa Catarina. Hauekin batera sortuko dira baita, 2.en mailako lehen kooperatibak: Cooperativa Central de Laticínios de Sao Paulo, Caixa Central de Crédito Agrícola da Paraíba ..

Beste Dekretu batzuen onarpenak, 1939ko 1.836 Dekretuak industriako kooperatibetan pertsona juridikoak onartzeko aukera irekiko du; 6.980 eta 7.038 (1941) eta 1942ko 5.154 Dekretuak kooperatiben fiskalizazioa, nekazaritzako sindikatuak eta kooperatiben interbentzioa

arautuko dituzte; 160 Dekretuak (1943) derrigorrezko kooperatiben erregistratzea ezarriko du. Honek kooperatibak dibertsifikatzea ekarriko du eta aldi berean, nekazariak kreditu bankutan eta 1º eta 2ºen mailako kooperatibetan antolatzea ekarriko du.

Getúlio Vargasen gobernuak, nekazaritza modernizatzeko helburuarekin oraindik ere, 7.002 Dekretu-Legea emango du (1944) eta hazien biltegi nazionala eratzeko helburu izango du. Eta aurrekoaren osaketa 404 Legeak egingo du 1948an, nekazaritza mekanizaziorako enpresa eta kooperatiba taldeak bultzatzeko legearekin.

1944an Sao Paulon egingo da I Kooperatibismoko Kongresu Nazionala. Bertan helburu nagusia Rochdaleko Aitzindarien ehungarren urteurrena ospatzea izango da.

Demokrazia formalaren eta bidezko ordezkartzaren itzulerarekin eta 1946ko Konstituzio Federalarekin, elkartze askatasunak bermatuta jarraituko du egoten (141 artikulua, 12 eta 13 paragrafoetan), bai eta elkartze profesional eta sindikalak eta greba eskubideak ere. Hiru urte beranduago, 1949an, Centro Nacional de Estudos Cooperativos (CNEC)-ren sortzea ospakizun arrazoi izango da.

1950ko hamarkadan, bost urte boteretik urrunduta igaro ondoren, Getúlio Vargas berriro itzuliko da hauteskunde orokor batzuen bidez. Bere gobernu aldiaren eredu ekonomiko tradizionalarekin hausteko asmo bat egongo da, -'primario esportatzaile ' deiturikoa- eta ' inportazioen ordezkatzeari ' eredia ezarri nahiko da. Emaizta industrializazio azkarra baina zatikatua izango da, eta honek eskualdetako desberdintasunak areagotzea eta inflazio tentsioa handitzea eragingo du.

Kooperatiba sektorearentzako hamarkada hau kooperatiben arteko elkarteak ugaritzeko garaia izango da, adibidez, Uniao das Cooperativas do Estado de Sao Paulo (UCESP) eta Aliança Brasileira de Cooperativas (ABCOOP) sortuko da Rio de Janeiron eta Union das Associações Cooperativas (UNASCO) Sao Paulon; azken honek afiliatu sarea sortuko du estatu brasildarrean.

Brasilen XX mendeko lehen erdialdean nekazaritza kooperatibak ez ziren soilik garrantzitsuenak izan negozio bolumenari zegokionean, euren zor zaie ideia kooperatibisten hedapena zabala egitearen protagonismoa ere. Paranan eta Sao Paulon kafea bihurtuko da lehen ekoizpen produktua eta kafea lantzen zuten kooperatibak zabalpen handia biziko dute. Beheraldia hasiko da 1960 amaieran bi arrazoi zirela medio. Bata, kafearen gain ekoizpena eta bigarrena 1975ean gertatutako izoztegatik. Ondorioz, kafea desagertuko da eta ordezkatu egingo da soja mekanizatuagatik. 1960 hamarkadan emango diren aldaketok beste kooperatibismo baten sorburu izango dira eta soja eta gariaren eros eta salmenta burutzen hasiko dira.

Garapenak eta mugimenduaren behar berriak eraginda 1960ko hamarkadan lehen kooperatiba federazioa sortuko da, Federação Leste Meridional das Cooperativas de Economia e Crédito (FELEME) eta baita, Organização das Cooperativas da América (OCA) eta Associação Brasileira de Cooperativismo (ABCOOP); azken honek ordeztuko du Centro Nacional de Estudos Cooperativos (CNEC).

Zoritxarrez, herrialdeko ingurumari ekonomikoak inflazio maila altua zela eta, kooperatiba guzti hauen lana eragoztera etorriko da; nagusiki, 1980an, 'hamarkada galdua' moduan ezagutua izango dena.

Diva B. Pinho irakasleak eginiko azterketa batek dioenez, XX mendeko lehen erdialdean, nahiz eta legedi aldetik emaniko aurrera pausuk handiak izan, arrazoi ugari zeuden Brasil eta Europar kooperatibismoak garapen desberdinak izateko³⁶. Europan XIX. mendean



³⁶ PINHO, Diva Benevides. *Memória do cooperativismo a nível nacional: importância e objetivos. In As grandes coordenadas da memória do cooperativismo brasileiro. Brasília: Organização de las Cooperativas Brasileiras, 1991, p. 9-114, vol I.* 'Enquanto na Europa o cooperativismo representou, a partir de meados do século XIX, uma das inúmeras soluções que procuravam atenuar ou suprimir os desequilíbrios resultantes do liberalismo económico, o Brasil enfrentava, então, problemas completamente diferentes: nossa indústria, demasiadamente incipiente, não sofrera diretamente o impacto da Revolução Industrial, nem tão pouco reunia um grupo razoável de indivíduos com consciência de classe ou em condições de buscar solução para seus próprios problemas; a pequena propriedade, tão propícia ao cooperativismo, era praticamente inexistente, predominando o talifúndio, a fazenda auto-suficiente, onde a vida girava em torno de um senhor autocrático; a população era pequena e muito refeita, enquanto na Europa a alta densidade demográfica ensejava a busca de soluções para os mais complexos problemas económicos da produção e da repartição.

Além disto, a escassez dos transportes isolava as regiões brasileiras sendo, na maioria dos casos, mais fácil a comunicação e o comércio com o exterior, a través da navegação marítima internacional, do que entre os próprios estados brasileiros, ou, no mesmo estado, entre a faixa lotânea eo interior.

A esses fatores desfavoráveis juntaram-se mais dois outros, também importantes: o primeiro era a ausência de recursos humanos em condições de praticar o cooperativismo, pois, até 1888 o trabalho escravo impedia qualquer forma de associativismo; e o segundo era a predominância do espírito

kooperatibagintza izango da liberalismo ekonomikoak sortutako desorekak konpontzeko balioko duen formuletakoa bat. Brasilen aldiz hainbat arazo edo eragozpen gainditzeko beharra zegoen: industria sortu berria zen; ez zegoen klase kontzientzia garatua zeukan talderik (euren arazoei irtenbidea bilatzeko beharra eta indarra ez da ikusten); lurjabe txikirik ez zegoen, latifundioa zen nagusi.

Bestalde, Brasilen barneko komunikazioa ez zen erreza. Errazago gertatzen zen sarritan, kanpo komunikazio eta garraioa herrialde barneko eskualdeetako baina. Hala ere pisu gehiagoko arazoak bazeuden: kooperatibismoa aurrera eramateko gizatalderik ez zegoen (1888ra arte esklabutzak ez zuen inolako elkartze formularik onartzen) eta izpiritu indibidualista zen nagusi, besteak beste, komunikatzeko zailtasunak eraginda.

Hona beraz, Europan eta Brasilen kooperatibismoak izaniko garapena ulertzeko hainbat klabe.

3.5. 1964KO DIKTADURA MILITARRA ETA KOOPERATIBISMOAREN GAINEKO ESTATU ERREPRESIOA

1964an militarrek boterea hartu ostean- 1985era arte presidentzian aldatuz joan ziren- asko izan ziren aldetak, beti ere, erregimen berriko interesei erantzun asmoz. Ezaugarri diferenteekin bada ere, bi aldi bereizi daitezke: estatu kolpeari zuzenean jarraitu ziona; herrialdearen gaineko kontrol zorrotz batek markatuta. Eta 1975etik aurrerakoa, errepresio neurri gutxiago izan zituen garaia.

Diktadura garaia lehenean faseak oso eragin maltzurra izan zuen kooperatibismoaren gainean. Brasilgo banku sistema erreformatuko duen 4.595 legearen onarpena izan zen (1964) garai honetako lehenean eragilea. Kreditu kooperatibak, Conselho Monetario Nacional –en araudipean eta Banco Central do Brasilen fiskalizaziopean jarriko ditu, eta ondorioz gainerako finantza instituzioen parean jarriko dira. Neurri honen ondorioz, kreditu kooperatiba ugariren desagertzea gertatuko da. Berriro birloratuko dira bi hamarkada beranduago, lehenik Rio Grande do Sulen eta ondoren beste estatu brasildar batzuetan.

Beste elementu batzuen gehitzeak ekarriko du Sistema Kooperatibo Brasildarra krisi egoeran sartzea, 1965tik 1970era doan garaian. Kooperatiben izpiritu demokratikoaren kontrakoa den estatuaren kontrol zorrotzak, eragingo du diktaduraren kontrako jarrera sutsua izatea mugimendu kooperatiboak.

individualista- característica, aliás, dos povos pioneiros, mas acentuada aquí pela imensidão e pelas dificuldades de comunicação.


Militarrak, 26 artikulua zituen testu batekin 59/66 Dekretu Legea onartu zuten eta honen bitartez, aurreko lege guztiak derogatuak izan ziren³⁷. Carlos Pinhoren esanetan hauek izan ziren ondorio garrantzitsuenak³⁸: 1) Zehaztasun gutxirekin formulatutako printzipio orokorrak; 2) Printzipio kooperatiboen aipamena ezabatzea; 3) Paternalismoa eta zentraltasuna; 3) Onartezina zen formalismoa, kooperatiben funtzionamendua eman ahal izateko alde aurreko eskakizunak eta jarduera esparruaren murriztea.

Errepresio legediaren ostean eta sistema berrantolatzeko helburuarekin, 60.597/67 Dekretuak, zeinak 59/66 Dekretu Legea erregelamendatuko duen, egitura mota hauek izan beharreko printzipioak zein diren ezarriko du. Kooperatiba eratzeko beharrezkoak diren hogeitaz baxkideak lortzen direnen beti ere, atxikipen libreko printzipioa ezarriko du. Beste hainbat zehaztapenez gain, bi kooperatiba mota bereizi zituen eta hiru gradutan sailkatu zituen: lehena, kooperatiba lokal eta erregionalentzat; bigarrena, kooperatiba zentralentzat eta federazioentzat eta azkena, konfederazioentzat.

Hurrengo urteak (1966-1970) diktaduraren gogortzeak eta estatuaren zentraltasunak markatuko ditu. Honetaz gain, kreditu kooperatibismoaren (hiriko zein nekazal munduko) kontrako jokaera gogorra izango da. Joera hau nabarmen ikus daiteke 59 Dekretu Legean, zeinak Conselho Nacional de Cooperativismo (CNC) sortu eta 22.239/32 Dekretua bertan behera utziko duen.

Bestalde, estatuaren kontrolpean sortuko da Banco Nacional de Habitação (BNH) eta honek Cooperativas Habitacionais Operárias –en bidez etxebizitzak eskuratu ahal izateko finantza sistema bat antolatuko du. Operazio honek helburu izango du indarrean dagoen kooperatibismoa desegin eta estatuaren kontrolpean izango den berria sortzea.

Norabide berean eta 1967ko Konstituzio Federalaren onarpenarekin, elkartzeko profesional askatasuna bermatuz, beste egitura esku hartzaile araugile batzuk sortuko dira. Egitura hauek



³⁷ Kreditu kooperatiben fiskalizazioz mintzo den pasarteak honela dio: 'As cooperativas que operam em crédito, continuarão subordinadas, em a parte normativa, ao Conselho Monetário Nacional, e, na parte executiva ao Banco Central da República do Brasil' gerora, Brasilgo Banku Zentrala deituko dena.

³⁸ PINHO, Carlos Marques. Evolução da legislação cooperativista no Brasil. In As grandes coordenadas da memória do cooperativismo brasileiro. Brasília: Organização de las Cooperativas Brasileiras

aukera izango dute kooperatiben funtzionamenduan esku hartzeko, beti ere 'legea babestu eta interes kolektiboa defendatzeko helburuz', 'esku-hartze zuria' deitua izango da. Baina aldi berean, 1968ko iraileko 99 Xedapenak nekazaritza kredituko kooperatibak onartuko ditu eta hauek aurreko nekazal kreditu kooperatiben antz handia izango dute.


Nazio mailako egiturei dagokionean bat egingo dute organizazio kooperatibista nazional biak, Alianza Brasileira de Cooperatibas (ABCOOP) eta União das Associações Cooperativas (UNASCO), eta osatuko dute Organização das Cooperativas Brasileiras (OCB), eta azken hau bihurtuko da Brasilgo kooperatibismoaren ordezkari ofizial bakarra. 1970tik aurrera Federazio Unitate bakoitzean sortuko dira Organizações Estaduais de Cooperativas (OCEs).

3.6. ERREGIMEN MILITARREKO BIGARREN FASEKO KOOPERATIBISMOA ETA 5.764 LEGEA ETA OCB-REN SORRERA

OCB-k Brasilgo kooperatibismoaren historian eta gaur oraindik orain betetzen duen papera zein den kontutan izanik honen sorrera aztertzea beharrezko da gaurko errealitatea ulertzeko³⁹. Atal honetan beraz, OCB-ren izaera eta ibilbidea hobeto ulertzeko bere sorrerako garaian oinarritu eta zentratuko gara.

1961eko abuztuaren 25ean Quadrosek plano kolpistari eman zion hasiera. Kolpe militarren osteko ekintzak Estatuaren eta politikaren militarizazioaren adierazle izango dira. Burutuko diren ekintza antolatuei esker, militarrek protagonismoa eskuratuko dute.

Prozesu honen hasiera formalki, 1964ko apirilaren 9ko 1go zenbakia daraman Ekintza Instituzionalak emango dio. Ato Instituzionaleko 8 artikulua ahalbidetuko ditu Estatuaren barne egiturak gainditzeko mekanismoak. Erregelamenduak ikerketak martxan jartzeko aukera zabalduko du, bai norbanakoen gainean eta baita taldeen gaineko ikerketak ere. Ikerketak honako helburu hauek izan beharko dituzte: Estatuaren aurkako krimen edo ondarearen




³⁹ SILVA, Eduardo Faria. A Organização das Cooperativas Brasileiras e a negação do direito fundamental à livre associação. Dissertação. (Mestrado em Direito Cooperativo). Curitiba: Universidade Federal do Paraná. 2006, p. 4.

aurkako ekintzak ikertzea edo/eta ordenu politiko eta sozialaren aurkako ekintza iraultzaileak ikertzea.

Estatu Kolpearen protagonisten ekintza errepresiboak, 2 Ekintza Instituzionalaren bidez areagotu egingo dira eta lortu nahiko da perfil zehatz bateko ekintzaileen kontra egitea, eta eskubide politikoen esekitzeak honako ondorioak ere badituela adieraziko dute⁴⁰: a) garatzen den jardueraren arabera pribilegiozko forua galtzea; b) hauteskunde sindikaletan hautatzeko eta hautatua izateko eskubidea etetea; c) izaera politikoko edozein ekintzatan parte hartzeko debekua; d) ordenu sozial eta politikoak hala eskatzen duten kasutan, segurtasun neurrien ezartzea. Askatasun zaindua, edo hainbat leku eta egoitza zehatzetara sartzeko debekua.

Interbentzioak eta ondorengo kasazioak oinarritzeko erregimenak CLT- Consolidação das Leis do Trabalho delakoaren 528 eta 555 artikulua diotena erabili zituen⁴¹. Izaera oso subjektiboa



⁴⁰ Art. 7º. Fincam suspensas, por seis (6) meses, as garantias constitucionais ou legais de vitalidade e estabilidade.

1ª Mediante investigação sumaria, no prazo fixado neste artigo, os titulares dessas garantias poderao ser demitidos os dispensados, ou ainda, com vencimentos e as vantagens proporcionasi ao tempo de servicios, postos em disponibilidade, aposentados, trasferidos para a reserva ou reformados, mediante atos do Comando Supremo da Revolução até a posse do Presidente da República e, depois da sua posse, por decreto presidencial ou, em se tartando de servicios estaduais, por decreto do governos do Estado, desde que tehham tentado contra a segurança do Pais, o régime democrático e a probidade da administração pública, sem prejuizo das sanções penais a que estejam sujeitos.

2º Ficam sujeitos ás mesmas sanções os ervidores municipais. Neste caso, a sanção prevista no 1 lhes será aplicada por decreto do Governador so Estado, mediante proposta do Prefeito municipal.

3º Do ato que taingir servidos estadual o municipal vitalicio, caberá recurso para Presindete da República.

4º O controle jurisdicional desses atos limitar-se-á ao exame de formalidades extrínsecas, vedada a apreciação dos fatos que os motivaram, bem como da sua convenciencia ou oportunidade.

⁴¹ CLT 528 artikulua. Lehenengo testu legalak ezartzen zuen, sindikatu, Lan Ministerio, Industria eta Komertzio Sailen funtzionamendua kaltetzeko gertaerak emanaz aukera ematen zela interbenitzeko eta funtzionamendua hobetzeko beharrezkoak ziren neurriak hartzeko.

du ten neurri hauek gobernuak asko erabiliko ditu, eta ondorio gisa, 409 sindikatu profesioaletan, 43 federazio estadialetan, eta hiru konfederaziotan (hauetan patronala bakarra izango da) egingo dira interbentzioak⁴². Behin sistema politiko nazionala desegin eta espazio sindikala geldiarazi ondoren, geratzen den mugimendu sozial bakarra erasotako dute, ikasle mugimendua hain zuzen ere.

Sozietate zibilean erregimenarekin lotura duten aparatuek sortzen dira. Ingurumari honetan gobernuak bi norabidetan jotzen du: erregimenaren aurkariak geldiarazten batetik eta erregimenaren aldeko espazioak sortzen bestetik. Bigarren taldean, erregimenaren babesean sortzen da sektore kooperatiboa ordezkatzeko eta zentralizatzeko Organizaçao das Cooperativas Brasileiras- OCB.

Lankidetzaren modernoaren genesi garaitik datorren proiektu kooperatibistak, Rochadale Society of Equitable Pioneers- ek sortuak azken helburu moduan zeukan balore kapitalistak gidatutako gizartearen eraldaketa soziala lortzea. Kooperatibak eraldaketa sozialerako tresna direla esango da bai berez duten askatasunagatik bai eta egunerokotasunean erakusten duten efikazia praktikoagatik ere.

Ingurumari honetan, Aliança Cooperativa Internacionalek zehaztutako autonomia eta independentzia gisako printzipio kooperatiboak aipamen berezia merezi dute⁴³. Aipatutako printzipio hauek ezinbestekoak dira bi gairi gagozkionean. Bermatu beharra dago, batetik, Estatuak kooperatibekin dituen harremanak ez dutela kooperatiben instrumentalizazioa eragingo eta bestetik berriz, kanpoko kapitala sartzeak ez duela auzitan jarriko, ez kooperatiben

CLT 555 artikulua. Gobernuko politika ekonomikoko neurrien aurkako jarrera zuten sindikatuei, kasazio zigorra eta aitortpen gutuna kentzea ahalbidetzen zuen.


⁴² 1964ko ekainaren 1eko Lei nº 4.330 legea izango da erregimen militarrek mugimendu sindikalaren aurka hartutako beste neurri bat, eta greba eskubidea izango du objektu. Arrazoi politiko, partidario, erlijioso, sozial edo solidarioekin egiten den greba oro legez kanpoko joko da.

⁴³ O principio da autonomia e independéncia foi fixado pela Aliança Cooperativa Internacional com a seguinte redação: ' As cooperativas são organizações autônomas [sic] , de ajuda mútua, controladas pelos seus membros. Se estas firmarem acordos com outras organizações, incluindo instituições públicas, ou recorrerem a capital externo, devem fazê-lo em condições que assegurem o controle democrático pelos seus membros e mantenham a autonomia das cooperativas'.

ez eta, bertako kideen autonomia eta kontrol demokratikoa ere. OCB-ren sorrera Estatutik gertatu dala ikusiz, printzio hauen talka argi ikus daiteke⁴⁴.

Aktan jasota azaltzen diren hiru une desberdinek erakusten dute, oinarrian dagoen pentsamenduak duen edukia⁴⁵. Lehena; Organização das Cooperativas Brasileiras- OCB-en eraketa 1969ko abenduan izango da. Batzarrean erabakiko da ABCOP eta UNESCO ordeztuak izatea. Bilera bera, Luiz Fernando Cirne Lima, Nekazal Ministroak deitua izango da eta bilera bere gabinetean egingo da gainera. Bada bigarren une bat mugimendu kooperatibo nazionala estatuko zentralidadearekin lotuta azaltzen dena Kooperatibismoaren Ordezkaritza Nazionalari buruz hitz egiten denean.

Hirugarrena; une bat izango da Aurreikuspen Zuzendaritzaren (Directoria Previsoria) kargu hartzea⁴⁶. Aipatu Zuzendaritzak erantzukizuna izango du OCB-ren legeztatzearen aurrean.



⁴⁴ 1964ko ekainaren 1eko Lei nº 4.330 legea izango da erregimen militarrek mugimendu sindikalaren aurka hartutako beste neurri bat, eta greba eskubidea izango du objektu. Arrazoi politiko, partidario, erlijioso, sozial edo solidarioekin egiten den greba oro legez kanpoko joko da.

⁴⁵ Pelo presente protocolo, que será considerado válido após ratificação pelas Assembléias Gerais Extraordinárias da Aliança Brasileira de Cooperativas- ABCOP- e a Uniao Nacional das Associações de Cooperativas- UNASCO-, representados neste ato pelos seus respectivos Presidentes, Drs. Gervario Tadaschi Inoue e Tertuliano Bofill, respectivamente, reunidos neste Capital, no Gabinete do Exmo. Sr. Ministro da Agricultura – Professor Luiz Fernando Cirne Lima, convocados pelo mesmo, nesta data, em plena harmonia e com pontos de vistas uniformes (sem grifos no original). Eratze aktan jasoko da sortu berria zen egiturak ordezkatu eta defendatuko zuela kooperatibismo nazionala, eta bere ekinbidea gidatuko zutela: a) legedi kooperatiboak; b) Kreditu Kooperatiboko Banku Naziolak; c) Aurreikuspen eta Zerga erregimenak; d) Kooperatibismoaren ordezkari nazionalak.

⁴⁶ OCBra sortu zen unean afiliatuta azalduko diren egiturak izango dira: a) Associação das Cooperativas Sul Riograndenses- ASCOOPER; b) Uniao das Cooperativas do Estado de Pernambuco- UCEP; c) Uniao das Cooperativas do Estado do Piauí- UCOPI; d) Uniao das Cooperativas do Estado do Rio Grande do Norte- UCERNE; e) Uniao das Cooperativas de Santa Catarina- ASCOOP; f) Uniao das Cooperativas do Estado do Paraná- UCEPAR; g) Uniao Sergipana de Cooperativas- ESECOOP; h) Uniao das Cooperativas de Minas Gerais; i) Uniao das Cooperativas do Estado de Goiás- UCEG; j) Uniao das Cooperativas do Estado do Ceará; l) Uniao das Cooperativas do Estado do São Paulo- UCESP; m) Associação das Cooperativas do Estado de São Paulo- ACAPESP; n) Uniao das Cooperativas do Estado da Guanaraba- UCOEG; o) Alianza de Cooperativas do Estado de Alagoas- ALACOOP; p) Aliança de

OCB-k berak egina den argitalpen batean *'Cooperativismo Brasileiro- Uma Historia'* adierazten du honako hau: OCBk nekazal mugimenduaren ordezkari indartsuaren alde egin behar duela eta gobernuaren interesen aldeko politika ekonomikoa egitea interesgarria eta estrategikoa izango dela.

1970ko ekainaren 8an, ABCOP eta UNASCOren Ez Ohiko Batzarrek onartuko dute OCBren sortzea, eta azkenean, OCB erregistratuta geratuko da Brasilian, Manoel Ribas Distrito Federalean, A-5 liburuan 729 erregistro zenbakiarekin. Bere fundatzaileen esanetan sortzen da, Kooperatibismo Nazionalaren interesak defendatzeko eta ordezkatzeko. Sozietate Zibil izaera hartuko duen egiturak ez du irabazi asmorik izango eta neutraltasun politiko eta erlijiosoa ardatz izango ditu. Lurralde nazional osoan kooperatibismoa antolatzeke helburua izango du.

Estatutuen atal batek xedatzen duena oso esanguratsua da. OCB sortzen da, ABCOOP eta UNASCOren arteko fusioaz eta ordutik aurrera beraz bilakatzen da sistema kooperatibista nazionalaren ordezkotza instituzionala eramateko egitura moduan. Kooperatibismo brasildarra ordeztuko du gobernuaren eta gainerako nazio eta nazioarte mailako egituren aurrean. Bere gain hartzen dituen eskuduntzak dira: kooperatibismoaren gaineko estudioak burutzea, sistema kooperatibista sustatu eta hedatzea eta errepresentazio kooperatiboa indartzea. Une hau dugu beraz, kooperatibismo brasildarra OCB-ren eskura igarotzen den momentua.

Kooperatibismo Nazionalaren zentraltasuna, kontrola eta instrumentalitatea ordutik aurrera, arlo juridiko eta politikoan beste neurri batzuk hartzearen baitan geratuko dira. Neurri hauek 1971ko, abuztuaren 19an, Marechal Presidente Emilio Garrastazu Medicik hartuko ditu, Diputatuen Ganbararak 300 zenbakidun mezua igortzen duenean.

Aipatutako dokumentua, Nekazal Ministroak idatzi zuen, apirilaren 1eko 45 zenbakia zeraman eta Zioen adierazpena jasotzen zuen atal bat bazuen. Lege proiektua parlamentuak onartzearen menpe lagatzen zuen eta aldi berean, Kooperatibismoko Politika Nazionala definitu eta Kooperatiben errejimen juridikoa ezartzen zuen.

Ekimena, Zioen adierazpenean jasota azaltzen zenaren arabera, gobernuak nekazal garapenerako zituen helburu eta ekintzen baitan kokatzen zen. Azkenean, garapen


Cooperativas do Estado do Bahia- ACB; q) Aliança de Cooperativas do estado do Ceará- ALICE; r) Aliança de Cooperativas do Estado do Espírito Santo; s) Aliança de Cooperativas do Estado do Maranhao- ALCOMAR; t) Aliança da Cooperativas do Estado de Pernambuco; u) Associação de Cooperativas do Estado do Mato Grosso; v) Aliança de Cooperativas do Plancito Central (Anexo I da Ata de Constituição da OCB).

nazionalerako ekintzen baitan kokatua izango da eta 'Metas e Bases para Acao do Governo'ren barnean azaltzen zaizkigu berauek, eta bertan kooperatibismoaren garapena lortzeko pizgarriak eskaintzen ziren. Kooperatibismoaren ordezkariak eta gobernuko ordezkariak izango dira lanketan ariko direnak. Helburu izango dute kooperatibismoarentzat politika nazionala definitzea.

Antonio José Rodrigues Flihok eskatuko du gaia lantzea, OCBren Diretoria Provisoriako lehen bileran; bilera bere gabinetean, Sao Pauloko Nekazal Idazkaritzaren egoitzan egingo da, eta esanguratsua izango da esango dena⁴⁷. Bertan ikus dezakegu Nekazaritza Sailaren eta Kooperatibismoaren arteko lotura. Kooperatibismoko legea lantzeko aurreproiektu fasean argi ikus daiteke kooperatibismoak nekazaritza sektorearekin dituen loturak eta haratago joanez, kooperatibismoaren gaineko legedia nola sortzen den nekazal sektorearen interes eta beharrak asetzeko. Brasilen gaur oraindik indarrean dagoen legedia beraz, nekazaritzarako estrategia zehatz bat dutenen eskutik etorriko da.

Martxan jarritako Legeak, 292 identifikazioa eramango du, eta abuztuaren 24an, 7 legegintzaldian egingo den 95. sesioko lehen lege sesioan onartuko da eta Kongresu Nazionalak duen aldizkariko lehen sesioan, abuztuaren 25an argitaratuko da.

292 Lege proiektua bihurtuko da Lei nº 5.764, 1971ako abenduaren 16koa, eta ordura arte zegoen kooperatibismoaren inguruko legedi guztia ordezkatzera etorriko da. Onartua izango den legeak sentsibilitate desberdinen arteko desadostasunak azaleratuko ditu; besteak beste,




⁴⁷ *Indagado sobre um anteprojeto de lei de cooperativismo que estaria sendo elaborado, o Senhor Presidente [Antonio José Rodrigues Filho] esclareceu que, de fato, recebera esta solicitação, por parte do Ministro Cirne Lima. E que, a título de dubsídio, havia encaminhado ao referido Ministro, um texto de Anteprojeto elaborado com base não só na análise da legislação vigente, como também em estudos realizados por associações representativas de Cooperativas e órgão oficiais, nas conclusões do 4º Congresso Brasileiro de Cooperativismo, no parecer de Dr. Walmor Franke, sobre o anteprojeto elaborado pelo Ministro do Planejamento e nas disposições constantes do protocolo firmado entre ABCOOP e UNASCO. Esclareceu também que mediante expressa solicitação do Senhor Ministro, havia discutido o assunto com o Dr. Walmor Franke, o qual permaneceu em São Paulo especificamente para esse fim. Ao terminar sua exposição sobre esse assunto, o Senhor Presidente acrescentou que, no encaminhamento do anteprojeto do Ministro esclareceu haver nele alguns dispositivos que não coíndiam totalmente com o ponto de vista do Dr. Walmor Franke.*

sistema kooperatibista nazionalaren ordezkartzari eta honek izango duen statusari dagokionean. Ordezkaritza OCBri esleituko zaio.

Argitaratuko den araua, OCBren eratze aktaren kopia izango da. Testuan sistema kooperatibista nazionalari egiten zaio erreferentzia eta bere 105 artikuluan, kooperatibismoaren ordezkartza Organização das Cooperativas Brasileiras- OCB egikarituko duela esaten da⁴⁸. Eta 107 artikuluan esaten denaren arabera, kooperatibak funtzionatu ahal izateko beharrezko izango dute OCBn erregistratzea⁴⁹:

Hartutako neurriak oro har, eta zehazki Lei 5.764/71an 17 eta 18 artikulutan jasotakoek, hau da Junta Komertzialak kooperatibei izaera juridikoa, eta funtzionamendua baimendu ahal izateko



⁴⁸ Art. 105. A representação do sistema cooperativista nacional cabe á Organização das Cooperativas Brasileiras- OCB, sociedade civil, com sede na Capital Federal, órgão técnico- consultivo do Governo, estruturada nos termos desta Lei, sem finalidade lucrativa, competindo-lhe precipuamente:

- manter neutralidade política e indiscriminação racial, religiosa e social;
- integrar todos os ramos das actividades cooperativas;
- manter registro de todas as sociedades cooperativas que, para todos os efeitos, integram a Organização das Cooperativas Brasileiras- OCB;
- manter serviços de assistência geral ao sistema cooperativista, seja quanto á estrutura social, seja quanto aos metodos operacionais e orientação jurídica, mediante pareceres e recomendações, sujeitas, quando for o caso, á aprovação do Conselho Nacional de Cooperativismo- CNC;
- denuncia ao Conselho Nacional de Cooperativismo práticas nocivas ao desenvolvimento cooperativista;
- opinar nos processos que lhes sejam encaminhados pelo Conselho Nacional de Cooperativismo;
- dispor de setores consultivos especializados, de acordo com os ramos de cooperativismo;
- fixar a política da organização com base nas proposições emanadas de seus técnicos;
- exercer outras actividades inerentes á sua condição de órgão de representação e defesa do sistema cooperativista;
- Manter relações de integração com as entidades congêneres do exterior e suas cooperativas; secreto, permitida a reeleição para mais um mandato consecutivo.


⁴⁹ Art. 107 As Cooperativas sao obrigadas, para seu funcionamento, a registrar-se na Organização das Cooperativas Brasileiras ou na entidade estadual, se houver, mediante apresentação dos estatutos sociais e suas alterações posteriores.

beharrezko duten dokumentazioa zein izango den ezartzen dutenak, mugimendu kooperatibo osoaren kontrola suposatuko du⁵⁰.

Egoera honek erakusten du erregimen militarrek ezarrita zeukan sistema kooperatibo nazionalaren eredua errepikatu egiten dela; erabakiak guztiz zentralizatuta azaltzen dira, eta gobernuaren politika aurrera eramanez ahal izateko sozietateen instrumentalizazioa erabatekoa da.

Onartu berri den araudiak aurreko egoerarekin alderatuz hainbat aldaketa sartuko ditu. Lehena eta alderdi politikoei zegokienean aukera zegoen alderdiak egituratu eta desegituratzeko, nahiz eta modu manikeo batean izan. Onartzen den araudiarekin, pentsamendu bakarra ezarriko da eta ondorioz, lortu nahi diren helburuei begira sozietate kooperatiboak moldeatu eta dozilizatzea posible izango da.

292 zenbakidun lege proiektutik eratorri zen proiektu politikoa beranduago 5.764/71 legearen onarpenean argitaratuko da. Erregimen militarren babesarekin eta onartu berri den araudiarekin, OCB hedatuz doa, eta hau aurrera eramateko, OCES edo egitura estatualez



⁵⁰ Art 17. A cooperativa constituída na forma da legislação vigente apresentará ao respectivo Orgaz ejecutivo federal de controle, no Distrito Federal, Estados ou Territorios, ou ao Orgao local para isso credenciado, dentro de 30 (trinta) días da data da constituição, para fins de autorização, requerimento acompanhado de 4 (quatro) vias do ato constitutivo, estatuto e lista normativa, além de outros documentos considerados necesarios.

Art. 18. Verificada, no prazo máximo de 60 (sessenta) dias, a contar da data de entrada em seu protocolo, pelo respectivo órgão ejecutivo federal de controle ou Orgaz local para isso credenciado, a existencia de condicoes de funcionamento da cooperativa em constitutivo, estatuto, bem como a regularidadeda documentação apresentada, o órgão controlador devolverá, devidamente autenticadas, 2 (duas) vias a cooperativa acompanhadas de documento dirigido a Junta Comercial do Estado onde a entidade estiver sediada, comunicando a aprovação do ato constitutivo da requerente.

1º Dentro desse prazo, o órgão controlador, quanto julgar conveniente, no interesse do fortalecimiento do sistema, poderá ouvir o Conselho Nacional de Cooperativismo, caso em que nao se verificará a aprovação automática prevista no parágrafo seguinte.


baliatuko da. Azken hauek izango dira mugimendu kooperatiboaren doktrina zabalduko dutenak eta, kooperatiben ordezkaritza estatuetara eramango duten agente politikoak.

26 Estatu federaletan izango dute presentzia, eta OCEs hauei dagokie, kooperatibak erregistratzea, gidatzea eta integratzea. Formazioa eta bestelako trebetasunak landuz, autogestioaren profesionalizazioa lortuko dute. Hauek dira aurrerago landuko ditugun funtzioak eta zalantzan jarriko ditugunak.

1970 eta 1980 hamarkadan zehar, Organização das Cooperativas Brasileiras- OCBri lege bidez esleitu zitzaion proiektu politikoaren sendotzea eta hedapena eman ziren. Erakundeak bere erantzukizun pean zeuden eskaerak prestatu eta aurrera eraman zituen, eta horretarako egitura nazionalak eta estadualak, bai eta kooperatibak beharrezko zituzten arauak emango edo onartuko ditu.

Lehen neurrien artean egon dira, kooperatibetako estatutu sozialak 5.764/71 legera egokitzea eta erakundearen nazioarteko harremanak indartzea. Nazioarteko harreman hauek 1971atik, Organização das Cooperativas da América- OCA delakoaren bitartez bideratzen ziren, eta 1972an, Organização dos Estados Americanos-OEAren bitartez oraindik gehiago zabaldu ziren⁵¹. 1988an beraz, garai hartan OCB-ren lehendakari zen Roberto Rodriguesek eskaera luzatuko du OCB Nazioarteko Aliantza Kooperatiboan sar dadin, eta 1989an Indian egingo den Batzar Orokorrean OCB-ren filiazioa onartua izango da⁵².

5.764/71 Legea onartu ondoren, eta bereziki, 95 eta 102 artikuluen aldaketak eraginda, 1966ko, azaroaren 21eko, Dekretu Legea aldatzeak, eragingo du makropolitika kooperatibista goitik-




⁵¹ A Organização das Cooperativas da América- OCA, constituída em 1963, é responsável pela articulação no continente das atividades cooperativas. Atualmente essa entidade tem sua sede na cidade de Bogotá, Colombia, e integra as representações de vinte países, incluindo o Brasil, por meio da Organização das Cooperativas Brasileiras- OCB.

Em 1972, a OEA efetuou o repasse de 3 mil dólares à Organização das Cooperativas Brasileiras- OCB, a fim de garantir a participação no IV Seminário Interamericano de Bancos de Cooperativas. (Ata da 7º Reuniao Ordinaria da Diretoria da Organização das Cooperativas Brasileiras, fl. 1 datada de 24 mar. 1972).

⁵² Em 1988, Roberto Rodrigues, Presidente da OCB, requereu a filiação da entidade na Alianza Cooperativa Internacional- ACI, a qual foi aceita, em Assembleia- Peral, em 1989, na India.

behera aldatzea⁵³. Conselho Nacional de Cooperativismo- CNC, delakoak zehaztu eta finkatuko du aipatu politika kooperatibista eta hemendik aurrera lankidetzan jardungo du, Colonização e Reforma Agrária- INCRA delakoarekin batera⁵⁴.

Nekazaritza Ministroaren lehendakaritzapean, Conselhoak honako osaketa zeukan: Planeamendu eta Koordinazio Orokorreko Ministerioaren ordezkaria, Ogasun Ministerioaren ordezkaria eta hau Banku Zentralaren ordezkartzaren bidez, Barne Ministerioa eta hau, Etxebizitza Banku Nazionalaren ordezkartzaren bidez; Nekazal Ministerioa eta hau,



⁵³ O Decreto-lei nº 59, de 21 de novembro de 1966, foi revogado com a publicação da Lei nº 5.764, de dezembro de 1971.

⁵⁴ Art. 97 Ao Conselho Nacional de Cooperativismo compete:

- editar atos normativos para atividade cooperativista nacional;
- baixar normas regulamentadoras, complementares e interpretativas, da legislação cooperativista;
- organizar e manter atualizado o cadastro geral das cooperativas nacionais;
- decidir, em ultima instancia, os recursos originarios de decisoes do respectivo órgão executivo federal;
- apreciar anteprojetos que objetivam a revisao da legislação cooperativista;
- estabelecer condicoes para o exercicio de quaisquer cargos eletivos de administração ou fiscalização de cooperativas;
- definir as condições de funcionamento do empreendimento cooperativo, a que se refere o artigo 18;
- votar a su propio regimento;
- autorizar, onde houver condições, a criação de Conselhos Regionais de Cooperativismo, definindo-lhes as atribuições;
- decidir sobre a aplicação do Fundo Nacional de Cooperativismo, nos termos do artigo 102 desta Lei;
- estabelecer em ato normativo ou de caso a caso, conforme julgar necessario, o limite a ser observado nas operações com nao associados a que se referem os artigos 85 e86.

Párrafo único. As atribuições do Conselho Nacional de Cooperativismo nao se entendem as cooperativas de habitação, as de crédito e as seções de crédito das cooperativas agrícolas mistas, no que forem regidas por legislação propria.


O Conselho Nacional de Cooperativismo, por meio da Lei nº 7.231, de 23 de outubro de 1984, passou a funcionar juanto ao Ministerio da Agricultura e, mediante a deição do Decreto nº 90.393, de 30 de outubro de 1984, foi creada a Secretaria Nacional de Cooperativismo- SENACOOOP, no Ministerio da Agricultura, que subsistua o INCRA nas funções de controle do Cooperativismo.

Kolonizazio eta Nekazal Erreformaren Institutuaren bidez eta Kredito Kooperatiboko Banku Nazionalaren bidez, eta azkenik, Organização das Cooperativas Brasileirasen ordezkartiaz.

OCB esan behar da, 5.764/71 Legeak bere 105 artikuluan esleitu zion eskuduntza multzoari esker, eragin handia zuela eta makropolitika nazionalean ere esku hartze handia burutzen zuela. Eraginaren arrazoi nagusia besteak beste, Conselho Nacional de Cooperativismo delakoan dituen hiru aulkiak izango dira. Esan berri dugunaz gain, OCB praktikan, CNC osatzen duten gainerako Ministerioek baino indar indibidual handiagoa zuela esan behar da⁵⁵.

CNC-k emandako erresoluzioak nagusiki, Lei nº 5.764/71-aren artikuluen inguruko interpretazioak izango dira. Bestalde, modu batera zein bestera behin eta berriz, azpimarratuko da sistema kooperatiboa OCBren gidaritzapean dagoela. OCB-k ordezkartiza eta kontrola mantendu eta indartzeko tresna desberdinak bazituen arren, kooperatibak burokrazian murgiltzea izan zen horietako bat. Kooperatiba eroldaratu ahal izateko beharrezkoa zen OCB-k ziurtatzea kooperatiba ez zela ezelako elkarteko bazkide.

Klase menperatzailearen borondateari jarraituz, diktadura garaian eraikitako politikak, brasilgo mugimendu kooperatiboaren desegituratzea ekarriko du, eta baita indarrean dagoen araudiaren eta errealitate sozial kooperatiboaren arteko etena ere. Lei nº 5.764/71aren xedapenek eta Conselho Nacional de Cooperativismoren Xedapenek ez zioten antolaketa sozial berriaren beharrei erantzuten, eta are gutxiago antolaketa kooperatiboei⁵⁶ (camponeses, garimpeiros, seringueiros,




⁵⁵ A estrutura do Conselho Nacional de Cooperativismo- CNC, estabelecida anteriormente no artigo 9 do Decreto- Lei nº 59, de 21 de novembro de 1966, era composta por um Presidente, oriundo do Instituto de Desenvolvimento Agrario, e 6 membros, indicados, respectivamente, pelo Gabinete do Ministerio Extraordinario para o Planejamento e Coordenação Económica, o Banco Central, o Banco Nacional de Credito Cooperativo, o Banco Nacional de Habitação, o Instituto de Desenvolvimento Agrario e pelo Orgaz superior do movimento cooperativista nacional, devidamente reconhecido pelo governo.

⁵⁶ As Incubadoras Tecnológicas de Cooperativas Populares (ITCP), constaram e apontaram, de forma unânime, que o conteúdo da Lei 8.764/ 71 é insuficiente e inadequado para atender as necessidades das cooperativas populares urbanas e rurais, principalmente, porque o texto normativo destina-se, prioritariamente, às sociedades agrícolas, estruturadas em uma visao empresarial e agro-exportadora da política occidental da década de 60, resultou na obstrução do cooperativismo agrícola popular e da reforma agraria. (GEDIEL, J.A.P)

artesoos, quilombolas, ribeirinhos...) eta Brasilen 1980ko hamarkadan, indarrean sartu zen prozesu demokratikoaren aurka egiten zuen⁵⁷.

Hurrengo urtetan, eman zen zabalkunde nazionaleko politika Konstituzioaren aldeko mugimendu gisa hartua izan zen⁵⁸. Esperantzaren atarian askotarikoak diren batzen eta mugitzen hasten diren talde eta elkarteak⁵⁹.



⁵⁷ Os agricultores de assentamentos de reforma agraria encontram resistencia nas Juntas Comerciais, para conseguirme arquivar os atos das cooperativas criadas, sob argumentos diversos. Cita-se o caso que ocorreu, no ano de 2004, na Junta Comercial do Estado do Sao Paulo, em que o arquivamento foi impedido, pois a denominação social da entidade nao poderia conter a expressao ' reforma agraria' ou que as profissoes dos cooperados nao se compatibilizam com o seguimento cooperativista.

⁵⁸ O Conselho Nacional da Ordem dos Advogados do Brasil, neste contexto, fomentava um importante movimento nacional voltado á relaização da Constituinte, materializado, entre outras ações, por meio dos Congressoa Nacionais de Advogados Pró-constituente, que contaram com a presença de nomes representativos dos mais variados seguimentos sociais como, por exemplo, José Lamartine Correa de Oliveira, Mauricio Correa, Márcio Thomas Batos, Herbert José de Souza, Dom Mauro Morelli, Dalmo de Abreu Dallari, Fábio Konder Comparato, Eros Roberto Grau, Francisco de Oliveira, Paulo Bonavides, Evandro Lins e Silva, Galeano Lacerda, Tarso Fernando Genro, Ailton Krenak e Álvaro Tukano. A amplitude pode ser obeservada nos objetivos do seu regimento interno, que pautava: a) a concretização, através de propostas em materia de legislação eleitoral e partidaria, e de deliberação sobre as características desejáveis da futura Assembleia Consituinte, da posição já assumida pelo Conselh Federal da Ordem dos Advogados do Brasil- OAB em defesa de uma Cnstituinte com poderes originarios, exclusivos e soberanos, e composição popular; b) a sugestao de linhas de pensamento básicas desejáveis para uma futura Constituição democrática para o Brasil, de modo a que tasi linhas representem um convite ao debate a ser promovido em todo Brasil, junto a todas as camadas populares, por intermedio das Seccionais da Ordem dos Advogados do Brasil- OAB. (CONGRESSO NACIONAL DE ADVOGADOS PRO-CONSTITUINTE, II, 1985, Brasilia. Anais do II Congreso Nacional de Advogaso Pró-Constituente. Brasilia: Conselho Federal da Ordem dos Advogados do Brasil, 198, p.25).

⁵⁹ 'organismos de democracia direta, sujeitos políticos coletivos de novo tipo (comissoes de empresa, associações de moradores, comunidades religiosas de base, etc.); ganharam também autonomia e representatividade, na medida em que se desligaram praticamente da tutela do Estado, antigos organismos de massa, como alguns dos principasi sindicatos do país, ou poderosos aparelhos privados de hegemonia, como OAB, a CNBB, a ABI, etc.; finalmente, assitimos á irrupção de importantes movimientos setoriais contra opressoes especificas (em particular o movimiento feminista), ou em defesa

Hala ere esan behar da, sortzen ari ziren mugimendu sozial berriek eta Konstituzio Federal berria egiteko prozesuak, ez zutela estatuaren oinarriak aldatzeko edo berregituratzeko helburua.

1985ko abenduaren 27an, Diputatuen Ganbara eta Senatu Federaleko kideak Assembléia Nacional Constituintea eratuko dute. Nahiko da parlamentari desberdinek mahaigaineratu dituzten interes kontrajarri eta bereziak bateragarri egitea⁶⁰. Interes popular hauek kontrajarriak izango dira eta azpimarratzekotan: nekazal erreformaren aldeko milioi bat ekintza eta bostehun mila laneko egonkortasunarekin lotuak.

Bloke kontserbadore batuaren mamua, hurrengo Konstituzio bozketetara zabaltzeko arriskuaz zegoena, ez zen gauzatu, beti ere, interes parlamentarioen arteko zatiketa kontutan izanda; esate baterako, nazionalistak eta 'entregistak' eta sozietate zibileko sektore desberdinen arteko gainerako adierazpide guztiak⁶¹. Era honetan, lehenetsiko dira Karta Politikoa perfil liberal eta aurrerakoiarekin sistematizatu eta egituratuko duten jarrerak, Estatu Sozial baten konfigurazioarekin, 1967ko Konstituzioaren xedapenekin alderatuz beti ere.

da ecologiae qualidade da vida, cujas reivindicações- de caráter fundamentalmente democrático- sao hoje parte integrante da luta pela renovação política e cultural de nosso país. O fortalecimento da sociedade civil abra assim a possibilidade concreta de intensificar a luta pelo aprofundamento da democracia política no sentido de um democracia organizada de massas, que desloque cada vez mais 'para baixo' e eixo das grandes decisoes hoje tomadas exclusivamente 'pelo alto'.

⁶⁰ Citam-se como modelo de decisoes peculiares algumas das proposicoes do substitutivo do Relator da Comissao da Soberania e dos Directos e Granitas do Homen e da Mulher, constantes do artigo 3º e determinads como directos e libertades individuais invioláveis: a) a vida intra-uterina, inseparable do corpo que a concebeu ou a recebeu, é responsabilidade da mulher, comporta expectativa de directos e será protegida por lei; b) o homem e a mulher sao iguais em directos e obrigações, inclusive os de natureza domestica e familiar, com a única exceção dos relativos é gestao, ao parto ao aleitamento; c) a lei nao limitará o número de dissoluções da sociedade conjugal. De igual forma, observase a emenda aditiva de Maguito Vilela, do PMDB sw Goiás, que propunha a padronização das cores dos veículos oficiais pertencentes aos órgãos da administração pública, sendo que uma Lei Complementar o Ordinaria iria estabelecer a cor.

⁶¹ As disputas relacionadas aos setores estrategicos da economia e quais encaminhamentos seriam tomados foram intensas no período da Constituinte, pois o capital estrangeiro ocupava, á época, 100% de controle na industria farmaceutica, 99,8 % na produção de automóveis, 77,9 % na eletrónica, 63,8 % na de metasi e afins, 61,2 % na distribuição de petróleo, 59,4% na de máquinas e equipamentos. O controle das multinacionais incluía também o aluminio, o ferro, o mangánes, o ouro, o chumbo, o estanho, o níquel, o amianto e o niobio. (SADER, E. Um Brasil para...).

Ingurumari historiko honetan sortzen da kooperatibismoaren auzia, Konstituzio eratze prozesu honetan. Batzar Eratzaile Nazionalaren eztabaidetan, aurre-proiektu eta proiektutako emendakin gehienak oinarritzen ziren batez ere: a) laguntza eta sustapen politikak elkartze mota guztietarako, kooperatibagintza tarteko; b) hezkuntza kooperatiboa irakaskuntzaren arlo eta maila guztietan; c) ekintza kooperatiboa eta honi dagokion zerga erregimena, d) kooperatiben eraketa eta jardun askea.

Aipatutako puntu guztien artetik, OCBren aldetik, arreta berezia merezi zuena zen, kooperatiben eraketa askea eta estatuaren eskuhartzearen debekua ezartzen zituen puntua. Puntu honek erantzuten zion, X Congresso Brasileiro de Cooperativismo- CBC-n erabakitakoari; bertan eskatuko da mugimendu kooperatiboa askatzea estatuaren babespenetik.

Eztabaida aintzat hartu eta aurrera eramateak esanahi zuen, entitate hauek estatuaren 'esku ikusgarrietatik' askatzea. Eta ondorioa, diktadura garaian gobernuaren, OCBren eta kooperatiben artean sortu zen lotura etetea izango zen.

OCBk planteatzen zuen egitura aldaketa aurrera eramateak, suposatzen zuen 1960ko hamarkadan ezarri zen proiektu politikoaren egokitze bat. Une hartan, Konstituzio berriaren lanketarekin kanporatzen ari zen estatua engranaje horretatik eta hori ekidin nahi zuen OCBk bere planteamendurekin.

Erregimen militarren agindupean diseinatu eta ezarri zen zirkuitoak itxita jarraituko du oraindik, kooperatiben ordezkari eta afiliazio derrigortasuna OCBren esku izango delako. 5.764/71 legeko 105 eta 107 artikuluko ezarritakoak indarrean jarraitzen duelako eta xedapenak OCBri ematen diolako eskuduntza eskusibo hori.

Egitear zegoen eraldaketa mugimendu bikotzean zehazten zen: a) Kanpora begira- OCB-k Estatuaren aurrean izango lukeen autonomia osoa batetik; b) Barnera begira- kooperatibek OCBrekiko menpekotasun osoa izatea.

Helburu hau aurrera eramateko erabilitako tresna Kongresu Nazionalean Frente Parlamentar do Cooperativismo (FRESCOOP). Egitura hau 1984an sortua izan zen; hasiera batean 45 hautagai zituen, diputatu eta senatariak tarteko, bai OCBren babesarekin eta baita estatu antolaketekin ere. Konstituzio egilearen (constituente) lanak aurrera egin ahala, kide kopuruak gora egingo du eta 217 parlamentari izatera ailegatuko dira, eta partidu sigla desberdinetakoak gainera.

Iradokitako testuak nahiz eta erredakzio desberdina zuten, denak ere, Congresso Brasileiro de Cooperativismon marraztutako gidoiko izpiritua jarraitzen zuten; hots, estatu babes edo tutelatik

askatzea alegia. Emendakin batzuk zerga bilketarako legezko ordezkari zuten organo bat sortzeko proposamena jasotzen zuten. Ekimena azkenean, hamar urte beranduago gauzatuko da, beste tresna araugile batzuen bitartez eta hau izango da Sistema Nacional de Aprendizagem do Cooperativismo- SESCOOP.


Kooperatiben eraketarako aldez aurreko baimenik behar ez izatea eta funtzionamenduan esku-hartzea debekatua izatea jasotzen duen artikulua izango da testu konstituzionalean erreferentzia garrantzitsuena. Konstituzio Federalean, II tituluan, Oinarrizko eskubide eta bermeak jasotzen diren atalean, zehazki, 5 artikuluan, XVIII atalean jasoko da zehazki⁶².

Konstituzioan jasotzeak Estatuaren aurrean autonomia ematen du eta esan behar da, badirela Konstituzioan oinarrizko askatasunekin erlazionatuta dauden eskubideak bermatzeko helburu duten beste artikulua batzuk. Zentzu honetan, XX ataleko edukiak, hots, 5 artikuluko eduki bera, OCBren proiektu politikoan hutsune edo eragozpen bat suposatuko luke. Atal honek argi eta garbi adierazten du, *'ezin izango zela inor behartu edo derrigortu elkartzera'*.

Konstituzioko atal hauen artean sortu zen eztabaidak eragingo du, inolako zalantzarik gabe, 5.764/71 Legea argitaratu zenetik, sistema kooperatibistan emandako aldaketarik garrantzitsuena. Estatuaren eta OCBren alde, diktadura militar garaian ezarri zen boterea zentraltasunarekin hautsiko da, eta ondorioz, garai hartan idealizatu zen proiektu politikoaren oinarrizko printzipioekin hautsiko da.

Konstituzio xedapenak dakartzaten ondorioak ez datoz bat OCBk dituen asmo eta planekin. Nahiz eta erakundeak berak, OCBk, estatuaren tutoretza askatu nahi izan, ordezkari zuten kooperatibo nazionala berak izatea gorde beharrekoa zen, azken batez, hori baitzen bide bakarra, kooperatibak bere kontrolpean izateko.

Konstituzio Federal berriak aldarrikatzen duen antolaketa eta elkartzeko edo asoziazio askatasunak, ordura arteko kontrol monopolioarekin haustea ekarriko du. Sortzen ari zen erregimenak, ia 17 urtetan dimentsio nazionala izan zuen egitura aldatzea suposatuko du.



⁶² XVIII- a criação de associações e, na forma da lei, a de cooperativas independentem de autorização, sendo vedada a interferência estatal em seu funcionamento


1988ko Konstituzio Federalak espresuki jaso nahi izan zuen eraketa eta asoziazio askatasuna, 5 artikuluko XVIII eta XX ataletan. Kontraesana nabarmena zen 5.764/71 legeko erredakzioaren eta estatuaren esku-hartzearen aurka zeuden aktore sozialek bultzatzen zutenaren artean.

Konstituzioak ezarri zuen ordena berrian, Brasilgo estatuaren oinarrizko eskubideen inguruan sartu zuen aldaketan ondorioz, eta kooperatiben eraketa eta ordezkartzari dagokionean zehazki, honela dio: a) eraketa eta antolaketa arauen ezarpenerako eta funtzionamendu eta barne ordezkartzarako askatasuna; b) kooperatibak beraien artean elkartzeko eskubidea, eta interes komunak defentsan jardungo duen pertsona juridikoak sortzeko aukera eta kontrako zentzuan, elkartuta zeuden pertsona juridikoagandik bereizteko aukera; c) eta bere alderdi negatiboa hartuta, ez elkartzeko eskubide gisa ere uler liteke, hau da, inolako erakunde edo taldetan parte ez hartzeko aukera gisa, beste herrialde batzuetako Konstituzio Gorteak jasota daukaten legez.

Dimensio konstituzionala duen elkartzeko askatasun eskubide honek zuzenean du harremana kooperatibismoa gidatzen duten beste bi printzipioekin: autonomia eta independentzia printzipioekin hain zuzen ere, eta beraz, 1971ko abenduaren 16ko 5.764/71 legearen gain du eragin zuzena. Antolatze eta elkartze askatasun eskubidea jasotzen duen mandatu konstituzionalak ez du suposatzen inondik inora, kooperatibak eratzeko inolako baimen edo administrazio interbentzio beharrik.

Vergilio Frederico Periusen esanetan, Brasilgo kooperatibismo nazionala herrialde garatuetako kooperatibismoarekin parekatzen hasiko da eta estatuaren tutoretzatik kooperatibak askatzeko bidea ezarriko du⁶³. Legegile eta betearazle denak beharrezko du mandatuak betetzea, beti ere Zuzenbidezko Estatu Demokratikoarekin koherentzian jokatu nahi badu.

Kooperatibak eta oinarrizko eskubideak arautzen dituzten printzipio eta arauen arteko koherentzia aztertzeko beharrezkoa da kontutan izatea, hauek sortuak izan zirela kontzepzio juridiko eta politiko desberdinetan. Ondorioz, beharrezkoa izango da zuzenbidea egiten dihardutenek arau hauen eta Konstituzio Errepublikarraren artean harmonizazioa bilatzea.




⁶³ Vergilio Frederico Perius. Cooperativismo e Lei. Unisinos, 1985

Konstituzioak ahalik eta eraginkortasun maila altuena lortu dezan, beharrezkoa izango da mekanismo desberdinak kontrolatu eta erabiltzen jakitea. Besteak beste, Konstituzioaren aurkako legeak debekatzea; prozesu hermeneutikoen erabilera; legeen konstituzionaltasuna zaintzeko kontrol judiziala.

Helburu eta kautela horrekin aztertu behar dira, Lei 5.764/71ko 105 eta 107 artikulutan jasota datozen kooperatiben kanpo ordezkari legala eta kooperatiben erregistro arautzen duten legeen konstituzionaltasuna⁶⁴.

Lei 5.764/71ko testuak Konstituzio Federaleko, 5 artikuluko XVII eta XX atalek diotenari kontra egiten diote⁶⁵. Kontraesana nabarmena da. Konstituzioak elkartzeko askatasuna, funtzionamendu askatasuna eta estatuaren interferentzia eza aldarrikatzen ditu. Eta elkartuta egoteko derrigortasun eza xedatzen du. Lege eta konstituzioaren arteko kontraesanean, konstituzioa nagusi.

1964an Brasilen ezarri zen eta 1985era arte iraun zuen erregimen militarrekiko haustura suposatzen du 1988 Konstituzio Federalak eta Estatuaren eta Sozietate Zibilaren arteko harreman aldaketa suposatuko du. Estatu, ordutik aurrera, ordura arte egon ez ziren balore eta printzipioen arabera jarduten hasiko da (Lei 5.674/71aren argitaratze data ere tartean), eta egoera berriak presente izango du oinarritzko eskubideen errespetua. Tartean elkartzeko askatasuna bera ere.



⁶⁴ Art. 105. A representação do sistema cooperativista nacional cabe é Organização das Cooperativistas Brasileiras- OCB- sociedade civil, com sede na Capital Federal, órgão técnico-consultivo do governo, estruturada nos termos desta lei, sem finalidade lucrativa, competindo-lhe principalmente.

Art. 107. As cooperativas são obrigadas, para seu funcionamento, a registrar-se na Organização das Cooperativas Brasileiras ou na entidade estadual, se houver, mediante apresentação dos estatutos sociais e suas alterações posteriores.

⁶⁵ XVIII.- a criação de associações e, na forma de lei, a de cooperativas independem de autorização, sendo vedada a interferência estatal em seu funcionamento.


XX- Ninguém poderá ser compelido a associar-se ou a permanecer associado.

Zuzenbidezko estatuaren berrezarpena ezaugarri berri batzuekin hasten da egituratzen, eta ezaugarriok konstituzioko testuan hasten dira ezartzen eta honela Zuzenbidezko Estatu Demokratikoa hasten da egituratzen. Egoera honetan askatasuna esparru berrietara hasten da hedatzen: askatasun ekonomikoa eta soziala, askatasun indibiduala eta baita maila kolektiboko askatasuna ere.

Argi ikus daiteke beraz, hasiera batean, maila konstituzionaleko oinarritzko eskubideak zuzenean daudela Zuzenbidezko Estatu Demokratiko batek eskatzen duen ulermenarekin erlazionatuta. Alde batetik, oinarritzko eskubideak badute funtzio demokratiko bat eta bestalde, Estatu Demokratiko izateak dakar oinarritzko eskubideen bermatzaile izatea. Honela labur genezake: a) boterearen egikaritze demokratikoa; hiritarren parte-hartze politikoa bermatuko duten eskubide, askatasun eta bermeen bidez ziurtatuko dena. Bai eta beste eskubide batzuen aitortza ere, izaera politikoa izango dutenak neurri handi batean, eta hauen artean elkartzeko eskubidea. b) hainbat eskubideren aitortza eta bermea; langileen askatasun eta bermeak hau da, gizartean indarra duten klase sozialen eskubide indibidual eta kolektiboen aitortza eta honekin lortzen da boterearen legitimazio demokratikoa.

Bigarren plano batean, Canotilhoren esanetan, maila konstituzionalean jasotako oinarritzko eskubideak zuzenean daude konstituzio ekonomikoarekin lotuta eta baita demokrazia ekonomikoa eta sozial printzipioari lotuta ere⁶⁶. Ondoren, demokrazia ekonomikoa, soziala eta kulturala aurrera eramateak suposatzen du oinarritzko eskubide eta askatasunak gauzatzea eta bereziki, langileen eta hauek ordezkatzeko dituzten erakundearen oinarritzko eskubideen defentsa.

Gogora arazi beharra daukagu zentzu honetan, 170 artikuluko atal bakarrak bermatzen duela guztien eskubidea jarduera ekonomikoan libreki aritzeko, eta legean jasotako kasutan izan ezik, inolako baimen publikoaren menpekotasunik gabe. Aurrerago, 173 artikuluan, jarduera ekonomikoan interbentzio eta ikuskaritze estatalaren ezaugarriak jasotzen dira eta gidalerro moduan dituzte segurtasun nazional eta interes kolektibo printzipioak. Eta azkenik, 174 artikuluko 2 paragrafoan esaten da: '*A lei apoiará e estimulará o cooperativismo e outras formas de associativismo*'.



⁶⁶ CANOTILHO, José Joaquim. Direito Constitucional. Coimbra: Almedina, 1992. p. 171.

Ingurumari politiko-konstituzional honetan, kooperatiba elkarteen balore, printzipio, arau, instituzio eta funtzionamenduak Lei 5.764/71aren bidez araututa egoten jarraitzen du; baina, lege honek ezin du onartuta dauden oinarrizko eskubideen aurka joan. Hori dela eta, Lei 5.764/71a 1988ko Konstituzio Federalaren aurka ez doan heinean, eta honekin harmonia mantentzen duen ataletan indarrean egongo da eta beraz, ordenamenduak bere baitan hartuko du.

Jarrera hermeneutiko hau oinarri moduan hartuta, Lei 5.764/71ko 17, 18, 105 eta 107 artikuluaq tazituki bertan behera geratuko dira, beti ere, Konstituzio Federalaren indarrean mantentzearen izenean. Aipatu artikuluaq, 1988an sozietate brasildarrak atzera bota zuen estatu eredu bat jasotzen zutelako; jarduera pribatuan estatuaren kontrol eta esku hartzea arautzen eta onartzen zuten eredia hain zuzen ere

Ikus daitekeen moduan atzera bota diren arau guzti hauek, kooperatiben jarduera pribatuan, bai zuzenean zein zeharka, Estatuaren esku hartze eta kontrola justifikatzera zetozen arau multzoa dira.

Aipatu dugun sistemaren nukleo edo oinarria Conselho Nacional de Cooperativismo delako egiturari gauzatzen zen; egitura desagertuta dago. Eta honek bazituen aldi berean berakin laguntzaile ziren beste egitura batzuk, Organizaçao das Cooperativas Brasileiras- OCB esate baterako. Eta 105 artikuluan garbi adierazten da egitura honek duen ' Sozietate Zibil' izaera batetik, eta baita, ' Gobernuaren organo tekniko-kontsultibo' izatea bestetik. Aurrerago 105 artikuluko 'd', 'e' eta 'f' ataletan hain zuzen ere, argi ikus daiteke OCBren izaera instrumentala, beti ere Conselho Nacional de Cooperativismo egituraren inguruan ardaztuta zegoen estatuaren kontrol sistemarekiko.

Conselho Nacional de Cooperativismo erakundea desaginda eta Organizaçao das Cooperativas Brasileiras- OCB, izaera pribatua duen sozietate zibila dela nabarmen geratu ondoren zaila izango da Sistema Kooperatibista Nazionala geratzea erakunde hauen mantuplean⁶⁷. Bestiak



⁶⁷ Organizaçao das Cooperativas Brasileiras- OCB Estatuto Social. Capitulo I, Da Denominaçao, Prazo, Sede, Foro, Conceituiaçao e Objetivos, Art. 1º - A Organizaçao das Cooperativas Brasileiras- OCB, sociedade civil da natureza privada, sem fins lucrativos de duraçao indeterminada, com sede e foro na Capital Federal, tendo seu exercicio social coincidente com o ano civil, é o órgao máximo de

beste, garbi geratu delako 1988ko Konstituzio Federalarekin egitura edo sistema honek duen kontraesana.

Rio Grande do Suleko justizia federalak epai edo erabaki hau eman zuen, kooperatiba batek Organização das Cooperativas do Estado do Rio Grande do Sul delakoan derrigor bazkide egitearen beharraren inguruan⁶⁸. Epaiak oinarri juridiko gisa hartzen du 1988ko Konstituzio Federaleko 5 artikulua; elkartze askatasuna aldarrikatzen duena. Eta epaiak dio kooperatiben eraketa bultzatzea eta sustatzea nahi bada, ezin dela eraketa hau organismo pribatu baten erabakiaren esku utzi. Ikus daitekeenez, epaiak kooperatibak OCB-ren eskuduntza esparrutik ateratzea eskatzen du; organismo pribatu batek eraketa baimentzeko zilegitasunaren aurka eginez.

Ministerio Publiko Federalak ere bere jarrera adierazi zuen elkartze askatasunaren inguruan; epaia meritu erabaki baten bitartez baieztatua izan zen⁶⁹.

Ingurumari konstituzional honetan sistema kooperatibistaren ordezkari-tza soilik ulertu ahal izango da egitura bakoitzaren autonomia pribatutik; eta autonomia hau kooperatiben formazio eta instituzioen oinarrietan aurkitzen da. Oinarri hau berau delarik bazkideen eta kooperatiba beraren erantzukizuna zehazten duena. Eta bai edozein egitura nazional, erregional edo estadualetan (baita Organização das Cooperativas Brasileiras- OCB osatzen dutenak ere) elkartzeko edo ez elkartzeko eskubidea definitzen dutenak.

Lehen une batean ikus daitekeenez, sistema kooperatibistaren ordezkari-tza ezin nahastu daiteke Estatuak duen eskubidearekin, kooperatiben 'ekintza kooperatiboak' eta operazio

representação, controle, registro e cadastramento do Sistema Cooperativo Brasileiro, nos termos da legislação vigente'.

⁶⁸ De fato, a exigência em pauta cerceia o direito constitucional livre associação, uma vez que o art. 5º, XX da CF/ 88 diz que ninguém poderá ser compelido a associar-se ou a permanecer associado. Ademais, também a Constituição garante, pretendendo incentivar a criação de cooperativas, que estas não dependem de autorização do Poder Público, por que dependeriam de autorização de pessoas jurídicas de direito privado como os sindicatos?

⁶⁹ Note-se que não se olvida dos benefícios que a associação entre entes com comunhão de interesses pode trazer para a coletividade, já que é possível que um sindicato de cooperativas possa obter maior sucesso no pleito de maiores incentivos estatais do que uma única cooperativas, por exemplo. Todavia, tal objetivo não pode servir como justificativa para uma obrigatoriedade de associação das cooperativas a ser criada pelos empetrantes quanto a OCERGS, pelo que também sob este aspecto pode ser tido como ilegal o ato da autoridade impetrada.

sozietarioak artxibatzeko. Estatuak du eskubidea izaera juridikoa emateko eta hauen jarduna fiskalizatu edo kontrolatzeko.

Estatuak dauka ahalmena eta legitimitatea kooperatiben operazio sozietario eta ekintza kooperatiboen berri eskatu eta hauek artxibatzeko, eta hauen bidez kooperatiben fiskalizazioa aurrera eramateko. Eskuduntza hau estatuaren eskuduntza eskusiboa da eta aurrera eramateko beharrezko da organismo gubernamental batek egitea, baina inolaz ere kooperatiben ordezkariak duten egituren bidez.

Onartu eta ulertzen da pertsona juridiko baten eraketarako, kooperatibak kasu, beharrezkoa dela eraketa eta sozietate ekintzen artxibatzea egitea. Baina egitura pribatu baten ukitu dibinoa⁷⁰, Organização das Cooperativas Brasileirasena bereziki, behar izatea eraketa onartzeko guttiz ulertezina dela deritzogu. Aipatu berri duguna indarrean dagoen konstituzio egiturarekin guttiz bateraezina da, eta Organização das Cooperativas Brasileiraseko aholkularitza juridikoak emandako irizpena justu kontrakoa argudiatzen du⁷⁰. Irizpenak argi lagatzen du, (hala interesatzen zaielako) Junta Komertzialetan bete beharreko formaltasunez gain legeak OCB-ko erregistroari esleitzen dizkiola aparteko beste eskuduntza edo funtzio batzuk. Hona beraz, bete beharreko formaltasunen bikoizketa.



⁷⁰ Após a realização das formalidades relativamente á constituição os atos originários da criação da sociedade cooperativa são levados ao registro e arquivamento na Junta Comercial do Estado. Ainda com relação á parte constitutiva reservou o legislador a obrigatoriedade de que fossem asi atos levados a registro [sic], junto a Organização das Cooperativas Brasileiras. A aquisição da personalidade jurídica da cooperativa, feita-se portando, após o cumprimento desses requisitos básicos.

A disciplina legal sobre a questão do registro, está contemplada no artigo 107, da lei de regencia do cooperativismo, que assim dispõe in verbis,

[...]

Cumpridas todas as etapas conforme as considerações acima a sociedade estará plenamente legalizada podendo, daí por diante, exercer os seus objetivos sociais cooperativistas. Qualquer desvio de conduta relativamente ao cumprimento dos ditames da lei de regencia, ensejará a descaracterização da sociedade como cooperativa, enquadrando-a no rol de sociedade irregular.


Sistemak, ordezkartzarako dituen izaera pribatuko erakundeak, mantendu ahal dituzte bere bazkideen erregistroak, baina inoiz ezingo dituzte Estatuaren eskuduntzak delegazioz bere gain hartu. Gogora arazi behar da polizia administratibo ahalmenak dagozkiola eksklusiboki estatuari, eta debekatuta dago inolako pertsona juridikori ahalmen horren delegaziorik egitea⁷¹. Honela definituta azaltzen zaigu polizia administratiboko ahalmena zer den, eta ahalmen hau ezin izango zaio pertsona pribatu bati laga.

Bigarren une batean, esan daiteke ez dagoela espazio konstituzionalik kooperatiba elkarteen erregistroa baimen modu bat izan daitekeela interpretatu ahal izateko.

Konstituzio Federalean oinarrituta dagoen Zuzenbidezko Estatu Demokratikoak bere baitan duen arkitektura politiko eta juridikoak, sozietateak izaera lortu ahal izateko ez duela zertan inolako baimen publiko zein pribaturen menpe egon. Zentzu honetan, erregistroa izango da organo estatal eskuduna kooperatibaren eraketa ekintzak eta ekintza sozietarioak gordailatzeko. Behin formaltasuna beteta, beharrezkoa izango da, kooperatiba elkartearen izaera juridikoa onartua izatea.

Estatuko zuzenbideak eskatu ahal izango du kooperatiba elkarteen eraketa ekintzak eta ekintza sozietarioak artxibatzea, eta helburuak beti izan behar du pertsonalitate juridikoa aitortzeko beharrezkoak diren ekintzak eta datuak izatea. Hala ere, Lei 5.764/71ko 107 artikulua derogazioak argi erakutsi duen moduan, polizia administratibo ahalmenak ez du onartzen OCBren pretentsioa; hau da, kooperatiben erregistroa eta fiskalizazioa berak eramatea.

Esan duguna kontutan izanda, esan beharra dago, jarduteko askatasun esparru zabala lagatzen duen ordenu konstituzional batek, aukera eman diola OCBri elaborazio, interpretazio



⁷¹ [...] pode-se definir a policia administrativa como a atividade da Administração Publica, expressa em atos normativos ou concretos, de condicionar, com fundamento em sua supremacia geral e na forma da lei, a liberdade e a propriedade dos individuos, mediante ação ora fiscalizadora, ora preventiva, ora represiva, impondo coercitivamente aos particulares um dever de abstenção 'non facere' a fim de conformar-les os comportamentos aso interesses sociais consagrados no sistema normativo'. (DE MELLO, CELSO ANTÔNIO BANDEIRA. Elementos de Direito Administrativo. Malheiros Editores. San Pablo, 1992).

eta integrazio teknika juridiko desberdinak erabiliz, ordura arte ezarrita zegoen domeinua mantentzeko.

Kooperatibismo nazionala batuta eta estatu zentralismoa gaindituta, 5.764 legeak aurreko legeak ordeztuko ditu eta kooperatibismoaren politika nazional berria definituko du. Kooperatiben erregimen juridikoa ezarriko du eta estatu brasildar guztietan Organizações Estaduais de Cooperativas deiturikoak sortzea bultzatuko du.

Lege hau Conselho Nacional de Cooperativismo-k (CNC) erregelamendatuko du, honen xedapenak izango direlako legea osatuko dutenak. Enpresa ipar sendoarekin, 'egituren berritzea' deritzan aldiari emango dio hasiera. Kalitatea lehenetsi zuen kantitatearen gainetik; isolatuta zeuden kooperatibak batzea bultzatuko du eta oinarri ekonomiko indartsua duten, kooperatiben integrazio bertikalerako aukerak zabalduko ditu.

Legearen hainbat xedapenek aipamena merezi dute. Kooperatiben gaineko politika dela eta, legeak dio botere publikoak kooperatibismoaren gaineko babesa honako bideen bidez egikaritzeko duela: kooperatibak sortu, garatu eta integratzeko beharrezkoak diren laguntza tekniko, finantza pizgarri eta kreditu bereziak eskainiz. Gobernu Federalak konpromiso sendoa hartu zuela ikus daiteke.

Kuota parteak arautzerako orduan legea 59 Dekretu Legea baino argigarriagoa izan zen eta ezarri zuen bazkide bakoitzaren kuota kopurua mugatu egiten dela, eta aukera eskaintzen du proportzionaltasun irizpideak ezartzeko objektibo sozialen arabera. Bazkide bakoitzak ezingo du herena baino kuota gehiago harpidetu. Ekintza kooperatiboa ere definitzen du esanez direla 'kooperatibak eta bazkideen artean eginikoak, eta kooperatibak euren artean burutzen dituztenak'.

Legeak IV artikulua kooperatiben jarduera soziala zabaltzen du eta kooperatibak derrigortu egingo ditu bazkideei asistentzia eskaintzera. Fondoak sortzeko obligazioa ere ezartzen du.

Biziraupenik gabeko kooperatiben eraketa ekiditeko asmoz, 5.764 legeak funtzionamendurako baimena lortzeko bideragarritasuna frogatzeko obligazioa ezarriko du. Kooperatibarako atxikipen askea ere ezarriko du, kooperatibak zituen helburuekin bat egiten duten guztientzat.

Bitariko batzorde batera bideratuko ditu bategite, inkorporazio eta bestelako operazioak bideratzeko txostenak egitea. Kooperatibaren desegite eta likidazio arrazoiak ere definitzen ditu: bazkideen erabakiz, ezarritako iraupen epea igaro denean, helburuak bete direnean, gutxieneko bazkide eta kapital kopurua gutxitu direnean, funtzionamendurako baimena kentzea eta 120 egun bano gehiago jarduerak etetea.

Bestalde, baimendu egiten da kooperatibak bazkideen biltegi funtzioa bete dezan eta bazkide ez direnekin ere jardun dezan. Instituto Nacional de Colonização e Reforma Agrariak (INCRA) programa asko garatu zituen esparru kooperatibistan; Programa Nacional de Cooperativismo (PRONACCOOP) kooperatibak sortzea bultzatzeko asmoz, kooperatibismo arrazionalizatzeko eta ekoizpena handitu asmoz mekanizazioa eta modernizazioa bultzatzeko; bestalde, Fundo Nacional do Cooperativismo (FUNACCOOP), ikerkuntza zientifikoa eta teknologikoa garatzeko eta kooperatibismoaren gaineko doktrina eta ekoizpen intelektuala garatzeko.


Atzera pauso baten ostean, aurrera pauso handi moduan legedi berriak bultzada bat emango dio kooperatiben arteko elkarketei; 1980an gertatuko da eta batez ere negozio txikien alternatiba moduan.

Prozesuari jarraipena emango die Cooperativa de Crédito Agropecuario do Oeste Ltda (SECREDI) eta Confederação Brasileira das Cooperativas de Crédito (CONFEBRAS).

3.7. 1988KO KONSTITUZIO ONDORENGO EGOERA

1985tik aurrera gertatuko den estatuaren demokratizazioak eta 1988an onartuko den Konstituzioak, baldintzak sortuko dituzte estatuaren eta kooperatibismoaren arteko harremanak aldatu daitezzen. Harremanok aldaketa sakonak biziko dituzte, batez ere, bi arrazoigatik: batetik, estatuko botereen arteko orekak aldatu egingo direlako Botere Exekutiboaren indarra ahulduz eta bestetik, Estatu esparru ekonomikotik aterako delako.

1988ko Konstituzioak kooperatibismoarentzako izango duen xedapenik garrantzitsuen 5 artikuluko XVIII pasartea izango da, bertan kooperatiben eraketarako ez delako baimenik eta estatuari debekatu egiten zaiolako kooperatiben funtzionamenduan esku-hartzea⁷². Konstituzioaren onarpenarekin Brasilgo kooperatibismoa herrialde garatuetako kooperatibismoaren parean jarriko da. Estatuaren esku-hartzetik aske.




⁷² 5 artikuluko XVIII pasartea. ‘ a criação de associações e, na forma da lei, a de cooperativas

Badira kooperatibismoari erreferentzia egiten dien beste artikuluko batzuk ere. Legean estatuari ematen zaio kooperatibismoari bultzada emateko eskuduntza baina beti ere, kooperatiben bizitzan eskua hartzerik burutu gabe⁷³.

Aurrerago garatzeko aukera izango dugun moduan estatuaren esku-hartze debekua eta Estatuak kooperatibismoaren sustapena egiteko agindua izango dira Konstituzioaren onarpenetik eratorriko diren elementu interesgarrienak. Interbentziorik edo esku-hartzerik eza kooperatiben autonomiarekin lotuta daude. Sustapena ere Estatuaren erantzukizuna izanik, aipatu autonomia mantenduz burutu beharrekoa da.

OCB-ko estatututan azaltzen diren eskuduntzak zuzenean daude 174 artikuluan azaltzen den funtzioarekin erlazionatuta. Beraz OCB sozietate zibil pribatua izanik, estatuarenak diren eskuduntzak (funtzio publikoari dagozkion eskuduntzak) bere gain hartzen ditu. Bestalde, kreditu kooperatibak 192 artikuluko arautzen ditu⁷⁴.

Vergílio Periusen hitzetan konstituzioak kreditu kooperatibei hainbat lortu izatea ahalbidetuko die. 1988 Konstituzioaren xedapenok aintzat hartuz eta legedi kooperatiboaren berrikuspenera aurreikusita, Kongresu Nazionalak 1.709/89ko Lege Proiektua onartuko du. Lege honek 19 kapitulu izango ditu⁷⁵. Bazkide terminoa sartzen du; kuota parteen inguruko hainbat erabaki



⁷³ 174 artikuluko, 2 paragrafoak dio ' a lei apoiará e estimulará o cooperativismo e outras formas de associativismo',

⁷⁴ 192 artikulua – O sistema financeiro nacional, estruturado de forma a promover o desenvolvimento equilibrado do País e a servir aos interesses da coletividade, será regulado em lei complementar, que disporá, inclusive, sobre:

(...)

VIII- o funcionamento das cooperativas de créditos e os requisitos para que possam ter condições de operacionalidade e estruturação próprias das instituições financeiras'.

⁷⁵ Inserção no sistema em relação às demais instituições financeiras, eis que seu funcionamento, operacionalidade e estruturação serão próprias das instituições financeiras;

- Sua operação não se restringia à operação de instituição bancária, mas financeira, o que amplia enormemente suas possibilidades de expansão e consolidação;

hartzen ditu; harpidetutako kapitalaren araberako erantzukizuna ezartzen du; kooperatiba singularrek zentral eta federazioak sortzeko aukera baimentzen du.

Nahiz eta kooperatibismoa berritzeko helburua zuen legedia izan, hainbat eragozpen suertatuko dira eta hauetako bik eragingo dute krisia.

Eragozpenetako bat, Brasilgo ekonomiak bizi zuen geldialdiak eragingo du; 1985 sistema produktibo Brasildarrak krisi larria biziko du. Bigarren arrazoia, sistema kooperatiboak berak nazioarte mailan biziko duen krisia izango da. Sozialismo errearen porrotak eta kapital enprekin lehiatu beharrak zaildu egingo dute kooperatibismoaren jatorrizko baloreak bete eta egoera berriarekin bat etortzea.

Nahiz eta eragozpenak bizi, mugimendu kooperatibista brasildarrak ahalegina egingo du ordura arte baimendu gabeko esparrutan sartzea. Nazio mailako eztabaida garrantzitsuetan parte hartzeaz gain, autogestioa eta Estatuaren funtzioaren gaineko eztabaidetan parte hartuko du. Gai hauekin batera rochdaleko arauaren irakurketa berri bat egitea proposatuko da.

Diva B. Pinhoren esanetan kooperatibismo Brasildarraren ahulezia ulertzeko beharrezko da elkarrekin harremanetan dauden bi arazo talde moduan ulertzea: kreditu kooperatiboaren laguntzarik gabeko hazkuntza batetik eta krisi ekonomiko luzeak eragindako arazoetatik eratorritakoak bestetik⁷⁶. Lehen arazo multzoari dagokionez ez da nahikoa izango kooperatiben kontzentrazio eta holding handiak sortzeko egindako ahalegina, ez eta, kosteak murrizteko egindakoak ere; azken batez, bestelako enpresak egitura malguagoa dutelako eta malgutasunak aukera eskaintzen dielako kooperatibek egin ezin dituzten eragiketak egiteko.

Arazo hauei arazo politiko eta ekonomikoak gehitu behar zaizkie eta honek eragina izango du kooperatibetan besteak beste, arlo administratiboan.

- Definição do funcionamento, da operacionalidade e da estruturação, em lei complementar, acoplada ao Sistema Financeiro Nacional'. (Vergio Perius, 2000. HERMI ZAAR, Miriam. El cooperativismo agrario en Brasil. Universidad de Barcelona, 2007)


⁷⁶ PINHO Diva B. Memória do cooperativismo a nível nacional: importância e objetivos. In As grandes coordenadas da memória do cooperativismo brasileiro. Brasília: Organización de las Cooperativas Brasileiras

Organização das Cooperativas Brasileiras (OCB) –ren dokumentu batean honela jasotzen da garai hartako egoeraren deskripzioa⁷⁷.

Konponbiderako proposamena bi programetatik eratorriko da. Batak, auto-sostengua ahalbidetuko lukeen plana aurkeztzen zuten kooperatibentzat baliabideak askatzea proposatzen zuten. Besteak, Autogestio Programaren ezarpena bideragarri egiten zuten eta honek aukera eskaintzen zien kooperatibei 1988ko Konstituzio Federalak aldarrikatzen zuten autonomia lortzeko. Guzti honetarako 1998ko irailaren 3an gobernuak Medida Provisoria 1.715 editatu zuen eta honekin, Programa de Revitalização das Cooperativas Agropecuarias (RECOOP) sortuz, eta baita Serviço Nacional de Aprendizagem do Cooperativismo (SESCOOP).

Kreditu kooperatibei dagokienean, Conselho Monetario Nacional-ak emandako 1992ko 1914ko Xedapenak kreditu kooperatiben funtzionamendua arautu zuen eta aurreko urtetan bizi izan zuten zurruntasuna ezabatuz, jarduteko bideragarritasuna eskaini zien. Prozesu honek jarraipena izan zuen gainera 1990 eta 2000 urtetan zehar. 2000 urtean 2.788ak baimenduko du kooperatiba anitzak sortzea. Erabaki honek beste hainbat erabaki osagarri izango ditu eta bere emaitzak emango ditu 1990ko bigarren hamarkadan zehar.

1990 urtetan kooperatibismo brasildarrak ahalegin handiak egingo ditu nazioarteko erronkei aurre egiteko. Teknologia berrien ezarpena, bioteknologiak eta ingeniariatza genetikoaren arloan ere aurrerapen handiak gertatuko dira. Guzti honek produkzioaren handitzea ekarriko du eta kooperatibismoa ezingo da hortik kanpo geratu. Honen adierazpide izango da Gobernu Federalak 1991ko urteari emango dion kalifikazioa; 'Kalitatearen eta ekoizpenaren urtea'



⁷⁷ 'Em 1988, o X Congresso Brasileiro de Cooperativismo propos, a Constituição Federal previu, masa ausencia de legislação que previsse uma fonte própria de recursos, impediu, por dez anos, que a autogestão das cooperativas se tomasse uma realidade continua e permanente em todo país.

O Cooperativismo agropecuario, então o principal ramo em atividade no Brasil, sofria com os sucessivos planos econômico do governo. Programas que buscavam a liberalização da economia a redução da intervenção do Estado na agricultura provocaram o endividamento dos produtores rurais- e consequentemente das cooperativas agropecuarias.' (PINHO Diva B. *Memória do cooperativismo a nível nacional: importância e objetivos. In As grandes coordenadas da memória do cooperativismo brasileiro. Brasília: Organización de las Cooperativas Brasileiras, 1991*).

bezala izendatuko du. Kalitatea eta bolumena handitzeko estrategien beharra ere nabarmen ikusiko da.

Teknologia arloko aurrerapenak eta demokratizazio prozesuak eragingo dute 5.764/71 legea atzera geratzea eta Brasilgo errealtate kooperatiboarekin etetea.

Hurrengo urtetan, kooperatibismoa arautuko duen lege berria eskatzen duten ahotsak indarra hartuko dute. 2003an Gobernu Federalak lehenengo Grupo de Trabalho Interministerial (GTI) sortuko du eta helburu izango du kooperatibismoaren egoera zein den diagnostikatzea eta sektorean jarduteko ekintzak proposatzea. 2004aren amaieran bigarren GTI-a sortuko da eta honen helburua izango da lege berrirako proposamenak egitea.

Beste pausu inportantea izango da I Encontro Nacional das Cooperativas da Agricultura Familiar de Economia Solidaria-tik sortuko den UNICAFES, Uniao Nacional de Cooperativas da Agricultura Familiar de Economia Solidaria . Honekin batera sortuko da (ANCOSOL) Associação Nacional do Cooperativismo da Economia Familiar e Solidaria eta beste hainbat erakunde eta hauen funtzioa izango da nekazaritza familiarraren beharrak zein diren diagnostikatu eta aterabideak proposatzea; hauen artean orotariko gaiak egongo diren arren, besteak beste kooperatiba lege berriaren proposamena ere egitea zegoen. Baita beste honako gaiak ere: kreditu kooperatiben erregulazioa, Banku Zentralarekin izan beharreko harremanak eta eskualdeko eta nazio mailako ordezkariaren indartzea.

Kooperatibismoaren arloan ahalik eta elkartzeko askatasunik handiena eta ordezkariarik indartsuena izatea ezinbestekoa da, 1988ko Konstituziora arte egon zen ordezkari bakarrak ez zuelako kooperatibak sortzea indartu eta bultzatu. Instituto Nacional de Colonização da Reforma Agrariak (INCRA) emandako datuen arabera 1960an, diktadura aurretik, 4.653 kooperatiba zeuden Brasilen. 1981an berriz, kopuruak behera egin zuen eta 2.208 kooperatiba zeuden. Eta 2005an berriz, 20.000 inguru ziren Junta Komertzialetan erregistratutako kooperatibak.

Brasilgo kooperatibismoak bere nazioarteko ordezkari indartzen duen garaian, - 1997an brasildarra izango da Alianza Cooperatiba Internacional (ACI)ko lehendakaria- kreditu kooperatiba brasildarrak pausu garrantzitsu bat emango dute euren erakundetzean. Zentralak eta konfederazioak sortuko dira hiru sistema desberdinetatik abiatuz: Sistema de Crédito Cooperativo (SINCREDI), Sistema de Cooperativas de Credito do Brasil (SICOOB) eta Sistema de Cooperativas de Crédito Profissionais da Saude (UNICRED).

Organização das Cooperativas Brasileiras-en esanetan kreditu sistema indartzen ari zen baina oraindik ez zegoen osatuta. Banco Nacional de Credito Cooperativo (BNC), urtetan finantza sistemako eragiketa guztiak egiten zituena, 1990an gobernuak desegin egingo du eta kreditu

kooperatibak pasako dira banku komertzialen defentsa egitera. Mendekotasun honek sistemaren eragiketari zaildu eta garestitu egingo ditu. Hauen aburuz konponbidea etorriko da Conselho Monetario Nacional-ek 2.193/95 xedapena ematen duenean, banku kooperatiboak baimenduz. 1996an sortuko da Banco Cooperativo Sicredi S.A (BASINCREC) eta 1997an Banco Cooperativo do Brasil (BANCOOB).

Bi sistema hauetara gehituko dira zentralen eta konfederazioen bidez indartutako kreditu kooperatibak.

2.688 Xedapenak baimenduko du banku kooperatibo gehiago sortzea eta ondorioz bazkideen beharrei erantzuteko gaitasuna indartu egingo da. Zerbitzuak ere zabaldu egingo dira eta horregatik gaur kreditu kooperatiba bateko bazkide den nekazariak aukera du aseguru pertsonalak eta mailegu pertsonalak kontratatzeke bazkide den kooperatibaren bertan eta ez dauka, lehen gertatzen zen eran, ohiko bankutara jo beharrik.

2002an onartuko den 3.958 Xedapenak aukera eskainiko du enpresari txikiak mikro- enpresak sor ditzaten.

3.8. EKONOMIA SOLIDARIOA

Kooperatibismoaren birsortze ariketa eztabaida zabalago batean kokatzen da: jarduerak modernizatzeko eta demokrazia zabaltzeko ahalegin baten baitan hain zuzen ere. Honek indarra eta oihartzun gehiago irabaziko du Ekonomia Solidarioaren baitan sortzen den eztabaidarekin. 1970/80ko urtetan emandako kooperatibismotik aldentzen den ikuspegi bat sortzen da. Ordura arteko kooperatibismoa Estatuaren kontrolpean izango da eta modernizazio kontserbadorea bultzatuko duen eredu autoritario eta zentralizatzea izango da. Nekazaritza esportatzailea bultzatuko du beti ere, familia oinarri duen nekazaritzaren kaltetan.

1980an sortuko da ikuspegi berriarekin datorren kooperatibismo berria eta hurrengo hamarkadan indarra hartuko du. Beste herrialde batzuetan ere, aurkitu genezake errealitate hau. Ekoizteko modu sozial berri batez ari gara. Ohiko kooperatibismoaren alternatiba izan nahi duen kooperatibismoa, ekonomikoki ahulagoak direnei biziraupena bermatu nahi dien eredu berria da; asistentzia programekiko mendekotasunik izango ez duena eta aldi berean, taldean burutzen diren ekoizpen formekin bat egin gura duena.


Jatorria aurreko hamarkadako baldintza sozio-ekonomiko eta politikoekin dago lotuta; nagusiki, 1980koekin. Urte horretakoak dira, porrot egindako enpresak euren gain hartuta sortuko diren langile enpresak. Adierazle nagusiak izan ziren, lan kooperatibak, enpresa familiarretatik eratorritako kooperatibak eta lurrik gabekoen asentamendutan sortuko diren kooperatibak.

Emanuel Silvak azaltzen ditu ikuspegi aldaketa eragin duten faktoreak⁷⁸. Praktika kooperatiboa hainbat kontzeptu berri martxan jartzen hasiko da honako arrazoioek eraginda: egiturazko langabeziaren hazkuntza; globalizazioak berarekin dakartzan praktikak; lan harremanetan baldintzen malgutzea; garapen lokala eta hirugarren sektoreari buruzko eztabaidaren zabaltzea. Elementu hauek izango dira kooperatibismoaren formulazio berriari oinarria ezarriko diotenak.

Jatorri desberdinekin bada ere, auto-eraturako jarduera hauek bi talde handi osatzen dituzte José Ricardo Tauileren esanetan (2005). Talde bat osatzen dute porrotetik edo porrot aurreko egoeratik datozen enpresak eta bigarrena berriz, politika aurrerakoietatik edo ekimen komunitariotatik datozen enpresak.

Elkartze mota honek bere baitan hartzen ditu egoera sozial eta ekonomikoak eraginda ohiko kooperatibismoak onartuko ez lituzken ekimenak. Nyssens eta Gaidarren arabera, lana sortzeko formula eraginkorrak dira ekimenok eta bazkideei biziraupen duina eskainiz, merkatuan lehiatzeko gai dira. (Nyssen 1996; Gaiger 1999).

Gaiaren gainean burututako ikerketak ugariak dira. Gehiegi luzatu barik, planteamendu pare bat aipatuko ditugu. Gabriel Kraychet da hausnarketa egin duenetako bat⁷⁹. Sektore popularrek



⁷⁸ a revitalização dos conceitos e da prática cooperativa a partir de um balanço em relação às práticas so passado;

- a) o crescimento do desemprego estrutural, estimulando a proliferação de de organizações de economia solidaria;
- b) o caráter competitivo da globalização que impoe práticas cooperativas com boa performance empresarial;
- c) a flexibilização das relacoes de trabalho, estimulando práticas autogeridas;
- d) a ampliação das discussões em torno dos conceitos de desenvolvimento local e de idéia de economia social e de terceiro setor; (*Emanuel Silva et al., 2003, HERMI ZAAR, Miriam. El cooperativismo agrario en Brasil. Universidad de Barcelona, 2007*)

⁷⁹ ' (...) Pode-se afirmar que estas atividades, em seu conjunto, sustentan una economia dos setores populares, envolvendo, mesmo que de modo disperso e fragmentado, um extenso fluxo de produtos, serviços e modalidades diversas de trocas e mercados. Face á existencia de diferentes denominações-economia popular, economía popula re solidaria, sicioeconomia solidaria- convencionamos designar por economía dos setores populares as atividades que, diferentemente da empresa capitalista, possuem uma racionalidade económica ancorada na geração de recursos (monetario ou nao) destinados a prover a

burututako jardueraz osatzen den ekonomia bat oinarritzen dutela esan daiteke, zerbitzu eta produktu mota desberdinak eskainiz merkatuan. Izen desberdinak esleitu zaizkio ekonomia modu berriari: herri ekonomia, herri eta elkartasun ekonomia, elkartasun sozio-ekonomia.... Enpresa kapitalistatik bereizten den arrazionaltasun berri batekin ekonomia egiteko modua adierazten du. Norbanakoei lan aukerak eskainiz, bizi iraupenerako baliabideak hornitzea helburu duten aktibitateak lirateke. Sektore popularreko ekonomia horren baitan elkarrekin bizi dira: lan elkartua, ekoizpen elkartua, auto-eraketa ekinbideak, nekazarien komertzializaziorako dituzten zentralak, artisau elkarteak, eskolak, langileen formaziorako zentroak, mikro krediturako entitateak...

Ekoizpen modu berri honetan, ikertzaileen aburuz, aldatzen dena kapitalarekin dagoen harremana edo harremanik eza da. José Luis Coraggioren esanetan, kapitalaren kontrako logikan oinarritzen da⁸⁰. Bizi baliabideak sortzeko erabiltzen da errenta eta horretarako, kapital inbertsioez baliatu beharrean, lan unitatez baliatzen da. Ohiko kapital enpresen kasuan, jarduera, kapitala pilatzera dago bideratuta eta ekintza popularren kasuan berriz, famili bizitzen erreprodukzioa.

Luis Inazio Gaigerrek berriz, funtzionamendu egiturari dagokionean, forma sozial berri hau nekazaritza ekonomiarekin lotzen du⁸¹. Gaigerren esanetan kapitalismoaren hasieran eman zen

repor os meios de vida, e na utilização de recursos humanos próprios, agregando, portando, unidades de trabalho e não de inserção de capital. No âmbito dessa economia dos setores populares convivem, além das atividades realizadas de forma individual ou familiar, as diferentes modalidades de trabalho associativo, formalizada ou não, a exemplo das cooperativas, empreendimentos autogestionários, oficinas de produção associativa, centrais de comercialização de agricultores familiares, associação de artesãos, escolas e projetos de educação e formação de trabalhadores, organizações de microcrédito, fundos rotativos, etc'.

⁸⁰ CORAGGIO, JL. 'La economía social y solidaria como estrategia de desarrollo en el contexto de la integración regional latinoamericana'. 2008ko urrian Montevideon, Ekonomia Solidarioa eta Bidezko Merkataritzari buruzko 3. Bilkuran aurkeztutako ponentzia egokitua. RIPPEs-ek antolatuta. www.coraggio.economía

⁸¹ 'UNA FORMA SOCIAL SOLIDARIA DE PRODUÇÃO? O fenómeno da economia solidaria guarda semelhanças com a economia camponesa. Em primeiro lugar, porque as relações sociais de produção, desenvolvidas nos empreendimentos económicos solidarios são distintas formas assalariada. Muito embora, também aqui, os formatos jurídicos e os graus de inovação no conteúdo das relações sejam variáveis e sujeitos à reversão, as práticas de autogestão e cooperação dão a esses empreendimentos uma natureza singular, pois modificam o princípio e a finalidade das extração do trabalho excedente. Assim, aquelas práticas: a) funcionam com base na propriedade social dos meios de produção, vedando a apropriação individual desses meios ou sua alienação particular; b) o controle do empreendimento e o poder de decisão pertencem à sociedade de trabalhadores, em regime de paridade de direitos; c) a gesto

prozesuaren kontrakoa gertatzen da. Kapitalismoaren hastapenetan langileak berak ekoiztutako produktutik banatzen da eta beste baten jabetzara igarotzen da merkantzia bilakatuz eta kapitalaren zerbitzura jarritz.

Auto-eraketak eta lankidetzak langilearen eta honek erabiltzen dituen ekoizpen bideen arteko adiskidetzea eragiten dute. Langileak domeinua eskuratzen du eta baita lan bizitza integralerako beharrezko diren baldintzak ere. Ondorioz, enpresa solidario hauen ekoizpen harremanak atipikoak dira ekoizpen kapitalistarekin alderatuz eta baita, soldatapeko lan moduen justu kontrakoa; hauetan kapitalak lana enplegatu egiten du eta solidariotan, langileak kapitala.

Paul Singerrek ere antzerako linea jarraitzen du eta langileriak eredu ekonomiko honetatik ikastea defendatzen du. Enpresa autoeratuan langileek lortzen duten bizi maila eta honen indartzeak, esplotazio kapitalistaren aurkako borrokan langileen aurrerapausoa suposatzen du. Eraldaketa sozialerako epe luzeko pausuak dira, alternatiba solidarioak ekoizpen modu berri bat delako bere esangurarik sakon eta zabalenean.

Zentzu honetan interes handiko ekimenak ari dira sortzen trukerako sare eta klubak, kreditu kooperatibak eta beste hainbat ekimen, diruaren merkataritza logikatik at. Kasu batzuetan era subsidiario eta esperimental batean.

Kreditu kooperatiben arloan aurrerapauso handia izan zen ECOSOL-en sorrera (Central de Cooperativas de Credito de Economia Solidaria) 2002ko abenduan; nekazal eta hiriguneko kooperatibak sortutakoa, finantza instituzio lokalekin egingo dute lan. Bere onarpena 2004ko otsailean egin zuen Banku Zentralak. Erakunde desberdinan babesa dauka besteak beste CUT (Central Única del os Trabajadores) Caritas Brasileña...

ECOSOL-en sorrera Brasilgo kreditu sistemaren egoerarekin loturik azaltzen da. Brasilgo Bankuak, ekoizle eta enpresari txikien kreditu eskaera gestionatzeko ardura zeukanak ez zuen bere lana betetzen 80ko hamarkadatik aurrera; kreditu sustapenerako programak Banco

do empreendimento está presa á comunidade de trabalho, que organiza o processo produtivo, opera as estratégias económicas e dispõe sobre o destino do excedente produzido (Verano, 2001). Em suma, há uma unidade entre a posse o uso dos meios de produção'. (Luis Inácio Gaiger, 2005. GAIGGER, Luis Inacio. A economia solidária diante do modo de produção capitalista. Leituras Cotidianas n° 127 de 17 de enero de 2005. [En línea] <<http://br.geocities.com/mcrost07> HERMI ZAAR, Miriam. El cooperativismo agrario en Brasil. Universidad de Barcelona, 2007)

Nacional de Desenvolvimento (BNDES)-en kontzentratzen ziren baina honen egitura zentralizatuak ez zuen aukerarik eskaintzen, estatu barneko hirietako beharrei erantzuteko⁸².

Ondorioz, banku pribatuen arloak garapen garaia bizi zuen bitartean, kreditu kooperatibismo brasildarrak hobekuntzak eskatuko ditu. Impasse egoerak eta bertatik datozen eztabaidek, 'ordezkaritza bakarra' hautsiko dute eta kooperatibismoaren baitan zatiketa berri bat sortuko da. OCB-k jarraituko du 'kooperatibismo tradizionala' ordezkatzeko eta Secretaria Nacional de Economia Solidaria-k sistema berriko kooperatibak hartuko ditu bere baitan: Economia Solidarioko Sistema (ECOSOL) hain zuzen ere.

Joera hazkorrekin, batez ere, lana eta mikro- kredituaren esparruan, ekonomia solidarioko kooperatibak ari dira hezkuntza kooperatibistaren garapenean inbertitzen. Honekin lotuta ari dira, kontratu eta proiektu berezietan baliatuz, bazkideek kooperatibarekin izan beharreko leialtasuna eta konpromisoa bultzatzen ere ari dira. Garapen lokala bultzatzeko asmoa dute eta hori lortzeko, elkarteen eta kooperatiba solidarioen finantzazioa indartzea nahi dute.

Proiektu horren alboan kokatzen dira beste batzuk ere. CUTek sortuko duen Garapen Solidarioarako Agentzia eta beste sindikatu batzuen ekimenak ere hor kokatzen dira: Metalurgia arloko Sindikatuak porrot egoeran zeuden 11 kapital enpresa, kooperatiba bihurtuko dituzte.

ANTEAG-ek (Associação Nacional dos Trabalhadores em Empresas de Autogestão e Participação Acionária) bere aldetik, autogestio eta kogestio formulak erabiliz 50 enpresa sortu ditu eta 20.000 langile bazkide mobilizatzeko gai izan da. Organizazio publikoekin, Lan Ministerioa esate baterako, eginiko hitzarmenen bidez bilatzen du lan bazkideen eta langile euto-eratuak laguntzeko metodologia eta teknikak bilatzea. Helburua da auto-eraketa eta ekonomia solidarioaren bidez langileak gaitzea jardueraren esparru desberdinetan erreparatuz: ingurugiroa, sareen garapena, arlo juridikoa, bideragarritasun ekonomikoa, kualitatiboa eta teknologikoa.



⁸² Bankua SENAES- Secretaria de Economia Solidaria- delakoarekin batera hasi da hainbat ekintza eta era koordinatuan eramaten. Aurtengo urtean (2008) lehen saiakerak egiten hasi: formazioa, hitzaldia keta eta orokorrean ekintzak modu koordinatuan aurrera eramaten hasteko asmoz.

Azpimarratu beharrekoa da baita ere, Incubadoras Tecnológicas de Cooperativas Populares (ITCP) sarea. Rio de Janeiroko Unibertsitatean sortuko da 1990ko hamarkadan. Eta Brasilgo eskualde desberdinetako Unibertsitateetan hogeiren bat hazitegi sortu dira. Hazitegi sare hauen helburua, Unibertsitateko baliabideak erabiliz auto-eraketan oinarritzen diren kooperatibak sortu eta bultzatzea da. Egoera larritik datozen eskaera sozialei irtenbidea emateko balio duten, proiektu alternatiboak sortzen laguntzeko, Unibertsitateko irakasle eta ikasle ikertzaileak erakartzean ari da.

ITCP metodologia Unibertsitate bakoitzaren arabera, erakunde eta eskualde bakoitzaren berezitasunen arabera, aldatzen da. Ekimenen autonomia eta autogestioa batetik eta lana eta formazioa bestetik, balio moduan dituzten aholkularitzak dira.


Nekazal munduko eta hiriguneetako enpresei eskaintzen diete laguntza. Nekazal munduan, esate baterako, asentamendutan aurkitzen ditugu ekoizpen kolektiboko praktika interesgarriak dituzten esperientziak.

Mikro kredituen esperientzia ere aipatzekoa da. CRESOL (Sistema de Cooperativas de Crédito Rural con Interação Solidaria). Ekoizpen lineei kredituak eskaintzeko sortzen da. Paranan jatorria duen esperientzia hau dugu gaur dagoen ekimen aktiboenetakoa. Gaur egun zerbitzu sare handia dauka Parana, Santa Catarina eta Rio Grande do Sulen eta ECOSOL-eko kide izatera bere bazkideen interesak asetzera dago bideratuta; nekazari txikiak kasu gehienetan.

Ordura arte, kreditu eta banka zerbitzuak eskuratzeko aukerarik ez zutenei bideak irekiko zaizkie, teiltatu-gabeei eta lurrik gabeei kasu.

Diva Pinhok, Ekonomia Solidarian eratutako kooperatiba ekimenok, honako ezaugarri hauekin bereizten ditu⁸³:

- (a) livre associação de pessoas sem nenhum tipo de vínculo entre elas a não ser a delimitação geográfica.



⁸³ PINHO Diva B. Memória do cooperativismo a nível nacional: importância e objetivos. In As grandes coordenadas da memória do cooperativismo brasileiro. Brasília: Organização de las Cooperativas Brasileiras

- (b) definição dos juros sobre os empréstimos pelos próprios cooperados em assembleia.
- (c) captação de depósitos à vista e à prazo, mas apenas juntos aos próprios associados, aliás, os únicos que podem receber empréstimos;
- (d) ampliação e difusão do sistema cooperativo de crédito como alternativa a bancos e financeiras, para diminuir os juros dos empréstimos.
- (e) facilidade para formar cooperativas, principalmente em pequenos municípios sem atendimento do sistema bancário.
- (f) democratização do acesso ao crédito e pressão sobre os bancos para a redução dos spreads (diferença entre a taxa de captação e de repasse de recursos de bancos oficiais às cooperativas que se formarem a partir do novo modelo (como repasse de recursos do Programa de geração de Emprego e Renda, Proger, do Banco do Brasil (...)).'

Ekonomia Solidarioko Sistemari (ECOSOL) kokatuta dagoen beste esperientzia interesgarri bat Movimento dos Sem Terra (MST) da. Mugimendu hau 1980 hamarkada amaieratik ari da asentamenduko garapen ekonomikoa bilatu asmoz nekazaritza kooperatibak sortzen. Bi egitura dituzte hauek ere: Sistema Cooperativo dos Assentados (SCA) eta Confederação das Cooperativas da Reforma Agraria (CONCRAB).

Sistema Cooperativo dos Assentados era kolektiboan lan egin nahi duten komunitateek osatzen dute. Helburu dute oinarrizko beharrak asetzea batetik eta komertzializazioa, kredituen gestioa, asistentzia teknikoa, ekoizpenaren planifikazioa eta ekoizpena laguntzeko hainbat produktoren erosketa bateratua bultzatzea.

Sistema Nacional de Informações em Economia Solidaria (SIES) –en datuen arabera Lan eta Enplegu Ministerioak Atlasean argitaratutako datuen arabera Brasilen Ekonomia Solidarioaren baitako egiturak 2005ean 15.000 ekimen solidario inguru zeuden. % 50 inguru nekazal gunetan zeuden kokatuta, % 33a hirigunetan eta gainerako % 17 bi esparrutan.

Atlasean jasotakoaren arabera jardueren % 40 baino gehiago erlazionatuta zeuden nekazaritza eta arrantza jarduerekin. Gehien esanetan produktuak merkatu lokal eta komunitariotara zeuden zuzenduta eta % 80 aitortu zuten honekin gutxieneko soldata bat jasotzen zutela. Inkestaren arabera % 61ak arazoak zituen produktuak komertzializatzeko; % 49 arazoak zituen kredituak eskuratzeko eta % 27 asistentzia teknikorako. Gehienak talde sozial eta herri mugimendutan parte hartzen zuten.

Mugimenduak betetzen duen funtzioa zein den ikusita beraz indartzen laguntzea beharrezkoa da, Brasilen dauden diferentzia sozialak gutxitzeko lagungarri direlako. SENAES sortu denetik aurrerapen handiak gertatu dira baina, hala ere, badago zer egin. Idazkaritzako buru den Paul Singerrerek gobernuko sail desberdinekin borroka egin behar izaten du, bolumen handiko esparrua delako bere eskuduntzapean daukana eta indar (baliabide ekonomiko eta erabaki ahalmen) gutxiko Idazkaritzaren burutza daukalako.

I. ATALA


BRASILKO KOOPERATIBA ERREALITEA GAUR

4. BRASILGO KOOPERATIBA ERREALITATEA GAUR

4.1. KOOPERATIBEN TERZIERIZAZIOA (azpi-kontratazio fenomeno)

Gaur Brasilgo errealitate kooperatiboa baldintzatzen duten elementuen artean hiru dira azpimarratu beharrekoak: 5.764/71 Kooperatiba Lege Orokorra, OCB-k betetzen jarraitzen duen lekua eta kooperatibak lan legediaren ihesbide gisa izan duten erabilera okerra. Azken hau hartuko dugu atal honetan aztergai. Kooperatibak Brasilen eskulan merkea hornitzeko bete izan duten eta betetzen duten funtzioa. Erabilera oker hau izan da kooperatibismoaren izen ona kaltetzea eragin duen elementu nagusietakoa.

Codigo de Regimen Trabalhista arautzen ditu Brasilen lan baldintzak eta kooperatibetako bazkideak autonomoak izanik erregimen honetatik kanpo geratzen dira, honek dakarren guztiarekin. Kooperatibak lana terziazatzeko (azpikontratatzeko) balio izan dute Brasilen eta hain zuzen ere, erabilera hau izan da kooperatiben izana eta izena gaiztotu dituen. Terzierizazioa (gure errealitatean azpi-kontratazio moduan ezagutzen da: kooperatiba bihurtzen da lan indarra kostu baxuan enpresa batetik bestera igarotzeko bide) litzake beraz, lan erregimenetik ihesi eta beharginen izaera autonomoa baliatuz kooperatibak eskulan merkerako tresna gisa erabiltzea⁸⁴. Brasilgo kooperatibistek ez dute hemen lortua dugun lan erregimena eta ondorioz, baldintza prekariotan lana eskaintzen duten behargin bilakatzen dira.



⁸⁴ MAUAD, M. Cooperativas de Trabalho. Sua Relação com o Direito do Trabalho. Editora Ltda. LTR. 2001. ' o verbo terceirizar usa-se modernamente para significar a entrega a terceiros de atividades não essenciais da empresa' (...) ' a nosso juízo, reside aí a pedra de toque do problema. A co-gestão, em sua origem, buscava na experiência alemã, significa que a estruturação, a organização e a gestão da empresa. Propriamente ditas, serão realizadas em conjunto, entre o empresário e os trabalhadores'. (...). ' A terceirização está muito aquém disso. Neste sentido, quando é de interesse exclusivo da empresa, ela contrata uma outra, especializada em determinado serviço, ou a elaboração de um produto específico, sempre voltado para atividade-meio da empresa principal. Jamais a empresa contratante (principal) oferecerá oportunidade para que a empresa contratada (de terceiros) participe de sua gestão, do mando, de sua administração, enfim de seus destinos e do negócio considerado como um todo. Caso isso ocorra, deixará de existir um mero contrato de terceirização, isto é, de fornecimento de produtos ou serviços, para formar-se uma união de empresas, o que não é objeto de nosso estudo. A diferença, portanto, é qualitativa e apresenta profundas repercussões na atividade empresarial.

Kooperatibismoa XIX mendean sortzen den fenomeno sozial eta ekonomikoa da eta hain zuzen ere sortzen da lankidetzan burutzen den lanarekiko elkartasun ekonomiko eta soziala gauzatzeko. Historikoki sortzen da enplegurako alternatiba gisa eta hiru ezaugarri ditu: ekoizpen indarren kolektibizatzea, autogestio kolektiboa eta ekoizpen emaitzen banaketa kolektiboa.

Brasilgo Konstituzio Federalak aldarrikatzen du bere 174.2 artikuluan legeak bultzatu behar dituela bai kooperatibismoa eta bai bestelako elkartze motak ere⁸⁵. Kooperatibak garapen lokalerako eta erregionalerako tresna interesgarriak direla dio, bai eta ekoizpenerako espazio demokratikoak ere eta hain zuzen ere, arrazoi horregatik, herrigintzarako baliozko baliabide dela kontsideratzen du.

Hala ere, 8.949/92 Legea argitaratzen denetik aurrera mehatxu larria biziko dute bai kooperatibismoak eta bai lan legediak aitortzen dituen lan eskubideak ere. Brasildar enpresetan oso hedatuta dago kooperatibak terzierizaziorako erabiltzearen ohitura. Bide hau erabiliz, enplegu formala ateratzen da lan merkatutik eta langileei eragozten zaie lan eskubideak izatea. Eskulana merkantzia baliotsu bihurtzen da baina ez aukera berriak sortzeko, guztiz kontrara, lanpostuak egoera prekarioan lagatzen ditu.

Egoera honi aurre egiteko beharrezko suertatzen da bai terzierizazio fenomeno eta bai lan kooperatibak arautzea; bigarren hauek baitira arazoaren jatorria. Lan kooperatibak dira terzierizazioa ahalbidetzen duten forma sozietarioak.

Eskulan bitartekaritzako kooperatiba direla kontsideratuko dugu eta itsura kooperatiboa dute honela daudelako formalki erregistratuta, baina berez ez dira kooperatiba. Bere lan indar pertsonala hirugarrenen menpe eskaintzen duena ez da 'kooperadorea' enplegatu bat baizik. Euren lan indarrak irabaziak sortarazten dizkie lan indar horren hartzaileei; egoera hau bateragarria da enplegu harremanarekin baina ez kooperatibismoarekin. Esan berri dugunetik, enplegu prekarioaren aurrean gaudela esan genezake; hots, legeak jasotzen dituen eskubide



⁸⁵ 174. artículo. Como agente normativo y regular de la actividad económica, el Estado ejercerá, en la forma de la ley, las funciones de fiscalización, incentivación y planificación, siendo esta determinante para el poder público e indicativa para el privado.

(...)


sozialen babesik ez duen enpleguaren aurrean⁸⁶. Kooperatiba formulak aukera eskaintzen du lan erregimenak ezarrita dituen eskubide eta batez ere, karga eta obligazio sozialetatik ihes egiteko. Aukera hau baliatuz, hornitu dituzte lan kooperatibek eskulan merke eta prekarioak.

Enpleguaren prekaritatea besteak beste, Nazioarte mailako erakundetan ere kezka iturri izan da eta honen adibide dugu 2002ko uztailean Laneko Nazioarteko Erakundeak (OIT) Geneban eginiko konferentzian 193 Kooperatibismoaren gainean onartu zuen Gomendioa⁸⁷.

Aipatu xedapenak, agerian lagatzen du nazioarteko komunitateak giza lanaren alienazioari aurre egiteko duen borondatea. Ildo honetatik sasi-kooperatiben kontra jo nahi da eta ez da utzi nahi, ideia kooperatibistak lanaren prekarizazioaren zerbitzura jartzerik.

Gaur Lan Elkartuko Kooperatibak errealitate bat dira eta lana eta errenta sortzeko tresna oso baliagarriak izan daitezke baldin eta erabilera zuzena egiten bada. Kooperatiba mota hauen izen ona berreskuratu eta enpresa forma egoki eta duin bihurtu daitezen beharrezkoa da gutxienekoak ezarriko dituen lan araudia ematea.

Bi izaeratako kooperatibak daude: ekoizpeneko kooperatibak eta zerbitzu kooperatibak. Lehen kooperatiba motetan langileen esku daude ekoizpen bitartekoak eta autogestio eran eskaintzen dituzte amaituta dauden produktuak merkatuan. Bigarren motan berriz langileek lankidetzak aukeratzen dute bezeroen kaptazioa indartzeko eta euren kualifikazio profesionala hobetzeko,



⁸⁶ AKE-ren kasuan bazkideen lan erregimena bermatuta dago. Kooperatibak eurak izan dira euren lan baldintza duinak arautu dituztenak eta Barne Erregelamenduen bidez gure kooperatibetan ez da enpleuaren prekarizazio fenomenorik gertatzen.

⁸⁷ Gomendioak bere 8.1, b puntuan honela dio:

‘ 8.1) As políticas nacionais deveriam nomeadamente:

(...)


b) velar para que nao se possam criar ou utilizar cooperativas para iludir a legislação do trabalho nem para estabelecer relações de trabalho dissimuladas, e lutar contra as pseudo-cooperativas, que violam os direitos dos trabalhadores, velando para que a legislação do Trabalho seja aplicada em todas empresas’.

eta hemen ere merkatuan amaitutako produktuak eskaintzen dira hirugarrenen injerentziarik gabe.

Une honetan beharrezkoa da baldintza juridiko egokiak eskaintzea sozietate mota hauek hobeto funtzionatu dezaten. Brasilgo ordenamendu juridikoan eta zehazki Konstituzio Federaleko 5 artikuluko XVIIIan dio, *'kooperatiben sortze prozesua autorizaziotik independentea da eta debekatuta dauka estatuak kooperatiben funtzionamenduan eskua sartzea'*. Estatuaren esku hartzea debekatu arren, legeak derrigorrez, kooperatiben funtzionamendu egoki baterako ingurumari egokia sortu behar du. Printzipio kooperatiboen betetzea bermatu dadin tresna ezarri behar ditu.

Neoliberalismoarekin errealitate hau areagotu eta konplexuago egingo da. Bestalde, formaltasun ezak ere, laneko prekarietatea areagotu egingo du. Brasilen, asko dira euren biziraupena bermatzeko, edozein jarduera burutzer behartuta dauden langileak; babes araurik gabe eta euren oinarrizko beharrak aseko dituen politikarik gabe. Brasilgo errealitatean badira, merkaturako jarduera ekonomikoa burutu arren, -lanaren prekarizazioa ahalbidetzen duten formula desberdinez baliatuz-, babes partzialez edo inolako babes sozialik gabe diharduen langile multzoa.

1960ko hamarkadatik aurrera gertatuko den 'Revolução Verde' delakoren ondorioz, Kooperatibismoa izaera esportatzailea duen nekazaritza ekoizpenak markatuta etorriko da, bai eta estatuaren esku hartze handiaren eraginpean ere⁸⁸. Eta hau Lei 5.764/71 legean islatuko da.



⁸⁸ [...] a reformulação do cooperativismo, alinhado a um desenvolvimento agroexportador altamente produtivo, a introdução de modernas técnicas de produção e a posse da terra que rompesse com as estruturas agrárias tradicionais, sem a implementação da reforma agrária e sem o risco de propiciar a organização dos pequenos produtores e dos trabalhadores do campo, apresentam-se não só como um desejo, mas uma necessidade.

Para implementar tal reforma ou alinhamento é que surge, em 1969, como resultado de uma forte articulação coordenada pelo Ministro da Agricultura, Sr. Luiz Fernando Cirne Lima e pelo Secretário da Agricultura do Estado de São Paulo, Sr. Antônio José Rodrigues Filho, a Organização das Cooperativas Brasileiras- OCB. O objetivo de tornar a OCB o único veículo de comunicação entre o Estado e o movimento cooperativista foi alcançado com a sanção da Lei 5.764/71, pelo Marechal Presidente Emílio Garrastazu Médici.

Nahiz eta legeak bere gain hartu Kooperatibismoaren printzipioak, horrek ez du esanahi Brasilgo kooperatibek euren eguneroko praktikan solidaritate ekonomikoa, lanaren balio soziala eta ekoizpen baliabideen jabetza konpartitua balore gisa onartuta dituztenik. Duten tamainagatik eta enpresa jardun indartsuak eraginda, baloreak oso modu lausoan betetzen dituzte. Demokrazia esate baterako, erabakiak batzar orokorrean hartzera eta ekoizpen emaitzak banatzera mugatzen dute soilik.

Langileen gain ereriko den 1980ko krisi ekonomikoak, forma sozietario hauek lan eta ordainsari alternatibak biltzera bultzatuko ditu. Une honetan kooperatiba bidez antolatzea erabaki duten langile taldeek merkatu libre bat bilatuko dute eta azkenean, kooperatiba tertziarizaziorako tresna bihurtuko da.

Egoera honen konplexutasuna areagotzera etorriko da 8.949/94 Legea, zeinak Consolidação das Leis do Trabalho- CLTren 442 artikuluko paragrafo bakarra gehituko duen⁸⁹. Aipatu xedapenak kooperatibaren eta bazkideen artean enpleguzko harremanik ez dagoela esaten du.

Autogestio praktikak ez dituzten langile kooperatibetan, neurri honek eragina izango du. Kooperatiba mota hauek, eskulanaren salmentan eta irabazien banaketan oinarritzen dira: lanaren terziarizazioan alegia. Eragina du neurriak bestalde, ondasun eta zerbitzuak bertako bazkideei alokatzea helburu duten 'egiazko' kooperatibetan.

Kooperatiba honek legediaren aldetik jasoko duen tratamendua kooperatiba iruzurgileek jasotzen duten berbera izango da⁹⁰. Erreklamazio hauek helburu izango dute egoeraren irregularutasuna salatzea eta ondorioz, langileek dituzten lan bermeei ihes egiteko sortutako kooperatibetan, enplegu harremana dagoela deklaratzeko izango da xede edo helburu. Hiru ezaugarri daudela frogatzen bada, enpleguzko harremanari ezingo zaio ihesik egin.

Iruzur-kooperatiben eta terziarizazioaren artean ematen den loturaren ondorioz Organização Internacional do Trabalho- (OIT), aurrez aipatu dugun 193/2002 Gomendioa emango du.

⁸⁹ 'inexistencia de vínculo empregatício entre qualquer tipo de sociedade cooperativa e seus associados'.

⁹⁰ Langileak dituzten bermeei ihes egiteko helburuz eginiko kooperatiben erabilerak tribunaletan erreklamazio ugari eragingo ditu. Erreklamazio hauek bazkidearen, kooperatibaren eta zerbitzu jasotzailea den enpresaren artean enpleguzko harremana deklaratzeko dute helburu. Argumentu juridiko hauek dituzte oinarrian eskaerok: harreman menpeko eta hierarkikoak, langileen eta iruzur-kooperatibaren zerbitzuak kontratatzen dituen enpresaren artean ematen den mendekotasun ekonomikoa eta zerbitzuen jarraikortasuna. Egoera hauetan tribunalak zigortu egiten dituzte eskulan bitartekaritza burutzen duten kooperatibak eta ez dute aintzat hartzen kooperatiba egitura eta honen legezko ondorioak.

Lanaren babes politika nazionalen artean ezarriko du, lan zuzenbidea urratuz, mendeko lan harremanak estaltzeko helburuz sortzen diren kooperatiben gainean, kide diren Estatuaren gaineko kontrola eramatea.


Arau hori emango da 1995tik aurrera iruzur-kooperatiben ugaritzearen ondorioz. Bazen bestalde eslogan – engainu sortzailea zirudien arau bat: 8.949 Legea 1994ko abenduaren 9koa, zeinak Consolidação das Leis do Trabalho-ko 442 artikuluan paragrafo bat gehitu zuen eta honen arabera edozein delarik ere sektorea ez da enpleguzko harremanik izango kooperatibaren eta bazkideen artean⁹¹.

Araua interpretazioak enpresa asko nahasmenera eraman zituen eta ondorioz Lan Justizian milaka izan ziren ezarri ziren akzioak; bai kaltetuak izan zirela uste zuten langileen aldetik bai eta Lan Ministerio Publikoaren (MPT) aldetik ere. Ministerioak lanaren ordenu publikoaren defentsa egitea zuen helburu.

Legearen interpretazioa ezin da era sinple eta isolatuan egin eta ezinbestean, gainerako arau multzo eta printzipioekin koordinatuta egin beharra dago.

Konstituzio Federalak bere 1 artikuluko IV. Atalean Brasilgo Errepublikaren oinarri gisa lanaren funtzio soziala eta ekimen librea edo askea aipatzen ditu. 7 artikulua, langileak bidezko arrazoirik gabe kanporatuak izatea debekatzeko du eta langileei enpleguzko harremana izatea bermatzen die. Ekimen libreak bere baitan duen funtzio sozialak, enpresa jardueraren onura jasotzaileei jardueratik eratorritako erantzukizuna ezartzen dio. Enpresaren erantzukizun soziala, konstituzioaren beste xedapen batzuetatik ere ondorioztatzen da.

170 artikulua Ordenu Ekonomiko eta Sozialari buruz mintzo da, eta lanari dagokionez bi irizpide garbi ematen ditu: lehena, giza lanaren balorazioa litzake; ekoizpen kostu gisa ez hartzea baizik eta kapitalaren mantenu eta erreproduktzioarako tresna gisa. Giza duintasunaren manifestapena eta prozesu ekonomikoaren lehen helburua. Ekonomia gizakiaren zerbitzura dago eta ezin ahaztu ditzake duintasunari lotutako balio eta interesak. Bigarren irizpidea ekoizpen ondasunei



⁹¹ Parágrafo único. Qualquer que seja o ramo de atividade da sociedade cooperativa, não existe vínculo empregatício entre ele e seus associados, nem entre os tomadores de serviços daquela.

dagokiena da. Ekoizpen ondasunen gaineko jabetza pribatua onartzen da baina, ordainean titularrari erantzukizun soziala ezartzen zaio.

CLT-ko 2 artikuluan printzipio hau berresten da, enplegatzaileari soilik esleitzen diolako jarduera ekonomikoaren gaineko arriskua. Azpian dagoen hitzarmen sozialak aditzera ematen du, enplegatzaileak zuzentzen duela jarduera ekonomikoa, horretarako menpeko lana erabiliz eta arriskuaren erantzukizun soziala bere gain hartuz. Ekoizpen prozesuan langilea sartzeak, lanetik eratorritako erantzukizuna sortzen du eta hau ondoren ikusiko dugun moduan, formula kooperatiboarekin bateraezina da

CLT-ren 9 artikuluan argi esaten da lan legediari iruzur egiteko helburuz burututako ekintza oro, deuseza izango dela. Lortuko balitz bide formalak erabili eta enpleguzko harremanari ihes egitea, epaileak beharko du izan iruzurra deklaratu eta eskubideak ezarrarazi beharko dituen.

Esandakoaz gain Brasilgo kooperatibismoa arautzen duen legeak ez ditu aitortzen, lan indarraren bidez lortutako aberastasuna, hirugarrenei eskualdatzera bideratutako kooperatibak. Legeak xedatutakoaren arabera, bazkidea kooperatibako behargina eta lanetik eratorritako eskubideen onuradun zuzen eta bakarra da aldi berean (Lei 5.764/71 4, 5, eta 6 artikulua). Lan kooperatuaren izaera bikoitza dugu hau.

Lei 8.666/93ak bere 71 artikuluan, lan eta aurreikuspen sozialeko eskubideak errespetatzen ez dituzten enprekin kontratuak burutzea debekatzen dio Administrazio Publikoari. Xedapen honek eragina du menpeko eskulana bai administrazioari edo honentzat lan egiten duten enpresei hornitzen dieten kooperatibetan. Enpresa tradizional edo autogestionatuak zerbitzu prestazio bidez administrazioari menpeko langileak ustea aldiz onargarria da. Kooperatibak aipatutako baldintzetan administrazioarentzat lan egitea kompetentzia desleiala dela ulertzen da bai eta lan harremanen prekarietatea ere; kasu hauetan langileak ez direlako egiazko autonomoak, menpeko enplegatuak baizik.

Administrazio Publikoa beraz subsidiarioki erantzule izango da (Enunciado nº. 33, do Tribunal Superior do Trabalho, IV) eta zerbitzu prestatzaileen lan eskubideak bermatu beharra izango du.

Egiatzko kooperatiba batean langileak biltzen dira onurak sortzeko. Autogestioan oinarritutako prozesu baten bidez antolatzen du bai ekoizpena eta baita zerbitzu eskaintza ere; era koordinatuan egiten dute lan eta erabakiak eta emaitzak banatzen dituzte. Hirugarrenei produktu eta zerbitzu amaituak eskaintzen dizkiete eta ez, kooperatibaz kanpo, ekoizpena ahalbidetuko lukeen lan indarra.

Lan kooperatiben munduan ezagutzen dira alde batetik ekoizpen kooperatibak eta beste aldetik, zerbitzu kooperatibak. Ekoizpen kooperatibetan produkzioarako baliabideak langileen esku daude eta autogestioan dute antolaketa eredu; merkatuan produktu akabatua entregatzen dute eta euren lanaren emaitzaren fruituak jasotzen dituzte. Zerbitzu kooperatibetan ere langileen esku daude produkzio baliabideak eta, era autogestionatuan antolatzen dira. Hala ere, kasu honetan bazkideak jardura era autonomoan burutzen dute, eta merkatura, kooperatibaren objektu sozialarekin bat datorren zerbitzu espezializatua eskaintzen dute.

Mota honetako adibide gisa ditugu artisauek, medikuak, taxistak edo oro har, berehala porrot egitera doazen enpresak. Kasu hauetan enpresariak langileekin adosten du, makinak lan eskubideen truke ematea. Eta ekarpen sindikalarekin langile hauek enpresaren zuzendaritza hartzen dute euren gain. Emaitzak euren esku geratzen dira eta aurreko enpresariaren ekintza eta irabaziak ez dituzte euren gain hartzen.

Arriskua dago aurreko legeari iruzur egiteko. Ez da posible ez legalki ez eta konstituzionalki ere enpresari bati eskulana hornitzeko kooperatiba bat sortzea, beti ere, lan eskubideei ihes egitea eta zerbitzu prestazioarekin enpresaria irabazten ateratzen denean. Kasu honetan gainera, zerbitzu prestazioaren burutzea enpresariak berak zuzentzen du. Hauek menpeko lan harremanaren ezaugarriak dira eta lan eskubideok oinarrizkoak izanagatik besteren ezinak dira.

Kooperatiba eta enpresaren arteko kontratu komertzialak ezin du objektu moduan lan indarra eduki. Kasu honetan iruzurra nabaria da. Aurrez aipatu berri dugun OIT-ren 193 Gomendioa da gizarte Brasildarrak, lan indarra inolako babesik gabe merkantzia moduan erabiltzeari dion ukapenaren isla. Kooperatibismoa helburu horrekin erabiltzeak, forma juridiko honen erabilpen okerra egitea litzake eta ondorioz, kooperatiba formula kaltetzea. Eskulan kooperatibak ez datoz bat kooperatibismoarekin, eta ez dute CLT-ren babesik.

Aurrez aipatu berri ditugun arazoak lan elkartuko lanak legeari eginiko interpretazio okerraren ondorio izan dira. Erabilpen honek kooperatibismoari eta elkartasun lanari iruzur egitea eta formula honen desitxuratzea eragin ditu.

Elkartasunezko lana, lan munduak bizi duen krisi egoera ikusita behar larria da. Elkartasunezko lana paradigma liberaletik urruntzen da, mugimendu kooperatiboa lan zuzenbidearekin batera sortu baitzen eta injustizia sozialen aurkako borrokan. Zuzenbide kooperatiboak ekoizpenaren funtzio soziala sustatzea du helburu; demokratizatzea. Aurrez enpresarien esku zegoen kapitala eta enpresa egiteko gaitasuna langileei ematen die, ekoizpen ondasunen jabetza kolektiboaren bidez.

Guzti honetaz gain esan funtzio anitzeko lan kooperatibak sortzeak, hau da, elkarrekin harremanik ez duten objektu sozial asko dituen kooperatibak, 5.764/71 Legeko 3 artikuluan jasotako oinarritzko printzipioa urratzen duela. Kooperatiba mota hauetan bazkideek ez dute helburu bera konpartitzen ez eta interes komun bera bultzatzen ere.

Aipatu berri dugun moduan lan elkartuko kooperatibek izaera bikoitzeko printzipioa errespetatu beharra daukate. Bazkideak, batetik, ekoizpen prozesuan parte hartu beharra dauka eta bestetik berriz, kooperatibak burututako zerbitzuen onuradun nagusia izan behar du.

CLT-ko 442 artikuluko paragrafo bakarrak eta 5.764/71 legeko 90 artikulua ez dituzte baztertzen CLT-ko 3 artikuluan jasotako lanaren babeseko arauak, ez eta araudi bereko 9 artikuluko edukia ere. Iruzurra egiten duten lan elkartuko kooperatiben kontrolak 1988ko Konstituzio Federaleko XVIII-ko 5 artikulua dioena errespetatu beharra dauka, hau da, legearen arabera sortuak izan diren kooperatiben funtzionamenduan Estatuak esku hartzeko debekua.

Ondorioz dagoen lege lana ez da erraza. 5.764/71 legearen hutsuneak bete beharra dagoelako beti ere, CLT duen lan erregimena urratu gabe, eta 1988ko Konstituzio Federaleko printzipioak errespetatuaz.

Aipatu dugun lana burutzerako orduan beharrezkoa da kooperatibetan taldean antolatuta burutzen den lan autonomia definitzea eta menpeko lanetik eta norbanakoaren lan autonomotik bereiztea. Formulazio horren eraginkortasuna bermatuko duten tresna juridikoak definitzea beharrezkoa da. Ondoren, zein lan elkartuko kooperatiba motetan onartuko den lan autonomia finkatu beharko da.

Estatu Brasildarraren eta kooperatiben arteko harremanak zein izan behar diren zehaztu beharko da, beti ere, konstituzioaren xedapenak kontutan hartuta. Honetaz gain, legediak, Estatu Brasildarrak (Federala, Estaduala eta Munizipala), Kooperatinismo enpresariala ez den kooperatibismoa bultzatu, sustatu eta kontsolidatzeko helburuz aurrera eraman beharko dituen politika publiko sorta aurreikusi beharko du.

Eragozpen gehigarri moduan esan behar da, lan elkartuko kooperatibak erregulatzera etorriko den legeak kontutan izan beharko dituela bai konstituzio eta beste legedien erreformak, bai eta legedi kooperatibo eta lan legedia ere. Zehaztuz, 2003n eman zen aurreikuspen sozialeko erreformak, ez zuela kontutan hartu kooperatibako bazkideen egoera, onura sozialak aurreikusterako orduan. Kooperatibako langile autonomoak ez du norbanako langile autonomoaren tratamendua; erreformak ez baitzuen kontutan izan, kooperatibak duen, lan autonomia kolektiboki antolatzeko izaera.

Zentzu horretan Auzitegi Federal Gorenak (STF), 1996ko Lei Complementar nº 84aren konstituzionaltasunaren alde egin zuen eta ez zituen kontutan izan ekarpen sozialari dagokionean, kooperatiben eta merkataritza enpresen arteko aldeak.

Orokorrean 5.764/71 Legeari buruz esan daiteke ez duela lan elkartuko kooperatibentzat egokia den tratamendurik jasotzen, batez ere, hiri ingurunean kokatuta daudenentzat. Eta gehitu genezake, 1988ko Konstituzio Federalak aldarrikatutako printzipioen aurka dagoela, honako puntu hauetan: a) kooperatibentzat ordezkari bakarra aurreikusten duelako; b) ez ditu kooperatibaren barneko jardura desberdinak bereizten eta ondorioz, ezin zaie egokitua eta berezitua den zerga eta aurreikuspen sozialeko tratamendurik eta politika publikorik ezarri; c) ez dio aparteko atalik eskaintzen lan eta kredituzko hiri inguruko kooperatibismoari; d) lan elkartuko herri kooperatibentzat ez du sustapenerako politika publikorik definitzen. Tesia amaitzen ari garenean Lan Elkartuko Kooperatibak arautzera datorren legea onarpen bidean dago. Lan Elkartuko legearen helburua gutxieneko baldintzak ezartzea izan da. Elementu gatazkatsu bat aipatzearren lan bazkideei ordaindu beharreko gutxieneko soldata legoke.


Profesio arteko gutxieneko soldata ezartzea beharginen lan baldintzen duintasuna lortzeko bidea da. Hainbat kooperatibek zailtasunak izan ditzakete ordainsari minimo hau ordaintzeko, kasu hauetarako salbuespenak onartzeko atea irekitzea litzake aukera logikoena.

4.2. EKONOMIA SOLIDARIOA: KOOPERATIBISMOAREN ADIERA BERRIA

4.2.1. Sarrera

Brasilen 80. hamarkadatik aurrera indarra hartzen ari da Ekonomia Solidarioa eta honekin batera baita perfil berriko kooperatibismoa ere⁹².

Singerrek Ekonomia Solidarioa honela definitzen du: auto-eraketan eta kolektiboki langileen artean aurrera eramandako jardura ekonomiko multzoa (ekoizpen, banaketa, kontsumo, aurrezki eta mailegua⁹³).



⁹² Ekonomia Solidarioa deituko diogu anitza den errealitate bati. ES osatzen duten egitura eta mugimenduak anitzak diren arren, ezaugarri komunak dituzte.

Liana Carleial eta Adriane Paulistaren esanetan, Ekonomia Solidarioa osotasunean ikertzeak fenomeno bere konplexutasun guztiarekin aztertzea suposatu behar du⁹⁴. Lehenengo, zein ezagutza esparrutan kokatzen den jakin behar da. Bi hitzen batuketari erreparatzean, 'ekonomia' eta 'solidarioa', eratorri daiteke esparrua bera.

Ekonomian gailentzen den araua lehiakortasuna da; gero eta merkatu gehiago lortu nahia eta produktuen salmenta bermatzea. Elkartasunari dagokionean berriz, beste esparru batean sartzen gera; etika edo morala baina, inondik inora ez ekonomiaren arloan. GIRARDEK (2005) aldiz, uste du, bai lehia eta bai elkartasuna elementu naturalak izanik, gizartean presente daudela. Bere ustez gainera, elkartasuna lehiakortasunaren maila berean arautu daiteke, bata bestearen menpean ipini barik. Nola arautu daitezke bata bestearen parean? Bata bestearen instrumentu bilakatu barik, hori egitea posible al da?

GIRARDEK eta AZAISek (2002) Frantzian burututako ikerketa baten ondoren proposatzen dute 'praktika solidarioei' buruz berba egitea egokiagoa dela 'ekonomia solidarioari' buruz hitz egitea baino. Praxiari buruz hitz egin behar dela, azken finean, AZAISen ustez, (2006) ekonomia solidarioa ez da existitzen⁹⁵. Esan daiteke une honetan hainbat direla esparru hau izendatzeko erabiltzen diren terminoak edo ezagutza esparruak: ekonomia soziala, soziologia ekonomikoa, mugimendu sozialen praktika eta baita gobernuen politika publikoen esparrua ere.

⁹³ SINGER, P. Introdução á Economia Solidaria. Fundação Perseu Abramo. Sao Paulo, 1996.

Singer. Ekonomia kapitalistaren eta solidarioaren artean dagoen alde nabarmenena da, enpresak administratzeko modua. Lehenak heterogestioa aplikatzen du, hots, administrazio hierarkikoa, autoritate maila desberdinez osatuta dagoena, eta zeinetan informazio eta kontsultak behetik gora egiten duten eta, aginduak aldiz goitik behera. Beheko langileak gutxi dakite, beraien errutinazko eta errepikatuak diren lanak burutzeko beharrezko dutena soilik. Hierarkian gora egin ahala, enpresari buruzko ezagutza igo egiten da, besteak beste, burutu beharreko lanak konplexuagoak direlako eta langilearen aldetik ekimen eta erantzukizun gehiago eskatzen dutelako. Mailarik altuenetan ezagutzak beharko luke izan osoa, etorkizunera begirako erabaki estrategikoak hartzea dagokielako.

⁹⁴ UFPRko irakasle titularra eta CNPqko ikerlaria eta UFPRko Ekonomiako ikaslea eta CNPqko kidea.

⁹⁵ AZAISen ustez (2006) praktika solidarioen baitan kokatzen dira ondasun eta zerbitzuak ekoiztera eta lotura soziala sortzera bideratzen diren praktikak. Esparru publikoan kokatzen dira, praktika solidarioa, partehartzailea eta kohesio sortzaileak izaten dira. Helburu izaten dute ekoizpen ekonomiko efizientek eta lotura sozial sortzaileak izatea. Fontaine eta Hirardek (2003) bateratzen dituzte kohesio soziala eta ekimen ekonomikoa. AZAIS (2006) praktika solidarioak erakusten dute euren ekintza zehatzekin lotura soziala sortzeko borondatea. Ondorioz praktika solidarioa gailentzen den joku ekonomikoaren arrazionaltasunetik urruntzen da eta ikuspegi soziala ekonomikoaren azpitik jartzeko joeratik urruntzen da.

Ekonomia Solidarioa, langileek eta komunitate behartsuek lan munduan gertaturiko aldaketei emaniko erantzunen baitan kokatu behar da. Milaka dira auto-eraketa eran antolatuta dauden elkarte kolektiboak; ondasun eta zerbitzuen ekoizpena, elkartasunean oinarritutako finantzaketa eta mailegu sistemak, trukea eta merkataritza eta kontsumo solidarioa bultzatzen duten elkarteak dira.

Sistema kapitalista, beti egon izan da, kapitala eta lanaren arteko gatazkan oinarrituta eta gatazkan beti kapitala garaile izan da. Modu naturalean bizi izan den enpresa antolatzeko modua izan da; ekoizpena eta lana antolatzeko era, lehiakortasun arauak definitu dute, bai eta jabetza industrialeko legeek, kontsumitzaileen legeek... Prozesu hauek eragiten dute jabetza eta errentaren konzentratzea esku gutxi batzuetan egotea eta hau da hain zuzen ere, elkartasun arau ororen aurka doana. Kapitalismoak gaur bizi duen fasea kapitalaren mundializazio izenarekin ezagutzen da bai eta finantza esparruaren dominazio garai bezala ere. Gatazkak zabaldu egin dira, bere adierazpideak indartu eta desberdintasun sozialak areagotu egin dira. Hortik erator daiteke agian gaur Ekonomia Solidarioak hartzen duen garrantzia. Gaur egun indarrean daukagun sistema kapitalistak eragin dituen desberdintasun eta desoreken ondorioak neutralizatzeko eta bide edo alternatiba berri bat jorratzeko erdua izan daiteke Ekonomia Solidarioa. Ekonomia eredu honek dituen hutsune eta eragozpenak gainditzeko laguntzea izan behar da helburua.

Ekonomia Solidarioaren indar eta garapen maila herrialdeen arabera desberdina da. Herrialde garatuetan adibidez, Canadian eta Frantzia oso paper desberdina jokatzen du. Canadian mundu hobea lortzea helburu duen mugimendu politiko zabal baten du oinarria Ekonomia Solidarioak baina, ez dago argi, sozialismoaren alde diharduen ala desberdintasun gutxiago izango dituen mundu berri baten alde ari den. Frantzia berriz, Gizarte Ekonomiaren menpe dagoen mugimendua da eta elkarteak, kooperatibak eta mutualitateak dira ardura daramatenak.

Garapenerako estrategien porrota nabarmena da herrialde azpigaratuetan, bereziki latinoamerikan, eta egiturazko langabeziak sortu duen egoerarekin izaera 'lokalarekin' bada ere, ugaritu egin dira errenta eta lana sortzeko baliogarri diren esperientziak. Ekonomia Solidarioaren baitan burutu dira esperientziok, egoera zehatzetako potentzialitate eta baliabideak aprobetxatuaz eta izaera juridiko batzuk aprobetxatuz, - elkarte, kooperatiba eta antolamendu komunitarioak- konponbide lokal izatera ailegatu dira.

Brasilek asko espero du Ekonomia Solidariotik. Autogestioa ipartzat duen ekoizpen eta lan sortzailea den forma alternatibo kontsideratzen da. Horretaz gain esanguratsuak diren hamaika paper esleitzen zaizkio. Esate baterako kapitalismoa gainditzeko bide izatea; honek eskatzen du ideia honekin bat egiten duten mugimendu sozialen aktibatzea: ekonomia solidarioko enpresa kolektibo (elkarte, kooperatiba...) bati esker bizi den pertsona militante kontsideratzen

da (VIEIRA, 2006). Esan berri duguna hainbat autorek defendatutako iritzia da Paul Singer (2003) eta André Ricardo de Souzak 2000ko argitalpen batean.

Brasilen 2003ko ekainean sortzen da Lan Ministerioaren baitan Ekonomia Solidarioko Idazkaritza eta honek ekarriko du Ekonomia Solidarioa politika publikoen barnean sartzea. Badirudi egitura honen sorrerak ekonomia honen aukerak indartzea ekarriko duela.

Badira defendatzen dutenak Ekonomia Solidarioa ez dela lagungarri sozialismorako bidean ekarpen lagungarriak egiteko. Eta Brasilen politika publikoak egiten duten moduan, kontrol sozialerako bide bat gehiago da zeinak behartsuak mantentzen dituen biziraupen material batean kokatuta; kooperatiba eta elkarteen bidez, lankidetzeta eta sinergiarako praktikak bilatzen baina, kapitalaren borondatea beteaz, gatazka sortzetik urrunduta.

Hainbat ikerketek gainditu barik dauden hainbat arazo azaleratu dituzte: ondasun edo zerbitzuak modu iraunkor/sostengarri batean ekoizteko helburua baina, irabazi asmorik izan gabe; Estatutik independentea den gestioa; egitura asoziatiboa; erabakitze prozesu demokratikoa eta partehartze eta lankidetzan indar berezia jarriaz, bai eta, norbanakoaren eta lanaren gailentzea kapital erremunerazioaren aurrean.


LAVILLE eta FRANÇAren (2004) esanetan Ekonomia 'plural' edo anitz bati buruz ari gara, formaltasunean maila desberdinean kokatuta dauden egituretz ari baikara. Bestalde, ekimenez daukaten gaitasun maila euren izaerarekin bat datozen lan harremanen antolaketa, enpresaren efizientziarekin ongi koordinatu edo bateratzekoa, ez da berdina.

Azken hamarkadatan lan merkatuan ematen ari diren politika neoliberalen indartzearekin eta langabeziaren hazkundearekin, interesa piztu da Ekonomia Solidarioaren baitan sortzen diren elkarte eta kooperatiba fenomenoaren aurrean (SINGER eta SOUZA, 2000; NAKANO, 2000; GEIGER, 2000).

Hainbaten aburuz eta bereziki Europan, Ekonomia Solidarioa Ekonomia Sozialaren baitan dago kokatuta; honek dakar ekimenez alderdi ekonomikoa eta soziala integratzeko beharra. Singerrekin berriz Ekonomia Solidarioa kapitalismoaren alternatiba dela defendatuko du. Esparrua oso da zabala.

Kooperatibismoaren klasikoak oinarri teoriko indartsua eskaintzen dute, Robert Owen eta Charles Fourierrek; sozialismo utopikoa. Kapitalismoak lan gabeen, etxe gabeen.. gain sortzen dituen ondorioen salaketa egiten du. Salaztearekin batera kooperatibismoa proposatzen dute, kapitalismoarekin haustura erradikala sortu barik, elkarbizitzarako sistema gisa⁹⁶.

Orokorrean esan genezake zaila dela izaera oso desberdina duten esperientzia eta praktikak (elkarte, kooperatiba, talde komunitario, trukerako taldeak, mugimendu sozialak eta MST- Movimento dos Trabalhadores Rurais Sem Terra) interpretazio beraren mantapean kokatzea. Singerren esanetan, Ekonomia Solidarioa honela definitzen da: auto-eraketan eta kolektiboki langileen artean aurrera eramandako jarduera ekonomiko multzoa (ekoizpen, banaketa, kontsumo, aurrezki eta mailegua)⁹⁷.



⁹⁶ O caso brasileiro é bem peculiar no que se refere ao cooperativismo pois possui dois grandes campos de atuação das cooperativas de produção e/ou de prestação de serviços. Na realidade, há uma prática intensa do que chamamos cooperativismo empresarial, ou seja, firmas capitalistas travestidas de cooperativas. Na tipologia proposta em artigo anterior as intitulamos de firma-fraude. De acordo com a OCB- Organização das Cooperativas Brasileiras, em 2004, eram 7500 cooperativas no país, abrigando 6 milhões de pessoas. Há uma forte concentração regional, 55% delas está no Sudeste e 29% no Sul, e no ano de 2004 a exportação (predominantemente complexo soja (grão, farelo e óleo), açúcar, café, carnes, trigo e milho cresceu num patamar acima da média brasileira que foi de 32% em relação ao ano anterior.

O segundo grupo é constituído pelo chamado cooperativismo popular que ganhou maior visibilidade a partir do estabelecimento e desenvolvimento da Rede de Incubadoras Tecnológicas de Cooperativas Populares, coordenada pela UFRJ. São essas cooperativas, que em grande parte, dão concretude aos empreendimentos da chamada 'economia solidária'. São dois mundos tão distintos que em entrevista, ouvimos na Organização das Cooperativas do Paraná- OCEPAR que não se sabe o que é economia solidária. Finalmente, é ainda relevante mencionar que na década de noventa, o Governo Brasileiro inicia um processo de flexibilização do mercado de trabalho e a lei 8.949/1994 cria as cooperativas profissionais e assim a 'brecha' para a criação de cooperativas de trabalho.

⁹⁷ Singer. Ekonomia kapitalistaren eta solidarioaren artean dagoen alde nabarmenena da, enpresak administratzeko modua. Lehenak heterogestioa aplikatzen du, hots, administrazio hierarkikoa, autoritate maila desberdinez osatuta dagoena, eta zeinetan informazio eta kontsultak behetik gora egiten duten eta, aginduak aldiz goitik behera. Beheko langileak gutxi dakite, beraien errutinazko eta errepikatuak diren lanak burutzeko beharrezko dutena soilik. Hierarkian gora egin ahala, enpresari buruzko ezagutza igo egiten da, besteak beste, burutu beharreko lanak konplexuagoak direlako eta langilearen aldetik ekimen

Singer irakasleak ez du behar beste sakondu eztabaida maila akademikoan. Bere idatziak irakurtzerakoan badirudi mugimendu sozialak ekonomia solidariotik 'bizi' direla. 'Ekoizpen kooperatibak' kategoria klabeak izan daitezke, hauek baitira 'ekonomia solidarioko unitate tipikoak'. Hala ere kooperatiba mota honi kritika egiteko hainbat oinarri badaude.

Ekonomia Solidarioak esanahi du: irabaziak kolektiboki banatuak diren eta lankidetzan ekoizpena aurrera atera nahi duen egitura bat osatzeko borondazteko erabaki bat ematen dela. Kasu batzutan elkarte eta kooperatiban antolatzeko erabakia ez da libreki hartua izaten eta haratago, lan merkatuaren flexibilizatzerako tresna ere izan daiteke. Brasilen kasu askotan edo Eliza Katotikoak edo Gobernu Federalak berak erabiltzen du kooperatiba bidezko lan elkartua, esate baterako, birziklatze materiala biltzeko.

Aipatu berri ditugun autoreek, Enpresa Solidarioa antolaketa berrikuntza gisa hartzen dute, eta honako ezaugarriok esleitzen diote: (i) ondasun eta zerbitzuen ekoizpenerako ekimen kolektiboa da, (ii) emaitzen jabetza kolektiboa helburu duena, (iii) elkartze eran antolatua, (iv) autonomia, gestio demokratikoa eta lanari kapitalaren gainetik egotearen balio ematen diona.

4.2.2. Brasilgo errealitatea ekonomia solidarioari dagokioenean

Ekonomia Solidarioa sortzen da Latinoamerikan 80 hamarkadan eta batez ere bi ezaugarri nabarmenekin: lana kapitalaren gainetik izatea batetik eta enpresa antolakuntzan komunitate faktoreek duten garrantzia bestetik. Korrante latinoamerikarren eta europarren artean badira elementu komunak eta baita bereizten dituztenak ere Igor Irigoyenen esanetan⁹⁸.

Brasilgo Ekonomia Solidarioari dagokionean, egungo egoera ekonomikoaren ikuspegi kritikoa adierazten duela esan behar da. Neoliberalismoaren kontrako jarrera gogorra eta mobilizazio eta ereduari alternatibak bilatzeko helburuz klase popularraren gestioa egiteko apustu garbia. Sakonera politikoa daukan konpromiso honen adibide gisa Kultura eta Sozioekonomia Solidarioari buruzko bilkura bateko idatzian, 'Carta de Mendes', ikus daiteke esandakoaren izpiritua⁹⁹. Izaera alternatiboa eta kapitalismo neoliberalari dion aurkakotasuna dira hain zuzen

eta erantzukizun gehiago eskatzen dutelako. Mailarik altuenetan ezagutzak beharko luke izan osoa, etorkizunera begirako erabaki estrategikoak hartzea dagokielako.

⁹⁸ IRIGOYEN, I. Economía Popular en Brasil: experiencias de economía solidaria, (argitaratu gabe) 2008.

⁹⁹ Nuestro punto de partida es una crítica vehemente al capitalismo, sobre todo en su forma neoliberal, que ha hecho acompañar la producción siempre más rápida de bienes materiales de una intensa

ere Brasilgo Ekonomia Sozialaren eta Kooperatibismoaren ikur nagusiak. Eta horregatik bereizgarri garrantzitsuak herrialde honetako esperientzia desberdinak bereizterako orduan.

Ekonomia Solidariotik luzatzen duten mezuan argi eta garbi ikus daiteke, orain arte indarrean egon den eredu kooperatibotik alderatzen den korrante berri batetik edaten duela kooperatibismo berri honek.

8,5 milioi kilometro karratu eta 175 milioi biztanle dituen herrialdea da Brasil, munduko herrialde handienetakoa. Hala ere, Brasil da desberdintasun maila altuenak dituen herrialdea: errenta banaketan, langabezian eta pobrezian dagokionean. Brasilgo Ekonomia solidarioa eta kooperatibismoa zuzenean erlazionatu behar dira eman berri ditugun datuekin. Singerren esanetan 1980an bersortzen da Ekonomia Solidarioa eta 1995tik aurrera hartzen du indar handiena; klase popularrek multinazionalen zabalkundea eta langabeziaren eragina bizi duten neurrian¹⁰⁰. Kooperatibismoaren sorrera lehenagokoa da.

Brasilen Lan eta Enplegu Ministerioa, Ekonomia Solidarioko Idazkaritzaren bitartez, errealitate hau indartzeko helburuz, jarduera desberdinak burutzen ari da¹⁰¹. Beste tresna batzuen artean Ekonomia Solidarioko mapa aurkitzen da eta bertan, lana antolatzeko modu desberdinak deskribatzen dira.

Bada Brasilen, SIES- Sistema Nacional de Informações em Economia Solidaria, izeneko zerbitzu bat eta helburu du ekonomia solidarioaren baitako ekimenen eta hauen aholkularitza, babeserako eta sustapenerako dauden egiturak identifikatzea eta erregistroa eramatea da bere funtzio nagusietako bat.

Sistemak honako helburu hauek ditu:

- Ekonomia Solidarioko Ekimenen eta hauen babeserako entitateen gaineko informazioa jasotzen duen datu base nazionala sortzea¹⁰².

concentración de la tierra, la riqueza y el control de los recursos, poder y saber en manos de un número siempre menor de grandes banqueros, empresarios, latifundistas y especuladores. (...)

¹⁰⁰ SINGER, P. Introdução á Economia Solidaria. Fundação Perseu Abramo. Sao Paulo, 1996.

¹⁰¹ ATLAS DA ACONOMIA SOLIDARIA NO BRASIL. Ministerio do Trabalho e Emprego. 2005

¹⁰² Azkena Rio de Janeirora eginiko bidaian BNDS eta SENAES elkarrekin antolatutako formazio saiotan, Economía Solidarioko ekimenen mapa eta informazio zehatzaren garrantzia azpimarratu zen. Bankuak finantziarioa eman ahal izateko beharrezko du ahalik eta informazio zehatzena izan.

- Komertzializazio bideak erraztea, produktu eta zerbitzuen eskaintzarako baliabideak sortzea.
- Gizartearen atxikimendua eta babesa lortzeko helburuz, ekonomia solidarioaren errealitatea ikusgarriago bihurtzea.
- Ekonomia Solidarioaren errekonozimendurako prozesu publikoak laguntzea.
- Politika publikoen formulazioan laguntzea.
- Ekonomia Solidarioarentzako marko juridiko egokia lantzen laguntzea.
- Ekonomia Solidarioaren gaineko ikerketak burutzen laguntzea.

Honako irizpide hauek jarraituz egingo du lan:

- Ekonomia Solidarioaren potentzialtasunak balioztatzeko diren terminoak birformulatzea eta egokitzea.
- Ekonomia Solidarioaren antolaketa indartzen laguntzea.
- Ekonomia Solidarioko aktore garrantzitsuenen ordezkariari partehartzea eskaintzea.
- Ezarritako helburutan progresibotasuna.
- Informazioen konfidentzialtasuna.
- Prozesuaren emaitzen gaineko publizitatea.
- Baimenik gabeko informazioen gainean segurtasuna.

Ekonomia Solidarioa honela definitzen da: auto-eraketan eta kolektiboki langileen artean aurrera eramandako jarduera ekonomiko multzoa (ekoizpen, banaketa, kontsumo, aurrezki eta mailegua)¹⁰³.

¹⁰³ Singer. Ekonomia kapitalistaren eta solidarioaren artean dagoen alde nabarmenena da, enpresak administratzeko modua. Lehenak heterogestioa aplikatzen du, hots, administrazio hierarkikoa, autoritate

Jarduera multzo eta antolaketa modu hauetan honako ezaugarri garrantzitsu hauek azpimarratu daitezke: lankidetzak, autogestioa, bideragarritasun ekonomikoa eta elkartasuna¹⁰⁴. Ezaugarri hauek osagarriak izanik, ezin dute isolatuta funtzionatu; denak dira beharrezkoak. Nahiz eta kategoria desberdinak diren, Ekonomia Solidarioan presente egon behar dute beti.

Lankidetzak: Interes eta helburu berdinen existentzia; esfortzu eta gaitasunen batuketak; ondasunen jabetza kolektiboa; emaitzen banaketa eta zailtasunen aurreko erantzukizun konpartitua.

Autogestioa: Lan prozesutan partehartze praktiken gauzatzea; baita definizio estrategikotan ere; eta baita, ekintzen zuzendaritza eta koordinazioan ere.

Jarduera ekonomikoa: Ezagutza, esfortzua eta baliabideak gehitzea: ekoizpen, zerbitzu prestazio, mailegu, komertzializazio eta kontsumo kolektiboko ekimenak bideragarri egiteko.

Elkartasuna: Partehartzaileen bizi baldintzak hobetzeko eta emaitzen banaketa justu baterako kezka iraunkorra. Ingurumenarekin eta komunitatearekin konprometituta, baita emantzipazio mugimenduekin eta langile eta kontsumitzaileen ongizatearekin ere.

Aipatu ditugun ezaugarriak kontutan izanik honako talde hauek osatuko lukete Ekonomia Solidarioa:

Kolektiboak: Familiaz gaindiko erakundeak; singularrak edo konplexuak, esate baterako: elkarteak, kooperatibak, enpresa autogestionatuak, ekoizpen taldeak, truke klubak...

Partehartzaileak: bazkideak edo langileak; hirigunekoak ala nekazal gunekoak; jardueren gestioa eta emaitzen jasotzea modu kolektiboan daramatenak.

Iraunkorrak: funtzionamenduan daudenak edo inplementazioa hastera doazenak; partehartzaile taldea eratuta dutenak eta jarduera ekonomikoa definituta.

maila desberdinez osatuta dagoena, eta zeinetan informazio eta kontsultak behetik gora egiten duten eta, aginduak aldiz goitik behera. Beheko langileak gutxi dakite, beraien errutinazko eta errepikatuak diren lanak burutzeko beharrezko dutena soilik. Hierarkian gora egin ahala, enpresari buruzko ezagutza igo egiten da, besteak beste, burutu beharreko lanak konplexuagoak direlako eta langilearen aldetik ekimen eta erantzukizun gehiago eskatzen dutelako. Mailarik altuenetan ezagutzak beharko luke izan osoa, etorkizunera begirako erabaki estrategikoak hartzea dagokielako.

¹⁰⁴ ATLAS DA ECONOMIA SOLIDARIA NO BRASIL. Ministerio do Trabalho e Emprego. 2005.

Formalizazio maila desberdinekin. Existentzia erreala lehenesten da, erregistro legalaren aurretik.

Honako jarduerak eramaten dituztelarik aurrera: ondasunen ekoizpena; komertzializazioa; eta kontsumo solidarioa.

Ekonomia Solidarioak baditu bestalde, babeseta, aholkularitza eta sustapena bideratzea helburu duten erakundeak. Hainbat ekintza zehatz gauzatzen dituztenak: gaitzea, aholkularitza, inkubazioa, asistentzia teknikoa eta antolakuntzazkoa.


4.2.3. Ekonomia Solidarioaren esparrua Brasilen

Bi dira beraz orokorrean bereiztu daitezkeen kooperatibismoak Brasilen: tradizionala eta Ekonomia Solidarioari lotua. Bien artean badira diferentziak. Tradizionalen eta Ekonomia Solidarioari lotutako kooperatiben arteko diferentzia bat dimentsioari dagokiona da; lehenengo kooperatiba moten artean normala da bazkide kopuru altua izatea eta bigarrenak berriz, kopuruz asko izan arren txikiak bazkide kopuruari dokionean¹⁰⁵.

Bi moten artean diferentziak daude baita autogestio, parte-hartze eta demokrazia mailaren artean. Kooperatiba tradizionaletan balio hauek ez dute indar handirik Ekonomia Solidarioarekin alderatuz. Azken hauek nahiko organizazio politizatuak izaten dira eta helburu izaten dute eraldaketa soziala bultzatzea batetik eta eredu sozioekonomiko berria bultzatzea bestetik.

Autogestioa eta errentagarritasunaren arteko harremana alderantzizkoa da. Enpresaritza perfila duten kooperatibak ekonomikoki indar gehiago lortzen dute izaera sozial, solidario eta auto-eratuak dutenak baino. Bigarrenengo motakoek finantza zailtasunak, komertzializazio zailtasunak, gabezia teknologikoak, eta gerentziarako gaitasunik eza... izaten dute.

Errentagarritasuna batetik eta autogestioa eta solidaritatea bestetik hartzen dituen kontraesan harreman hau ez da aldaezina, baizik eta kooperatiba berrien ezaugarrien ondorio da.



¹⁰⁵ ATLAS DA ECONOMIA SOLIDARIA NO BRASIL. Ministerio do Trabalho e Emprego. 2005.

Ondorioz, esan beharra dago, Ekonomia Solidarioako kooperatibek beharrezko dutela babes teknikoa eta formazioa jasotzea.

Azken hamarkadan Brasilen Ekonomia Solidarioak hazkunde handia bizi izan du. Ekimen solidarioez eta hauen babeserako entitateez gain, aktore berriak ere sortu dira; Ekonomia Solidarioako Idazkaritza kasu. Maparen parte izatera pasa da. Azpian azaltzen da errealitatearen gaurko deskribapena:


2005ko datuen arabera. 14.954 Ekonomia Solidarioako Ekimenak azaltzen dira identifikatuta Brasilgo 2.274 udalerritan (hau da, Brasilgo udalerrien %41a). Antolaketa moduei dagokionez, Ekonomia Solidarioako Ekimenak honako izaera formak hartzen dituzte: kooperatibak, elkarteak, talde ez formalak eta bestelakoak (Merkataritza Sozietateak...)¹⁰⁶. Brasilen ekimen gehienak elkarte izaera dute %54. Talde ez formalak %33 eta antolaketa kooperatiboak %11 eta beste antolaketa moduak %2. Banaketa honek eskualde banaketari erantzuten dio.

Jardueren hasiera data kontutan izanda, oso fenomeno berria dela baieztatu daiteke. Ekimenen gehiengoak 90ko hamarkadan hasi zen eta ondoren izango du hazkundera. Antolaketa erari dagokionez, 90ko hamarkadaren erdialdetik aurrera, talde ez formalen hazkuntza nabari da, elkarte formakoek beharrezkoak eta kooperatibak berriz, egonkor mantenduko dira.

Brasil osoan Ekonomia Solidarioaren hedapena eskualdeka oso antzekoa dela esan daiteke.

Ekimenak sortzeko arrazoiak desberdinak izan dira. Hona hiru arrazoi nagusiak: langabeziari irtenbidea %45; bazkideen errenten osagarri %44; irabazi gehiago lortzea %41. Beste bi arrazoi azpimarratu daitezke: kudeaketa kolektiborako aukera %31 eta krediturako aukera %29. Egoera hau aldatzen da eskualdearen arabera; eskualde batzuetan arrazoi batek beste batek baino pisu gehiago izan dezake.

Ekonomia Solidarioan inplikaturako gizon eta emakumeak milioi bat berrehun eta berrogei eta hamar mila dira. Ekimen bakoitzean gutxi gora behera 84 kideren parte-hartzea ematen da. Eta kopuru honi gehitu behar zaio bestalde, bazkide ez izan arren, ekimenekin lotura duten beste 25 mila langile.



¹⁰⁶ ATLAS DA ECONOMIA SOLIDARIA NO BRASIL. Ministerio do Trabalho e Emprego. 2005.

Bazkide kopuruari dagokionean, gizonen parte-hartzea emakumeena baino zerbait altuagoa dela esan genezake, %64 eta %36. Ekimenaren tamainarekin erlazionatuta azaltzen zaigu emakumeen parte-hartzea; zenbat eta ekimena txikiagoa izan emakumeen parte-hartzea handiagoa da.

14.954 ekimenetatik 8.870ek (%59,3) erantzun dute bazkideen ordainsarien gainean. Guztien artetik, %50ak, gutxieneko soldatara artekoa ordaintzen duela aitortzen du. % 26,1ak aitortzen du, gutxieneko soldata ordaintzen duela. Datuok interpretatzerako orduan kontutan izan behar dira Ekonomia Solidarioko Ekimenak sortzeko dauden arrazoiak. Normalean bazkide direnen errenta osatzeko sortzen dira.

4.2.4. Mugak eta ekarpena garapen lokalari

Nahiz eta Ekonomia Solidarioan oinarritzen diren ekimenen gorakada antzeman, garbi dago, ingurumari ekonomiko eta soziala kontutan izanik, gainditu beharreko eragozpenak ere nabariak direla. Gaurko egoerak errentaren kontzentrazioa eta bazterketa soziala areagotzen ditu. Esperientzia berriak egoera hauen aterabide gisa sortzen dira, eta hain zuzen ere, arrazoi hori dela eta, egiturak, baliabiderik eta formaziorik gabeko langileez osatuta daude. Bi arrazoi hauek zailtzen eta eragozten dute esperientzia ekonomiko hauen bideragarritasuna.

Ekonomia Solidarioko esperientzia ekonomiko hauen gaineko honako galderak sortzen zaizkigu: Zein dira esperientzia hauek gainditu behar dituzten arazo, zailtasun eta aukerak? Bertan antolatzen diren langileentzat eta inguruko komunitatearentzat zein dira ekarpenik garrantzitsuenak? Muga partikularrak gaindituz, ekonomia solidario orokor baterako ekarpena egiteko espazio zabalena zein izan al da?

Nahiz eta mugak eta eragozpenak izan, elkertasunean oinarritutako esperientzia ekonomikoak gizarteratzeari eta garapen lokalari ekarpen garrantzitsua egiten diotela gauza nabaria da. Esperientziak gainera, zabalkunde eta artikulazio garrantzitsua ari dira bizi izaten.


Arazo komunei irtenbide bateratua ematea da esperientzian oinarritako bat. Kolektiboki aurrera eramandako ekimenak dira eta langileen jardueraren bidez aurrera ateratakoak. Hala ere,

ezaugarri hauek izateak ez dakar derrigorrez, elkartasuna, demokrazia eta autogestioa euren funtzionamenduaren oinarrian egotea. Razetoren esanetan, ekonomia egiteko modu berri honek eskatzen ditu, jokaera sozial eta pertsonal berriak izatea¹⁰⁷. Ekonomia modu honek 'egiteko modu berria' eskatzen du. Hala ere, esperientzia bakoitzean ezaugarri hauen intentsitatea asko aldatzen da: esperientziak sortzen diren baldintza eta ingurumariaren arabera; izaera politiko eta erlijiosoaren arabera; parte-hartzaileen gida lerroak zein direnaren arabera.

Demokrazia eta partizipazioaren ikuspegitik, kooperatibismo tradizionalarekin lotutako praktikak dira bazkideen parte-hartzea gehien eragotzi duten esperientzia kooperatiboak. Eta esperientzia aurreratuenak berriz izango dira, aurrez, borroka sozial bat aurrera eramatea egokitu zaien taldeen kasua. Azken kasuan, borroka soziala izan delako kideak taldea sortzera eramantzen dituen arrazoia. Bigarren multzo honetan kokatzen ditugu nekazal erreformaren aldeko taldeak eta baita borroka sindikal eta kaleko borrokan kokatzen diren taldeak. Talde hauetan langileen diskurtsoak ukitu politikoagoa dauka; eraldaketa soziala era zabalagoan begitantzen du eta lanaren antolaketarako eta kudeaketarako modu parte-hartzaileagoak eta demokratikoagoak ditu oinarrian.

Nahiz eta esperientzietan elkartasun ezaugarria ez izan nagusi, elementu bereizgarri inportantea da egiturak lanaren arabera antolatuta izatea eta ez kapitalaren arabera. Nahiz eta langileak ez izan elkartasunari lotutako asmo politiko-ideologikoak, baldintza batzuen araberrako lanpostuak sortzeak, arazoei konponbide kolektiboa emateko posizioan kokatzen ditu esperientziok. Sinbiosi handiagoa dago indibiduala eta kolektiboaren artean. Ez da soilik kudeaketa egiteko modu berri bat, lanaren kontzepzio eta harreman berri bat baizik.

Esperientzia hauetan biziraupen egoeratik ekonomia egitera pasa direla esan genezake. Taldeen gizarteratzea lortze bidean daukan garrantzia eta beharizan egoeratik ekonomia egiten hastea dira azpimarratu beharreko elementuak. Gaur, esperientzia asko, esperientziaz fasea igaro eta egonkortasun eta sendotze fasean daudela esan daiteke. Aukera erreal eta zilegiak bihurtu dira langabeziari aurre egin eta garapen eredu justuagoak garatzeko. Hala ere, enpresaritza kooperatiban izan ezik, kasu askotan emaitza ekonomikoak urriak izaten dira eta errepikakorrak diren hainbat arazo izaten dituzte: kapital eta mailegu falta, komertzializazio



¹⁰⁷ RAZETO, L; Economía Popular de Solidaridad. Edición Conferencia Episcopal de Chile, 1986.

arazoak, merkatu galerak, atzerapen teknologikoak, gerentzia edo kudeaketarako gaitasunik eza... Eragozpen hauek lotura dute kanpo arrazoiekin – ingurune baztertzaila eta eragozlea- eta baita, - barne arrazoiak ere- ekonomia modernoarenak diren teknikak eta gaitasunak barneratzeko zailtasunak.

Egoera oso desberdinen aurrean aurkitzen gara. Kasu batzuetan esperientziak arrakasta handia dute baina, elkartasun eta autogestio maila baxua erakusten dute. Beste kasu batzuetan berriz, emaitza eskasak aurkezten dituzten arren, oso esperientzia demokratiko eta partehartzaileak dira. Arazoa, bi praktikak, - elkartasuna eta errentagarritasuna- parean dituzten esperientziak aurkitzeko zailtasunean dago. Ezin da ahaztu esperientzia ahulak izan arren, langileek jasotzen duten onura, soldatapeko lan harremanekin alderatuz beti ere, handia dela (Gaiger, 1999). Irabaziek eta emaitzek sortzen duten asetasun maila areagotu egiten da partehartze, demokrazia eta elkartasun maila handiko enpresetan. Ondorioz, esan genezake erronka dela enpresa logika eta elkartasun logika kontraesanean izango ez dituen enpresak sortzea, eta honela, Razetok (1997, 1999) aipatzen duen arrazionaltasun ekonomiko berria sortuz.

Beste ahulezietako bat, euren arteko artikulazio edo egituratze falta da. Ekoizpen, banaketa eta kontsumoan aurrerabideak emateko egituren arteko harremana ezinbestekoa da. Esperientzia gehienak hastapenetan daude eta nahikoa lan dute euren eguneroko arazoei konponbidea ematen. Esparru zabalagotan antolatzeke gaitasunik ez dute erakusten.

MST (Movimento Sem Terra) da artikulazio eta estrategia maila altuena duen egitura, baina euren esparrura soilik mugatzen da; ez dute gainerako ekonomia solidarioko esperientziekin inolako loturarik. Esperientzien arteko sareak eta harremanak egitea beharrezko bihurtzen da. Orain arte, bakoitzak bere aldetik, gainditu dituen eragozpenak taldean gainditzeko eta zirkulu ekonomikoari arrazionaltasun bat emateko bihurtzen da ezinbesteko tresna.

Esperientzia hauek dituzten beharrak asetzera bideratutako politika publikoak paper garrantzitsu bat jokatu dezakete. Badira guneak behar hauei erantzuna emateko sortuak direnak eta besteak beste, komertzializazioa, legedia eta hezkuntza dira lantzen dituzten arloak.

Kontutan izan beharreko beste elementuak, ekinbide komunitarioarako esparru berriak eta garapen lokala dira. Esperientzia asko lokalak dira. Euren komunitatean kokatuta azaltzen diren esperientziak dira. Dituzten baliabideekin egiten dute lan. Lurralde esparru muga hau normala da, esperientzia gehienak bazterketari aurre egiteko sortuak izan zirelako.

Taldean partehartzeko aukera hutsak kideak hiritartzeko aukera baten aurrean ipintzen ditu, eta honela gizarteratze bideari ekiteko parada dute.

Azpimarragarria da ekimen solidariotan dagoen emakume kopurua. Bestalde, oso elementu inportantea da baita, adinagatik lan merkatuak kanpoan laga dituen langileei lan aukera eskaintzea.

Aipatuak izan diren arrazoi ekonomikoengatik ekimenak maila lokalekoak dira, eta zail dute kokatuta dauden eskualdean edo nazio mailan ondorioak izango dituzten ekinbideak martxan jartzea.

Hala ere, badaude logika berri bati ateak irekitzera datozela erakusten duten aztarnak. Garapen eredu berri bat dakarten egiteko moduak; elkartasunean eta ez lehiakortasunean oinarria duen garapen bide berri bat.

Mugimendu honek hedapen zabala izan dezan, politika publikoek gero eta garrantzia handiagoa hartzen dute. Hala ere, politika hauek lagungarri izan arren, ezin ordezkatu dezakete dimentsio globalagoan kokatzen den eta endogenoagoa izan behar duen garapen eredu berria.

Hona Coraggiok (2000) sistema berriaren inguruan esandakoa:

'Ese sistema (...) deberá prestar atención a los equilibrios sociales y a los equilibrios síquicos, encarnando otro concepto de interés individual, de sentido de vida, y, también, otra concepción de economía, como cultura y base material de la vida en sociedad'

Ekonomia Solidarioak aurre hartzen dio kooperatibismo tradizionalari, besteak beste, honako arlo hauetan: bazterketa, gobernu politikekiko mendekotasuna, eta kapitalaren logika gainditzeko bide izan daitekeelako. Alternatiba berri hau ingurumari berri batek baldintzatuta azaltzen da eta beronen garapenak beharrezko du, elkartasunak eta eredu berri baten eramaile izatearen kontzientziak markatutako identitate bat eraikitzea.

Nahiz eta garatzen eta indartzen ari den mugimendua izan badira agerian azaltzen diren hainbat muga ere. Eragin handiago izateko oraindik kuantitatiboki esangura txikia dutela esan behar da, honetaz gain eragozpen ekonomiko garrantzitsuak dituztela gainditzeko eta honi gehituz, esperientziak duten egituratze maila baxua ere azpimarratzekoak dira. Beharrezkoa da beraz, alternatiba erreal gisa, ekonomia solidarioa nazio garapena lortzeko tresnen agendan kokatzea.

Esperientzien azterketak hainbat alternatiba jartzen ditu mahai gainean. Esperientziak lanaren arabera antolatuak izateak kapitalaren arabera beharreen, arazoak gainditzeko konponbide kolektiborako aukerak irekitzen ditu eta baita kideentzako hiritartze gune berriak irekitzeko aukera ere. Nahiz eta aurrez ere aipatuak izan diren mugak ere hor izan: autogestioa, partehartzea eta lankidetzeta aurrera eramateko mugak alegia.

Esparru lokalean garatzeak dakar gertuko beharrekiko sentsibilitate berezia izatea: hezkuntza, osasuna eta beste oinarrizko hainbat beharrekikoak, hala ere, honek lotura edo harreman estua dauka baita ere, nazio eta nazioarte mailako dinamikekin.

Ekonomia Solidarioaren indartzeak honako hauek gainditu beharra dauka: sareak sortzea eta esperientzien arteko artikulazioa batetik eta esperientzia zehatzen sendotzea eta zabalpena bestetik.

4.2.5. Forma juridikoak

Ekonomia Solidarioa osatzen duten lan edo ekoizpen esperientzia hauek daude antolatuta talde ez formal, elkarte, enpresa autogestionatu edo eta kooperatibetan.

Ekonomia Solidarioak ez du forma juridiko konkretu bat hartzea eskatzen baina bai sarritan errepikatu ditugun hainbat ezaugarri betetzea: gestio kolektiboa, ekoizpen bitartekoen jabetza konpartitua, autogestioa, partehartzea, lankidetzeta eta berdintasunean oinarritutako giza garapena ardatz duten lan harremanak. Errenta eta lana lortzeko helburu duten ekimenak izanik beharrezko dute sozietate edo enpresa izaera eskuratzea.

Ekonomia Solidarioaren baitako ekimenek merkaturako ekoizten dute eta euren produktuak saltzen dituzte ekonomiako lehen, bigarren eta hirugarren sektorean: nekazaritzan, industrian eta zerbitzutan. Honek esanahi du Ekonomia Solidarioko ekimenen inguruko politika publikoak garapen ekonomiko iraunkorraren ingurukoak behar dutela izan eta ez laguntza sozialeko konpentsazio politikoen baitakoak.

Talde informal eta elkarreetan antolatutako ekimenek muga politiko, ekonomiko eta sozialak aurkitzen dituzte (PERES GEDIEL, JA, 2007). Talde informalek Kode Zibil Brasildarraren arabera izaera juridikorik ez dutelako honako eragozpenak aurkitzen dituzte: hitzarmenak sinatzeko ezintasuna, maileguak eskuratzeko zailtasunak eta ondasun eta zerbitzuak merkaturatzeko zailtasunak. Jarduera aurrera eramaterako orduan ere hainbat elementuk eragiten dute ekimenak ahulak eta segurtasun juridikorik gabeak izatea: merkatuan nahiko salneurri baxuan eginiko eskaintza kontratuak, Estatuaren interbentzioa inolako berme juridikorik gabe...

Elkarreak, 2002ko urtarrilaren 10eko Lei 10.406 arautzen ditu eta Kode Zibilak bertara igortzen du. Aipatu legeak elkarreak zuzenbide pribatuko pertsona juridikoen mailan ezartzen ditu. Legeak dioenaren arabera ekonomikoak ez diren helburuak lortzeko sortzen dira elkarreak. Lortu nahi diren helburuak, izaera ekonomikorik ez izatearen ezaugarriak, eragiten du, entitate juridiko hauek ondasun eta zerbitzuak merkatuan ezin komertzializatu ahal izatea.

Hala ere, elkartea helburu ekonomikotarako erabilia izaten da, hiru faktoreen baitan beti ere: a) langileek Ekonomia Solidarioarekin izaten duten lehen kontaktua elkarrekin izatearen bidez; b) elkarrekin eskakizun juridiko eta burokratiko gutxi dituzte eraketako orduan; c) Brasilgo hainbat Estatutan ohar fiskalak luzatu ziren, ondasun eta zerbitzuak elkarrekin bidez bideratzeko aukera egon zedin. Kode Zibilak egin du ahalegina antolaketa autogestionatu moduak topatzen, bestela ekimen hauek ez lukete aukerarik izango ondasun eta zerbitzuak merkaturatzeko.

Enpresak orokorrean, kooperatibak izan ezik, Ekonomia Solidarioko langileek defendatzen dituzten printzipioekin kontrajartzen diren hainbat elementu dituzte. Enpresa hauek kapital enpresak dira eta ez pertsona lehenesten duten enpresak, eta hau da arazo nagusia. Honegatik, egonkortasunik ez den garaitan eta enpresak une zailak bizi dituenean kapital gehien duena izango da erabakiak hartuko dituen eta beraz, enpresaren norabidea markatuko duena. Enpresa hauetan kapitala izanik gailentzen dena eta ez pertsona, 'pertsona bat, boto bat' printzipioa ez da betetzen.

Industri Iraultza garaian langileek bizi izan zuten esplotazioari aurre egiteko sortu ziren kooperatibak eta beraz, egituren indarrean dituzten printzipioak erraztu egiten dute, langileek mendekotasun gabeko espaziotan jarduteko aukera. Kooperatibetan pertsonak du elementu ekonomikoen gainetik pisua eta bere pisuak duen garrantziak baldintzatzen du izaera juridikoaren ezaugarri pertsonalista ere.

Brasilera, politika nazionalari dagokionean, 5.764/71 legeak ekarri zituen mundu mailako kooperatibismoaren ezaugarriak. Lege honen arabera, 'kooperatiba sozietate kontratua burutzen dute, irabazi asmorik gabe eta denen probetxurako, ekimen ekonomiko bat aurrera eramanez ondasun eta zerbitzuak komunean ipinitzen dituztenak'.

Esan dugunari jarraiki, Ekonomia Solidarioko ekimenak aurrera eramateko dagoen formatu juridiko zuzenena kooperatiba da baina, Brasilen, 5.764/71 legea eta baita mahai gainean dauden bi lege proiektuak ere jatorria eta oinarriak aginte militarreko garaian dutela. Horrela uler daiteke bizi den errealitate nazional konplexua eta indarrean den legearen artean dagoen saltoa.

Laburtuz esan behar da, Ekonomia Solidarioko ekimenen forma juridiko egokiena dituzten printzipio eta baloreekin koherenteena den forma sozietarioa dela kooperatiba.


4.2.6. 5.764/71 Legearen gaineko irakurketa

Ekonomia Solidarioaren baitako ahots esanguratsu baten hitzetan oinarrituko dugu 5.764/71 legerari Ekonomia Solidarioak egiten dion azterketa. Marcos Rafael Gonçalvesek esanetan ekoizpen kapitalistaren garapenak eragin du gaur egunean existitzen den lanaren krisia, eta honen ondorio izan da Enrique Dussel-ek 'o sétimo rosto da Modernidade' deitzen duena, bazterketa¹⁰⁸. Ekoizpen prozesutik baztertua izan den behartsua, hau da, bere oinarrizko beharrak asetzeko baldintzarik ez duena.

Hiritar baztertu hauek bizi izaten jarraitzeko lankidetzara jo beste aukerarik ez dute eta honela ekoizpena talde kolektibotan antolatuta eramaten dute aurrera: hauek dira kooperatiba popularrak. Kooperatibismo popular hau da, lan merkatu formaletik kanpo geratu direnak era kolektibo eta autogestionatuan ekoizpena antolatzeko eta aberastasuna banatzeko aukeratu duten bidea. Kooperatibismo popularra autogestio printzipiotan dago oinarrituta. Gestio demokratikoa, ekoizpen prozesua langileen esku izatea eta irabazien banaketa eginiko lan ekarpenaren arabera banatua izatea. Unitate autogestionatu hauek bereizten dira enpresa kapitalista heterogestionatuetatik. Errealitate guztiz kontrajarriak dira.

Gonçalves-en ustez legedi brasildarrak ez du bereizketarik egiten, izaera popularreko ekimen autogestionatuen eta kooperatiba formatua izan arren, ekimen kolektibo kapitalista direnen artean. Kooperatiba izaera formal beraren baitan kokatzen ditu zuzenbideak oso errealitate desberdinak direnak.

Gilvando Sá Leitao Rios-ek baieztatzen du esan berri duguna eta gehitzen du esanez ezin dela nahastu zer den kooperatibismoa zuzenbidearentzat eta zer den brasilgo mugimendu sozialentzat: ekoizpen era kapitalistaren aurka borrokatzen duen mugimendu kooperatibista¹⁰⁹.



¹⁰⁸ Dinamica do mercado de trabalho capitalista. Onde: 1. Núcleo necessário ao capital, os trabalhadores assalariados formais. 2. Os estagnados, trabalhadores desempregados. 3. Trabalhadores excluídos, com pouca possibilidade de conseguir um trabalho formal. 4. Os marginais: massa de indivíduos inimpregáveis, sujeitos absolutamente dispensáveis/invisíveis para o sistema capitalista de produção.

¹⁰⁹ Para se poder captar o papel transformador do cooperativismo, deve-se antes de mais nada distinguir a ação-político-económica do enquadramento legal cooperativo. Isto é, não se deve confundir o continente com o conteúdo. Não se deve considerar como 'cooperativa' uma instituição, apenas pelo simples fato da mesma estar enquadrada nos requisitos definidos em lei. A 'casca' jurídica pode esconder uma ilusão sob as aparências dos registros burocráticos.

Autorearen ustez, ezin dira nahastu edukia eta eduki-ontzia. Bere esanetan, kooperatiba izatea ezin da mugatu lege baldintza formalak betetzera soilik; jantzi juridikoaren azpian, gerta daiteke identitate kooperatibo egiazkorik ez egotea. Kooperatibismo latinoamerikarrak duen jatorri elitista oinarri hartuta, legediak kooperatibismo kontserbadorea legitimatzen du eta hain zuzen ere, jatorri horregatik, izaera eraldatzailea daukan kooperatibismoa baztertu egiten du.

Autorearen esanetan bi kooperatibismo mota daude: 'aberatsen kooperatibismoa' eta 'behartsuen kooperatibismoa', eta Brasilgo Estatuak ezarria duen legediak lehenengoan beharrei erantzuten die. Bada beraz, haustura ideologiko bat esplizitatzea komeni dena. Teorian ez litzake bi kooperatibismoen artean bereizketarik egin beharko, hau da, 'egiazko kooperatibismo' eta 'kooperatibismo faltsu' baten artean. Honako elementu hauetan ezarri genezake indarra: a) mugimendu kooperatiboaren barnean dagoen gatazka politikoa; b) kooperatiba kontzeptuaren gaineko disputa; eta bigarren honen harira dator kooperatibismo hegemonikoaren (konbentzionala) eta kooperatibismo popularraren (autogestionarioa) arteko gatazka, lehena faltsua eta bigarrena egiazkoa.

Autoreak 5.764/71 1971ako abenduaren 16ko kooperatiba legea kritikatzeko du, bere ustez ez duelako jakin kooperatibismoaren printzipio eta baloreak zaintzen eta babesten eta guzti hau, besteak beste, kooperatiben barnean soldatapeko lana onartu duelako.

Ekimen autogestionatua den heinean, kooperatibak plataforma izan behar du eraldaketa erradikal bat bideratzeko. Honegatik langile klasearen mugimendu politikoak erantzun beharra dauka sistema kapitalistaren aurrean; ez demokratizatu kapitalismoa baizik eta bere oinarriak irauli. Zentzu horretan kooperatibismoari buruz berba egitea, biktimek bultzatutako eraldaketa prozesu bati buruz hitz egitea da.

Kooperatibismoa da lan merkatutik kanpo geratu den baztertuak, lan antolaketa kolektiboan bidez ekoizpen eta aberastasuna banatzeko sortzen duen antolamendua. Esplotaziori aurre egiteko, kooperatibismoa autogestioan oinarritzen da: gestio demokratikoa, langileek lan prozesuaren gestioa eramatea eta lan ekarpenaren arabera irabazien banaketa. Autogestioa errespetatzen ez duten ekimen ekonomikoak ezingo dira materialki kooperatiba kontsideratu, nahiz eta formalki legearen babesa izan.

(...) por conta das origens elitistas do cooperativismo latino-americano, a legislação nessas condições não apenas legitima um tipo conservador de cooperativismo, mas também, automaticamente, exclui experiências cooperativas contestatórias e por isso mesmo marginais. A letra da lei cooperativista desconhece a prática cooperativista dos iletrados.

Ezin da nahastu edukia eta forma. Kooperatiba formaren azpian ezkutatu izan dira Brasilen egiazko firma kapitalistak. Honen aurreko galdera da: nola da posible kooperatibismo ez-kritiko batek horrenbesteko eragina izatea indarrean dagoen legedi kooperatiboan?

Ezin da ahaztu kooperatibismoaren izateko arrazoia zein izan den, nahiz eta orain kooperatibismoa kapitalaren logikak barneratua izan. Kooperatibismo brasildarraren logika, -latinoamerika guztian zehar antzekoa dena- izan da hori. Nazioarte mailan ACI-k defendatu duena eta Brasilen OCB-ren eskutik babesu jaso izan duena.

Lei do Cooperativismo 5.764/71 errealitatea eta teoriaren artean dagoen aldea ipintzen du agerian. Hau da zuzenbideak dioenaren eta legitimoa den kooperatibismoaren artean; brasildar behartsu askok jarraitzen duten eredu. Legedi honek elementu ezkor ugari dituela defedantzen du autoreak.

Hauen esanetan legedi kooperatibista brasildarrak duen akatsik handienetakoa da unitate kolektibotan soldatapeko lana egotea onartzen duela. Daniele Pontesen esanetan, legedi brasildarrak funtzio du honako ekimenok legitimatzea: a) kapitalaren menpe dauden kooperatibak eta b) lan prekarizatuaren menpe dauden kooperatibak.

Pontesen esanetan kapitalaren menpeko kooperatibak dira kapital enpresa tradizionalen parekoak. Kooperatiba hauetako lan harremanak harreman kapitalisten berdinak dira. Lan prekarizatuaren menpe dauden kooperatibetan berriz, langile autoantolatua (ekoizpen bitartekaritza gabe geratu direnak) euren lan indarra saltzen dute bitartekaritza kooperatiben bidez. Lan kooperatibak lan prekarizaziorako tresna bilakatu dira.

Aipatutako bi kooperatiba motetan logika kapitalistaren isla dira, eta kooperatibismo popularra kontrara, lan bizia defendatzeak ezaugarritzen du. Legegile brasildarrak ez ditu bereizten kooperatibismo popularra (baztertuena) eta kooperatibismo hegemonikoa (aberatsen, ekoizpen bitartekoen jabeak). Eta honen ondorio izan da OCB-ren tutelapeko ekimenen legalizazioa kooperatiba moduan: UNIMED, agronegozioan diharduten kooperatibak eta eskulan bitartekaritza kooperatibak.

Indarrean dagoen legea beraz, kooperatiba tradizioanalen beharretara egina da. Legeak eta sistema kooperatiboak ahalbidetu du kooperatibaren erabilera okerra egitea eta ondorioz, izaeraz eta jardunez egiazko kooperatiba ez zirenei kooperatibaren trataera eskaintzea.

I. ATALA

TEORIA JURIDIKO KRITIKO LATINOAMERIKARRA


5. TEORIA JURIDIKO KRITIKO LATINOAMERIKARRA

5.1. SARRERA

Aurreragoko ataletara pasa aurretik egitera goazenaren planteamendu kritiko bati pasarte eskaini nahi diogu. Tesiaren planteamendua Euskal Herriko errealitate eta legedi kooperatibotik, Latinoamerikara eta zehazki Brasilerara begira dauden hobekuntzak proposatzera dator. Ezin aipatu gabe utzi teoria juridiko kritiko latinoamerikarrak ireki nahi duen ikuspegi berria. Ondorengo lerrootan teoria honen hainbat klabe aipatuko ditugu eta tesiak auzia konpontzeko helbururik ez badu ere, zilegi eta pertinetea da mahai gainean berau jartzea. Gure planteamendua Brasilen Ekonomia Solidarioaren aurpegia izango duen lege kooperatibo berri bat egitea da. Ekonomia berri hau eraikitzen ari diren mugimenduak dira, hain zuzen ere, teoria juridikoak babeste eta aldarrikatzen dituenak.

Globalizazio fenomenoak oker dabil (CONTRERAS ACEVEDO Ramiro, SÁNCHEZ TRUJILLO Maria Guadalupen hitzak dira nagusiki ondorengo pasarte oinarrituko dutenak)¹¹⁰: globalizazioa zerbait 'naturala' bailitzan bizi da, eta bere indar hegemonikoa ere gauza 'natural' moduan onartzen da. Gaur hala ere, indartsuak diren mugimendu 'kontrahegemonikoak' ditugu. Indar kontrahegemoniko hauek behetik eraikiko den globalizazioa nahi dute eta honek berakin dakar nahitaez: zuzenbidearen eta estatuaren arteko harremanen planteamendu berri bat; zuzenbidea eta mugimendu sozialen arteko harremanen planteamendu berri bat eta baita, aniztasun juridikoaren eta sistema garantistaren arteko harremanen planteamendu berri bat egitea ere.

Hegemonia eta kontrahegemonia joerak etengabeko tentsioa sortzen dute Latinoamerikan. 'zuzenbide sortzea', 'zuzenbidearen funtzioa' eta 'ordezkaritza politikoa' terminoek esangura desberdina dute. Termino hauei globalizazio molde bakoitzak esanahi desberdina esleitu die eta gizartearen etorkizunean eragiten dute. Eragina nabariagoa da, talde indigena eta minorian dauden mugimenduen gainean.



¹¹⁰ Universidad de Guadalajara, México.

Orain artean bai zuzenbidearen sorkuntzak eta bai teoria juridikoak ere, beste metodologia bat jarraitu dute. Gaur esan genezake, zuzenbidea mugimendu sozialetatik ere sortzen dela. Hala ere, ez dute autore guztiek honela ikusten eta onartzen esan berri duguna. Gizartea mendebaldeko modernitatearen paradigmak arautzen du eta beharrezkoa da berau ezagutzea.

Latinoamerikako zuzenbidearen gaineko ikerketa kritikoa lantzen duen arloa, dagoeneko ari da programa zehatz baten baitan lanean: zuzenbidea oinarritzko fenomeno sozialtzat hartzen dute batzuk; baztertzaila eta injustua den dominazio politikoa artikulatzeko tresna gisa (sistema politikoaren ahuleziak konpentsatzeko balio duena)¹¹¹. Besteak berriz, zuzenbidea emantzipazio tresna gisa ikusten dute. Bi kasutan zuzenbidearen instrumentalizazioaz ari gara eta honek eskatzen du zuzenbidearen definizio klasikoaren berplanteamendua egitea. Zuzenbide eskoletatik fisolofiak alde egin du eta filosofia eskoletan ez dira zuzenbidearen oinarriak irakasten¹¹².

Zuzenbidearen sekularizazioa gaur egungo gizarteak konpondu barik duen arazoa da. Sintoma nagusia da: arau juridikoaren eraginkortasuna koerzioan (hertsatzean) oinarritzea. Zuzenbidearen sekularizazioan, -gizartean bizi den eta bortxa (hertsia) eta hegemoniaren arteko gatazkari jarraipena ematen dion- norbanakoaren askatasunaren hegemonia edo egikaritzarik ez da sumatzen. Zuzenbidea botereak sortu duen araua da eta horregatik, norbanakoaren askatasunaren autoerrealizazioa, -Latinoamerikar herrialde askotan- ez da posible ematea gizartearen barnean.

5.2. PARADIGMA JURIDIKOAK, GAURKO MARKO TEORIKOAK

Zein izan dira azken bi mendetako paradigma juridikoak? Hona esanguratsuenak: legearen literalitatea (exégesiseko Eskola), jarduera judizialaren egiaztatzea (Noruegako Eskola), zuzenbidearen kontzeptualizazio logikoa, interesen ikerkuntza (Von Ihering), zientzia juridiko normatibista (Kelsen eta Eskola positibista), ikerkuntza soziologiko funtzionala (Parson, Cohen eta Pound), dogmatika juridikoa (Kantorowicz, Bobbio, Ross), zuzenbidearen ikerkuntza librea




¹¹¹ Mauricio, GARCÍA VILLEGAS, y Cesar A RODRÍGUEZ, Derecho y sociedad en América Latina. Bogotá, ILSA, 2003.

¹¹² Jürgen HABERMAS, Faktizität und Geltung. Frankfurt am Main. Suhrkamp. 1997

(Bülow, Geny eta E. Ehrlich), jurisprudenzia zientifikoa (Francois Geny, Hariou), baloreen gaineko ikerkuntza (Hartmann, Scheler eta Lotze), ikerkuntza historikoa (Joseph de Maistre), anglosajoi jurisprudenzia (Common Law), jurisprudenzia latino (Ulpianoren pasartetik), ertaroko zientzia juridikoa (ius commune) eta gaur asko erabiltzen den ezagutza jurisprudenziala¹¹³.

Teoria tridimentsionala da Latinoamerikan ezagunena eta bi dira bertako unibertsitatetan irakasten diren paradigmatikak: iusnaturalismoa eta iusformalismoa. Hala ere, autore europarrak akatsa ikusi dute zuzenbidearen definizioan, ezin direlako objeto desberdinak bildu definizio bakarrean¹¹⁴.

Zuzenbidea ezagutzeko moduak anitzak direla azpimarratzen da, asko direlako zuzenbidearen gainean informatzen duten modu edo bideak. Modu berean, ezin da finkatu zuzenbidearen ezagutza definitibo eta eksklusiborako metodo edo modu berririk. Bada Latinoamerika guztian komuna den kontzepzio bat¹¹⁵.



¹¹³ Juan Antonio MARTÍNEZ MUÑOZ. El conocimiento jurídico. Madrid. Universidad Complutense. 2005. 345 orria eta hurrengoak.

¹¹⁴ Imer FLORES. La concepción del derecho en las corrientes de la filosofía jurídica. Boletín de derecho comparado. México. UNAM. 1997,

‘parece imposible dar un concepto unívoco del derecho, por la sencilla razón, de que se trata de definirlo desde tres diversos puntos de vista. Con gran acierto, Eduardo García Máynez apunta “ El error de quines han pretendido encerrar en una sola definición (en el caso del derecho) objetos diferentes entre sí, no implica únicamente confusión de puntos de vista, sino, lo que es peor, concomitante confusión de los objetos contemplados.

Cada uno de estos derechos es estudiado desde cada una de las perspectivas que mencionamos...: 1) El iusnaturalismo se ocupa del derecho justo o natural, y lo que le interesa son los valores; 2) El iusformalismo se identifica con el derecho vigente o formal, y lo que le preocupa son las normas; 3) El iusrealismo se enfoca al derecho eficaz o real, y lo que lo fundamenta son los hechos.

El aspecto axiológico, al derecho como valor; el normativo, al derecho como norma; y el fáctico, al derecho como realidad. Esta forma de concebir al derecho es el pilar de la Teoría tridimensional del derecho y de la Teoría integral del derecho, cuyos exponentes son Miguel Reale y Luis Recaséns Siches, respectivamente... a dónde tenemos que acudir y cómo debemos proceder qué derechos tenemos.

¹¹⁵ lo que pretendo sostener es que el derecho es un producto social que se constituye en el seno de la comunicación lingüística. Según esta tesis, el derecho obtiene su objetividad esencial en sus

Zuzenbidezko estatuaren printzipioak eta oinarrizko eskubideak modu abstraktoan definitzen dira eta soilik, konstituzio historikotan eta sistema politikotan aurkitu ditzazkegu. Zuzenbidezko estatuaren printzipioak eta oinarrizko eskubideak nola ulertu eta kudeatu behar diren, paradigma juridikoak azaldu dezcate, gaur egungo gizarte ereduaren laguntzarekin.

5.3. TEORIA KRITIKO LATINOAMERIKARRA

Hauek dira Teoria Kritikoaren ezaugarriak¹¹⁶:

- a) Gizartean gertatzen ari denaren gaineko kontzientzia hartze sakona, eta sozietatearen arrazionalitatearen gaineko kritika egiteko beharra. Paradigma berriaren helburuak izendatzen ditu Horkheimerrek¹¹⁷.
- b) Totalitateari eta historizidadera etengabeko erreferentzia egin beharra. Horkheimerrek berak dio teori guztiak ez direla egiazkoak, soilik, historia era sakonean jasotzeko gai direnak eta teoria kritikoa ere ez da salbuespen bat. Ezaugarri honen barnean dauden beste bi ezaugarriak honakoak dira: egiaren kontzeptu unibertsal eta objetibo bat ez onartzea eta egirako irizpidetzat praxia hartuz, teoria emanzipatorioa dela sentitzea.
- c) Positibismoari eta antzeko kontzepzioei kritika egitea; esate baterako, eginbehar zientifikoaren enpirismo metodologikoari.

encarnaciones lingüísticas y su correspondiente reflejo en el imaginario social. Con una fórmula un tanto paradójica, me atrevería a decir que, bajo esta óptica, el derecho es lo que se dice sobre el derecho. Y si esto es así, si el objeto del derecho se constituye y recrea permanentemente al hablar de él a tal constitución contribuye todo discurso sobre el derecho que pueda tener efectos sobre la forma ulterior de entender y vivir lo jurídico en la sociedad correspondiente, bien sea porque se consolide, bien porque se modifique en algún punto la imagen del sistema jurídico socialmente vigente y operante...’.

¹¹⁶ Juan Antonio ESTRADA DÍAZ, La teoría crítica de Max Horkheimer. Granada. Universidad de Granada, 1990, 39 orria eta hurrengoak

¹¹⁷ ‘ bosquejar un cuadro del proceso social con ayuda de las diversas ciencias, que lleve a un conocimiento más profundo del estado crítico del mundo y de los posibles puntos de partida para su ordenación más racional’

Teoria kritikoak latinoamerikan honako isla eta ezaugarriak ditu.

- a) Latinoamerikako ezagutza tradizionalaren erregulazio juridikoa.


Zuzenbide modernoak eta beronen forma juridikoek, munduaren gaineko ikuskera zuzentzeko helburu duen, denbora eta espazioaren gaineko karga ideologikoa dute. Zuzenbidea garai bateko bisio eta augurio baten isla ere bada. Arrazoi horregatik, sarritan, norbanakoaren emantzipazioa barik manipulazioa bilatzea izango du helburu¹¹⁸.

Latinoamerikan jaso diren paradigma juridikoak, garaiko gizartean indarrean zeuden teoretatik jasoak izango dira; konkista garaian, Madrid eta Coimbratik. Errealitate juridiko berri baten garapen eta aurrerapenerako metodologiaren abiapuntua, -Franfurteko eskolak diotenaren kontra (hau zehaztasunetik hasten da)- unibertsalismoa, esentzialismoa eta ahistorizitatea lirateke.

Oinordetza nominalista duen ingurumari batean (medievo europarra eraiki zuena) kontzeptua, ez da errealitate kolektiboaren isla leiala, errealitate indibidualarena baizik: ikur unibertsalak errealitatearen errepresentazio abstraktuak dira. Eta hau europako ertaro osteko alderdi juridikoaren oinarri teorikoa da.

Kontzeptu abstraktoen sortzearekin errealitatea modu berean bizitzea lortuko da, eta kontzeptuok erregulazio juridikoko objektu izango dira; lehenik European eta gerora, Latinoamerikan. Adibide bat, 'eskubide subjektu' terminoan aurkitzen dugu; ordenu ekonomiko berrian beharrezko den terminoa, kontzeptu abstrakto bat izango da.

XVIII. mendeko ordenu juridiko berri batentzako (gizarte kapitalista berriaren sorrera), erosteko eta saltzeko borondatea daukana da zuzenbide subjektu. Latinoamerikan 'merkataritza' izan zen, jarduera garrantzitsuena eta aurkikuntza nagusia. Zuzenbideko subjektuaren balizko askatasuna, sistema ekonomiko berriak sortarazi dituen beharren menpe geratzen delako, desagertu egiten da: ugazaba ez den norbanakoa, ez da zuzenbideko subjektu, eta ez dauka eskubide subjektiborik. Eta



¹¹⁸ Andressa CALDAS. La regulación jurídica del conocimiento tradicional: la conquista de los saberes. Bogotá. 2004. 31 orriak, 82ra arte.

zuzenbide erromatarrean bilatzen dira kontzeptu juridikoen iraunkortasuna oinarritzeko baliagarri diren euskarriak.

Jabetzarako eskubide kontzeptua, balio ekonomikoa daukan elementu orori aplika dakiok. Oinarritzeko eraldaketa bat ematen da: zuzenbideak erabakitzen du pertsona eta objektu klasifikazioa. Saikapen hau, termino juridikotan egia izango den arren, ez da egia objektiboa izango. Sistema berriaren egonkortasuna eta garapena hobetzen laguntzen duten neurrian ekoizpen intelektualak balio ekonomikoa eskuratu dute gizartean. Lehen bizigabeak eta garrantzirik gabeak zirenak, orain jabetza objektu dira. Jabetza objektu berria azaltzen den neurrian, titular kontzeptu berria sortzen da.

b) Zuzenbidearen europeizazioa eta lapurreta epistemikoa

Krisi epistemologikoak zientziaren dekadentzia suposatuko du, azken honek, klase zehatz baten interesen zerbitzura jarri ditu bere helburuak. Zientziak ez du ezagutza ekarpen berririk egiten eta (ezarritako) gizarte batek, indarrean dituen egoerei iraunkortasuna ematea du helburu. Egiaren gaineko irizpideak munduaren ikuspegi orokorra falta dute. Ikuspegi honek ez ditu kontutan hartzen begi bistan ez dauden ondorioak, eta azalduak izan diren fenomenoekin harremana dutenak.

Zientzia modernoari, bai helburutan eta bai emaitzetan ere, objetibotasuna falta zaio. Zientzia modernoak zientziaren merkataritza kontzeptua da. Paradigma modernoaren krisia, ezagutzaren planoan eta plano sozialean ematen ari da. Gizartean bizi diren egoerak lege maila har dezaten sortua izan da zientzia (baldintzok, menperatzaileen helburuak bete daitezzen errealitatea manipulatzeko helburua dute).

Gauzen gaineko ezagutza izan da mundua eta bizitza kolonizatzeko tresna. Modernidadeak, munduaren gaineko ulerkera, denboraren interpretazio linealean oinarrituko du¹¹⁹. Teoria kritika postmodernoarentzako, errealitatea konplexua da eta ezin da errealitatearen deskribapen duala egin. Esperientzia historikora jotzeak berreskuratzen lagundu dezake¹²⁰.



¹¹⁹ Juan Carlos MONEDERO B. De Sousa Santosi eginiko interpretazioa. El milenio huérfano. Madrid. Trotta. 2005.

¹²⁰ ' los fragmentos de aquellas formas alternativas de la modernidad que anidaron en el ayer pero no llegaron a alzar el vuelo... La ciencia y el derecho estatal son responsables de la destrucción de las

Zientzia modernoak, mundua modu puruagoan azaltzeko aukera galdu izanagatik beharrezko du hegemonismoa gaindituko duen borroka hastea. Borrokak bi alderdi ditu: epistemologiko-kulturala eta sozietala (soziala eta politikoa).

Errealitatearen mozketak horrekin, iraganeko akzio sozial kolektiboko alderdi ikustezinak ezabatzen dira. Honen eraginez, gaur egungo miseria ikustarazteko aukera desagertzen da eta ondorioz, egoera larri hauen ezagutzak sortuko lukeen alarma ekiditen da. Justizia azaltzerako orduan, manipulatu izan den ideia esentzialistak indartu egiten du homogenizazio historiko kontzeptua; homogenizazio honek diferentea den guztia bazterreratu egiten du. Europak ez du inolako ahaleginik egin, zentroa eta periferia azalduko lituzkeen zientzia sozialak berplanteatzeko.

Krisia sortarazi duten lau baldintza edo ezagutza daude: dena horren sinplea ez dela ikustarazten duten ezagutzak dira; arau orokor moduan emanak diren akzio eta erreakzioetatik, autonomoak, diferenteak eta aurreikustezinak diren erreakzioak ere eman daitezkeela. Zientzia modernoari ihes egiten dioten ondorioak izan daitezkeela.

Ezagutza-erregulazioa gainditzeko eta ezagutza-emanzipaziora heltzeko beharrezkoa, epistemizidioa sortarazten duen monokulturalismoa gainditzea da. Zientzia modernoak biltzen ditu alternatiboak eta ekologiak (ekoizpen modu baztertzailak auzitan jartzeko balio duten ezagutzen batuketak).

Hiru tresna erabilgarri daude: ausentzien soziologia, itzulpenaren teoria eta hermeneutika diatopikoa. Garapen edo aurrerapen nozioa, teoria kritiko latinoamerikararentzako da esperientzia/espektatibak, kontsentsu/resignazio, eta itxarote/esperantza dikotomien gainditzea.

Zientzia posmodernoaren arrisku berria erlatibismoan erortzea da. Ez ditu, irizpide egiazko eta objektibotan oinarrituta, galdera epistemologikoak erantzuten. Praktika sozialei zentzua bilatzen eta erreferentziatua eta erabilgarria izango den ezagutza logikoa eraikitzen ahalegintzen da. Hau dio Carlos Monederok, Boaventura de Sousa Santos interpretatzen duenean.

Beharrezkoa da, pentsamendu kritikoa eraikitzeke akzio konformistatik akzio errebeldera igarotzea.

formas jurídicas alternativas y de encadenar el derecho a los avatares del Estado y de sus grupos privilegio'.

a) teoria kritiko latinoamerikarra


Estatalitate printzipioaren kritika egitetik abiatzen da; estatutik kanpo araudi edo normatibitatea sortzerik ez dagoela dioen baieztapena kritikatzeko da. Unizitate edo batasun printzipioa kritikatzeko da, hots, gizarte osoak arau sistema bakarra duenaren ideia; positibitate printzipioa, hau da, zuzenbidea sistema formalizatu eta sistematikoki idatzitako batean jasota dagoenaren ideia (legezko mekanismoen bidez, idatzizko legea kasu); arrazionalitate printzipioa, unibertsaltasun eta neutralitate presuntzioan oinarritutako, prozedimenduzko logika berezi baten fruitua dela defendatzen duen ideia¹²¹. Guztiak ditu kritikatzeko.

Teoria kritiko latinoamerikarra zientziaren paradigma berri gisa definitu daiteke. Paradigmak helburu du ezagutza aniztasunak bilatzea eta harmonizatzea, ezagutza konplexitatea eraikitzea, munduaren kontzepzio objektibo berria azaleraziz eta normatibitate guztietatik bereiztuz, garbia eta osasuntsua izango den, egi eta zehaztasun irizpide posmodernoak eraikitzea.

Mendetan zehar, ezagutzaren, antolaketa sozialaren eta arrazionaltasunaren forma menperatzaileak oinarritu dituzten eredu teologiko, metafisiko eta zientifikoak ez dute lortzen errealitate latinoamerikarraren kezka eta beharrei erantzuna ematea. Nahikotasunik ez duten eta mugatuak diren egi hegemonikoak dira. Ez dute eskaintzen ez irizpide eta ez arau zihurrik.

Kanpo aldeko herrientzat arazoa da proiektu itxi eta eurozentriko bat izatea; alteritatea errekonozitzen ez duena, bestea aitortzen ez duena, behartsua, zapaldua errekonozitzen ez duena eta baztertzaila dena. Sistema baten desartikulazioari buruz ari gara, emandako organizazio baten elementua desartikulatzen duena.

Kontua ez da Modernitate proiektua abandonatzea, baizik eta bere idealak berreraikitzea (bete ez diren promesak), bere merkatu logika eta arrazionalitate instrumentala mugatuz. Erronka baldintza historikoak ezartzea da; berrantolatu, berrosatu, gizarte zibilean mobilizatu diren aktore sozial berriei eskaerak burutzeko kanal berriak ireki behar zaizkie (egiturazko



¹²¹ Antonio Carlos WOLKMER. Apuntes. Gran parte de las ideas son tomadas de ese curso de posgrado realizado en la Universidad de Guadalajara. También pueden verse algunas de estas ideas en su Pluralismo Jurídico. Sevilla. Edit. Madrid. 2006

kontraesanen eta gatazka sozialen gailentzea islatzen baitu). Ezaugarriak liriateke: orientazio dialektikoa, utopikoa, iraultzailea, desmitifikatzailea eta emanzipatzailea.

Frankfurteko teoria kritikoaren sustraietan, kontzientzia historikoaren ezagutza ahalbidetzeko tresna instrumentala sortzeko helburua zegoen, sektore alienatuena batez ere. Instrumental hori munduaren kontzepzio desmitifikatzaile, antidogmatiko, kuestionatzaile, partehartzaile eta askatzailea duten agente sozialen formaziorako izango zen. Teoria kritika latinoamerikarrak, prozesu sozial egoki baterako eta baztertuen emanzipaziorako balioko duen tresneria teoriko metodologikoa bilatzen du.

Teoria kritiko latinoamerikarraren funtzioa ekinbiderako alternatibak irekitzea eta jarraikotasun historikoen posibilitate marginak zabaltzea da: 'subjektu historiko' berri baten araberrako gizarte aldaketa ahalbidetuko lukeen proiektua definitzea. Bere oinarriak dialektikoki artikulatzen dute 'teoria' eta 'praxia'; pentsamendu kritikoa akzio estrategikoarekin eta Hegotik sortzen den iparra izanik; legitimitatea botere komunitariorik eta interes kolektiboen aktore sozialengatik eraikita datorrelako; oinarriak ditu 'praxi' zehatz bateko historioan, kontutan izanik espazio lokalen eta nazionalen (esplotatuen, menpekoen, marginalen eta kolonizatuen espazioak) egitura sozioekonomikoak; bai eta zentralak ez diren, eurozentrikoak ez diren eta periferikoak diren kulturetatik datozen kategoria teoriko eta ezagutza prozesutan ditu oinarriak.

Esparru juridikoari dagokionez, 'teoria kritiko latinoamerikarrak' indarrean dagoen errealitate legegile (dominatzailea, injustua eta zapaltzailea) eraikitzeke prozesua birdefinitzeko eztabaidetan inbertitzen ditu bere energiak. Garai zehatz bateko edo herrialde batean une zehatz batean dagoen kultura juridikoak duen dogmatika logiko formala berpentsatu, auzitan jarri edo apurtu egin behar da eta honekin baldintzak sortu 'argitze', 'autokontzientziazte' eta 'emanzipatzea' ekarriko duten prozesu pedagogiko luze baterako.

b) Aniztasun juridikoaren arazoa

Errealitate bat baino gehiago, era askotako akzio praktikoak eta esparru sozialen arteko diferentziak daudela aldarrikatzen duen multzo teorikoa da. Monismo zentralizatzaileari, estatu interbentzioari eta norberekoikeriari uko egiten dion doktrina da.

Bere ikerketa esparrua honako terminotan oinarritzen da: autonomia (Estatuarekiko); deszentralizazioa (esparru fragmentatuetan/zatikatueta); (in) tolerantziaren (moderazioa) berrikusi lokalismoari balioa emateko (familia, auzoa eta auzokideak) eta aniztasunaren onarpena (desberdintasunen onarpena).

Aniztasun juridikoak, bizitza sozialeko instantzia desberdinetatik datorren ekoizpen normatiboari lehentasuna ematen dionez, zuzenbidea sortzeko iturri bakarra eta eskusiboa Estatu dela ukatu egiten du. Sistema Estatalaren alboan, modu paraleloan eta alternoan diharduten beste

sistema autonomo eta independente batzuk direla defendatzen du. Balio bera aitortzen die: adierazpide desberdinei eta espazio soziopolitiko berean ematen diren praktika juridikoei, gatazka edo kontsentsu bidez sortuak, ofizialak direnak edo ez direnak, eta euren izateko arrazoia, behar existentzial, material eta kulturaletan dutenak.

Badira, metropoliaren arau legalen inposizioari uko egiten dioten autoreak eta Zuzenbide Indigenaren kontserbazioa edo zaintza aldarrikatzen dutenak (Boaventura de Sousa Santos); legedi ofizialaren efikaziarik eza eta behartsu gehiago dagoen mundu bateko injustizia soziala salatzen dutenak (Jacques Vanderlinden) edo manifestazio ez estatalak indartzen edo laguntzen dituen legitimitate politikoaren krisia defendatzen dutenak (Joaquím Falcao).

Aniztasun juridikoa proiektu kontserbadore moduan ere hartu daiteke: kapitalismo global, neoliberal eta desaraugile baten manifestazio juridiko moduan. Latinoamerikan eta Mexikon gertatzen ari den fenomeno multzoa: deszentralizazio administratiboa, merkatu integrazioa, globalizazioa eta kapitalaren pilaketa malgua, bloke ekonomikoen sortzea, pribatizazio politikak, zerbitzuetatik bideraturiko informazioa, erregulazio sozial malgua eta nazioz- gaindikoa.

Aniztasun juridiko faltsua estaltzen da nazioz- gaindiko praktika legalak defendatuz; justizia administrazioaren deszentralizazioa eginez; eskubide sozialak ez arautuz; zuzenbidearen malgutasuna defendatuz, negoziazio mahaietan eraiki den zuzenbidearen defentsa eginez, eta akordio edo hitzarmen komertzialen bidez egina izan den zuzenbidea defendatuz. Beste 'lex mercatoria' bat eraikiz.

Aniztasun juridiko faltsuak, kapitalismo zentral aurreratuko herrialdeek 'neokolonialismo' neoliberalak burutu dezaten baliagarri da. Posmodernidadearen proiektuetara lotuta dago eta beste ezaugarri batzuen artean, hizkuntza aniztasunak ezaugarritzen du. 'Erdialdean' (herrialde aberatsetan) gertatzen ari den kapital pilaketa bortitza estaltzeko beste estrategia bat gehiago da, eta honela behin betikoz 'kanpoaldea' (garapen bidean dauden herrialdeak) baztertzea lortuz.

5.4. BORROKA SOZIALETATIK BERRERAIKITZEA

Berreraikitze proiektua sektore popularrekin erlazionatzen da, borroka sozialen fruitua da, eta alternatibitatearen adierazpide izan nahi du. Diziplinartekotasunean oinarritutako proposamena da eta paradigma moduan begitantzen du, parte-hartzailea izango den aniztasun juridiko komunitarioa. Paradigma hau gai izango da, sortzera doazen arautegi extra eta azpi- estatalak, (instituzionalak izan edo ez) legitimatu eta errekonozitzeko. Arautegi hauek bide desberdinetatik eratorriak izan daitezke: gatazka eta borroka sozialetatik, kontraesanetatik eta indar korrelazioetatik, giza erreibindikazio eta beharrianetatik.

Aniztasun juridiko latinoamerikarraren oinarrizko baldintzak dakar berarekin: espazio irekiak, deszentralizatuak, parte-hartzaileak eta demokratikoak eraikitzea eta karentzia eta beharretatik eskubide 'berri'ak positibizatzea. Eguneroko interes indibidual eta kolektibo guztien sintesi bat da. Tradizionalki elitista, kontserbadorea, eta basatia izan den demokrazia liberal eta burgesak proiektatutako aniztasunari kontra egitera datorren proposamen bat da. Proposamenak beti lehenetsiko ditu sektore baztertuen interesak eta erabaki ahalmena duten gutxiengoak.

Aniztasun juridiko latinoamerikarra borroka, erreibindikazio eta latinoamerikako gizartea osatzen duten, sektore zapaldu eta baztertuek mundua ikusteko daukaten moduaren fruitua da. Balore berrien sorgunea izan behar da, bai eta, demokrazia eta justizia bizi eta ulertzeko beste modu bat ere. Bere baitan hartuko ditu: subjektu kolektibo berrien legitimitatea (mugimendu sozialak), beharrak asetzeko balio duen sistema baten egikaritze moduan eta parte-hartzailea izango den espazio publiko baten deszentralizazioa eragingo dituen, elkartasun etikaren garapen pedagogikoa eta arrazionaltasun emantzipatzailea baten prozesuen kontsolidazio izango dena.

Estrategien artean honakoak daude:

a) Gizarteari begirako estrategiak:

- Kultura juridikotik jasotako lan metodologiak aldatuz, erakunde demokratigoago, anitzago eta parte-hartzaileagoen alde borrokatzea.
- Latinoamerikar gizartean dauden errealitate konplexu berriak aurreikusiko dituen paradigma eta estrategia paraktiko-teoriko malgu eta deszentralizatuagoak garatzea.
- Egiturazko barne eta kanpo arazoen konponbide konbinatua ekarriko duten neurriak artikulatzea.
- Politika parte-hartzaileagoen aldeko interesa piztuz, praktika sozialetako espazioak birdefinituz, eta subjektu politiko berrieekin aliantza eta estrategiak burutuz (eta sortzear dauden taldeen esperientziekin) gizarte zibila mobilizatu eta kontzientziaztea.

b) Arlo juridikoan eman beharreko estrategiak:

- Jurisdikzio berezien ezarpena eta aitortza bultzatuko duten teoriak sustatzea (justizia indigena, bake justizia). (Adb. Boliviako konstituzio berria).
- Deszentralizazio administratibo, legegile eta judiziala neurtuko duten tresnak sortzea.

- Ekoizpen legegilerako iturri alternatiboak sortzea.
- Zuzenbidea oinarritzeko balioko duten irizpide berrien identifikazioa eta definizioa: duintasunean oinarritutako giza bizitza, osotasun fisikorako eskubidea (bermeak) eta justizialitate erradikaletik eta eskubideen exijibilitatetik emango den partizipaziorako eskubidea.

c) Jurisdikzio estrategiak:

- Auzitegitan zuzenbidearen erabilera alternatiboa (printzipio orokorrak, ekitatea, beharrian justuak).
- Sistema autonomo eta aniztasun juridikoaren erabilera paraleloa: sortzeaz dauden eskubideen eta justiziazko praktika komunitarioen aitortza.

d) Berreraikitze metodologikoa:

Esandako guztiak agerian usten du ezagutza juridikoa sortzeko metodologia berri bat sortzea beharrezkoa dela. Baina hau ezin da eman, abokatuaren gaitasun kritikoak isilik egoten jarraitzen badu.


- Egungo errealitatea problematizatu beharra dago. Soilik problematizatu ahal izango da, desberdin pentsatzeko aukera dagoenean, eta indarrean dagoen kulturatik desberdina den beste kultura bat sortu denean.
- Mendebaldeko paradigma juridikoak kritikatu. Ez da jakin (ezin izan da) beste era baten jokatzen: zuzenbidea obeditu egiten da. Ez dago homogeneotasuna baino, esparru juridikoan ez da posible kultur- aniztasuna.
- Zientzia juridikoaren belaunaldi berriaren metodoak bilatu eta ikustarazteak izan beharko dute: abokatuaren formazio metodologikoa deskribatzea izan da eta ez fenomeno sozialaren atzean dagoena bilatzea, ezta ere abokatuak ez dira gai fenomeno sozialaren 'atzean' dagoena ikustarazteko.

Zuzenbidea irakasteko ereduak zuzenbidearen ikuspegi kontsentsuatu baten aldekoak izan behar dira. Kontsentsuak kontutan izan behar du zuzenbidea legea baino gehiago dela. Zuzenbideak izan behar du 'emantzipatzailea' edo, ez du, ahaztuta dauden, Latinoamerikako errealitatea osatzen duten beste 'parte' 'besteekikoa' konponduko.

Irakaskuntza juridikoko programak arriskatu beharra dauka mendeko mekanismo eta arraroekin lotzen duten paradigmekin hausten. Azken baten paradigma hauek ez dute inolako zerikusirik

Latinoamerika aurkitzen den egoera eta errealitateekin. Juristen formazioak kultura juridiko beraren garapenarekin dauka zerikusia. Beste herrialde batzuetan gertatzen den moduan Mexikon ez da abokatu popularraren figura existitzen. Ez da kontutan izan mundu mailan dagoeneko pautan den aldaketa juridikoa: garai batean interes partikularra zaintzea helburu zuen paradigma batetik oinarritzko interes guztiak, ongizate soziala izatera pasa da. Zuhaitzak nire kalean egon arren, ingurumen araudian esaten dena errespetatu beharra dauka. Paradigma positibisten kritika ez da azken mendetako kontua. Hala ere, gaur hasiak dira ironia, falazia eta perbertsioak azaleratzen nahiz eta oraindik arazoak urte askoan irauten jarraituko duen¹²².

Teoria kritikoaren arabera beraz, Brasilen Ekonomia Solidarioaren errealitatea kontutan izan behar da eta bertako protagonistei entzunez egin behar da legea. Hain zuzen ere, hauek baitira kooperatibismo berriaren hazia.



¹²² Carbonell, Miguel. La enseñanza del derecho. 2ª ed. Porrúa-UNAM, 2006, p. 17.

II. ATALA

**4/93 EUSKADIKO KOOPERATIBA LEGEAREN ETA 5.764/71
BRASILGO KOOPERATIBA LEGEAREN ALDERAKETA**

6. 4/93 LEGEAREN ETA 5.764/71 LEGEAREN ARTEKO ALDERAKETA

6.1. SARRERA

Errealitate kooperatibo Brasildarra suspertzeko eta hobetzeko hainbat dira eragina duten faktoreak, besteak beste, Kooperatibak eta kooperatibismoa orokorrean erregulatzen duten lege eta bestelako xedapenak. Zuzenbideak bizitzako alderdi ia guztiak arautzea du helburu eta onartua den legeak eragina izaten du arautua den objektuaren garapenean. Behin hau esanda, goazen Brasilgo kasuan kooperatibak arautzen dituen 5.764/71 legea aztertzerara. Azterketa Euskadiko Kooperatiben 4/93 legearekin alderatuta egingo dugu eta batak eta besteak dituzten desberdintasunak agerian jarri ondoren, kooperatiben garapenean lagundu dezaketen aldaketak zein diren ondorioztatzen ahaleginduko gara. 4/93 Euskadiko Kooperatibak arautzen dituen legeak 1/2000 legearen bidez aldaketak izan zituen eta beraz, dagokion kasutan bigarren hau hartuko dugu alderaketa egiteko.

Erregulazioaren alderaketa hutsa egiteak ez du zentzurik, ez bada bertako errealitatean protagonista direnen iritziak kontutan hartuta egiten. Brasilgo errealitate kooperatiboan parte aktibo direnen iritziak jasoko ditugu artikuluak komentatzerako orduan.

Bestalde, gure ustez kooperatiben sustapenean eragina duten punturik garrantzitsuenak hartu ditugu. Ez dugu artikuluz artikulukako alderaketa egin; soilik, eragin gehien duten puntutan oinarritu gara.

Sarrerako azken ohar moduan gogoratu, Brasilen badirela bi talde berezitu eta ondorioz, errealitatearen irakurketa egiteko bi ikusmolde desberdin. Batetik, ordezkari ofiziala daukagu. Organização das Cooperativas Brasileiras- OCB dugu gaur oraindik orain, historian bete duen papera oinarri hartuta ordezkari ofiziala mantendu nahian dabilen erakunde pribatua. Bestalde dugu, OCB-tik aldentuta sortzen ari den errealitate kooperatibo gaztea. Ekonomia Solidarioa deitu diezaiokegu bigarren talde honi, nahiz eta ez izan guztiak izendapen horren pean euren burua kokatzen dutenak.

Berez, OCB-k errealitatean ez du beste taldeen maila. OCB-k izan du eta du bete duen funtzioagatik ardura eta erantzukizun handiago eta bereziagoa. Beraz, ez dira lerrun berean kokatzen.

Artikuluen alderaketa beraz, bi talde hauetako kideen iritziekin aberastuko dugu.

Ondorengoak izan dira elkarrizketatu ditugunak:

- OCB- Organização das Cooperativas Brasileiras: Guilherme Krueguer- Aholkulari Juridikoa eta Amerigo- Superintendente Jurididikoa
- SENAES- Secretaria de Economia Solidaria: Paul Singer eta Favio Sanchez
- PT- Partido de los Trabajadores: Adao Pretto, senataria
- UNISOL- Central de Cooperativas e Empreendimentos Solidários: Marcelo Mauad, Aholkulari Juridikoa
- ANTEAG: Reitor- Aholkulari juridikoa
- MST- CONCRAB: Pedro Cristhofoli- MST-ko zuzendaritza kidea
- UFDR- Universidad Federal do Paraná: Nucleo de Direito Cooperativo-ko ikasleak
- Banco Desenvolvimento do Extremo Sul (BRDE): Carlos Mares, Zuzendaria
- Universidad Federal do Paraíba: José Brendan, soziologoa
- MCC- Mondragón Corporación Cooperativa: Ibrahim (MCC-ren Brasilgo delegatua)

Hona hemen gure ustez Brasilgo legeak, kooperatiben eraketa eta sustapena errazteko aldatzea proposatzen ditugun atalak: kooperatibaren eraketarako gutxieneko baldintzak (gutxieneko kapital soziala eta gutxieneko bazkide kopurua); kooperatiben erregistroa; ekintza kooperatiboa; bazkide mota berriak; kooperatiba motak; bazkideen lan erregimena; kontabilitatea eta zerga erregimena; administrazio betebeharrak; ordezkaritza ofiziala; formazio kooperatiborako laguntzak.

6.2. KOOPERATIBA ERATZEKO ESKATZEN DIREN GUTXIENEO BALDINTZAK

Kooperatiben eraketarako legeak eskatzen dituen baldintzen inguruan nagusiki bi izan dira aztertu ditugun puntuak: eraketarako beharrezkoa den gutxieneko kapitala eta gutxieneko bazkide kopurua.

6.2.1. Gutxieneko kapital soziala

Kooperatibaren eraketa unean gutxieneko kapital kopuru bat eskatzeak badu oinarrikoa den arrazoi bat; sortzera goazen ekimenak izan dezala hasieratik erantzungo duen oinarri


ekonomiko bat¹²³. Zenbatekoa altua ez izan arren behar da kopuru bat bideragarritasuna emango diona ekimenari. Gurean eskatzen den gutxienekoa 6000 eurotik 3000 eurora pasa da. Kooperatiben eraketa errazteko neurri bat izan zen. Brasilen gaur indarrean den legediak ahalbidetzen du kapital sozialik gabe kooperatibak eratzea, eta honek ekimenak oinarri ahularekin hastea ahalbidetzen du.

4/93 Euskadiko Kooperatiben Legea 6000 euro eskatzetik, 3000 euro eskatzera pasa zen. Eta esan bezala, gutxieneko kapitalaren zenbatekoa murriztearen helburua kooperatiben eraketa erraztea izan zen.

1/ 2000 EKL aldatu zuenak honela dio¹²⁴:

4. artikulua.– Gutxieneko baltzu-kapitala.

Gutxieneko baltzu-kapitala ezin da hiru mila euro (499.158 pta.) baino gutxiagokoa izan, eta eurotan neurtuko da. Gutxieneko baltzu-kapital horri dagokion kopurua kooperatiba eratzten den unean bertan egon beharko da oso-osoan ordainduta



¹²³ Gure sistema juridikoan irabazi asmorik gabeko izaera juridikoen (elkartekak eta fundazioak) eta jarduera ekonomikoa aurrera eramateko sortuak diren egitura sozietarioen arteko alde gutxieneko kapital soziala eskatzean datza beste desberdintasun batzuen artean.

¹²⁴ Beste herrialde batzuetako kooperatiba legeak gutxieneko kapital soziala honela arautzen dute: Venezuelak, Ley Especial de Asociaciones Cooperativas y su Reglamento. ' Art. 47 El monto total del capital constituido por las aportaciones será variable e ilimitado, sin perjuicio de poder establecer en el estatuto una cantidad mínima y procedimientos para la formación e incremento del capital, en proporción con el uso, trabajo y producción real o potencial de los bienes y servicios y del os excedentes obtenidos'. Chilek, Ley General de Cooperativas, 'art. 25 El capital de las cooperativas será variable e ilimitado, a partir del mínimo que fijen sus estatutos y se formará con las sumas que paguen los socios por la suscripción de sus cuotas de participación. Los estatutos fijarán el monto de aportes mínimos que deberán efectuar los socios para incorporarse o mantener su calidad de tales'. Mexikok, Ley general de sociedades cooperativas de Mejico. 'Art.11 En la constitución de sociedades cooperativas se observará lo siguiente: (II). Serán de capital variable.'. Argentina, Ley de Cooperativas. Art. 2 Caracteres. 1º. Tienen capital variable y duración ilimitada. 2º No ponen límite estatutoria al número de asociados ni al capital.


Legea aldatu zen arte gutxieneko kapital soziala 6000 eurokoa zen eta kopurua murriztea etorri zen kooperatiben eraketa erraztea nahi zelako. Lehen aldiz 3/94 legeak sartu zuen gutxieneko kapitalaren eskakizuna eta honekin proiektuari sendotasuna eta segurtasuna ematea lortu zen; batez ere, proiektuaren hasieran segurtasuna eskaintzea oso inportantea da, besteak beste kooperatibarekin kontratatzen duten hirugarrenentzat.

Brasilgo kasuan bi dira kontuan hartu beharreko legeak gutxieneko kapital sozialari buruzko araudia zein den ikusteko; batetik 5.764/71 Kooperatiba Legea eta bestetik berriz 2002ko urtarrilaren 11ako Kode Zibila.

Brasilgo Kode Zibilak, bere 1.094 artikuluan dio, kooperatiben ezaugarrietako bat dela: 'I. Kapital sozialaren aldakortasuna eta dispensa (*variabilidade, ou dispensa do capital social*)'. beraz, kapitalik gabeko kooperatibak sortzeko aukera ematen du. Brasilen posible da gutxieneko kapital sozialik gabe edozein izaera juridiko sortzea; legeak ez du gutxieneko kapitalik eskatzen.

Jarduera ekonomiko bat aurrera eramateko asmoa duen edozein sozietateren kasuan gutxieneko kapital soziala eskatzearen atzean legeak badu arrazoi bat; ekimen ekonomikoak hasieratik izan dezala hirugarrenen aurrean erantzungo duen gutxieneko bat. Jarduera ekonomikoak arriskua handia izateko aukera gehiago dituenean ezarri beharreko kapitala altuagoa izango da. Espainiako legean Sozietate Anonimoak arautzen dituen legeak, 60.000 euro eskatzen ditu sozietate mota honen sorrerarako¹²⁵. Sozietate Anonimoa da Espainiako legedian munta handiko jarduera ekonomikoak aurrera eramateko pentsatuta dagoen sozietate mota. Kooperatibak berriz, Erantzukizun Mugatuko Sozietateen parean jartzen ditu legeak eta gutxieneko kapitala kasu hauetan, 3000 eurokoa da¹²⁶.

Kooperatiben kasuan kapital sozialak badu beste funtzio bat ere; bazkideen kooperatibarekiko atxikimendua sortzen da kapitalera ekarpena eginez. Bazkidearen kooperatibarekiko sentimendua sortzeko eta sendotzeko balio du ekarpenak. Bazkide bakoitzak kooperatiban duen munta ekonomikoak kooperatibarekiko gestioan interesa sortzen du. Honela esan genezake, kapitalak bazkidearen inplikazioa eragiten duela.



¹²⁵ Sozietate Anonimoak arautzen dituen, abenduaren 22ko 1564/1989 Errege Dekretu Legea


¹²⁶ 2/1995 legea, Erantzukizun Mugatuko Sozietateak arautzen dituen

Kapitala beraz jarduera ekonomikoak duen berme izateaz gain, bazkideen kooperatibarekiko lotura sendotzeko tresna ere bada. Azken honekin lotura zuzena duen beste kapitalaren funtzio bat auto konfiantza da. Kapitalak segurtasuna ematen du eta jardueraren edo enpresa proiektuaren bideragarritasunean laguntzen du. Kapitalaren bidez, ekimeneko kide direnak badakite badagoela ondare bat eta horrek ekimenean konfiantza eta erantzukizuna izatea eragiten du.

Legea oinarri hartuta beraz desberdintasuna nabarmena da: gurean eskatzen da gutxieneko kapital soziala eta Brasilen berriz ez. Goazen ondoren errealitate kooperatiboko protagonista direnak zer esaten duten ikustera.

OCB-k beharrezko ikusten du gutxieneko kapital soziala eskatzea, euren ustez kapitalik gabe sortzen diren kooperatibak ez dute bideragarritasunik. Euren esanetan sarritan Ekonomia Solidarioaren baitan sortzen dira batere kapitalik gabeko kooperatibak eta hauek ez dute inoiz aurrera egiten. Guilherme Kruegerren- OCBko aholkulari juridikoa da- esanetan kapital sozialik gabe eratzen denean kooperatiba bere jardueren erantzukizuna bazkideen gain erortzen da. Munta handiko eragiketak burutu nahi dituzten kooperatibak, beharrezko dute hasieran gutxieneko kapital batekin hasia. Aldiz, esangura gutxiko ekimenak aurrera eraman asmoz sortzen direnak, aukera izango lukete kapitalik gabe kooperatiba sortzeko. Guilhermek beraz, beharrezko jotzen du gutxieneko bat eskatzea jarduerak izango dituen balizko arriskuei aurre egiteko.

Ekonomia Solidarioaren baitan burutu ditugun elkarrizketa guztietatik ondorioztatu daiteke ez direla gutxieneko kapitala eskatzearen aldekoak. Orokorrean inork ez du ongi ikusten gutxieneko kapitalaren derrigorrezko lege galdapena. Argudio nagusia, ekimena bultzatzen dutenen kaudimen gabezia da. Ekimenak abiatzerakoan kapital bat behar izateak hasieratik zorpetuta hasia suposatzen du. Brasilgo bankuek ez dute baldintza apaletan emandako kreditu sistema egokirik, hau da, interes maila baxuan kredituak lortzeko aukera eskaintzen duenik. Adibide gisa Paper bilketan aritzen diren kooperatibak aipatzen dituzte¹²⁷. Oso jende behartsuz osatutako kooperatibak izatera, nekez izaten dute kaudimenik hasierako kapitala



¹²⁷ Ekonomia Solidarioko ekimenek pobrezia eta langabezia egoerak gainditzea dute helburu eta beraz, zorpetuta hasia eragin dezake ekimenok ahulezian sortzea edo ezin sortu izatea.

ezartzeko. Honen ondorioz, gutxieneko kapitala galdatzea eragozpen bat da Ekonomia Solidarioaren baitan kooperatibak sortzeko.

MCC-ko delegatuaren esanetan ere, legeak ez luke gutxieneko kapitalik eskatu beharko. Kooperatibak ere gainerako sozietate juridikoen trataera juridiko bera izan behar dute eta Brasilen bestelako sozietate motei gutxieneko kapitalik eskatzen ez zaienez kooperatibei ere ez. Hala ere, berak dio kapitalik gabe eratzen diren kooperatibek nekez egiten dutela aurrera. Gauza bat da legearen galdapena ez egotea eta bestea kapitalik gabe sortutako kooperatibak bideragarri izatea.

Kapitalaren inguruan azalpen luze eta garatuena Reitorrek, ANTEAGeko aholkulari juridikoak eskaini zigun eta hona hitzez hitz bere berbak:

'Kapitalaren gaia ez da ongi ulertu izan orokorrean. Kooperatibak eratzeko ez da eskatzen gutxieneko kapital sozialik, beste arrazoi batzuen artean kooperatibak izaera zibila dutelako. Kooperatiba pertsona sozietate bat da eta ez kapital sozietate bat. Kapitalik gabe eratzen diren kooperatibetan bazkideen erantzukizuna mugagabea da. Erantzukizun mugagabea izango dute eta kooperatibako zorren aurrean erantzun beharko dute euren ondarearekin. Erantzukizuna mugatua izango da kooperatibak kapital soziala duenean. Kapital soziala dagoenean egongo da jarduera ekonomikoa.

'Kooperatiba pertsonen sozietatea den neurrian eta ez kapital sozietatea, legediak konzibidetzen du kooperatiba bazkideei zerbitzua eta asistentzia eskaintzeko tresna moduan eta ez merkatuan jarduera ekonomikoa egikaritzeko bide moduan. Askok ez dute argi kooperatiba kontzeptua eta uste dute jarduera ekonomikoa bazkideen zerbitzura beharrean, kooperatibaren zerbitzura dagoela. Nahasmen honen adierazle dira sortu diren hainbat figura edo elementu nahasgarri. Jarduera, kooperatibak darama baina, bazkideen zerbitzura beti ere. Finantza baliabideak ez dira kooperatibarenak baizik eta bazkideenak, ondorioz jardueraren ondorioz lortzen den ondarea ere ez da kooperatibarena baizik eta bazkidearena '.

Bazkideen jarduerak eragin dituen irabaziak bazkide beraienak dira eta kuota parte bidez daude ordezkaturak. Brasilgo kontabilitate araua oso konplexua da. Sarritan gertatu izan da bazkideen jardueraren bidez sortutako inbertsioak ez direla behar bezala kontabilizatu, eta honek gatazka sortu du. Emaitzak ez ziren behar zen moduan kontabilizatzen. Inbertsioak bazkide bakoitzaren kuota partetan egon behar ziren ordezkaturak eta kontabilizatuta. Hau da argi izan behar dena beraz: kapitala egon behar dela kuota partetan ordezkaturak eta hauek bazkidearenak direla. Ondorioz, kooperatibaren kapitalak kuota parte bidez amaitzen du bazkidearena izaten.

Aipatu berri dugunak lotura zuzena dauka ekintza kooperatiboarekin. Ekintza kooperatiboa da kooperatibak euren artean edo kooperatibak bazkidearekin burutzen duen ekintza eta hortik eratoritzen da zerga exentzioa. Eta hauetaz gain ekintza kooperatibo kontsideratzen dira baita ere, kooperatibaren objektua aurrera eramateko burutzen diren ekintzak.

ANTEAG-eko aholkulari juridikoak kooperatibaren kasuan kapital sozialak duen izaera eta betetzen duen funtzioa zein diren azaldu digu. Bere azalpenetik ondoriozta dezakegu kooperatibak pertsonen sozietateak diren heinean kapitala euren zerbitzura dagoen tresna dela eta beraz, legeak derrigortasunez eskatzeak ez duela zentzurik. Gutxieneko kapital soziala ez galdatzeko argudio hau ez da OCB-k duen argudioa.

Goazen orain UFDR-ko ikasleekin izandako elkarrizketek emandakoa aztertzeraz. Ikasleen iritziz kapital gutxieneko bat eskatzea kaltegarria da. Euren ustez kapitala da hirugarrenen aurrean berme funtzioa betetzen duen elementu bat. Lan bat lortzea da nahi dena kooperatiba sortzen denean. Langilea bere buruaren jabe izatea eta ugazaba baten aginduak jarraitu beharrik izan gabe bere lana burutzea da kooperatibaren helburua. Esandakoa kontutan izanik beraz, langileak kapitala ipintzeko mailegu bat eskatu beharra badauka zorpetu egiten da lanean hasi aurretik eta ondorioz, hirugarren batekiko mendekotasunetik askatzerik ez du lortzen. Beraz hasiera-hasieratik ekimenari hasiera inon menpe jarrita hasi du.

Ikasle hauek kooperatiba nukleoko kide dira eta hori dela eta Ekonomia Solidarioko ekimenekin egiten dute lan. Euren egunero bizi duten adibidea bota du ikasle batek.

‘Catadores de Carton (papera biltzen dabiltzanak) deiturikoak esate baterako, kooperatiba bat sortzea nahi badute behartuta daude norbaiti laguntza eskatzera. Hauek kalean eskean dabiltzanak izan ohi dira. Pentsa dezagun dirua lortu dutela kapital enpresek erantzukizun sozialerako duten dirutik edo bestela, bankuei maileguan eskatuta. Hasieratik zorpetu egin dira. Ondorioz nik uste dut, Brasilgo kasuan eta Ekonomia Solidarioko ekimenei begira legeak gutxieneko kapital soziala eskatzea eragozpen bat dela. Handia gainera.

Esponsorren bidea aukeratzeko baldin bada ere, berdin. Esponsorrak dirua ez bada beste zerbait beti eskatuko du ordainetan’.

Kapitala ipintzerako orduan dagoen beste aukera bat interes baxuko kredituak erabiltzea litzateke. Ikasleen esanetan, egon badaude. Baina mikro-kredituak emateko beharrezkoa da berme edo garantia bat izatea. Brasilen dauden mikro-kreditu eskaintzak ekimen pribatutik datoz eta hauek ezinbestean bermea eskatzen dute. Eta bermea ez dagoen kasutan interes altuak eskatzen dituzte. Herri Ekonomietako Kooperatibentzako ez badago politika publiko berezirik alperrik da; ezin baitzaie aurre egin ekimen pribatuak eskatzen dituen interes altuei.

Gaur esan genezake politika publiko indartsu bat izan ezik, zaila dela Herri Ekonomietako ekimenak bideragarriak izatea. Neoliberalismo garaia gogorra da horrelako ekimenek aurrera egiteko. Ez dute lortzen ezta familiaren sostenguari erantzutea ere.

Honi lotuta azaldu digute mikro-kreditu bat ematea erabaki aurretik ongi aztertzen eta baloratzen dutela proiektu bakoitzaren bideragarritasuna eta izan dezakeen etorkizuna. Gainera lan hau egiteko baliabide ugari dituzte, formaziodun teknikariak besteak beste. Hala ere, proiektuaren bideragarritasuna neurtzeaz gain bada beste arazo bat ere. Normalean Ekonomia Solidarioako ekimenetan dihardutenek ez dute informazioa lortzeko aukerarik izaten. Eskaintzak ez dira ezagutu ere egiten.

Azkenik, ikasleek azpimarratu dute, Curitiban bizi den egoerak zailtasun bereziak dituela. Ekonomia Solidarioaren baitan ekimenak martxan jartzen dituztenak langabetuak izaten omen dira eta, ondorioz, oso adin txarra dute edozein lan egiteko. Produktua ekoizteko lehengaiak eskuratzea ere ez da erraza izaten eta ekoiztu ahala saldu egiten dute produktua, sarritan hainbat eskaera erantzun ere egin gabe geratzen direlarik.

Ikasleen jarrera ulergarria den arren, Estatuaren gain erantzukizun guztia jarri beharrean eurengan konfiantza gehiago izatea beharrezkoa da.

Ekonomia Solidarioaren baitan autoritate den Paul Singer eta bere aholkularia den Favio Snachez-en iritziz ere legeak ez luke kooperatiba sortzeko gutxieneko kapital sozialik eskatu beharko. Gobernu bera lantzen ari den 7.009/2005 Lege proiektuak ere ez du gutxieneko kapital sozialik eskatzen.

Legeak ez du gutxieneko kapital sozialik eskatzen, ez kooperatiba legeak ez eta Kode Zibilak ere. Eragile desberdinegandik jasotako iritzia kontutan izanda berriz bi dira jarrerak: OCB-k gutxieneko kapitala eskatzearen alde egiten du eta Ekonomia Solidarioak berriz aurka.

OCB-k argi du kapitala ez eskatu arren kapitalik gabe sortzen diren ekimenek ez dutela aurrera egiten eta Ekonomia Solidarioak, uste du egokiagoa dela kapitalik ez eskatzea. Azken hauen iritziz kapitala eskatzeak zorpetu egiten du ekimena hastapenetatik eta beraz, hobe da derrigortasunik ez ipintzea.

Espainiako legedian, enpresa jarduera burutu asmoz sortzen diren sozietate mota guztientzako, eskatzen du legeak eraketarako gutxieneko kapital soziala. Enpresa mota bakoitzarentzako zenbateko desberdina eskatzen da eta burutu nahi den jarduerak ere baldintzatu egiten du ezarri beharreko kopurua. Hau kontutan izanik, Brasilgo legedian kooperatibei gutxieneko kapitala eskatzea onuragarria izan daitekeela uste dugu beti ere, baliabide gutxi duten ekimenei ahalik eta erraztasun gehien emanaz.

6.2.2. Gutxieneko bazkide kopurua

Kooperatiba baten eraketan eskatzen den bigarren baldintza gutxieneko bazkide kopurua da. Euskadiko kasuan hasieran bost bazkide ziren beharrezko kooperatibaren eraketarako. Sarritan, bazkide kopuru hau lortzea zaila izaten zelako erabaki zen hiru bazkide eskatzea. Bostetik hirura igaro zen eta une honetan onartu berri den Kooperatiba Txikien Legeari¹²⁸ esker bi bazkide nahikoa dira kooperatiba bat eratzeko. Euskadiko Horregatik hain zuzen ere, uste dugu Brasilgo legediak hogeitaz bazkide eskatzea eragozpen handia dela bertako errealitate kooperatiboa garatu dadin.

Brasilgo kasuan, eraketarako beharrezkoa den gutxieneko bazkide kopurua Lei 5.764/71ko 6 artikuluan honela jasotzen da:

‘ As cooperativas sao consideradas:


I.- singulares, as constituídas pelo número mínimo de 20 (vinte) pessoas física, sendo excepcionalmente permitida a admissao de pessoas jurídicas que tenham por objeto as mesmas ou correlatas atividades economicas das pessoas físicas ou, ainda, aquelas sem fins lucrativos;

II. cooperativas centrais ou federações de cooperativas, as constituídas de, no mínimo, 3 (tres) singulares, podendo, excepcionalmente, admitir associados individuais;

III. confederações de cooperativas, as constituídas, pelo menos, de 3 (tres) federações de cooperativas ou cooperativas centrais, da mesma ou de diferentes modalidades.

Ikus dezagun nola jasotzen duen gureak.

EKL aldatu duenak bere 3 artikuluan dio:



¹²⁸ 6/2008 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskadiko Kooperatiba Sozietate txikiei buruzkoa

1.– Lehenengo mailako kooperatibetako bazkide, edozein pertsona fisiko zein juridiko, publiko nahiz pribatu, izan daiteke, betiere lege honetako II. tituluan ezarritako salbuespenak kontuan izanda.

Bigarren mailako edo maila handiagoko kooperatibei dagokienez, 128.1 artikuluan erabakitakoa bete behar da.

Sortzen diren unean, lehenengo mailako kooperatibetan gutxienez hiru bazkide izan behar dira, eratutako kooperatiba-motakoak. Bigarren mailako edo maila handiagoko kooperatibek beren bazkide sortzaileen artean gutxienez bi kooperatiba-elkarte izan beharko dituzte».

Bi legeek, Brasilgo 5.764/71 eta Euskadiko 6/2008ak, kooperatiba eratzeko eskatzen duten bazkide kopuru minimoari dagokionez aldea nabarmena da¹²⁹. Gurean legeak bost bazkide eskatzen hirura eta gaur egun, bi eskatzera igaro bada eta hori kooperatiben eraketa errazteko egin badu, hogeitaz bazkide eskatzea eragozpen handi bat da. Latino Amerikako beste herrialde batzuetan bost eta hamar bazkide eskatzen direla kontutan izanda, Brasilgo hogeitaz eskakizuna bataz bestetik ere gorago dagoela ikus dezakegu.

Kooperatiba eratzeko eskatzen den bazkide kopuruaren inguruaren iritzi desberdinak bildu ditugun arren orokorrean bi izan dira: bazkide kopuru altua eskatzearen aldekoak OCB eta Ekonomia Solidarioaren baitan kokatuta dagoen ANTEAG-eko aholkularia eta beste aldean, Ekonomia Solidarioaren baitako gainerako eragileak.

Ekonomia Solidarioa osatzen duten mugimenduen aldetik jasotako erantzunetan ez dago adostasunik.



¹²⁹ Venezuela, ' Art. 16. Las cooperativas podrán conformarse y funcionar con un mínimo de cinco asociados. Chile, 'Art. 17. Salvo los casos especialmente previstos en esta ley, el número de socios de una cooperativa será ilimitado, a partir de un mínimo de diez.' Argentina, ' Art. 5 Cuentan con un mínimo de diez asociados, salvo las excepciones que expresamente admitiera la autoridad de aplicación y lo previsto para las cooperativas de grado superior'. Méjico, Art. 11 En la constitución de las sociedades cooperativas se observará lo siguiente: V. Se integrarán con un mínimo de cinco socios'.

Marcelo Mauad Unisol-eko ahokulari juridikoaren esanetan zazpi da eskatu beharreko bazkide kopurua:

‘Guretzat zazpi da kopuru egokia eta OCBrentzat berriz hogeia. Eurak kooperatiben merkatua kooperatiba handientzat erreserbatu nahi dute. Ez dute argi. Hasieran eurak ere zazpiko proposamena egin zuten baina erabaki zuten blokeo eta eragozpen estrategiari ekitea, eta orduan erabaki zuten bazkide kopurua igotzea; jakinik Ekonomia Solidarioko ekimenek arazoak izango zituztela kopuru hori lortzeko. Beldur ziren Ekonomia Solidarioko ekimenak gora zihoazelako’.

MCC-ko delegatuak ere ongi ikusten du zazpi kide eskatzea. Bere esanetan Sozietate Anonimoak eratzeko ere, legeak zazpi bazkide eskatzen dituzenez kooperatibak ere baldintza berbera izatea da zuzenena. Hala ere, kopuru baxuago bat ere ez luke gaizki ikusiko. Erantzukizun Mugatuko Sozietateak eratzeko bi bazkide eskatzen dira beraz, bi ere zenbateko egokia litzatekeela dio.

Ekonomia Solidarioaren baitan kokatuta egon arren, Reitor ANTEAG-eko aholkulariak bestelako iritzia dauka:

‘ Niretzat hau ez da arazo larri bat. Zazpi bazkiderekin kooperatiba bat eratzeko baino hobea da mikro enpresa bat sortzea. Kooperatiba eratzeko baldintzak baldin badituzu ez zaizu axola 15 ala 20 kide diren. Hori baino kopuru gutxiagorekin baldin bazabiltza hobea da mikro enpresa bat sortzea’.

Bazkide kopuruari dagokionez beraz, ANTEAG-k OCB-ren iritziarekin egiten du bat. ANTEAG-ek ere tamaina txikiko ekimenak direnean ez du uste kooperatiba sortzea denik aukera egokiena. Bazkide kopuru txikia duenean ekimenak hauen ustez ere hobea da Sozietate Simple figura aukeratzea. Kooperatibaren izaerak eta filosofiak bazkide kopuru handiago eskatzen du hauentzat.

UFDR-ko ikasleek ere hogeia bazkide larregi dela uste dute. Ikasle hauetako batzuk MST-ko kooperatibekin egiten dute lan eta euren esanetan, sarritan, hogeia bazkide eskatzea izan da eragozpen nagusietako bat kooperatibak eratzeko orduan. Horretaz gain euren esanetan, Herri Ekonomietako Kooperatibak sarritan emakumeek bultzatuak izaten dira eta hauek batez ere, etxeko ekonomiari laguntzea dute helburu. Kasu hauetan ere, hogeia emakume biltzea zaila izaten da. Bazkide kopuruaz gain, beste zailtasun batzuk ere mahai gaineratu dituzte, eskakizun formalena besteak beste. Garbi dute kooperatiba eratzeko dauden betebeharrak formalak zuzen jarraitzea kontu zaila dela.

Azkenik bazkide kopuru gutxiengoaren inguruan hausnarketa interesgarri bat egin dute:

‘ Horrenbeste kide eskatzeak ez du zentzu handirik besteak beste, denek ez dutelako parte hartzen kooperatibaren gestioan. Gutxi batzuk dira benetan arduratzen direnak kooperatibaren martxa eramateaz. Hogei kiderekin ez da lortzen lan eta antolaketa kolektibo bat aurrera eramatea, ez da posible hogei kideen iritzia kontutan hartzea gestioa eramaterako orduan. Gestio demokratiko bat aurrera eramatea hogei bazkiderekin zaila da ’.

Argi dago kooperatibaren tamainak baldintzatzen duela gestioan zuzenean inplikatzeko kolektiboa. Gurean ere hau gertatzen da ehundaka bazkide dituzten kooperatibetan delegazioa ematen da bai exekutiboan eta bai gainerako organo sozialetan ere. Ez da posible gaur merkatuak dituen baldintzetan kooperatiban bazkide guztien partehartze zuzena izatea gestioan. Hala ere, oreka da bilatu behar dena zuzeneko partehartzearen eta bazkidearen inplikazioa guztiz galtzearen artean.

Honela jarraitzen du euren erantzunak:

‘ Gure errealitatea eta zuena oso desberdinak dira. Zuen kooperatibetan bazkideak ez du inoren menpe dagoenaren sentsaziorik nahiz eta bere parte hartze zuzena kooperatibaren kudeaketan ez handia izan. Baina Brasilen gauzak oso bestelakoak dira. Hemen kapitalismoa indartsu ari da jotzen eta lana ahalik eta merkeen egiteko eskatzen zaio langileari. Gure kooperatibetako bazkideak ez dute kontzientziarik eurak direla ekinbidearen ugazaba; beraiek direla kooperatiban agintea dutenak. Aipatu ditugun arrazoiengatik da guretzat horren inportantea bazkideak gestioan parte hartzea eta berak duen erabaki ahalmena egikaritzea. Hain zuzen ere arrazoi horregatik uste dugu hogei bazkideko kopurua muga handi bat dela kooperatibaren gestio demokratikoa era eraginkorrean eraman ahal izateko. Ez dakit oso ongi nik ere baina lau edo bost izan daiteke kopuru egokia.

Hogeiki kide eskatzea eragozpen denaren adibide ditugu Catadores de Cartón deiturikoak. Hauek kooperatibak sortzeko bi eratako eragozpenak izaten dituzte: batetik zerga arrazoiak. Bestetik berriz, ez dutelako hogeiki bazkide biltzerik lortzen ’.

Ikasleen erantzunetatik beraz bi arrazoi desberdinak genitzake; kopuru altua lortzea zaila izatea bata. Hau guztiz ulergarria eta onargarria da. Hogeiki bazkideren inplikazioa bilatzeak duen zailtasuna berriz, ez da arrazoi sendo bat. Gaur egun hogeiki bazkideko kooperatiba bat erraz kudeatu daiteke eta erraz lor daiteke bazkideen interesa piztea, ez baita kolektibo handi eta maneia ezina. Inplikazioa lortzea gauza bat da eta mendekotasunari dioten beldurra beste bat. Bazkideak kooperatiba kontrolatzen badu eta horren sentipena badu ez du inork bere ordean erabaki dezan utziko. Gutxiago kapitalak. Beraz gakoa ez da hogeiki bazkide izatea, bazkideen

kontzientzia eta ardura maila baizik. Hala ere, uste dugu historian izandako esperientzia eta bizipenek eragiten eta baldintzatzen dute egungo errealitatea. Beraz, norbere buruaren jabe ez izatearen beldurra kontutan hartu beharreko faktorea dela Brasilgo kasuan.

Gure errealitatean tamaina handiak eragin dute bazkideen inplikazio galtzea, baina tamaina benetan handiak izateak. Bestalde, plano exekutiboaren gaineko kontrola eramateko zailtasunak izan dira bazkideen inplikazioa galarazi duten faktoreak. Plano sozialak ez du nahikoa baldintza, plano exekutiboaren gaineko kontrola eramateko. Kontseilu Errektoreko eta Kontseilu Sozialeko kideek nekez eraman dezakete Zuzendaritza Kontseiluaren gestioaren gaineko kontrola. Denborarik eza, formaziorik eza, informazio egokirik eza dira besteak beste, plano sozialak gestioaren kontrola eramateko dituen eragozpenen eragileak.

Guilherme Krueger, OCB-ko aholkulari denak sakon azaldu dizkigu hogeiki kide eskatzeko dituen argudioak.

‘ Nik uste dut hogeiki bazkide eskatzen jarraitu beharra daukala legeak. Tradizio kontu bat da. Kultura kooperatibo kontu bat. Legedi brasildarrak kooperatiba izateko ‘eskala’ bat eskatzen du. Eskalako ekonomia izan behar du. Ekimenak txikiak badira batu daitezela eta indarrak batu ditzatela. Eskalako gaitasun minimo bat izan behar dute euren existentzia justifikatzeko. Gestio demokratikoko egiturak arautzen dituen legedi brasildarrak ez ditu onartzen kostu edo eskala batetik beherako ekimenak. Brasilen bada legedi bat mikro-enpresentzat eta izaera hau hartzea da komenigarria; bai kontu fiskalak eta baita baldintza formalak ere errazten dituelako. Kooperatibak izan behar du tamaina esanguratsua, eta eragina izan behar du gizartean. Kooperatiben gaineko doktrina eta orientazio guztia, baita printzipio kooperatibo unibertsalak ere, daude pentsatuta kooperatiba handientzako eta ez txikientzako.

Beste elementu bereizgarri bat kooperatibismoaren ibilbide ‘eurozentrikoa’ da, euren jatorri europarra. Kooperatiben ideia European sortu eta Latinoamerikan zabaldu zen ondoren. Ekinbide kooperatibo jatorrenak Europakoak izan dira eta Brasilgo kasuan ere antzera gertatzen da, immigrazio europarrak eraikitako kooperatibak dira eredurik onenak hemen ere. Badira hainbat kooperatiba Brasilen Batzar Orokorrean portugesa egiten ez dena. Holandesa hitz egiten den kooperatibak ditugu; baita alemana hitz egiten den Paranako hainbat kooperatiba ere. Legea baliagarri da oinarri kulturalak finkatzeko, jarrera edo jokabide batzuk ezartzen dituelako. Jokaera hau letorke azaltzera zer den jokaera kooperatiboa. Legeak jokaera hau ezartzen duenean aurrebaldintza bat ere badu: eskalako ekonomia egitea. Ondorioz, esan genezake atea irekiko balitz ekimen txikientzako, aukera zabaltzen ari gara kooperatiba handientzat sortutako figuran gehiegikeriak gertatzeko ’.

Guilhermek esanikoaren aurrean baditugu hainbat komentario. Batetik ez du definitzen zer den 'eskalako ekonomia' eta ez du azaltzen legean non dagoen eskala ekonomia egiteko galdapena kooperatibentzat. Argudio hau lotzen du berak hogeitazko bazkide eskatzeko behararekin baina non dago lotura? Ezin al du eskalako ekonomia egin bost bazkideko kooperatiba batek? Gure ustez ez du definitzen, ez du azaltzen non dagoen lege oinarria eta ez du bazkide kopuruaren galdapena justifikatzen.

Printzipio kooperatibo unibertsalei egiten die erreferentzia baina hemen ere ez du justifikatzen zer dela eta printzipio hauek izan behar diren bazkide asko dituzten kooperatibentzat. Hau ere beraz, oinarri gabeko aipamena dela deritzogu. Nazioarteko Aliantza Kooperatiboak onartuta dituen printzipiotan ez da inon jasotzen kooperatibaren tamaina edo bazkide kopuruaren gaineko inolako erreferentzia edo/eta galdapenik. Gurera etorri ere, ez gure lege eta ez gure esperientziako inolako barne xedapenek ere ez dute inolako galdapenik eskatzen. Honela Guilhermeren adierazpenek oinarririk ez dutela azpimarra genezake.

Eta azkenik kooperatibismoaren jatorri europarra aipatzen du eta argudio hau erabiltzen du Brasilgo errealitate kooperatibo europarra jatorrikoarekin alderatu eta bigarren hau eredu garri moduan erabili eta goraiatzeko. Baina argudio honetan ere ez dugu bazkide kopurua arazoitzeko baliagarri den elementurik aurkitzen. Bestalde esan behar da, Europar legedien joera bazkide kopurua bajatzearen aldeko izaten ari dela. Gure legediaren joera bezalaxe Europan ere kooperatibak eratzeko erraztasunak ematea da helburua; honekin, bazkide kopurua jeistearena.

Laburtuz beraz, Guilhermek hogeitazko bazkide gutxienez eskatzeko erabilitako argudioak ez dira behar bezain sendoak gure ustez. Hau da, bere helburuak lortzeko ez dut uste beharrezkoa denik hogeitazko bazkide eskatzea.

Hogei bazkide eskatzea asko eskatzea dela deritzot. Sarritan Brasilgo errealitatean, beste guztietan bezalaxe, eragozpen nagusi izaten da horren kopuru altua eskatzea. Une honetan Europako kooperatiba legedien joerak ikusita esan genezake legeak kopuru altu hau eskatzeko ez dagoela arrazoi objektiborik, beraz, hiru, bost edo zazpiko kopurua da proposatzen dudana. Ez dago Ekonomia Solidarioaren baitan ere adostasunik kopuruari dagokionean, nahiz eta bost eta zazpi diren gehien maneiatzen diren zenbatekoak. OCB-k aldiz, nahi du ahalik eta kopururik altuena izatea. Hogei bazkideko kopurua mantentzearen alde dago. Euren ustez kooperatiba txikiek ezin dute lekurik izan errealitate kooperatibo Brasildarrean; soilik eskalako edo tamaina handiko kooperatibentzat dago espazioa.

OCB-ren aburuz Ekonomia Solidarioaren baitan kokatzen diren ekimenek ezin dute kooperatiba izaera hartu, baizik eta elkarte edo sozietate simple izaera. Hori dela eta zenbat eta bazkide kopuru altuagoa eskatu zailtasun gehiago izango dute azken hauek kooperatibak sortzeko.

OCB-k bai historian eta bai oraindik orain betetzen duen sustapen funtzioa kontutan hartuta, bazkide kopuru altua eskatzeak ez du eragin positiborik sustapen arduran.

Ondorioz, bazkide kopuru gutxienekoa murriztea proposatzen dugu. Brasilgo legeak bost edo zazpiko bazkide kopurua eskatzea izan daiteke gure ustez egokiena.

6.3. KOOPERATIBEN ERREGISTROA

Kooperatiben eraketan garrantzia daukan beste puntu bat, eraketarako organo eskudunarena da. Gurean kooperatiben erregistroa administrazio publikoaren menpean dagoen egitura da eta 'publikoa' izanik neutraltasun eta objektibotasun printzipioak ditu printzipio orokor gisa.

Brasilen errealitatea bestelakoa da. Kooperatibak badute aukera bi erregistro desberdinetan inskribatzeko. Errealitatea nahiko aldrebesa da; batzuk Junta Komertzialetan egiten dute inskripzioa eta beste batzuk Cartorio deiturikoetan. Junta Komertzialak merkataritza sozietateentzako dauden erregistroak dira. Geografikoki hiriburutan daude eta burokrazia asko eskatzeaz gain garestiak dira tramiteak. Cartorioak irabazi asmorik gabeko egiturentzat dira eta hedatuago egoteaz gain, tramiteak errazagoak eta merkeagoak dira.

Badira bi egitura eta legeak ez du zehazten zeinetara bideratu. Ondorioz, oso egoera desberdinak eta bateratasun falta handia dago.

Brasilgo Lei 5.674/71 dio bere 17 artikuluan,

' Da Autorização de Funcionamento

Art. 17. A cooperativa constituída na forma da legislação vigente apresentará ao respectivo órgão executivo federal de controle, no Distrito Federal , Estados ou Territorios, ou ao órgão local para isso credenciado, dentro de 30 (trinta) dias da data da constituição, para fins de de autorização, requerimento acompanhado de 4 (quatro) vias do ato constitutivo, estatuto e lista nominativa, além de outros documentos considerados necessarios.

Art. 18. Verificada, no prazo máximo de 60 (sessenta) dias, a contar da data de entrada em seu protocolo, pelo respectivo 'orgão executivo federal de controle ou 'orgão local para isso credenciado, a existencia de condicoes de funcionamento da cooperativa em constituição, bem como a regularidade da documentação apresentada, o órgão controlador devolverá, devidamente autenticadas, 2 (duas) vias á cooperativa, acompanhadas de documento dirigido á Junta Comercial do Estado, onde a entidade estiver sediada, comunicando a aprovação do ato constitutivo da requerente.'

Brasilgo legediaren arabera Junta Komertzialak dira kooperatibak erregistratzeko dauden organo eskudunak, eta ez dago inolako organo eskudun bereziturik kooperatibetarako. Ondorioz, merkataritza enpresen eta kooperatiben artean ez dago inolako alderik erregistroari dagokionean.

Brasilen Lei 8.934 legeak arautzen ditu erregistro publikoak eta hauen menpe daude Junta Komertzialak. Legeak Erregistro Publikoari esleitzen dio merkataritza enpresen gaineko eskuduntza honako funtzio hauetarako: nagusiki merkataritza enpresek burutzen dituzten ekintza juridikoei publizitatea, bermea, autentikotasuna, segurtasuna eta efikazia ematea. Junta Komertzialak dira beraz, Erregistro Publikoek federazio desberdinetan dituzten unitateak aipatutako funtzioak betetzeko.

Kooperatiben erregistroa beraz, gainerako merkataritza enpresekin batera Junta Komertzialetan burutzen da eta ez gure kasuan bezala berezia den Kooperatiben erregistro publikoan¹³⁰.

Gurean, 'Euskadiko Kooperatiben Erregistroa' izenburupean 4/93 Legeko I Tituluko, III Kapituluaren kokatzen du eta honako artikulua hauek eskaintzen dizkio:


15. artikulua. Antolaketa

16. artikulua. Erregistroaren efikazia

17. artikulua. Funtzioak

18. artikulua. Arau osagarriak

Hauetaz gain, 4/93 legeak Bosgarren xedapen iragankorra eta Azken Xedapena eskaintzen dizkio. Legeak honako printzipioak esleitzen dizkio erregistroari: publizitate materiala eta formala, legalitatea, legitimazioa, lehentasuna eta traktu jarria, eta hauek guztiak bere funtzioak hobeto bete ditzan.



¹³⁰ Mexikon ere Merkataritzako Errolda Publikoa da kooperatiben erregistroaz arduratzen dena. Argentinan Legeak eskuduna den organo lokalari esleitzen dio kooperatibak erregistratzeko funtzioa. Venezuelak, erregistro publikoaren esku usten du errolda funtzioa. Eta Chilen, Registro de Comercio del Conservador de Bienes Raíces delakoari esleitzen dio funtzioa.

4/93 indarrean sartu aurretik Erregistro Lurraldetarrak (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan) eta Erregistro Zentrala zeuden, azken hau Ekonomia Sozialeko Zuzendaritzapean. Elkarrekin harremanetan baina autonomia maila altuarekin. Egoera hau eroso zen bai administratuarentzat eta baita kooperatibentzat ere. Orain erregistro bakarra ezartzea atzera pausotzat jo daiteke. Estruktura organiko eta unitario bat sortu da Euskadiko Kooperatiben Erregistroarekin eta beraz, Euskal Autonomia Erkidegoan erregistro bakarra daukagu. Egituraketa berriaren ondoren, Justizia, Lan eta Seguritate Sozialeko Departamendupean kokatu da.

Bestalde, kontutan izan behar da, 189/1994 Dekretuak sarreran antolaketa unitarioa deskonzentrazioarekin alderatzen duela eta lehenaren aldeko argudioak ematen dituela. Aldeko arrazioen artean erregistro tituluen kalifikazioan irizpide batasuna eta efikazia eta administrazio ekonomia dira aipatzen dituenak. Batzuen ustez argumentu hauek nahi dute erregistroak eginiko aldaketak justifikatzea, baina argudio hauek ez dira nahikoa aurreko lurralde erregistroen egoerak zuen egoeraren aurrean.

Bestalde, 189/1994 Dekretuak bere 1 artikuluan ' Antolaketa eta izaera ' 4/93 Legeko 15 artikulua osatu eta garatu egiten du. Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzaren barnean kokatu eta zehazten du esanez:

' Hiritar eta bertara jo nahi duten guztientzako zerbitzu publiko eta dohainezko bat da '.

15. atala.- Antolaketa

Euskadiko Kooperatiben Errolda Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailari atxikitako legezko errolda da eta organo-egitura bateratua du.

Espainiako legedian (27/1999 legea) bere 110 artikuluan arautzen du baina ez du Euskal Autonomia Erkidegoko xedapena ezertan osatzen edo garatzen.

Gure kasuan, merkataritza enpresak badute beraien erregistroa, eta kooperatibek beraien berezitasunak kontutan izanik aparte dute kooperatiben erregistroa. Gure ustez onuragarria da kooperatibek izaera berezia dutela kontutan izanik, aparteko tratamendua eskainiko dien errolda izatea. Honetaz gain, gure kasuan oso lagungarri da Kooperatiben gaineko eskuduntza ere Euskal Komunitate Autonomoak izatea. Lege eskuduntza eta erregistro eskuduntzak bertan izateak, gestioan lagundu egin du. Eraketa eta ondorengo kudeaketa gerturatu eta arindu egin ditu.

Brasilgo kasuan bai kooperatibak eta bai gainerako merkatal izaerako egiturak ere Junta Komertzialetan eratu behar dira. Inskripzioa Junta Komertzialetan egiten da. Junta hauek lurralde hedapenari dagokionez, hiriburutan soilik daude eta formaltasunei dagokionez ere,

zorrotzak izaten dira bete beharrekoak. Honi koste ekonomikoa gehitu behar zaio; Junta Komertzialetan tramitea egitean tasak ordaindu behar izaten dira, aldiz Cartoesetako tramiteak dohainik dira. Honela ondoriozta genezake ekonomia solidarioko ekimenentzako zailtasunak ugariak direla Juntei dagokienean.

Bestalde OCB-k aitortu du burutu ditugun elkarrizketetan, lortu duela Juntetan euren jendea sartzea eta honetaz gain, Junta Komertzialean inskribatu aurreko OCB-ren baimena derrigorrezkoa izatea. Juntetan beraz, OCB-ren eragina nabarmena dela ikusita, Ekonomia Solidarioko kide batzuegandik jasotako eskaera izan da inskripzioa Juntetan barik, 'Cartoes'-etan egitea. Azken hauek lurralde hedapen zabalagoa dute eta formaltasunak ere badirudi ez direla horren astunak. Kontua da azken hauek elkarte eta pertsona fisikoen inskripzio ardura dutela beraz, kooperatibak esparru horretara ekartzeak hauen identitatean galera bat suposatu dezakeela. OCB-k historian bete duen paper eta funtzioaren mantenua besteak beste, erregistro funtzioetan oinarritzen du. Eurak dira duten esperientziagatik erregistro eta kontrol lana inork baino hobeto bete dezaketenak.

Gure ustez, gobernuaren ala administrazio publikoaren baitan beharko luke egon kooperatiben erregistroaz arduratzen den erakundea. Irizpide objektiboekin jokatu luke erakunde bat behar da, eta gainera kooperatiben eraketan eta kudeaketan lagunduko lukeena beharko luke izan. Erregistro publiko bat eratzea da beraz soluziobiderik onena.

Legeak jasotakoa aztertu ondoren goazen hainbat eragileren iritziak jasotzera.

Unisol-eko Marcelo Mauad-ek honela adierazi du kooperatiben erregistroaren inguruan duen iritzia:

'Guk erregistro publiko batek duen garrantzia aitortzen dugu. OCB-k nahi du erregistro pribatu bat eratu, hau da interes pribatuen defentsan arituko den erregistro bat nahi du. Ez dute nahi erregistroa publiko izatea, ez zaielako estatuaren fiskalizaziorik interesatzen. Estatuak baztertu nahi dute. Estatuaren esku hartzeak euren asmoak eragozten ditu. Gure ustez estatuak jarraitu behar du modu batean edo bestean erregistro funtzioa betetzen. Guk uste dugu, kooperatiben erregistroa eraman behar dela edo Junta Komertzialetan edo Cartoriotan (erregistro zibila). Arazoa da OCB-k Junta Komertzialetan eragin handia duela, eta ahalegin handia egiten ari da bere jendea, teknikari gisa Junta Komertzialetan kolokatzeko.'

OCB-k bere eragina eta aginpideak (tentakuluak) zabaltzen ditu bai estatu barnean eta kanpoan. Estatu barnean harreman handia dute kapitalarekin '.

Marcelok beraz garrantzia erregistroaren publikotasunean ipintzen du. Bere ustez estatuaren paperak dauka garrantzia eta beharrezkoa da modu batean zein bestean estatua izatea fiskalizazioa egingo duena. Hala ere, OCB-ren eragina Junta Komertzialetan handia dela dio eta honek dakar Juntak objektibotasunez jokatzeko eragozpenak izatea.

Guilherme Krueggerren iritziak badu alderik aurrekoarekin alderatuz gero.

‘Kooperatiba bat eratzea erabakitzen denean eskalako ekonomia egiteko hautua egiten da. 20 bazkide behar dira eta ezin da gauza txiki bat egin. Ekimen indibidual txiki asko baditugu egin behar duguna da ekimen hauek batu.

Beharrezkoa da erregistroa Junta Komertzialetan egitea, berau da tribunal administratibo funtzioa betetzen duena eta. Organo hau da ekimenak gutxieneko eskakizun ekonomikoak betetzen dituen ala ez kontrolatzen duena. Juntak bermatu behar du hirugarrenen aurrean lege eskakizunak betetzen direla. Segurtasuna eskaini behar du. Hirugarren interesatuak (hartzekodunak, komunitatea...) behar dute berme hori izan. Hala ere, bestelako egiturentzat egon daiteke tramiteak errazteko beste aukera bat, eta horretarako daude Cartorioak. Azken hauek dira elkarte eta antzeko egiturentzako erregistroak. Ekimen ekonomiko txikiak, sozietate sinpleak kasu, badute malguagoa den legedi bat. Munta txikiko jarduerak daramatzaten pertsona juridiko hauentzat daude Cartorio deituriko erregistroak eta ez enpresen jarduerak erregistratzeko dauden Junta Komertzialak’.

Hona beraz beste ikuspegi bat. OCB-ko aholkulariak garbi bereizten ditu munta txikiko ekimenak eta hauentzat Cartorioak aurreikusten ditu eta ekimen ekonomiko indartsuak aurrera daramatzaten enpresentzat soilik Junta Komertzialak daudela dio. Bere argudioak jarraituz, Ekonomia Solidarioko ekimen txikiak ez lukete jarduna Junta Komertzialetan erregistratu beharko baizik eta elkarteentzako diren Cartoriotan. Argudio honetan antzeman daiteke, enpresa eta irabazi asmorik gabeko egiturak bereizteko saiakera eta bide batez, berak munta txikiko ekimentzat kontsideratzen dituen Ekonomia Solidarioko ekimenak hor kokatzeko borondate bat.

Cartoriotan kooperatiben erregistroa egiteko aipatu berri duguna bada argudioa, honek ez dio inolako mesederik egiten Ekonomia Solidarioaren baitan kokatutako ekimenei. Erregistro baten eta bestearen arteko aldea jarduera ekonomikoaren izaera bada, bereizketa honetan Ekonomia Solidarioko ekimenak enpresa jardueraz kanpo kokatzeak dakar kooperatiba izan nahi duten hainbat ekimen irabazi asmorik gabeko elkarte figuretara eramatea. Nire ustez argudio honek lubakia sortu nahi du elkarte figura eta enpresa jarduera daramaten ekimenen aurrean, eta Ekonomia Solidarioko ekimenok ez dute zertan enpresa jarduera ekonomikotik at geratu.

Erregistroaren gaineko iritziekin amaitzeko Paul Singer eta Fabio Sanchez (Ekonomia Solidarioko Idazkaritza Orokorra) izandako elkarrizketaren pasartea azalduko dugu ondorengo lerroetan.

‘Zuen kasuan Kontseilu Errektore bat aldatzen denean non jakinarazi behar da? Erregistroan? Eta ez bada egiten zer gertatzen da? Gurean jakingo zenuen dagoeneko dagoen nahasketa ezta? Jakingo zeuen dagoeneko Junta Komertzialetan erregistratu behar izaten direla ezta? Hala ere, Konstituzioa onartu denetik aukera dago kooperatibak Cartoriotan erregistratzeko. Cartorioak balio dute pertsona juridiko mota guztientzako baina pribatuak dira eta deszentralizatuta daude. Gobernuaren baimena duten arren entitate pribatuak dira. Indefinizio juridiko bat bizi dugu: kooperatiba batzuk Junta Komertzialetan egiten dute errolda eta beste batzuk berriz Cartoriotan.

Ekonomia Solidarioko kooperatiba txikiek nahi dute erregistroa Cartoriotan egitea eta nire ustez bi dira arrazoiak: Cartorioak deszentralizatuta daude eta hiri guztietan daude, honek baliabide gutxiko egiturei errazago erregistratzeko aukera eskaintzen die. Juntak, soilik, hirigune garrantzitsuetan daude eta desplazamendua zailagoa egiten da. Bigarren arrazoi bat ere bada; burokrazia gutxiagoko egiturak direla Cartorioak. Eta zergatik ez? Hirugarren bat ere aipa genezake: Junta Komertzialak OCBren eragina dute eta Cartorioak ez.

Badira hainbat estatu zeinetan OCBk Junta Komertzialetan kide bat daukan eta honek estatutu eta gainerakoen kontrola eramaten du. Ez hori bakarrik, kasu batzuetan beharrezkoa da Juntara eraman aurretik OCB-ren onespena jasotzea. Adibide bat jartzearren behin gertatu zen, ‘*Cooperativa de reforma agraria*’ deituriko kooperatibaren erregistroa ez zutela onartu’.

5.764 legeak dio bere 107 artikuluan, ‘As cooperativas sao obrigadas, para seu funcionamento, a registrar-se na Organizaçao das Cooperativas Brasileiras ou na entidade estadual, se houver, mediante apresentaçao dos estatutos sociais e suas alteraçoes posteriores’.

Goiko galdapena da bertan behera lagatzen duena Konstituzio Federaleko 5 artikulua:

CF, 5 artikuluko, XVIII atalak:

‘ Todos so iguais perante a lei, sem distinción o de qualquer natureza, garantindo-se aos brasileiros e aso estrangeiros residentes no Pais a inviolabilidade do direito la vida, la libertade, la igualdad, asegurando la propiedad, nos termos seguintes:

XVIII- a criação de associação les e, na forma da lei, a de cooperativas independem de autorização, sendo vedada a interferencia estatal em seu funcionamento.'

Favio Sanchez eta Paul Singerren esanetan:

'Beraz konstituzioa onartu denetik ulertzen da ez dela derrigorra OCB-n erregistratzea erakunde pribatu bat delako. Nahasketa juridiko handi bat dago.

Gure ustez badira bereiztu beharreko hainbat alderdi: batetik dago kooperatibaren erregistroa edo formalizazioa. Bigarrenik kooperatiben monitoramendu edo aholkularitza legoke. Hirugarren alderdi moduan katastro baten beharra dagoela uste dugu, kooperatiba den ala ez den ziurtatzen duen dokumentua jasoko duen egitura. Erregistro hutsetik haratago beraz badira beste funtzio batzuk '.

'Ez dakit dakizun baina OCB diktadura garaian publikoa zen. Konstituzioa onartu ondoren ere OCBk nahi ditu bere pribilejio eta monopolio eskubideak mantendu. Eta eurak dira oraindik ere kooperatiba zein den eta zein ez esaten dutenak. Gure estatuak kooperatibak babesten ditu; gobernuak bizefaltoa da. Babesten ditu bai agroindustriako kooperatiba handiak eta baita nekazal erreforma bultzatzen duten kooperatiba txikiak ere'.

SENAES-en borondatea da OCB-ren aurreko egoera berrezartzea. 'Guk buruan daukagun egiturak hiru funtzio beteko lituzke: erregistroa, katastroa eta arbitraia. Bertan ordezkari itza izango lukete bai Ekonomia Solidarioko kooperatibek, bai OCBk eta baita gobernuak ere'.

Kooperatiben erregistroari buruz aukera zuzenena SENAES-eko idazkari orokorrak duena dela uste dugu. Erregistro publiko bat sortu eta hiru ardura esleitu: erregistro, aholkularitza eta arbitraia. Hau da gure eredua ere. Ez dugu uste aukera ona denik kooperatibak, elkarrean erregistrora bideratzea.

Azkenik, Adao Pretok adierazi digu Eduardo Suplicyren proiektuak baduela kooperatiben erregistroa arindu eta errazteko borondatea. Bere ustez, gainera, gaur luzea eta astuna da kooperatiben erregistro bidea.

Ondorioz esan genezake, gaur Brasilen kooperatiben erregistroa kudeatzeko ardura daukan organoa oso egoera prekarioan dagoela. Ezinezkoa da kooperatiben erregistro zorrotz eta zuzen bat eramatea irizpideak garbi ez badaude. Batetik, bi aukera posible egotea erregistroa egiteko eta bestetik berriz, egitura bakoitzaren eskakizun mailak horren desberdinak izateak egoera desorekatu baten aurrean ipintzen ditu kooperatibak. Errolda zuzena eramatea zaila da

eta eskakizun mailekin ere agrarioak sortzeko aukera handia dago. Segurtasun juridikoa falta da.

Elkarrizketetan atera den beste elementu kezkarria OCB-k Junta Komertzialetan duen eragina da. Berez, merkataritza sozietateen eta kooperatiben formalizaziorako dauden erregistro ofizialetan entitate pribatu honek eragin hori izatea ere ez da onargarria.

Azkenik esan, OCB-en erregistroa egiteko agindua jasotzen duen artikulua ere bertan behera geratu zela Konstituzioaren onarpenarekin; Elkartze askatasuna aldarrikatzen denean.

6.4. EKINTZA KOOPERATIBOA: JARDUERA KOOPERATIBOAREN ARDATZA

Gure legedian eta baita Europako herrialdeetako legeditan ere, 'acto cooperativo' edo ekintza kooperatibo delakoa ez da existitzen. Gure kooperatibetako jardueratan ez da bereizten zer den eta zer ez den ekintza kooperatiboa eta ondorioz dena da ekintza kooperatiboa. Brasilen eta Latinoamerikako legetan 'ekintza kooperatiboa' da jarduera kooperatiboa ardazten duena. Kooperatiba bazkideen beharren zerbitzura dagoela justifikatzeko tresna da. Kooperatiben trataera berezia justifikatzen duena hain zuzen ere hori da. Europako legeditan berriz, ez da ekintza kooperatiboaren bereizketarik egiten. Kooperatibek duten trataera, ez da burutzen duten ekintzaren izaeraren araberakoa, izaera sozietarioaren araberakoa baizik.

BKL-ak bere I Sekzioan, 79 artikuluan arautzen du Ekintza Kooperatiboa:

' Denominam-se atos cooperativos os praticados entre as cooperativas e seus associados, entre estes e aquelas e pelas cooperativas entre si quando associados, para a consecução dos objetivos sociais.

O ato cooperativo nao implica operacao de mercado, nem contrato de compra e venda de produto ou mercadoria'.

Aurrerago ikusiko dugun arren latinoamerikako legedi kooperatibotan 'ekintza kooperatiboa' da legedi egituraren ardatza eta 'acto cooperativo' deritzanak ardatzen du egitura juridiko osoa¹³¹.


EKL-ek ez dauka ekintza kooperatiboa arautzen duen atal zehatzik baina bai ordea kooperatibak hirugarrenekin burutu beharreko jardueri buruzko atala. EKL-ak bere 5 artikuluan honela dio:

5. atala.- Besteekiko eragiketak

1.- Kooperatibek beren kooperatiba-jarduera beste batzuekin ere eraman ahal izango dute aurrera, baldin eta, legeak eta estatutuek berariaz galerazten ez dutela, bazkideekiko jardueraren lagungarri izan edo horren menpe badago.

Lagungarria edo bazkideekiko jardueraren menpekoa dela pentsatzeko, besteekiko eragiketentzat legean jarritako baldintzak eta mugak bete beharko ditu kooperatibak.

2.- Kooperatibaren erantzukizun ez diren arazoak direla eta, legeak jarritako baldintza edo mugen barruan bazkideekin eta beste batzuekin egindako eragiketen ondorioz kooperatibaren ekonomi bideragarritasuna arriskuan jartzeko moduan jeisten edo okertzen bada enpresaren jarduera, kooperatibari beste batzuekin jarduera eta zerbitzuak hasteko edo dituenak handitzeko baimena eman ahal izango zaio. Horretarako epe eta muga batzuk izango ditu, egoera bakoitzaren arabera. Kooperatibak eskaria egin eta hilabete batean Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak erantzunik ematen ez badu, eskatutako baimena eman dela pentsatu beharko da.



¹³¹ Venezuelak bere '7 art. Son actos cooperativos los realizados entre las cooperativas y sus asociados o por las cooperativas entre sí o con otros entes en cumplimiento de su objeto social y quedan sometidos al Derecho Cooperativo, y en general al ordenamiento jurídico vigente'. Argentinak bere '4 art. Son actos cooperativos los realizados entre las cooperativas y sus asociados y por aquellas entre sí en el cumplimiento del objeto social y la consecución de los fines institucionales. También lo son, respecto de las cooperativas, los actos jurídicos que con idéntica finalidad realicen con otras personas'. Méjicok bere '5 art.an Se consideran actos cooperativos los relativos a la organización y funcionamiento interno de las sociedades cooperativas'. Chilek bere '8 art. Las cooperativas podrán operar con terceros. Sin embargo, no podrán establecer con ellos combinaciones o acuerdos que hagan participar a éstos directa o indirectamente de los beneficios tributarios o de otro orden que la presente ley otorga a estas entidades'.


3.- *Dena den, mailegu- eta aseguru-kooperatibek besteekiko dituzten eragiketetan, beren diru-jarduerari dagokion araudia dela eta ezarri beharreko baldintza eta mugak bete beharko dituzte.*

Gurean beraz, ez da 'ekintza kooperatibo' terminoa erabili ere egiten baina kontzeptuaren edukiarekin antzekotasun gehien daukana da kooperatibari hirugarrenekin operazioak burutzeko aukera eskaintzen dien artikulua. Artikulu hau ikusita badirudi salbuespena dela gurean ere hirugarrenekin operazioak burutzea, baina hau ez da horrela. Gure errealitatean nahiz eta kooperatibak bazkideen beharrak asetzeko egitura sozietarioak diren ohikoena da hirugarrenekin operazioak burutzea. Azken helburua gure kooperatibetan ere bazkideen beharrak asetzea da baina, enpresaren funtzionamenduak berak eraginda gaur helburu hori 'lausotu' egin dela esan daiteke. Kooperatibetako bazkideak orokorrean ez dute kooperatibaren nozio hori bereganatuta eta sarritan, norberarena ez balitz moduan jokatzeko dute. Euren bizitzeko premiak asetzen dituzte aurrerakinaren bidez baina, ez dute enpresaren erabakietan beharrezko pisua izatean. Urrun bizi ditu.

Bi kooperatiba legeek adierazten dute kooperatibak berez bere bazkideekin eta beste kooperatiba batzuekin egin behar dituela eragiketak, hala ere, errealitatean egoera bi herrialdeetan oso bestelakoa da. Euskadiren kasuan kooperatibak ohikoa dute eta -horri esker bizi dira-, hirugarrenekin merkaturatu jardutea. Eta kooperatibaren erregulazioa ez dute burutzen dituen eragiketek ardatzen baizik eta, izaera juridikoak berak, hots, kooperatiba izateak.

Brasilen bestelakoa da errealitatea¹³². Kooperatibak soilik lortuko du trataera berezitua ekintza kooperatiboak burutzen dituenean. Ez du trataera berezitua kooperatiba delako baizik eta, ekintza kooperatiboak burutzen dituelako. Ekintza kooperatiboaren araberako kontabilitatea eraman beharra daukate eta zerga erregimena ere horren araberakoa dute. Goazen eragile desberdinek ekintza kooperatiboa ikusteko duten modua ikustera Brasilen.

Marcelo Mauad UNISOL-eko aholkulariak Brasilen ekintza kooperatiboak duen garrantzia azpimarratu digu. Ekintza Kooperatiboa da kooperatibaren eta bazkidearen artean burututako ekintza. Hala ere, euren esanetan kontzeptua zabaltzea beharrezkoa da. Diote kooperatiba batean bi negozio existitzen direla: negozio bitartekoa (medio) eta helburu den negozioa (fin). Helburu den negozioa da bazkideari asistentzia ematea. Kooperatibak bazkideari asistentzia



¹³² PASTORINO, J. Teoría General del Acto Cooperativo. Intercoop. Buenos Aires. 1993

emateko beharrezko du baliabide horiek bilatzea edo lortzea. Eta hain zuzen ere hori lortzeko produktuak eta zerbitzuak merkatuan eskaini ahal izango ditu. Eurek beraz, negozio mota bi daudela ulertzen dute: bitarteko negozioa eta helburu den negozioa.

Helburu negozioa litzateke bazkideari asistentzia eskaintzea. Eta bitarteko negozioa berriz, produktuak eta zerbitzuak merkatuan eskaini ahal izatea. Honela soilik izango duelako aukera kooperatibak helburu den negozioa lortzeko. Estatuak ez du horrela pentsatzen. Estatuak badirudi soilik ulertzen duela 'ekintza kooperatiboa' dela helburu den negozio (edo negozio fin deitzen dena). Marceloren ustez, kooperatibak merkatuarekin negoziatzea jarduera arrunta da eta ondorioz, kasu hauetan kooperatibak trataera normala behar du izan. Merkatuko ekintzak, komunak diren neurrian zergak normal ordaintzea dagokie. Marceloren hitzetan erreparatuz esan daiteke ekintza kooperatiboa onartu arren, kontzeptua zabaltzea komeni dela. Euren ustez bitartekoak lortzea ezinbestekoa delako, baldin eta helburu den bazkideen beharrak asetzea lortu nahi baldin bada.

Badira 'ekintza kooperatiboa' pajeo (sic) bat dela uste dutenak ere. Ibrahim-en esanetan kooperatibak enpresen parean jartzea ezinbestekoa da. Enpresen funtzionamendua jarraitu beharra daukate eta gaur egungo errealitatean, sarritan, kooperatibak zigortu egiten dira. Zerga kontutan esate baterako bi aldiz ordaintzen dute kasu batzuetan zerga zehatz bat; batetik, bazkideak pertsona fisiko den heinean eta bestetik, kooperatibak pertsona juridiko den heinean¹³³. Enpresen trataera behar dute izan eta ekintza kooperatiboaren ideia albo batera laga behar da.

ANTEAG-etik berriz ekintza kooperatiboaren aldeko jarrera tinkoa adierazi dute. Nahiz eta hauen interpretazioan kooperatibaren objektu soziala aurrera eramateko lagungarri diren ekintza guztiak osatzen duten ekintza kooperatiboa. Reitorrek, argi du, zer sartzen den eta zer ez ekintza kooperatibo kontzeptuaren barnean. Bere esanetan jostunez osatutako Lan Elkartuko Kooperatiba batean jostea ez den bestelako edozein jarduera aurrera eraman ahal izateko kontratatatu ahal izango da bazkide ez dena, baina objektu soziala den ekintza oro



¹³³ Ez dugu zehatz-mehatz aztertu kooperatiben zerga eta kontabilitate sistema baina, dagoen hasmenak agerian usten du kooperatibak zigortuak direla kasu batzutan bikoitza delako zerga ordaintzeko daukaten justifikazioa.

burutzeko beharrezkoa izango da bazkideek burutzea. Bestalde kooperatibak bere produktua ekoizteko beharrezko duenean lehengairen bat erostea kooperatibatik kanpo, ekintza kooperatibotzat hartuko da. Kooperatibaren objektu soziala den produktua ekoizteko beharrezko delako lehengai hori erostea edo eskuratzea.

Esandakoaren haritik beraz, ekintza kooperatiboak soilik dauka kontabilitate eta zerga aldetiko trataera berezia, eta ekintza ez denean kooperatiboa tratamendu normala jasoko du. Ekintza kooperatiboak hainbat zerga ordaintzetik salbuetsita daude: tributu sozialak, bazkideari dagozkion kontribuzio sozialak....

Gauza bera gertatzen da kontabilitate irizpideekin ere. Kontabilitate arauak diote bereiztu beharra dagoela ekintza kooperatiboa, ekintza ez kooperatibotik. Enpresaren objektu soziala burutzen ari garenean ari gera ekintza kooperatiboa egiten. Baina ohiko jardueraz aparteko jarduera burutzen denean aparteko errezeta ari gara luzatzen, eta hori ez da ekintza kooperatiboa. Kooperatibaren 'causa' -ri erantzuteko beharrezkoa den ekintza da ekintza kooperatiboa. 2ko kostua izan duena 5ean saltzea, irabazi bat generatzea da eta hau ez denez bazkideen beharrak asetzeko, ekintza honekiko zerga ordaindu beharra dago.

ANTEAG-en garbi dute kooperatibak ez dutelako inolako pribilejiorik. Ekintza batek bazkidearen bidez ez bada kooperatibaren bidez ordaintzen du zerga. Beraz zerga beti ordaindu beharko du. Kooperatiba pertsonen sozietate bat denez, honek bazkideekin burutzen dituen ekintzak lehenesten dira.

OCB-ko Guilhermek ekintza kooperatiboari buruz hitz egiterakoan, latinoamerikako kooperatibismoaren ardatz gisa definitu du ekintza. Bere esanetan, Europan ez bezala, latinoamerikan, ekintza kooperatiboa da kooperatiboa zer den eta zer ez den finkatzeko dagoen adierazlea. Berak azaldu zigunez, Auzitegi Gorenak finkatutako jurisprudenziaren arabera, kooperatibarekiko tratamendua ez dago izaera sozietarioak markatuta baizik eta kooperatibak burutzen dituen ekintzak markatuta. Kooperatibak burutzen dituen ekintzetan helburua kapitalaren erremunerazioa denean, ez dago ekintza kooperatiborik. Ekintza kooperatiboa burutzen denean ez dago erretribuzio edo ordainik, beraz, ez dago errezetarik. Komisio merkantilaren ideiarekin omen du antza. Merkataritza komisioa eta ordezkariitza zibilaren arteko zerbait izan daiteke. Kooperatibak bere izenean jardun arren, ekintzaren erantzukizun eta ondorioak bazkideen gain erortzen dira. Hau beti ere bazkidea, bazkide erabiltzailea denean gertatuko da. Eragiketa batean argi ez badago kapitala erremuneratzen ala alderantziz, bazkidearen onura ari garen bilatzen, babes fiskala arriskuan jartzen dugu.

Guilhermek adierazi du Brasilgo konstituzioak ez duela soilik kooperatibei buruz hitz egiten, ekintza kooperatiboari buruz ere hitz egiten du. Ekintza beraz, arau konstituzionalean ere jasota azaltzen da. Bere esanetan, gaur egun Brasilen kooperatibismoa batzen duena ez da forma

sozietario kooperatiboa, baizik eta ekintza kooperatiboa. Kooperatibistek beti ekintza kooperatiboa begitantzen dute euren mundu kooperatiboa ikusterako orduan.

SENAES-ko Paul Singerren hausnarketatik ondorioztatu genuen, zaila gertatzen zaiela kooperatibei ekintza kooperatiboaren araberako kontabilitate bat zuzen eramatea. Ez dela eredu erraz bat. Eta azkena, gobernuan izandako eztabaidetan aurreikusita dutela eredu europarraren ezarpena. Azken finean, bazkideak ordaindu beharrean zerga sozietate kooperatiboak ordaintzea.

Esandakoa kontutan izanik, gure ustez ekintza kooperatiboa nahiz eta askorentzat kooperatibismoaren ardatz den, zaildu eta eragotzi egiten du kooperatibaren funtzionamendua. Merkatuan jarduteak gaur eskatzen duen arintasun eta malgutasuna kontutan hartuta esan genezake ez dela eraginkorra ekintza kooperatibaren jardunaren ardatz izatea. Eta gurean gertatzen den moduan egokiagoa izan daitekeela ekintzak barik, pertsona juridikoa bera izatea zerga ordaintzen duena.

Bestalde, eta bertakoen adierazpenak kontutan izanik, OCB da gogor ekintzaren alde egiten duena eta honetan ere bere helburu nagusia da Ekonomia Solidarioari eragozpen eta trabak ipintzea. Ekintza kooperatiboa, eskakizunak zurrundu eta zailtzen dituelako egiten dute berau malgutzeko proposamena. Honek, hala ere, ez du esanahi kooperatibek euren bereizgarriak galdu behar dituztenik eta beraz beharrezkoa da kooperatiben bereizgarrien inguruan hausnartzea.

'Ekintza kooperatiboak' ardatzen du trataera fiskala eta baita kontabilitatea ere; Ekonomia Solidarioko ekimenek ezin dute kontabilitate arauen jarraipen zorrotzik eraman zaila eta konplexua delako ezagutza eta aplikazioa ere. Aldiz, OCBren jarrera kontrakoa da. Hauen aburuz, zenbat eta burokrazia gehiago izan orduan da hobe (ikus 205 orria; kooperatibak eta administrazio betebeharrak) . Enpresa jarduerak justifikatzen du behar diren tramiteak aurrera eramatea. Ezin da arintasun eta erraztasunetan sartu. Enpresa jarduerak behar du seriotasun minimoarekin formaltasunarekin aurrera eraman. Sortu eta berehala desagertzen diren ekimenek ez dute kooperatiba izaera merezi elkarte edo sozietate sinple izaera baizik, beraz, ekintza kooperatiboaren araberako kontabilitate arauak zorrotzak izatea justifikatuta dago.

Ekintza kooperatiboa kooperatiben bereizgarria bada ere, formula egokia bilatu beharra dago. Ekintzaren esanahia zabaldu egin behar da, besteak beste gaur merkatu baldintzak eskatzen dutelako jarduera ekonomikoak aurrera egiteko hirugarrenekin jardutea. Aktibitate ekonomikoak behar du merkatuan jardun eta hirugarrenekin jardun eta beraz, ekintza kooperatiboa zabaldu.

Pertsona juridikoa izatea zerga eta kontabilitate tratamenduaren subjektu jasotzailea- gurean dagoen sistema- uste dugu dela egokiena Brasilgo kasuari begira. Hala ere azpimarratzekoa da

eurentzat daukan garrantzia; ekintza kooperatiboak sinbolizatzen du kooperatiben izateko arrazoia.

6.5. BAZKIDE MOTA BERRIEN SARRERA

Brasilgo legediak ez ditu aurreikusten gure kasuan jasotzen den eran, bazkide tipologia desberdinak. Hala ere, nahiz eta legeak jaso ez, eta nahiz eta tipologia definitu eta finkatu ez, bazkide motak onargarri izan badirela. Hau da, legeak kontrakorik jartzen ez duenez izan daitezkeela dirudi. Gure ustez bazkide mota desberdinak jasotzea lagungarri izan daiteke Brasilgo kasuan ere, proiektu kooperatiboa indartzeko. Bazkide erabiltzaile eta laguntzailearen sarrera interesgarria izan daiteke. Kooperatiban lan egiten dutenak betetzen duten funtzioa oso da garrantzitsua eta hauen jarrera aktiboak berebiziko garrantzia dauka ekimenaren etorkizunerako. Baina kooperatiban lana eskaintzen dutenez gain, kooperatibako zerbitzu erabiltzaileak edo produktu jasotzaileak ere, proiektuan inplikatzeko oso lagungarri izan daiteke proiektua indartzeko. Beraiek dira, bezero diren aldetik, euren ekarpenekin proiektuaren indartzean lagundu dezaketenak. Horretaz gain, balio lezake baita, bezeroen leialtasuna indartzeko; azken batean, beraiek proiektuko parte egiten baditugu errazagoa izango da zerbitzu edo produktuen bila kooperatibara jotzea.

Bestalde, bazkide laguntzailearen figura ere proiektu kooperatiboa indartzeko elementu izan daiteke. Gertatu ohi da, badirela erakundeak, kooperatibako produktu jasotzaile edo zerbitzu erabiltzaile ez izan arren ere proiektuari lagundu nahi diotenak, hauek ere beraien partehartzea izatea kooperatiban inportantea da. Kasu honetan kooperatiban izango duten ekarpena txikiagoa izango da, baina honek ere finantziario iturri izateaz gain, balio lezake inguruko enpresa, bestelako erakunde (pertsone juridikoak) edo baita interesgarri izan daitezkeen pertsona fisikoak ere proiektuko parte izan daitezen.

Brasilgo errealitateari gagozkiolarik, esan behar da, egindako elkarrizketatan askok konfiantzarik ez dutela erakusten figura honekiko. Bazkide laguntzailea akziodun gisa ikusi ohi dute eta hori dela eta, bazkide laguntzailea proiektuz kanpoko elementu moduan bizi dute. Burututako ekarpenak proiektuan erabaki ahalmen handia ematearen beldur dira eta 'intromisio' bat bailitzan bizi dute legeak figura hau xertatzearen aukera. Orain arteko ibilbideak eragindako beldurra izanik, une honetan gainditu ahal den eragozpena dela uste dugu eta ondorioz,


bazkide laguntzaile eta erabiltzaile figurak legeak bere gain hartzea aukera bat izan daitekeela uste dugu¹³⁴.

Arrasateko Kooperatiba Esperientziak bazkide mota desberdinak elkarrekin harremanetan sartuz lortu du gaur duen solidaritate eta elkarrekiko laguntza eta hori izanik proiektuaren indargu-netako bat, Ekonomia Solidarioko ekimen desberdinak ere elkarrekin sareak osatzea, indar-gune izan daitekeela uste dut. Beti ere, kontutan hartu beharko litzateke proiektu bakoitzaren bereizgarri eta ezaugarri nagusiak zein diren eta horren arabera, kooperatibetako erabakigunetan bazkide mota bakoitzari eman beharreko botere kuota ongi aztertu ondoren banatu. Ongi neurtuz proiektu kooperatiboan beharrean daudenek duten erabaki ahalmena, negozioari lagundu nahi diotenen erabaki ahalmena eta baita kooperatibako zerbitzu erabiltzaile eta produktu erosle edo kontsumitzaile direnen erabaki ahalmena zein izan behar den. Azkenik esan, bazkide guztiek duten izaera dutelarik ere, oso garbi izan behar dutela denak daudela, bakoitza bere lekutik, interes komunen zerbitzura dagoen proiektuari laguntzeko prest.

'Interkooperazioa' da ahaztu ezin daitekeen beste elementua. Ekonomia Solidarioko ekimenek elkarrekin harremanetan sartuz eta bata bestearen proiektuan parte hartuz lortuko dute elkarren premiak asetzea. Bazkide mota desberdinen erabilera da inter-kooperazioa gauzatzeko tresnarik onena.

BKL-ak bere 29 artikuluan du jasota bazkideei buruzko erregulazioa:

'O ingresso nas cooperativas é livre a todos que desejarem os serviços prestados pela sociedade, desde que adiram aos propósitos sociais e preenchem as condicoes estabelecidas no estatuto, ressalvado o disposto no artigo 4º, item I, desta Lei.



¹³⁴ Gurean ere gertatzen da. Bigarren mailako kooperatibetan gehiengoa bazkide laguntzaile eta erabiltzaileek dutenean ere lan bazkideek intromisioa bizi izaten dute. Hau ematen da kooperatiba bazkideak inbertsioa egin dutenean eta horren ordainez kooperatiban erabaki ahalmen gehiengoa mantentzen dutenean. Bigarren mailako kooperatibako erabaki ahalmen nagusia inbertsioa egiten duten eta kooperatiba horren zerbitzu jasotzaile nagusi diren bazkide laguntzaileen esku izaten da. Honela, lan bazkideek ez dute kooperatibaren gainean erabakimenik eta honek, bazkide laguntzaile (inbertsiogile eta zerbitzu jasotzaile direnak) figura 'intromisio' moduan bizi dute.

1º A admissao dos associados poderá ser restrita, a criterio do órgão normativo respectivo, ás pessoas que exerçam determinada atividade ou profissao, ou estejam vinculadas a determinad entidade.

2º Poderao ingressar nas cooperativas de pesca e nas constituídas por produtores rurais ou extrativistas, as pessoas jurídicas que pratiquem as mesmas atividades economicas das pessoas físicas associadas'

3º Nas cooperativas de eletrificação, irrigação e telecomunicações, poderao ingressar as pessoas jurídicas que se localizem na respectiva área de operações.

4º Nao poderao ingressar no quadro das cooperativas os agentes de comércio e empresários que operem no mesmo campo económico da sociedade.

Brasilgo kasuan legeak ez du bazkideen arteko bereizketarik egiten. Kooperatiban bazkide denak izaera bakarra du eta ez du beraz legeak aurreikusten interes eta ekarpen desberdineko bazkiderik kooperatiban. Legeak egiten duena da pertsona juridikoak bazkide noiz izan daitezkeen finkatu. Eta orokorrean esan genezake pertsona juridikoak kooperatibako bazkide izateko aukera izango dutela jarduera berean aritzen direnean. Gurean orain ikusiko dugun moduan lau dira kooperatibako proiektuan parte har dezaketen bazkide motak.

EKL-a hasten da bazkideak erregulatzen bere 19 artikuluan, eta honela dio:

19. atala.- Bazkide izan daitezkeen pertsonak

1.- Lehen mailako kooperatibetako bazkide, pertsona fisiko zein juridikoak, publiko nahiz pribatuak izan daitezke, beti ere lege honetako II. idazpuruan ezarritako salbuespenak kontuan izanda.

Bigarren edo geroagoko mailaren bateko kooperatibei dagokienez, 128.1 atalean erabakitakoa beteko da.

Sortzen diren unean, lehen mailako kooperatibetan gutxienez bost bazkide izan beharko dira. Bigarren edo geroagoko mailaren bateko kooperatibek beren bazkide sortzaileen artean gutxienez bi kooperatiba-elkarte izan beharko dituzte.

2.- Pertsona fisiko edo juridikoek, publiko zein pribatuek, elkartearen kooperatiba-xedea bete-betea aurrera eramaterik izan gabe ere, xede horri laguntzea nahi badute, bazkide izateko aukera izango dute, eta laguntza-bidezko bazkide deituko zaie. Beren eskubide eta bete-beharrak elkartearen estatutuetan erabakitakoaren arabera arautuko dira, eta, hor oharteman gabekoetan, aldean artean hitzartutakoaren bidez. Bazkide hauek, kooperatiba-elkarteak ez

badira behintzat, ezin izango dute, guztira, botoen herena baino gehiago izan ez Batzar Orokorrean ez Artezkaritza-kontseiluan.

3.- Lege-nortasuna duten herri-erakundeek ere bazkide izateko aukera izango dute, kooperatibaren helburuak herri-erakunde horienak diren zerbitzu-eskaintza edo jarduerekin zerikusia dutenak baldin badira. Dena den, eginkizun horiek herri-agintarien agintea erabili beharra eskatzen ez dutenak izan beharko dute.

Bazkide laguntzailea da artikulu honetan jasotzen dena eta bazkide mota honek ere izan du garrantzia gure errealitate kooperatiboan. Nahiz eta kooperatibako objektu soziala zuzenean aurrera ez eraman, laguntza eskaini duenaren figura litzake bazkide laguntzailearena. Hauen parte hartzeak badu muga bat. Ezin dute botoen herena baino gehiago izan. Muga honekin beraz lortzen da bazkide laguntzaileen erabaki ahalmena mugatzea. Proiektuari era batean edo bestean lagundu nahi dutenak ekarpen handia egin diezaizkete kooperatibari baina, beti euren erabaki ahalmena neurtuz.

Bazkide laguntzailearen figura bestalde oso baliagarria da kooperatiba taldeak sortzerako orduan. Kooperatiben garapenean gero eta behar finantzario handiagoak izaten dira ekimenak martxan jarri edo garatzeko eta horretarako oso baliagarri gertatzen da bazkide laguntzailearen figura, taldeak eta sareak sortu eta bata bestea babestu eta laguntzeko.

Lan Elkartuko kooperatiba askok jaso dute bazkide laguntzaileen laguntza ekonomikoa, bai kapital sozialean eta baita oro har, jarduera ekonomikoan. Bazkide laguntzaile hauek sarritan kooperatiba izaten dira eta Lan Elkartuko kooperatiban izaten duten botere kuotak bazkide 'tipikoen' soberania murriztea suposatzen du. Soberaniaren murrizpena, kooperatibak jasotzen duen onurak orekatu edo konpentsatu egiten duela esan genezake.

Beste bazkide mota bat da lan bazkidea edo bazkide langilea eta hau da oro har, kooperatibetan pisu gehien duen bazkide mota. EKL-ko 21 arikuluan jasotzen da bazkide mota honen gaineko erregulazioa:

21. atala.- Lan-bazkideak

1.- Lankide-kooperatibak ez diren lehen mailako kooperatiben nahiz bigarren edo geroagoko mailako batekoen estatutuetan, langileek lan-bazkide izatera iristeko bete beharreko baldintzak zein diren oharteman ahal izango da. Lan-bazkideon kooperatiba-jarduera beren lana kooperatiban egitea izango da.

2.- Lan-bazkideek legean lankide-kooperatibetako lankide-bazkideentzat ezarritako arauak bete beharko dituzte, atal honetan finkatutako salbuespenak kontuan hartu beharko badira ere.

3.- Lan-bazkideek kooperatiban bidezkitasunez eta neurri batzuen barruan parte hartzeko irizpideak finkatu beharko dira estatutuetan.

Lan bazkideak dira printzipioz kooperatiban inplikazio maila altuena izan beharko luketenak, azken batean, euren lan beharra asetzen baitute kooperatiban¹³⁵. Euren lan ekarpena egiten dute eta trukean kooperatibak izandako irabazien aurrerakina jasotzen dute dirutan. Aurrez aipatu izan dugun moduan, Brasilen kooperatibako lan bazkideen lan erregimenaren egoera izan da kooperatiben erabilera okerra ahalbidetu duena. Kooperatibako lan bazkideek izan duten egoera laboralak ahalbidetu du kooperatibak tresna bilakatzea. Erantzukizun sozialei ihes egin zaie formatu kooperatiboak aukera eskaintzen duelako Brasilen. Beharrezkoa da gutxieneko batzuk legez lotzea kooperatibaren erabilera okerra eman ez dadin eta hori baino gehiago, langile eta enpresari direnak lan baldintza duinak izan ditzatela bermatu behar da.

Bada lan bazkideetan figura berri bat. Iraupen jakineko lan bazkidea, Kooperatiben legea aldatu zuen 1/2000 legea, 26.2 artikulua honela aldatu zuena:

Bazkidea epe-mugarik gabe izango da kooperatiban. Halere, estatutuetan horretarako aukera ageri bada eta langilea onartzean hala zehaztu bazen, enpresarekiko harremana iraupen jakinekoa izan liteke. Halako loturen berezko eskubide eta betebeharrak gainerako bazkideenen baliokide izango dira eta estatutuetan arautuko. Halako bazkideak ez dira izango inola ere kasuko motak behin betiko bazkideen bostena baino gehiago, ez eta mota horretakoek Batzar Orokorrean dituzten botoen bostena baino gehiago ere. Lan elkartuko kooperatiben kasuan, edo halakoak ez izan arren lan-bazkideak dituztenen kasuan, gainditu ahal izango da bostenaren muga, baina iraupen jakineko bazkideek eta inoren konturako langileek batera egindako urteko lan-orduen kopurua ezin izango da inola ere iritsi bazkide langileek edo epe jakinik gabeko lan-bazkideek egindako urteko lan-orduen kopuru osoaren ehuneko 50era. Iraupen jakineko bazkidetza-kontratuen titularrak diren bazkide langileek edo lan-bazkideekegoera horretan hiru urteko aldi bat biltzen badute, iraupen mugagabeko bazkide-izaera hartzeko aukera edukiko dute, eta aldi hori bost urtekoabada, edozein kasutan hartuko dute izaera hori. Horretarako, iraupen mugagabeko bazkideentzat estatutuek ezarritako beste betekizunak bete beharko dituzte.



¹³⁵ Lanaren subiranotasun printzipiotik zuzenean eratortzen da, lanari erabaki ahalmena eman eta bazkideraren inplikazioa lortu.

Iraupen jakineko bazkidearen figura sartu zenean, nahiko figura gatazkatsua izan zen. Legeak gutxi arautzen zuen figura eta erabilera okerra egiteko aukerak zabalik geratzen zirenalako beldurra zegoen. Gerora ikusi ahal izan da, erabilpen egokia eginez gero figura egokia izan daitekeela. Ohiko lan harremanetik bazkide izateko iraganbidea egiteko tresna da. Beti ere erabilera egokia eginez.

Hirugarren bazkide mota bat jardunik gabeko bazkideena da eta EKL-ak bere 30 artikuluan du araututa.

30. atala.- Jardunik gabeko bazkideak edo erabiltzaile ez direnak

1.- Bidezko arrazoiren bat izan eta estatutuetan ezarritako gutxieneko antzinatasuna izanik, kooperatibak eskaintzen dituen zerbitzuez baliatzeari utzi edo kooperatibako jarduerarik burutzen ez duten bazkideek bazkide izaten jarrai dezatela baimentzea oharteman ahal izango da kooperatibaren estatutuetan.

2.- Bazkideok estatutuetan ezarritakoaren ondoriozko eskubide eta betebeharrak izango dituzte, baina haien botoak ezin izango dira elkarteko boto guztien bostena baino gehiago izan.

3.- Jarduerarik ez burutzea bazkidea erretiratuta egotearen ondorioa balitz, beronek baltzu-kapitalean egindako ekarpenari dagokion interesa lanean diharduten bazkideei dagokiena baino handiagoa izan ahalko da, baina 60. atalean ezarritako muga errespetatu beharko da.

Jardunik gabeko bazkidearen figura interesgarria izan da bere garaian kooperatibako kide izan direnak lotura mantentzen jarrai dezaten. Sarritan aurkitzen dira kooperatibaren alde bai lana eskainiaz edo bai bazkide laguntzaile figuraren bidez lan handia egin eta lotura sozietarioa mantentzeko interesa duten kideak. Kasu hauetan harreman sozietarioa indarrean mantentzeko balio du bazkide mota honek.

Laugarren bazkide mota dugu bazkide erabiltzailearena. Hauek lirateke kooperatibako zerbitzuak edo produktuak erabiltzen dituztenak eta kooperatiban parte hartu nahi dutenak. Kontsumo Kooperatibak arautzen diren atalean dugu jasota bazkide mota honen erregulazioa, EKL-ko 105 artikuluan.

Kontsumo-kooperatibak

105. atala.- Elkartearen helburua eta egitekoak

1.- Kontsumo-kooperatiben xedea ondasun nahiz zerbitzuak eskaintzea da bazkideei eta beraiekin bizi direnei, baita kontsumitzaile eta erabiltzaileen bidezko eskubide eta interesen

alde agertzea ere. Pertsona fisikoak eta azkenengo hartzaile izaeradun erakundeak edo antolakundeak izan daitezke horrelako kooperatiben bazkide.

Bazkide erabiltzailearen figurak ere kooperatibetako parte hartze anitza ahalbidetzen lagundu izan du. Kooperatibako zerbitzu edo produktuak jasotzen dituen proiektuko kide egitea ere interesgarria izan da proiektua sendotzeko. Sarritan kooperatibako bezero onenak leial bihurtzeko edo beste hornitzaile batengana ez joateko baliatu izan da bazkidetza mota hau. Bezero ona proiektuan sartzeara eta bere leialtasuna bermatzea lortuz.

Legeak gurean zela jasota daukan ikusi ondoren goazen Brasilen burututako elkarrizketetako emaitzetatik ateratakoa aztertzea. Bazkide mota desberdinak legean sartzearen inguruan honako erantzunak jaso genituen:

Hasiko gera OCBren jarrera zein den aipatzen. Bi izan dira OCB-ren baitan aurkitu ditugun jarrerak. Sao Pauloko OCB-ko Superintendente Juridikoaren esanetan bazkideen artean bereizketa egiteko debekuak baditu hainbat eragozpen. Adibide bat jartzearen esne ekoizle handien eta txikien artean ezin denez bereizketarik egin eskubide eta obligazioei dagokienean, honek eragiten du kooperatibatik irteteko joera egotea. Eta honen aurrean aukera moduan proposatzen du bazkideak mailakatzea: A mailako bazkideak, B mailakoak eta C mailakoak. Eta aukera ematea ekoizle handi, ertain eta txikiak mailakatzeko¹³⁶.

Bestalde Guilhermeren esanetan, nahiz eta gaur legeak debeku hori izan bazkide moten sarrera aztertzearen aldekoa da baldin eta ez badu hirugarren batek kooperatiba kapitalizatzen formula honen eskutik.

Marcelo Mauad-ek, UNISOL-tik, printzipioz ideia ona dela adierazi digun arren, bere zalantza adierazten du, interes desberdinak dituzten bazkideak kooperatibako protagonista egitearen inguruan. Bere ustez, kooperatibak aurrera egiteko zailtasunak izan ditzake hainbat kasutan,



¹³⁶ Gure bazkide tipologiak ez du helburu moduan bazkideak sailkatzea bakoitzaren pisu espezifikoaren arabera baizik eta interesen arabera. Ez lehenetsi edo indar mailaketa egin interes berekoen artean baizik eta interes guneak sailkatzea, erabiltzaile, laguntzaile eta lan egiten dutenak. Zerbitzuak erabiltzea, proiektua laguntzea eta lan ekarpena egitea ordainetan aurrerakina jasotzeko.

erabakia hartzeko eskubidedunak interes desberdinak dituzten neurrian. Azkenik, gai honen inguruan hausnartu ez duten arren, gaia aztertzea onuragarria dela uste dute.

MCC-ko delegatua den Ibrahim-ek ongi ikusten du bazkide mota desberdinak Brasileran ekartzea, hala ere, bi dira berak azpimarratzen dituen bazkide motak lan bazkidearena eta bazkide erabiltzailearena. Bere esanetan bazkide laguntzaileak sortzen du nolabaiteko mesfidantza puntu bat. Erlazionatzen da akziodun figurarekin.

Interesgarria dela uste du baita ANTEAG-eko Reitorrek eta honela adierazi du izandako elkarrizketan:

‘ Lan bazkideak erabiltzen du kooperatiba bere lan ekarpena egiteko eta bazkide erabiltzaileak kooperatibaren bidez bere produktu eta zerbitzu beharrak asetzen ditu orduan? Gure kasuan hau egiteko modua da bi kooperatiba mota sortuz: kontsumo eta lan elkartuko kooperatibak. Edo agian kooperatiba mistoaren bidez. Bada gu sortzen ari garen kooperatiba bat eta orain ari gera estatutu sozialak idazten eta bertan daude produktoreak (euren produktua kooperatibari eskaintzen diotenak), eta badira produktua eraldatzen dutenak eta bertako langile izanik lan bazkide direnak. Eta baita soberakinak konpostaia bidez eraldatzen dutenak ere. Honela produktorea bazkide da eta erabiltzen du kooperatiba produktua komertzializatzeko eta langilea ere bazkide da eta kooperatiban bere lana eskaintzen du.

Gure ikuspegitik oso inportantea da langileak izatea erabaki ahalmena. Brasilen zuen eredia ezartzeko eragozpenak izango genituzke batez ere arrazoi kulturalak direla-eta. Langileen prestakuntza maila ere eragozpen litzateke. Langileak botere eta ahalmen gehiago dutenen menpe egongo liriateke eta hori ez da onargarria. Gure beldurra da irudikatzea posizio ahulean dagoen langile bat, zer eta inbertsio handi bat egin duen bazkide laguntzailearen menpe. Normalean Brasilen bazkide laguntzailea ez da gustuko figura bat; beraz inbertsiogile gisa ikusten da. Arrisku moduan eta beldurretik bizi da norbaitek dirua ipintzea eta beraz izatea bazkide-langile denaren gainetik aginduak ematen dituena. Ez hori bakarrik. Badira kooperatibak zeinetan langileak ez duten bazkide izan nahi. Enplegatu izatea erosoagoa da eurentzat eta bazkide izanik galtzen dituzten abantailak dituzte gainera inoren konturako langile izanik. Patroi baten beharra dutela ere esan genezake ’.

ANTEAG-entzako ikus daitekeenez langilearen perfila da kontutan hartu beharreko ezaugarria. Euren beldurra langilearen izaera eta ibilbide historikoan oinarrituta dago. Langileen prestakuntza eta autoestima zaintzea du helburu ANTEAG-ek eta bazkide laguntzailea helburu hori eragoztera etor daitekeen elementu gisa ikusten dute. Konfiantza falta hau aurretik ere azaleratu den arren, ANTEAG-ek indar gehiagorekin azpimarratu du.

UFDRko bi ikasleen iritziak datoz ondoren; biak ere norabide berean.

D ikaslea, ' Interesgarria da baina, gurean bazkide mota hauek sartu aurretik prozesu bat pasa beharra dagoela uste dugu. Hala ere, gurean zein izango litzake laguntzaile eta zein erabiltzaile? Ba seguruenik kapitaletik gertuen daudenak. Eurak dirua ipiniko lukete eta trukean erabaki ahalmena eskatuko lukete. Etorkizunean Ekonomia Solidarioa indartzen bada aukera hau jorratu daitekeela uste dugu, baina gaur gaurkoz arrisku bizia dagoela uste dugu '.

C ikaslea, ' Interesgarria da baina gure kasuan ez da halakorik legeak ez duelako aurreikusten. Uste dut figura hau oso baliagarria izan daitekeela MSTko kooperatibetan. Asko indartuko lirateke. Hala ere zalantza daukat hau dagoeneko mugimenduak ez ote duen aurrera eramaten '.

Hemen ere ideia bera izan da. Kanpoko esku hartzearen beldurra nagusi da, nahiz eta interesgarria izan daitekeela uste duten. MST moduko mugimendu batentzat bereziki onuragarria izan daitekeela ere aitortzen dute.

SENAES-ko kideen ustez ere ideia interesgarria da eta batez ere, Ekonomia Solidarioko ekimenak elkarrekin harremanetan sartu eta sareak sortuz indartzeko balio lezakeela uste dute. Bazkideen gaiarekin lotuta bi gai nahasten dira: batetik, interkooperazioa gauzatzeko aukera eta bestetik, kooperatibetan kapitalari sarbidea emateko bidea.

José Brendanek, Paraíbako Unibertsitate Federaleko soziologoaren, berbak sartuko ditugu, berak nahiko azalpen sakona eta garatua eskaini zigulako.

'Bazkide laguntzailearen figurak badu abantaila handi bat, besteak beste, kooperatiban kapitala sartzeko aukera ahalbidetzen du. Baina badu balizko desabantaila bat ere: nahiz eta bazkide laguntzaileak lan bazkideak legez boto bakarra izan batzar orokorrean, praktikan, kooperatibako erabakietan eragin edo ahalmen handiagoa izateko aukera duela iruditzen zaigu. Eta honek kooperatibako demokrazia konprometitu dezake.

Bazkide erabiltzaileari dagokionean berriz, eta gaizki ulertu ez badut hau da, kooperatibako zerbitzu eta ondasunak kontsumitu eta bazkide dena, ala? Adibide bat jarritz; osasun zerbitzuak eskaintzen dituen kooperatiba batek dituen 'bezeroak'bazkide izango lirateke zuen legediaren arabera baina ez Brasilgo legediaren arabera. Nik uste dut kasu honetan bezeroak ez luketela zuzenean parte hartzeko eskubiderik izan behar, bestela sendagileak baino gehiago aginduko lukete eta azken finean, sendagileak dira beharginak. Hori pentsatu arren, kooperatibako batzarrean entzule (ombudsmans) bat,

bi edo hiru izateko aukera egon daitekeela, zeren eta batzarrak erantzungo ez balitu kontsumitzaileen interesak entzule hauen bidez, kooperatiba erabiltzaileak galtzen hasiko litzake (bezeroak).

Bazkideek betetzen duten funtzioa agian kooperatiba desberdinek hitzarmenak adostuz ere lor daiteke. Hitzarmena eta aipatu dugun entzule figura sartuz.'

Eta azkenik daukagu, Carlos Mares Banco de Desenvolvimento do Extremo Sul (BRDE)-ko Zuzendaria eta bere ustez, bazkide laguntzaileak eta erabiltzaileak onartu daitezke baina soilik ingurumari berezi batzutan; eta beti ere, langileak ere bazkide direnean eta hauei pisu gehiena emanaz.

Esandako guztia kontutan izanik, bazkide motak legean sartzeari egokia da, nahiz eta bertako errealitatea ezagututa egokitze fase bat behar izan. Errealitate kooperatiboak izandako ibilbideak kooperatibaz kanpoko edozein injerentziaren beldur direla ikusi da, eta ondorioz, bazkideen ezarpenak poliki etorri beharko du. Batez ere bazkide laguntzaileak sortzen du mesfidantza handiena eta bera da 'akziodun' gisa ikusten den elementua.

Kooperatiben arteko interkooperazioa bultzatzeko tresna garrantzitsua da eta baita proiektu kooperatibo bakoitza indartzeko elementu eraginkorra ere. Azkenik azpimarratu behar dugu, bazkide moten gain jasotako erantzunak linea berean etorri direla eta gai honen inguruan ez daudela bi jarrera, galdetutako guztiek beldur eta kezka berberekin erantzun dute.

6.6. KOOPERATIBA MOTAK

Kooperatiba sailkapenean orokorrean ez dago alde handirik lege batek eta besteak esaten duenaren inguruan. Bitariko kooperatiba edo mistoak du alde handiena. BKL-aren arabera mistoa da objektu bat baino gehiago dituen kooperatiba. Eta EKL-aren araudian berriz, bitariko kooperatibak osaketa bikoitza dutenak dira. Kooperatibaren % 51a kooperatiba eran antolatzen da eta beste % 49a berriz, akzioka.

BKL-ak bere 5 artikuluan arautzen du kooperatiben sailkapena:

' A sociedades cooperativas poderão adotar por objeto qualquer gênero de serviço, operação ou atividade, assegurando-se-lhes o direito exclusivo e exigindo-se-lhes a obrigação do uso da expressão "cooperativa" em sua denominação.

Parágrafo único. É vedado às cooperativas o uso da expressão "Banco".

Legeak ez du inolako mugarik jartzen kooperatibak eduki ahal izango dituen objektuen inguruan. Ez dago beraz inolako mugarik kooperatibak joratu ahal dituen esparruen inguruan.

BKL legeak honako sailkapena egiten du:

‘Singularrak’: gutxienez 20 kidek osatutako kooperatibak dira. Salbuespen egoeratan pertsona juridikoen partizipazioa onartuko da, beti ere, pertsona fisikoen jarduera berdinak badituzte eta irabazi asmorik gabekoak badira. Kooperatiba singularrak bazkideei zerbitzuak zuzenean eskaintzen dizkiete.

Kooperatiba ‘zentralak edo federazioak’, gutxienez hiru kooperatiba singularrez osatuta egongo dira. Mota berekoak ala desberdinak izan daitezke. Hauek batez ere, bazkide diren kooperatibentzako laguntza teknikoa koordinatzen dute. Normalean kooperatiben interes komuneko zerbitzuak eskaintzeko dago baimenduta kooperatiba zentralak sortzea.

Kooperatiben ‘konfederazioak’, gutxienez hiru federazio edo kooperatiba zentralek osatuta. Mota berekoak ala desberdinak izan daitezke. Kooperatiba filialen jarduerak orientatu eta koordinatuko dituzte, beti ere, zentralen edo federazioen esparrua gainditzen denean.

Badago kooperatibak sailkatzeko beste aukera bat ere. Kooperatibak duten objektuaren arabera edo burutzen dituzten operazioen arabera ere sailkatu daitezke. Kasu honetan kooperatibak objektu bat baino gehiago burutzen dituztenean, kooperatiba mistoak direla esango da. EKL-n ‘bitariko’ edo misto deitzen dira kooperatibaren zati bat (%49 gehienez) akzioka osatuta dagoenean.

Erantzukizunari dagokionez ere bi motatako kooperatibak daude. Erantzukizuna mugatua duten kooperatibak; ezarritako kapitalera mugatutako erantzukizuna. Erantzukizun mugagabea duten kooperatibak; bazkideen erantzukizuna pertsonala, solidarioa eta muga gabekoa denean.

EKL hasten da 98 artikuluan kooperatiba motak sailkatzen. Oso desberdina da bi legeek duten kooperatibak sailkatzeko modua. Gurean sailkapenak mota bakoitza oso ongi definitzeaz gain, bakoitzaren berezitasunak jasotzen ditu. Jarduera edo objektuaren araberako sailkapena egiten du eta honen arabera jasotzen dira: lan elkartuko kooperatibak, kontsumo kooperatibak, irakaskuntza kooperatibak, nekazaritza kooperatibak, ustiapen komunitarioko kooperatibak, etxebizitza kooperatibak, finantza kooperatibak, osasun kooperatibak, zerbitzu kooperatibak, eta integrazio sozialerako kooperatibak. Sailkapena ez da itxia eta posible da kooperatiba mota berriak sortzea ere.

Ondoren beste sailkapen bat egiten du legeak, baina hau maila desberdinetan oinarrituta batetik, eta bestetik, bestelako egitura kooperatiboak jasoaz; bigarren mailako kooperatibak, enpresa agrupazioak, korporazio kooperatiboak, talde kooperatiboak, ...

Aipamen bat merezi dute bigarren mailako kooperatibak. Mota hau erabili izan da kooperatibek dituzten hainbat premia zentralizatzeko, eta honela zerbitzuak optimizatzeko. BKL-ak federazio izenpean arautu ditu gurean bigarren mailako kooperatiba izenarekin arautu direnak. Izen desberdina izan arren biak izaera berdina dute; lehen mailako edo kooperatiba singularrez osatutako bigarren mailako elkarketa egitea, honela kooperatiben arteko harremanak indartu eta elkarri laguntza emateko.

Lei 5.764/71-ko 6 artikulua:

As sociedades cooperativas sao consideradas:

- I- singulares, as constituídas pelo número mínimo de 20 (vinte) pessoas físicas, sendo excepcionalmente permitida a admissao de pessoas jurídicas que tenham por objeto as mesmas ou correlatas atividades económicas das pessoas físicas ou, ainda, aquelas sem fins lucrativos;*
- II- cooperativas centrais ou federações de cooperativas, as constituídas de, no mínimo, 3 (tres) singulares, podendo, excepcionalmente, admitir associados individuais;*

[...]

Bitariko kooperatibari buruzko aipamen berezia egingo dugu besteak beste, kooperatiba mota hau delako bereizgarri aipagarriak dituen kooperatiba mota. EKLko 136 artikuluan arautzen dira bitariko kooperatibak, eta honela dio artikulua:

136. atala.- Bitariko kooperatibak

1.- Bitariko kooperatibak gutxiengoko bazkideak dituztenak dira. Azken horiek Batzar Orokorrean izango duten boto-eskubidea, eskusiboki edo batez ere, emandako kapitalaren arabera zehaztu ahal izango da. Balore-merkatua arautzen duten legeen menpe dauden titulu edo kontu-idazpenetan agertuko da kapitala.

2.- Horrelako kooperatibetan, Batzar Orokorreko boto-eskubidea honako banaketa honen arabera izango da:

a) Boto guztien ehuneko berrogeita hamaika gutxienez bazkide kooperatzaileei emango zaie, estatutuek zehaztu dezaten heinean.

b) Boto guztien ehuneko berrogeita bederatzi gehienez, eta hori estatutuetan zehaztuko da, botoa emateko eskubidea duten alderdien artean banatuko da, eta estatutuek hala onartzen badute, botoak merkatuan negoziatzeko modukoak izango dira.

3.- *Botoa emateko eskubidea duten alderdien kasuan, bai titularren eskubideak eta betebeharrak, bai ekarpenen jaurpidea, estatutuetan arautuko dira eta, ordezkoko gisan, akziokako baltzuei buruzko legeetan akzioetarako ezarritakoan.*


Kooperatiba mota hau figura nahiko eztabaidatua dela, eta izan dela, esan genezake. Egokia izan daiteke bitariko kooperatiba batez ere, MCC-k Brasilen dituen planta edo filialak kooperatiba formula hartu ahal izateko. Bitariko kooperatibak aukera ematen du kapitalaren zati bat akziotan banatuta dagoelako, erabaki gune nagusia inbertsioa egin duen kooperatibaren esku mantentzeko. Brasilgo legedi kooperatiboan figura hau sartzea ona izan daiteke aipatu berri duguna ahalbidetzeko, baina gerta daiteke Ekonomia Solidarioa ordezkatzeko duen sektoreak ez begi onez ikustea; neurri batean, kapital enpresen eta kooperatibaren arteko nahasketa ere badelako.

Kooperatiben sailkapenari dagokionez beraz, oro har, esan genezake: EKL-n objektuaren edo jardueraren araberako sailkapena zehatzago egiten duela, eta mota bakoitzari dagokion atala, berezitasunak kontutan izanik, nahiko zehatz garatzen duela.

Bestalde, bigarren mailako kooperatiba figuraren gabezia azpimarratu beharko litzake. Kooperatiba txikien kasuan, hainbat zerbitzu zentralizatuta izatea kooperatiba desberdinen artean, ona izan daiteke kooperatiben garapenari begira. Honela figura hau jasotzea interesgarria izan daiteke.

‘Interes sozialeko’ kooperatibak ere aukera eskaintzen diote euskal kooperatibismoari izaera zehatz bateko kooperatibak bereziki babesteko¹³⁷. Betetzen duten funtzio soziala kontutan izanda legeak tratamendu berezia emanaz nolabaiteko babes gehitu bat dute.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoak bere gain hartzen dute jarduera kooperatiboei laguntzeko konpromisoa besteak beste, ‘interes sozialeko’ ak direlako. Botere publikoak zerbitzu publikoak hobetzeko helburuarekin beraz, kooperatibak sortzea bultzatuko dute.



¹³⁷ Decreto 61/2000, de 4 de abril, por el que se regulan las Cooperativas de Iniciativa Social.

Eusko Jaurlaritzak eskatuko du Kooperatiben Goren Kontseiluaren laguntza jarduera kooperatiboaren inguruan. Sistema kooperatiboaren inguruan informazio eta formazioa landu eta hedatzeari begira.

Kooperatiba mota desberdinen arteko aldea zein den azaldu ondoren, bitariko kooperatiban oinarrituko ditugu ondorengo lerroak.

Kooperatibaren zati bat akziotan banatuta izateak kooperatiben filosofiari dagokionez hainbat kritika jaso ditzake, azken batean kooperatibarenak diren printzipio eta baloreak sozietate mota honetan, zati batean bada ere, ez dira indarrean egongo. Nahiko figura berria denez, ez dira oraindik guztiz argitu bitariko kooperatibaren funtzionamenduan sor daitezkeen kezka eta zalantzak.

Akzioak aukera eskaintzen diote enpresa proiektuari bestela nahiko arazo dituen ekimenari finantziario eta kapital sarketak ahalbidetzeko. Finantziarioa lortzea da beraz, arrazoietako bat. Bigarren arrazoi bat boterea edo erabaki ahalmena kontrolatu ahal izatea da. Akzioak eskuratzen dituen pertsona fisiko zein juridikoak bere erabaki ahalmena mantentzeko aukera dauka. Akzioak ez dute soilik ongi doan ekimenean irabazien banaketan parte hartzeko aukera eskaintzen, honetaz gain, akzio gehien dituenak beti izango du erabaki ahalmena bere esku.

Ondorengo lerroetan, Brasilen izandako elkarrizketetan ikusi ahal izango dugun moduan, bitariko figuraren inguruan galdetuta, batez ere, beldurra sortzen da; kanpoko eraginaren beldurra hain zuzen ere. Brasilgo errealitate kooperatiboak duen erronketako bat auto-eraketa maila altu bat lortzea da. Ibilbide historikoak kooperatibek duten erronka azalera du, hau da, langileak euren burua gobernatzeko edo antzeko beste kasu batean, nekazariak euren burua gobernatzeko duten erronka. Inolako mendekotasunik gabe.

Kooperatiba tipologiaren gainean legeak dioena aztertu ondoren goazen orain bertan burututako elkarrizketak emandakoa aztertzerara. Gure elkarrizketetan batez ere bitariko kooperatiba izan da komentatu den kooperatiba mota.


UNISOL-eko Marcelo Mauad-ek arriskutsua den figura moduan hitz egin digu gure bitariko kooperatibari buruz¹³⁸. Hasteko, kooperatiba mistoak eurentzat duen esangura zein den adierazi digu eta behin gure figura zein den azaldu ostean, bere erreakzioa tentuz aztertu beharreko mota dela esatea izan da. OCB-ren eskutik etorri omen da figura hau sartzeko proposamena eta ondorioz eurak erreserbak eta zalantzak dituzte. Beldur dira, tresna honen bidez, ez ote den ahalbidetuko enpresa kapitalistek kooperatiba mota hauek kontrolatzea. Kapitalak kooperatibaren gaineko kontrola hartzen baldin badu, kooperatiba izaera galtzeko arriskua egon daiteke. Bestalde, aitortzen du, negozio ikuspegitik kooperatibetan kapitala sartzeko dauden ezintasunak ikusita aukera interesgarria ere izan daitekeela. Adibidez, aukera ikusten du enpresekin kontsorzioak sortzekoa. Baina beldur dira, Ekonomia Solidarioaren egoera zein den ikusita, kooperatiba hauetan kapitalak enpresa kooperatiboaren kontrola izateko aukera handia delako.

MCC-ko kooperatibak figura hau erabiltzearen inguruan galdetuta, bere erantzuna beste formula egokiagoa bat proposatzea izan da; Fagor eta Brasilgo enpresak kogestio eran funtzionatu beharko luketela uste du. Biek hainbat esparrutan autonomia izan eta beste hainbat eskuduntza kudeatzeko hirugarren enpresa bat sortu beharko luketela uste du. Bien artean sortutako hirugarren enpresa hau litzateke kapital enpresa eta ahalbidetuko luke kogestio bidez egituratzea euren arteko harremanak. Desabantaila moduan aipatu beharko genuke, kapital enpresa izatera, ez lukeela abantaila fiskalik izango.

Ibrahim-ek bitariko kooperatiben inguruan galdetzean adierazi digu bere ustez nahiz eta formula hau kooperatiba arrunta erabiltzea baino errazagoa den, ez dela berak gogoko duen formula bat. Lanaren soberania aldarrikatzearekin ez omen dator oso bat formula. Kapitalean parte hartzen duen kooperatibaren kasua 'farsa' bat da bere ustez.

ANTEAG-ko aholkulariari galdetu berak honela erantzun digu:

' ANTEAG-k ongi ikusten du figura; guk ez baitugu soilik kooperatiba bultzatzen baita akziokako partehartzea ere. Hala ere, gaur indarrean dugun legeak ez du figura honen erabilera onartzen. Guk 'autogestioa' bultzatzen dugu, eta autogestiorako ez da



¹³⁸ Mistoak dira Brasilen jarduera bat baino gehiago burutzen dituzten kooperatibak.

kooperatiba bide edo tresna bakarra. Kogestioa ere ongi ikusten dugu, baina kontu izan behar da portzentaiekin. Arriskua dago hor ere langilea esplotatua izateko '.

UFDR-ko ikasleei galdetuta ere zalantzak aurkeztu dituzte. Lehenik eta behin zalantza ugari azaldu dituzte ezagutzen ez duten figuraren inguruan. Ea zein diren orokorrean dauden inplikazioak? Noraino hartzen duen parte kapitalak gestioan eta kooperatibako soberakinetan zein parte jasotzen duen kapitalak. Euren esanetan nahiz eta araudiak ez duen Brasilen figura hori baimentzen, kapitala ailegatzen da berdin kooperatibaren kudeaketan parte izatera. Garbi dute bitariko kooperatiban proiektua osatzen dutenen adostasuna bilatu behar denez azkenean, akziodunen adostasuna ere bilatzera jo beharko litzatekeela eta ondorioz, kanpoko agente baten adostasuna ere lortu beharko litzatekeela. Akziodunen adostasuna bilatzea Estatuaren esku hartzearen parekoa litzateke euren esanetan.

Langile eta bazkide denaren perfila ahula denean normala da beldur hau izatea. Aldiz, langilea sendoa eta bere buruaren jabe denean, kanpoko esku hartzearen beldur izatea zailagoa da. Eurak diote langile ahula eta inoren menpe izatearen beldur dena dutela batez ere inguruan. Hainbat lekutan langile ahul mota aurkitu daitekeela baina, badela baita Ekonomia Solidarioaren baitan sendoa den langile perfila ere.

Ikasle batek kooperatibismoak bete beharko lukeen funtzioaren inguruan egin du hausnarketa. Galdera luzatu: kooperatibismoak zertarako balio du? Kooperatibismoa bera da helburu? Ikaslearen esanetan kooperatibismo popularra MST-n, tresna bat baino ez da; formazio politiko-ideologikorako tresna eta baita langile klasearen emantzipaziorako ere. Proiektu sozialistaren baitan kokatzen dute eta ez dute inolaz ere nahi, partzeria edo sozietate kontraturik egiterik enpresa kapitalistekin. Euren nahia litzateke Ekonomia Solidarioak kapitalismoak hartuta dituen espazio guztiak hartzea. Onartzen dute agian kooperatiba denak ez luketela zertan ezaugarri hori izan, baina gizarte proiektu bat bada, kooperatibismoak tresna lagungarria beharko lukeela izan helburu horretara ailegatzeko.

Esandakoaz gain, ez dago ezer askorik aipatzeko. Berria den zerbait aipatzearen esan daiteke badagoela kooperatiben tipologiak zabaltzeko eskaera bat; legeak jasotakoez haratagoko aukera zabaltzeko eskaera bat. Eta bestetik azpimarratu esandakoaren laburpen gisa Ekonomia Solidarioko eragileen perfila zein den ikusita bitariko kooperatibaren formula nahiz eta interesgarria dela iruditu, badagoela kanpoko eragileak sartzeko beldur bat.

6.7. BAZKIDEEN LAN ERREGIMENA: LAN ERREGIMENIK EZA

Produktio kooperatibak lan bazkideen esku dauden kooperatibak dira- lan bazkideak autonomo dira- euren kontura lanean diharduten beharginak direnez, enpresari edo autonomoen erregimena dute eta ondorioz, behargin autonomo hauez osatutako kooperatibak karga sozial

eta beste hainbat erantzukizunetatik aske daude. Errealitate honek definitu du Brasilen gaur egungo errealitate kooperatiboa. Historian zehar, izaera hau izan dute eta dute OCBk ordezkatu dituen kooperatibak. OCBko bazkide kooperatiba gehienak nekazal industrian jardun dute eta oso kooperatiba handiak izan dira.

Eskulan merkea izan da kooperatibak Brasilgo errealitate kooperatiboari eskaini izan diotena. Azken batean, kooperatiba hauetako lan bazkideek inolako lan erregimenik ez izateak eragin du kooperatibak 'eskulan merkea' lortzeko tresna bilakatzea. Kostu gutxiagorekin enpresa jarduera errentagarriagoa bilakatzen zelako.

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasura etorritz, kooperatibetako lan erregimena heldutasun maila onean dagoela esan genezake. Legeak agindua eman du eta honen ostean kooperatibetako erabaki ahalmenaren pean geratu da euren lan erregimena arautzea. Kooperatiben auto-erregulazioaren bidez arautu gabe geratzen dena Lan Erregimen Komunaren menpe geratzen da.

101. atala.- Lan-jaurpidea

1.- Estatutuek edo, horien ezean, Batzar Orokorrak bazkide langileen lan-jardunbidearen oinarriak finkatuko dituzte.

2.- Besteak beste, honako gai hauek arautu daitezke jardunbide horretarako: lanaren antolamendua, lanaldiak, asteko atsedenaldia, jaiegunak, oporrak, baimenak, lanpostuen sailkapena, zereginetatik eta lekuz aldatzeko aukera, lan-utzialdiak, kooperatibako lanari buruzko harremana eten edo desegiteko dagoen beste edozein arrazoi eta, orokorrean, bazkide langileak egiten duen lanarekin zerikusia duten eskubide nahiz betebeharre dagokien beste edozein gai.

Legearen artikulua honek kooperatibaren autonomia errespetatzen du eta aldi berean, lan erregimen duin baterako garatu beharreko hainbat puntu eskaintzen ditu. Legeak derrigortu egiten du Estatututan edo Batzar Orokorraren erabaki bidez lan bazkideen oinarriko lan erregimena arautzea¹³⁹. Batzar Orokorraren eskuduntzapean geratzen den materia da. Baina



¹³⁹ Brasilen burututako elkarrizketatan (geroago ikusiko dugun moduan) badira gutxieneoak ezartzea kooperatiben autonomiaren aurkako ekintza gisa ulertzen dutenak. Esate baterako MST-ko lider baten

bestalde, edukiaren garapenean kooperatibaren autonomia errespetatzen da eta ondorioz, lan erregimenetik ondorioztatzen diren eskubide eta obligazioak era askean garatzeko aukera eskaintzen du legeak.

Artikulu honek xedatzen duenaren jasotzaileak asko dira: eratzerako unean kooperatibaren bazkide fundatzaileak; bazkideak, orokorrean, hauek baitira gai honen inguruko arau edo erabaki oro hartu behar dutenak eta aldi berean, eskubide eta obligazio hauen titular; aldaketa hauek gestionatu eta aplikatu beharra daukaten administratzaileak; Kooperatiben Erregistroa hau baita kalifikatu eta inskribatu behar dituenak; Lan arloko Administrazioa, honek jakin behar du kooperatiben autonomia normatiboa errespetatzen; Jurisdikzio Soziala, honek erabaki beharko ditu kooperatibaren eta lan bazkideen artean sortzen diren lanetik eratorritako gatazkak, eta horretarako kooperatibaren arauak hartu beharko ditu oinarri moduan.

Estatutu Sozialetan edo Batzar Orokorreko erabakietan eragina duen arau honek, kooperatibaren bizitzan influentzia handia dauka. Lan Elkartuko Kooperatibatan pisu handia daukan gai bat da hau, azken batez, kooperatibizatutako lana bereziki, lan bazkideek eskaintzen duten lana da. Kooperatiba mota hauetan lan bazkideen lanetik eratorritako eskubide eta obligazioen erregimena da ardatz.

Araua oinarri hartuta beraz, lan bazkideen lan erregimenaren oinarriak ezartzea estatutu sozialetan jaso daiteke eta honen ezean, Batzar Orokorraren eskuduntzakoa da. Materiaren zabaltasuna kontutan hartuta legegileak bereizten du oinarrizko marko kontsidera daitekeena eta honen garapena. Irizpideak eta oinarrizko arauak finkatzea da Batzarrari dagokiona. Garapenari dagokionean Kontseilu Errektoreak du eskuduntza eta Kontseilu Sozialak ere ardura garrantzitsua du kooperatibaren araudiaren esparru honetan.

Legeak aipatzen ditu arautu daitezkeen gaiak eta zerrenda honek bi funtzio betetzen ditu: batetik, funtzio pedagogikoa, hau da, batetik, lan legedi laboralak soldatapeko langileentzako derrigorrezko izaeraz araututa dituen gaiak zein diren azaltzen ditu eta bestetik, kooperatibak gai hauek arautzeko autonomia duela gogorarazten digu.

Kooperatibak berak erabaki beharko ditu lan erregimeneko arauak Estatutu Sozialetan jasotzearen komenigarritasuna, kontutan izanik, alde onak eta txarrak dituela.

Lan munduan orokorrean eta bereziki kooperatibetan aldaketa nabarmenak gertatzen ari direla kontutan izanik, Estatutu Sozialetan jasotzea badirudi ez dela komeni, estatutuak oinarrizko

ustez bazkideei gutxieneko soldata edo lan aurrerakina ezartzeak ekarriko luke, autonomia urratzea eta aldi berean, kasu batzutan kooperatiba, bideragarritasun ezagatik desegin beharra.

arauak jasotzea delako egokiena eta ez sarri aldatzea eskatzen duten xedapenak. Estatutu sozial mailako araudi baten aldeko hautua egitea erabakiko balitz, araudia ez litzateke oso zehatza eta garatua izan beharko; guztiz kontrara irizpide orokor batzuk finkatu beharko lirateke ondoren malgutasunez aldaketetara egokitzen joan dadin araudia.


Esandakoaren ondotik garbi dago esparru honetan Barne Araudiak (31.3 j) eta Batzarreko akordio osagarriak oso paper garrantzitsua betetzen dutela.

Estatuko legediak 83 eta 84 artikulutan jasotzen du gai honen inguruko araudia. Nahiz eta euskal legearen oinarria berdinak izan- bazkideen lan erregimena arautzeko autonomia osoa (estatu, barne araudi edo batzarraren erabaki bidez)- legedi estatalak modu esplizitu eta aginpidezko baten arautzen ditu hainbat alderdi: lan jardunaren iraupena, asteko deskantsua, jaiak, oporrak, baimenak (denak gutxieneko izararekin) bai eta lan bazkidearen lan kooperatiboaren etenaren kausa eta efektuak.

Kooperatiben kasuan, eskuduntza Euskal Autonomia Erkidegoarena denez, aipatu berri dugunak ez du eraginik eta beraz, kooperatibak gure esparruan autonomia daukate euren lan erregimena aurrez emandako irizpideen arabera arautzeko.

Hala ere, euskal legediaren menpe dagoen kooperatibak ez baditu aipatu ditugun puntuak arautzen ez Batzar Orokorraren erabaki bidez eta ez estatutu bidez, Estatuko erregulazioak ordeztu izatera hartuko luke eta derrigortasun izaeraz aplikatuko litzateke¹⁴⁰.

Legeak araututakoaz gain, esan beharra dago, beharrezkoa dela kooperatibetan bazkideen artean kultura bat egotea. Gure kooperatibek erakusten dute legea bezain garrantzitsua dela kooperatibek beraien burua arautzeko dituzten tresnak: Estatutu Sozialak eta Barne Araudia. Bi tresnok kooperatibetako batzar orokorrak onartuak behar dute izan; lehenak, Kooperatiben



¹⁴⁰ Estatuko legediak argitzen lagundu dezakeen puntu bat aipatzearen ez gaitasun absolutu eta ezgaitasun handiko egoerak dira. Euskal legeak ez du argitzen, baina derrigorrezko bajaren gaiak (27 art.) dio 'Derrigorrezko baja izango dira bazkide izateko baldintzak galtzen dituenak' eta lanerako gaitasuna da baldintzetako bat. Beraz badirudi aipatu dugun egoerak derrigorrezko baja ahalbidetzen duela. Estatuko legeak konfirmatu egiten du interpretazio hau.

Erregistroak onartuak eta bigarrenak berriz, batzarraren onespén hutsez indarrean sartzen direnak. Brasilgo kasuan beharrezkoa da lege aldaketak lagunduta kooperatibetako kulturaren sendotze bat etortzea. Euren auto-erregulaziorako tresnak erabiltzea bazkideen lan baldintzak duintzeko. Soilik bide honetatik etorriko da produkzio kooperatiben erabilera okerrarekin amaitzeko prozesu berria.

Gure kooperatibak erreferente onak izan daitezke loratu nahi den kooperatibismo berrirako. Bazkideen lan baldintzen esparrua delako garatuta dagoen esparrua eta baita, beste herrialdeko batzuetarako ere eredu moduan erabili litekeena.

Gaur besteak beste, gure filialak kooperatiba izaera hartzerako orduan dugun eragozpenetako bat hau da: produkzio kooperatibak duten irudi txarra.

Azkenik, hasierako hausnarketa honetan esan behar da, lan baldintza duinak ez izateak, kooperatibismoaren oinarria kaltetzen duela zuzenean. Kapitalaren gaineratik lanari ematen badiogu soberania baina, ez badugu lana bera behar den baldintzetan ipintzen, zein kooperatibismo da sortzen ari garena?

Ondoren, Brasilgo eragileek gai honi buruz galdetzean emandako iritziak jasoko ditugu.

UNISOL-eko Marcelo Mauad izan da gai honetan oso jantzita aurkitu duguna. Berak esperientzia dauka kapital enpresentzat eskulan merkea hornitzeko helburua daukaten kooperatibetan.

‘ Brasilen soldatapeko langileen eskubide eta betebeharrak arautzen dituen legedia CLT- Código de Legislación de los Trabajadores, delakoan daukagu jasota. Baina jakina, legedi hau ez zaie aplikatzen kooperatibako bazkideei, hauek norbere kontura lan egiten duten behargin autonomoak direlako.

Brasilen, kooperatiben arloan, OCB-ren ordezkartza ofizialaz gain daukagun arazoa litzake hau; hau da, bazkide autonomoen lan erregimenik eza. Hauek baitira Sozietate Anonimoek dituzten tresnak eskulan merkea hornitzeko. Guk deitzen diegu ‘ Cooperativas de Mano de Obra’ eta ‘Terzierizazio fenomenoak’ ere deitzen da. Kooperatiba mota hau ez dugu batere egoki ikusten eta kooperatibismoari kalte egiten diola ere esan genezake. CUTI (langile sindikaturik handienak) eta UNISOL-ek borroka latza daramate kooperatiba mota hauen aurka’ .

Guilherme Krueger-ek aitortu digu Brasilen kooperatiben erabilera okerra egin dela. Kooperatibak bitartekaritza funtzioa bete izan dute; enpresa jasotzailea eta lan indarra ipintzen duen langilearen artean. Kapital enpresek kooperatiba hauetako beharginen bidez enplegatuen

lana ordezkatu izan dute. Honela, lortzen zuten ohiko bidea erabiliz ordaindu beharreko hainbat kostu ekiditea eta beraz, lan indarra merkeagotzea. Hamar urteko aldea dagoela dio Brasilgo eta Espainiako esperientzia juridiko eta jurisprudenzialaren artean. Orain ari da Brasilen lan elkartuko kooperatiben lege markoa lantzen. Jurisprudenziak, orain arte bermatu izan duena, kooperatibak lan harremanen prekarizaziorako ez erabiltzea izan da.

OCB-ko aholkulariak, garbi du, orain, praktikan, enpleguak barik lan eskubiderik gabeko kooperatibistak erabiltzeko arrazoi nagusia zein den. Espainian lan bazkidearen kostua zein den finkatuta dago baina ez da horrela gertatzen Brasilgo kasuan. Kostuaz gain lan bazkideak hainbat eskubide bermatuta dituzte Espainian, (deskantsua, oporrak, ..) ez ordea Brasilen. Egoera hau enpresariaren ikuspegitik hobea da; errentagarri ateratzen zaiolako langilearen kostua. Esandakoa kontutan izanik enpresa batean enpleguaren ordezkaria sartzen baldin bada ez dauka lizentzia, errezeta, jai egunak ... burutu beharrik eta erantzukizun hauek bete beharrik ez izatea aringarri bat da. Behin hau esanda, Guilhermek uste du, beharrezkoa dela lege bat ematea autogestioa eta lanaren duintasunaren artean oreka bat bermatzeko balioko duena. Beharrezkoa da, bere ustez, lanak kostu bat izatea eta honela bermatzea lan autogestionatuaren kostua heterogestionatuaren parekoa izango dela. Oreka baldin badago, langileak aukeratuko du zein lan harreman nahi duen; orekarik ez baldin badago berriz, kapitalista izango da lan harreman merkeena inposatuko diona beharginari. Eta enpresaria bihurtuko da kooperatibako bezero.

Guilhermek egoera honen adibide bat jarri digu ondoren. Nike enpresak pilotak eta jantziak ekoizten ditu Brasilen (edo hirugarren munduan). Lan elkartuak gutxieneko kostu bat ez baldin badauka, enpresariak ordainduko dio kooperatibari oso prezio baxua. Berak uste duena, baina, merke ordainduko dio. Egoera honetan zer egiten du kooperatibak? Kontratua onartu ala bazkidea lanik gabe utzi? Ba normalena adostea izango da. Berez, hau ez da kooperatibek duten auzia, baizik eta lan erregimeneko kontu bat; beharrezkoa da egoera hau arautuko duen lege bat izatea. Interes orokorreko kontu bat den neurrian eta lanari zor zaion errespetuagatik egin behar da. Faltan botatzen du Espainiako kultura kooperatiboa gai honen inguruan. Bere esanetan kultura kooperatibo handia dagoen lurraldetan, lan araudia nahiko malgua izaten da eta kultura gutxiago dagoen lurraldetan berriz, legedia zorrotzagoa izaten da eta lan heterogestionatuarekin antz handiago duena. Brasilen idealena litzake oreka bilatzea: autogestioa, kultura kooperatiboa eta arauen zurruntasunaren artean (lanaren prekarizazioa eman ez dadin beharrezko eta gutxienekoak diren eskubide indibidualen xedapenak). Badaude norberarenak diren giza eskubideak, ezin besterendu daitezkeenak eta ezin direnak Batzar Orokorraren esku laga. Beharrezkoa da beraz, eztabaida ezinak diren gutxieneko kostuak ezartzea.

Kooperatibak, lan erregimena arautzeko duen autonomia lehentasuna izanik eta beti ere gehiegikeriak ekidin ahal izateko, da beharrezkoa gutxieneakoak finkatuko dituen lege bat onartzea.

Paul Singerri galdera egin ondoren hona bere erantzuna:

‘ Egia da. Gure kasuan langileak autonomoak dira eta ez dute inolako lan erregimenik. Orain ari gera gaia lantzen Kongresuan. Guk Espainia, Italia... bezalako herrialdeetatik ekarri nahi duguna hain zuzen ere hori da: kooperatibek lan erregimena aplikatu diezaietela euren bazkideei. Ez badugu bazkideentzako lan erregimenik lortzen, soldatapeko lanarekin amaitu egingo dugu; edo behintzat soldatapeko langileekin. Azken finean errazagoa eta merkeagoa da kooperatiban bazkideak izatea langileak izatea baino. Gobernuak proposatu du Lei 7.009 bai Lan Elkartuko Kooperatibentzat eta baita ondasunak ekoizten dituzten gainerako kooperatibentzat ere. Eta gure ustez, esparrua mugatzen da kooperatiban beharra egiten duten langileen esparrura. Bertan lan egin eta ogibidea kooperatibatik ateratzen duten langileen kasura.

Bada gutxieneako ordainsari bat ezartzeko asmo bat, baina arazoa da kooperatiba askok ez dutela gutxieneako hori ordaintzeko aukerarik. Ez eta profesio arteko soldata minimoa ordaintzeko dirurik ere. Gure asmoa da proposamen bat lantzea eta hainbat kontu bermatzea behargineri: soldata arteko ordainsaria, oporrak, segurtasuna eta osasuna.... Gai honi buruz jardun dugu hainbat mugimendutako kideekin eta denek ez dute argi ikusten kontua. Badira hainbat mugimendu ingeniari agronomoak dituztenak lanean ‘extensión agraria’ deritzan esparruan eta kasu hauetan ordaindu beharreko soldata ordaintzeko aukerarik ez dute erakundeak. Ikus dezakezue argudio ekonomikoa da hori, hots, kooperatiben ordaintzeko ezintasuna baina bada baita argudio ideologikorik ere. Euren esanetan derrigorrezko ezarpen honekin kooperatiben gestio autonomia bortxatu egiten da. Obligazio hau ezartzea beraz, kooperatiben gestio ahalmenaren aurka doa’.


José Brendanek (Paraíbako Unibertsitate Federaleko soziologoak) lan erregimena lotu du aurreikuspen sozialean bazkideak duten gabeziarekin. Bere esanetan kooperatuak (kooperatibako bazkideak) enpresariak dira, euren modura bada ere. Beraz, ez dira soldatapeko langileak eta ez dute laneko karterarik (cartera de trabajo). Bere iritzian hau ez dago gaizki. Logikoa dela uste du bazkide hauek ez izatea soldatapeko langileak duten moduan gobernuak bultzatutako aurreikuspen sozialik. Baina hau honela, berak uste du kooperatiba guztietako tributazioak beharko lukeela izan enpresa kapitalistetako tributazioa baino baxuagoa. Ondorioz, kooperatiben berezitasunak kontutan hartzen dituen tributazio batekin, kooperatibistak aukera izan dezakete euren aurrezkiak bildu eta euren pentsio plana egiteko.

Brasilen kooperatibak izandako erabilerak kalte egin dio besteak beste, errealitate kooperatiboari berari. Bazkideek ez dute bermatuta izan lan erregimen duinik eta honen eraginez, inolako eskubiderik gabeko lan indarra hornitzeko funtzioa bete izan dute. Bada orain lege proposamen bat egoera hau konpondu eta gainditzera datorrena. Gurean bazkideek duten eskubide eta betebeharrak multzoa izan daiteke erreferentzia egokia eurentzat. Hala ere, kontutan hartu behar da egin ditugun elkarrizketetan kezka egon badagoela ez baita argi ikusten hainbat kasutan kooperatibak egoera hauei aurre egiteko aukera izango dutenik. Eta eragozpen ekonomikoez gain, eragozpen ideologikoak ere mahai gainean jarri dira; kooperatibek gestiorako duten autonomian honelako derrigorrezko neurriek izan dezaketen eragina dela eta.

6.8. KOOPERATIBEN KONTABILITATE ETA ZERGA ERREGIMENA

Kooperatiben kontabilitate eta zerga tratamenduak Euskadiko Kooperatiben kasuan bereziak dira. Esanahi da kooperatiba izaera bera dela tratamendu kontablea eta fiskala definitzen dituen. Ez sozietate kooperatiboak burutzen dituen jarduerak baizik eta izaera bera dela kontabilitate araudia eta fiskala finkatzen dituen. Kooperatiben kontabilitatearen erregulazioa *Normas sobre los aspectos contables de las Cooperativas* (Orden ECO/3614/1003, de 16 de diciembre) dago jasota. Eta zerga erregimenerako berriz arau desberdinetara jo behar da¹⁴¹.

Brasilgo kasuan aldiz ekintza kooperatiboaren arabera da bai kontabilitate tratamendua eta baita fiskala ere. Kooperatibak duen izaera juridikoagatik ez du berez inongo tratamendu berezirik, bai ordea burutzen dituen eragiketagatik. Kooperatibak burutzen dituen operaziotan batzuk ekintza kooperatiboak dira eta beste batzuk berriz ez. Ekintza kooperatiboak izaten dute tratamendu berezia, besteak berriz ez. Brasilen kontabilitate arloan diharduten profesionalak



¹⁴¹ Norma Foral 2/1997, de 22 de mayo, sobre Régimen Fiscal de las Cooperativas de Gipuzkoa
Norma Foral 9/1997, de 14 de octubre, sobre Régimen Fiscal de las Cooperativas de Bizkaia
Norma Foral 3/1996, de 26 de junio, del Impuesto sobre Sociedades y otras normas forales de carácter tributario
Norma Foral 16/1997, de 9 de junio, sobre Régimen Fiscal de las Cooperativas de Araba
Norma Foral de Araba 13/2007, de 26 de marzo, de modificación de la Norma Foral 24/1996, de 5 de julio, del Impuesto sobre Sociedades

kontabilitateko ohiko arauak ezagutzeaz gain, beharrezko dute Kooperatiben esparruko arau bereziak ezagutzea ere¹⁴².

Erregistro kontableak bete behar dute indarrean dagoen legediak dioena eta baita, Kontabilitate Kontseilu Federalak (CFC) ematen dituen arauak ere. Kooperatibentzako kontabilitate arauak Norma Brasileira de Contabilidade- N.B.C ko 10.8 artikuluan daude jasota eta 10.21 mediku kooperatibentzakoak. Biak ala biak gai berdinak jorratzen dituzte eta kooperatiben berezitasun diren elementuak arautzen dituzte.

Kontabilitateko Arau Brasildarrak beste hainbat xedapenekin daude harremanetan: Kontseilu Federal Kontablearen 2008/10/28ko 560/83 xedapena eta Kontabilitateko Oinarrizko Printzipioekin (1993ko abenduaren 29ko, 751/93 CFC-ko xedapena). Beharrezkoa da kontabilitate prozesuen bategitea ematea, kontabilitateko profesionalak irizpide berdinarekin lan egin dezaten.

Kontseilu Federal Kontableak CFC, Kontabilitate Arau Brasildarrak eman zituen; Kontabilitateko Printzipio Orokorretan eta Kontabilitate Zientziak lantzen duen doktrinak dionean oinarrituta. KFK 920 erresoluzioa eman zuen 2001-ko abenduan eta honako honekin onartuko du N.B.C, T.10.8.

NBC T 10- DOS ASPECTOS CONTÁBEIS ESPECÍFICOS EM ENTIDADES DIVERSAS

NBC T 10.8 ENTIDADES COOPERATIVAS

NBC T 10.8 – DISPOSIÇÕES GERAIS

10.8.1.1 – Esta norma estabelece critérios e procedimentos específicos de avaliação, de registro das variações patrimoniais e de estrutura das demonstrações contábeis, e as informações mínimas a serem incluídas em notas explicativas para as Entidades Cooperativas, exceto às que operam Plano Privado de Assistência à Saúde conforme definido em Lei.



¹⁴² 5.764/71 Legea da kontabilitatean eragina duten elementuak jasotzen dituena. Legeko 4 art., 18.6º art., 21 art., 22 art., 23 art., 24 art., 26 art., 28., 44 art., 68 art., 79 art., 80 art., 85 art., 86 art., 87 art., eta 89 art., dira kontabilitatean eragina duten artikulua. Nahiz eta ingurumari kontable orokorrarekin alde handirik ez duten, kooperatiben kontabilitatearen egokitzea eskatzen dute

10.8.1.2 – Entidades Cooperativas são aquelas que exercem as atividades na forma de lei específica, por meio de atos cooperativos, que se traduzem na prestação de serviços diretos aos seus associados, sem objetivo de lucro, para obterem em comum melhores resultados para cada um deles em particular. Identificam-se de acordo com objeto ou pela natureza das atividades desenvolvidas por elas, ou por seus associados.

10.8.1.3 – Aplicam-se às Entidades Cooperativas os Princípios Fundamentais de Contabilidade, as Normas Brasileiras de Contabilidade, especialmente a NBC T2 e a NBC T 4, com as alterações tratadas nos itens 10.8.5.1, 10.8.6.1, e 10.8.7.1, bem como todas as suas Interpretações e os Comunicados Técnicos editados pelo Conselho Federal de Contabilidade.

Hona izandako elkarrizketak emandakoa.

Marcelo Mauad-en ustez zerga erregimena ez da ona. Kooperatibak ordaindu beharreko zergak asko omen dira bere esanetan. Adibide moduan aipatu digu fakturazioaren gaineko zerga; oso zerga astuna omen da. Bestetik, segurtasun arloko zergak aipatu dizkigu; aurreikuspen sozialeko kontribuzioak bai enpresari eta bai langileari dagokionak. Hau ere oso astuna. Beste zerga batzuk dira: merkantzien zirkulazioaren gainekoa, industrializatutako produktuen gainekoa (IPI, impuesto sobre producto industrializado. Errentaren gaineko zergarik ez dago. Bere esanetan zerga denak astunak dira eta honek eragiten omen du kasu askotan kooperatibaren bideragarritasuna kolokan jartzea.

Marceloren esanetan kooperatiba indartsuenak OCB-ren baitan dauden nekazal arloko kooperatibak dira (agropecuarios). 'Agrobusiness' deiturikoak. Kooperatiba hauek bi milioi dolar fakturatzen dituzte urtean. Soja, kafea, gado (okela), esnea, azukrea, kaña... ekoizten duten kooperatibentzako lortu zituzten OCBkoak zerga pribilejioa edo abantailak. Abantaila hauek barne arauen bidez daude erregulatuta eta ez dira gainerako kooperatibetara hedatzen. Ez dira zabaltzen ezta Ekonomia Solidarioko kooperatibetara ere. Lularen Gobernuak bi Ministerio ditu Nekazaritza Ministerioa (agrobussinesentzat) eta Nekazal Garapenerako Ministerioa (familia nekazaritzarako). Bigarren hau, Marceloren esanetan, asko hazi da; 2 milioi dolarretik 6 milioi dolarretara.

Nekazaritza familiarra oso inportantea da Brasilgo ekonomiarentzako baina, Marcelok kritikatzeko OCB, bere kooperatiben interesak soilik defendatzen dituelako.

Azkenik Marcelok esandakoaren arabera Brasilian kooperatiben zerga erregimenaren inguruko eztabaida bat ari da ematen. Zerga erregimena lege desberdinetan jasota egotea arazo bat da eurentzat eta honetaz gain, zama da baita kooperatibentzat gaur zerga erregimena dagoen moduan egotea. Beharrezkoa da eurentzat zerga sistema aldatzea.

Erregimen ekonomikoari dagokionean Brasilen kontabilitate arauak oso konplikatuak direla adierazi digu Marcelok. OCB-k omen dauka ezagutza hau 'kaixa itxi' batean gordeta eta berarentzat. Aitortzen du OCB-k esperientzia luzea duela eta hori dela eta dutela ezagutza hori inork baino gehiago eta hobeto garatu eta landuta. Eta ez dute teknologia hori irakatsi nahi; ez dute teknologia beste kooperatiba batzuen eskutara pasatzerik nahi.

Bere ustez trantsizio garai bat bizitzen ari dira. Ez da eurentzat une erraza. Behar dituzte beste esperientzia batzuk ezagutu eta eredu propio bat landu. Ordezkaritza ofiziala ez zabaltzea ere arazo bat da eta ondorioz egin beharreko lana handia. Erronka moduan bizi dute eredu moderno eta propio bat egitea. Printzipioak errespetatuz eta ekonomikoki bideragarri izango dena. Proiektu sendoak lantzea helburu dute, bai eta epe luzerako errentagarri izango direnak ere.

ANTEAG-ko Reitorrek ere ildo beretik egin du bere hausnarketa. Bere esanetan ere 2003ko kontabilitate araua ezagutzen duen adituak ez dira asko; ez dago araua ongi ezagutu eta kontabilitate txukun bat eramateko gaituta dagoen aholkulari askorik. Bere esanetan OCB-n ere ez dago ezagutza ona duen kiderik. Bere esanetan egoera honetatik salbuetsita daudenak dira fazenderoen kooperatibak. Hauetan prozesu industrial osoa ez da ekintza kooperatiboa eta ondorioz, ez dago kontabilitate arau brasildar berezia bete beharrik.

Ikasleek ere kontabilitatea eramateko prozedura brasildarrari kritika egin nahi izan diote. Kooperatiben kontabilitatea ez da unibertsitatetan eskaintzen den formazio bat eta arauak ere ez du errazten kontabilitatea ongi eramatea, zaila delako.

OCB-ko aholkularia izan da kontrako mezua eman duen bakarra. Bere ustez kontabilitate arau brasildarra oso arau ona da. Eurak Kontadoreen Kontseilu Orokorrean sartutako proposamena izan zela onartu digu.

Paul Singeren ustez zailtasun handiak daude kontabilitatea ongi eramaten eta kooperatiba txikiak ezinezko dute kontabilitatea eramateko adituak kontratatzea. Bestalde, honekin lotuta bere ustez 'ekintza kooperatiboa' izatea bai kontabilitatea eta bai zerga erregimena ardazten dituen arazo bat da. Ekintza kooperatiboa diren ekintzak ez dira 'tasatuak' edo zergapetuak. Tributazioa Brasilen ez da pertsona juridikoak duten izaeraren araberakoa baizik eta burutzen den operazioaren araberakoa. Eredu Europarrarengandik oso desberdina da, europar ereduan pertsona juridikoa delako zergapetua eta ez ekintza. Salbuespenak badira hemen ere, agroindustrian diharduten kooperatiba handietan esate baterako. Baina bere esanetan orokorrean Brasilen sozietate kooperatibo baten balantze bat ongi egitea zaila da. Eta ez dago kontabilitatea ongi eramateko gai den aditu nahikorik.

Gobernuan badago eztabaida eta nahi da pertsona juridikoei zerga obligazioa ezarri, bazkideei ezarri beharrean. Ekintza kooperatibo kontzeptua ongi ez ulertzeak eskatzen du pertsona juridikoen gain ustea tributazioa. Kooperatiben artean burututako ekintzak direnean errazago ulertzen da harremana. Kooperatiba batek kooperatiba ez den enpresa bati produktua erosten dionean, ez dago ekintza kooperatiborik. Eta adibideekin jarraituz, lan elkartuko kooperatibetan, hau da bazkide denak lana kooperatiban egiten duten kasutan, ez da erreza kontabilitatea ongi eramatea ez delako erraza jakitea zer den eta zer ez den ekintza kooperatiboa. Horregatik komeni da zerga sistema pertsona juridikoari esleitzea. Gehituz esan behar da, Brasilen errentaren gaineko zergak ez duela pisu handirik, bai ordea zirkulazioaren gaineko zergek eta hauetan ekintza kooperatiboak pisu handia du.

Orokorrean esan genezake Brasilen kooperatiben erregimen fiskala eta kontablea 'ekintza kooperatiboaren' baitan daudela eta honek sistema nahiko konplexu egiten duela. Ekintza kooperatiboak ardatzen ditu kooperatibaren operazioak eta ordaindu beharreko zergak definitzeaz gain, kooperatibaren kontabilitatea ere egituratzen du.

Arlo kontablea eta fiskalaz gain kooperatibak bete beharreko tramite burokratikoak ere nahiko astunak eta garestiak dira Brasilen. Batzar orokorretako aktak protokolizatzea garestia eta nahiko zaila da. Honetan ere, OCBren jarrera, tramiteak konplexu izatearen aldekoa da.

6.9. KOOPERATIBAK ETA ADMINISTRAZIO BETEBEHARRAK

Kooperatibek euren betebeharrak administratiboak Euskal Autonomia Erkidegoan Administrazio publikoaren parte den erregistro publikoan betetzen dituzte, eta normalean esperientziatik ondoriozta genezake administrazioak lagundu egiten duela tramite burokratikoak betetzen; aholkatu eta bideratu egiten du.

Brasilen esana daukagun moduan Junta Komertzialak dira eskuduntza hau beraien gain dutenak. Junta Komertzialetan OCBk duen eragina handia dela kontutan izanik tramiteak betetzerakoan ere igarri egiten da lotura. Bai gobernutik eta bai Ekonomia Solidarioa osatzen duten elkarten ordezkarien esanak kontutan hartuta, esan behar da, OCB-k baliatu izan duela daukan ezagutza eta dituen baliabideak kooperatibak euren tramiteak betetzerako orduan dituzten arazoak gainditzen laguntzeko. Euren aholkularitza eskaintzaren truke OCB-n bazkidegata egitea proposatu izan ohi diote kooperatibari, honela euren bazkidegata eta afiliazioak gehituz.

Goazen beraz tramite administratiboaren gainean jendeak duen iritzia jasotzera.

Marcelo Mauad-ek kooperatibek dituzten formaltasunak betetzeko eragozpenen artean langileen ohitura eta kultura falta aipatu dizkigu. Langileek oro har ez dutela idazteko

beharrezkoa den diziplina eta antolaketa dio. Adierazi digunez, enpresa batek eskatzen dituen betebeharrak formaletarako langileek ez dute behar adinako formazio eta ohitura. Bere esanetan batzarretako akten gaineko kontrola eta eskakizunak zorrotzak izatean dira. Bera ibiltzen da kooperatibetako langileei lan hauetan laguntzen. Brasilgo gune desberdinetako kooperatibetara joaten da langileei formazioa ematera; besteak beste, aktak egitea eta kontabilitatea ongi eramaten irakastera. Fiskalaren kontrola pasa dezaten.

Kritika egin die hainbat alderdiri. Esate baterako aktak Junta Komertzialean erregistratu beharra ez da elementu positiboa. Akta erregistratzeak gutxi gora behera 250 dolarreko prezioa dauka. Kooperatibetan batzarrak hileroko egiten dira eta ondorioz, hileroko egin behar izaten diote aurre nahiko altua den kostuari. Azkenik eta aurrez ere aipatuak izan diren elementuak diren arren kritikatu du erregistroak Junta Komertzialetan egitea Caroriotan beharrean, kontu jota Juntak gutxiago daudela eta OCB-ren eraginpean gainera.

Ibrahim-ek ere gai honetan bere betiko argudioari heltzen dio. Bere esanetan kooperatibak gainerako enpresen betebeharrak burokratiko berdinak izan beharko lituzke.

Reitor-ek ANTEAG-etik aitortzen du tramiteak ez direla errazak baina, hala ere beti dagoela eskritorio edo aholkularitza baten zerbitzuak kontratatzeak aukera. Erantsi du forma juridikoa edozein izanik ere langileen prestakuntza beti izaten dela baxua. Diferentzia da kooperatiben kasuan langileen ardura dela eta beste enpresa motetan beharginak ez dutela lan hauetan aritu beharrik. ANTEAG-n lanetako bat da hain zuzen ere, laguntza hau ematea. Zuzendaritza edo kontseilu administratibo berri bat onartzen den bakoitzean ANTEAG-k hartzen du kooperatibara joan eta langileei prestakuntza hori emateko ardura. Eurak aholkularitza juridikoan eskaintzen dute laguntza baina, ez dira kontabilitate arloan sartzen; ez omen dago kontabilitatearen ezagutza egokia duenik.

Ikasleak ere kritikatu dute kooperatibak bete beharreko burokrazia. Normalean baliabide oso urriko kolektiboarekin egiten dute lana eta zailtasuna nabarmenagoa izaten da. Estatutu sozialen erregistroa aipatu dute beste adibide batzuen artean; 60 erreal eskatzen omen ditu erregistroak. Eta zenbateko hau oso da altua eurekin lan egiten duten langile perfiletzat.

Akten erregistroari ere egin diote aipamena. Aktak zuzen betetzea ere nahiko lan konplikatu dela esan dute. Akten baldintzak finkatzeko arauak Ministerio desberdinak emanak izanik gainera, asko dira kontutan hartu beharreko xedapenak.

6.10. KOOPERATIBEN ORDEZKARITZA OFIZIALA ETA 'ELKARTZEKO ASKATASUNA'

Kooperatiben elkartzeko askatasuna Brasilgo Konstituzio Federalean onartu zen arte, bazen egitura zehatz batera bazkidetza egiteko obligazioa.

Reginaldo Ferreira Lima autorearen esanetan Organização das Cooperativas Brasileira- OCBk eta berau osatzen duten gainerako estatu erakundeek kooperatibak bazkidetzak egitera behartzen ditu eta baita kooperatiba bakoitzari hileroko zenbateko bat ordaintzera ere¹⁴³. Autorearen esanetan OCB-n bazkidetza egitera behartuta daude eta ez egitearen ondorio izan daiteke kooperatiba izaera galtzea; hileroko kuoten kobrantza egitera derrigortuta eta beste hainbat mehatxu ere luzatzen dituzte.

Brasilgo Kooperatiba Legeak bere 105 artikuluan ezartzen du OCB dela kooperatibismoaren ordezkari nazional eta ofiziala duen eta gobernuaren menpe dagoen egitura. OCB orain arte beraz, gobernuaren aholku organo kontsideratu izan da eta erakunde hau izan da aldi berean, Conselho Nacional de Cooperativismo (CNC) kooperatibismoa ordezkarietzako eskubidea zuen egitura bakarra.

Lei 5.764/71, 105 artikulua:

Art 105. A representação do sistema cooperativista nacional cabe á Organização das Cooperativas Brasileiras- OCB, sociedade civil, com sede na Capital Federal, órgão técnico-consultivo do Governo, estruturada nos termos desta Lei, sem finalidade lucrativa, competindo-lhe precipuamente:

- a) manter neutralidade política e discriminação racial, religioso e social;*
- b) integrar todos os ramos das atividades cooperativas;*



¹⁴³ SILVA, Eduardo Faria. A Organização das Cooperativas Brasileiras e a negação do direito fundamental á livre associação. Dissertação. (Mestrado em Direito Cooperativo). Curitiba: Universidade Federal do Paraná. 2006, p. 4.

- c) *manter registro de todas as sociedades cooperativas que para todos os efeitos, integram a Organização das Cooperativas Brasileiras- OCB;*
- d) *manter serviços de assistência geral ao sistema cooperativista, seja quanto á estrutura social, seja quanto métodos operacionais e orientação jurídica, mediante pareceres e recomendações, sujeitas, quando for o caso, á aprovação do Conselho Nacional de Cooperativismo- CNC;*
- e) *denunciar ao Conselho Nacional de Cooperativismo práticas nocivas ao desenvolvimento cooperativista;*
- f) *opinar nos processos que lhe sejam encaminhados pelo Conselho Nacional de Cooperativismo;*
- g) *dispor de setores consultivos especializados, de acordo com os ramos de cooperativismo;*
- h) *fixar a política da organiza*

OCB-ri esleitutako ordezkariak beraz, CNC-n parte hartzera zegoen mugatuta. CNC-ko ordezkariak, Exekutibora lotutako lau kidek (Planeamendua, Ogasuna, Barne Saila eta Nekazaritzako kideez) eta OCB-ko hiru kideez zegoen osatuta. Ondorioz, Brasilen Lei 5.764/71 xedatutakoaren arabera Conselho Nacional do Cooperativismo (honen organo exekutiboa Secretaria Nacional do Cooperativismo- SENACCOOP) eta honen eskuduntza izango da Kooperatibismoaren politika orokorra definitzea. Organo hau zazpi kidez osatuko da eta hauetatik hiru izango dira OCBkoak. CNC-n funtzioak, legeko 97 artikulua dioenaren arabera, kooperatiba legedia osatu, garatu eta interpretatuko duten xedapen eta erregelamendu bidezko arauak esleitzea izango da.

Bere ibilbide osoan zehar CNC hogeitau xedapen eman zituen.

1988an erregimen juridiko berria onartuko da Brasilgo Konstituzio Federalarekin. Testu berriak sartutako berrikuntza nagusia izan zen kooperatiba berriak sortzeko askatasuna eta honekin batera kooperatiben funtzionamenduan estatuaren edozelako esku hartzeren debekatu ezarriko du (CF, XVIII ataleko 5 artikulua).

CF, 5 artikuluko, XVIII atalak:

‘ Todos so iguais perante a lei, sem distinción o de qualquer natureza, garantindo-se aos brasileiros e aso estrangeiros residentes no Pais a inviolabilidade do direito la vida, la libertade, la igualdad, asegurando la proipiedade, nos termos seguintes:

XVIII- a criação de associação les e, na forma da lei, a de cooperativas independem de autorização, sendo vedada a interferencia estatal em seu funcionamento.’

Konstituzio berri baten onarpenak eskatzen du indarrean dauden beste legeak egokitzea onartua izan den konstituzio berrira. Bai eta, beharrezkoa den kasutan, berriro idaztea. Ondorioz, esan genezake, kooperatibak arautzen zituzten arauak eta baita organo eskuduna izango denaren Organo Federala- (CNC)-ren fiskalizazioa ere derogatuak edo indar gabe geratuko direla.

1988ko konstituzioak ezarri zuen erregimena baino lehen, kooperatibak Junta Komertzialetan erregistratuak izan aurretik beharrezkoa zuten CNC- Conselho Nacional do Cooperativismok onartzea eta aurretik, Secretaria Nacional do Cooperativismo delakoak funtzionatzeko beharrezko zuen baimena eman izana. Eta konstituzioa onartu ostean, kooperatibek eratzeko askatasuna izango dute eta bere funtzionamenduan eginiko edozein esku hartze debekatu egingo da.

Konstituzioa indarrean sartu eta berehala era automatiko batean kooperatiben fiskalizazioaz arduratzen zen organoa, Conselho Nacional de Cooperativismo desegin egingo da. Desegite honen ondorio zuzena izango da Organização das Cooperativas Brasileiras-OCB, ordura arte izan zuen ordezkartza galtzea eta gobernuaren aholkulari tekniko izateari ustea. (Lei 5.764/71 ren 105 artikulua).

1988ko Konstituzioaren ondoren OCB-ri esleitutako ordezkartza desagertu egin zen eta beste egitura batzuen antzera egitura zibil sinpleak izatera pasatuko dira Kode Zibilaren menpe geldituz. Lei 5.764/71ko XVI Kapitulu guztia derogatu zen eta baita 105 artikulua eta ondorengoak ere.


OCB eta baita berau osatzen duten gainerako estatuko egitura guztiak gaur sozietate zibil partikularrak dira eta zuzenbide pribatuaren barnean pertsonalitate juridiko propioa dute. Helburu dute borondatez euren bazkide egiten direnen bilgune izatea. Kooperatibak sistematikoki elkartzea egokia izan arren, honek ez du esanahi esangura juridikoko ordezkartza izatea. Onura-kostua izango da elkartze horrek oinarrian izango duen helburua.

Kooperatibak ez daude OCB-OCEsetan bazkide egitera behartuta. Hala ere bazkide izatea erabakitzen duen kooperatiba orok obligazioa dauka elkartearen estatutu sozialak diotena betetzeko. Ondorioz, egitura honek ez dauka jatorrizko Lei 5.764/71 legeko testuan azaltzen zen statusik. Kooperatiben erregimen juridikoaren aldaketak (egitura autorizatuak izatetik, egitura askeak izatera), CNC-ri ordezkari eta aitortzen zioten arauen aldaketa eragin zuen eta beraz, organo federal honen existentziarekin ere amaitu zen.

Aldaketa hauen ondoren beraz ez da onargarria egitura hauetan erregistroa derrigorra izatea, eta are gutxiago oraindik hileroko kuoten ordainketa. Konstituzio Federalak xedatu zuen, inor ez zela derrigortua izango inongo egitura edo sozietatetan bazkidetza egitera (KF, XX ataleko 5 artikuluan).

Max Limoad-ek garbi adierazten du OCB-ren izaera zibil eta partikularrak orain arte izan dituen eskuduntzak ez dituela mantendu behar¹⁴⁴. Konstituzio brasildarraren onarpenak ordura arteko estatusa bertan behera lagatzea dakar.

Egoera honen aurrean batzuen ustez onena litzake kooperatibak hasierako egoerara itzultzea. Kooperatibek eraketarako baimen beharra izateak ekidin dezake kooperatiben erabilera okerra. Tributu arrazoiengatik erabiltzea kooperatiba eta kooperatiben izaera ez errespetatzea ekidin ahal izango litzake, kooperatiben gainerako nolabaiteko kontrol bat eskatuko balitz. Hau ez da



¹⁴⁴ Entendemos que, apesar da Organização das Cooperativa Brasileiras e as organizações Estaduais ainda existirem, devem ser consideradas como simples sociedades civis, pois as disposições do art. 105 da Lei n. 5.764/71 foram revogadas. Isto porque, os dispositivos em questão regulam as referidas sociedades como órgãos técnico-consultivos do governo e não como meras sociedades de direito privado, em qualquer função administrativa, 'as quais as cooperativas não estão obrigadas a se associarem.

É conclusão decorrente da garantia constitucional contida no art. 5, inciso XVIII, da Constituição Federal, que culminou por revogar os artigos 105 a 108 da Lei.

As sociedades cooperativas tem a facultade, ou seja, permite-se que se associem e permite-se que não se associem á OCB e ás suas subsidiárias estaduais tratando-se de uma associação de natureza civil, voluntaria, não vigoraram até a instituição da nova ordem jurídica no País?

lortzen konstituzioaren azpian dauden arauak aldatuz, beharrezkoa da Konstituzioko 5 artikuluko XVIII atala aldatzea.

Kooperatibak Brasilen beste herrialde batzuetan antzera edozein elkartetan kide egiteko askatasun eta eskubidea dute. Ekonomia Solidarioaren baitako egiturak askatasun osoz aukeratu ahal izango dute zein elkarte mota nahi duten izan beraien interes komunen aldeko eskaerak bideratzeko. Esan beharrik ez dago legez ez dutela inolako obligaziorik OCB-ko kide egiteko, hala ere, aurrez aipatu berri dugun SESCOOP-en (sistema S) diru banaketak dakar 'egitatez' oraindik ere ekimen askok nolabaiteko presioa sentitzea OCBko kide egiteko. Azken batez, gaur Ekonomia Solidarioko ekimenek kooperatiben gestioa aurrera eramateko zailtasunak badituzte eta gestio egoki baterako formazioa horren beharrezkoa bada, nola geratu formaziorako diru laguntza banaketa kanaletatik kanpo?

Bestalde ezin ahaztu dezakegu diru banaketa hauen legalitatea. Brasilen formaziorako diru laguntza sistemak sektoreka banatzen dira eta ez enpresen izaera juridikoaren arabera. Salbuespen bakarra da kooperatibena; izaera sozietario honek soilik ditu dirulaguntza publikoak jasotzeko eskubidea. Ondorioz, nahiz eta konstituzioaren arabera elkartzeko askatasuna izan praktikan, OCBren aginpideak indarra dauka oraindik ere.

Gure ustez, kooperatibak sektoreka federazioetan antolatzea litzake egokiena. OCBren aginpideak ez dio inolako onik egiten errealitate kooperatibo brasildarrari. Gure erueda egokia izan daiteke; azken finean kooperatibak jarduera edo sektorearen arabera daude antolatuta eta honek sektoreko premiak defendatzea suposatzen du eta hau onuragarria da aktibitatea bera indartzeko.

Ekonomia Solidarioa ere gaur nahiko ahul dagoela esan daiteke ordezkartzari eta antolaketari begira. Ez daukate antolaketa indartsu bat ez eta proiektu kooperatibo indartsu bat ere. Bestalde gai izan behar dira OCB dituen argudioei aurre egiteko. Ezinbestean erakutsi behar dute enpresa ekimen errentagarri eta sendoak direla. Eta errealitate kooperatiboaren erreferentzia izatera iritsi beharra daukate. Eta honetarako sektorekako federazioetan banatzea litzake egokiena.

Gaur indarrean dagoen legeak artikuluko honetan honela arautzen ditu federazioak:

Lei 5.764/71-ko 6 artikulua:

As sociedades cooperativas sao consideradas:

- III- singulares, as constituídas pelo número mínimo de 20 (vinte) pessoas físicas, sendo excepcionalmente permitida a admissao de pessoas jurídicas que tenham por objeto as mesmas ou correlatas atividades económicas das pessoas físicas ou, ainda, aquelas sem fins lucrativos;*
- IV- cooperativas centrais ou federações de cooperativas, as constituídas de, no mínimo, 3 (tres) singulares, podendo, excepcionalmente, admitir associados individuais;*

[...]

Konstituzio Brasildarrak arautzen duen elkartzeko askatasunean oinarrituta kooperatibak duten elkartzeko askatasuna aldarrikatzen dugu guk ere. Sektoreka antolatutako federazioak dira gure ustez enpresa kooperatiboen jardura ekonomikoa indartzeko bide eta antolaketa modu egokienak. OCBek bere aginpidea mantentzeak honako kontrako eraginak izan ditzakeela uste dugu:

- Kooperatibak historian izan duten ibilbideak, gaur eratu nahi den kooperatibismo berria larregi baldintzatzeko arriskua dago. Gaur OCB-k ordezkatzen dituen kooperatibak eta erakundeak berak dauzkan ezaugarri eta baloreak, ez lukete aukerarik utziko errealitate kooperatibo berri bat askatasun eta elementu baldintzatzaile barik erretzeko.

- OCB-rekin izandako elkarrizketek erakusten duten moduan ez du oro har, Brasilen existitzen diren kooperatiba guztien onura nahi, soil-soilik erakunde beraren kide direnen interesak defendatzen ditu. Eskura dituen presio bide guztietaz baliatzen da gainera erakundeko bazkide egitera kooperatibak behartzeko.

- Bere diskurtsoan Ekonomia Solidarioko ekimenen aurka azaltzen dira. Erakundeko ordezkariak ez dute kooperatiba forma sozietarioa nahi edo opa tamaina txikiko eta balore solidariotan oinarritutako enpresa ekimentzako. Tamaina txikia eta iraunkortasunik eza egosten dizkiote kooperatiba ekimen solidarioei eta ondorioz, elkarte edo sozietate simple formula har dezaten nahi dute. Horretarako beraien esku dauden traba eta zailtasun guztiek ipintzen dituzte.

- OCB izan da produkzio kooperatibetako lan bazkideen lan erregimenik ezaz gehien baliatu den erakundea. Kapital enpresen zerbitzura lanean ipini dituzte produkzio kooperatibak eta honela hauen errentagarritasuna areagotzen lagundu dute. Honetaz gain, kooperatibetan bazkideak egitea bultzatu beharrean, soldatapeko lan kontratadunak egin dituzte. SESCOOP bera ere inoren konturako langileei nominatik kendutako portzentaje batek hornituta hazten da.

Beraz, bazkideak egitea baino soldatapeko langileak izatea bultzatu izan dute. Kooperatiba bazkide gutxi batzuen esku lagata.

Esandako guztiagatik uste dugu OCB ez dela erakunde egokia Brasilgo errealitate kooperatiboa era ofizialean ordezkatzeko. Federazioak eta baita legean jasotako bestelako egiturak ere baliagarri izan daitezke kooperatibak indartzeko eta interes komunen defentsa egiteko tresna.

Behin hau esanda, goazen burututako elkarrizketetatik ateratako adierazpenak jasotzera.

Marcelo Mauad-en berbak hitzez hitz:

‘ Kooperatiben ordezkartza ofizialaren gaia da gure arazorik handiena. OCB erregimen militarren garaian sortu zen; 1971an. OCB-ren helburua da eredu kooperatibo bakarra inposatzea Brasil osoan, eta errealitate hori kooperatiba handiez soilik egongo litzateke osatuta. Guk ez dugu onartzen OCB-k Brasilgo kooperatiba guztiak kontrolatu nahi izatea. Arazoa politikoa da eta demokrazian du eragina. OCB-k bere kooperatibak kontrolatzea ongi ikusten dugu baina ez gure kooperatibak kontrolatu nahi izatea.

Euren proposamena izan da, kooperatibak erregistratu ahal izateko, aldez aurreko erregistro pribatua egin beharra. Euren kontrolpean nahi dituzte izan kooperatibaren printzipio guztiak eta baita gure proiektuak ere. Gaur Brasilen egongo dira 24.000 kooperatiba eta hauetatik OCB-n erregistratuta soilik 7000 daude. Aitortzen dute kontrola galtzen ari direla. Eta ondorioz, euren estrategia guztia dago bideratuta kontrola berreskuratuz. Izan daitezela zoriontsu baina utzi gaitzateela zoriontsu izaten baita guri ere. Brasilgo konstituzioak aldarrikatzen du ‘pluralitatea’ edo aniztasuna.

Interes pribatuen defentsan jardungo duen erregistroa nahi dute. Ez dute erregistro publiko bat nahi, ez dutelako Estatuaren fiskalizaziorik nahi. Estatu apartatu nahi dute. Estatu sartzeari euren asmoak betetzerako orduan eragozpen bihurtzen da. Gure ustez, Estatuak jarraitu behar du modu batean edo bestean erregistro funtzioa betetzen. Gure proposamena litzake edo Junta Komertzialak edo Cartorioak (erregistro zibila) betetzea erregistro funtzioa. Bi hauen artean arazoa lehenengo aukeran dago, Juntatan OCB-k eragina eta bere jendea daukalako. OCB-ren eragina Estatu barnera eta kanpora ailegatzen da’.

Ibrahim-i ordezkartza ofizialaren gainean galdetuta erantzun digu esanez, ordezkartza OCB-k daukala. Aitortzen du MCC-k ez duela kooperatibarik bertan. Bere ustez kooperatibek askatasun osoa izan behar dute nahi duten moduan antolatzen. Erregistroa Junta Komertzialetan egin eta gero kooperatibak askatasunez erabakitzen duten elkartean bazkidetza

egin edo ez egin. Bere esanetan kooperatibak gainerako enpresek dituzten arauetara egokitu beharra daukate.

Reitor-ek ANTEAG-etik honela adierazi digu:

‘ Guk ANTEAG-n ez dugu OCB-ren ordezkari izateko aitortzen. Hala ere, gaur badaude presio bideak OCB-n bazkidetza egitera bultzatzeko. Sarritan kooperatibek Junta Komertzialetara jotzen dutenean ez zaie erregistroa onartzen eta kooperatibak bizi izaten du nolabaiteko presioa OCB-n bazkidetza egiteko. Legeak eskatzen du erregistroa baina, ez du eskatzen bazkidetza.

Cooperyeans-en kasua daukagu adibide gisa. Hauek esan zuten erregistroa egina zeukatela baina ez zutela inon bazkidetza egiteko beharrik ikusten. Erregistroa eta bazkidetza bi gauza zirela.

Sarritan kooperatibak deitzen dute ANTEAG-era esanez paper bat heldu zaiela OCB-erentzako diru bat eskatuz. ‘ Contribución sindical’ deritzana. Kooperatibak induzituak eta bideratuak izaten dira OCB-ra joan daitezkeen. Junta Komertzialak berak bideratzen ditu OCB-ra behar duten laguntza han jasoko dutela aginduz. Guk hala ere, beharrak eraginda joaten diren kooperatiben egoera ere ulertzen dugu. Esate baterako, gure kooperatibak bizi duten egoeran beharra nabarmena da; itxiak izan diren enpresak dira eta behin itxi ostean langileen esku geratu direnak. Langileak hartu dute enpresa eta nahi dute gestioa eurak eramatea. Euren nahia enpresaren bidez lana eta ondorioz, errenta lortzea da baina, ez dute gestioa aurrera eramateko beharrezkoa den prestakuntzarik. Ulertzekoa da hauek laguntza nonbaiten bilatu nahi izatea. Ez badute enpresaren beharrak aurrera eramateko laguntza eskainiko dien erakunde bat, normala da OCB-ra jotzea’.

ANTEAG-ko aholkulariaren adierazpenetatik ondoriozta genezake sarritan nahiz eta nahi ez izan, OCB-ra jotzea beharrezko izaten dela, erakundeak euren premia larriak asetzen laguntzen dielako. OCB-k badu azpiegitura pertsonala eta material nahikoa kooperatibei aholkularitza eskaintzeko eta zerbitzu horren trukean kooperatibak euren bazkidetza egitea lortzen dute. Hona beraz, presiopean burututako bazkidetza.

UFDR-ko ikasleen ustez OCB-k ordezkatzeko dituen kooperatibak ez dira egiazko kooperatibak. Ez dituzte printzipio kooperatiboak betetzen. OCB ezin da izan MCC-ren ‘partzero’ edo interlokutore. Gainera ez da kooperatiba guztiak bere baitan hartzen dituen egitura erreferente bat. Badaude beste batzuk ere. CONCRAB adibidez, MST-ko kooperatiben bilgunea da, ‘ Confederación de Cooperativas de Reforma Agraria’. Konfederazio izaera dauka eta bertako bazkide diren kooperatibei laguntza eta aholkularitza eskaintzea du helburu.

Ikasleen esanetan OCB-k kooperatibismo mota zehatz bat soilik ordezkatzeko du. Nekazal jarduera eta zerbitzu prestazioa batzen dituen. Eurak bai uste dute kooperatiba mota guztiak ordezkatzeko dituztela baina ez da horrela. Lur jabe handien kooperatibak defendatzen dituzte eta nahi dutena da, kooperatiba handiak txikien gainera jartzea. Baina gero eta gehiago dira OCB-ren laguntzarik gabe aurrera egiten duten kooperatibak. OCB-ko kooperatibak elitearentzako kooperatibak dira. Ez dira pluriklasistak baizik eta uniklasistak; ez dute onartzen proletario batek latifundista batekin lan egiterik. Hauek dira OCB-k ordezkatzeko dituen kooperatibak eta horregatik da ezinbestekoa beste elkartzeko mota batzutan pentsatzen jartzea; kooperatibismoa bere orokortasunean ordezkatzeko duen egitura eta ez soilik indartsuenera kooperatibismoa. CONCRAB aipatzen dute MST-ko kooperatiben ordezkari moduan eta Ekonomia Solidarioa ekimenek momentuz batzen dituen egitura sendorik ez dutela ere aitortzen dute. Argi dute Ekonomia Solidarioa berria dela oraindik eta gainera behar zehatzei erantzuna bilatzera etorri dela; normalean jendeak bere bizibidea bilatzeko beharra ase nahi izan da.

Azkenik diote Ekonomia Solidarioak ez duela gobernuaren aldetik laguntza handirik jasotzen. Nahiz eta Paul Singerren Idazkaritza sortu den, ahalmen gutxirekin sortu dela diote.

Kontu jota OCB dela ordezkari kooperatiboaren atal honetan protagonista, ondoren, Guilhermeren, - bertako aholkularia- iritzia zein den adieraziko dugu.

Hasteko eta behin, OCB Alemanian dagoen antzeko figura batekin parekatu du; organo honen izena Organo de Cúpula para la revisión da. Bere esanetan ordezkari dagokionean ez dute inolako arazorik. Garbi du bera OCB-ko aholkulari moduan mamu bat dela Ekonomia Solidarioa eta ezkerreko mugimendu sozial guztientzako. Bera, abokatu intelektual gaizto moduan irudikatzen dutela. Guilhermek dio mugimendu hauek kooperatiba kontutan neofitoak direla. Hainbat kontutan gizarte zibilaren antolaketa, hegemonia gramiziarrean... hortaz ulertzen dutela baina, kooperatiba kontutan ez dakite ezer. Euren kooperatibak dira txikiak, oso esangura gutxiak. Berak dio ezinbestekoa dela esperientzia izatea kooperatiben esparruan, gai horretan adituak izateko. Oinarrizkoa dena ezagutzea ezinbestekoa dela.

Aholkulariak esan digunaren arabera, OCB-k ez du soilik ordezkari kudeatzen. Ordezkari librea, askea da. Edozein organo edo entitatek izan dezake ordezkari. Hori ez omen da arazoa. Berak bi arlo bereiztu ditu: bata ordezkari instituzionala deitzen dena, eta honek ez du zerikusirik ordezkari politikoarekin; bigarren hau afinitate politikoarekin dago lotuta. Ordezkari instituzionala Espainian Frankoren garaian asmatutako zerbait da, hau da, kategoria ekonomikoaren arabera ordezkari. Brasilen irizpide hau indarrean dago oraindik. Bere esanetan OCB ordezkari instituzionalaren batasun bat da. Badaki hainbatek ez dutela ongi ikusten kontua baina, behar hori nabarmena dela dio berak. Adibide moduan jartzen du bankuko langileen egoera. Bankuko langileak zein arauen arabera erregulatu beharko lirateke?

Bankuko hitzarmenaren arabera ala dagokien kategoria ekonomikoaren arabera. Kategoria profesional bakoitza kategoria profesional batera lotuta egon behar da.

Berak uste du OCB-ri buruz eta ordezkaritza instituzionalari buruz mintzo garenean ulertu behar dugula, kooperatibak kategoria ekonomiko bakar bat osatzen dutela. Ordezkaritza instituzionala, Brasilen antolatuta dago kategoriatan eta hau Konstituzioan bertan jasota dagoen puntu bat da. Berak badaki Brasilen badaudela ordezkaritza politiko eta sindikaleko egiturak, baina uste du ordezkaritza instituzionalak behar duela egon kategoria ekonomikoen arabera. Eta hau da hain zuzen ere, OCB-ren funtzioetako bat.

Bigarren funtzioa (ordezkaritza instituzionalaz gain) da Guardia Doctrinaria (doktrinaren zaintza) delakoa. OCB-k Guilhermeren esanetan doktrina zaintzearen ardura ere badauka. Kooperatiba legeak zer dio? Lei 5.764/71ren aplikazioa eta interpretazioa egin behar da Alianza Cooperativa Internacionaleko printzipioak jarraituz eta hau egitea dagokio OCBri.

Altuan bota du galdera: zein da Junta Komertzialak eta OCB-k egiten duten lanaren arteko aldea? OCB-n erregistroa egiteak, kooperatibaren eskakizunak doktrinarekin bat datozela baieztatzen du. Legeak dituen ehun artikulua oso zurrunk dira eta hauen atzean jokabide kooperatiboa definitzen da. Beraz, oso inportantea da xedapenen ulermen eta aplikazio zuzen bat egitea. Bestalde, kooperatiba mota guztientzat aplikagarri den legedi bat izanik oraindik eta arrazoi gehiago dagoela uste du berak. Garrantzi handia dauka bere ustez, kooperatibetan eskarmentu handia daukan egitura bat egoteak eta honek Estatuarekin lankidetzan kooperatiben erabilera oker bat eman ez dadin lan egitea. Erabilera okerrak eta interesatuak egotea ekidin egin behar da. Bestalde, legeak dio kooperatibak babestu egin behar direla eta pizgarriak eman behar zaizkiela garatu daitezten.

Ildo horretatik Guilhermek uste du sarritan kooperatibak sortzea ez dela aukeratzen dituzten printzipio eta baloregatik, baizik eta dituzten pribilejio eta abantailengatik horregatik da horren beharrezkoa erakundeak zaintzea kooperatiben erabilera zuzena. Bere kezka da ez bada printzipio hauen aplikazio zuzen bat egiten, agente hauek ez dagokien onuretaz baliatzen direla. Eta OCB da gertaera hauek ekiditeko erantzukizuna daukana. Bere kezka hortik dator: nola lortzen da kooperatibismoa babestea? Nola lotzen da politika publikoek bultzatzen dituzten abantailen erabilera zuzena?

Azkenik, Guilhermek dio badirela hainbat herrialde zeinetan kontrol hau ez den existitzen baina, berak dio, herrialde hauetan ez dela kooperatiben eta bestelako pertsona juridikoen artean bereizketarik egiten. Amaitzen du esanez, berak onartuko lukeela zaintzarik ez izatea, baldin eta enpresa desberdinen artean diferentziarik ez bada egiten.

OCB-ko aholkulariak adierazitakoa kontutan izanik argi geratzen da nahi dutela mantendu orain artean eurak eta ez bestelako erakunderen bat izaniko monopolio bat. Doktrinaren zaintza eta ordezkari-tza instituzionala da euren esparru moduan gorde nahi dutena. Gure ustez, erakunde pribatu batek ezin du doktrina zaintzeko ardura izan, erantzukizun hau irizpide neutral eta objektiboekin burutu beharrekoa delako. Bestalde berriz, ordezkari-tza instituzionala eta politikoa bereizteko ez dago nahikoa elementu. Ez dugu bi hauek bereizteko premiarik eta daturik dagoenik uste.

Paul Singerrek eta Favio Sanchez-ek (SENAES) gogora arazi nahi izan dute OCB diktadura garaian sortua dela, eta orduan 'publikoa' zela. Konstituzioaren onarpenetik bazkidetza librea da. Estatuak ezin du asoziazio zibiletan parte hartu. Ondorioz, OCB-k utzi zion Estatu izateari baina, hala ere, jarraitu nahi du bere pribilejio eta monopolioak mantentzen. Eta guk onartu ez arren, berak jarraitzen du kooperatiba zein den eta zein ez den esaten.

Paulek nahi izan du argi adierazi, Brasilgo administrazioa bize-faloo dela eta babesten eta defendatzen dituela bai agroindustriari diharduten kooperatibak eta baita nekazal erreforma bultzatzen ari diren kooperatiba txikiak ere. Adierazi du SENAES-ek helburu duela diktadura aurreko egoera berrezartzea. Guk buruan daukagun egiturak hiru funtzio beteko lituzke: erregistroa, katastroa eta arbitraia. Eta bertan ordezkari-tza izango lukete bai Ekonomia Solidarioko kooperatibak, bai OCB-k eta baita gobernuak ere.

Guk SENAES-n ideia ez dugu gaizki ikusten, baina gure egoerarekin alderatuz bada aldea, gure erregistroa publikoa da eta ez dago inolako erakundearen ordezkari-tzarik. Administrazio publikoko organigrama osatzen dute baina ez dago kooperatiben bestelako ordezkari-tzarik bertan. Hiru izanik funtzioak agian beharrezkoa da baina gurean ez da horrela gertatzen. Kooperatibetako ordezkari-tza beste gune batean dago Kooperatiben Goren Kontseiluan, baina ez erregistro publikoan.

Aipatutako bi muturreko jarrera hauetatik aparte badira beste bi jarrera ere. Bada Brasilen kooperatibismoaren munduan ibili arren, ordezkari-tza ofizialaren gaineko irizpide garbi bat ez duen jendea. Eta aldi berean, bada elkartzeko askatasunaren alde dagoena eta ahalik eta elkarte gehien egotea komeni dela uste duen jendea.

Kooperatiben ordezkari-tza ofizialaren atal honekin amaitzeko Adao Prettoaren (Partido de los Trabajadores-ko parlamentaria) iritzia jasoko dugu. Lehenik eta behin Kongresu Nazionalan dagoen egoera zein dena azaldu digu. Batetik, Osmar Dias-ek OCB-ren aldeko jarrera defendatzen du Kongresu Nazionalan. Bestetik berriz, Eduardo Suplyciren proposamena dago eta berau UNISOL, UNICAF eta MST adostua izan da. Hala ere bere esanetan, senatua oso kontserbadorea denez mugimendu sozialak babes gutxi daukate. Eta 'abanzada ruralista'-k berriz indar handia.

Aitortzen du gaur Brasilen kooperatibismoaren gainean dagoen eztabaida nagusia hain zuzen ere, hori dela, ordezkari-tza ofizialarena. Nork duen kooperatibak ordezkatzeko legitimitatea. Kooperatiba txikiak, handiak, asentamenduetakoak, Ekonomia Solidarioaren baitakoak ...

OCB kooperatiba zehatz batzuek ordezkatzeko dituen egitura bada bere kezka da ea zein den gainerako kooperatibak ordezkatzeko dituen. UNICAF izan daiteke aukera baina, berak dio ez dagoela nahikoa adostasun mugimendu sozialen aldetik. Brasilen estatu osoko ordezkari-tza izatea oso garrantzitsua da bere esanetan; negoziatzerako orduan garrantzia eta pisua duelako ordezkari-tza orokorrak. Adak esan digunez MST-ren ingurukoak zalantzak dituzte gaia jorratzerako orduan. Ordezkari-tza ofizialean sartuz gero, Gobernuarekin harreman instituzionalak izateko beharra edukiko lukete. Bestalde berriz, garbi dago OCB edozeini kooperatibetan sarbidea ukatzearen alde dagoela. Egoerari erreparatuz berriz, gero eta gehiago dira OCBn bazkide-tza egin barik kooperatiba izaera hartzen duten kooperatibak.

Orokorrean esan genezake trantsizio egoeran gaudela Kooperatiben ordezkari-tza ofizialari dagokionean. Historiak eta legeak OCB-ri emandako ordezkari-tza eta legitimitatea amaitze bidean daude. Legea aldetik Konstituzioak ekarri zuen aldaketa esanguratsua eta legitimitateari begira, praktika da egoeraren erakustoki. Elkartzeko aniztasuna egonik egitura bakoitzak erabakitzen du bazkide-tza non egin eta baita egin ala ez.

6.11. SESCOOP ETA FORMAZIO KOOPERATIBORAKO LAGUNTZAK

1988ko urriaren 1ean Medida Provisória 1.715aren bidez SESCOOP sortu zen, Serviço Nacional de Aprendizagem do Cooperativismo. Erakunde honen zuzendaritza gauzatuko duen Batzorde Nazionala egongo da ministerio desberdinetako bost kidez (Lan Ministerioa, Aurreikuspen Soziala, Ogasuna, Planeamendua eta Nekazaritza Ministerioa) eta OCBko beste bost kidez osatuta; bai eta langileen ordezkari-tza izango duen beste kide batek ere. SESCOOP-n lehendakari-tza izango du OCBko lehendakariak.

Aurreikuspen Neurriak (medida provisoria) derrigorrezko ekarpena ere sortu zuen, eta neurri hau kooperatibek onartu zuten 1999ko urtarrilaren 1ean. Arau honen arabera beraz, kooperatibak derrigortuta egongo dira langile guztiei ordaintzen dieten zenbateko osoaren % 2,5 ordaintzera. Ordura arte kooperatibek bazituzten formazio zerbitzuak finantzatzeko hainbat kontribuzio, (SENAI, SESI, SENACS, SESC, SENAT, SEST eta SENAR) eta neurri hau obligazio hori ordezkatzera etorriko da. Zorionez ez die kooperatibei inolako ekarpen gehigarririk eskatuko.

Nahiz eta neurriak ez duen lege izaera hartu jarraitu du editatua izaten 2001. 08. 24 arte, Aurreikuspen Neurri moduan. Indarra izan du eta Kongresu Nazionalak ere aitortu izan du;

2001.09.11ko 32 konstituzio emendakina oinarritzat hartuta. Esan behar da beraz, neurri honek indarrean dirauela oraindik, nahiz eta Aurreikuspen Neurri moduan izan.


Auzitegi Federal Gorenean tramitatzen ari da konstituzionaltasun helegite bat, (Acción Direta de Inconstitucionalidade, ADIN n. 1924-1). Industri Konfederazio Nazionalak (CNI) ezarri zuen helegitea eta oinarri juridiko askorekin planteatzen du SESCOOP sortzearen konstituzionaltasuna.

Reginaldoren esanetan errezeta sortzaile den instituzio hau ez dator bat konstituzioarekin¹⁴⁵; 240 artikulua dioena urratzen du zuzenean¹⁴⁶:

Artikulua abiapuntu hartuta esan behar da OCB ez dagoela sistema sindikalarekin lotuta, eta hau da hain zuzen ere, erakundeak zerbitzu sozialak eta formazio profesionala ematera ahalbidetzen dituen baldintza.

Konstituzionaltasun Akzio Zuzena (ADIN n. 1924-1) Auzitegi Federal Gorenean ari da tramitatzen. Luzaro geldirik egon ondoren akzio hau berriro ari da epaitua izaten. Azkena epaitegian izandako sesioan 2006.10.18an berdinketa eman zen (5X5). Berdinketa hausteko kalitatezko botoa dauka Celso de Mello Ministroak.

SESCOOP-k sortzea konstituzio kontrakoa dela argudiatzen dutenak Aurreikuspen Neurriaren 9 artikuluan oinarritzen dute euren iritzia. Neurri honen 9 artikulua da hain zuzen ere, SESCOOP-n Nazio Kontseilua izendatzen dituen eta bertako lehendakaritza, OCBko lehendakariari esleitzen dizkiona.



¹⁴⁵ SILVA, Eduardo Faria. A Organização das Cooperativas Brasileiras e a negação do direito fundamental á livre associação. Dissertação. (Mestrado em Direito Cooperativo). Curitiba: Universidade Federal do Paraná. 2006, p. 4.

¹⁴⁶ Konstituzio Federal Brasildarra, 240 artikulua. Enplegatzaileek dituzten derrigorrezko ekarpenak 195 artikulua babestuta geratzen dira (sistemaren barnean dauden, gizarte zerbitzutara edo heziketa profesionalera bideratutako erakundeei egin beharreko ordainsari orriak).

Autorearen esanetan, ADIN tramitatzen doan neurrian eta agian, prebentzio neurri moduan, OCB eta beste estatu erakundeak, kooperatibetako sindikatuak sortuko dituzte (nazionalak eta estatukoak) eta eskuduntza izango dute sistema kooperatibista ordezkatzeko. Bere ustez, OCB eta OCES egiturak sindikatu nazional zein estatuko izaera hartzeak ez du lege babesik. Kooperatibak era kolektibo batean ikusita, jarduera ekonomiko bat burutzen dute, Lei 5.764/71ko 3 eta 4 artikulutan ezarritakoaren arabera. Jarduera ekonomiko komun honek bere baitan hartzen du kooperatibak bere bazkideei zerbitzuak eskaintzeko aukera, eta honela bide emanaz bazkideei, irabazi asmorik gabe, guztien onurarako izango den jarduera ekonomikoa burutzeko.

Egitura kooperatiboaren ezaugarri hauek ez die aukerarik eskaintzen kategoria ekonomiko bakar moduan taldekatuak izateko eta beraz, kooperatibei ez die aukerarik eskaintzen sailkapen sindikalen baten sartzeko.

Consolidação das Leis do Trabalho- CLT 570 eta ondorengo artikulutan dioenaren arabera sindikatuak kategoria ekonomiko bakarra ordezkatu behar dute. Eta ez da hau gertatzen kooperatiben kasuan, hauek kategoria ekonomiko anitz baitituzte bere baitan.

5.764/71 legeak bere 10 artikulua egiten duen sailkapena kooperatibak burutzen duen jarduera edo objektu ekonomikoaren arabera da. Kooperatibak sailkatzen dira bazkideen edo kooperatiba beraren jarduera kontutan hartuta. Ondorioz, sindikatu batek, ezin du modu indiskriminatu batean lurralde esparru batean dauden kooperatibak ordezkatu, ez dagoelako objektu ekonomikoen arteko identitatearik eta honek sindikatuen antolaketa irizpideen aurka egiten du zuzen zuzenean. Kooperatiben objektu ekonomikoak anitzak dira eta ezin dira bildu ordezkartza beharrei erantzuteko. Interes ekonomikoak desberdinak dira eta ez dira sindikatuen esparruan sartzen.

Esan ditugun arrazoiengatik OCB eta bere estatuko erakundeak Lan Ministerioak debekatu edo eragotzi ahal izango ditu. Reginaldoren ustez, konponbidea kooperatibentzat bereziak diren sindikatuak sortzea litzateke. Sindikatuak antolatu ahal izango litzateke kooperatiben objektu ekonomikoa eta lurralde esparrua kontutan harturik. Badira dagoeneko honelako adibideak: Lan Elkartuko Kooperatibetako sindikatuak eta Osasun Asistentzia Sindikatuak. Kasu hauetan bazkideak kolektiboki ordezkatzeko legitimitatea dago.

Laburtuz;

- Kooperatiben Nazio Kontseiluan, sistema kooperatibista ordezkatzeko Lei 5.764/71 OCB-ri aitortutako eskuduntza, Konstituzio Federalaren onarpenarekin bertan behera geratu zen. CNC izateari utzi zion eta ondorioz baita Legeko 145 artikulua eta gainerakoak.

- Kooperatibak eskubidea dute OCB-ra elkartu ala ez erabakitzeko. Baina ez dago obligaziorik.
- OCB-k sistema kooperatibistaren ordezkari-tza berriro hartzeko beharrezkoa izango da Konstituzio Federaleko XVIII ataleko 5 artikulua bertan behera lagatzea eta Lei 5.764/71 legeko 105 artikulua berriro indarrean sartzea.
- SESCOOP-eko Zuzendaritza Kontseiluan OCB-k daukan parte hartzea Inkonstituzionaltasun Akzio Zuzenari 1924-1 STF, (Auzitegi Federaleko Sententzia) ematen zaion erantzunaren baitan dago.
- Azkenik, kooperatibismoaren ordezkari-tza sindikatuen bidez bideratu ahal izango da baina, horretarako beharrezkoa da objektu ekonomikoaren arabera egindako sailkapen bat. Ezin baita egon kooperatibismoa osotasun bat bailitzan hartuko duen sindikaturik, ezingo litzatekeelako interes ekonomiko espezifikoaren defentsarik burutu.

Euskadiko Kooperatibek formaziorako jasotzen duten dirua bi egituretatik etortzen da nagusiki. Batetik, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiako sailetik eta bestetik, Kooperatiben Goren Kontseilutik. Bi iturri hauetatik finantzazioa lortzeko beharrezkoa izaten da eskaerak egin eta proiektu zehatzak aurkeztea. Diru ematea beraz, proiektu zehatzen gainekoa izaten da eta ez modu abstraktuan egina.

Finantziarioa hornitzen duten egiturak irizpide objektiboz egiten dute diru banaketa. Kooperatiben Goren Kontseilua egitura pribatua izanik kooperatiben fondoak ditu bere diru iturri nagusi. Kooperatibak dira beraz, Goren Kontseilua diruz hornitzen dutenak, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuak ere. Bi egitura hauek beraz dira nagusiki kooperatiben formazio beharrak asetzen dituztenak.

Brasilen egoera bestelakoa da. Kooperatibako lan kontratudun bakoitzaren 'hoja de pagamento' delakotik portzentaje bat izango da Administrazio Publiko edo Estatuko kutxak hornitzera bideratuko dena eta ondoren, hau OCBk kudeatzen duen SESCOOP-era bideratuko da. Azken datuen arabera OCB diru iturri honetatik jasotzen duen kopurua altua da (kooperatiba guztiek, dituzten enplegatu guztiengatik, ordainsari orriaren %1a ordaintzen dute administrazioa eta gero, bueltan, OCBra afiliatutako kooperatibek soilik jasotzen dute formazioa).

Kooperatiba guztiak ordaintzen dute tributu edo kanon hau baina, soilik OCBko bazkide direnak jasotzen dute diru iturri honen bidez finantzatu den formazioa. OCBk beraz kooperatiben

ustezko ordezkariak duela gestioatzen du bai diru poltsa hau eta baita honetatik eratorritako formazioa ere.

Formazioa Brasilen sektoreka antolatu eta banatzen da eta ez izaera juridikoaren arabera. Kooperatibek administrazioetik jasotzen duten kopuru hau salbuespen gisa kontsideratu beharko genuke; kooperatibena delako kasu bakarra sozietate motaren arabera diru laguntza jasotzen dena.

Ekonomia Solidarioko enpresa ekimenak ez dira kasurik gehienetan OCBko bazkide eta ondorioz, formazio premia larria izan arren ez dute formazio hau jasotzeko inolako aukerarik. Bestalde, administrazioak eta zehazki SENAES (Secretaria de Economia Solidaria) bideratzen dituen laguntzak ere ez dira lorgarri beraientzat. Diru laguntzetarako eskaera egiteak burokrazia handia eskatzen du. Honetaz gain, formazioa eskaintzen den lekura desplazatzeak ere denbora eta kostu ekonomikoa suposatzen du eta ezin izaten dute formazioa jasotzera joan.

Goazen ondoren formazio kooperatiboaren gainean eginiko erantzunak jaso eta aztertzea.

Sao Paulon OCB-ko egoitzan egin genuen elkarrizketan presente egon ziren SESCOOP-ko kideak ere. Egoitza berean daude bi erakundeetako teknikariak beraz, bilera bi erakundeetako teknikariek batera egin zen. Hau beraz da OCB eta SESCOOP- n artean dagoen loturan erakusle.

Eurekin izandako bileran azaldu zuten zein zen S sistema deiturikoaren funtzionamendua. Kooperatibek administrazio publikora bideratutako dirua ondoren OCB-k nola kudeatzen duen. Oso gauza normala balitz moduan OCB-n ez dauden gainerako kooperatibak finantziario bide horietatik kanpo geratzea.

Marcelo Mauad-ek formazio iturri honen inguruan galdetuta honako hau erantzun digu:

‘ Une honetan Brasilgo Gorte Gorenean ari da gaia eztabaidatzen. SESCOOP sistemaren konstituzionaltasuna auzitan dagoen arren, feto consumado deiturikoaz ari dira baliatzen. 70.000 erreal dira gestioatzen ari direna. Diru kopuru honekin finantzatzen dituzte senatari eta diputatuak. Lortu dute lobby handi eta indartsu bat izatea. FRENTCOOP- ‘Frente Parlamentario Cooperativo’- daukate. Egitura honetako kide diren askok eta askok OCBren (SESCOOP) finantziarioa dute. Eta hauek helburu bakarra daukate, OCB-renak eskusiboki diren proiektuen defentsa sutsua egitea baina, ez orokorrean kooperatibismoarena eta kooperatibena.

Arrazoi horregatik guk ez dugu onartzen publikoa den finantziario horrek erabilera pribatua izatea. Diru hau kooperatiba guztien onura bilatzera bideratu beharko litzateke.

Azken berrien arabera esan genezake finantza baliabide hauen erabilera ez dela zuzena izan. Arrazoi guzti hauengatik beharrezkoa litzateke diru-poltsa hau zabaltzea.

Ikuspegi juridikoari dagokionez ere Brasilen publikoak diren finantza poltsa desberdinak daude baina guztiak ere jardueraren arabera banatzen dira; merkataritza, industria... eta bakarra da pertsona juridikoaren izaeraren arabera sortzen den poltsa. Ez dago poltsarik Sozietate Anonimoentzako, ezta Erantzukizun Mugatuko Sozietateentzako ere baina badago finantza publikoa Kooperatibentzako. Merkataritza, industria, nekazal ... fondoekin batera OCB-k lortu zuen fondo bat sortzea sozietate motaren araberakoa izango zena eta ez burutzen zen jarduera motaren araberakoa. Honek erakusten du finantza poltsa honen konstituzio-kontrakotasuna. Eta horregatik dago politika de fato consumado delakoa indarrean; diru poltsa sortu, erabili eta ondoren epai bideetara eramán. Erantzuna oso epe luzera etorri daiteke gainera. Tribunal Federalak bere erantzuna bost, hamar edo hamabost urte pasa ostean eman dezake '.

Marcelo Mauad-en adierazpenak nahikoa esanguratsuak dira. Gaur egun Brasilen dagoen formazio kooperatiborako finantziario iturrien konstituzionaltasuna auzitan egotea adierazgarria da. Nahiz eta gaia epaitegian egon garbi dago dagoneko kooperatiba batzuk soilik direla diru baliabide hauetaz baliatzen ari direnak eta beste asko kanpo daudenak.

6.12. ONDORIOAK

Errealitate kooperatiboaren gainean lege kooperatiboak duen garrantzia kontutan hartuta eta atalez atal, egin dugun azterketatik honako ondorio hauek atera genitzake:

6.12.1. Eraketarako gutxieneko eskaeren gainean

Kooperatibaren eraketarako eskatzen den gutxieneko kapital sozialari dagokionez, gutxieneko bat eskatzearen aldeko eta aurkako iritziak entzun ditugu. Gutxieneko kapital bat eskatzearen alde egiten dut nik, nagusiki bi arrazoigatik: proiektu edo ekimenen oinarria sendotzen duelako batetik eta bazkideen inplikazioa areagotzen duelako bestetik. Hala ere, sektore eta esparru zehatz batzuetako ekimenei beharrezko dute laguntza gehigarri edo berezi bat jasotzea. Politika publiko egoki bat izatea beharrezkoa da. Politika publikoak finantziarioa bideratu dezaketan banku publikoen politikekin alineatuta egon behar dute. Hemen interesgarria da BNDS (banco de desenvolvimento) eta SENAES-ek (Secretaria de Economía Solidaria) elkarrekin hasi berri duten formazio eta elkar ezagutza bidea. Biek elkarrekin burutu ditzaketen ekintzak eragin dezakete koordinatutako babesa eskaintzea ahulak diren ekimenei.

Kooperatibaren eraketarako beharrezkoa den gutxieneko bazkide kopuruaren gainean, bazkide kopuru baxua eskatzearen aldekoak gara. Kooperatiba eratzeko hogei bazkide eskatzea

eragozpen handi bat da eta sarritan, kopuru hau lortzeko zailtasunaren aurrean kooperatiba ez aukeratzearen aldeko hautua egiten da. Hiru, bost edo zazpi izan daitezke kopuru egokiak.

6.12.2. Bazkide moten gainean

Bazkide laguntzaileak eta erabiltzaileak Brasilgo legedian sartzeak bertako kooperatibismoa sendotzeko baliagarri izan daitekeelakoan nago. Bi bazkide motak elkarriketatuengan sortarazi duen beldurra gainditu daitekeelakoan nago. Bazkide moten gainean esperientzia bat garatzeak, ibilbide historikoak sortaraziko beldurra gainditzen lagundu dezake. Kanpoko edozein esku hartzeren beldur dira, beti ere mehatxu moduan bizi dutelako; 'injerentzia' bailitzan. Hala ere, bazkide mota hauek ekimen kooperatiboaren sendotzean lagundu dezaketelako bazkide motak legean sartzearen aldekoan aiz.

6.12.3. Kooperatiba moten gainean

Elkarrizketatuen aldetik hainbat kritika azaleratu diren arren, bitariko kooperatiba legean sartzearen aldeko proposamena egiten dut. Figurak kooperatibismoaren purutasuna galtzen duen arren, aukerak ere zabaltzen ditu. Finantziario aukerak, erabaki ahalmena ponderatzeko aukerak, kooperatiben arteko harremanak eta sareak sendotzea ahalbidetu dezake. Nahiz eta kooperatiba mota honetan zati bat ez izan kooperatiboa eta kapital enpresen izaera izan, gehiengoak kooperatiboa izaten jarraitzen du. Alderdi kooperatiboa lehenesten da. Beraz, kasu honetan ere legeak figura hau jaso beharko lukeela uste dut.

6.12.4. Erregimen fiskal eta kontabilitatearen gainean

Kontabilitatea eta zerga erregimena ekintza kooperatiboak ardazten ditu eta nahiko sistema konplexua da. Ekintza kooperatiboa izan beharrean bai zerga eta bai kontabilitatea egituratzen dituen, pertsona juridikoak behar luke izan sistemaren ardatza. Zerga erregimena sinplifikatzeak eta zerga ordaintzen duena pertsona juridikoa izateak sistema erraztea eta ondorioz, betekizunak egoki betetzea ekarriko luke.

6.12.5. Eskakizun administratiboen gainean

Eskakizunak astunak eta garestiak direla uste dute bertako eragileek. Administrazio betebeharren kostua eta zailtasuna arintzea, kooperatibismoari bultzada emateko beharrezkoa da. Erregistroei dagokienez, kooperatibentzako berezia izango den erregistro bat da beharrezko. Junta Komertzialak ez dute bermatzen beharrezkoa den objetibotasuna eta Cartorioak berriz, irabazi asmorik gabeko egiturentzat daude eginak. Ez dut uste, kooperatibak

bigarren erregistro mota honetara ekartzea komeni denik, azken batez, balore bereziekin baina, enpresa jarduera aurrera eramatea dute helburu. Betekizun administratibo eta burukratikoak erraztea eta kooperatiben eraketa eta kudeaketa errezago bat bultzatuko duen erregistro egitura publiko bat behar da.

6.12.6. Ordezkaritza ofizialaren gainean

OCB-k Konstituzio Federalaren onartzearekin batera, bere funtzio historikoa betetzeari utzi beharko liokeela uste dut. Brasilgo Konstituzioak elkartzeko askatasuna aldarrikatzen duen unetik errealtate kooperatiboa osatu nahi dutenek nahi duten elkartetan edo inon ez elkartzeko aukera daukate. Erregistro publiko baten beharra dago eta honekin batera OCB-k bete izan dituen hainbat funtzio betetzeari uztea; legezko betebebarren kontrola egikaritzeari utzi beharko lioke, 'polizia' funtzioak edo egitura publiko batek soilik bete ditzazkeen funtzioak direlako. Bestalde, ordezkaritzari dagokionean ere soilik bere afiliatu edo bazkideen gaineko ordezkaritza eramateko eskubidea gordeko luke.

6.12.7. Formaziorako laguntzen gainean

SESCOOP sistema auzitan dagoela kontutan izanda, irizpide objektiboz eta berdintasunez kudeatua izango den formaziorako sistema bat beharrezkoa da Brasilen. Kooperatibak bere osotasunean hartuz gestionatua izango den sistema bat. Gaur indartsuak diren 'sasi kooperatibak' dira formaziorako aukera gehien duten kooperatibak, eta tamalez, ahulezia eta behar egoera larrian daudenak berriz dira aukera gutxien dutenak. Irizpide objektibo ate berdintasuna errespetatuz kudeatuko den hezkuntza sistema bat da beharrezkoa.

OCB-k kontrolatzen duen diru poltsa handia ez da heltzen kooperatiba guztietara eta ez dira maila berean heltzen formazio aukerak, hau ekidingo duen sistema ezarri beharra dago.

6.12.8. Ondorioak ekonomia solidarioaren ikuspegitik

Honako atal honetan Ekonomia Solidarioaren ikuspegiari emango diot begiraturua. Indarrean dagoen legediak beraz ez du balio, krisi ekonomikoaren ondorioz sortu den Ekonomia Solidarioko Kooperatibismoa gidatzeko eta arautzeko. Ekonomia Solidarioaren baitako Kooperatibismoak helburu ditu autogestioa eta elkartasuna eta ez dator bat Kooperatibismo enpresarialarekin zeinetan, helburua kideen irabazi ekonomikoen pilaketa den. Bestalde, esparru publikoan interkooperazioari indarra emateko balio duten forma autogestionatu eta elkartezkoak bultzatzea ere helburu izango duen legedia behar da.

Laburtuz beraz, Ekonomia Solidarioaren irudia izango duen legedi kooperatibista lortzeko erreforma sakon bat behar da. Eta erreformak ezin ditzake ahaztu 1988ko Konstituzio

Federalean oinarriak dituen eta langileen lorpenak izan diren esperientzia eta praktika demokratikoak. Kooperatiba, estatutik kanpo dagoen antolaketa kolektibo bat da, eta ekoizteaz gain, antolaketa eta sozializazio bideak lantzen dituen estruktura ere bada. Kooperatiba ezin da ondasunen ekoizpen, banaketa eta zirkulaziorako tresna moduan soilik ikusi.


Lkuspegi juridiko (normatibo) batetik nabarmenak diren arrazoiak direla eta, zuzenbide estatal baten beharra dago. Derrigor bete beharrekoa izango den zuzenbidea eta hermeneutika desberdinak onartzen dituen.

Kooperatibei dagokionean, hermeneutika zuzenean 1988ko Konstituzio Federalak dituen oinarriko printzipio demokratiko eta emantzipaziozkoak dira. Printzipio hauek Brasilgo Zuzenbidezko Estatu Demokratikoaren ordenu ekonomikoa oinarritzen duten bitasunaren adierazle dira. Posizio dikotomikoak ditugu: pertsona/jabetza pribatua batetik eta lana/ekimen librea bestetik, Canotilhok dioen moduan¹⁴⁷.

Hermeneutika hori onartzeak eskatzen du araudi estatalaren zentroa den testu konstituzionalak, kooperatibismoarekin bateragarriak diren printzipioak hornitzea. Jarrera honek aldi berean eskatzen du, Konstituzio Federala arauen sistema ireki gisa ulertzea; esperientziatik eta elkartezko eta autogestionatuak diren formatatik eratorritako printzipioekin bat datozen arauak hain zuzen ere.

Zuzenbidea interpretatzeko metodo hau onartu ostean, Kooperatiben antolaketa arautuko duen legediak printzipio konstituzionalak hartu behar ditu kontutan baina, ez soilik egiturek betetzen duten funtzio ekonomikoari begira baita, euren funtzio politikoari begira ere.

Esandakoari jarraituz Estatu eta Kooperatiben arteko harremanean eta ekintza kooperatiboaren zerga tratamenduari dagokionean, irabazi asmoan oinarritutako enpresen tratamendutik bereizten den zerga erregimena izan beharko lukete kooperatibek; Zuzenbidezko Estatu Sozialak bilatzen duen berdintasun materialari leku eginaz¹⁴⁸.



¹⁴⁷ CANOTILHO, José Joaquim. Direito Constitucional. Coimbra: Almedina, 1992. p. 171.

¹⁴⁸ Conforme esclarece Marco Tulio de Rose ' o ato cooperativo é uma criação dos juristas da América Latina, presos á tradição conceitual dos atos jurídicos, como forma de descrição de uma situação própria, sui generis, das sociedades cooperativas, que longe está em constituir-se Numa ficção abstrata, antes

Zuzenbide Estatalaren hermeneutika honek lagunduko digu kooperatibak Estatuarekin izan beharreko harreman ekonomikotan hobeto kokatzen. Adibidez lizitazio publikotan parte-hartzerako orduan burokrazia eskaerak gutxitzen. Eta ez gaur gertatzen den eran, zerbitzu prestazioko kooperatibak gainerako enpresen parean ipintzen.

Gaur egun egiten den interpretazioak kontrajarriak diren bi egoerataraz garamatza. Batetik, langileen eta kooperatibaren artean enpleguzko harremana dagoela baieztatzen du eta bestetik berriz, ez du onartzen langile mota hauen sarbidea estatuko aurreikuspen sozialeko babes sisteman.

Lan kooperatibismoaren aurrean beraz, Konstituzio Federalak hiru egitate proposatzera garamatza: a) ekoizpen harreman kapitalistetan ezargarri diren kategoria edo forma juridiko desberdinak diziplinartekotasun ikuspegiarekin egitea; b) zuzenbidearen pertzepzioa, langileak taldean antolatuta sortutako egituretatik izatea, hots, jarrera teoriko pluralista batetik; c) printzipiotan eta emantzipazio jarreraren oinarritutako hermeneutika konstituzional onartzea.

Kooperatibismo Brasildarrak eraldaketa sakonak bizi izan ditu azken hamarkadan. Hirigunetan burutzen diren jardueretan eta krisiak bereziki kaltetutako sektoreek erabili izan dute kooperatiba formatua. Ekoizpen gunetan egiteko era demokratikoak ezartzen dituzten herri eta eskualde garapenerako tresna dira kooperatibak, eta herrigintzarako eta partehartze politikorako elementu baliagarriak diren heinean, kontutan hartu beharrekoak dira.

1990ko hamarkadan eztabaidagai izan diren legedi kooperatiboaren erreforma proposamenak eta gaur Senatu Federalean eztabaidagai daudenak ere, ez dituzte kontutan hartu, hiri brasildar handietako joera berriak eta ezta, ekoizpenerako antolaketa kooperatiboa aukeratu duten herri tradizioen izaera ere.

sendo, como toda boa ficção, seleccionado pelo directo como a ele relevante. O dado fático de que se fala está exatamente na diferença entre o socio de uma sociedade comum e o sócio de uma sociedade cooperativa. Enquanto naquela existe evidente distinção entre a atividade profissional ou pessoal do associado e a sua participação no desenvolvimento e resultados da sociedade, nesta comparece uma conexão estrita entre a atividade particular do cooperativado e a sua integração, para todos os efeitos, na sociedade [...]. O conjunto de ações que uma Cooperativa realiza, com seus associados, prestando a eles o serviço que eles, associados, procuram na Cooperativa quando se associam, serviço que não os diferencia da qualidade de associado, por serem clientes, este serviço é o que a lei chama de ato cooperativo. Ato que não é lucrativo e cuja realização não implica, por expressa disposição legal, operação de mercado ou contrato de compra e venda de produto, serviço ou mercadoria'. (ROSE, M. T. A incidência do ISS sobre atividade de cooperativas. Revista de Estudos Tributários, nº 14, jul/ago. 2000. p.32-33).

Lege erreforma proposamenak ez datoz bat 1988-ko Konstituzio Federalarekin; konstituzioak dituen balioak sozietate demokratiko, anitz, eta solidario bat eraikitza bideratutako baloreak dira. Bestalde, erreforma hauek ez dute kontutan hartzen Konstituzio Federalean jasotzen den herri kooperatiben perfila, ez eta demokrazia sozial kontzeptua bera ere. Eta modu berean, lan kooperatibetara zuzenduta dauden erreforma proposamenak ere, ez dituzte erabiltzen kooperatiba mota hauek beharrezko dituzten kategoria eta kontzeptu juridikoak.

Lan kooperatibei dagokionez, Lan Kooperatibak arautzeko eta Programa Nacional de Fomento às Cooperativas de Trabalho (PRONACOOOP) sortzeko helburuarekin Botere Exekutiboak 7.009 Lege Proiektua aurkeztu zuen 2006-ko maiatzaren 10an. Proposamenak Sistema Nacional do Cooperativismo arautzen duen 5.764/71 Legearen erreforma sakon bat jaso beharrean, lan kooperatibak (produkzio eta zerbitzu kooperatibak) bitan banatzen ditu: a) lana terziaritzen dutenak; b) terzierizaziora zuzenduta ez daudenak.

Organização das Cooperativas Brasileiras (OCB)-ra afiliatutako lan kooperatibak, eta legean jasoak izango direnak, tertziarizaziora bideratuta daude. Lege proiektuko 9 artikulua dio zerbitzuak kontratugilearen- zerbitzu jasotzailearen- egoitzan burutu ahal izango dela. Honekin beraz onartua geratzen da lanaren terzierizazioa.

Lana terziarizatzen duten kooperatiben formula onartzean Lege Proiektuak, CLT-ak eta terziarizatutako lana (aldi baterakoa edo tenporala) arautzen duen legeak jasotakoak baino gutxiago diren, lan erregimeneko eskubide sozial zerrenda bat aipatzen du. Terzierizazioa egiten duten kooperatiben zerbitzu jasotzaileei beraz, ongi datorkie lege proiektuak jasotzen dituen erantzukizun sozial batzuk jasotzea.

Honetaz gain, Lege Proiektuak terzierizaziorik egiten ez duten nekazal eta hiri guneko kooperatibak, jarduera era horretan burutuko balute legez tratatzen ditu. Arrazoi horregatik ulertzekoak dira eztabaida forotan Lege Proiektuari egin zitzaizkion hainbat aldaketa proposamen, 7 artikuluko salbuespenetan, hainbat ordezkariak erakunde nagusi sartzeko, CONCRAB (Confederação das Cooperativas de Reforma Agrária do Brasil) kasu.

Aipatu ditugun elkarte hauentzat gutxienekoak jasotzen dituen zerrenda bete ezina da. Egitura hauetan ez du kapitalak lana bere gain hartzen eta ez dago terzierizaziorik, eta bai ordea lankidetzak, autonomia kolektiboa eta irabazien banaketa. Egoera horretan ditugu beraz, Proiektuak jasotzen ez dituen egiturek beraz, (nekazal erreformako kooperatibak, artisautza ekoizpenekoak, birziklatutako material jasotzaileak, seringueiros, garimpeiros eta 'komunitate tradizional' deituriko bestelako kooperatiba, komunitate edo taldeak, beharrezko dute salbuespena jasotzea.

Salbuespen hauek aukera eskaintzen dute, salbuetsiak izan diren kooperatiba mota hauen berehalako eta iraunkorra izango den biziraupena bermatzeko eta Proiektuaren onarpenak, ikuspegi zabalago bat eskaintzen du; patroï baxuagotan eskulanaren terzierizazio ordaindua onartzea. Lana terzierizatzen duten kooperatibak bihurtuko lirateke lizitoak edo legalak.

Gaur mahai gainean dagoen Lege Proiektuaren onarpenak kooperatibismo ofizialetik kanpo dauden kooperatiben baztertzeari suposatuko luke. Salbuespenak, onartuko balira, ekonomikoki ahulak diren kooperatiba mota gisa kontsideratuko lirateke, izaera sozialeko kooperatiba gisa, eta beraz, barneratze sozialeko politika publikoen jasotzaile izango lirateke, hirugarren sektoretik gertu. Hori da hain zuzen ere gaur kooperatibismoaren sektore batek lortu nahi duena; kooperatiba forma sozietarioaren sinplifikazioa lortuz.

Epe ertainera izango lituzkeen ondorioetako batzuk: a) diskurtso kooperatibista hegemonikoaren mantentzea OCBren eskutik; nekazal- enpresaritzako kooperatiba handiak, eskulanaren terzierizazioa egiten duten kooperatibak (Proiektuak onartuak) eta produkzio industrialeko kooperatibak (UNISOL/CUT) batzen dituenak. b) bigarren talde batean leudeke pautak kooperatibistatik kanpo, SESCOOP eta PRONACOOOP-ko baliabideetatik kanpo eta MDS-ren barneratze (inklusio) politika publikoen menpe salbuespen gisa onartuak izan diren egiturak. CONCRAB-en perfila esate baterako ez litzake erreza izango inon kokatzea.

Proiektuak ez du aurreikusten salbuespen egoerak kasuistatik ez jasotzea. Kooperatibak dituen bazkide kopuruaren arabera egitea irizpide bat izan zitekeen.

Modu berean ez zen eztabaidatu teknikoaren edo profesio liberalen eta aholkularitza teknikoko kooperatiben gaia (CONTRARA, AMBIENS...). Kooperatiba hauentzat komenigarria da 7.009/06 Lege proiektuko I ataleko 7 artikuluan azaltzen den kategoria profesional kontzeptuaren esanahia zein den zehaztea. Eztabaida hau ez zen inolako unetan eman. Ez zen egon ezta Proiektuaren definizio politiko edo juridikorako oinarritzakoak ziren kontzeptuak argitzeko abagunerik ere; orduen konpentsazioa, edo (II ataleko, 7 artikuluan) orduen bankua, edo eta, ebentual (Proiektuko 7 artikuluko, I) kontzeptuak eztabaidatzeko ere.

Legeko 7 artikuluko 4 pasartean jasotzen den In natura ordainketak egiteko aukera ere ez zen onartu. Kooperatiben erregistroa Junta Komertzialetan egiteko derrigortasuna ez zen eztabaidagai izan. OCB-k ez du zalantzan jarri ere egiten enpresa izaerako sozietate guztiak erregistroa Junta Komertzialetan egiteko dagoen obligazio, ondorioz, ez zen eztabaidatzeko aukerarik izan. Nahiz eta aurrez aipatuak ditugun Junta Komertzialetan erregistroak egiteak dauzkan hainbat eragozpen, Ekonomia Solidarioaren inguruko kooperatibentzat.

Zegokion espazioan eztabaidatu ez ziren eta, Lan Kooperatiben etorkizunerako garrantzitsuak diren hainbat puntu aipatuak ditugu ondoren: a) autogestio kooperatiborako mekanismo


sozietarioak: batzarretako quorumak eta maiztasunak esate baterako; b) langileen kooperatibetan pertsona juridikoak parte hartzeko aukera izatea. Gai hau ez zen eztabaidatu, Osmar Dias-en (PDT/PR) Lege Proiektu 171-an jasota datorrelako, Lei Geral o Cooperativismoan sartzeko.

Kritikagarria den beste puntu bat, PRONACOOOP-en gestio batzordearen osaketarako irizpideak ez dituela argitzen da. Honetaz gain, Lege Proiektuak ez du argitzen PRONACOOOP-en baliabideak nork kudeatuko dituen, ezta kolektibo honetan herri kooperatibak ordezkatzeko indar politikoa zein izango den, eta ezta zein izango den indarren arteko oreka ere (OCB eta Gobernu Federala), batez ere azken hau, kontutan izanik SESCOOP-en dagoen desoreka.

Prozesu legegile honetan dagoen informazio eskasiaren aurrean hauek dira egin daitezkeen oharpenak. Proiektuan falta dira hainbat gai garrantzitsu argitzeko: autogestio kooperatiborako mekanismo sozietarioak eta langileen kooperatibetan pertsona juridikoak parte hartzeko aukera duten ala ez argitzea.

Orain arteko lege erreforma guztiak (lan erregimenekoak eta aurreikuspen sozialekoak) ez dute bereizketarik egiten formatu kooperatiboan burutzen duten lanaren gainean. Lan kooperatibetarako eta baita herri kooperatibetarako ere (enpresaritzakoak ez direnetan) egiten diren marko juridikoetan kontutan hartu behar dira honako elementuok¹⁴⁹:

- Errealitate kooperatiboa bere osotasunean kontutan hartuko duen lege erreforma bat egitea eta ez aldaketa puntualak egitea. Kontutan hartu beharreko errealitateak besteak beste: laneko kooperatiba urbanoak, Nekazal Erreformatarakoak, mailegukoak, eta beste hainbat.
- Kooperatibismoaren printzipioen artikulazioa printzipio eta balore konstituzionalekin batera artikulatzea eta Kooperatibismo brasildarrarekin konpromiso berriak hartzea, batzuk aipatzearen:



¹⁴⁹ SILVA, Eduardo Faria. A Organização das Cooperativas Brasileiras e a negação do direito fundamental á livre associação. Dissertação. (Mestrado em Direito Cooperativo). Curitiba: Universidade Federal do Paraná. 2006, p. 4.

- Kooperatibak ingurumenaren zainketa zurruna egitea.
- Lan eskubideen kaltetan burutzen den prekaritatea ahalbidetzen duten malgutasun eta terzierizazio tresna guztien aurkako borroka.
- Garapen lokaleko estrategietan herri esperientziak eta ekonomia solidarioko forma tradizionalak sartzea;
- Hezkuntza kooperatibo kontzeptuaren zabaltzea, ez dezan soilik gestio kooperatiboko formazioa hartu bere baitan, baizik eta baita, Kooperatibismoaren irakaste, sentsibilizazio eta dibulgazio formala ere.
- Kooperatibetan antolatutako langileek aurreikuspen eta asistentzia sozialean babes egokia izan dezaten, autonomia kolektibo kontzeptua zabaltzea lanaren antolaketan.
- Langileak batzarrean parte hartzera mugatzen den autogestioaren definizioa fintzea; autogestioaren nozio formala gainditua izan dadin.
- Lan Kooperatiben modalitatea osatzen duten zerbitzu eta ekoizpen kooperatiben arteko interkooperazioa bideratuko duten mugarriak finkatzea.
- Teknologia berriak barneratzeko eta demokratizatzeko gune izan daitezen, egiazko lan kooperatibentzako sustapen eta mailegu politika publikoak ezartzea.

Estatuaren eta Kooperatibismoaren arteko harremanen egituratze berri bat Konstituzio Federalak ezarritako printzipioen harira. Sozietate eta Estatu Brasildarraren oinarrizko zutabe moduan hartzen ditu Konstituzioak demokrazia eta langileen antolatzeko askatasuna eta biak ala biak, kooperatibismoaren ordezkartza bakarraren ezarpenarekin bateraezinak dira. Eta ezin onartu daiteke polizia administratibo botere funtzioa zuzenbide pribatuko pertsona juridiko baten


esku usterik¹⁵⁰. Proposamena litzake Estatuak, dagoeneko existitzen diren organismo publikoen bitartez, eraketa ekintzen artxibamendua burutzeraz mugatzea bere jarduna; honela kooperatibek gainerako sozietate motekiko tratu diskriminatzaileak jaso ez dezaten. Kooperatibek burutzen dituzten aktibitateak fiskalizatu ahal izateko Estatuak tresnak izan behar ditu, dagoeneko existitzen diren organismoetan.

Kooperatiben onarpen edo bazterreratzeko lege irizpideak ezartzea. Ondare eta kontabilitate irizpideak koordinatzea, beste irizpide numeriko batzuekin (bazkide kopurua esate baterako) eta beti ere, kooperatibaren jardura eta segmentua kontutan hartuz, honela kooperatiba txiki eta ertainak zerga tratamendu egoki bat izan dezaten (CF 146 artikulua, II atala eta C azpiatala) eta sustapen politiken onuradun izan daitezen.

- Kooperatiben ekarpenetatik eratorri diren finantza baliabideen (SESCOOP eta RECOOP) kontrol autonomoa eta gardentasuna bermatuko duten mekanismoak sortzea. Baliabide hauen banaketarako irizpideak finkatzea, kooperatiba guztien beharrak ase daitezen.

- Kooperatibak eratzeko eskatzen den pertsona kopuru minimoa zehaztea. Kontutan izan da Kode Zibileko 1.094 artikulua bere II atalean ez duela muga zurrin bat ezartzen eta Zuzenbide Konparatuan baditugu kooperatiben jardura eta segmentuaren arabera zenbateko desberdinak finkatzeko malgutasuna eskaintzen duten herrialdeak (Kanada esatera baterako).

- Ekintza kooperatibo kontzeptua sakontzea komeni da, bere berezko izaera kaltetua izan ez dadin (kooperatibak ezaugarritzeko oinarritzko ezaugarria dela kontutan izan behar da). Ikuspegi horretatik ekintza kooperatiboaren tratamenduak bere gain hartu beharko luke ekoizpen kooperatibetan bai eraldaketa eta komertzializazio prozesuak ere.



¹⁵⁰ Consoante ensina Celso Antonio Bandeira de Mello, '(...)' pode-se definir a policia administrativa como a atividade da Admnsitração Pública, expressa em atos normativos ou concretos, de condicionar, com fundamento em sua supremacia peral e na forma da lei, a liberdade e a propriedade dos individuos, mediante ação ora fiscalizadora, ora preventiva, ora represiva, impondo coercitivamente ao particulares um dever de abstenção ('non facere') a fim de conformar-lhes os comportamentos aos interesses sociais consagrados no sistema normativo'. BANDEIRA DE MELLO, C.A. Curso de Derecho Administrativo. 12ª ed. Sao Paulo: Malheiros, 2000. p. 675).

- Kooperatibetan autogestioaren printzipioaren zaintza, bai formazioa eskainiz, bai jendea gaituz, politika publikoen bidez, edo erregelamenduzko eta estatutarioki eginiko eskarien bidez.

Ikerkuntza hau burutzen ari garen denboran Lan Kooperatibak arautzen dituen lege bat onartze bidean dago (Senatuan une honetan). Eta beste neurri batzuen artean honakoak arautzen ditu: kooperatiben ordezkartzarako askatasun gehiago; Cartoriotan eta Junta Komertzialetan erregistratzeko aukera; zazpi kidez kooperatiba osatzeko aukera; Estatuak ezingo du ez kooperatibaren eraketan ez eta gestioan eskuhartu; estatutoak garatzeko askatasun gehiago izango da; Batzar Orokorreko deialdia sinplifikatzen du eta aldi berean indartu egiten du; Asistentzia Teknikorako, Hezkuntzazko eta Sozial fondoak kapitalizatzeko aukera; Kooperatibismoko Kontseilu Nazionala sortuko da: gobernuaren eta gizarteko mugimenduen partehartze paritarioarekin, eta aholku organo izaeraz.

II. ATALA

LEGE PROPOSAMENEN AZTERKETA

7. LEGE PROPOSAMENEN AZTERKETA


Ondorengo lerrootan gaur 5.764/71 legearen aldaketarako dauden hiru lege proiektuen azterketa egingo dugu. Eduardo Suplicy (ES) Senatariaren 605/99 zenbakia daraman Lege Proiektua, Osmar Dias (OD) Senatariaren 171/99 zenbakia daraman Lege Proiektua eta azkenik, Bortere Exekutiboaren 7.009/2005 zenbakia daraman Lege Proiektua. OCBren interesen arabera lege proposamena Osmar Dias parlamentariak defendatzen du Kongresu Nazionalan eta Ekonomia Solidarioaren aldekoa berriz, Eduardo Suplicyk.

Osmar Diasek bere justifikazioaren oinarri moduan Konstituzio Federaleko 5 artikuluko XVIII atalak dioena hartzen du¹⁵¹. Elkarteak sortzeko askatasuna eta estatuaren tutelaren debekua dira erreibindikazio edo oinarri sendoenak.

Proposametan jasotzen diren ekarpenak hainbat herrialdetako estudio juridiko konparatuetatik abiatuz eginak izan dira. Justifikazio alderdian, ekarpenak brasilgo errealitate kooperatiboaren modernizaziorako beharrezko direla esaten da.

Ekarpenik garrantzitsuenetakoa, ekintza kooperatibo kontzeptua zabaltzearen aldeko eskaera da. Orain arte, bazkide eta kooperatibaren artean mugimendu ekonomikorik ez dagoela ulertu izan da eta arrazoi horregatik bermatu die Konstituzioak zerga tratamendu berezia izatea. Ekintza honetan irabazi asmorik ez dago. Orain nozio hau zabaltzea eskatzen da eta, objektu soziala aurrera eramateko bitarteko eta lagungarri diren negozioak ere, ekintza kooperatibo kontzeptuaren baitan sartzea.

Bigarren berrikuntza nagusia kooperatibak bere kapitala zabaltzeko aukera izatea da. Kapitalerako Ekarpen Ziurtagirien bidez egiteko aukera. Ekarpen egileak ez dute bazkide izaera hartuko baina, jasoko dute negozioak izandako irabazien gaineko zati bat; finkoa ala portzentaia bat izango dena. Honekin lotuta, bazkide ez direnen parte hartzea ahalbidetzeko beste tresna 'parzeria' kontratua litzake. Bazkide ez direnen parte hartzea kooperatibaren



¹⁵¹ a criação de associações e, na forma da lei, a de cooperativas independentem de autorização, sendo vedada a interferência estatal em seu funcionamento'.


intereseakoak diren ekintzetan, aurrez lotuta dagoen kontratu batean finkatuta azalduko dira. Kapitalaren zabalpena eta bazkide ez direnen parte hartzea lirateke beraz, bigarren ekarpen berritzaile nagusiak.

Garrantzi handiko beste alderdia Ordezkaritza Kooperatiboko Sistema Nazionalari dagokiona da. Hainbat nazio mailako kongresutan eskatu izan den moduan ordezkari bakarraren aldeko jarrera da mantentzen dena. Justifikazio honetan defendatzen du Osmar Diasek, ordezkari bakarrak lehiakortasunean irabaztea dakarrela. Kapital sozietateei aurre hartzeko egokiagoa dela ordezkari bakarra izatea. Sakabanaketak ahuldu egiten duela mugimendu kooperatiboa. Nazioarte mailan ere, ordezkari bakarra izanik, mugimendua indartu egiten da OCB-ren aburuz.

Euren buruari esleitzen diote aholkularitza funtzioa, beti ere, adituak eurak direla argudiatuz. Urteetako eskarmentuaren ondorioa da eurak duten eskarmentua eta hortik euren legitimitatearen oinarria ere.

Eduardo Suplicy-ren proposamenak Osmar Dias-enak bezalaxe 1988ko Konstituzio Federala aipatzen du justifikazio nagusi moduan. Honek ere 5 artikuluko XIII atala aipatzen du, hau da, elkarteak sortzeko askatasuna eta estatuaren zaindaritza debekatzen dituen artikulua. Euren ustez aurrerapen handia suposatu zuen Konstituzio Federalak, Estatuari kooperatiben gaineko tutoretza guztia kendu ziotelako. Sistema kooperatibistaren eraketa eta funtzionamenduaren gaineko eskuduntza guztiak kendu zizkioten erakunde ekonomiko pribatuei. Estatuak beraz ezingo du sistema kooperatibistaren gainean esku hartzerik izan. Konstituzio xedapen honek beraz kooperatiben funtzionamenduaren gainean eragiten du zuzen-zuzenean.

Konstituzio Federaleko 5 artikuluko XX atalak ezartzen du inor ez dela behartuko elkartzera edo borondatez kontra elkartuta mantentzera¹⁵². Eta pertsona fisiko zein juridiko orok duen elkartzeko askatasuna bermatuko da. 5 artikuluko XVIII eta XX atalak, biak elkarrekin uztartuz bermatuta geratzen dira, elkartzeko askatasuna batetik eta ordezkari kooperatiboko sistema bakarrean afiliazioa egiteko derrigortasunik eza bestetik. Zentzu honetan beraz, ordezkari



¹⁵² 'ninguém poderá ser compelido a associar-se ou a permanecer associado'

sistema bakarrean afiliazioa egitera behartzen duen edozein lege, konstituzio kontrakoa litzateke.


Bestalde, Konstituzio Federalaren 174 artikuluko 2 atalak estatuari kooperatibismoa eta asoziazionismoa bultzatzeko eta sustatzeko agindua ematen die¹⁵³. Lege agindu hau kokatu behar da Estatuak duen jarduera ekonomikoa arautzeko paperaren baitan.

Kooperatibismoaren historia humanitatearen historiarekin guztiz erlazionaturik aurkitzen da; aliantza eta pertsonen arteko elkar laguntzak markaturik. Gaur egungo ereduari jarraituz sortutako kooperatibak XIX (1844) mendekoak dira; Alemanian eta Ingalaterran sortuak, kapitalismoaren hasieran langileen esplotazio gogorraren aurrean langileek hartutako erabakiaren ondorioz. Ekoizpena eta kontsumoa modu solidarioagoan antolatzea zen helburua. Brasilen antolaketa eredu hau, XX mendeko lehen urtetan hasiko da, europar inmigrazioarekin batera.

Lege- proposamenaren ardatz diren printzipioak mundu osoan barrena hedatuta daude eta hauek dira: sarrera libre eta atxikipen askea; antolaketa demokratikoa; diskriminaziorik eza (arrazoi politiko, erlijioso, arrazako eta sexualak direla eta); irabazi asmorik ez duen sozietate zibila; nagusiki jarduerak bazkide direnekin burutzea eta antolaketa eta afiliazio askatasuna.

Esan berri duguna kontutan izanda ondorengo datuak ematen dituzte justifikazio atal honetan: nabarmentzen diren kooperatibak dira ekoizpena, kreditua, kontsumoa, lana, etxebizitza, elektrizitatea, nekazaritza, hezkuntza, arrantza, zerbitzuak... Lan Ministerioaren baitan dagoen Ekonomia Solidarioko Idazkaritzak 2006an burututako bigarren mapa batean honako hauek azaltzen zaizkigu: ekonomia solidarioko 15.000 ekimen, hautatik % 10 kooperatiba eran antolatuta, gainerakoak elkarre erantzen edo modu ez formalean antolatuta.

Ekimen hauetatik nekazaritza esparru dutenak % 50,1, hirigunetan jarduerak dutenak berriz % 32,70 eta % 17,11ak jarduten dute hiri eta nekazaritza esparrutan. Kooperatiba hauek, kooperatiba berezi moduan klasifikatuak izateko arrazoiak badaudela deritzogu. Nagusiki, dituzten zailtasunak eta eragozpenak.



¹⁵³ ' a lei apoiará e estimulará o cooperativismo e outras formas de associativismo'

Azkenik, 605 zenbakia daraman Senatuko proiektua, 1999ko azaroaren 5ean sinatu zuten erakundeak ageri zaizkigu: CPT, CONCRAB, COTRIMAIO, DNTRCUT, Instituto de Cooperativismo e Associativismo (SP), CERIS, COTEC (MG), APAEB (BA), VIANEI (SC), CETAP, CEDAC, DESER, eta baita hainbaten ikerketa lanak ere Daniel Rech (CERIS), Profesor Dinarte Belato (Universidade Ijuí), Vergílio Perius (UNISINOS) eta Marcelo Mauad (UNISOL-Brasil). Denak egin dute ahalegina Brasilgo errealitate kooperatiboan oinarritzko printzipio batzuk ezartzen eta batez ere, antolaketa, elkartze eta ordezkaritza askatasuna bermatzen.

Eztabaida gobernuaren, sozietate zibilaren eta parlamentarien artean burutzen ahalegindu da; tresna konstituzionalak erabili dira eta demokraziaren sendotzea eta parte hartze soziala eta enpresa efizientzia osagarri egiteko borondatea egon da atzean.

Bi lege proposamenetan ikusteko aukera izan dugu zein diren errealitate kooperatiboaren adiera bakoitzak dituen kezkak eta bakoitzak zertan nahiko lukeen aldatzea indarrean dagoen legea.

7.1. KONTSORTZIOAK ETA PARTZERIA

Kooperatibak kooperatiba ez diren egituretan partehartzeko aukera izango dute, erantzukizuna, harpidetutako kapitalera mugatua dutenean eta bere helburu sozialekin osagarri diren ekintzak burutzen dituen egitura denean. Legeak ezarrita dituen mugak errespetatzen direnean kooperatibak 'kongsortzioak' eratu ahal izango ditu.

Bazkide ez direnen parte hartzeak kooperatiban ezin izango du % 49ko muga gainditu. (hau da gure legediak bitariko kooperatibetan akziokako zatiari ezartzen dion muga). Kongsortzioan bazkide ez direnek duten parte hartzeak ez die bazkide direnen eskubide propiorik ematen; kogsotio ahalmen batzuk soilik emateko aukera izango da eta beti, ekimenarekin loturikoak. Ekimenaren helburua izan beharko da kooperatibaren helburu sozialarekin osagarri. Kooperatibak kongsortzioko kideekin eta azken hauek, bazkideekin buruturiko ekintzak ere ez dute ekintza kooperatiborik sortuko.

Azken hauek izan dira ES-ren ekarpen edo proposamenak eta ekintza kooperatibo kontzeptua zabalduko bada, egokia zehaztapenok sartzea. Beti azaldu izan dugu ekintza kooperatiboa zabaltzearen aldeko gure jarrera baina, beharrezkoa da aurrez esan bezala, 'lagungarri ' eta ' bitarteko ' terminoak zehaztea.

Ondoren OD-ren proposamenak jasotzen duena ere aurreko atalarekin guztiz loturik dago. Parzeria edo Sozietate kontratua jasotzen du Osmarren proposamenak ez ordea beste biek.


Parzeria kontratu hau litzake gure bitariko kooperatibaren antzeko figura¹⁵⁴. Hemen ere muga % 49an dago ipinita. Bazkide ez direnekin burutzen den kontratu honetan, aukera ematen zaie kooperatibaz kanpoko kideei, kooperatiban parte hartzeko. Oso artikulua gutxi eskaini zaizkio figurari eta puntu asko zalantzan geratzen diren arren, ez da aukera txarra proposamena sartzea. Indarrean dagoen legeak ez du arautzen eta ezta ES-ren proposamenak ere. Ez dakigu arrazoa baina litekeena da kooperatiban bazkide ez direnen erabaki ahalmena gailentzeari beldur izatea. Bazkidetza mota desberdinen onarpenak izan ditzakeen beldur eta erreparatu berdinak azaltzea hemen ere, kontrako arrazoi moduan. Baina honetan ere aldeko arrazoi nagusia: merkatuan, bestelako enpresa motekin lehiatzeko baliabideak gehitzea kooperatibei.

7.2. KONTABILITATE ETA GAINERAKO TRAMITE ADMINISTRATIBOAK

Kontabilitate frogen inguruko hurrengo atalean, ES-ren proposamena da ekarpena egiten duena¹⁵⁵. Kontabilitate datuak ogasunari aurkezterako orduan, kooperatibentzat eskritura sinplifikatuak aurkezteko aukera eskatzen da. Proposamen hau Ekonomia Solidarioaren errebindikazioen harira dator, tramiteak erraztea eta merketzea kooperatiben kudeaketa arinagoa izan dadin.

Hurrengo artikulua kooperatiben emaitzei buruz dihardu; galerak, soberakinak eta berauen banaketa eta azken emaitzen gestioa nola egin. Atal honetan ez da alde nabarmenik ikusten indarrean dagoen legearen eta ezta bi proposamenen artean ere.

7.3. DESEGITEA, LIKIDAZIOA ETA IRAUNGITZEA



¹⁵⁴ A cooperativa, através de contratos que estabelecem formas de gestão, rateio dos resultados e preferência de compra em determinados investimentos, poderá estabelecer a participação de não-sócios nesses eventos.


A participação não gera direitos próprios dos associados, sendo facultado conferir poderes de co-gestão no empreendimento contratado.

¹⁵⁵ Deverá ser observada a implantação de escrituração simplificada para as cooperativas, por parte dos órgãos fazendários.

Ondoren desegitea, likidazioa eta iraungitzea arautzen dira. Likidazioaren atalean dago diferentzia txiki bat. ES-ren proposamenak dio, kooperatiba likidatu ondoren gelditzen dena berau kide den elkartera bideratu beharko duela, edo antzeko beste erakundetara bestela. Aldiz OD-enak kooperatibismoaren ordezkartza funtzioa betetzen duen egiturara bideratu beharko dela eta honen ezean OCB- Organização das Cooperativas Brasileiras- era. Aipatu berri dugun diferentzia normala da azken finean, ES-ren proposamenak ez diolako OCB-ri aitortzen kooperatibismoaren ordezkartza ofiziala izatea.

7.4. KOOPERATIBISMOAREN ORDEZKARTZA OFIZIALA

Ondoren arreta berezia merezi duen Kooperatibismoaren ordezkartza gaia dator. Kooperatibismoaren ordezkartza. ES-ren proposamenak garbi adierazten du kooperatiben afiliazioak askea izan behar duela¹⁵⁶. Askatasuna aldarrikatu ostean ordezkartza egituron funtzioak zein diren zehazten du. OD-n proposamenarekin daukan aldea nabarmena da. OD-k ordezkartza esleitzen dio OCB-ri eta euren proposamen honek adierazten du, euren helburua dela maila nazionalako ordezkartza eta erantzukizuna izatea¹⁵⁷. ES-ren proposamenak



¹⁵⁶ É livre a filiação de cooperativas a entidades nacionais de representação.

Cabe às entidades nacionais de representação das cooperativas, principalmente:

- velar pela observancia desta Lei;
- desenvolver atividades destinadas a difusão e ao fortalecimento do cooperativismo;
- representar e defender os interesses de suas filiadas junto aos poderes federais constituídos;
- impetrar mandado de segurança coletivo, nos termos do disposto no art. 5, incisos LXIX e LXX, alínea 'b', da Constituição Federal;
- dirimir conflitos entre cooperativas, quando isto lhe for solicitado, podendo, inclusive, instituir órgão de arbitragem;
- propor judicialmente a dissolução de cooperativa nos casos previstos nesta Lei;
- orientar os interessados na criação de cooperativas;

¹⁵⁷ A representação do sistema cooperativista nacional cabe à Organização das Cooperativas Brasileiras- OCB. Com sede na capital federal, reestruturada de acordo com o disposto nesta lei, competindo-lhe precipuamente:

ordezkagarritasuna eraman nahi du soilik bazkide direnen esparrura. Ez dute onartzen OCB izatea maila nazionaleko esparru osoa hartuko duen entitate edo egitura bakarra. Beraz, proposamen hau berau ere ez dute onartzen.

ES-ren proposamenak ordezkari-tza duenari (bakoitza bazkide den elkarteari) esleitzen dion funtzioa da bazkideen interesak defendatu eta babestea botere federalekin batera.

Bi atal hauetan ere aldea garbia da; batak ordezkari-tza daukan entitateari esleitzen dio bere bazkideen interesen defentsa eta besteak berriz, estatuko eta federaziotako sistema kooperatibistako antolamenduen interesen defentsa egitea¹⁵⁸. OD-enak bere gain hartzen du berea eta besteena den esparrua eta nahi du berak izatea Brasilgo errealitate kooperatiboaren interesen defendatzaile bakarra.

Eskuduntza hau ere ez du ES-ren proposamenak jasotzen. Honetan kooperatiben eraketa eta ondorengo funtzionamendu eta gestio eskuduntza esleitzen zaio OCB-ri. Gure ustez eskuduntza edo funtzio hau ere erakunde publiko eta ofizial batek beharko luke izan eta ez entitate pribatu baten esku utzi¹⁵⁹. Kooperatibak elkarteetan biltzeko duten eskubidea nagusiki, euren interesen defentsa egiterako orduan indarrak biltzeko da. Elkar-teak defendatuko ditu sektore edo jarduera zehatz batek dituen premia edo beharrak. Baina bestelakoa da errolda batek betetzen duen lana. Kooperatibek eraketarako orduan eta aurrerago funtzionamendurako bete beharreko baldintzak zein diren erabaki eta kontrol bat eramatea ezin da entitate pribatu baten esku laga gure ustez. Publiko izateak, teorian eskaintzen duen neutral-tasun eta objetibotasuna, behar ditu eraketara eta funtzionamendu kontrolak.

II. integrar todas as cooperativas;

Hau noski ez da azaltzen ES-ren proposamenean; suposatzen duelako kooperatiba guztien gaineko ordezkari-tza izatea.

III. propor aos poderes constituídos programas que contribuam para a solução de problemas económicos e sociais

Hau ere ez du jasotzen ES-ren proposamenak.

V. coordenar e orientar o movimento cooperativista nacional;

¹⁵⁸ VI. representar e defender os interesses do sistema cooperativista e das organizações de cooperativas dos estados e do Distrito Federal junto aos poderes federais constituídos.

¹⁵⁹ VIII. efetuar o registro de todas as cooperativas, acompanhar o processo de revisão e manter atualizado o cadastro; OD


Eskuduntza hau ere ez du jasotzen ES-renak. Berez, kooperatibei aholkularitza orokorra eta beharrezko dituzten hainbat zerbitzu eskaintzea ona da¹⁶⁰. Kontua da gaurko sistema ez dela egokia. SESCOOP-en bidez jasotzen duen dirua delako kooperatiben asistentziarako OCB-k erabiltzen duen dirua. Kooperatiba guztien diru ekarpena da, OCB-k soilik bere bazkide direnen onuran eta zerbitzuan jartzen duena. Guztien diruarekin OCB-k kudeatzen du soilik bere bazkide direnen formazioa. Ondorioz esan genezake helburua ona dela eta kooperatiben hazkuntzarako beharrezkoa gainera, baina beti ere sistema justu eta egoki baten bidez bideratua baldin bada.

8. artikulua honek kooperatibak eraketarako bete beharreko baldintzak zein diren zehazten ditu¹⁶¹. OD-en proposamenak beraz, OCB-ri esleitzen dio artikulua honen bidez kooperatiben eraketa eskuduntza. Esan berri dugunaren haritik ez gatoz bat proposamen honekin. Esan bezala egitura pribatuaren esku geratzen baita, kooperatibek oro har, bete beharreko baldintzen kontrola.

Eskuduntza zerrendan ikusi ahal izan dugunez, ES-k ordezkariak aukera kooperatiba bakoitzaren erabaki autonomiaren esparruan uzten du. Ez dio inori obligaziorik ezartzen eta elkarte bakoitzari bere bazkideen interesen defentsa esleitzen dio soilik. OD-enak berriz, egitura bakarraren esku usten du ordezkariak kooperatiboaren ardura eta eskuduntza zerrenda zabaltzeko egiten du. Eskuduntzen artean egitura publiko bati dagozkionak sartuz.

Artikulu honekin jarraituz esan bi proposamenek hurrengo lerrootan gauza bera diotela, desberdintasun batekin; batek erreferentzia egiten dio modu orokorrean sortu daitezkeen kooperatiben ordezkariak egiturei eta besteak berriz OCB-ri eta hauen delegazio moduan sortu behar diren federazioetako delegazioei.

Kooperatiben ordezkarietarako egitura hauek beraien estatutu sozialetan jaso beharreko edukia zein den finkatzen dute proposamenek ondoren. Honetan aldea ez da handia baina, OD-enak



¹⁶⁰ serviços de assistência geral ao sistema cooperativista, dispondo para esse fim de setores consultivos e departamentos especializados, de acordo com os diversos ramos do cooperativismo;

¹⁶¹ praticar os atos previstos no art. 8º.


kooperatibak OCBra egin beharreko ekarpena zein den finkatzen du; urtero apirilean ordainduko da eta %2koa izango da (ez dakigu portzentaia zeren gainean aplikatzen den). Eta esaten du baita, jasotako kopuru osoaren erdia OCB-ren egitura zentralean geratuko dela eta beste erdia federazio egituretara bidaliko dela. ES-renak ez du ekarpen kooperatibistari buruz hitz egiten.

Bi proposamenak antzerako edukia duten arren diferentzia batez ere eskuduntza zerrendan eta egitura beraren izaeraren gainean daudela esan behar da. OD-en proposamenak erregistro eta bestelako formaltasunen betearazpena esleitzen dizkio ordezkari-tza egiturari, hau da OCB-ri. Eta ES-ek ez ditu eskuduntzok sartzten eta gainera irekita usten du kooperatiben ordezkari-tza egiturak zabaltzeko aukera. OCB-rena da gaur errealitate kooperatibo Brasildarrak daukan gatazka nagusienetako bat eta artikulua hau dugu egoera horren adierazpidetako bat.

Ondoren OD-en proposamena Xedapen Iragakor eta Orokorretara pasatzen da baina, ES-renak berriz beste bi atal gehitzen ditu. Kooperatiben Zertifikazioez hitz egiten du aurrena. Kooperatibarekin bat egiten duenaren ziurtagiria edo litzateke proposamenak aipatzen duena. Ziurtagiriok ordezkari-tza egiturak jaulkiko lituzke; estatuko egiturak hain zuzen ere. Eta botere publikoak ere bere aitortpena edo onespina eman beharko du. Ondoren prozesu bat finkatzen du proposamenak. Ziurtagiria hiru urtean behin berritu beharko da, organo eskuduna den ordezkari-tza egiturak errolda edo katastro bat eraman beharko du...

Ziurtagiri hau ez du gure legediak jasotzen eta hemengo egiturak, batez ere kooperatiben federazioek ez dute jaulkitzen izaera honetako ziurtagiririk. Gure kasuan ez da beharrezkoa, egitura publikoek beraien funtzioa betetzerakoan kooperatiben gainerako kontrola egoki eramaten dutelako. Brasilen neurri bat gehiago beharrezkoa dela uste bada, ez dugu aukera hau baztertzen.

Ordezkaritzaren gaineko atala amaitzeko gobernuaren aurreproiektuak jasotzen duena kontutan hartu beharrezkoa da. Aurreproiektuak bere azken xedapenetan kooperatiben ordezkari-tza askearen aldeko hautua egiten du¹⁶².



¹⁶² Aurreproiektuaren azken xedapenak: 48 art. É livre a organização de sistemas de representação de sociedades cooperativas.

7.5. KOOPERATIBA BEREZIAK


ES-ren proposamenak hurrena Kooperatiba Bereziak aipatzen edo aurreikusten ditu¹⁶³.

Brasilgo errealitate kooperatiboak dituen bi adieretako, -bata kooperatiba handiek osatzen dutena eta bestea berriz Ekonomia Solidarioaren baitan kokatzen direnen errealitatea- bati egiten dio erreferentzia kooperatiba tipologia berri honek. Bigarren hauek badituzte hainbat eragozpen gaurko legediak dituen baldintzak zuzen betetzeko. Kooperatiba hauek osatzen dituztenak gizartean baztertuta eta behar larrian daudenak izanik zilegi deritzogu proposamenari jarraiki baldintzak malgutu eta tratu berezitua eskaintzea. Hala ere, ongi zehaztu beharko litzake tratu berezitua zertan datzan eta zein kasutan emango den. Ekarpena egokia izanik ere, beharrezko da ekarpena garatuko duen beste arau bat baldintza eta prozesua zehazteko.

OCB-k kooperatiba mota hauentzako Sozietate Sinpleak sortzea aurreikusten du, eta nire ustez ez da hau irtenbide egokiena. Sozietate Sinpleak eta kooperatibak ez dute izpiritu bera. Hau kontutan izanik hobea litzateke ES-ren proposamenak jasotzen dituen kooperatibek tratamendu berazia izatea eta ez egotea, -forma sozietarioa aldatu- eta Sozietate Sinple izaera hartu beharrik.

Ondoren bi proposamenek Xedapen Orokorrak eta Iragakorrek jasotzen dituzte eta biak nahiko antzerako edukia duten arren, OD-enak OCB-ri eztabaida sustatzea eskatzen dio eta ez dio eskaera bera egiten ES-ren proposamenak.

7.6. SOZIETATE SINPLE SOLIDARIOAK



¹⁶³ As cooperativas de pequeno porte e que atuam com os segmentos sociais mais frágeis e marginalizados da economia poderao ser consideradas pelo Poder Público como Cooperativas Especiais.

O Poder Público poderá conceder tratamento diferenciado para as cooperativas de que trata o caput deste artigo, priorizando-as no acesso a recursos públicos e de crédito, e simplificando as exigencias contábeis e tributárias;

OCB-k defendatzen du, Eduardo Suplicyren proposamenaren bidez, kooperatiba berezi moduan klasifikatu nahi dituen ekimenak Sozietate Siple izaera hartzea. OCB-ren estrategia, ekimen ahulak direnak, kooperatiba izaeratik kanpo geratzea litzateke. Hona hemen Sozietate Siple deituriko egitura honek dituen ezaugarriak.

Sozietate Siple izaera izango du honako ezaugarriak dituen egitura sozietarioak:

- Administrazio demokratikoa, batzarraren aginpidea eta bazkideen botoen singulartasuna izatea.
- Bazkideek sozietatearen operaziotan parte hartzea eta emaitzak parte hartze horren araberakoak izatea eskusiboki.
- Sozietatearen helburu nagusia bazkideen behar sozio-ekonomikoak asetzea izatea.
- Bazkideen arteko eskubide eta obligazio berdintasuna izatea eta bazkideak kapital sozialean duen parte hartzearen araberako edozelako abantailaren debekua izatea.
- Bazkideak kapitalaren 1/3a baino gehiago ezin harpidetu ahal izatea.
- Sozietatearen ondarearen banaezintasuna: desegite baten aurrean geratu den ondarea bideratu beharko da edo beste sozietate siple solidario batera, kooperatiba batera edo irabazi asmorik gabeko hezkuntza edo laguntza sozialeko egituraren batera.
- Ekitaldi bakoitzean dagoen irabazia erreserba gisa gordeko da eta bideratuko da: Etorkizuneko galerei aurre egitera; Sozietatearen inbertsioei aurre egitera edo bazkideei bideratutako ekintzak finantzatzera; Bazkideei laguntza teknikoa, hezkuntzakoa eta soziala eskaintzera; Botere publikoak laguntza gisa emandako kreditu bidezko ekarpenak, erreserba kontuko zutabearen bere isla izan beharko du.
- Zuzendaritza edo bazkide-gerentea izan beharko da batzar orokorrean aukeratua, eta gehienez ere lau urteko aginte aldia izan dezake; kolegiatua denean herena gutxienez berritu egin beharko da.
- Sozietate Siple Solidarioak hogeitaz bazkide baino gehiago dituzenean, hiru kideetako Kontseilu Fiskala osatu beharko du. Agintaldia bi urtekoa izan beharko da gehienez eta 2/3ak gutxienez berritu egin beharko dira.

- Kontseilu Fiskalari dagokio sozietatearen administrazioaren fiskalizazioa eramatea; batzarrean aurkeztutako kontuen gaineko bere irispena ematea eta premia dagoenean batzarra deitzea.
- Sozietate Simple Solidarioa kooperatiba izatera pasa ahal izango da.
- Kooperatibara eraldatzea bazkideen gehiengo absolutuz erabaki beharko da eta ados ez dagoen bazkideak kooperatiba usteko eskubidea gordeko du. Gelditzea erabaki duten bazkideak hogeit hamar egun izango dituzte batzar eratzailerak osatu ahal izateko. Eraldaketa bidez sortutako kooperatibari aplikatuko zaizkio kooperatiben arau orokorrak.
- Kooperatibaren kapital soziala sozietate sinplearen partizipazioekin osatuko da. Kooperatibaren eraketa ekintza Junta Komertzialean egiten denean, erakutsi beharko da sozietate sinpleak izan dituen emaitzak jasotzen dituen dokumentua.
- Ezaugarriak hauek direla kontutan izanik OCB-k uste du egokiagoa dela eskala maila sendoa ez duten ekimenek forma sozietario hau hartzea. 123/2007 Lege Osagarriak munta ekonomiko baxuko ekimenen zerga erregimena arintzera jo du. Honekin batera ekimen hauen formalizazio ekintzak erraztu egin ditu eta egitura hauek indartzeko politika publikoko neurriak jarri ditu martxan.
- Marko legal berriak beste helburu batzuen artean, nahi ditu formaltasunean sartu ordenu ekonomikotik at dauden hainbat ekimen ekonomiko.
- Lan Ministerioak, Ekonomia Solidarioko Idazkaritzaren bitartez bere ezadostasuna adierazi du, kooperatibak marko honetatik kanpo geratu direlako. Euren esanetan Ekonomia Solidarioko ekimenak aktoreen arteko lankidetzan daude oinarrituta. Ondorioz, Ekonomia Solidarioko Idazkaritzaren aburuz ekimenok kooperatiba izan behar dira.
- Hala ere badirudi Lan Ministerioa bera dela gero premisa hau gezurtatzen duena esanez, 2005ko datuen arabera Ekonomia Solidarioaren baitako ekimenetatik soilik %


11 dira kooperatiba eta %33 dira egitatezko sozietate. Beste %54 berriz, elkarte izaera dute.

- Honen aurrean gogora arazi behar da 2002 urtetik Kodigo Zibilak bere 53 artikuluan definitzen dituela elkarreak esanez direla helburu ekonomikorik ez duten pertsonen elkartetak¹⁶⁴. Ondorioz, elkarreak ez dira Ekonomia Solidarioaren baitan sartzen. Pertsonalitate juridikoa duten entitate hauek, ez direnez enpresa sozietate eta ezta kooperatiba ere, gelditzen zaien aukera Sozietate Siple Solidario izaera hartzea da. Eredu juridiko honek bere baitan har ditzake helburu ekonomikoa izanik enpresa izaera ez duten ekimenak.
- Norbaitek argudiatu ahal izango luke, elkarte eta egitatezko sozietate hauek ere, guztira Ekonomia Solidarioko ekimenen % 87, kooperatiba izaera hartuko ahal izango luketela 5.764/71 Legearen erreformaren bidez. Hala ere, legearen erreformak, ez luke borondate hori bideragarri egingo. Gaur enpresa txikientzat indarrean dagoen zerga erregimenak ez du 'ekintza kooperatibo' ren praktika jaso egitura hauentzat, beraz, ez litzake uztarketa egokirik egongo enpresa txikien zerga erregimena eta egitura kooperatiboaren artean. Honela Konstituzio agindua ere ez litzake beteko.

Gehitzen dute esanez 123/2007 Lege Osagarriak soilik kontsumo kooperatibentzako onartzen duela enpresa txiki klasifikaziopean sartzea. Eta salbuespen honen oinarria topatzen dute 9.532/97 legeko 69 artikuluan: Batasun Federalak artikuluari egindako interpretazio baten arabera onartzen da 'ekintza kooperatibo' nozioari kasurik ez egitea zerga obligazio ondorioetarako, kontsumo kooperatibetaz ari garenean; ohiko enpresekin parekatuz. Baina honi aurre egiten dio botere judizialak, Konstituzio Federalaren 146 artikuluko III, c atalean oinarrituz; honek eskatzen baitu zerga tratamendu berezitua 'ekintza kooperatiboari' dagokion kasutan.

Azaldutakoari jarraituz, ekonomia solidarioko ekimenen % 87ak har dezakeen lege marko zuzena sozietate sinpleei dagokiena litzake.

Euren ustez beraz beharrezkoa da lege berrikuntza mailan Kode Zibilak jasotzen duen Sozietate Sinplearen figura osotzea. Lankidetzaz ezaugarriak gehitzea da eurek egiten duten



¹⁶⁴ 'a uniao de pessoas que se organizam para fins nao económicos'.

proposamena. Kooperatiba, eskalako ekonomia jarduerak burutzeko pentsatuta dagoenez, maila bat lortzen duten Sozietate Sinpleak eskala mailara heltzean kooperatiba izaera hartzeko aukera izango dute.

OCB-k soilik kooperatiba handiak nahi ditu eta Ekonomia Solidarioko ekimenak ez ditu errealitate kooperatiboaren baitan nahi. Zer dela eta izan behar dira soilik maila bateko ekimenak kooperatiba? Gure legediak 2 bazkiderekin kooperatiba eratzeko aukera eskaintzen du eta 3000 euroko kapitalaz gain ez du beste baldintzarik eskatzen. Tamaina ez da gure legedi eta errealitatean eskakizun edo baldintza bat eta Brasilen ere ez luke izan beharko. Bestalde, sozietate sinple figurak ez ditu kooperatibaren ezaugarriak eta ondorioz, ezin dira parekatu. Ez lirateke sozietate sinple figuraren bizkar utzi beharko Ekonomia Solidarioaren baitako ekimenak, nahiz eta OCB-k aldarrikatzen duen eskala edo maila ez izan.

II. ATALA

OCB EUSKAL INSTITUZIO KOOPERATIBOEN IKUSPEGITIK

8. OCB EUSKAL INSTITUZIO KOOPERATIBOEN IKUSPEGITIK

8.1. SARRERA

Tesiaren atal honetan Brasilgo kooperatibismoa baldintzatzen duen ordezkaritza kooperatiboa aztertuko dugu. Ibilbide historikoaren errepasoan argi ikusi da noiz eta zein helbururekin sortu zen OCB. Gaur, oraindik orain, nahiz eta 1988ko Konstituzio Federala indarrean dagoen ezin ukatu daiteke egitura honek betetzen duen papera eta daukan protagonismoa. Arrazoi horregatik, aztertuko dugu OCBren izaera eta betetzen dituen funtzioak euskal erakunde kooperatiboen ikuspegitik.

OCB-k, gaur, Brasilen, gure Kooperatiben Erregistroak, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak eta Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak betetzen dituzten funtzioak betetzen ditu. Atal honetan gure errealitateetik begiratuko diogu OCB-ri eta alderaketa honetatik, zein funtzio dagozkion eta zein ez azalduko dugu.

Bestalde eta Nazioarte mailara joaz, Nazioarteko Kooperatiba Aliantza aztertzea dagokigu. OCB NKA-ko kide da eta kidezta horrek eskatzen dituen baldintzak betetzen diren ala ez aztertuko dugu. NKA besteak beste 'Autonomia eta independentzia' printzipioak garatu ditu. Printzipio honen jatorria eta garapena aztertuko ditugu eta gaur daukan zentzua zein den kontutan izanik OCB-ren praktika auzitan jarriko dugu.

Aipatu dugunaren ingurumaria Estatuak mugimendu kooperatiboarekin daukan harremanaren baitan kokatzen da. Errealitate kooperatiboak beharrezko du Estatuaren babesa: autoeratu den errealitateak neurri batean Estatutik edaten du. Legedi egoki bat beharrezko du (zurruntasun eta betekizun formal gehiegi eskatuko ez dituen), maila ekonomikoko babesa ere beharrezkoa da beti ere, gero ikusiko dugun moduan maileguak merke emanez eta ez dohaintzak eginez. Estatuak mugimendu kooperatiboarekin izandako eta izan beharreko harremanetik hasiko gara beraz.

8.2. ESTATUAREN ERAGINA KOOPERATIBISMOAN


Kooperatibak dituzten printzio eta baloreegatik merkataritza enpresa ohikotatik bereizten direla gauza jakina da¹⁶⁵. Arrazoi honegatik, Estatuak kooperatibismoarekiko daukan harremana beti izan da berezia; babesa, eskuhartzea, kontrola... Merkataritza enpresei eskainitako tratamendutik bereizia den tratamendua eskaini zaio kooperatibismoari.

Legediak eskaini dion tratamendua kontutan hartzen badugu, esan beharra dago, kooperatibak, legedi desberdinetan eta sailkapenari dagokionean, urte askotan egoera irregularrean egon direla. Aspalditik zetorren figura izan arren, legegile eta ekonomilariak luzaroan ez zieten arreta larregi jarri, teoria utopiko zirela uste zuten eta ez benetako indar ekonomiko baten ernamuin. Sortzaile batzuen izaera sozialista zela eta, beste batzuen izaera iraultzailegatik, erakunde arriskutsu kontsideratuko dira.

Gobernu batzuk kooperatibei kasurik ez egitea erabakitzen dute eta besteak berriz, gogor jokatzea eta bi joeren aurrean, mugimendu kooperatiboak porrotak eta garaipenak bizi izango ditu.

Kooperatiben garapenean eragin handia izan duena, beste elementu batzuen artean, legedia izan da. Kooperatiben existentziaren eta ugaritzearen aurrean, herrialde askotan, hasten dira kooperatiben gainerako artikulak Merkataritza Kodetan (merkataritza legedietan) sartzen. Merkataritza Sozietateen artean kooperatibak kokatzeak kalte egingo die sozietate egitura hauetara: bai zerga aldetik jasoko duten tratamenduagatik eta bai betetzen zailak diren arau zurrun ugari jarraitu beharko dituztelako (langile xumez osatutako kooperatibak izanik ez zuten kontabilitate ezagutzarik).

Merkataritza Kodea eta Elkarteen Legea, biak ala biak, ez dira eredu onak kooperatibentzat. Beti mugitu izan dira bi erpinen erdian, irabazi asmodun enpresak eta izaera hori ez duten elkarteen artean. Horrek noraeza eragin du kooperatibek izan beharreko lege tratamenduaren gainean. Kooperatiba da batetik, euren beharrak asetzeko biltzen diren pertsonen elkartea, eta



¹⁶⁵ LONDOÑO, C. El Movimiento cooperativo y el Estado. Argentina, Intercoop, 1978.

bestetik, behar horiei erantzuna emateko enpresa ekonomikoa. Hau da, faktore soziala eta ekonomikoa biak batzen ditu figura juridikoak¹⁶⁶.

Izaera bikoitz honen kudeaketa egokia egitea ez da erraza. Batetik, Merkataritza Kodearen pean, -egitura ekonomiko huts moduan hartuz- ito egiten zitzairen oinarritzko zuten elementua, hau da, pertsonen elkarte izatea. Bestetik, Elkarte Lege Orokor baten azpian ipiniaz eta faktore ekonomikoa alde batera lagata, eragotzi egiten zitzairen sozietatearen sortze arrazoia. Bietako baten aldeko hautua eginda ere, kooperatibak beti gutxitasun egoeran eta legeen interpretazio arbitrarioen menpe geratzen ziren.

Egoera ez erregular honek irtenbide bakarra zeukan: Elkarteen Legetik eta Merkataritza Kodetik berezia zen eta izaera bikoitza kontenplatuko zuen aparteko legea ematea.

Azken batean, Lankidetzan aritzen zirenek ez zuten eskatzen ez babes berezirik ez eta pribilegiarik ere. Ez zuten paternalismorik nahi. Justizia zen eskatzen zuten gauza bakarra. Ez zezatela izan euren izaerarekin bat ez zetorren erregimen berezirik, hau da, irabazi asmoa zuten enpresen erregimen legalik. Kooperatibak, gizartearentzako oso garrantzitsua den ekarpena egiten dutelako besteak beste.

Hala ere, kasu askotan kooperatiben lege erregimena oso zurruna izan da eta kooperatibak, betetzen zailak ziren arauen menpe jarriak izan dira. Sarritan kooperatiben baldintza zurrunak, izan dira hautu sozietario hori egiterako atzera egitea eragin dutenak. Izate sozietario hau ez da hautatu burokrazia eta betebeharrak formal zailak bete beharra eskatzen duelako¹⁶⁷.

Kooperatiben izaera edo identitate anbiguitatea izan da beraz, gainditu beharreko zailtasunetako bat baina, bada kooperatibekiko beste pertzepzio bat ere. Bitartekaritza eta ugazabak erditik kentzeko aukera moduan bizi dute askok kooperatibismoa. Lan araudia erditik kendu edo araudiak jasotzen dituen eskubide sozialak ekiditeko bide bezala. Brasilgo errealitatea, hau dela esan daiteke.



¹⁶⁶ Albert Thomasek Alianza Internacional Cooperativa-ko Kongresuan, Gante 1924an.

¹⁶⁷ Hau izan da Brasilen OCB-k baliatu duen estrategia ere Ekonomia Solidarioko ekimenak, (kooperatibaren betekizunak zailak direla eta) kooperatiba izaera har ez dezaten.

Enpresa ekimen kapitalisten eta kooperatiboen hasierak ez dira normalean berdinak izan. Kooperatiben aldeko hautua egin izan dutenen - lehen orain baino gehiago- hezkuntza maila, ez da izaten merkataritza sozietateak bultzatzen duten kideen perfilaren parekoa. Kooperatibak normalean, behar egoera larrian sortu izan dira, asetzeko premia asko dauden ingurumarietan. Ondorioz, gertatu izan da hezkuntza eta gestio maila apala dutenen eskutatik sortuak izatea kooperatibak. Kooperatiben gabezia horretatik eratortzen da gobernuek egikaritu izan duten zaintza. Zaintza ez da interbentzioa. Zaintza hau ez da beharrezkoa izango kooperatiben gestio gaitasuna handitzen den neurrian eta beraz, kooperatibetako kudeatzaileak beharrezko trebetasunak eskuratzen dituzten neurrian¹⁶⁸.

Zaintza eta interbentzioa dira kontzeptu desberdinak. Zaintzak ez du kooperatiben funtzionamendua eragotzi beharrik. Horretarako beharrezkoa da arrazoizko mugen barnean burutzea zaintza. Logikoa izan daiteke eskatzea: kontabilitate argi eta erraz bat eramatera behartzea; administrazio kontseiluko kideen berri eman beharra eta baita bazkideen alta eta bajak komunikatzea ere; hainbat ikuskaritza eramatea. Gaur kooperatibek herrialde bakoitzean duten egoera oso desberdina denez normala da egoera bakoitzera egokitzea Estatuaren papera ere. Euskal Herriko kooperatibek eta Brasilgoek orokorrean duten egoera oso bestelakoa da eta honek dakar herrialde bakoitzeko Estatuaren jokabidea ere desberdina izatea.

Kooperatiben barne bizitzan sartzeko obsesioak ekarri izan du kasu askotan beharrezkoak ez direnak eskatzea. Kontseilua zenbat kidek osatu behar duen zehaztea; urtean zenbat batzar egin behar diren zehaztea; hauteskunde garaia noiz izan behar den definitzea... eta beste hamaika detaile definitzea. Eta hau gutxi balitz bilera bakoitzeko akta eskatzera ailegatzan da sarritan¹⁶⁹. Zein eragin dauka hau guztia eskatzeak? Zein eragin dauka kooperatibaren martxan zazpi edo hamazazpi kide izateak? (kasu honetan sorrerarako eskatzen den gutxieneoak sortzea bera zaildu dezake). Edo zuzendaritza berritzea noiz komeni den? Edo eskatzen diren



¹⁶⁸ Une honetan, Brasilen, Ekonomia Solidarioaren esparruan sortzen ari diren ekimenak gobernuaren babesa eta zaintza beharrezko duten egoeran daudela esan genezake.

¹⁶⁹ Brasilgo kasuan akta legeztatzeak prezio altua eta zailtasun formalak izateak eragotzi du kooperatibaren aldeko hautua egitea.


hamaika kopia dokumentu orean ganean. Kooperatiba bat ez sortzeko arrazoiak mila izan daitezke elementu hauetan erreparatzen badugu.

Antolamendu kontuak alde batera lagata, administrazio kontutan sartzen garenean egoera okerragoa da. Herrialde batzutan merkataritza sozietateak behartuta daude irabaziekin erreserba fondo bat sortzera, baina banaezina den zati hau euren estatutuen arabera erabili dezakete. Kooperatibak irabazi asmorik gabeko erakundeak izatera ez zaie konfiantzarik ematen eta derrigortuta daude diru hori gobernuak ezarritako kontuan gordetzera.

Kooperatiben ganean egikaritzen den tutoretza gogorra denean gobernuak ez die usten kooperatibei euren martxa normala eramaten eta behar den eran garatzen.

Tutoretza ez den beste kontua, babes ofiziala da. Kooperatibak behar dute ofiziala den babes baina, akzidentalki eta denbora mugatuz burutzen bada¹⁷⁰. Mexikon aurkitzen dugu adibidea: Estatuak bere gain hartu beharrean porrot egindako enpresak, kooperatibak sortzearen bidez, enpresok langileen eskura jarri ditu. Enpresa tradizionalekin alderatuz, kooperatibak ez dute soilik irabazi asmo hutsa; beste balio eta printzipio batzuk betetzea ere helburu dute. Hain zuzen ere arrazoi horregatik botere publikoei ere interesatzen zaie kooperatibak sendo izatea. Hala ere, estatuaren babes moral eta ekonomikoa jasoko duten kooperatibetako bazkideek, jakin behar dute emaitzak euren ahaleginaren arabera izan behar direla. Sarritan gertatzen da, - une honetan Brasilen- kooperatibak geratzen direla estatuko laguntzari begira. Euren esfortzu edo ahaleginaren arabera barik, estatutik jasotzen duten babesaren arabera dela enpresaren etorkizuna dirudi. Honek autoeraketa zaildu egiten du. Beharrezkoa da beraz, oreka lortzea estatuaren babes baina eta kooperatibako bazkideen ahaleginaren artean.

Kooperatibak jaso beharreko babes gehigarriak zentzua dauka baldin eta bere bazkideei eta gizarteari enpresa partikularrak baino baldintza hobetan zerbitzuak eskaintzeko gai bada. Kontrara, talde txiki baten interesak, ezin dira inoiz gailendu gizarte oso baten interesen gainetik. Honela balitz, hau da, merkataritza enpresak baino abantaila eta tratamendu hobea izan eta autoeraketaren potentzialitateak ez badu indarrik ez dauka zentzurik babes gehigarria izateak.



¹⁷⁰ LONDOÑO, C. El Movimiento cooperativo y el Estado. Argentina, Intercoop, 1978.


Baldintza gabeko babes eta Estatuaren tutoretza mugagabea kaltegarriak badira kasurik gehienetan, okerra da baita pentsatzea botere publikoek ezin dutela ezer egin Lankidetzan sustatu eta bultzatzeko. Iragankorra eta egoeraren araberakoa izan behar den laguntzaz gain, Estatuak hezkuntza kooperatiboa bultzatuz lagundu dezake. Historia, printzipioak eta praktika kooperatiboak guztien ezagutzara heltzeko ahalegina eginez.

Lankidetzan oinarritutako enpresen onurak nabarmenak dira. Horrek arrazoitzen du babes neurriak ezartzea kooperatiben gainean.

Hezkuntzaren sustapena da Estatuak daukan funtzioetako bat eta horretaz gain eta batez ere, hastapenetan, garrantzitsua da bultzada ekonomiko ere laguntzea. Kredituetan erraztasunak eskaintzea litzake beste bide bat. Kredituak ez dira dohaintzak eta ezta administrazio oker batek eragindako zuloak estaltzea ere. Aipatzen ari garen kreditu edo maileguak batez ere ekimenaren hasieran dira beharrezko¹⁷¹.

Atal honetan esandakoak laburtzeko Juan Ventosa Roigen hitzetatik tira egingo dugu¹⁷²:


- Izaera ekonomiko eta sozial bikoitza dela eta, Kooperatibak ezin dira ez Merkataritza Kodean ez eta Elkarteen Legean kokatu. Izaera bikoitza kontenplazten duen Kooperatiba Legea dugu lorpena, bi egitura hauen artean kokatuta dagoen forma sozietarioa jasotzen duena.
- Legeak kooperatibei jarduteko askatasuna bermatu behar die, baina bestalde komunak diren printzipioen betearazpena bermatuko duten neurriak jasotzea ere bere ardurapean ditu. NKA-ko Kongresuak zehaztu, garatu eta gaurkotu dituen Rochdaleko Printzipioen betetzea bermatzea esate baterako.



¹⁷¹ Brasilen orain artikulatzen ari den errealitate kooperatibo berriak behar du bai gobernuaren eta baita bankuen laguntza ere. Gobernuari dagokionez, SENAES- Secretaría Nacional de Economía Solidaria sortu da eta BNDS- Banco Nacional de Desembolvimiento- ari dira elkarrekin lanean babes hori elkarrekin koordinatzeko.

¹⁷² Las Cooperativas y el Estado'. Cuadernos Aecoop. Juan Ventosa Santos.

- Merkataritza Enpresen eta Kooperatiben bereizketarako nahikoa da aipaturako printzipioen betetzea bermatzea eta kooperatiba hitza erabiltzeko debekua ezartzea honela erregistratuta azaltzen ez den enpresa orori.
- Legearen betetzea bermatzeko ez da esku-hartzerik behar (interbentzioa), nahikoa da zaintzarekin eta horretarako kultura kooperatiboan adituak diren ikuskatzaileak behar dira¹⁷³. Esparru kooperatiboan adituak eta arituak diren ikuskatzaileak behar dira: kooperatiba diziplina oso zehatza da eta.
- Kooperatiba orok, bere baliabide propioekin egin behar du aurrera, inolako pribilejio edo monopoliorik gabe. Estatuaren laguntza, - batzutan beharrezkoa- iragankorra eta egoeraren arabera izan behar da. Edozein ez ohiko laguntzak, mailegu itzulgarri izaera edukiko du.
- Estatuak eskaini dezakeen laguntzarik onena Lankidetzarako Hezkuntza da. Formazio kooperatiborako laguntzak ematea eta hauen kudeaketa egokia egitea dagokio administrazioari. Lankidetzan lan egiteak dituen abantailak dituen onurak kontutan izanik. Bai enpresa eredu egokia sustatzeko eta baita honek gizartearengan izan dezakeen eragin positiboagatik.
- Kooperatiba lege bat garatu behar den bakoitzean, ezin daiteke ahaztu, Lankidetzara, aldi berean sistema ekonomiko eta arau morala dela¹⁷⁴. Banaezinak diren bi kontzeptu batera. Gaur egun Europa eta latinoamerikar herrialdeen artean lubakia sortzen ari dela esan genezake. Lehenengoan merkatuan lehiatzeko, (alderdi ekonomikoa) tresnak eskaintzen ari da legea eta latinoamerikar herrialdetan berriz, (alderdi morala) kooperatiben jatorrizko zentzuak indartsuago daude eta lehiarako tresnetan aurrera pausuak poliki datoz.



¹⁷³ Interbentzioa izan da OCBk erabili duen tresna indartsuena kooperatiben barne funtzionamendua kontrolatzeko eta barne bizitzan sartzeko.

¹⁷⁴ Europako legediaren joera kooperatibak merkatuan lehiatzeko bideak erraztekoa da eta Latinoamerikar herrialdetan aldiz oraindik sistema kooperatiboak aurrera egiteko bidea dauka.

- Lankidetzan azpimarratzekoa da giza faktoreak daukan garrantzia kapital faktorearen gainean; azken hau ekoizpen bitarteko soila izatera mugatuz. Esanahi da baita, ekoiztutakoaren banaketa parekatua; kontsumo neurtua eta ez aberastasuna pilatzeko mekanismo izatea, hau da irabazi edo onuren ekiditea.

Aipatu ditugun elementuez gain garbi geratzen da herrialde batean sistema kooperatiboaren ezarpenean, errotzean eta garapenean Estatuaren egitura eta gobernu estiloak pisu handia daukala¹⁷⁵. Garapena desberdina da herrialdea demokratiko ala totalitario batean edo gobernu egonkorra edo desegonkorra daukan herrialde batean. Eta eragina dauka baita herrialdearen garapen mailak. Hain zuzen ere, arrazoi hauegatik mugimendu kooperatiboak ere desberdin jokatu behar ditu bere kartak, Estatu edo gobernu bakoitzaren arabera¹⁷⁶.

Estatua eta gobernu egitura demokratikoa eta orientazio ekonomiko liberalekoak badira, kooperatibistak lehiakide kapitalistekin gatazkan jardun beharko dute, bai esparru publikoan zein pribatuan. Iberoamerikar kasuan egitura demokratikoa eta orientazio ekonomiko liberala duten estatu eta gobernuez gain, forma sozialista duten esku-hartzeak ere eman izan dira. Gobernu estilo desberdinak izateak eragozten du kooperatibismoak segurtasunez ipar baterantz barne eta kanpo garapen bat izatea.

Nahiz eta estatu eta gobernu iberoamerikarrek aniztasun handia erakusten duten, hainbat irizpide orokor kontutan izatea komeni da – nahiz eta historikoa izan- Estatuak kooperatibismoaren gainean eta honek estatuarekiko izan behar duen jarrera definitzerako orduan. Laneko Nazioarteko Erakundeak (OIT) estatuak kooperatibismoarekiko izandako jarrerak hiru norabidetan definitu zituen. Hona hirurak:

- Estilo liberala. Estatu hauek kontsideratzen dute sistema kooperatiboa era librean garatu daitekeela, gainerako instituzio ekonomikoen parean. Hau litzake gaur gurean daukagun sistema. Estatuak babes orekatua ematen du eta mugimendu kooperatiboa bera da ari dena



¹⁷⁵ 'El movimiento Cooperativo y el Estado', Carlos Mario Londoño. Intercoop. Editora. 1976. Buenos Aires.

¹⁷⁶ Iberoamerikan ezin da mugimendu kooperatiboari buruz hitz egin baina beste termino egokirik ezean hau erabili dugu.

bere burua garatzen eta indartzen. Eta baita aldi berean, kapital enpresekin merkatuan parez-pare lehiatzen.

- Planifikatutako estatu interbentzioa. Estatu hauetan mugimendu kooperatiboa garapen sozial eta teknikorako tresna gisa baliatzen dute. Aurrerago joanez, garapen ekonomikoko tresna orokorra izateko bokazio duena. Beti ere egitura kooperatiboen demokrazia eta autogestioa oinarri izanik.

- Estilo totalitario- sozialista. Estatuak kooperatibismoa bere ekonomia zentralizatuaren atalen artean kokatzen du. Kasu hauetan kooperatibismoa estatuaren tresna bilakatzen da eta bere autonomia eta independentzia galtzen ditu. Estatuaren kontrolpean ez du gestio autonomo bat eramateko aukerarik.

Linea liberala da Ingalaterrak, Estatu Batuek eta hainbat herrialde Eskandinabiarrek jarraitu dutena. Hauetan badira kooperatibismoaren sustapenerako diren hainbat lege baina, bere bidea egiten usten diotenak. Linea hau jarraitzen duten beste herrialde batzutan ere badira sustapen kooperatiborako hainbat lege baina, kasu hauetan euren mugekin.

Bigarren linea berriz, hau da, planifikatutako estatu interbentzioa. Hau da batez ere, garapenean dauden herrialdeetarako egokien kontsideratu duguna eta da Indian, Filipinetan eta Danimarkan (etxebizitzaren arloan) jarraitu dena. Linea totalitario sozialista Errusian eta Kuban eman izan da eta baita egitura sozialistako beste herrialde batzutan ere, batez ere, nekazal arloan eta artisautza arloan.

Iberoamerikar herrialdetan estatuaren estiloa anitza izatera, mugimenduak hartu beharreko estrategiak ere anitza behar du izan.

Kooperatibismoaren benetako aspirazioa da bere balio eta eraginkortasunagatik gailentzea. Horrela sortu zen eta horrela garatu nahi du. Kooperatibismoa sortu zen ekoizle eta kontsumitzaileek euren beharrak asetzeko era librean antolatzea erabakitzen dutelako. Herritik sortua eta bertan garatua, nahiz eta kontrako indar ugari izan. Aske garatzeko sortua izan da. Howard A. Cowdenen esanetan kooperatibismoak bere burua suntsitu dezake baina zaila da


kanpoko indarren batek egitea¹⁷⁷. Birsortu egiten da jendearen ahalegin eta borondatearen esku dagolako. Ez dago inolako beste merkataritza egiturarik horren azkar bere burua berreraikitzen duenik.

Garapen bidean dauden herrialdetan, kooperatibak, beharrezko dute askatasun osoz jardun ahal izateko maila bat eskuratzea. Oinarriak sendo eta bideragarritasun maila lortzen dutenean soilik izango dute euren kabuz jokatzeko aukera eta horren ondorioz, izaera publikoa duten hainbat zerbitzu euren gain hartzeko gaitasuna.

Kooperatibismoak estatuaren partetik jaso beharreko laguntzen artean kokatzen da legedi kooperatiboaren garrantzia eta honekin erlazio zuzenean eta piramidearen puntan legoke Konstituzioa. Kooperatibismoak marko konstituzionalean trataera egokia izateak ematen dio beharrezko duen babesa eta sendotzen du mugimenduaren oinarria.

Konstituzioak kooperatibismoari bere balioa aitortzeak berebiziko garrantzia dauka. Baina aitortpenak ez du sinboliko edo formala soilik izan behar, operatiboa edo eraginkorra izan behar du. Jabetza kooperatiboari ere berea aitortu behar zaio; funtzio garrantzitsuak ditu ordenu desberdinetan bai ordenu ekonomikoan, ekoizpenekoan, banaketakoan eta kontsumokoan. Jabetza kolektiboa sortzearekin batera, jabetza pribatua indartzen du. Honetaz gain, kooperatibaren desegitea gertatzen denean soberakinak ez dira bazkideen artean banatzen eta legeak ezarritako helburutara bideratzen dira; besteak beste, hezkuntza eta hedapen kooperatibora eta zerbitzu sozialak eskaintzera.

Estatuari dagokio kooperatibismoaren garapen eta hazkuntzarako konstituzioaren garapena egingo duten lege orokor eta bereziak onartzea. Lege markoaren barnean hierarkia bat egin beharra dago; kooperatiben sortzea ahalbidetuko duten legeak batetik eta kooperatibismo helduaren gaineko legeak bestetik. Azken kasu honetan Estatuari soilik dagokio hitzartutako ekintzak burutzea eta oro har, zaintza eta sustapen lana egitea.



¹⁷⁷ El movimiento Cooperativo y el Estado', Carlos Mario Londoño. Intercoop. Editora. 1976. Buenos Aires.


Legeak zabalak, zehatzak eta eskuzabalak izan behar dira, babestuak beharrezko guztia izan dezan. Gehiegi izatera ailegatu gabe. Mugimendua bere kabuz jokatzeko gai denean, Estatuak bitartekoak jarriko ditu kooperatibek euren iparra finkatu eta auto-garapena lor dezaten.

Mario Maurak Estatuak kooperatibekiko daukan harremanetna bost estadio edo maila bereiztu ditu¹⁷⁸:

- Kooperatiben eraketa unea.
- Estatuaren babesa kooperatiben gainean.
- Estatuaren kontrola kooperatiben gainean.
- Estatuak kooperatibekiko identifikazioa.
- Kooperatiben desegitea.

Eraketari dagokionean Mauroren esanetan alde zuzeneko autorizazio baten beharra egoten da legedi askotan. Gurean kooperatiben eraketa kooperatiben erregistroaren esku dago soilik eta berari dagokio legalitatea irizpidetzat hartuz (irizpide objektibotan oinarrituz) kooperatiben eraketa baimentzea. Balorazio subjektiboa izan da OCB-k izan duen tresna Brasilen kooperatiben gaineko kontrola bere esku izateko.

Kooperatiben eraketan, balorazio subjektibo hau eskatzea izan da OCB-ri bete duen eta betetzen jarraitzen duen funtzioari oinarria ezarri diona. Aldez aurretiko kontrol edo filtro honek



¹⁷⁸ MAURO, M. O controle interno em cooperativas. OCEPAR.1992 'Todavía, nota-se que, na quase totalidade dos sistemas jurídicos, e diferentemente das exigencias impostas aos demais segmentos societários, - sociedades anónimas, sociedades de responsabilidade limitada, ou mesmo sociedades civis- exige-se que as sociedades cooperativas obtenham uma prévia autorização.

Essa autorização, na maioria das vezes, está vinculada a um juízo subjetivo do órgão de controle estatal, que num determinado prazo deve-se manifestar pela concessão, ou não, bem como a respeito de modificações que deverá ser observada pela sociedade em constituição'.


eman dio legitimitatea daukan indarra eta ahalmena izateko. Aldez arretiko kontrol hori mantetzeko interesa izatea beraz oso normala da. Nahiz eta gaur, indarrean dagoen konstituzioarekin kontraesanean egon.

Estatuaren sustapena aipatzen du Maurak bigarrenik. Erabilera edo Interes Publiko kalifikazioa aitortzea, babesa eskaintzea eta pizgarriak ematea sartuko lirateke sustapenaren barnean. Brasilgo kasura etorriz pizgarri fiskalak aipatzen ditu; 'ekintza kooperatiboak' errentaren gaineko zerga ordaintzetik salbuetsita izatea¹⁷⁹.

Hirugarren lekuan gainbegiratzea edo kontrola aipatzen du Maurak. Estatuari dagokio kooperatibak ikuskatzea, fiskalizatzea eta arau hauste bat egiten duenean zigorrak ezartzea. Funtzio hauek entitate publiko baten eskuduntzakoak dira. Horregaitik Brasilen eskuduntzok OCB-ren esku izateak kooperatiben gainean arbitrarioki jokatzeko aukera zabalik lagatzea suposatzen du.

Latinoamerikar herrialdeetarako den Lege Marko Proiektua ere aztertzen du Maurak, eta hainbat ohar egiten ditu estatuaren paperaren inguruan. Batetik, azpimarratzen du Proiektuak herrialde bakoitzeko kultura juridikoa errespetatzeko usten duen aukera bai eta, jarduera askatasuna eta bazkideen borondatearen errespetuaren aitortza ere¹⁸⁰. Lege Marko Proiektua beraz dator NAK-ak bultzatzen duen 'autonomia eta independentzia' printzipioekin bat. Ildo bera mantentzera dator.

Autoreak xedapenaren garrantzia azpimarratzen du autoritate administratibo eta judizialentzako ipar gisa balio lezakeelako; gehiegikeriak ekiditeko. Estatuaren ekintzak kooperatibismoaren garapena lortzera bideratu behar dira, eta zentzu horretan sustapena bultzatu nahi duen arau pragmatiko bat da.



¹⁷⁹ Ekintza kooperatiboa da Brasilgo kooperatiben errejimen juridikoa ardazten duena. Ekintza kooperatiboaren arabera esleitzen dira pizgarri fiskalak. Gurean kooperatiba izaera bera da errejimena finkatzen duena eta ez kooperatibak burutzen dituen ekintzak. Honek asko zailtzen du sistema bera (ikus. 173 orria. 'Ekintza kooperatiboa:jarduera kooperatiboaren ardatza').

¹⁸⁰ 'Artigo 2: O Estado garantirá o livre desenvolvimento e a autonomia das cooperativas'.


Proiektuan, kooperatiben eraketarako beharrezkoa den alde aurretiko baimen beharra ez da jasotzen eta hori aurrerapen handia da. Kooperatiben eraketarako bideragarritasun azterketa beharrik ez dago eta dagokion autoritatearen eskuduntzapean erregistroa egitea proposatzen du. Erregistro honen esku egongo da: ekintza eratzailleak jasotzea, kapitalera egindako ekarpenen ziurtagiriak eta estatutu sozialak jasotzea eta prozesuaren legalitatea aztertzea. Alde aurretiko baimen beharrik ez izateak, Brasilen, OCB-k betetzen duen funtzioak gutxitzea eta boterea kentzea suposatzen du.

Baina Lege Marko Proiektuak (aurrerantzean LMP) baztertzen ez duena fiskalizazio publikoa da¹⁸¹. Dagokion autoritate publikoaren alloan, mugimendu kooperatiboaren partehartzea izango duen egituraren laguntza aurreikusten da, arbitrarietateak ekiditeko. 95 artikulua honen harira dio, Kooperatiben Institutu Nazionala Administrazio Kontseilu batek osatuko duela eta bertan partehartuko dutela Estatuko lau ordezkari eta mugimendu kooperatiboko beste lauk. Hemen gakoa da mugimendu kooperatiboaren ordezkari ongi aukeratzea. Brasilen kooperatibismoaren ordezkari da behin baino gehiagotan errepikatu dugun moduan, erronka nagusienetako bat. Garrantzitsua da beraz, ordezkari horretan Ekonomia Solidarioko ordezkariak ere izatea. LMP-k gurean daukagun sistema kooperatiboaren eredu jarraitzen du. Autoritate publikoak alloan dauka mugimendu kooperatiboaren laguntza eta bigarren hau da, legitimitatea daukana lankidetzara horretan aritzeko. Brasilen beharrezkoa da mugimenduaren ordezkariak aniztasuna islatzea eta ez soilik OCB-ra mugatzea.

8.2.1. Estatuaren bi funtzioak: gainbegiratzea eta sustapena

Estatuak kooperatibismoaren gainean daukan eraginaren adierazle nagusienak dira batetik gainbegiratzea edo kontrola eta bestetik, sustapena. Erlazio zuzena duten arren eta oreka lortzea erraza ez den arren, bi hauen bidez lortuko da kooperatibak batetik behar duten babesa eta bestetik bete behar dituzten baldintzen kontrola jasatea.

Sarritan aipatu izan dugun moduan Estatuak kooperatiben gainean bete duen gainbegiratzeak eragina izan du kooperatiben garapenean. Gainbegiratze hitzari honako esanahi hau esleitu diogu: Estatuak organismo desberdinen bidez kooperatiben lege eta erregelamenduen betetzea



¹⁸¹ Proyecto de Ley para las Cooperativas de America Latina

zainduz burutzen dituen ekintza multzoak osatzen du. Eraketatik desegiterainoko tartea hartuz. Funtzio honek beste izen batzuk ere hartzen ditu: zaintza, kontralor, fiskalizazio publikoa eta interbentzio administratiboa.


Kooperatibak pertsonalitate juridikoa dute eta ondorioz, zuzenbidezko subjektu dira, eta osatzen duten kideengandik desberdina den izaera dute. Hirugarrenekin operazioak burutzeko aukera dute eta hau zuzenean lotzen da hartzen dituzten obligazioen gainean kooperatibako ondareak duen erantzukizun mugatuarekin. Pertsonalitate juridikoa mantetzen da, legearen eskakizunak betetzen diren neurrian. Baldintzak betetzeari usten dionean, pertsonalitatea bera ere galdu egiten da. Baldintza hauen betetzearen gaineko kontrola da zaintza edo gainbegiratzea deitu duguna.

Gainbegiratzea, Estatuak kooperatibarekin kontratatzen duten hirugarrenen interesak – baita bazkideenak eta sozietatearenak orokorrean- babesteko duen mekanismoa da. Kooperatiba terminoa, soilik merezi dutenak, erabiltzen dutela ere bermatzen du. Eta azken batez, elkartze eskubidea bera ere babesten du. Gainbegiratzeak kooperatiba formularen erabilera egokia babesten du.

Aurrez ere esanda daukagun moduan, duten erregimen politikoaren arabera, Estatuak jarrera desberdinak hartu izan dituzte; indiferentziatzko jarreratik hasi eta interbentzio sakoneraino. Jarrera bata ala bestearen baitan aldatu egiten da gainbegiratze funtzioa bera ere.

Orokorrean bada ere, esan daiteke, herrialde sozialistetan kooperatibak, ekonomia zentralak barneratu dituela eta herrialde industrializatueta berriz, organizazio enpresarialeko gainerako forma juridikoen trataera berdina izan dutela. Bi hauen artean kokatzen dira garapen bidean dauden herrialdeetako errealtatea; hauetan, kooperatibei kontsiderazio espeziala eskaini zaie, garapen ekonomiko eta sozialean tresna lagungarriak direlako.

Latinoamerikan beraz, garapen bidean dagoen herrialdea denez, Estatuak kooperatiben gainean bete duen funtzioa, sustapena eta gainbegiratzea izan dira, elkarrekin erlazio zuzenean biak ere¹⁸².



¹⁸² MAURO, M. O controle interno em cooperativas. OCEPAR.1992


Kooperatibak garapenerako tresna baliagarriak dira. Orokorrean esperientziak erakutsi du Estatuaren eragina kooperatiben gainean haserako etapetan handiagoa izaten dela ondorengo fasetan baino, eta gutxitzera egiten du erakundeak garatuz doazen heinean. Kooperatiben hazkundera Estatuaren jokaerak baldintzatu egiten du. Bestalde, garapenerako tresna gisa hartzen ditu kooperatibak eta bere antolakuntzako agentzia kontsideratzera ailegatuz.

Aipatutako egoeraren ondorio gisa, - kooperatibak garapenerako agente gisa hartzea-gobernuko departamendu desberdinetan kooperatiben gainbegiratze eta promoziorako sailak sortzen dira; kasurik gehienetan, kooperatiben bizitzan injerentzia handiak eginez. Askotan organismo hauek ministerio desberdinetan sortzen dira aldi berean, funtzio bikoizketa, koordinazio falta eta jardueren gaineko irizpide bateratu gabeziak. Bestalde, sustapen eta gainbegiratze funtzioek gatazkak sortzen dituzte, funtzionarioak aldi berean eraman behar dituelako sustapena eta legeen betetzeen gaineko gainbegiratzea.

Estatuaren eta kooperatiben arteko harremanak, - batez ere garapen bidean dauden herrialdetan,- kezka teorikoen iturri izateaz gain, eragin praktikoak izan dituen gaia izan da. Lankidetzan aditu direnak eta nazioarte mailako erakundeak gaia landu dute eta denerako iritziak eman dituzte.

Printzipioen mailan NAK-k 1937an Parisen egin zuen Kongresuko Adierazpenean modu kategorikoan jaso zuen kooperatiben neutraltasun politikoa, eta honek dakarren gobernuekiko independente izan beharra. 1966an Vienan eginiko Kongresuan berriz, neutraltasun politiko printzipioa arinduko du, atxekipen aske eta borondatezkoaren baitan kokatzen duelako neutraltasunaren printzipioa.

Hala ere, Manchesterren 1995ean Identitate Kooperatiboaren inguruan onartutako Adierazpenean, atxikipen askea eta borondatezkoa albo batera laga barik, printzipio espezifiko berri bat onartu zen, Autonomia eta Independentzia printzipioa hain zuzen ere¹⁸³.




¹⁸³ Las cooperativas son organizaciones autónomas de autoayuda gestionadas por sus socios. Si intervienen en acuerdos con otras organizaciones, incluidos los gobiernos, o captan capitales de fuentes externas, lo hacen en términos que aseguren el control democrático por parte de sus socios y mantengan su autonomía cooperativa'.

Bertan azaltzen da, lehen aldiz, kooperatibek Estatuarekiko mantendu beharreko independentzia eta autonomiaren gaia. Aurrez, doktrinak gaia mahai gainean jarrita izan arren, orain adierazpena kategorikoa da printzipio moduan formulatuta.

Laurogehitamarreko hamarkadan, estatuak jardura ekonomikotik erretiratzeko joera hartuko dute. Joera honen ondorio, pribatizazio eta desregularizazio prozesuak emango dira eta honek ordura arteko panorama guztiz aldatzea ekarriko du. Mundu mailako fenomeno izango da hau eta Berlingo harresiaren erorketarekin mundu mailan gertatuko diren aldaketen baitan kokatzen da. Latinoamerikar herrialdetan prozesua sakontasun eta azkartasun handiz eman zen. Estatuak albo batera laga zuen sustapen politika tradizionala eta kooperatibek era oso bortitzean galdu zituzten babes eta neurri pizgarriak, batez ere, frankizia fiskalak. Aurrera eraman ziren pribatizazio prozesutan kanpo kapitala zuten egitura sozietarioak lehenetsi ziren eta irabazi asmodun egiturekin alderatuz, kooperatibak desabantailan egotera pasa ziren. Azken hauek kapitalismo globalean desideratum bat izatera pasako dira.

Hala ere, aldaketa honek, ez du ekarriko automatikoki kooperatiben gainbegiratze politikan zuzenketak ematea. Kasu askotan, kooperatibak tratamendu berezia zuteneko garaiko kontrol bera eramaten jarraituko dute Estatuak. Ondorioz, kooperatibak sustapen abantailak galduko dituzten arren, estatu kontrolaren zama izaten jarraituko dute.

Estatuak kooperatibekin izan beharreko harremanaren inguruan, nazioarteko egituretan ere emango da jarrera aldaketa bat. Aldaketa honen oinarria, 2001ean Nazio Batuen Erakundeko Batzarrakeko adierazpenean aurkitzen da¹⁸⁴. Adierazpenean ez da esaten zein den gobernuak kooperatibekin burutu beharreko sustapen eta promozio politika. Baina esaten duena da gobernuen zeregina dela kooperatibak, bestelako enpresekin berdintasunean lehiatzeko ingurumaria sortzea. Lehiaketa berdintasun mailan gertatu dadin, kooperatibak euren potentzialitatea garatzeko aukera izan behar dute eta honekin batera, euren kideen interes individualak eta sozietatearenak asetzeko aukera eskainiaz. Bestalde azpimarratzen da politika estatalak kontutan izan behar dituztela kooperatiben ezaugarri bereziak; ezaugarriok, elkarte eta kooperatiba ez diren egituretatik desberdinak baitira.




¹⁸⁴ 2001. NBE. Pautas para la creación de un contexto adecuado para el desarrollo de las cooperativas

Irizpide hauetan oinarriturik, kooperatiben autonomia absolutua errespetatzeko gomendioa luzatzen da eta gobernuen injerentzia edo eskuhartzea, -gainerako egituretan bezala- legearen betearazpena bermatzera mugatzea aholkatzen da. Hau baita bestelako elkarte eta enpresa egituretan estatuak bete ohi duen papera ere. Ildo honekin jarraituz, mugimendu kooperatiboaren autokontrol gaitasuna errespetatzeko beharra azpimarratzen da.

Arlo honetan Laneko Nazioarteko Erakundeak (LNE-OIT) 2002an 127 zenbakia daraman Gomendioa azpimarratu behar da¹⁸⁵. Gomendio berri honek garapen bidean dauden kooperatiben gaineko 1966ko 127 zenbakia daraman Gomendioa ordezkatu du. Dokumentuaren arabera kooperatiben garapenerako neurri bereziak hartu beharra dago, eta neurriok, kontutan hartu behar dute egitura hauen izaera autonomo eta autogestionatua. Kooperatiben izaera eta funtzioak kontutan izanda batetik eta euren autonomia eta legalitatea errespetatuz bestetik, eraman beharreko politika da. Gomendiaoren arabera, gainerako egiturei ezargarri zaizkien neurrien parekoak izan behar dira kooperatibei ezarri beharreko neurriak.

Latinoamerikar herrialdetako legedi kooperatiboek komunean duten ezaugarria da estatuak kooperatiben gainean egikaritu izan duten interbentzionismoa da. Gobernuko organismo batek eraketarako baimena ematea eta ondoren, funtzionamendu eta desegitea ere kontrolpe zurrunean izatea, legedi kooperatibo latinoamerikarren ezaugarri nagusi eta komunak. Aipatu ditugun eraketa, funtzionamenduaren gaineko kontrolak eta desegite prozedurak erreglamendu bidezko garapen zehatza izaten dute. Arauok autoerregulazio esparrua murrizten dute eta estatuaren injerentzia arrazoitzeko oinarri izaten dira. Canadian eta Estatu Batuetan oso bestelakoak dira ezaugarriok.

Gaur egun herrialde askotako legeditan kooperatiben autonomia errespetatze bidean aurrera pausuak eman diren arren, - Mexikoko 1994ko kooperatiba legea eta Brasilgo Konstituzio Federala- eta sustapen politikak amaitu diren arren, interbentzio politikak aurrera darraite¹⁸⁶.



¹⁸⁵ 2002ko Recomendación sobre la promoción de las cooperativas,

¹⁸⁶ Mexikoko legeak helburu zuen kooperatiben gainbegiratze organoak kentzea eta eraketa akta sinatzen denetik pertsonalitate juridikoa eskuratzea.

Ondorengo lerrootan kooperatiben gainbegiratze prozesua hainbat herrialdetan zela eraman den aztertuko dugu. Honako elementuok jorratuko ditugu: gainbegiratze ardura daukan entitatea; eraketa unea, pertsonalitate juridikoaren sortzea; eta bai kooperatibaren bizitzan zehar eta desegite unean gainbegiratzea, hau da izate juridikoaren iraungipena.

A. Gainbegiratze organismoa

Estatuko parte izanik kooperatiben gainbegiratzea eramateko ardura daukan organismo edo bulegoren bat herrialde gehienak dute. Entitate berezia izaten da, ministerio desberdinetan (Garapen Soziala, Merkataritza, Ekonomia..) kokapena daukana eta merkataritza entitate eta elkarten gainbegiratzea daramaten erakundeetatik bereizten dena. Hemen aurki daiteke Brasilgo egoeraren irregulartasunaren gakoa. OCB-k bere gain dituen funtzioek gainbegiratze ahalmenak ematen dizkio baina, ez denez izaera publikoa daukan entitatea ezin ahalmenok bete.

Materia kooperatiba guztientzako orokorra izaten da, hainbat zerbitzu eskaintzen dituzten kooperatiben kasua izan ezik; banka, aurrezkoa eta aseguruia esate baterako. Gainbegiratze organoa bitarikoa izaten da kasu askotan, hau da, gobernuko eta mugimendu kooperatiboko ordezkariez osatua.

B. Eraketa unean

Normalean gainbegiratze ardura duten erakunde berdinak dira funtzionamendurako autorizazioa esleitzeko ardura daukatenak edo gobernuari proposamena luzatzen diotenak. Badira kasu bitxiak ere: Costa Rica-n Lan Ministerioa da autorizazio eskaintzen duena eta Cuba-n berriz, Nekazaritza Ministerioa da eraketa autorizatzen duena eta Estatistikarako Batzorde Estataleko Erregistroan egiten den inskripzioarekin lortzen da izaera juridikoa.

Hainbat kasutan gainera legetik kanporako eskakizun bereziak ere izaten dira. Adibide zehatzera joanez: Colombian formazio kooperatibora hainbat ordu eskaini izana frogatu behar da; Costa Rican bideragarritasun txostena aurkeztu behar da; Panaman, bideragarritasun ekonomiko sozialeko txostena eta fundatzaileen formazio kooperatiboa.


Oso herrialde gutxitan bada ere, badira erregistro hutsarekin izaera lortzen duten kooperatibak. Legezko baldintzak betetzen direla frogatzea nahikoa da eta ez da behar aldez aurreko baimenik. Mexiko da kasurik esanguratsuen; bertan eratze akta sinatzea nahikoa da eta ondoren Merkataritzako Erregistro Publikoan inskribatu behar da. Brasilen, 1988ko Konstituzio Federalaz geroztik- inskripzioa egiten da Junta Komertzialetan eta ondoren erregistratzen dira erakunde kooperatibo estadualean¹⁸⁷. Venezuelan inskripzioa egin behar da egoitzako erregistro judizialean. Lege Marko proiektuak ere gainbegiratzea dagokion organoan inskripzioa egitea proposatzen du.

C. Gainbegiratzea kooperatibaren ibilbidean zehar

Normalean legeak edo erreglamenduak fiskalizazio organoei eskaintako eskuduntzak oso zabalak dira. Ikuskaritzetan honakoak eskatzeko aukera izaten dute: liburu eta erregistroak erakustea; informazioa eskatzeko eskubidea; asanbladatara joan edo eurak konbokatzeo eskubidea; likidazioa zaintzea; 'kooperatiba' terminoaren erabilera okerra ekiditea eta orokorrean lege eta erreglamenduen betetzea zaintzea.

Honduraseko legeak, eskuduntza esleitzen dio gainbegiratze organoari, heleginak izan diren batzarraren erabakiak erabakitzeko. Eskuduntza hau normalean tribunalen eskuduntza izaten da.

Arbitrajea gainbegiratze funtzioetan kokatu ez arren, -gatazka konponketan baizik,- adibidez, Chileko legeak, Kooperatiba Departamenduari esleitzen dion eskuduntza da. Kooperatiben artean eta hauek bazkideekin dituzten gatazkek konpontzeko ardura beraz Kooperatiba sailak dauka Chilen. Gurean arbitraje da Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak gaur daukan eskuduntza gutxietako bat.



¹⁸⁷ OCB litzake oraindik, Gobernuko ordezkartza kooperatiboa mantentzen jarraitzen duena. Eta hain zuzen ere Konstituzioaren arabera ez da legezkoa inskripzio edo afiliazio hori derrigorrez eskatzea (ikus. 206 orria. Kooperatiben ordezkartza ofiziala eta 'Elkartzeko askatasuna'.)

Hainbat estatutan legeak etengabeko auditoretza zerbitzua izateko eskakizuna luzatzen die kooperatibei. Amaitzeko esan gainbegiratze organoen ahalmenei dagokionez santzio ahalemenak izaten dituztela.

D. Autorizazioa erretiratzea

Autorizazioa emateko eskuduntzarekin batera kentzeko eskuduntza ere izaten du gainbegiratze organoak. Autorizazio erretiratzearen bidez kooperatibaren desegitea eta likidazioa eraginez. Autorizazio erretiratzea beraz, kooperatibak lege xedapenak urratzen dituenean erakunde eskudunak daukan eskuduntza bat da.

Kooperatiben autonomiarekin lotura estuan dago egiturek autoerregulaziorako duten margena. Latinoamerikar esperientziarekin alderatuz, - estatuak kooperatiben autoerregulazioari ez dio tokirik laga izan- European mugimendu kooperatiboari leku garrantzitsua utzi eta aitortu izan zaio.

Alemaniakoa dugu adibide esanguratsua. XIX mendetik hasita kooperatiba alemanak federaziotan antolatzen hasi ziren. Federazioak beste zerbitzu batzuen artean, auditoretza zerbitzua eskaintzen zuten. 1889tik aurrera auditoretza legez, derrigor, bete beharreko eskakizuna bilakatu zen. Eta ondoren, kooperatiba guztiak auditoretza federazio batera afiliatuta egon behar zirela xedatu zen. Obligazio hau ez betetzeak kooperatibaren desegitea eragin dezake.

Auditoretza federazio hauek Estatuko gobernuak autorizatu behar ditu eta jarduera Estatu guztira hedatzen dute. Federazioak kooperatibez osatzen dira edo hauen jabetzapeko enpresez eta urtero kooperatiba afiliatuei buruzko informazioa emateko ardura dute.

Alemaniko legediak ezartzen duen mailara heldu gabe, Italian ere, kooperatiben zaintzak autokontrol maila altua dauka. Sistema bigarren gerraostean sartu zen indarrean, 1947ko Lei Basevi-rekin. Konstituzioko 45 artikulua araberak, legeak, lankidetzaren izaera eta helburuen zaintza bermatu beharra zeukan kontrol mekanismo egokien bidez. Oinarri hauekin, legegileak, estatuaren eta mugimendu kooperatibo nazionalen artean gauzatuko ziren ekintza multzoa diseinatu zuen, honela, mugimendu kooperatiboaren eraginkortasuna eta diziplina aregotzeko.

Erregimen legalak xedatzen du kooperatibak bi urtean behin ohiko ikuskaritza bat eraman beharra izango dutela, ordezkaritza, asistentzia eta tutela ardura duten gobernuaren autorizazioa dute mugimenduko organismoen bidez. Gaur egun lau dira gaitasuna duten nazio mailako organizazioak eta hauek burutzen duten ikuskaritza adituen esku dago.

Laburtuz, beraz:

Batetik gainbegiratzearen alkantzu eta mugei buruz esan daiteke bai doktrinan eta baita printzpio mailan ere aldaketa esanguratsuak eman direla. Kooperatiben autonomia indartu da eta hau NAK-ko Manchesterreko Kongresuko Adierazpenean esplizitoki adieraziko da. Bestetik, Estatuak entitate pribatuen fiskalizazioa alboratu du eta baita kooperatiben gainekoa ere. Hala ere, kooperatiben autonomia errespetatzeak ez du ekarri, Estatuaren gainbegiratzea guztiz desagertu denik.

Zaindu beharrekoak dira kooperatiben gaineko gainbegiratze eta sustapena hauek, kooperatiben autonomian izan dezaketen eraginagatik.

Kooperatiben autonomia definitzerako orduan kontutan izan beharreko elementua da, aldez aurreko legaltasun kontrola pasa ondoren eta Estatuko organismo baten aldez aurreko autorizazio beharrik izan gabe, erregistroan eginiko inskripzio bidez izaera lortzea. Erregistro sistema dagoeneko merkataritza sozietateen erregimenaren linean joan beharko litzake. Bestetik uste dugu, kooperatibaren izatearen gaineko erabakia ez litzatekela organismo baten esku egon behar, tribunalen esku baizik.

Eztabaidagai garrantzitsu bat da ea gainbegiratze organismoan kooperatibetako ordezkariak presentziarik izan behar duten ala ez; kontutan izanik beti ere, kooperatibak zigortuz eta kontrolatuz jokatu beharra daukala eta honek funtzioaren egikaritzan eskatzen du irizpide independentzia eta objetibotasuna. Honen harira esan beharra dago esperientziak erakutsi duela izaera kontsultiboz bada ere, komenigarria dela kooperatibek ordezkaritza bat izatea.

Autokontrol kooperatiborako joera indartzen ari da eta nazioarte mailan hainbat bitarteko ari dira sortzen. Honek araudiaren modifikazioaz gain eskatzen du erakunde kooperatiboak gaitzea, estatutik delegatuko zaizkien funtzioak ongi bete ditzaten. Delegazio horrek inoiz ezingo dizkie hainbat funtzio esleitu kooperatibei, santzio eta erregistro funtzioak adibidez, esparru publikoan mantendu beharko direlako.

Sustapena dugu bigarren funtzioetako bat. Estatuak kooperatibismoa sustatzeko bide desberdinak erabili ditzake. Garapen bidean dauden herrialdeetan estatuak kooperatibismoa aldaketarako agente moduan erabili behar du eta horretan arina eta eraginkorra izan behar dela


uste du C. Londoñok¹⁸⁸. Bere esanetan Iberoamerikar estatueta kooperatibismoaren lidergoa botere definitu baten esku egon behar da, Estatu kasu. Estatuak, erakunde baten bidez egikaritu du boterea. Behar adinako autoritate eta botere nahikoarekin eta sektore sozial desberdinetan errespetuzko eragina daukan egitura baten bidez.

Bere garaian Colombiarako Jack W. Amesek adituak, proposatu zuen Superintendencia de Cooperativas delakoa. Kooperatibismoak beharrezkoak zituen zerbitzu teknikoak hornitzeko gai izango dena. Esate baterako: auditoria zentral eta erregionala; kontabilitate bateratua; dokumentu konpilazioa eta estatistika politiko eta teknikoak...

Carlos Londoñok Consejo Nacional de Cooperativas sortzea proposatzen du; kasu honetan Errepublikako Presidentziaren menpe izango den erakunde gorena; ekintza kooperatibo ofizial ororen ardura izango duena. Eta bere funtzioen egikaritzarako bi organo izango ditu: Nazio Superintendenzia: kooperatiben kontrol juridiko, kontabilitatekoa eta estatistikoa eramateko ardura izango duena. Eta Garapen Kooperatiborako Institutua: sustapen kooperatiboaz, hezkuntzaz, hedapenez, asistentzia teknikoaz eta finantziazioaz eta nazioarteko elkartrukeaz arduratuko dena.

Institutuak bere funtzioak egoki betetzeko behar dituen elementu guztietaz gain kooperatibismoaren planifikazio eta ikerkuntzarako zentroa izango luke eta jardura guztien planifikazioa burutuko litzake bertatik. Nazio eta nazioarte mailako organismoen elkarlan tekniko eta finantzarioa bideratuko luke aipatu zentroak. Beharrezko ikusten da gainera mugimendu kooperatiboa indartzeko planifikazio bat burutzea. Planifikazio hau ez da egin Iberoamerikar herrialdetan baina, kongresu kooperatibo guztietan eskatu da.

Garapen kooperatiborako beharrezko diren baliabideei dagokienean Institutuak irudimena behar du sektore bakoitzeko beharrak ongi detektatzeko eta batez ere, garapen bidean dauden herrialdeei begira. Bi sektore hartu beharko lirateke kontutan: kooperatiba primarioen eta goragoko mailako kooperatiben beharrak (federazio, asoziazio..).



¹⁸⁸ LONDOÑO, C. El movimiento cooperativo y el Estado.

Kooperatiba primarioen kasuan, Institutuaren ekintza hauek sustatzera, estimulatzeraz, aholkatzeraz zaintzeraz eta bultzatzeraz bideratu behar dira. Eta goragoko mailako entitateak eta erakunde laguntzaileak beste hainbat funtzio har ditzakete bere gain Estatuaren laguntza finantzario eta teknikoarekin. Harremanak kontratuzkoa izan behar du eta ahalik eta sistemaren autonomia handiena bilatuz.

Kooperatibismoa bere kabuz moldatzeko gai da, baina hastapenetan oso ahula izaten da. Ahultasun hori da Estatuak konpentsatu behar duena, zuzenean zein zeharka. Lehenak, sustapen, estimulu eta kontrol izaera dauka. Bigarrenak nazio mailako ekintzen bidez bideratu daiteke, institutu deszentralizatu, banku sistema eta sistema komertzialen bidez.

Institutuak bere lana trebetasun handiz burutu behar du; kontutan izanik helburua ez dela kooperatibako kideen lana eurak burutzea, baizik eta eurak burutu ditzaten baliabideak eskaintzea.

Estatuaren jarduerak koordinatzeko Institutuak esparru kooperatiboan jarduten duten egitura pribatu garrantzitsuen lankidetzarekin kontatu beharra dauka.

Estatuak sustatzaile kooperatibo moduan bilatu beharko lituzkeen hainbat helburu:

- Demokrazia ekonomikoa sortzea.
- Lankidetzaz lanean ordenu guztietan askatasuna.
- Aldaketa soziala eta ekonomikoa.
- Ordenu eta bake sozialaren mantentzea.
- Sektore kapitalistaren aurrean indar kooperatibo eta sindikalen oreka politikoa.
- Kooperatiben bidez hainbat zerbitzu publikoren eskaintza.
- Ekonomia mistoko enpresa kooperatiboak bultzatzea.
- Hainbat enpresa nazionalen kooperatiba bihurtzea.

Carlos Londoñok ere azpimarratzen du esparru sozio- kulturean Estatuak daukan papera; batez ere, kooperatibismoa ikastera behartuko duen legeak ematera.

Kooperatibismoaren bidez Estatuak hainbat helburu edo onura lortu ditzake:

- Sistema kapitalista itxiarekin alderatuz, kapitalizazio soziala lortzen da kooperatibismoaren bidez.
- Justizia soziala eta garapen ekonomikoaren arteko gatazka konpontzea.
- Zerbitzu publikoaren eskaintza irabazi asmorik gabeko enpresa kooperatiboaren bidez.
- Kooperatibak aldaketarako eta garapenerako agente izan daitezke.

Kooperatibak badute ekintza politikoa aurrera eramateko helburu bat baina, beharrezkoa da aldeez aurretik kooperatibistak eurak kontzientzia politikoa izatea. Kooperatibistak hiritar eta helburu politikoak dituen mugimendu bateko kide diren neurrian, gizartearen beharrei erantzuteko antolatze eskubide eta obligazioa dute.

Kooperatibismoak mezu bat dauka eta mezuarekin ahalik eta jende gehienak bat egiteko ahalegina egin behar dute. Gailentzen den sistemaren aurrean konpetentzia politikoa eta parte hartzeko era desberdinak garatu beharra dago. Politikak bere helburu eta ideal propioak ditu: ordenua, justizia, integrazioa, oreka, segurtasuna, ongizate komuna... eratu nahi dugun gizartearen balore idealak izan behar dute. Hauek dira kooperatibistak euren gain hartu behar dituzten balioak.

Kooperatibismoa interes politiko oso argiak dituen sistema ekonomiko bat da. Zuzendaritzak formazio demokratikoan hezi behar du eta aldaketa sozialera bideratu bere jarduna. Aldaketa hau sistema ekonomikoaren eta politikoaren bidetik etorri beharko da. Ezin da ez bata eta ez beste alde batera laga.

Kooperatibismoa enpresa bat modu eraginkorrean kudeatzea baino zerbait gehiago da. Bizitzaren kontzepzio sozial eta ekonomiko bat izatea da; guztien onura bilatu asmo duena.

Botere ekonomikoa, oinarrizkoa da arma politiko moduan. Dirua da gaur arma politikorik indartsuena. Sindikatu eta beste hainbat mugimenduk boterea duten arren, nekez lortzen dute aberastasuna dutenekin lehiatzea. Horregatik indartu behar du kooperatibismoak, ondoren bere imagina zabaltzea lortzeko. Bien bitartean, eguneroko lana eta kooperatibismoaren dibulgazioa egitea dagokie kooperatibei.

Kooperatibismoak aipatu ditugun helburuak lortzeko indartu eta zabaltzea da erronka. Ez dadila izan menperatzailea den sistemaren agente osagarri hutsa.

8.3. NAZIOARTEKO ALIANTZA KOOPERATIBOA

8.3.1. Ezaugarri orokorrak

Estatua eta mugimendu kooperatiboaren arteko harremana aztergai izan du urtetan zehar Nazioarteko Aliantza Kooperatiboa (NAK), eta gaur indarrean daukan 'autonomia eta independetzia' printzipioak erreferentzia zuzena egiten dio estatua eta mugimenduaren arteko harremanari. Mundu mailako kooperatiben ordezkartza daukan egiturak, aspalditik du erlazio hau arreta gai.

2003ko irailaren 4an onartutako estatutuak dira mugimenduaren funtzionamendua arautzen dutenak. NAK-aren estatutuen arabera, aliantza, gobernuz kanpoko erakunde independentea da eta bere zeregin nagusia, mundu osoko kooperatibak bildu, ordezkatu eta zerbitzatzea da.

Egoitza, Geneban du, 1982 urteaz geroztik. Elkarte izaera duen korporazio bat da eta Suitzako Kode Zibilak arautzen du bere 60tik 79 artikuluetan. Batzar Orokorrak dauka NAK-aren egoitza aldatzeko eskuduntza.

Munduko kooperatiba mota guztien ordezkari den heinean honako helburuak izango ditu:

- a) Elkar laguntza eta demokrazian oinarrituta, munduko kooperatiba mugimendua bultzatzea.
- b) Balore eta printzipio kooperatiboak bultzatu, babestu eta zaintzea.
- c) Harreman ekonomikoen garapena bultzatzea eta baita, elkarte-bazkide diren onurarako bestelako harremanak ere.
- d) Nazioarteko bakea eta segurtasuna lortzeko helburuz, giza garapen iraunkorra eta norbanakoaren garapen ekonomiko eta soziala bultzatzea.
- e) Erabaki hartze guztietan eta burutzen diren ekintza guztietan gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzea.
- f) NAK ez da inolako erakunde politiko edo erlijiosotara afiliatuko, eta independentzia mantenduko du bere jarduera guztietan. Aurrerago ikusteko aukera izango dugun moduan, erakundearen independentzia bermatzea izan da urtetako kezka eta helburu nagusietakoa.

g) Aipatutako helburuak betetzeko honako metodo edo bideak erabili ahal izango ditu aliantzak:

- Esperientzia trukerako eta kooperatiba garapenerako, ikerkuntza eta estatistiketarako eztabaida gune izatea.

- Kooperatibei, euren garapenerako, aholkularitza teknikoa eskaintzea.

- Kooperatiben jarduera ekonomiko eta sozialetan, Nazioarteko Erakunde Sektorialak sortzea.

- Nazio Batuekin eta kooperatibentzat garrantzitsuak diren helburuak dituzten erakundeekin elkarlana bultzatzea.

- Egokia den beste edozein bide erabiltzea.

Aliantzan afiliazioa egin ahal izateko, kooperatiba moduan onartua izatea eskatzen da. Onarpen horretarako, bazkideen egoera ekonomiko eta soziala hobetzen laguntzea helburu duen elkarte izatea eskatzen da. Honetaz gain, elkar laguntzan oinarritzen den enpresa izatea eskatzen da eta NAK-k Identitate Kooperatiboaren inguruan onartuta daukan adierazpena betetzea.

Kooperatibaren definizio bat ere ematen du. Eta honela definitzen du: *‘ Behar eta helburu ekonomiko, sozial eta kultural komunak betetzeko jabetza komuna eta kontrol demokratikoaren bidez antolatutako enpresa batean, borondatez biltzen diren norbanako autonomoen asoziazio autonomoa da kooperatiba’.*

Kooperatiba oinarritzen duten balioak honako hauek dira: elkar- laguntza, auto- erantzukizuna, demokrazia, berdintasuna eta elkartasuna. Fundatzaileen ideiak jarraituz balio etikotan sinisten dute: zintzotasuna, gardentasuna, erantzukizun soziala eta besteekiko ardura.

Printzipio kooperatiboak berriz dira kooperatibak euren balioak martxan jartzeko dituzten irizpideak. Printzipioaren azalpenarekin batera Aliantzaren printzipioak aipatzen goazen heinean, Brasilgo errealitatera begirako hausnarketa egingo dut:

Lehenengo printzipioa: bazkidetza irekia eta borondatezkoa

Kooperatibak borondatezko erakundeak dira eta zerbitzuak erabiltzeko gai diren kide guztiei; inolako genero, arraza, ideologia politiko edo sozialengatik bazterketarik egin gabe, bazkidezaren erantzukizuna euren gain hartzeko gai diren kideei irekia egon behar du.

Honek suposatzen du ez kooperatiban, eta ez kooperatiben ordezkariak duten egituretan ez litzatekeela bereizketarik egin behar genero, arraza, ideologia politiko eta sozialaren arabera. Brasileko errealitatean baieztapen hau zalantzan jar daitekeela esango nuke. Errealitatea bitan zatitua egotera – OCB-k diotenaren arabera, kooperatibismo soziala eta ekonomikoa banatzean- elementu hauek eragina dutela esan genezake. Printzipio hau errespetatzen den ala ez beraz, auzitan jartzen ausartuko nintzake. Bestalde, bai alde bateko zein besteko kooperatibek linea ideologiko zehatz bat izatera, bazkide sarrerak ere ideologia horietara baldintzatuta egongo dira. Honek kooperatiben sarrera askea baldintzatuz.

Bigarren printzipioa: kideek burututako kontrol demokratikoa

Kooperatibak euren bazkideek kontrolaturiko erakunde demokratikoak dira; azken hauek politikak definitzerakoan eta erabakiak hartzerakoan partehartze aktiboa dute. Aukeratuak izan diren gizon eta emakumeak euren bazkidezaren aurrean erantzun egin behar dute. Oinarrizko kooperatibetan bazkideek boto eskubide berbera dute (kide bat, boto bat), eta kooperatibak beste maila batean modu demokratikoan antolatuta daude.

Kontrol demokratikoak erreferentzia egiten dio bazkideen erabaki ahalmenari. Kooperatiba izaerak berez, izaeraz, soldatapeko langileen gailentzea ekiditea dakar. Lanak kapitalaren gainean subiranotasuna izatea suposatzen du. Lan bazkideen presentzia urria den kooperatibetan kontrol demokratikoa zalantzan jartzen da. OCB-ko kooperatibetan aztertu behar litzake zein puntutara arte gauzatzen den kooperatiban bazkideek egikaritzen duten kontrol demokratikoa. OCB-ko errealitateaz haratago ere, brasilen, arlo honetan defizita dagoela esaten ausartuko nintzake. Gaur martxan jartzen diren kooperatiben ere, -tradizioa falta da- bazkideen erabaki eta partehartze maila nahiko baxua da.

Hirugarren printzipioa: kideen partehartze ekonomikoa

Bazkideek pareko ekarpena egiten dute kooperatibako kapitalean eta demokratikoki kontrolatzen dute. Kapitalaren zati bat behintzat, kooperatibaren jabetza komunekoa da. Soberakinak dauden kasutan, bazkideek konpentsazio mugatu bat jasotzen dute kapitalera eginiko ekarpenaren ordainetan. Bazkideek soberakinak honako helburuetako batzuetara bideratzen dituzte: kooperatibaren garapena; zati batean bada ere, zatiezinak diren erreserbak

sortuz; bazkideei onurak eskainiz jarduera kooperatiboaren arabera; bai eta kideen beste ekinbide batzuk babestuz ere.

Hau ere aurrekoarekin zuzenean lotuta dago. Bazkideak egiteak dakar besteak beste, kontrola eta emaitza ekonomikotan partehartzea izatea. Kooperatibaren garapenarekin lotura zuzena izateko modua da. Enpresaren jabetzan partehartzea beraz, kontrolarekin eta kooperatiba izaerarekin lotuta egonik beharrezkoa da printzipio hau betetzea.

Laugarren printzipioa: autonomia eta independentzia

Kooperatibak bazkideek kontrolatutako elkar laguntzarako erakunde autonomoak dira. Beste erakunde batzuekin harremanetan sartzan badira, baita gobernuekin ere, edo kanpo iturrietatik finantzazioa lortzen badute, beti helburu dute, kideen aldetik kontrol demokratikoa eta kooperatibaren autonomia mantentzea.

Printzipio honen eragina eta aplikazioa dira gaur OCB-k duen posizioa auzitan jartzen duena. Printzipio hau zuzenean lotzen da Estatuaren esku-hartze ezarekin. Aliantzak eta elkarlana bilatu eta bultzatu behar dira baina, beti ere, bazkideen kontrol demokratikoa eta autonomia galdu gabe.

Estatuaren esku hartze handiko tradizioa duen errealtate batean kooperatibaren autonomia aldarrikatzeak esangura berezia hartzen du. Interbentzionismo handiaren menpe egon diren kooperatibak erronka dute aurrean, auto-konfiantza eskuratu eta mendekotasun publikotik askatzea. Brasilgo kasuan ez da soilik estatuaren eragina sustapen politikan oinarritua izan, haratago oraindik, estatuak bere interes bultzatzaile nagusi izateko sortuko du kooperatibismoaren ordezkartza ofizialaren tutoretza hartuko duen OCB.

Aurrerago printzipioari egingo diogu erreferentzia beren-beregi eta puntu honetan arreta berezia jarritz aztertuko dugu OCB-ren lana eta jarriko dugu auzitan bere gaur egungo izaera ere.

Bosgarren printzipioa: hezkuntza, formazioa eta informazioa

Kooperatibak euren bazkideei, zuzendariei eta gerenteei hezkuntza eta formazioa eskaintzen die, kooperatibaren helburuen betetze eta garapenean lagundu dezaten. Kooperatibaren izaera eta onuren gaineko informazioa hel arazten diote iritzi liderrei eta gaztediari.

Kooperatibaren erantzukizunetako bat bazkideei formazioa eskaintzea da. Hauena izanik enpresaren etorkizunean eragiteko ardura behar adina baliabide izan beharko dituzte horretarako eta tresnetako bat formazioa da. Bazkideek kooperatibaren etorkizuna bideragarri

egiteko gaitasuna behar dute. Gurera ekarriz, SESCOOP (Brasilen formazio kooperatiborako laguntzak kudeatzeko dagoen tresna) ere auzitan jarri beharrean gaude. Kooperatiba guztien fondoez hornitzen den sistemak soilik OCB-ko kooperatiba bazkideei eskaintzen die formaziorako aukera (ikus. 217 orria. SESCOOP eta formazio kooperatiborako laguntzak).

Sistema publikoak ezin du maila honetako diskriminaziorik burutu. Kooperatiba sektorearentzako den laguntzak orokorra izan behar du eta ez afiliazio zehatz bat duten kooperatibei soilik bideratuta egon.

Seigarren printzipioa: kooperatiben arteko lankidetzatza

Egitura lokal, nazional, nazioarteko eta eskualdekoak sortuz kooperatibek euren bazkideei eta mugimendu kooperatiboari bere osotasunean era eraginkorragoan erantzuten diote.

Kooperatiben arteko elkar laguntza beharrezkoa da sareak sortuz kooperatibak elkarri laguntzeko. Taldean balore bereko egiturek elkarrekin lan eginaz errazago bihurtzen da proiektuak eraginkor egitea.

Hemen ere Brasilgo errealitatera joaz kooperatiben artean dagoen zatiketarekin egiten dugu topo. OCB-ri zegokion errealitate kooperatiboa osatzen zuten egitura kooperatiboen arteko elkarlana bultzatzea. Ez du horrelakorik egin. Ezin da bereizketarik egin eta ezin da, batzun eta besteen artean trataera desberdina bultzatu. OCB-k ordezkartza kooperatibo ofiziala bere esku izanik kooperatibak orokorrean berdintzatatu eta euren arteko elkarlana bilatzea behar luke izan bere arduretako bat.

Zazpigarren printzipioa: komunitatearekiko interesa

Euren bazkideek onartutako politiken bidez, kooperatibak, euren inguruaren garapen iraunkorraren alde lan egiten dute. Gertuko komunitatearen aurrean kezka izatea eta komunitatearen hobekuntzarako ekintzak bideratzea sartuko litzake printzipio honen barnean.

NAK-eko kide izateko aukera dute aliantzak, Identitate Kooperatiboaren inguruan duen Adierazpena errespetatuaz sortuak izan diren erakundeak eta egituraren helburuak betetzen dituztenak.

NAK-en sartzeko onarpena Administrazio Kontseiluari dagokio. Administrazio Kontseiluak eskaera bat atzera botatzen duenean, erakundeak berak Batzar Orokorraren aurrean errekurritu ahal izango du.

Hiru bazkidetza mota daude: Kide izatea: parte hartzeko botere edo ahalmen osoak dituen bazkidetza mota hau da mota nagusia. Asoziatua izatea: kooperatibak babesten dituzten egiturak edo kooperatiben jabetzakoak eta hauek kontrolatuak diren egiturak dira. Sektorekako: Egitura sektorialeko kide dira. Erakunde sektorialak NAK-eko filial edo adar dira eta beraz, kide guztiak sektoreko kide gisa NAK-era afiliatuta daude. Hautagai diren kide sektorialak NAK-en eskubide osoko kide izango dira.

Bai kideak eta bai kide asoziatuak euren edo euren kideen jarduera ekonomikoaren arabera harpidetza bat ordainduko dute. Kide asoziatuek eskala baten arabera ordainduko dute. Kide asoziatuek eta sektorialek NAK-eko egitura politiko erregionaletan eta globaletan ez dute boto eskubiderik.

NAK-ko kidetza amaitzen da:

- a) Administrazio Kontseiluaren erabakiz; bi urte jarraian harpidetza ordaindu ez denean.
- b) Borondatezko bajagatik; urte naturala baino urtebete lehenago jakinarazi beharko du erakundeak berak, eta arrazoia edozein delarik ere, urte osoko kuota ordaindu beharko da.

NAK-ak daukan garrantzia kontutan izanik, egiturak daukan mezu eta irizpideak zein diren ezagutzea beharrezkoa da. OCB NAK-ko kide izatera, egituraren mezuak betetzea ezinbestekoa da. OCB estatutik sortu den egitura izan da eta gaur oraindik hari estuak mantentzen ahalegin berezia egiten du. Administrazioaren eskuduntza eta funtzioak betetzen ditu honek talka egiten du zuzenean gaur inoiz baino garrantzi eta trascendentzia gehiago duten 'independentzia eta autonomia' printzipioekin. Goazen beraz, NAK printzipio honen inguruan izan duen garapena zein izan den ikustera.


8.3.2. Barne krisia eta printzipio berriak

NAK-k biziko dituen krisien artean lau taldetan sailkatu daitezkeen arazoak edo krisi uneak aipatuko ditugu: balore eta printzipioen arloan emandako krisia, barne funtzionamenduari dagokiona, eta azkenik, izaera administratiboa dutenak eta organo erabakitzaile eta politikoeekin erlazionatuta daudenak. Krisi finantzario bat ere gehitu beharko zaio. Erakundeak plan bat burutu beharko du aurrekontu oreka bideratzeko eta ondorioz, dituen baliabidetara egokitutako jarduerak diseinatu beharko ditu. Bestalde eta amaitzeko Bigarren Mundu Gerra ostean ezarritako sistema deszentralizatuak eta sektorializatuak ere garapen bat behar izango dute.

Aipatu berri dugun moduan Mugimendu Kooperatiboak krisi ideologiko bat biziko du eta honen eraginez Rochdale-ko aintzindarien printzipioak gaurkotu egin beharko dira¹⁸⁹. Printzipioak lehen aldiz erredaktatu zirenetik, eta kooperatiben egoera sozial eta ekonomikoak bizi izandako aldaketak kontutan izanik, erredakzioa berritu beharra egongo da. Hastapenetan, -kooperatibak egitura simple eta demokratikoak zirenean- printzipioak iraultzaileak zirela kontsideratzen zen. Printzipioei egingo zaizkien moldaketek ez dute jatorrizko printzipioekiko leialtasuna urratuko¹⁹⁰. Aldaketek printzipioen izpiritua errespetatzen jarraituko dute.

NAK-ren eskaeraz, ikerketa asko burutu dira egon diren aldaketa sozial eta ekonomikoan gainean eta hauek, kooperatiben funtzionamenduan izan duten eraginen gainean. Kooperatibak, ingurumari berrira egokitu behar izan dute egitura konplexuagoak sortuz. Egoera berri honetan kooperatibak arduratu behar izan dute lege, finantza eta merkataritza kontutuz eta printzipioen zaintza albo batera laga dela esan daiteke. Egoera berri honetan kokatzean, printzipioak kooperatiben garapen ekonomikorako eragozpen izan direla pentsatu dutenak ere badira. Hauen ustez, kooperatiben identitate ikur diren printzipioak, gehigarri huts besterik ez dira, hots, jarduera ekonomiko hutsaren osagarri.

NAK-ren ustez, beharrezkoa da garapen ekonomikoa, printzipio eta helburu kooperatiboekin uztartzea¹⁹¹. Ideia honek pisu gehiago hartzen du merkataritza enpresak ere balio sozialetan aurrera jotzen duten neurrian. Garai batean kapital enpresen eta kooperatiben arteko aldea oso nabarmena bazen ere, gaur hori aldatuz doala esan genezake. Kapital enpresek ikusi dute balore sozial eta kooperatiboak abantaila konpetitiborako irizpide edo oinarri sendoak direla.



¹⁸⁹ ENCISO, M. La regionalización de la alianza cooperativa Internacional. Análisis específico de la situación en Europa. 2000

¹⁹⁰ '(...) crearon cooperativas para que evolucionaran, es decir, para que crecieran y tuvieran un lugar en la sociedad, para que aumentaran su número de Miembros y para que diversificaran sus servicios'.

¹⁹¹ ENCISO, M. La regionalización de la alianza cooperativa Internacional. Análisis específico de la situación en Europa. 2000

Eta euren enpresa kudeaketan balio sozial hauek ezartzen hasi dira. Alter Egoa gure izaerara gerturatzen ari bada, beharrezkoa da ehun urte baino gehiago balore hauek zaintzen diharduen mugimenduak, termino ekonomiko hutsetan soilik ez oinarritzea bere enpresa praktika. Eta hori baino gehiago, balio eta erronka sozietaten aitzindari izan behar dute beste behin ere.

Kezka hau oinarri hartuta gidatuko du bere jarduna NAK-ak. Hamburgon aurkeztuko den Daneua txostenean, printzipio kooperatiboen berformulazioa lantzeko ardura izango duen bitariko batzorde bat sortzeko gomendioa luzatuko du. 1995ean amaituko den prozesu bati ematen zaio hasiera honela. Hurrengo Kongresuan (Estocolmo, 1988) lehendakariak, Lars Marcus-ek txosten bat aurkeztuko du, *Las Cooperativas y los valores básicos*¹⁹². Baloreei erreferentzia esplizitua egitea berrikuntza garrantzitsua izango da. Balioak dira kooperatibetan printzipioak jokabide zehatzetan gauzatzeko dauden irizpideak eta lehiakortasun baldintzetan jokatzeko oinarri erabilgarriak eskaintzen dituzte.

Hari honi jarraiki printzipioen berdefinizioarako oinarriak jarriko dira. Sven Ake Bök-en zuzendaritzapean egongo den batzorde bati, hurrengo kongresurako, txosten bat egiteko enkargua luzatuko zaio (Tokio, 1992), *Valores Cooperativos para un mundo en cambio*. Eta azkenik, ehungarren Kongresuak onartuko du *Declaración sobre identidad Cooperativa* eta bertan jasoko dira lehen aldiz kooperatibaren eta balore eta printzipio kooperatiboen definizioa¹⁹³. Definizioarekin batera bi balore talde aipatzen ditu¹⁹⁴. Lehen taldean daude kooperatibak ezaugarritzen dituzten baloreak: elkarlaguntza, erantzukizuna, demokrazia, berdintasuna, ekitatea eta elkartasuna. Eta bigarren taldean daude, eksklusiboki kooperatibenak ez izan arren hauenak ere badirenak: zintotasuna, gardentasuna, erantzukizun soziala eta besteekiko ardura. Zazpi dira printzipioak: atxekipen askea eta borondatezkoa; bazkideek burututako gestio demokratikoa; bazkideen partehartze ekonomikoa; autonomia eta



¹⁹² Lars Marcus. *Las cooperativas y los valores básicos*. 'crean un fuerte sentido de identidad y brindan los mejores fundamentos para el éxito en condiciones cada vez más competitivas'.

¹⁹³ Honela definitzen du kooperatiba: pertsonak euren borondatez behar ekonomiko, sozial eta kulturalak asetzeko jabetza komuna eta kudeaketa demokratikoa daukan egitura batean biltzen dituen asoziazio autonomoa da.

¹⁹⁴ ENCISO, M. *La regionalización de la alianza cooperativa Internacional. Análisis específico de la situación en Europa*. 2000


independetzia; hezkuntza, formazioa eta informazioa; kooperatiben arteko lankidetzeta eta komunitatearekiko interesa.

Guri interesatzen zaigun 'autonomia eta independentzia' azkena sartu zen printzipioa dugu¹⁹⁵. Printzipio honekin NAK-k nahi izan du herrialde desberdinetako egoerara egokitzea; zehazki garapen bidean dauden herrialdetara zeinetan kooperatiben jarduerak mehatxu gogor bat bizi duen¹⁹⁶. Printzipio hauen definizioarekin 'jokabide arauak' finkatzen dira kooperatibentzako; ez dira irizpide zurrunik, irekiak dira eta sektore bakoitzera egokitzen direnak. Printzipio hauen azpian edo atzean daude baloreak, printzipioak baino lehenagokoak dira eta guztientzako komunak.

NAK-k Manchesterren aurkeztutako Kooperatibak eta garapen iraunkorra dokumentuan egiten zaie erreferentzia printzipioei. Informeak dio kooperatibak antolakuntza ekonomiko diren neurrian laguntza jaso beharra daukatela. Laguntzak inbertsio izaera izan beharko du eta ez beka edo 'karitatezko donazio' izaera. Ondorioz, Aliantzak ez du onartzen trasferentzia ekonomiko huts moduan datorren dirua eta proiektu kooperatiboetara bideragarritasuna emoteko balio duten inbertsioak lehenesten ditu. Baina horretarako beharrezkoa da Nazioarteko Ordenu Ekonomiko berri bat sortzea.

Ordenu berri honek harreman ekonomiko justuagoak eta behartsuak kaltetuko ez dituen nazioarteko merkataritza bat bultzatuko du, eta irizpide izango du baliabideak guztien onuran erabiltzea.

8.3.3. Autonomia eta Independentzia printzipioak




¹⁹⁵ GOMEZ, L y MARTINEZ CHARTERINA, A. Origen y alcance del principio de autonomía e independencia de las Cooperativas, 1998.

¹⁹⁶ La Alianza Cooperativa Internacional su desarrollo como institución y en especial como instrumento transformador de la sociedad. Gomez, L, 1998.

1995ean egingo den Manchesterreko Kongresuan izandako berrikuntza nagusien artean kokatu behar da printzipio berriaren onarpena¹⁹⁷. 'Kooperatiben autonomia eta independentzia printzipio' berria izango da azkena onartuko den printzipioa¹⁹⁸.

Printzipioaren definizioa lehen aldiz Manchesterren azaltzen da baina, aspalditik datorren kezka da, - bai Nazioarteko Aliantza Kooperatiboan eta bai mugimendu kooperatiboan ere kooperatiben independentziarena edo beste era batean esanda, gobernuen eskuhartzea mugatzearen gaineko kezka. Kezka honen gaineko lehen adierazpenak, NAK-aren beraren neutraltasunaren gainekoak izango dira. Eta zehazki, garapen bidean dauden herrialdetako kooperatibetan gobernuaren partehartzea mugatzearen ingurukoak. Herrialde hauetan kooperatiben eta gobernuaren arteko harremanak bereziki estuak izan ohi dira.

Rochdaleko Aintzindarien estatutotan esplizituki azaldu ez arren, 1850ean emango den estatutuen berriztean azalduko dira¹⁹⁹. Aldaketa hauetan jasotzen da batzarretan kideak libreki hitz egiteko daukaten eskubidea eta bereziki, langileriaren artean gatazka Laugarren printzipioaren oinarria Mugimendu Kooperatiboaren sorreran bertan aurkitzen dugu. Gatazka



¹⁹⁷ Origen y alcance del principio de autonomía e independencia de las Cooperativas. Gomez L y Martinez Charterina, A, 1998

¹⁹⁸ 'Kooperatibak, bazkideek kudeatutako, elkarlaguntzarako antolamendu autonomoak dira. Beste erakunde batzuekin, (gobernuak barne) hitzarmenak sinatzen badituzte edo kanpo finantziarioa lortzen dutenean, beharrezkoa da bazkideen kontrol demokratikoa eta kooperatibaren autonomia bermatzea'.

- ¹⁹⁹ Libre adhesión y libre retiro
- Control democrático
- Neutralidad política, radical y religiosa
- Ventas al contado
- Devolución de excedentes
- Interés limitado sobre el capital
- Educación continua


sortu zezaketen gaietan neutral mantentzearen garrantzia hain zuzen ere. Neutraltasuna gaiari dagokionean mugatua da, eta helburu du, kideen artean sortu daitezkeen gatazkak ekiditea.

Planteamendu hau berau azaltzen da NAK-aren sorreran; mundu osoko kooperatibak bildu eta ordezkatzeko helburua oinarri izanik, bere neutraltasun politiko eta erlijiosoa aldarrikatzen dituenen. Aspektu hau Londreseko Kongresuan NAK-aren lehen estatutotan ere azalduko da²⁰⁰.

Artikulu horren mezuak gaur arte iraungo du. Nahiz eta NAK-aren batzorde zentralaren eskaeraz 7. artikulok aldaketa txiki bat jasan zuen: 'neutraltasuna' hitza ordezkatzeko da 'independentzia' hitzagatik. Aldaketa formal hutsa izango da eta edukia berdin mantenduko da²⁰¹.

Aliantzako oinarrietan neutraltasuna beti azaldu izan den arren, hitzaren zentzua eta edukiaren gainean sortzen dira ezadostasunak kideen artean. Honela, Basileako Kongresuaren ondoren NAK-aren politikan kontzeptu berriak sartzen dira eta neutraltasun printzipioa gatazkak sortzen hasten da. Batzorde Zentralak landutako Memorandum batean esaten zenez, neutraltasuna ez da interbentziorik eza. NAK-a politika eta erlijio kontuez arduratzen ez den arren, jarrera zehatza hartuko du bere kideen kontrako eraso ororen kontra, beti ere kooperatibismoaren defentsa eta bakearen izenean baldin bada, hauek baitira mugimenduaren helburuak.

Neutraltasun politika ez da batere erraza izan ulertzen. Batzuk, NAK-ren jarrera neutrala edo pasiboa ez dute ulertu eta ahalegina egin dute NAK-k posizio bat ala beste har zezan. Erakundearen hastapenetan, esate baterako, saiakerak izan ziren Kooperatibismoa



²⁰⁰ 'Aliantza ez da ez erlijioaz eta ez politikaz arduratzen. Iritzi eta sinezmen desberdineko pertsonak bildu eta elkarrekin jardun dezaketen esparru neutrala de Lankidetzeta. Mugimendu Kooperatiboak beharrezkoa duen neutraltasuna mantentzeko, Aliantzako kide den pertsona edo elkarte oro bere kabuz jarduteko gai izan beharko da eta ezin izango da inolako alderdiren tresna izan'.

²⁰¹ 'La ACI no se afiliará a ninguna organización política o religiosa y deberá mantener esta independencia en todas sus actividades'.


Sozialismoarekin lotzeko. Hala ere, ihes egingo dio egoerari berehala. Ihesbide honen ondorioz, Errusiarrek programa iraultzaileagoak ez izatea leporatuko diote NAK.

NAK mugimendu kooperatiboarentzako protagonismoa erreibindikatzeko du eta honekin batera, ideia politiko baten menpe egotearen kontra azaltzen da²⁰². Erakundeak uste du bere jokabideak ideologia guztiekin bateragarri izan beharra daukala eta korrante eta gobernu guztien onespena izatea dagokiola. Hori baita bidea, behin politika orokarraren definizioan berak ere zeresana izatea lortzeko. Demokrazia eta askatasunaren defentsa egingo du baina beti, jarrera independente bat mantenduz. Ildo beretik jarraituz, Vienako Kongresuan 1996an, erabakitzen da politika eta erlijio gaietan ez sartzea, honek esparru ekonomiko eta hezkuntzazkoari ekar diezaiokeen kaltea dela eta.

Watkins-ek, - helburuak lortzeko adinako proposamenak egiteko zailtasuna bizi izan zuenak-erakundearen independentzia azpimarratzen du²⁰³. Nahiz eta kritika asko jaso dituen esan daiteke NAK gaur egunera arte ailegatu dela ideia politiko eta erlijioso guztiekiko independentzia mantendu duelako, eta honek bere eragina izan du munduko pakeari egin beharreko ekarpenean. Eta ondorioz erakundearen beraren biziraupenean ere izan du eragina.

NAK berak bere kabuz ekintza zehatzak bideratzeko aukerarik ez duen arren, bere afiliatuen bidez lortzen du jokaera kooperatiboak bideratzea. Injustiziaren aurrean jarrera aktiboa hartzera; euren gobernuari presio egitera eta ekintza zehatzak burutzera animatzen ditu kideak. Honek galdera bat planteatzen du: ea zein neurritan dauden kideak eurak behartuta posizio neutral bat hartzera edo ez.

Estocolmoko Kongresuan, 1927an, adierazitakoaren arabera, NAK-ren neutraltasunak ez du inolako mugarik sortarazaten bere kideengan, beti ere jarduera euren lurraldean burutzen dutenean.



²⁰² Origen y alcance del principio de autonomía e independencia de las Cooperativas. Gomez L y Martinez Charterina, A , 1998

²⁰³ WATKINS, W.P., < Reflections on the History of the ICA' >, Review of International Co-operation, 48, 1975, 165-172.


NAK-ak bere kideei aitortzen dien independentzia eta errespetua, printzipio kooperatiboen mugen barnean kokatzen dira. Eta nahiz eta kideekiko errespetua mantendu, Aliantzak euren gobernuekiko independentzia mantendu dezaten eskatzen die. Kooperatiben neutraltasuna eta kokatuta dauden Estatuakiko independentzia azaltzen dira hemen eta gaur indarrean dagoen laugarren printzipiora gerturatzen gara.

Ildo honetan doaz Pragako Kongresuan lehendakaria zen Lord Rusholmanen adierazpenak ere²⁰⁴. Kooperatibak eta hauen erakunde ekonomikoak Estatuarekin menpekotasuna izateak asko mugatzen du hauen militante izaera.

Eskakizun hau NAK kooperatibaren definizio eta onarpenerako baldintzetan sartzen da. Aliantzaren izaera unibertsalak munduko kooperatiba guztiengana zabaltzeko helburua ezartzen du baina, helburua lortzera bidean kanpo lagatzen dituzte Estatu eta gobernu baten interes ekonomiko eta politiko zehatzen zerbitzura dauden kooperatibak. Gurera etorri OCB-ren sorrera kokatu dugunean oso argi geratu da zein une historikotan eta zein helbururekin sortzen den. Nola da posible beraz NAK-aren parte izatea?

Arazo hau areagotu egingo da Errusiar Iraultzaren ondoren, autoritate sobietarrak, kooperatibak, alderdi boltxebikearen tresna bihurtzen dituenean. Aliantzak kooperatiben erabileraren kontra jarrera tinkoa erakutsiko du eta errusiar mugimendu kooperatiboko kide izatea soilik onartuko die kooperatibismo demokratiko eta aske baten aldeko mandatua hartzen dutenei. Jarrera neutral honek, eragingo du, eskuin zein ezkerrekoak diren erregimen totalitariotako kooperatiben kanporatzea.

Auzi honekiko NAK-aren jokaera erratikoa izan dela esan genezake. Kooperatiba sobietarrei kide izaten lagatzen zien bitartean, Europa Ekialdeko beste herrialde batzuetako kooperatibei galerazi egiten zien kideztza. Erakundearenganako kritikak areagotu egingo dira, Hirugarren Munduko Herrialdeetako kooperatibei sarbidea onartzen zaienean. Uste dute, herrialde hauetako kooperatibek euren gobernuekiko daukaten menpekotasun harremanak eragotzi beharko




²⁰⁴ 'La completa sujeción de los cooperativistas y sus instituciones económicas al Estado, les despoja de su potencial estatus como militantes en la causa de la paz mundial'.

lukeela afiliazioa²⁰⁵. Batzuen aburuz, egoera hauetan dauden kooperatibek gobernuagandik jasotzen duten babesa oso oinarritzkoa da eta errespetatu beharrekoa²⁰⁶. Jarrera hau defendatzen dutenen ustez, egoera hauetan dauden kooperatibei, Aliantzako kide izaten lagatzeak, elkartasun kooperatiboan aurkitzen du bere oinarria. Herrialde sozialistetako errealitatea beste bat: kooperatibak propaganda sozialistarako tresna bihurtzen dira han. Bereizten da beraz, garapen bidean dauden herrialdetako kooperatibei eskaintzen zaien babesa, oso oinarritzkoa dena. Eta bestetik, herrialde sozialistetan egiten den kooperatiben erabilera propagandistikoa.

Aurreko postura defendatzen duen autoreak, Davidovic-ek, mantentzen du NAK-aren bazkidetza politikak arrakasta handia izan duela, egoera desberdinetara egokitzeko gai izan delako eta aldi berean, printzipio kooperatiboekiko irmo mantendu delako. Zentzu berean Watkins-ek dio politika honen ezarpenarekin ezin dela esan Aliantzak diskriminatu egiten duenik²⁰⁷. Jarrera honekin bermatzen duena da kooperatibak printzipio kooperatiboak betetzea. Hala ere, esan beharra dago, historian zehar, neutraltasunak, denbora gutxi daramala, printzipioen artean kokatuta.

1937ko Parisko Kongresuak neutraltasunari printzipio izaera esleitu zion, baina beti ere bigarren maila emanez, 'gomendio' izaera eta beraz, oinarritzko eta betebeharrezko printzipioek duten indarririk gabe. Vienan 1966an egingo den printzipioen errebisioan berriz, erabakitzen da askatasun eta independentzia ideiak aldarrikatu beharra dagoela eta kooperatibei alternatiba bat eskainiko zaie: seigarren printzipioan jasota azaltzen den lankidetzak. Hala ere, erabakitzen da neutraltasunari ezin zaiola eman printzipio izaera eta formulazio horretatik kanpo geratzen da.



²⁰⁵ Origen y alcance del principio de autonomía e independencia de las Cooperativas. Gomez L y Martinez Charterina, A,1998

²⁰⁶ Davidovic, G. Hacia un mundo cooperativo, Zaragoza, Centro Nacional de Educación Cooperativa, pp. 62-63.

²⁰⁷ WATKINS, W.P., < Reflections on the History of the ICA' >, Review of International Co-operation, 48, 1975, 165-172.

1990ean Lehendakari zen Lars Marcus-en adierazpenei helduz, nahiz eta printzipio izaera izan ez, independentziaren ideiar beti eman dio lehentasuna Aliantzak²⁰⁸. Beti azpimarratu izan du, kooperatibak, ezin dutela izan inolako partidu politikoen beso ekonomiko izan.


8.3.4. Kooperatiben independentzia garapen bidean dauden herrialdetan

Garapen bidean dauden herrialdetako kooperatibek euren gobernuekin mantendu beharreko independentziaren gaia delikatua da. Herrialde hauetan kooperatiben biziraupena bermatzeko ia ezinbestekoa da gobernuen eskuhartzea. Aliantzaren kezka eta ikerketa iturri izan da gaia eta ahalegindu da definitzen eskuhartze hau zein baldintza eta mugekin burutu behar den.

Aliantzak, garapen kooperatiborako duen planteamenduan, kooperatibetan gobernuen eskuhartzea oinarriko gaietako bat bihurtuko da. Sustapen ekonomikoko jardueren baitan, – zehazki, hirugarren munduan- eragin handiko faktorea delako, sakon aztertu du Aliantzak. Klabea oreka da. Estatuetik independentzia beharrezkoa da baina, babesaren garrantzia gutxieztu gabe.

Garapenerako sustapen jardueretan kooperatibak paper garrantzizkoa duten arren, beti izan du garbi Aliantzak, dena ezin dela kooperatiben bidez egin. Badaude proiektu asko eta asko, bideak, azpiegiturak... beharrezko dutenak gobernuaren interbentzioa. Horregaitik erabakitzen da Lausanako Kongresuan, gobernuei dagokiela kooperatibismoaren aldeko giroa sortzea: finantza laguntza eskaini, informazioa, jardueren koordinazioa... laburtuz, kooperatibek martxan jartzeko beharrezko dituzten ekintzetan laguntza eskaintzea.

Garapen bidean dauden herrialdetan gobernuek hainbat zeregin garrantzitsu dituzte: hauetako bat, kooperatiben errejimen juridikoa jasotzen duen legediaz arduratzea da. Hainbat herrialdetan Lankidetzarako onartua den legezko aukera bakarra, gobernuaren kontrolpean erregistratutako kooperatiben bitartez bideratzen dena da. Gaiaren garrantziak eraginda Aliantzak Hanburgoko Kongresuari eskaera luzatuko dio. Garapen bidean dauden herrialdetako



²⁰⁸ Lars Marcus. 1990. 'Las cooperativas no deben ser el brazo económico de ningún partido, no deben integrar la maquinaria estatal'.

kooperatiba legediak aztertu eta hauen hobekuntzarako lege proposamenak egiteko eskaera luzatuko dio.

Gobernuen inplikazioa garapen koooperatiboan behar baino handiagoa izan ohi da hainbat kasutan. Eta askoren ustez, inplikazio hau izan da garapen normala eragotzi izan duena. Orokorrean gobernu askoren tentazioa mugimendu kooperatiboa instrumentalizatzea izan den arren badaude, esperientzia positiboak ere. Egon dira gobernuaren laguntzaz garapen harmonikoa lortu duten kooperatiben kasuak ere. Indian mugimendu kooperatiboa gobernuaren laguntzaz garatu da eta gerora emaitza onak lortu dira.

Lorpenaren klabeak bi izan dira: batetik, gobernu eskuhartzeari eman zaion enfokea eta bestetik, mugimenduari laga zaion autonomia margena. Nerhuren esanetan, proiektua zen India erreformatzea Lankidetzaren bidez, baina garbi izanik, gobernuaren kontrola oso kaltegarria izan zitekeela²⁰⁹.

Aliantza, izandako esperientzien ondorioz, hasi da definitzen eta mugatzen gobernuen interbentzioa. Honela batzutan oso balorazio positiboa egin izan du Estatuak mugimendu kooperatiboari eskaini dioten babesaren gainean²¹⁰. Baina aurrerago eskuhartzeari mugak jarzeari ekingo zaio. Aliantzako 27. Kongresuan Laidlaw-k aurkeztutako txostenean azaltzen denaren arabera, mugimendu kooperatiboak gobernuarekin izan beharreko harremanak dira aurre egin beharreko arazo nagusienetakoak, eta hau nahiko frogatuta geratu da garapen bidean dauden hainbat estatutan.

Esandakotik ondorioztatu izan dira hainbat neurri: babesa, kooperatiben hastapeneko laguntzetara mugatu dadila eta politikarien ekintzak berriz, mugimenduan postuak betetzeko debekuak ezartzera. NAK-k eginiko kontsulta batek, Asian sustapen eta garapen kooperatiboan gobernuak burututako jardunaren gainean hainbat elementu positibo mahai gaineratu ziren: indarra haunditu dutela, enplegua sortu, nekazal aurrezkoa sustatu dutela, prezio hobeak lortu



²⁰⁹ Rana, J.M., *Forms of Government and Co-operative Democracy in South-East Asia*, New Delhi, ICA ROEC, 1973, p. 26. Gunawarda, H.P. L., *ICA in South-East Asia – The First Decade*, New Delhi, ICA ROEC 1971, foreword. Sobre el apoyo prestado también por otros gobiernos a los movimientos cooperativos, COPAC, *Co-operative Information Note Republic of Korea*, Rome, COPAC, 1984.

²¹⁰ Hanburgoko 1969ko Kongresuan.


dituztela eta laburtuz, garapen ekonomikoa lortu dutela. Kontrako efektua ere izan du interbentzioak: izaera demokratikoa galdu araztea adibidez. Azken honek basearen motibazio eta interes falta sortarazi du, gobernuak egitura kontrolatu duelako. Eskuhartzearen ondorio izan da kooperatibak tamainaz handitu izana baina, izpiritua pobretzea. Hori da kooperatibak Estatuarekiko harremanean bilatu beharreko orekaren kabea.

Garbi izan dute Aliantzako liderrek, ezinbesteko baldintza dela Mugimendu Kooperatiboaren garapenerako, hauek euren gobernuekiko autonomia mantentzea²¹¹. Beti garbi izanik, beharrezkoa dela gobernuen babesa izatea. Bai Saxenak eta bai Thordarsonek beharrezkotzak jotzen dute gobernuaren eragina Kooperatibismoarentzako legedi eta baldintza egokiak lortu ahal izateko. Eta harmonia bilatu beharra gobernu interbentzio eta antolaketa kooperatiboaren autonomiaren artean. Babesa bai baina, kooperatiben kontrol eta independentzia galdu arazten duten gehiegizko interbentzioa ekidinez.

1992ko Tokyoko Kongresura arte gai gatazkatsua izango da helburu biak uztartzearen kontua. Müknerrek dio zaila dela elkarlaguntza bultzatzea kooperatiben oinarrizko izaera ukitu gabe. Honen ondorioz, Identitate Kooperatiboari buruzko Adierazpenean gai zentrala izango da. Deklarazio aurreko lanetan, beharrezko ikusten da, kooperatiben eskariz, autonomia printzipio eta baloreen artean kokatzea. Suven Ake Bök izango dela pausu bat aurrerago joatea proposatuko duena. Autorearen ustez ez da nahikoa izango dagoeneko existitzen zen printzipio batera murriztea eta printzipio kooperatibo bereizi bat jasotzea proposatuko du.

Independentzia aldarria kooperatiba afrikarren eta asiarren eskaera den arren, laugarren printzipio horren atzean badira baita europar esparruko hainbat esperientzien eskaerak ere. Lehiakortasuna gero eta bortitzagoa den garaietan, gainerako enpresekin parekotasunean lehiatu ahal izateko eta kapitala eskuratzeko zailtasunen aurrean, kooperatibak egiten dituzten aliantzetan independentzia eta identitate kooperatiboa mantentzea ere jasoko luke printzipioak.

Era honetan Ake Bök-ek autonomiari lotutako honako ideiak adierazten ditu²¹²:



²¹¹ Aliantzako zuzendariaren, Bruce Thodarsonen, Estocolmoko Kongresuan eginiko adierazpenak.

²¹² ALIANZA COOPERATIVA INTERNACIONAL, Declaración de la Alianza Cooperativa Internacional sobre Identidad Cooperativa, Vitoria, CSCE, 1995.

- Estatu, Gobernu eta autoritateekin izan beharreko harremanetan independentzia mantendu beharra.
- Independentzia zaintzea kapitala sortzerako orduan.
- Gainerako erakunde politiko eta ekonomikoekin izan beharreko harremanetan ere independentzia zaindu beharra.

Hauek lirateke autonomiak bere gain hartu nahi dituen esparruak. Adierazpeneko zirriborroak hitz egiten du independentzia 'sozial, politiko eta ekonomikoari' buruz.

Formulazio honekin lortu nahi da kooperatibak izan daitezela bestelako enpresak diren moduan, egitura autonomoak. Batetik, garrantzia aitortzen zaie gobernuari, euren politika fiskal eta sozialak aurrera eramaterako orduan duten eraginagatik eta beraz, hauekin harreman argiak eta irekiak izatea gomendatzen da. Bestetik eta ikusiz sektore pribatuko enpresekin lankidetzan aritzeko joera haziz doala, gomendioa luzatzen zaie, euren askatasuna eta etorkizuneko iparraren kontrola ez galtzeko.

Laugarren printzipioarekin batera azpimarratu beharra dago Adierazpenak definizioan jasotzen duela independentzia terminoa²¹³. 1995ean ez dira soilik printzipioak adierazten, horrekin batera baloreak lotzen ditu printzipioekin²¹⁴.

Balore eta printzipioen erlazioak, laugarren printzipioa lotzen du, bazkideek kooperatiba independente eta autonomo mantentzeko duten erantzukizunarekin.

Amaitzeko esan autonomia printzipioak erronka handia suposatzen duela batez ere, gobernuetik lotura estua izan duten hainbat kooperatibentzako. Honek gobernuarekin eta bestelako egiturekin dituzten harremanak berplanteatzera daramatza. Kooperatiben integrazioa litzake multinazional handiekin izan beharreko lehiakortasunean erabili beharreko tresna baligarrietakoa; baita independentzia gordetze bidean ere.

²¹³ 'una cooperativas es una organización autónoma de personas...', eta gehitzen du 'tan independiente de los gobiernos y empresas como le sea posible'.

²¹⁴ pautas mediante las cuales las cooperativas ponen en práctica los valores'.

NAK-aren jarrera ikusi ahal izan dugun moduan kooperatiben autonomia eta independentzia zaintzearen aldekoa izan da. Indartuz joan den irizpidea izan da eta gaur ere gaurkotasan osoa daukan eskakizun bat da.

Maurok Brasilgo errealitateari lotuta kooperatiben autonomia eta autokontrola ukitzen ditu²¹⁵. Autorea kritikoa da autonomia eta independentzia eskaerekin. Bere ustez, autonomia eskaeraren atzean, interbentzio boterearen, zaintzaren eta kontrol funtzioa mugatzeko eskaera daude. Bere ustez, kontrol eta zaintza funtzioen artean kokatzen dira gainerako sozietateengan egikaritzen diren funtzioak: eraketarako gutxieneko baldintzen betetzea, lan araudiaren gutxieneko baldintzen betetzea, zerga betebeharrak...

Kooperatibek autonomia izan arren, ezin da bazterreratu estatuarekiko dauden hainbat betebeharrak. Kooperatibak bazkideen arazo ekonomikoak konpontzen laguntzeaz gain, eragin sozial handia daukate. Ondorioz, kokatuta dauden komunitate edo eskualdean eragin handia dute; Brasilen nekazal kooperatibek elikagaien ekoizpeneko %60an eragiten dute. Kooperatiba baten desegiteak ekonomia lokalean izan dezakeen eragina handia da.

Autonomia onartu beharra dagoen arren, kooperatibak ezin dute ihesik egin komunitatean duten eraginetik. Beharrezkoa da, ondorioz, Estatuko kultura juridikoa eta Zuzenbide positiboaren baitan kooperatiben bideragarritasuna eta kudeaketaren gardentasuna bermatzea, honela bai bazkideek eta bai kooperatibarekin jarduten duten hirugarrenen segurtasuna bermatuz.



²¹⁵ MAURO, M. O controle interno em cooperativas. OCEPAR. 1992. O movimento cooperativista, como se encontra reconhecido no Direito Positivo, caracteriza-se por sua natureza 'sui generis', diferenciando-se fundamentalmente das demais formas societárias por atribuir o poder decisório ao homem, e não ao capital, praticando, em seu seio, a democracia em toda a sua plenitude.


Esta característica, que nos parece tao material, e que talvez seja a própria origem do Cooperativismo, permitiu que houvesse a receptividade e ampla expansão nos mais diversos pontos do planeta. Os objetivos igualitários, aplicados em consonância com os demais princípios, demonstraram que os ideais cooperativistas eram, e como o são, um poderoso instrumento de desenvolvimento econômico e social, principalmente para aqueles menos favorecidos.

Nire ustez, Mauroren esanak, OCB-ren orain arteko ahalmenaren justifikazioaren jarraipena lortzera datoz²¹⁶. Zein da bideragarritasun eta gardentasuna bermatzeko eskuduntza daukan egitura? Badirudi, Estatua eta kooperatiben arteko harremanean OCB-ren premia justifikatzeko euskarria bilatzen duela. Kooperatiba mugimenduaren ordezkaria izango dena Estatuarekiko harremanean, lankidetzan zein interlokuzioan.

Brasilgo kasuan, urriaren 5ean, onartuko den 1988ko Konstituzioak, aldarrikatuko du mugimendu kooperatiboaren autonomia. Honekin batera, estatuaren eskuhartzea espreski debekatuko du, bai eta, kooperatibaren funtzionamendurako alde zuzeneko autorizazioa eskatzearen beharra kendu ere. Legeak gainerako sozietate izaerekin egiten duen bezalaxe, eraketarako baldintzak zein diren zehaztuko du. Honek dakar mugimendu kooperatiboak bere autokontrola nola gauzatu duen erabaki eta definitzea. Brasilek daukan lurralde hedadura eta eskualde bakoitzeko ezaugarriek ez dute errazten mugimendu kooperatiboak autokontrolaren gainean egin beharreko hausnarketan beharrezkoa den kontsentsua gauzatea. Hain zuzen ere, hausnarketa honetan kokatzen da gaur auzitan dagoen gai nagusia: mugimenduaren ordezkartza zein egituren esku lagatzen den.

Konstituzio Federalera itzuliz esan lehen aldia dela Brasilen Konstituzioak kooperatibismoa arautzen duena²¹⁷. Zazpi dira kooperatibismoari Konstituzioan egiten zaizkion erreferentziak. OCB-ko Periusen esanetan testu konstituzionalik onenetarikoa dugu hau, Portugalekoa ere hobetuz.

Kooperatiben autonomia eta Estatuaren eskuhartze debekua aldarrikatzen duen 5. artikulua garrantzia azpimarratzen dute OCB-tik esanez, Brasilgo kooperatibismoa Estatuaren tutelapean egon izan dela luzaroan eta oraindik ere pisu handia daukala. Estatuaren pisua eragozpen handi bat izan da kooperatibek euren autonomia politikoa, administratiboa eta finantzarioa lortzerako orduan. Kooperatiben gainean eskuduntza duten Estatuoko egiturek eragin handiegia izan dute kooperatiben eraketan, administrazioan eta desegitean.



²¹⁶ MAURO, M. O controle interno em cooperativas. OCEPAR.1992

²¹⁷ PERIUS, V. O cooperativismo na constituinte. Organização das Cooperativas Brasileiras.

Kooperatibaren izaera pribatuak dakar Estatuaren zuzendaritzatik askatua izatea, bazkideak eurak dira kooperatibaren martxa eraman behar dutenak. Estatuak jarrera paternalista hartzeak bazkideen pasibotasuna eragiten du. Bazkideak fiskalizazio ofizialean lagatzen dute ardura kooperatiba eurena ez balitz moduan. Kooperatibismoa gehien desitsuratzen duena bazkideek kooperatiban erantzukizunez ez partehartzea da.

OCB-ren aburuz, Konstituzioak kooperatiben autonomia aldarrikatzen duen unetik aurrera, mugimendu kooperatiboaren lana hasten da; bere buruaren kudeaketa eta autokontrola aurrera eramaten asmatu beharra daukalako. Konstituzioaren onarpenetik beraz kooperatibismo berriak baditu, -segurtasun konstituzionala eta gobernuaren eskuhartzetik askatuz-, autonomia. Erronka une horretatik aurrera finkatzen dira: autokontrol prozesu baten finkatzean; autogestioaren hobekuntzan; autonomia politikoaren eta kooperatiben eta hauen ordezkarien independentziaren lorpena.

8.4. OCB

OCB da gaur oraindik Brasilgo kooperatibismoaren ordezkaria 'ofiziala' daraman egitura bakarra. Izaera juridikoari dagokionez, Sozietate Zibila da eta bere sorrera arrazoitu zuten elementuak indarrean jarraitzen dute oraindik ere, nahiz eta, egoera politiko eta soziala eta marko juridikoa bera ere aldatu diren. Bere izaera, eskuduntza eta funtzioak mantentzen ditu, ingurua eta legediak aldatu diren arren.

Mugimendu kooperatibo berri baten presentziak batetik eta 1988ko Konstituzio Federalak ezarritako marko juridiko berriak bestetik, gaur egungo egoeran aldaketak eragitea dakar. Konstituzioan jasotako Elkarte askatasunak, ordezkaria bakarrarekin amaitzea izan behar luke ondorio.

8.4.1. Kokapen organikoa


OCB sozietate zibila da. Izaera pribatua dauka eta hau honela izanik, ez dago egitura publikoan kokatuta. Izaera publikoko funtzioak betetzen dituen arren ez dago egitura administratiboan kokatuta. Gurera etorri, eta aurrerago ikusiko dugunez, batetik, Eusko Jaurjaritzan kokatzen den Euskadiko Kooperatiben Erregistroa daukagu kooperatiben gainean eskuduntzak dituen eta bestetik Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua eta Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa. Lehena administrazio publikoko parte da eta kooperatiben legezketasuna zaintzea dagokio, horretarako Administrazio Publiko baten prerrogatiba eta pribilegioak ditu. Kontseiluaren izaera berezia den arren badu osagai publiko bat eta besteak beste, kooperatibismoaren arloan erakunde publikoen aholku eta kontsulta organoa da. Eta azkenik, konfederazioa, kooperatibek sortua izanik, kooperatiben ordezkaria eramatea dagokio.

Brasilen, esan bezala, neurri batean OCB da bere baitan funtzio hauek guztiak bere gain hartzen dituen egitura pribatua.

Lehenengo artikuluan esaten da OCB izango dela sistema kooperatiboaren ordezkari, erregistro eta kontrol organo gorena²¹⁸.

Izaera pribatua duen egitura honek darama Brasilgo kooperatibismoaren ordezkari bakarra artikuluan hitzei erreparatuz. Sistema kooperatibo brasildarra ordezkari OCB-ri dagokio beraz. Indarrean dagoen legediaren arabera sistema kooperatiboaren ordezkari, kontrol, erregistro eta katastroa eramatea da bere ardura artikuluan arabera. Egoera hau gurearekin alderatzen baldin badugu, argi ikus daiteke ordezkari ezin duela eraman sistema bere osotasunean ordezkari ez duen egitura batek. Gurean federazioak dira ardura hau daramatenak baina ez izaera juridiko pribatua duen egitura batek. Modu berean kooperatiben katastroa eta erregistroa eramatea erregistro ofizialaren ardura da.

Bigarren paragrafoan ere OCB azaltzen da sistema kooperatiboaren ordezkari ofizial moduan. Estatututako artikulua hauek zuzenean egiten dute tala Konstituzio Federalarekin. OCB-ko estatuetaz gain Lei 5.764/71ko 105 eta 107 artikulua ere ildo beretik jarraitzen dute²¹⁹.



²¹⁸ Hona OCB-ko estutu sozialetako 1 artikulua dioena:

Art. 1. A Organização das Cooperativas Brasileiras- OCB, sociedade civil, de natureza privada, sem fins lucrativos, de duração indeterminada, com sede e foro na Capital Federal, tendo o seu exercício social coincidente com o ano civil, é o órgão máximo de representação, controle, registro e cadastramento do Sistema Cooperativo Brasileiro, nos termos da legislação vigente.

Parágrafo Único- O Sistema Cooperativo Brasileiro, representado pela ORGANIZAÇÃO DAS COOPERATIVAS BRASILEIRAS, é constituído por uma Organização das Cooperativas em cada Estado e Distrito Federal- OCE e pelas Sociedades Cooperativas.

²¹⁹ Art. 105. A representação do sistema cooperativista nacional cabe é Organização das Cooperativistas Brasileiras- OCB- sociedade civil, com sede na Capital Federal, órgão técnico-consultivo do governo, estruturada nos termos desta lei, sem finalidade lucrativa, competindo-lhe principalmente.

Legeko artikulua hauen arabera beraz, ordezkaritza eta erregistro funtzioak dagozkie OCBri. Brasilgo Konstituzioa oinarri hartuta berriz, ordezkaritza eta kooperatiben elkartzea egitura bakarrari esleitzeak talka egiten du aipatu berri dugun estatutuen letrarekin. Lei 5.764/71ko testuak Konstituzio Federaletako, 5 artikuluko XVII eta XX atalek diotenari kontra egiten diote²²⁰.

Kooperatiba legearen eta OCB-ren estatutu sozialen artean uztarketa dago, biak datoz mezu bera ematera. Baina, 1988an onartu zen Konstituzio Federalak kontraesana mahai gainean jartzen du. Kooperatibak sortzeko baimen beharrik eza eta estatuaren esku hartzea debekatzeak dakar egitura pribatu baten esku ahalmen hau ezin delegatu ahal izatea.

Horretaz gain, kooperatibak ezin dira derrigortu elkarte batean bazkide egitera edo elkarte batean bazkidegintza mantentzera. Talka beraz nabarmena da. Kontraesan nabarmen honen harira esan OCB-k berak kooperatiben eraketarako ateratako gida batean, jarraitu beharreko pausuen artean, OCES-en erregistroa egiteko derrigortasuna finkatzen duela²²¹. Inolako elkartetan bazkide izateko obligaziorik ez dagoela esaten bada OCE-n erregistroa eskatzeak oinarririk ez duela gauza nabarmena da²²².

Une honetan, Brasilen, badira kooperatiba berriak sortzen dituzten elkarte desberdinak. Atomizatuta dagoen errealitate bat den arren, kooperatibismo berria sortzen eta indartzen ari dela esan genezake. ANTEAG, UNISOL, UNICAFES, CONCRAB, ... dira sortu diren elkarte

Art. 107. As cooperativas são obrigadas, para seu funcionamento, a registrar-se na Organização das Cooperativas Brasileiras ou na entidade estadual, se houver, mediante apresentação dos estatutos sociais e suas alterações posteriores.

²²⁰ XVIII.- a criação de associações e, na forma de lei, a de cooperativas independem de autorização, sendo vedada a interferência estatal em seu funcionamento.

XX- Ninguém poderá ser compelido a associar-se ou a permanecer associado.

²²¹ Orientação para constituição de cooperativas. Brasília, OCB, 1991. (...) 7. Registro na OCE. Toda cooperativa deve registrar-se na OCE de seu Estado a fim de atender ao disposto no artigo 107, da Lei nº. 5.764, integrando-se ao Cooperativismo Estadual e com isto fortalecendo o processo de autogestão do sistema.

No anexo nº 11 apresentamos um 'Modelo' de requerimento e documentação necessária para o registro junto à OCE'.

²²² OCB hasi da bere diskurtsoan bereizten afiliazioa eta erregistroa. Afiliazioa litzake kooperatiba bakoitzak askatasun osoz nahi duen elkarteko bazkide egiteko aukera. Eta aldiz, erregistroa da kooperatibek pertsonalitate juridikoa lortzeko beharrezko duten tramitea. Erregistroaren bidez egiaztatuta daiteke soilik kooperatibaren identitatea.

berrietako batzuk. Nahiz eta errealitate berri honek elementu komun batzuk badituen, ez dira gai izan, oraindik, dituzten desberdintasunak gainditu eta egitura bakar eta sendo bat sortzeko. Ahulezia bat ageri da zentzu horretan. OCB-k bere jatorritik datorren eta historian zehar pilatu duen boterea neutralizatzeko ez du parean kooperatibismo berria batzen duen egitura bakar bat.

Konstituzioari helduz aldiz, elkartze askatasunak OCB-ko estatutuen eta Kooperatiba Legediaren konstituzio kontrakotasuna agerian usten dute. Hala ere, OCB-ren estatu sozialak eta baita Kooperatiba Legea indarrean egonik, trantsizio fase batean gaudela esan genezake. Ziklo honen amaierara heltzean berkokapena egina eta errealitate berriak josita beharko luke egon.

8.4.2. Funtzioak

Lei 5.764/71 ere OCBko estatutuen ildo beretik jarraitzen du bere 105 artikuluan funtzioak zehazterako orduan²²³.




²²³ A representação do sistema cooperativista nacional cabe á Organização das Cooperativas Brasileiras- OCB, sociedade civil, com sede na Capital Federal, orgao técnico-consultivo do Governo, estruturada nos termos desta Lei, sem finalidade lucrativa, competindo-lhe precipuamente:

- a) manter neutralidade política e indiscriminação racial, religiosa e social;
- b) integrar todos os ramos das atividades cooperativistas;
- c) manter registro de todas as sociedades cooperativas que, para todos os efeitos, integram a Organização das Cooperativas Brasileiras- OCB.
- d) manter serviços de assistência geral ao sistema cooperativista, seja quanto á estrutura social, seja quanto aos métodos operacionais e orientação jurídica, mediante pareceres e recomendações, sujeitas, quando for o caso, á aprovação do Conselho Nacional de Cooperativismo- CNC;
- e) denunciar ao Conselho Nacional de Cooperativismo práticas nocivas ao desenvolvimento cooperativista;
- f) opinar nos processos que lhe sejam encaminhados pelo Conselho Nacional de Cooperativismo

Kooperatiba legeak beraz hornitzen du OCB kooperatibismoaren gaineko eskuduntza nagusiez: integrazioa bultzatu; erregistroa eraman; aholkularitza eskaini; ekintza kaltegarriak salatu; martxan dauden prozesuen gaineko iritzia eman; aholku batzorde espezializatuak sortu; ordezkaritza organoari lotutako bestelako jarduerak burutu; integrazio jarduerak burutu antzeko helburuak dituzten elkarteekin. Hauek dira beraz, legeak OCB-ri esleitzen dizkion funtzioak; funtzio garrantzitsuak inondik ere.

Honetaz gain legeak berak ezartzen du kooperatibak funtzionamendurako daukaten erregistratzeko derrigortasuna ere²²⁴. Argi esaten du artikulua kooperatibak derrigortuta daudela funtzionatu ahal izateko OCB-n erregistratzera eta ordaindu beharreko kuota bat ere ezartzen du.

Aurrerago legeak kooperatiba guztiek ordaindu beharreko zerga moduko bat ezartzen du eta OCB-ren alde gainera²²⁵. Artikulu honetan aurkitzen da OCB-k finantziazio iturriari atea



²²⁴ 107 artikulua. As cooperativas sao obrigadas, para seu funcionamento, a registrar-se na Organização das Cooperativas Brasileiras ou na entidade estadual, se houver, mediante apresentação dos estatutos sociais e suas alterações posteriores.

Parágrafo único. Por ocasião do registro, a cooperativa pagará 10 % (dez por cento) do maior salário mínimo vigente, se a soma do respectivo capital integralizado e fundos não exceder de 250 (duzentos e cinquenta) salários mínimos, e 50% (cinquenta por cento) se aquele montante for superior.

²²⁵ 108 artikulua. Fica instituída, além do pagamento previsto no parágrafo único do artigo anterior, a Contribuição Cooperativista, que será recolhida anualmente pela cooperativa após o encerramento de seu exercício social, a favor da Organização das Cooperativas Brasileiras de que trata o artigo 105 desta Lei.

1º A Contribuição Cooperativista constituir-se-á de importância correspondente a 0,2% (dois décimos por cento) do valor do capital integralizado e fundos da sociedade cooperativa, no exercício social do ano anterior, sendo o respectivo montante distribuído, por metade, a suas filiadas, quando constituídas.

2º No caso das cooperativas centrais ou federações, a Contribuição, de que trata o parágrafo anterior será calculada sobre os fundos e reservas existentes.

3º A Organização das Cooperativas Brasileiras poderá estabelecer um teto à Contribuição Cooperativista, com base em estudos elaborados pelo seu corpo técnico.

irekitzeko bidea. Ekarpen edo kontribuzio kooperatibista da beraz, kooperatibek OCB-ri ordaindu beharrekoa eta itsura batean behintzat, eskaintzen dituen zerbitzuen ordainez. OCB-k baliabide ekonomikoak ditu kooperatiba guztien ekarpenak baliatuz osatuta eta gero onura soilik OCB-koak diren kooperatibak jasotzen dute.

Legeko xadepanak alde batera lagata OCB-ko estatutuak diotenari erreparatuko diogu orain. OCB-ren estatutuek eskuduntza zerrenda zabala jasotzen du²²⁶. Eskuduntza bakoitzaren zerrendatzea eta azalpena egingo dugu.

²²⁶ Art. 2 Á ORGANIZAÇÃO DAS COOPERATIVAS BRASILEIRAS compete:

- 1.- representar o sistema cooperativa, de acordo com a legislação vigente;
- 2.- preservar e aprimorar constantemente a identidade do Sistema Cooperativo, segundo os seus valores e princípios internacionalmente reconhecidos e na forma da legislação vigente, bem como a sua unidade e seu bom conceito perante a Sociedade Civil e o Poder Público;
- 3.- manter registro e cadastro das sociedades cooperativas de qualquer grau e objeto social;
- 4.- incentivar e orientar as sociedades cooperativas;
- 5.- promover, acompanhar e fazer cumprir a autogestão das entidades constituintes do Sistema Cooperativo;
- 6.- integrar e classificar as cooperativas por Ramos do Cooperativismo;
- 7.- manter serviços de assistência, orientação geral e outros de interesse do Sistema Cooperativo;
- 8.- incentivar a produção de conhecimento aplicado ao desenvolvimento funcional e organizacional das cooperativas;
- 9.- promover a divulgação do Cooperativismo;
- 10.- combater práticas nocivas ao desenvolvimneto cooperativista e denunciá-las a quem de direito, quando for o caso;
- 11.- opinar sobre controvérsias pertinentes ao cooperativismo que sejam submetidos á sua apreciação;
- 12.- fixar as diretrizes políticas do Sistema Cooperativo;
- 13.- promover a defesa judicial e extrajudicial dos direitos individuais homogêneos, coletivos e interesses difusos do Sistema Cooperativo;
- 14.- contribuir para o aperfeiçoamento da legislação cooperativista, e subsidiar o Governo na tomada de decisões e medidas referentes ao Sistema Cooperativo;
- 15.- indicar representantes para cargos em órgãos públicos ou privados, nacionais ou internacionais, ouvida a representação regional ou estadual, quando foro caso;
- 16.- credenciar serviços de auditoria independente, ouvida a representação regional ou estadual, quando for a caso;
- 17.- estabelecer parâmetros e arrecadar a contribuição cooperativista;
- 18.- manter relações de integração e intercâmbio entre os Ramos e Órgãos Cooperativistas do País do Exterior;

Lehenik aipatzen den funtzioa indarrean dagoen legediaren arabera, *sistema kooperatiboa ordezkatzeta* da. Eskuduntza honi erreferentzia egin zaio aurreko pasartean eta berriro dakarkigu elkartze askatasunaren eta beraz, ordezkaritza anitzaren eztabaida mahai gainera. Euskadiko errealitatera ekarriz antzeko funtzio eta izaera duena Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa da. Euskadiko mugimendu kooperatiboa federaziotan dago antolatuta. Sektore bakoitzak bere federazioa dauka eta federaziotan afiliazioa borondatezkoa da. Afiliazioa askea da eta hala ere, esan beharra dago normalean kooperatiba gehienak daudela dagokien federazioan afiliatuta. Federazioak kooperatiben sustapen eta aholkaritzan zerbitzu egokia eskaintzen dutelako. Esparru desberdinetako kooperatiba federazioak ditugu eta guztiak batuz osatzen dute Konfederazioa

Azken hau da beraz gurean kooperatiben ordezkaritza eramateko legitimitatea daukan egitura bakarra. Hasieran Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluari esleitu zitzaion ordezkaritza funtzioa baina, ondoren 4/93 legek legitimitatez hornitutako egituaren esku utziko du. Ondorioz, uste dugu OCB ez dela Brasilgo sistema kooperatiboaren ordezkaritza eramateko organo legitimatua. Indarrean dagoen legediaren arabera sistema kooperatiboa ordezkatzeta beraz baztertu beharko litzatekeen eskuduntza da. Besteak beste, indarrean dagoen Konstituzio Federalak ere elkartze askatasuna aldarrikatzen duelako.

Bigarren funtzio moduan ageri zaigu *identitate kooperatiboaren zaintza eta honekin batera balore eta printzipio kooperatiboaren zaintza ere*. Gizartearen eta botere publikoen aurrean kooperatibak duten izaera zaintzea legoke eskuduntza edo funtzio honen barnean. OCB-k, bere gain hartzen du, artikulua honen arabera, sistema kooperatibo brasildarraren identitatea zaintzeko ardura. Nazioarte mailan onartuta dauden printzipio eta baloreak zaintzeko eskuduntza esleitzen dio OCB-k bere buruari. Estatutuen arabera beraz, identitate, balore eta printzipioen zaintza dagokio OCB-ri. Eskuduntza hau abstraktoa eta orokorregia den arren, eta lehen funtzioarekin eginiko hausnarketarekin lotuta OCB izatea ardura hori duena ez da batere logikoa. Funtzio hau oso da orokorra eta abstraktoa eta honek ahalbidetzen du OCB-k kooperatiben gainean kontrolaezina den aginpidea izatea. Funtzio honetan oinarrituz arbitrarietate handiz jokatzeko aukera dauka, gure ustez, neutralitate eta obehitotasun nahikoa ez daukan egiturak.

Sortzen diren kooperatiben erregistroa eramatea da hirugarren eskuduntza. Junta Komertzialak eta Cartorioak dira Brasilen kooperatiben eraketak formalizatzeko dauden egitura ofizialak. Ez dago, gurean gertatzen den moduan, beren-beregi kooperatiben erregistroa daraman egiturarik. OCB-k erregistro aurreko alde aurreko azterketa egiteko ardura dauka; Junta Komertzialean erregistroa egin aurretik baldintzen betetzea bermatzea. Aldez aurreko azterketa hau irizpide subjektiboan oinarrituta egikaritzen du OCB. Potestate hau administrazioari dagokio eta soilik, irizpide objektibotan eta egitura publiko batek egikaritu dezake.

Gure sistema eredu hartuta garbi dago kooperatiben erregistroak behar duela izan funtzio hau gauzatu behar duena, legetik sortutako legitimazioa baliatuz.

Erregistro ofiziala egonik erregistro funtzioa betetzen duten hiru egitura izateak ez du zentzurik. Cartorioak, irabazi asmorik gabeko egiturentzako erregistroak dira eta Junta Komertzialak berriz, merkataritza izaera dutenentzako. Kooperatibak erdi bidean egonik, gurean legez, beren-beregi kooperatibentzako erregistroak egon beharko liriateke. Hala ere, sozietate zibil izaera daukan egitura pribatuak eskuduntza hori izatea ez da egokia. Besteak beste, objektibotasuna zaintzea zaila delako eta funtzio publikoa delako. Beste kontu bat da bere bazkide direnen errolda eramatea.

Kooperatiben sustapena eta aholkularitza ere OCB-ri dagozkio. Kooperatiben sustapena ere oso kontzeptu irekia da. Gurean sustapena batez ere Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua eta Federazioen artean burutzen den eskuduntza da. Sustapena egiteko tresnak eta baliabideak izatea beharrezkoa da. Ondorio eta eraginak desberdinak dira, sustapenari esleitzen diogun definizioaren arabera. Egitura pribatu baten esku lagatzen badugu sustapena, arriskua egon daiteke, elkarte horren ildoekin bat datozenak soilik saritzeko. Eta ez, izan beharko lukeen moduan, kooperatibismoa bere osotasunean zaintzeko. Gurean bai kooperatiben erregistroak (neurri batean) baina batez ere, Federazioek eta Kontseiluak dute ardura hau.

Sistema kooperatiboa osatzen duten egiturei auto-eraketan oinarrituz joka dezaten laguntzea eta bultzatzea. Hemen ere sistema kooperatiboa bere osotasunean aipatzen da eta funtzio honek ere publikoa beharko luke izan eta beraz, OCB-k ezingo luke sistema osatzen dutenen gain eragin, ez behintzat sisteman bere osotasunean.

Arloka sailkatzea kooperatibak da ondoren zerrendatzen den eskuduntza. Hau ere erregistroarekin lotutako funtzioa izanik kooperatiba guztien sailkapena elkarte pribatuak egitea ez da ohikoa. Kooperatibak erregistratzen dituen entitateak publikoa beharko luke izan eta sailkapena eta kontrola honen gain egon beharko litzake.

Sistema kooperatiboaren interesekoak diren aholkularitza eta beste hainbat zerbitzu eskaintzea. Kooperatibak libre dira nahi duten elkarteetan afiliatzeko eta beraz, elkarte mota desberdinak beharko lukete izan aholkularitza eta zerbitzu horiek eskainiko lituzketenak.


Baliabide ekonomikoak dauden elkartetara bideratu eta elkarte bakoitzak bereak dituen kooperatibei eskaini aholkularitza eta bestelako zerbitzuak ere²²⁷. Kontrara gertatzen dena da, soilik, laguntza eta asistentzia eskaintzeko aukera duten elkarteak dituztela baldintzak bere bazkideei zerbitzua eta orientazioa eskaintzeko.

Kooperatiben funtzionamendu eta antolaketaren inguruko ezagutza ekoiztu eta bultzatu. Hau ere ezin da izan elkarte bakarraren eskuduntza, kooperatibekin esperientzia duen edozein egiturak egin dezake ekarpena ildo honetan. Ezagutza zabaltzea beraz, aditua den edozeinek egin dezakeela deritzogu. Gurean EKG da ardura daukana.

Kooperatibismoaren sustapena eta dibulgazioa egitea. Egitura publikoak dira dituzten baliabideekin lan hau burutu beharko luketenak eta bestela, izatekotan ere, ezin da izan elkarte pribatu bakarraren esku dagoen ardura. Gurean hau EKG-aren ardura da.

Kooperatibismoaren aurka doazen praktiken kontra egitea eta hauek salatzea da artikulua honek OCB-ri ematen dion eskuduntza. Ahalmen honek OCB-ri atea irekita usten dio berari interesatzen ez zaizkion kooperatiben aurka egiteko. Ekintza kaltegarriak zein diren eta zein ez definitzeko eskubidea elkarte pribatu baten esku lagatzea arriskutsua izan daitekeela deritzogu. Atea oso irekita usten duelako praktika arbitrarioak emateko. Gurean eskuduntza hau banatuta legoke: kooperatiben erregistroari legalitatea zaintzea dagokion neurrian batetik eta EKG-ri bestetik (arbitraia, aholkularitza eta kontsulta funtzioak betetzen dituen neurrian).

Kooperatibismoaren inguruan gertatzen diren gatazken gainean erabaki. Arbitro edo epaile funtzioak hartzen ditu beraz bere gain. Hemen ere interes partikularrak dituen egitura bat izanik, arriskua dago behar den neutraltasun eta objetibotasun barik auziak erabakitzeko. Auzitara eramaten diren gatazken gainean erabaki ahalmena izatea ere beraz, OCB-ri indar gehiegi ematea dela deritzogu. Gurean EKG da ardura daukana. Kontseiluak gaur betetzen duen



²²⁷ Brasilen une honetan gertatzen dena kezagarria da. OCB da aholkularitza tekniko eskaintzen baliabide ekonomikoak dituen egitura eta beraz, trenza hau erabiltzen du kooperatibak bertan afiliatzera konbentzitzeko. ANTEAG moduko elkarteak porrot egindako enpsetako beharginekin lana egitean argi ikusten dute eurengana jo beharrean OCB-ra jotzen dutela laguntza eske. OCB-ren ditu iturri nagusia SESCOOP da; cooperativa guztien kanonen bidez hornitzen den sistema

funtzio inportanteenetakoa da arbitrajea baina, OCB-rekin alderatuz, neutraltasunez auziak konpontzeko legitimitatea daukala esan daiteke.

Sistema Kooperatiboaren irizpide politikoak finkatzea ere OCB-ri dagokio. Artikulu honen arabera OCB-rena da, gobernuak kooperatibismoaren gaineko politika finkatzerako orduan kontutan izan beharreko iritzia. OCB-ri dagokio beraz, gobernuarekin batera, kooperatibismoaren gaineko politikak erabakitzea. Gurean Konfederazioak du ardura hau; besteak beste, kooperatibismoaren gaineko irizpen, txosten eta erresoluzioak egitea berari dagokiolarako.

Gaur egun Brasilen dagoen errealitate kooperatiboaren aniztasuna kontutan izanik ezin dakioket utzi elkarte bakarrari horrenbesteko eragina daukan boterea edo ahalmena. Kooperatibak egitura desberdinetan biltzeko eskubidea eta askatasuna oinarri moduan hartuta, kooperatibismoaren gaineko politikaren finkatzea elkarte bakarrari lagatzea ere konstituzio kontrakoa da. Gurean ardura edo eskuduntza honetan elkarlana bultzatzen da. Sistema kooperatiboa osatzen duten elkarte desberdinen artean egin beharrekoa.

Sistema kooperatiboaren interesen defentsa egitea, epai bideetan eta epai bideetatik kanpo ere OCB-ri dagokio artikularen arabera. Sistema kooperatiboaren defendatzaile bakarra bilakatzen da OCB, artikulu honen arabera. Honek ere aurreko guztien arrisku bera dauka; erakunde hau izatea kooperatibismoaren interesak zein diren erabakitzen duen bakarra.

Legedi kooperatiboaren perfektionamenduan eta sistema kooperatiboaren gaineko erabakietan gobernuaren aholkulari izatea ere OCB-ri esleitzen zaion eskuduntza da. Kasu honetan legedi kooperatiboaren gaineko aldaketa proposamenak egiteko ardura da esleitzen zaiona OCB-ri. Aurrekoekin lotuta hemen ere Sistema Kooperatiboaren interesak defendatuz landuko den legedia egiten laguntzeko eskuduntza ematen zaio OCB-ri, honek aurretik lez dakartzan arriskuekin. Gurean bai Konfederazioak eta bai Kontseiluak eragin dezake funtzio honetan. Kontseilua egitura kontsultibo eta aholkulari den neurrian eta Konfederazioak erresoluzio eta irizpenak emateko eskuduntza daukan neurrian.

Nazio mailako eta nazioarte mailako organo publiko eta pribatueterako karguak izendatzea. Eskuduntza honen ondorioz, kooperatibismoarekin lotura daukaten organotan ere OCB da ordezkari bidaltzen duen elkarte bakarra. Honen ondorioz, OCB-ren ahotsa eta iritzia dira egituretan entzuten diren iritzi eta ahots bakarrak.

Auditoria lanei onospena ematea da 16.ean azaltzen den beste eskuduntzetako bat.

Zerga kooperatibista kobratzea ere OCB-ren esku dagoen eskuduntza da. Kooperatibek ordaintzen duten zergaren onuradun bakarria ezin da izan OCB bakarrik eta honen gestioa ere bere eskutan lagatzeak arrisku handia suposatzen du.

Bestalde, baliabide ekonomikoak beharrezkoak dira hainbat arlotan aurrera egiteko, trebakuntza edo formazioa eskaintzeko esate baterako. Erakunde batek baliabide ekonomikoak izateak boterea ematen dio. Azken batean sendotasun ekonomikoak, boterean eragiten baitu zuzenean.

Estatutik kanporako egitura kooperatiboekin harremanak izatea ere OCB-ri dagokio. Artikulu honen arabera, badirudi, OCB dela estatutik kanpoko egiturekin harremanak eta elkar trukeak burutu ditzakeen egitura bakarria. Brasiletik kanpoko erakunde publiko zein pribatuek beraz, Brasilgo errealitate kooperatiboaren irudia OCB-ren bitartez jasotzen duena litzake. Ez da ez errealia eta ez da legala, Brasilen sortzen eta indartzen ari den beste errealitateak kanpora begirako ordezkari eta oihartzunik ez izatea.

Kooperatiben ordezkari patronala egikaritu Konfederazioaren prerrogatibak bere gain hartuz. Patronal edo enpresarien sindikatu dela uler daiteke artikulu honetatik. Kontraesana nabarmena da, kooperatibek ezin dutelako patronal edo ugazaba terminotan hitz egin, ez behintzat autoeraketa terminotan mintzo garenean. Beste kontu bat da, OCB-k ordezkari dituen kooperatiben izaera zein den.

Eta azkenik aipatzen du *Organização das Cooperativas Brasileiras* logoaren erabilera irizpideak finkatzea ere bere esku dagolea.

Bai OCB-ko estatutatik eta bai oraindik Brasilen indarrean den Kooperatiba Legetik ondoriozta genezake OCB-k zalantzazkoak diren funtzio eta ardurak dituela. Legeak berak Konstituzioarekin talka egiteaz gain, estatutuetan jasotzen diren funtzioak ere ez dira zuzenak gaur Brasilen indarrean den sistema konstituzionalarekin.

Aztertu ditugun funtzioen artean esan genezake badirela batzuk OCB-k bete behariko ez lituzkenak. OCB-ren izaera pribatuak ezin du ahalbidetu berez estatuarenak diren hainbat prerrogatiba edo potestate beragan delegatzea. Polizia administratibo lan edo eskuduntzak betetzea Administrazio publikoari dagokio eta inola ere ez, interes partikularrak, -ez kooperatibismoaren orokorrean- dituen egitura bati.

8.5. EUSKADIKO ORDEZKARITZA ETA GESTIO ERAKUNDEAK

Euskal Autonomia Erkidegoan, kooperatiben gaineko ardurak dituzten erakundearen artean, hiru behintzat, aipatu beharoko genituzke. Beti ere, kontutan izanda Arrasateko Kooperatiba

Esperientziak paraleloki baduela bere antolaketa propioa. Bere antolaketa propioa izan arren, partehartze aktiboa dauka baita orain aipatzera goazen egituretan ere. Euskadiko Kooperatiben Erregistroa (EKE), Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua (EKGK) eta Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa (EKK) dira aztertuko ditugun egiturak. Ondorengo lerrootan egitura bakoitzak betetzen dituen funtzioak zein diren azalduko dugu:

8.5.1. Euskadiko Kooperatiben Erregistroa

1994ko maiatzaren 24an onartu zen 189/1994 Euskadiko Kooperatiben Erregistroa antolatzen duen Dekretua. Dekretu hau erregistroa antolatzera eta 4/1993 Euskadiko Kooperatiben Legea egokitzera etorri zen. Aldaketa honekin erregistro sistema indartu zen eta bide batez, kooperatibak mugitzen ziren enpresa trafikoari segurtasun juridikoa gehitu zitzaion. Esan duguna lortzeko bi oinarri ezarri ziren: batetik, Euskadiko Kooperatiben Erregistroa kooperatibentzako erregistro juridiko publiko bakar gisa definitu zen eta bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko egitura administratiboan kokatu zen, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurtasun Sailean hain zuzen ere (gaur, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaz zaila).

Erregistroa sortu zenetik pasatako urteak irakasten dute enpresa trafikoaren segurtasuna lortzeko beharrezko tresna bilakatu dela erregistroa. Kooperatibek beharrezko duten publizitate material eta formala aurrera eramateko beharrezko duten tresna arin eta dinamikoa da orain erregistroa.

Erregistroaren balio eta eraginkortasuna frogatuta daude eta ondorioz, gaur, kooperatibak beharrezko duten segurtasuna lortu dute.

Jarduera irizpide batzuk ezarri dira bestalde eta honek ahalbidetu egiten du Kooperatiben Erregistroak bere eskuduntza juridikoak betetzeaz gain, kooperatiben sustapenerako tresna aktibo bihurtzea; besteak beste, erkidegoko gainerako erakunde publikoekin elkarlanean arituz. Helburuekin amaitzeko esan behar da, ezarri diren irizpideak helburu dutela kooperatiben ekintzak azkarrago inskribatzea eta ondorioz, kooperatiben eraketa bera ere laguntzea.

Euskadiko Kooperatiben Erregistroa, OCB ez bezala, Eusko Jaurlaritzak Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaz Saileko Gizarte Ekonomia Zuzendaritzan kokatzen da. Honek esanahi du egitura publikoa dela eta ondorioz, funtzio publikoak betetzeko eskuduntza daukala.

Organikoki izaera unitarioa dauka Erregistroak baina, hala ere, zentraltasuna apurtzeko eta arintasuna lortzeko herrialde desberdinetan egoitzak daude.

Dekretuaren 2 artikuluan objektua zehazten da. Erregistroaren eskuduntza lehenengo, bigarren eta goragoko mailako kooperatibetara; Talde kooperatibotara; Korporazio kooperatibotara;

Bitariko kooperatibetara zabaltzen da beti ere, egoitza soziala bertan izanik kooperatiba jarduera euskal autonomia erkidegoan aurrera eramaten duten kooperatibetara.

Egitura publikoa da beraz erregistroa, Euskal Autonomia Administrazioako parte da eta ondorioz, honako funtzioak betetzea dagokio:

- Araudiaren arabera erregistro honetan kalifikatu, inskribatu eta zertifikatu behar diren ekintzak bere gain hartu.
- Derrigorak diren liburuak gaitu eta legalizatu.
- Urteko kontuen gordailua eta Kooperatibak hartutako gainerako kooperatiben erabakien zertifikazioak hartzea: aztertu ea dokumentuak lege baldintzak betetzen dituzten; batzar orokorrak behar den moduan hartuak diren eta ondo sinatuta dauden.
- Sortzera doazen entitateen gaineko izen ziurtagiriak emititzea.
- Euren eskuduntzakoak diren gaien inguruko kontsultak argitzea.
- Kooperatiba berrien sustatzaileei eta sortuta daudenetako administratzaile eta aholkulariei laguntza eskaini, kalifikazio, inskripzio eta ohartaraztera eramaten diren dokumentuen gainean sortzen zaizkien zalantza eta gainerako hutsuneen gainean.
- Kooperatiba Legeak esleituta bestelako funtzioak.

Euskadiko Kooperatiben Erregistroaren xedapenek duten eraginkortasun eta eragin juridikoaz gain, kooperatibismoaren sustapenerako tresna aktibo ere bilakatu da. Ondorioz, bere funtzioak betearazteko orduan honako irizpideak hartuko dira kontutan:

- a) Zalantza kasutan arauak interpretatuko dira kooperatibaren jarraipena, garapena eta egiazkotasuna bermatzea ahalbidetzen duen zentzua oinarri hartuta.
- b) Gizartearen onerako izango da kooperatiba berriak sortzea- eratze, batze, zatitze edo eraldatze bidez- eta lehendik zeudenak berraktibatzea. Horregatik, espedienteak bideratzerakoan kasu horiek izango dute lehentasuna.
- c) Sustatzaileek aurkeztutakoa ez bada zuzenbidearen arabera, ezezkoa ematen duen ebazpenari ohar bat erantsi ahal izango zaio, espedientearen konplexutasunak


hala eskatzen duenean; ohar hori orientatzailea izango da, eta bertan aukera baliagarri batzuk adieraziko dira.

- d) Erregistroak Euskadiko Kooperatiben Konfederazioarekin eta beste erakunde batzuekin lankidetzan jardungo du, Erregistroan gehien erabiltzen diren agirien ereduak orientatzaileak, lotesleak ez direnak- egiterakoan.
- e) Interesatuak eskatzen dutenean, edo esparruren, baltzu-eroldaren ezaugarrien edo espedientetik ateratako beste datu objektibo batzuen ondorioz hala komeni denean, ebazpenarekin batera eranskin edo azalpen ohar bat emango da, eta bertan ebazpenarekin edukien inguruko kontzeptu edo termino juridikoen berri emango da ahalik eta modurik sinpleenean.

Orain arte ikusitakoaren arabera erregistroak bi funtzio nagusi betetzen ditu. Batetik, bere jardueratik ondorioztatzen diren xedapen juridikoei dagokiona; bere funtzio juridikoa beraz²²⁸. Bestetik berriz, sustapen kooperatiboko tresna aktibo izatea. Erregistroak betetzen duen funtzioa zein den kontutan izanik, kooperatiba sustapenerako tresna eta baliabideak ere baditu eta hauek erabiltzen ditu sozietate izaera hau sustatzeko.

Erregistroak funtzio eta ardura hauek betetzeko eraginkortasuna du. Eraginkortasun hau printzipio batzutan gauzatzen da: publizitate materiala eta formala, legezotasuna, legitimazioa, lehentasuna eta tratu jarraituak oinarritzen dute eraginkortasun hau.

Erregistroan inskripzioa egitea derrigorrezkoa da Euskadiko Kooperatiben Legeak edo Erregelamenduak hala xedatzen duenean. OCB-rekin alderatuz aldea nabarmena da. OCB-k nahiz eta gurean erregistroak dituen funtzioak izan eta bete, legitimazio hori gaur ez datorkio legetik beraz, ezin ditu egitura publiko bati dagozkion funtzioak bete eskuduntza ez diolako esleitu legeak. Gaur OCB-k berak bere buruari ezarritako eskuduntzak ez dute beraz lege estaldurarik.



²²⁸ Funtzio juridikoa da OCB oraindik orain betetzen duena eta bete ezin duena.

Bestalde legearen aginduz, eraketa, bategite, banaketa, desegite eta berraktibazioen inskripzioak izaera eratzailea izango dute. Gainerakotan inskripzioak adierazpenezkoa izango da. Legetik datorkio beraz, erregistroari kooperatibak eratzeko ahalmena.

OCB-k bere estatututan jasotako hainbat eskuduntza: kooperatiben identitatea zaintzea; kooperatiben erregistroa eta katastroa eramatea; kooperatibak sustatu eta laguntzea; asistentzia eskaintzea; kooperatiben gaineko ezagutza bultzatzea; praktika kaltegarriak ekiditea... hauek gurean erregistroak dituen eskuduntzak dira eta ez elkarte pribatu batek.

Inskripzioa beraz eratzailea da. Honetaz aparte, legezkotasuna legoke. Inskribatu beharreko agiriak kalifikatu egingo dira eta horretarako kontutan hartuko dira agiriaren itxuraren legezkotasuna, eta sinatzen dutenen legitimazioa, eta edukiaren, agirien ondorioen eta Erregistroko idazpenen balioa, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Publizitate formala da beste ezaugarri bat. Euskadiko Kooperatiben Erregistroa publikoa da. Erregistroko liburuak eta idazpenek aipatzen dituzten agiriak erakutsiz egingo da publizitatea.

Beste ezaugarria publizitate materiala eta formala dira. Uste izango da erregistroko edukia guztiek ezagutzen dutela eta beraz, ez da egongo ez ezagutza argudiatzeko aukerarik. Fede oneko hirugarrenen aurrean beraz, efektu guztiak izango ditu.

Legitimazioa da beste printzipio bat. Erregistroko idazpenak zehatzak eta baliozkoak direla jasotzen da eta eragingarriak izango dira harik eta zehaztasun-ezaren edo baliogabetasunaren adierazpena inskribatzen ez den arte. Honek esanahi du erregistroak bere baitan duen informazioa baliozkoa dela eta zalantzarik ez izateak trafikoari segurtasuna ematen dio.

Lehenetasuna. Zernahi tituluren prebentziozko oharpena edo inskripzioa egiten bada, ezingo da beste titulurik inskribatu, delako titulua, egun berekoa nahiz lehenagokoa izan, haren kontrakoa edo harekiko bateraezina baldin bada.

Eta azkenik tratu jarraitua daukagu. Inskribatu beharreko subjektu bati buruzko egintzak edo kontratuak inskribatu ahal izateko, subjektua bera inskribatuta egon beharko da aurretik.

Aztertu ditugun printzipioak bermatzen dute erregistroak bere funtzioak eta eskuduntzak beteko dituztela. Hain zuzen ere, legeak emandako pribilejio hauek dira tresna beharrezkoak egitura publikoak funtzio publikoak bete ditzan. Brasilgo kasuan Erregistro funtzioa zuzenean Administrazio parte den egitura publiko batek bete beharko luke. OCB- moduko entitate pribatu batek eskuduntza eta pribilejio hauek izateak ez dauka zentzurik, beharrezkoa delako neutraltasuna izatea erregistroaren kalifikazio zereginak dituen egiturak.

8.5.2. Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua

8.5.2.1. Sarrera

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua da OCB-rekin antzekotasun gehien daukan euskal egitura, hori dela eta, figura honen azterketa ahalik eta zehatzena egiten ahaleginduko gera. Ibilbide historikoa zein izan den aztertuko dugu baina, batez ere, bere izaera eta funtziotan oinarrituko gera.

8.5.2.2. Ibilbide historikoa

Pablo Buitron Andrade irakaslea da Kooperatiben Goren Kontseiluaren sorrera eta garapena aztertu duen irakaslea eta ondorengo lerroak bere tesian oinarritukoak dira²²⁹.

Frankoren diktadura garaira joango gara hastapenak aztertzeko. Garai hartan sektore kooperatiboak eta kooperatibistak oro har, autoritatearen begiratu zorrotza jasoko dute. Zalantza asko sortzen zituen mugimendua zen eta ondorioz, Erregimenaren aurkako edozein mugimenduk bezala, jarraipen zorrotza izango du²³⁰. Antolamendu Sindikala eta honen barnean Lankidetzarako Obra Sindikala erregulazio kooperatiboaren buru eta ardatz izango da eta mugimendu kooperatiboa, kontrol politikoaren menpe jarriko dute, beronen autonomia eta independentzia printzipioen kontra eginaz.

Espaniar kooperatibismoarentzako urte luze eta gogorak izango dira. Jarduera kooperatiboak gobernuaren neutralizatzea biziko du.

Gerra Zibila amaitu aurretik, 1938an - izaera iragankorarekin- iraupen laburra izango duen Kooperatiba Lege bat onartzen da. 1940ko urtarrilaren 26an onartuko den Batasun Sindikaleko Legearen onarpenarekin aurreko legea bertan behera geratuko da. Abenduaren 6an,



²²⁹ 'Evolución de la Figura del Consejo Superior de Cooperativas en la Legislación Cooperativa Española: Aproximación al Estudio del Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi (Parte II: desde 1938). Dr. Pablo Buitron Andrade. Instituto de Estudios Cooperativos Universidad de Deusto.

²³⁰ OCB-ren egoera oso bestelakoa zen. OCB sortzen da hain zuzen ere errejimenaren bultzadaz.


Antolamendu Sindikalerako Oinarrien Legea onartzen da eta bere, 16 eta 18 artikuluetan bere eskuduntzapean hartzen du kooperatiba arloa. Kooperatiben arlo berri bati emango zaio hasiera 1942ko Kooperatiba Legearekin.

Estatuaren egituratze berriarekin batera, sindikatuak Zuzenbide Publikoko Korporazio izaera hartzen dute eta Laneko Foruak, tresna juridiko gisa garrantzi handia hartuko du. J.L. Del Arcoren iritziz, Estatuak hartu beharra dauka mugimendu kooperatiboaren gaineko zaintza²³¹. Mugimenduaren sorrera gertatua urretik ere, ikus genezake estatuak bete beharreko paperean, zaintza azaltzen dela.

Lankidetzarako Kontseilu Gorenaren sorreraren balorazioa egiterako orduan, esan behar da, legegilearen arreta gune nagusia kooperatiben kokapen instituzionala dela nagusiki. Botere politikoaren kontrol eta diziplinapean ezartzen ditu kooperatibak.

M. Vergéz Sánchezen ustez kooperatibaren baitan dauden interes pribatuak ez dira kontutan hartzen erregulazio honetan, ez eta, bazkide izaerak dakartzan eskubideak ere²³².

Aurrekarietan ikusi ahal izan dugunez, erregimen kooperatiboa, Lan Ministerioaren eta Antolamendu Sindikalaren menpe jarriko da. Gogoratu behar da, 1940ko Antolamendu Sindikalaren Oinarrien Legeak sindikatuen funtzioen artean kokatzen dituela kooperatiben sustapena eta zuzendaritza eta baita dagokion arloarekin erlazioa duten banaketa eta ekoizpeneko ekintza kooperatiboak burutzea ere. Ondorioz, esan genezake, goi administrazioa



²³¹ ' la normación y disciplina de las cooperativas corresponde en última instancia al Estado, que debe actuar sobre las mismas para asegurar el cumplimiento de la Ley, ni más ni menos que sobre cualquier otra persona o actividad, privadas o públicas, y sólo el Estado puede aprobar el nacimiento y disolución de las cooperativas e imponerles sanciones disciplinarias, pero la protección e impulso del movimiento cooperativo y su vigilancia para asegurar que sirve, sin desviaciones, sus peculiares fines corresponde a la Organización Sindical'.

²³² 'el legislador se ha limitado fundamentalmente al establecimiento de controles externos, cuyos límites no siempre aparecen configurados en los términos precisos y necesarios como garantías mínimas de seguridad por parte de los sujetos, y ha llegado incluso a establecer responsabilidades en los organos de dirección de estas sociedades que aparecen formuladas en términos tan retóricos como ajurídicos'.

esleitzen zaiola Lan Ministerioari, eta administrazio kooperatiboaren gaineko erabaki nagusiak hartzea dagokiolako. Eta antolamendu sindikalari berriz, administrazio baxua esleituko zaie, eta lan hau burutuko dute Lankidetzarako Obra Sindikalaren bitartez.

Antolamendu Sindikalerako Oinarri Legearen 53 artikulua arabera, Sindikatuen Nazio Delegazioari dagokio kooperatiba mugimenduaren antolamendu hierarkikoa eramateko eskuduntza. Funtzio hori burutuko du Lankidetzarako Obra Sindikalaren bitartez, honek hartuko baitu bere gain kooperatiben gaineko diziplina. Obra Sindikalari esleituko zaizkio mugimendu kooperatiboaren gaineko eskuduntza nagusiak.

1943ko Erregelamenduaren 80 artikulua Lankidetzarako Kontseilu Gorena, Lankidetzarako Obra Sindikalaren baitako organo nagusi gisa aurreikusten du. Kontseilua organo kolegiatu gisa sortzen da, eta kooperatibismoaren arloan aholkulari eta bultzatzaile izateko bokazioz. Zehazkiago, Obra Sindikaleko sailaren aholkulari izateko. Izaera publiko- sindikala dauka. Aholkularitza kooperatiborako organo kolegiatu sindikala da eta aholku administrazioaren parte.

Lan Ministerioko azpi Idazkariak, Batasun Nazionaleko Buruak eta Sindikatuetak Nazio Delegatuak izendatzen dituen kideez osatuko da. Funtzioei dagokionean batetik aholkularitza egongo da eta bestetik, honako hiru arlotan entzuna izateko derrigortasuna: erregelamenduak interpretatzerako orduan; kooperatibetarako erregelamendu tipoak lantzerako orduan eta ordenantzen erredakzio unean.

Lankidetzarako Obra Sindikalaren misioa da: mugimendu kooperatibo espainiarra jaso, bultzatu, zuzendu eta babestea. Obra Sindikalaren baitan zerbitzu desberdinak sortzen dira eta hauen artean azpimarratzekoa Kooperatiben Sustapen eta Garapena aurrera eramateko zerbitzua; nagusiki, hezkuntza kooperatiboko ikastaroak emateko ardura izango du. Kontseiluaren lana izango da, besteak beste, kooperatiben artean sortzen diren auziak konpontzea.

Azaldutakotik argi eta garbi ikus daiteke arlo kooperatiboan estatuaren esku-hartzeak duen indarra; beti ere kontrol politiko-administratiboa helburu izanik eta printzipio kooperatiboak hautsiz. Kooperatiben Kontseilu Nagusia da, kooperatiben mendekotasuna gauzatzeko

erabiliko den oinarri politikodun estatu egitura. Kontseiluak ez dauka bizitza juridiko kooperatibo propiorik eta estatuaren kontu bizi da²³³.

1942ko abenduaren 15ean Obra Sindikalak proposatuta lehendakari, idazkari eta bokalez osatuta egongo diren delegazioetako Kontseiluak sortuko dira. Probintzia mailako kontseiluen esku egongo da kooperatiba berrien sortzea eta desegitea euren kontrolpean izatea. Bai eta Kooperatiben eta organismo sindikalen arteko eskuduntzak mugatzea eta behin mugimendu kooperatiboaren sustapena burutu ostean beronen gaineko kontrol politikoa gauzatzea.

Hona funtzioak: kooperatiba berrien espedienteez informatzea; sozietate berriaren baliabide ekonomikoen gaineko informazioa eta beronen interes ekonomiko eta soziala.

1957an Lankidetzarako Obra Sindikaletik sortzen da, Hezkuntza Kooperatiborako Institutu Sindikala eta helburu izango du hezkuntza kooperatiboa aurrera eramatea. Hezkuntzaz gain, bere funtzioen artean daude Lankidetzarako Kontseilu Gorenaren eta Obra Sindikalaren organo aholkulari izatea.

1961an sortuko da Kooperatiben Asanblada Nazionala. Asanbladaren sorrerak agerian utziko du sistema juridikoaren eta errealitate kooperatiboaren artean zegoen aldea. Erregelamendu berri bat onartuko da eta honek direkzio berria ipiniko dio kooperatibismo espainiarrari. 1973ko martxoaren 13ko Erregelamenduaren ondoren Kontseiluak ordezkari gehiago eta funtzionamendu hobea eskuratuko ditu. Eta bere lan nagusien artean, 1974ko abenduaren 19ko Kooperatiba Legearen prestaketa burutzea ditugu.

Legearen zioen adierazpenean nabarmen ageri da kooperatiba esparruak estatuaren aldetik biziko duen interpretazio berria: zuzenbide kooperatiboari buruz, nazioarteko praktika kooperatiboari buruz eta merkaturako kooperatibak lehiatu beharri buruz hitz egiten da.

Hala ere, kooperatibismo espainiarra sindikalgintza bertikalaren mantapean mantentzeko borondateak hor egoten jarraitzen du. Ondorioz, mantentzen zaizkio sustapen eta garapen



²³³ OCB-ren sorrerarekin antzekotasun handia daukala ikus daiteke. Estatuaren bultzadaz sortzen den organo politikoa litzake Kontseilua ere.

kooperatiboa aurrera eramateko eskuduntzak. 74ko legeak Kooperatiben Batasunak sortzea aurreikusten du, hauetatik mugimenduaren oinarria sortzeko helburuarekin. Izaera juridiko propioarekin Kooperatiba Batasunak jarduera nagusiaren eta helbidearen arabera kooperatibak hartzen ditu bere baitan eta honela Batasun Lurraldetarrak sortuz. Legeak esleitzen dizkien atribuzioak dira: ordezkaritza, adiskidetzea, sustapena eta garapena. Hona funtzioak zehatz-mehatz:

- Kooperatiben arteko eta kooperatibek bazkideekin dituzten gatazketan arbitrajea eraman.
- Printzipio kooperatiboaren zaintza eta hedapena.
- Hezkuntza kooperatiboaren hedapena.
- Antolamendu Sindikalak egiten dituen lege xedapenen edo erregelamenduen gaineko irizpen edo txostenetan entzuna izatea.

Honela Antolamendu Sindikalaren baitan sortzen da arlo kooperatiboan espezializatua den egitura bat. Kooperatiben Federazio Nazionalaren proposamenez Antolamendu Sindikalak ematen dituen arauen garapena egiteko beharrezko erreferentzia bilakatzen da.

Egitura konplexuaren parte bihurtzen da baina, oraingoan, kooperatiba mugimenduaren parte-hartze handiagoarekin. Oro har, legeak kooperatibak zaintzeko eta Federazio Nazionalari aholku eta prebentzio funtzioa betetzeko ardura esleitzen dio.

Sistema demokratikoaren etorrerak eta Antolamendu Sindikalaren desagertzeak ordenu kooperatiboan eragina izango du. 1977ko ekainaren 2ko Errege Dekretu-Legeak arlo kooperatiboko eskuduntza Lan Ministerioaren eskura pasatzen du eta dagokionean Kooperatiben Federazio Nazionalera.

1977ko ekainaren 10ko 1.305ko Dekretuak Lan Ministerioaren barnean kokatzen du Kooperatiba eta Enpresa Komunitarioen Zuzendaritza Orokorra. Organo honen eskuduntzapean geratzen dira ordenu eta garapen kooperatiboa batetik eta langileek enpresako jabetzan partehartzeko ekintzen ikerketa eta garapena. Aldi berean Kooperatiben Erregimen Juridikorako Azpi- Zuzendaritza Orokorraren esku geratzen dira kooperatiben gain eragina duten arauen estudioa, lanketa eta interpretazioa egitea; honela organo legegile bihurtzen da. Bere gain geratzen dira baita Kooperatiben Erregistro Orokorra eta beraz, ekintza administratiboak eta helburu horretarako kalifikazioak burutzea.

Bere aldetik, Sustapen Kooperatiborako Azpi- Zuzendaritza Orokorra 1.305 Dekretuko 4 artikulua arabera da mugimendu kooperatiboaren sustapen eta bultzadarako organo eskuduna eta berari esleitzen zaizkio: *'ordenu kooperatiboko ikerkuntza, hezkuntza eta hedapena; sustapen eta garapen kooperatiborako estudioa eta ikerketa; enpresa kooperatiboaren sustapenerako programen planifikazioa, exekuzioa eta kontrola'*.

Ikus daitekeenez arlo kooperatiboko materiak edo eskuduntzak Lan Ministerioaren barnean kokatzen dira.

Erregimen konstituzional berriak aldaketak eragingo ditu ordenu kooperatiboan. Espainiako Konstituzioak bere 129.2 artikuluan ahalbidetzen du kooperatibismoaren esparruan hiritarrek parte-hartzeko aukera izatea eta gai honetan botere publikoak ere konpromisoa hartzea. Dimentsioa aldatzen da. Otsailaren 11ko 1/82 Kooperatiben Legeak onartuko duen Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren sorrera dugu horren adibide bat.

Demokraziaren etorrerarekin, Euskal Komunitate Autonomoa izango da Kataluniarekin batera, kooperatibismoaren gainean duen jarrera adierazten lehenengoa. Kooperatiben Goren Kontseiluak sortzea ere, lehen aldiz egingo dutenak bi erkidego autonomoak izango dira.

Hemendik aurrera Estatu-Kooperatibak harremana dinamika berri baten sartzen da; ez soilik komunitate autonomoei egingo zaien eskuduntza esleipenagatik, oinarrian harremana aldatu egiten delako baizik. Estatuaren paperak ez du aurreko etaparekin inolako antzik izango eta ondorioz, hemendik aurrera kooperatibismoak jarduera esparru zabalagoa izango du.

Azaroaren 18ko Kooperatiben Erregelamenduan estatuak interes sozialeko funtzio moduan hartzen du mugimendu kooperatiboaren sustapena, garapena eta bultzada burutzea. Lan Ministerioak bere gain hartzen du kooperatiben gaineko eskuduntza. Ministroak Kooperatiben Legeko arauen interpretazio eta garapenerako arauak emateko ardura hartzen du. Eta baita, arauok printzipio kooperatiboaren gainean eragiten dutenean, eta baita Espainiako Kooperatiben Konfederazioa informatzeko ardura ere.

Erregelamendu honek Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren aurrekaria izango den Koordinazio Kooperatiborako Komisio Nazionala sortuko du.

Komisio hau Lan Ministerioan kokatzen da, sektore publikoak kooperatiben esparruan duen aholku eta koordinazio organo moduan. Kooperatiba esparruan konpetentziak dituzten organo publiko guztiek komisio honen bidez koordinatu beharko dute euren lana. Administrazioak mugimendu kooperatiboaren gainean nola jardun behar duen arautzea ere helburu izango dute arauak beti ere, esparru oso bat utziaz Federazio eta Konfederazioei.

Komisioaren formari dagokionean esan ez dela izaera kooperatiboa daukan entitate bat, publikoa baizik; sektore kooperatiboak daukan ordezkartza gutxiengoa da. Erregelamenduak bereizten ditu Plenoaren eta Iraunkorraren funtzioak.

Plenoari honako funtzioak esleitzen zaizkio:

- Kooperatiba esparruan aurrera eraman beharreko politika ekonomiko, finantzario eta sozialean gobernua aholkatzea.
- Kooperatiba mugimenduaren sustapen, bultzatze eta babespen lanen koordinazioa eramatea.
- Lan Ministerio eta gainerako organismoei bere eskuduntzapeko gaietan proposamen, gomendio eta mozioak luzatzea.
- Erregelamenduaren araudian eragina izan dezaketen xedapenen gaineko homologazioa proposatzea.

Iraunkorrari honako funtzioak esleitzen zaizkio:

- Arlo kooperatiboan politika sozialaren garapenerako irizpideak aztertu eta garatzea.
- Arlo kooperatiboan organismo publikoen ekintza eta proiektuak ezagutzeko ekintzen koordinazioa eta antolaketa eramateko.
- Printzipio eta teknika kooperatiboaren garapen, sustapen eta bultzatzearekin lotutako txostenak eta diktamenak egitea.

Ibilbide historikotik argi ikus daiteke estatua eta mugimendu kooperatiboaren arteko harremanaren konplexutasuna. Mugak argi ez egotearen ondorioz, zaila da harremana ongi taxutzea. Kontrol, zaintza eta babeste funtzioak dira iraunkortasun gehien dutenak kooperatiben gainean eragina duten organismo publikotan.

3/87 Legean Kooperatiben Goren Kontseilua sortzen denerako, Euskadikoak badu ibilbide bat egina eta sortuta daude baita Katalunia, Andaluzia eta Valentziakoa ere. Konstituzioko 129.2 artikuluan oinarrituta sortzen dira eta baita hainbat erreferentziekin ere; nahiz eta eraginkortasun maila baxukoak denak ere.

Kooperatiben Kontseilu Gorenak estatu mailan du kooperatiben gaineko eskuduntza, baina esan beharra dago ez duela iraupen luzea izango; 31/90 Legeak hiru urte beranduago derogatu egingo baitu.

Euskal Komunitate Autonomoan Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren ibilbideari hasiera 1/82 Kooperatiben Legeak emango dio.

70. hamarkadako egoera sozio-politikoak etorkizunaren inguruko hainbat zalantza azaleratzen ditu. Kooperatibismo industrialak, -euskal kooperatibismoaren sektorerik garrantzitsuena- oso kaltetuta dago garai horretan eta beharrezkoak izango dira sektoreari laguntzeko ekintza oro.

Euskal Kooperatibismoan eragin handia dauka Arrasateko Esperientziak eta honen inguruan sortzen da besteak beste, kooperatibismoa biltzeko abagunea. Hala ere azpimarratzekoa da Arrasateko taldeak Kontseiluaren eraketan betetzen duen paperak duen pisua. Euskal Kooperatiben Kontseilu Gorena Eusko Jaurlaritzaren ekimenez sortzen da baina, mugimendu kooperatiboaren babes osoarekin. Euskal Administrazioaren borondatea da, kooperatibistak beraiek izatea euren burua antolatzen dutenak baina beti botere politiko eta administratiboan laguntzarekin. Azken batean, lortu nahiko dena da euskal egoeraren baitan kooperatibismoari dagokion protagonismoa ematea.

4/93 Legeko 145 artikulua araberak, Kontseilua da kooperatibismoaren sustapen eta hedapenerako organo gorena. Kooperatibismoaren inguruko gaietan administrazioaren aholku organo nagusia da, izaera juridiko propioa dauka eta bere funtzioen betearazpena bermatzeko, jarduteko gaitasun osoa daukan organoa da. Kooperatiben ordezkariak dagokionez alde dago, 1/82 legeak bere 70 artikulua ezartzen duenaren eta 4/93 legeko 145 artikulua ezartzen duenaren artean; azken honetan kooperatiben ordezkariak kendu egiten zaio Kontseiluari.

Laugarren Xedapen Iragankorraren arabera Federazioak dira eta bereziki, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa da kooperatiben partehartzeko bidea eskaintzen duen egitura. 4/93ak adierazten duen moduan 'ahalegina egin da Kontseiluak organo publiko moduan dituen funtzioak eta mugimendu kooperatiboak - bereziki, Kooperatiben Konfederazioak- dituen ordezkariak funtzioen artean bereizketa egiteko'.

4/93 legearen arabera (145 artikulua) Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua *'kooperatibismoarekin zerikusia duten gaietarako, izaera publikoa duen, administrazio publikoaren organo aholkularia da'*. Aholkularitza organoa da. Egitura kooperatibotik bereiztua eta administrazioetik gertu dagoena. Bere ezarpen esparrua euskal administrazioa da. Administrazio orokorra, euskal administrazioa, foralak eta instituzionalak.

Azken hamarkadako euskal kooperatibismoa ezin da ulertu Kontseiluaren presentzia gabe. Konfederazioarekin hainbat funtzio konpartitzen ditu eta administrazioaren aholku organoa da. Ordezkaritza beren-beregi dagokio konfederazioari baina gainerako funtzioak, konpartituta betetzen dituzte. Konstituzioko 129.2 artikulua esanetan kooperatibismoaren sustapen eta promozio ekintzak burutu behar ditu, beti ere kooperatibismoaren onerako diren gainerako ekintzak baztertu gabe (arbitrajea). 1/82 eta 4/93 legeen arabera honela jasotzen dira funtzioak: printzipio kooperatiboaren hedapena, hezkuntza kooperatiboaren sustapena eta promozioa; legearen betearazpena bermatzeko administrazio publikoarekin lankidetzak; bere eskuduntzako gaien inguruko xedapen eta erregulazioen gaineko txostenak egitea; arbitraje kooperatiboaren eta euskal erregimen legalaren hobekuntzan laguntzea.

8.5.2.3. Izaera eta funtzioak

Kontseilua ezaugarri juridiko bereziak dituen entitatea da. Oinarri konstituzionalak dituen hainbat printzipiotan dauka bere izateko arrazoa: sustapena eta partehartzea batetik, eta Euskal Kontzertu Ekonomikoan garrantzi handia aitortzen zaion sektore ekonomiko eta sozialari bultzada emateko interesa bestetik. Izaera juridikoari dagokionean ez da ez doktrinan eta ez indarrean dauden legetan ere kokapen zehatza daukana. Kontseilua ezin da inongo kategoria juridikotan kokatu. Beharrak eraginda sortzen den entitatea da. Nahiz eta arau administratibo zenbaitzutan jasotako egiturekin antza izan, ezin da inon kokatu.

Kontseiluaren ibilbidea Euskal Erkidego Autonomoko bi legetan oinarritu behar da; 1/82 legea eta 4/93 legea. Lege batetik besterako aldea nabarmena izan da eta bigarrenak, Kontseiluaren izaera eta funtzioak hobetu egin dituela esan daiteke. Nahiz eta trazu juridiko zehatzik ez izan, baliotasun osoa daukan egitura da. Konstituzioari jarraiki, kausa kooperatiboa laguntzeko sortzen den egitura da.

1/82 Kooperatiben legeko 70 artikulua arabera, kooperatibismoaren ikerketa eta sustapena aurrera eramateko organo gorena izateko sortzen da. Oso funtzio garrantzitsua eta zabala da baina, zehaztugabea aldi berean.

Sustapena, bultzatzea, laguntzea eta hobetzea terminoen esparruan kokatzen da. Bere eskuduntzapean sartzen da beraz, Euskal Mugimendu Kooperatiboaren antolakuntza eta funtzionamendua bultzatzea eta garatzea.

Promozioa eta sustapena oso termino zabalak dira baina, Kontseiluaren izaera, osaketa eta funtzioak kontutan izanik trazu orokorretan eta bi dimentsiotan barneratzera garamatzate; interes publiko eta pribatuen uztartzera. Ikuspegi publiko batetik, hau da administrazioaren ikuspegitik ezin du promozioa inposizioz egin baina beharrezko kanalak ezarri behar ditu promozioa eman dadin.

Eusko Jaurlaritzak Lan Departamenduaren bidez, kooperatibismoaren gaineko ikerkuntza, kurtsuak eta nazio eta nazioarte mailako ekitaldiak antolatzeko ematen dituen subentzioak promozio esparruaren baitan kokatu behar dira.

1/82ak legeko kontzepzioa oinarri hartuaz, sustapen terminoak, Administrazioetik kooperatibismoa promozionatu eta babesteko ekintza oro hartzen ditu bere baitan. Sustapenak, alderdi juridikoa eta ekonomikoa hartzen ditu bere baitan.

1/82 legeak Kontseiluari ematen dion kalifikazioa da *'kooperatiben eta hauen organizazioen promozio eta ordezkartzarako organo gorena izatea da'*. Euskal kooperatibismoaren ordezkartza instituzionalaren barnean kokatu behar da²³⁴. Hau ez da kooperatiben sektoreko elementu eskusiboa, lan esparruan erabili izan den tresna da. Botere publikoen eta gainerako agente sozialen aurrean presentzia soziala egikaritzeko beharretik eratorri da.

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak nahiz eta legeak kooperatiben ordezkartza izatea aitortu, teknikoki ezin du ordezkartza legitimorik izan. Hala ere, 1/82 legea indarrean egon zen bitartean ordezkartza eraman zuen. 1996ko ekainaren 18an Euskadiko Kooperatiben Konfederazioaren sorrera gertatzen da eta beronek hartuko du ordezkartza. Presentzia eta ahots instituzionala izatea dakar horrek berarekin. Kooperatibismoaren gaineko politikak definitzerako orduan, presio eta negoziazio gaitasuna izatea, lirateke ordezkartzak bere gain hartuko lituzkeen funtzioak. Hastapenetan kontraesan bat dagoela esan daiteke. Argitasuna falta da eta erredakzioa ere ez da oso zehatza. Argitasun falta zuzentzera dator 4/93 Legea.



²³⁴ Badira beste bi egitura pareko gurean. Lan Harremanen Kontseilua (CRL/LHK) bata; Euskal Autonomia Erkidegoaren erakunde publikoa da. Sindikatu eta enpresari konfederazioen arteko elkarrizketa eta topaketa gunea da eta Eusko Jaurlaritzaren eta Legebiltzarraren gai soziolaboretarako kontsulta organoa da. Kontseiluaren kideak aipatutako erakundeek aukeratzen dituzte praitarioki. Eta bestea, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea Jaurlaritzaren eta Legebiltzarraren aholkularitza-erakundea da, eta bere helburua hainbat ekonomia eta gizarte-arduradunek Euskal Herriko politika ekonomikoan parte hartzea da. Batzordeak berezko nortasun juridikoa du, EAEko Administrazioak duena ez bezalakoa, eta erabateko gaitasuna eta askatasuna ditu bere zereginak betetzeko.


Kontseiluaren izaera eta osaketa ikusita, argi ikus daiteke, ezin dela euskal kooperatibismoaren ordezkariak daraman erakundea izan. Ezin du inolako ordezkari bat hartu euskal kooperatibismoa konprometuz. Euskal Kooperatibismoaren ordezkariak Euskadiko Kooperatiben Konfederazioari dagokio.

Antinomia hutsa litzake Goren Kontseilua euskal kooperatibismoaren ordezkaria dela aitortzea, administrazioak sortu eta diseinatutako egitura bat denean.

Ikuspegi kooperatibo batetik ere ezin daiteke esan kooperatiben ordezkariak ematen denik Kontseiluan. Kooperatiben ordezkariak bat izan arren, ezin daiteke esan ordezkariak identifikazio osoa dagoenik. Ez dago Kontseilura afiliatzeko inolako obligazio juridikorik beraz, ez da Konstituzioko 52 artikulua jasotzen dituen organizazio moten artean kokatzen, honek beste erregimen normatibo bat suposatuko lukelako²³⁵.

Euskadiko Kooperatiben Kontseilua interesen konbergentziarako bilgune eta eztabaida gunea da. Administrazioaren aurrean kooperatibek ahotsa eta partehartzeko aukera duten foroak da eta administrazioa eta kooperatiben arteko harremana harmonizatzeko lekua da. Euskal kooperatibismoaren interlokutore ofiziala da. Mugimendua ordezkariak duen arren, ez da errepresentagarria. Bozeramailea izan daiteke eta baita hainbat forotara kooperatiben ahotsa eramanez baina ez ditu kooperatibak ordezkariak.

1/82 Legeko 70 artikuluan euskal kooperatibismoaren gainean ahalmen garrantzitsuak dituen entitate sendoa bat sortzen da. Ordura arteko organotatik desberdina eta ezezaguna den organoa da. Kontseiluak daukan formulazioetatik eta dituen funtzioetatik ezin da kokatu ekainaren 3ko 7/81ko Gobernu legeak jasotzen dituen egitura juridiko administratibotako batean



²³⁵ Artículo 52. La Ley regulará las organizaciones profesionales que contribuyan a la defensa de los intereses económicos que les sean propios. Su estructura interna y funcionamiento deberán ser democráticos.

OCB-rekin alderantzikoa gertatzen zen. Derrigorra zen OCB bazkide izatea. Orain nahiz eta lege aldetik derrigortasunik ez izan euren baliabideak baliatzen dituzte bazkideak hori eman dadin.

ere. Egitura 'sui-generis' bat da. 1987 Lege orokorrak eta gainerako Lege kooperatibo autonomikoek ere jasotzen ez duten egitura bat.

Lege batek sortu duenez eta Euskal Komunitate Autonomoko Aurrekontu Orokorretatik finantzatuta dagoenez, partehartze instituzionalaren baitan kokatutako organoa dela esan daiteke. Nahiz eta legeak organo hitza erabili, ez da hau termino egokia. Ez dago Administrazioaren menpe, ez hierarkiko eta ez helburu zuzenetan ere ez dagoelako loturarik. Ez dago tutoretza harremanik ez eta funtzio identifikaziorik ere. Ez dago egitura juridiko administratiboaren barnean kokatuta.

Euskal Administrazioak badauka organizazio ahalmen nahikoa interes orokorrekoa den organo edo entitatea sortzeko eta abiapuntu horretatik sortzen da Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua.

Kontseilua entitate bat da eta ezin da organo kategoria administratiboaren baitan kokatu beraz, bere izena, ez dator bat bere izaerarekin. Entitate kalifikazioa litzake zuzenena. Hala ere, legearen izendapen literala organo izanik onartu egin behar da nahiz eta ondoren pertsonalitate juridikoa esleitzen dion.

1/82 Legeak beraz, Kontseiluari pertsonalitate juridiko osoa eta jarduteko gaitasuna aitortzen dio. Organismo publiko titulua esleitzea ekiditen da baina, ez da zalantzan jartzen entitatearen izaera juridiko publikoa. Horregatik Kontseilua zuzenbide publikoaren menpe geratzen da eta ez pribatuaren menpe. Ez da organismo administratibo bat ez eta Administrazioak bere helburuak betetzeko duen tresna bat ere, entitate publiko bat da, legeak holaxe sortu duelako.

Kontseilua ez da oinarri pribatua duen korporazio publiko bat, nahiz eta hainbat ezaugarri konpartitzen dituen ez da zehazki korporazio bat. Ezta ere administrazioaren deszentralizatzeko bide edo tresna bat eta bere finantziak Euskal Komunitate Autonomoaren Aurrekontu Orokorretatik eratortzen da.

Kontseilua botere erabaki baten ondorioz sortzen da eta ez bere kideen borondatezko akordio moduan; azken hau da korporazioei pertsonalitate juridikoa esleitzen dien ezaugarria. Ez dauka beraz izaera juridiko zehatz bat; eta lege erregimen zehatzik ez izateak nolabaiteko iluntasun batean kokatzen du Kontseilua.

Ezta ere Administrazio Orokorreko parte, ez dagoelako Gobernuaren Legeko 53 artikuluan jasota. Ezta ere organismo autonomo bat, ez dituelako Erakunde Estatal Autonomoen Legeko 6 artikulua dioena betetzen. Ezta ere kontsulta organo ohikoa nahiz eta izaera honen antz handia duen; informe eta aholkuak ematen dituelako.

Kontseilua da entitate publiko bat 1/82 legeak sortua delako eta zuzenbide publikoaren baitan dagoelako. Zuzenbide publikoak arautzen duenez Zuzenbide Administrazio eta Kontentziosoaren menpe dago.

Legegileak figura juridiko hau sortu nahi izan du desegituratuta izan arren, potentzialki etorkizun handia zeukan mugimendu kooperatiboaren interesen defentsan. Ortodoxiari baino garrantzi handiagoa ematen dio funtzionaltasunari legegileak.

1/82 legean Kontseiluaren finantziak Euskal Komunitate Autonomoko Aurrekontutatik hornituko dela esaten da. Finantza autonomia izatea oso garrantzitsua da Kontseiluak bere egituratze eta garapen propioa izan dezan.

Ez da ahaztu behar, Kontseiluaren helburua dela euskal kooperatibismoak bere ordenua, egitura eta benetan ordezkaria izango den egitura bat izatea. Euren baliabideekin finantzatuko dutena, hau da, Kooperatiben Konfederazioa.

Kontseiluak orokorrean finantzazio publikoa dauka hala ere, baditu beste finantzazio iturri batzuk ere: santzio prozeduratik eratorritako sarrerak; kooperatiba desegiten denean Hezkuntza eta Sustapen Kooperatibotik % 10a; argitalpen eta formazio ekintzetatik eratorritako sarrerak. Kontseiluak Federazioak finantzatzen ditu, ohiko era batean: hau da bere funtzionamendurako; eta ez ohiko era batean: ekintza eta programa zehatzetarako. Kontseiluak Federazioei egiten dien ekarpena gutxituz doa, ulertzen baitute federazioek euren autofinantzaketari aurre egin behar diotela. Eta Kontseiluarekiko mendekotasuna amaitu beharra daukatela.

4/93 Legearen onarpena gertatzen denerako Kontseilua dagoeneko pieza garrantzitsua bihurtuta dago Federazioen ardazte eta egituratzean. 1983ko urtarrilaren 28an sortzen da formalki Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Gorena eta hasiera ematen zaio etapa berriari euskal kooperatibismoan.

Kooperatibismoaren beharrak aldatzen direlako batetik eta federazioak sortzen direlako bestetik, errazago gertatzen da Kontseiluari izaera zehatzago eta mugatuago bat ematea.

Lege berriak berriro aipatzen du interes sozial terminoa kooperatiben gainean euskal botere publikoek egikaritu beharreko sustapen, bultzada eta garapen ekintzak justifikatzeko argudio gisa. Eusko Jaurlaritzak interes soziala oinarri duela sistema kooperatiboarekiko interes berezia adierazten du.

4/93 Legeko 145 artikulua dio kooperatibismoaren promozio eta difusiorako organo gorena dela Euskal Kooperatiben Goren Kontseilua; kooperatibismoaren gainean eragina duten


gaietan, euskal administrazioaren egitura publiko aholkulari eta kontsultazkoa da; bere funtzioak betetzeko pertsonalitate juridikoa eta jarduteko gaitasuna dauka.

Lege berriarekin desagertzen da Kontseiluaren ordezkari funtzioa eta ordura arteko nahasmena argitzera datorren aldaketa garrantzitsua dela esan behar da. Federazioak eta bereziki Konfederazioak dira ordezkari hori euren gain hartzen dutenak²³⁶. Euskal mugimendu kooperatiboa ordezkatzeko ardura egitura kooperatiboak izan behar dute. Eta egoera bideratzeko 1/82 legeak ezartzen duena aldatuz, Kontseiluak ordezkari izateari utziko dio.

Lege berrian hainbat alderdi mantentzen dira. Esate baterako 'organo gorena' terminoa. Baina soilik promozio eta difusioarekin zerikusia daukaten gaien gainean. Nahasmena sortzen duten terminoak mantentzen dira: 'organo' terminoa batetik eta 'gorena' terminoa bestetik; bigarren hau seguruenik, Kontseiluak bai Administrazioarekiko eta bai mugimendu kooperatiboarekiko daukan papera azpimarratze aldera. 'Gorena' ulertu ahal izango litzake kooperatibistak eta Administrazioaren arteko ulertze eta lankidetzarako gune goren gisa.

Lege berrian Kontseilua kooperatibismoaren sustapen eta hedapenarekin erlazionatu nahi da. Promozioa eta hedapena Eusko Jaurlaritzak, interes soziala eta erabilera publikoan oinarrituta ulertzen ditu eta hau gainera Kontseiluak Administrazioarekin izan beharreko lankidetzaren baitan²³⁷.

Badirudi lege berriarekin kontsulta funtzioa esleitzean Kontseiluari sustapen, promozio eta hedapen funtzioak kendu egiten zaizkiola, baina hau ez da horrela. Konstituzioari jarraituz ez



²³⁶ 4/93 Legeko Laugarren Xedapen Iragankorrek honela dio, 'ahalegina egin da Kontseiluaren funtzioak (organo juridiko publiko gisa) bereizten mugimendu kooperatiboa osatzen duten gainerako egituren funtzionatik. Bereizki, ordezkari funtzioa. Funtzio hau Euskadiko Kooperatiben Konfederazioari dagokio'.

²³⁷ Legeak 137 artikuluan honako aipamena egiten du, 'Eusko Jaurlaritzak, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren laguntzarekin, sistema kooperatiboaren aukeren gaineko informazioa sustatuko du; bereziki, enplegu berria sortzeko aukeren gaineko eta Euskadiko enpresa ertain eta txikien arazoan gainekoa. Honekin batera hedapen, hezkuntza eta orientazio programak lantzea bultzatuko du interlokutore sozialentzako lagungarri izan dadin'.

dago inongo galerazpenik hau honela izan dadin. Gehiago oraindik Konstituzioari jarraituz obligazioa dago funtzio horiek betetzen jarraitzeko. Konstituzioko 129 artikulua arabera kooperatibismoaren onuran funtzio hauek betetzen jarraitu beharra dauka Kontseiluak.

Honela, Kontseilua da kontsultarako eta aholkurako entitatea. Egitura kooperatibotik bereiztuta egonik, Administrazioetik gertu dagoena. Kontseiluaren eskuduntza esparruan administrazio guztiak daude: Administrazio Orokorra, Forala, Lokalak eta Administrazio Instituzionala.

4/93 Legean aholku eta kontsulta funtzioa ongi definituta azaltzen zaizkigu. Derrigorra izango da kooperatibismoarekin zerikusia daukaten lege eta erregelamenduen onarpenerako Kontseiluari informea eskatzea. ' Zuzenean kooperatibismoarekin zerikusia duten gaietan ' esaldia zentzu zabalean eta ez itxian ulertu beharra dago. Ulertu behar da eraginak zuzena izan behar duela kooperatiben edo hauen erakundeen gainean.

Kontseilua da Euskal Administrazioaren aholku eta kontsulta organoa. Funtzio honen baitan kokatzen dira Kontseiluari esleitzen zaizkion beste bi lan esparruok ere: erregimen legal eta instituzionalaren hobekuntzan laguntzea batetik eta Kooperatiba legearen eta printzipioen betetzea zaintzea bestetik.

Osaketa hirukoitza dauka: Administrazioa, kooperatibistak eta Unibertsitatea.

1/82ko Legean, Kontseiluaren funtzioak aztertzean, ipar falta, argitasun gutxi eta inprobisazio maila altua aurkitzen ditugu. Administrazioaren eta kooperatibisten aldetik sumatzen da mugimendu kooperatiboari bultzada emateko borondatea baina, ez da nahikoa.

Kontseiluaren izaera, funtzioak eta helburuak argitzeko legea ematen da baina, dibortzioa ez dago hor. Garai haietan, Administrazioak eta kooperatibistak garbi ez dutena da, kooperatibismoaren bultzada, sustapena eta garapenaren egikaritzea eta zuzendaritzea erreala noren ardurapean dauden.

Argi ikus daitekeenez, kontseiluak bere hastapenetatik dauka auto-definizio arazoa. Kooperatiba mugimendutik bertatik sortu ez den egitura izanik derrigortuta daude euren izaera definitu eta Administrazioak sortutako formulazio juridiko batekin euren burua janztera.

Kooperatibistentzako foro interesgarria da Kontseilua, besteak beste, euren beharrak eta egoera zein diren azaltzeko gunea eskaintzen duelako. Hala ere, ez da gestionatzen erraza den gaia, kooperatiba errealitatea, oso errealitate anitza delako. Aniztasun honek Kontseiluaren zeregin, funtzio eta ahalmenak hobeto definitzea eta argitzea eragin du.

Kooperatibisten ikuspegia oso garrantzitsua da, eurak baitira egoeraren eta lehentasunen berri dauzkatenak. Era honetara hiru norabidetan jokatzeko du Kontseiluak: informazioa biltzen du,


informazioaren eztabaida eta azterketarako gune bezala balio du, eta kooperatibismoaren irizpide orokorrak, misioa eta funtzioak definitzeko gune ere bada. Hauetaz gain, Kontseiluak beste funtzio oinarrizko zein osagarri batzuk ere bete behar dituela argi ikusten da.

1/82 eta 4/93 legeetan jasotzen diren Kontseiluaren funtzioak aztertzerako orduan hiru dira kontutan izan beharreko elementuak: printzipio gidatzaile nagusi gisa 'sustapen kooperatiboa' dagoela batetik, aipatutako hiru dimentsiotan (informazio bilketa eta eztabaida leku eta kooperatibismoaren irizpide orokorrak definitzeko gune) betetzen duen papera bestetik eta azkenik, kooperatibistak eurak, Kontseiluan betetzen duten papera. Azpimarratzekoa da, Kontseiluak ez duela bere lana lege markoan oinarrituta soilik burutu, kooperatibismoaren beharrak izan dira sortze arrazoi nagusiak.

Mugimendu kooperatiboaren printzipioen hedapena litzake lehenengo funtzioa. Kontseiluak duen izaera berezia kontutan izanik, egoera berezia dela esan genezake, entitate publiko batek pentsamendu ekonomiko sozial baten propaganda egitea. Honen oinarria eta justifikazioa Konstituzioko 129.2 artikuluan aurkitzen da²³⁸. Artikuluak, formazio kooperatiboa hedatzea positibotzat jotzen du.

Esan berri dugun moduan, Konfederazio eta Federazioen sortzearekin batera, Kontseiluak betetzen zuen funtzio nagusietako bat Konfederaziora pasatzen da. Konfederazioak ordezkari funtzioa hartzeak, ez du eragotziko Kontseiluak hedapen, sustapen, promozio eta hezkuntza kooperatibo funtzioa betetzen jarraitzea. Promozio kooperatiboa ez da soilik egitura ekonomiko bati babesa eskaintzea.

Azpiegitura ekonomikoari garrantzia kendu gabe, kontsideratzen da pentsamendu kooperatiboa ezagutarazteak garrantzia daukala. Kontseiluaren hastapenetan bi izan dira elementu esanguratsuak: batetik, euskal kooperatibengana gerturatzea hauen egoera zein den hobeto




²³⁸ Espainiar Konstituzioa. Artículo 129. (...) 2. Botere publikoak enpresan partehartze era desberdinak bultzatuko dituzte eta kooperatibak sustatuko dituzte legedi egokien bidez. Langileak ekoizpen bitartekoak eskuratzeko bideak ere ezarriko dituzte.

ezagutzeko; eta bestetik, kooperatibei ikustaraztea, euren helburuak aurrera eramateko beharrezko dutela eraginkorrak izatea.

Formazioa eta babes ekonomikoa beharrezkoak dira eta ondorioz, sustapen kooperatiboaren oinarritzko zutabe bilakatzen dira. Beste hainbat bideren artean, difusiorako programen finantziatorako subentzioak emanaz gauzatuko da funtzio hau. Sustapenaren alboan, bigarren funtzio garrantzitsua, kooperatiben konfederazioak sortzea legoke.

1986tik aurrera, Kontseiluak betetzen duen beste funtzio azpimarragarri bat kooperatibismoaren dibulgazioa dugu. Kooperatibisten eta gizarte osoarengan eragina duten ekitaldiak antolatuz gauzatzen da, besteak beste. Dibulgazio ekintza hauen bidez, filosofia kooperatiboa, euskal kooperatibismoa eta Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua publiko egitea lortzen da.

Bigarren funtzio nagusi moduan daukagu, Kooperatiba Legearen eta printzipio kooperatiboaren betetzea bermatzeko Administrazioarekin lankidetzan jardutea²³⁹.



²³⁹ 4/93 Legeko 145.2 c) artikuluan oinarria duen, CAPITULO II: CONSEJO SUPERIOR DE COOPERATIVAS DE EUSKADI

Artículo 145. Naturaleza, composición y funciones

1. El Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi, constituido como máximo órgano de promoción y cooperativismo, se configura como una entidad pública de carácter consultivo y asesor de las administraciones públicas vascas para todos los temas que afecten al cooperativismo. Gozará de personalidad jurídica propia y capacidad de obrar para el cumplimiento de sus funciones.

2. Corresponden al Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi las funciones siguientes:

a) Difundir los principios del movimiento cooperativo, facilitar y colaborar en la investigación, planificación y ejecución de los programas de desarrollo y fomento del cooperativismo, y promover la educación y formación cooperativa.

b) Informar, con carácter preceptivo, los proyectos de disposiciones legales y reglamentarias que afecten directamente a las cooperativas o a sus organizaciones, así como realizar estudios, proposiciones y dictámenes obre materias de su competencia.

Funtzio hau 4/93 legeak esplizitatu egin duen arren, esan daiteke, 1/82ak ere aitortzen zuen eskuduntza bat dela. Kontseiluaren izaeratik ere, ondorioztatu daiteke administrazioarekin lankidetzan jarduteko beharra. Funtzioaren garrantzia azpimarratu behar da, ez soilik beronen aplikazioak dituen ondorioengatik baita, Kontseiluaren izateko arrazoia honetan oinarritzen delako ere. Lankidetzeta eta elkarrizketaren bidez soilik ahalbidetzen da Administrazioak bere lana hobeto bete ahal izateko baldintzak ezartzea eta kooperatibismoaren onurarako diren ekintzak planifikatzeko aukera izatea.

Legegileak argi utzi du Kontseilua, Administrazioaren aholku eta kontsulta organoa den arren, ez dela Administrazioako parte. Ez da Administrazioako parte baina, ez du beronengandik aparte jarduten. Hau litzake, Kontseiluaren izaera juridiko partikular eta bereziaren oinarria.

‘Legearen betearazpenerako Administrazioarekin kolaboratzea’ ez da oso esaldi garbia. Administrazioak bere tresna propioak ditu bere lana betetzeko, legalitate printzipioan oinarrituta. Galdera beraz litzake: zein lankidetzeta motetaz ari da?

Kontseiluak funtzio bikoitza betetzen du: batetik, gai kooperatiboetan entitate tekniko- juridikoa da; honek administrazioari aukera eskaintzen dio euskal kooperatibismoaren gainean ezagutza kualifikatuaz gozatzeko. Honek legearen betearazpena bermatzen du.

Eta bestetik, Kontseiluaren beharra daukanean aholku eta kontsulta organo moduan. Behar hau honako kasu hauetan ematen da:

- Sistema kooperatiboaren aplikaziorako aukerak aztertzeke; hedapen eta formazio programak aurrera eramateko.
- Sozietate eraldaketa kasutan homologazioa emateko.
- Eraldaketatik geratu diren Derrigorrezko Erreserba Fondoen balio nominala kreditatzeko.
- Disoluzio kasutan Kontseiluak interesatu gisa jokatzeko du.
- Likidatzaileen izendapenean interesatu papera betetzen du.

c) Colaborar con la Administración en orden a la difusión y cumplimiento de lo previsto en la presente Ley y en especial, de los principios cooperativos.

- Hezkuntza eta Sustapen Kooperatiborako fondoetan ondare sozialaren adjudikazioa egiten zaio Kontseiluari.
- Derrigorrezko Erreserba Fondoaren banagarritasuna jaso ahal izateko Estatutu Sozialetan Kontseiluaren baimena behar da.
- Hutsegite larriengatik zigor espedientea zabaldu behar denean Kontseiluaren informea beharrezkoa izango da.
- Kooperatiba baten deskalifikaziorako Kontseiluaren informea beharrezkoa izango da.
- Kooperatiba baten aldi baterako esku hartzerako Kontseiluaren informea beharrezkoa izango da.
- Lege eta erregelamenduen proposamenak egiteko beharrezko azterketa eta txostenak egitea.

Hirugarren funtzio moduan euren kompetenziakoak diren erregulazio legal eta erregelamenduzkotan ikerketa, proposamenak eta diktamenak egitea legoke.

Hau litzake Kontseilua juridikoki sostengatzen duen funtzioa bere kontsulta eta aholku izaerarekin lotuta beti ere. 1983 eta 1988 urte bitartean litekeena da federazioak sortzean eta bultzatzean egindako lanagatik funtzio hau ez bete izana. Kontseiluak burututako lana aztertzean ikus daiteke 1988tik aurrera hasiko dela funtzio hau betetzen. Honek erakusten du Kontseiluak beharrezko duela alde aurretik errealitate kooperatiboaren ezagutza bat izatea, euren iturrirara gerturatzea eta bere funtzioak egoki betetzen jakingo duen egitura bat sortzea.

Prozesu hau bizitzea beharrezkoa du Kontseiluak. Funtzio hau ezin da zentzu murriztean interpretatu. Ez dira soilik derrigorrez Kontseiluaren eskutatik pasa beharrekoak baita, intereseko gaiak direlako tratatu beharrekoak ere.

Euskal Komunitate Autonomoko erregimen legal eta instituzionalaren hobekuntzan ekarpena egiten du. Honi dagokionez esan behar da funtzio bat beharrezko Kontseiluak euskal administrazioen kontsulta eta aholku organo izatearen ondorio bat dela. Hemen argi ikus daiteke Kontseiluak euskal kooperatibismoaren alde burutzen duen jarduna; erregulazio juridikoa hobetuz, kooperatibismoaren gain eragina duten lege xedapenak aztertuz, eta lege xedapen hauen inguruan duen iritzia aditzera emanaz.

Kontseiluak duen osaketa anitza ikusiz bere ekarpena bideratzen da ordenamendu sozio-ekonomikoa hobetzera. Intentzio adierazpena gehiago da funtzioa baino.

Arbitraia Kooperatiboa, 70.2 artikulua eta 145.2 f) artikulua, 1/82 eta 4/93 legetan, litzake Kontseiluak burutzen duen beste funtzioetako bat.

Hau litzake Kontseiluak euskal kooperatibismoari egin dion ekarpen nagusietako bat. Kooperatiba pertsona juridiko pribatu bat denez gatazkan sartu daiteke harremana daukan beste edozein entitate edo pertsona fisiko zein juridikorekin.

Kooperatibentzat eta federazioentzat interes komuneak diren zerbitzuak eskaintzea: 70.2 d) artikulua 1/82 legean eta 145.2 d) artikulua 4/93 legean. Funtzio honi buruz ezer gutxi esan daitekeen arren badirudi asmoa izan dela kooperatibei eta federazioei eraginkorragoak izan daitezen azpiegitura bat eskaintzea. Ez da larregi garatu funtzio hau eta beraz, ezin da ezer askorik esan.

Kasu honetan kooperatiba euren eskaria beharrezkoa izatera litekeena da hauek motibazio falta izatean funtzio hau behar den moduan betetzeko baldintzak falta izatea. Kooperatiben aktibitate ezak ekarri du funtzio hau nahiko antzu geratzea. Agian federazioen koordinazio lana eta interkooperazioak behar adina indar hartzen dutenean indartuko da funtzio hau.

Kooperatiben federazioak eta euskal mugimendu kooperatiboaren egituratzea. Hau da hain zuzen ere Kontseiluak burutu duen funtzio nagusienetako eta horregatik merezi du atal garatuago bat berari eskaintzea. Kooperatiba Legeak ez dio espresuki esleitzen Kontseiluari Federazioak sortzeko ardura baina sustapen kooperatiboaren marko orokorraren baitan kokatzen da zeregin hau.

Euskadiko Kutxara elkartutako kooperatibek sortu duten elkartze egiturak ere motibazio baxuaren arrazoen artean kokatu behar da. Elkartze ekonomiko indartsu izateak berak eragin du beste elkartze beharrik ez sumatzea.

8.5.2.4. Ondorioak

- Kooperatiben Goren Kontseilua ez da batere figura ezaguna doktrina kooperatiboan.
- Ez da sortzen kooperatibista mugimenduaren kezkatik baizik eta estatu inspiraziotik. Honetan OCB-ren sorrerarekin antzekotasun handia.

- Kontseiluak bultzatu zuen euskal kooperatiben elkartzea beste herrialde batzutan ez bezala; Ingalaterran esaterako kooperatibisten ekimenez sortzen da. Euskadin administrazioa izango da sektore kooperatiboaren laguntzarekin ekimenaren gestioa eramango duena.
- Kontseiluak, kooperatibak administrazioarekin duten harremana hobetzen lagundu du eta lankidetzarako eredu on bat bilakatu da.

8.5.2.5. Gaurko errealitatea

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua CSCE-EKGK otsailaren 11ko 1/1982 Euskal Herriko Kooperatibei buruzko legeak onartu zuen. Kontseiluaren ibilbidea azertu dugunean ikusi dugu hasierako urtetan euskal kooperatibismoa egituratzeko egindako ahaleginak azpimarratzekoak izan zirela. Kooperatiben Federazioak martxan jartzen eta erakundeari nazioartean mailan presentzia ematen ahalegina egin zuen (1988ko urrian egingo da CSCE-EKGK Nazioarteko Kooperatiba Aliantzako kide).

1988 eta 1991 artean hasiko dira martxan Kooperatiben Federazioak, eta CSCE-EKGK-ak, erakunde horien bidez bideratzen ditu mugimendu kooperatiboaren kezkak eta proposamenak jokaleku berrian bere identitate kooperatiboarekin kokatzeko.

7 ordezkari, Kooperatiben Federazioetakoak:

- * ELEKF (Euskadiko Lan Elkartuko Koop. Federazioa) (2)
- * ENKF (Euskadiko Nekazari Koop. Federazioa) (1)
- * EIKF (Euskadiko Irakaskuntza Koop. Federazioa) (1)
- * EKKF (Euskadiko Kontsumo Koop. Federazioa) (1)
- * EGKF (Euskadiko Garraiolarien Koop. Federazioa) (1)
- * EKKF (Euskadiko Kreditu Koop. Federazioa) (1)

3 ordezkari, Eusko Jaurlaritzakoak

3 ordezkari, Euskal Herriko Unibertsitateetakoak

- * E.H.U. (Euskal Herriko Unibertsitatea)
- * M. U. (Mondragon Unibertsitatea)
- * Deustuko Unibertsitatea

Nahiz eta nagusitasuna federazioek duten, berez, federazio guztien bilgunea delako, ordezkartza publikoa ere badago. Bere zeregin edo funtzio nagusia honela definitzen du Kontseiluak berak.

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua (CSCE-EKGK), kooperatibismoa sustatu eta zabaltzeko topaketa-organoa da, eta Euskal Herri-Administrazioen aholkularia da kooperatibismoari buruzko gai guztietan. Halaber, balio eta printzipio kooperatiboak bere gain hartu, horien alde egin eta sustatu eta zabalduko ditu.

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua arautzen duen Ebazpena 2000ko martxoaren 2koa da. Bere 1 artikulua Kontseiluaren izaera honela definitzen du: Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua, kooperatibismoa sustatu eta zabaltzeko organo gorena da, erakunde publikoa da, Euskal Herri-Administrazioen kontsulta eta aholkularitzarako organo kooperatibismoari buruzko gai guztietan.

OCB-k Brasilen betetzen dituen hainbat funtzio ditu baina, alde nabarmena da EKGK egitura publikoa dela. Honela beraz, erregistroak eta kontseiluak biak ala biak egitura publikoak izanik, betetzen dituzte OCB-k Brasilen betetzen dituenak. Egitura publikoa da eta bere zereginen artean dago kooperatibismoa sustatu eta zabaltzeko ardura. Horretaz gain, administrazio publikoaren aholkularia ere bada kooperatibismo gaietan. Balore eta printzipioen zaintza ere badagokio Goren Kontseiluari.

Eginkizun zehaztutara etorriz, hona Euskadiko Goren Kontseiluaren Antolaketa eta Jarduera araudiaren 5, 6, 7, 8 eta 9 artikulua esleitzen dizkion zereginak:

- Sustapena
- Zabalkundea
- Arbitrajea
- Kontsulta eta aholkularitza
- Lankidetzak

Eginkizun hauek ahalik eta hobekien betetzeko araudiak beharrezko jotzen du Kontseiluak plangintza eta koordinazioa erabiltzea. Euskadiko Kooperatiben Konfederazioarekin eta arlo bakoitzeko federazioekin batetik, eta Administrazio Publikoarekin bestetik.

Konfederazio eta Federazioekin sinergia globalak lortzea helburu izango du eta legeak berak honela definitzen ditu zereginak:

5 artikulua, SUSTAPENA definitzen du:

Sustapen-eginkizunaren eduki operatiboak honako hauek dira:

- *Kooperatibismoa garatzeko programak ikertzea, planifikatzea eta betetzen parte hartzea erraztea eta laguntzea.*
- *Herri Administrazio, Konfederazio eta Federazioekin koordinatuta, kooperatiba-enpresa berriak bultzatzea eta sortuta daudenak sendotzea.*
- *Kooperatiba- mugimenduaren erakundezko egituraketa sustatzea.*
- *Konfederazioarentzat, Federazioentzat eta kooperatibentzat interes komunekoa zerbitzuak antolatzea.*
- *Kooperatiba-legeria ahalik eta gehien garatu dadin eragitea.*
- *Beste edozein, sustapen-arloan sartzeko modukoa izanik, Goren Kontseiluaren Osoko Bilkurak onartzen badu.*

6 artikulua, ZABALKUNDEA definitzen du:

Zabalkunde-eginkizunaren eduki operatiboak honako hauek izango dira:

- *Kooperatiba-identitatearen baloreak eta printzipioak zabaltzea.*
- *Gizarte-eragile eta herri-erakundeei sistema kooperatiboaren gaitasunen, bere gizarte-eginkizunaren eta bere errealitateen berri ematea, kooperatibismoaren Balantze Sozialaren bidez, batez ere.*
- *Heziketa eta prestakuntza kooperatiboa sustatzea.*
- *Organoaren helburu eta ekintzak sistematikoki jakinaraztea, barruan nahiz kanpoan.*

Beste edozein, zabalkunde arloan sartzeko modukoa izanik, Goren Kontseiluko Osoko Bilkurak onartzen badu.

7 artikulua, ARBITRAJEA definitzen du:

Arbitraje-eginkizunaren eduki operatiboak honako hauek izango dira

- *Kooperatiben artean, hauen eta beren bazkideen artean, edo kooperatiba barruan bazkideen artean sortzen diren gatazketan esku hartzea arbitrajea eginez, Euskadiko Kooperatiben Legeak ezartzen dituen kasuetan eta baldintza orokorrak beteaz.*

- *Kooperatiben baitako gatazken konponbide alternatibo gisa adiskidetzea bultzatzea.*
- *Horretarako, eta ahalik eta segurtasun juridiko handiena lortzeko, Arbitraje Araudia onartu eta aldatzea.*
- *Arbitraje Araudia aplikatzea Kooperatiben Arbitrajeko Euskal Zerbitzuaren bidez, hau baita arbitrajeak administratzeko ardura duen erakundea.(...)*

8 artikulua, KONTSULTA ETA AHOLKULARITZA definitzen ditu:

Kontsulta eta aholkularitza-eginkizunaren eduki operatiboak honako hauek izango dira:

- *Eusko Jaurlaritzak eta gainerako Herri Administrazioek eskatutakoan, legezko eta arauzko xedapen-proiektuei buruz agindutako txostenak egitea, eta beroien alde egitea eskatzaileek aurrean.*
- *Txostenak, aginduzkoak direnean, Herri Administrazioek benetan eska ditzaten arduratzea eta, bestela, txostena eskatu ez denean, xedapen horien aurka egitea.*
- *Kooperatiben esparruko arauketa-proiektuak proposatzea, baita zerga-araudi berezia ere Foru Aldundietan.*
- *Bere eskumeneko gaiei buruz azterlanak, proposamenak eta irizpenak egitea, dagozkien instantziei kontuan hartzeko eskatuz.*
- *Beste edozein, kontsulta eta aholkularitza-arloan sartzeko modukoa izanik, Goren Kontseiluaren Osoko Bilkurak onartzen badu.*

9 artikulua, LANKIDETZA definitzen du:

Lankidetzaren eduki operatiboak honako hauek izango dira:

- *Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomi eta gizarte-antolaketa hobetzeko Herri Administrazioek egiten dizkioten eskaerei erantzutea.*
- *Eusko Legebiltzarrean aldizkako presentzia sustatu eta sistematizatzea, egindako ekintza eta etorkizunerako helburu estrategikoak azaldu ahal izateko.*

- *Erakunde zko harremanetan eta Herri Administrazioetatik eskatzen zaizkion gainerako ekarpenetan parte hartzea.*
- *Gainerako Herri Administrazioekin koordinatuta, Euskadiko Kooperatiben Legea ahalik eta gehien ezagutu eta egoki betetzeko beharrezko ekintzak zertzea.*

Erregistroak eta Kooperatiben Goren Kontseiluak betetzen dituzte kooperatiben gaineko eskuduntza eta ardura nagusiak. Lege aldetik bete beharreko baldintzen kontrola eta sustapena, laguntza, arbitrajea, aholkularitza eta lankidetzak.

OCB eta Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren artean antzekotasunak egon badadauden arren badaude baita desberdintzen dituzten elementuak (ikus. 296-300. OCB. Funtzioak).

- *Kontseilua nahiz eta Administrazioaren bulkadatik sortu zen gaur mugimendu kooperatiboaren errekonozimendu osoa dauka. Eta egiturak berak kooperatibismoaren interesak orokorrean defendatzen dituela esan genezake. OCB berriz, Diktadura garaian eta interes jakin batzuen arabera sortua izan zen eta gaur oraindik orain jarraitzen du helburu eta interes berdinak izaten; interes partikularrik eta ez kooperatibismo Brasildarrarenak oro har. Eta ez du inondik ere mugimendua osatzen duen gehiengoaren errekonozimendurik.*
- *OCB izaera partikularra daukan sozietate zibila da eta Kontseiluak, oso garbia ez den arren, badu eraketan eta osaketan publikotasuna esleitzen dion elementurik.*
- *Funtzioen artean ere Kontseiluak bere izaerarekin bat datozen funtzioak ditu esleitura gaur egunean. OCB-k aldiz, - banan banan aztertuko ditugu- bere izaera partikularretik ondoriozta ezinak diren funtzioak hartzen ditu bere gain. Nabarmena aipatzearen, OCB-k Kooperatibismo Brasildarraren ordezkari itza dauka eta EKGK ez; federazioak dira kooperatibak partehartzen duten egiturak eta ondorioz, ordezkari itza izan dezaketenak.*
- *OCB-ren estatutuak eta indarrean dagoen legea bera ere Konstituzio Federalak dioenaren aurka doaz.*


8.5.3. Euskadiko Lan Elkarteen, Irakaskuntza eta Kreditu Kooperatiben Federazioa eta Konfederazioa

Euskadiko Kooperatiben Konfederazioaren ideia 4/93 Legearen onarpena baino apur bat lehenago hasten da jorratzen. Konfederazioa sortzeko kezka Kontseiluaren baitan sortzen den arren, garbi dute Federazioak izan behar dutela erantzukizun hau bere gain hartu beharra daukatenak.

Aurrez esan berri dugu Kontseiluaren izaera kritikagarria dela hainbat alderditik begiratuta eta ikuspegi kooperatibotik begiratuta hutsunez josita dator. F. Vicent Chuliak Kontseiluaren izaeraren gainean honakoa esan zuen²⁴⁰: *‘Kontseiluaren baitan nahastu ezin diren alderdiak batzen dira; errepresentazio alderdia, errebindikazio alderdia eta aholkularitza eta arbitraia alderdia’*. Kritikagarriak diren alderdiak izan arren, euskal kooperatibismoak asko zor dio Kontseiluari. Kooperatibismoaren izen ona zabaltzen egin duen lanagatik batetik eta mugimendu kooperatiboaren interlokuzioa eramaten egindako lanagatik bestetik.

Indarrak eta sinergiak batzeko, mundu mailan ematen ari den joera da elkartzearena. Elkarlaguntzak indartu egiten du erronka potoloak dituen mugimendua. Manchesterren 1995ean onartu zen Nazioarteko Aliantza Kooperatiboaren Adierazpenak hainbat alderdi azpimarratu zituen: pertsonak gaitzearen garrantzia, kooperatiben eraginkortasuna, gazteen heziketa eta bereziki, esparru lokaleko kooperatiba begira ‘sistema handiago bateko parte direla frogatzeko daukaten obligazioa eta abantaila’.

Aipatu Adierazpenak kooperatibak euren erakunde eta jarduerak indartzera deitzen ditu. Erreza da kooperatiba partikularren kezkei begiratzea baina, zaila suertatzen da elkartasunean eta kooperatiben arteko lankidetzen oinarria duen kausa orokorrago baten gaineko kezka izatea. Bestalde beharrezkotzat jotzen du *‘gubernuekin hitz egiteko edo publikoari kooperatibismoa aurkezteko kooperatiba desbedinak batzea’*. Laburtuz, berebiziko garrantzia dauka indarrak bildu eta erronkei aurre egiteko kooperatibak biltzea.



²⁴⁰ Evolución de la Figura del Consejo Superior de Cooperativas en la Legislación Cooperativa Española: Aproximación al Estudio del Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi (Parte II: desde 1938). Dr. Pablo Buitron Andrade. Instituto de Estudios Cooperativos Universidad de Deusto.

4/93 Legea oinarri hartuta sortu zen 2006ko abenduaren 12an Erkide. Federazioaren helburuen artean honako hauek ditugu:

- *Lan Elkartuko, Irakaskuntzako eta Kredituko kooperatiben sektorearen ordezkari-tza instituzionala izatea.*
- *Lan Elkartuko, Irakaskuntzako eta Kredituko mugimendu kooperatiboaren defentsa eta sustapena.*
- *Informazioa eta aholkularitza teknikoa.*
- *Bazkideen, zuzendarien eta teknikoen formazioa.*
- *Enpresa interkooperazioaren sustapena.*
- *Kooperatiba berrien sustapena.*
- *Kooperatiba bazkideetuei zerbitzu prestazioa.*

Aipatu ditugun helburuak aurrera eramateko hona eskaintzen dituzten zerbitzuak:

- *Lan Elkartuko, Irakaskuntzako eta Kreditu kooperatibetako ordezkari-tza instituzionala izatea: Eusko Jaurlaritzan; Administrazio Zentralean; Foru Aldunditan; Udaletan eta beste hainbat erakundetan.*
- *Euskadiko Kooperatiben Konfederazioen bidez honako egituretan partehartzea: C.E.S 'Consejo Económico y Social Vasco' ; OSALAN 'Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales' eta EUSTAT 'Servicio Vasco de Estadística'.*
- *Kudeaketa tresnen diseinua: urteko kudeaketa planak; kostu kontrolerako sistemak; pertsonen asebetetzea neurtzeko tresnak; kudeaketaren kalitatea neurtzeko tresnak; komunikazio orokorrerako tresnak; ingurumenaren diagnosirako tresnak; kooperatibetan 5S-ak ezartzeko metodoak.*
- *Formazio tekniko eta kooperatiboa: bazkideentzako formazio kooperatiboa; organoentzako formazioa; kurtso teknikoak.*
- *Kreditu zerbitzua eta zerbitzu komertziala.*

- *Kontsulta eta arreta indibidualizatua: juridikoa, soziala, finantzarioa eta ekonomikoa.*
- *Legeen gaineko estudioak. Kooperatiben gain eragina duten legeen jarraipen eta estudioa; lege aldaketa proposamenak.*
- *Finantza bankuekin baldintza egokiak negoziatzeko zerbitzua: kooperatibara ekarpena egiteko maileguak; kooperatibari sortzeko finantza baliabideak lortzeko maileguak.*
- *Aseguru, finantza abal eta abal teknikoak, eta beste hainbat zerbitzu: erosketa, hornikuntza...*

Euskal Institutuzio kooperatiboetarako dagokienean esan behar da, Kontseiluak hainbat lege betearazpen funtzioetarako gain duen eskuduntza garrantzitsuena kooperatiben arteko auzietan arbitrajea eskaintzea dagoela. Kooperatiben erregistroa da, kooperatibak eraketan eta funtzionamenduan legea betetzen dutela frogatzeko eta bermatzeko dagoen tresna. Eta azkenik, esan behar da, federazio eta hauek batzen dituen konfederazioa dela eskuntza zabalena dituzten egiturak. Formazio, sustapena eta kooperatiben ordezkartza izatea dagokie. Eta hauek bai kooperatiben borondatezko afiliazioa dutenez, badute ordezkartza hau izateko legimititatea.

ONDORIOAK

ONDORIOAK

Euskal kooperatiba ereduaren eta Brasilgoaren ereduaren historiaren errebasoak irakatsi digu sorburu eta ibilbide desberdinak izan dituzten bi eredu direla. Oso abiapuntu eta ibilbide desberdinak izan arren euskal ereduak egin diezaioke ekarpena Brasilgoari.

Ondoren atera ditugun ondorioak zerrendatu eta garatuko ditugu. Norabide berean denak ere. Ondorioetan gure proposamenak jasotzen dira, beharrezkoa da ondoren, bertan eztabaidatu eta onartuak izatea. Hala onartuko balitz.

Arrasateko Kooperatiba Esperientzia heldu da enpresa bideragarritz osatutako talde bat izatera. Kooperatiba talde sendoa osatu du eta aldi berean, Euskal Herriko errealitate kooperatiboa indartzen lagundu du. Brasilgo kooperatibismoarentzat erreferente izan daiteke.

AKE Euskadiko 4/93 legean egite prozesuan eta ondorengo aldaketetan ere, protagonista izan da eta egituratze kooperatiboan ere, partehartze aktiboa izan du. Bere errealitate eta talde propioa sortzeaz gain, orokorrean eskaini dio babesa eta egin du ekarpena euskal errealitate kooperatiboan.

Brasilgo errealitate kooperatiboa sendotzeko eta suspertzeko badauka AKE-k zer eskainia. Honek ez du esanahi, zer ikasirik ez daukanik. AKE-k falta ditu seguruenik, Brasilgo Ekonomia Solidarioan indarrean dauden hainbat zentzu edo motibazio iturri. Arrasateko esperientzia sortu zenean bazegoen ingurumari zehatz bat, behar ekonomiko eta egoera politikoak markatuta eta ondoren egon dira klabe inportanteak (partehartze integrala, interkooperazio mekanismoak, efizientzia ekonomikoa eta sozialaren arteko oreka, pertsonetan oinarrituako egiturak..) esperientziak izan duen emaitza izatera lagundu dutenak.

Gaur gure errealitatetik begiratuta Brasilgo errealitate kooperatiboa berregituratzerako lagungarri izan daitezkeen hainbat elementu (lege kooperatibori egin dakioken aldaketak eta egituratze edo antolamendu kooperatiborako proposamenak) daude. Behar egoeran dauden sektoreak dira kooperatibak sortzeko ahalegina egiten ari direnak eta hain zuzen ere, hau izan zen motorretako bat Arrasaten ere. Behar izan egoerak eraginda sortzea.

Ekonomia Solidariotik datorren kooperatibismoa da kooperatibismo berrirako ernamuina eta dituzten balio eta printzipioak dira kooperatibismoaren aldarriarekin bat datozenak. Eta aldi berean da Teoria kritiko latinoamerikarraren postulatuekin koherentzia duen errealitatea.

Brasilen bi kooperatibismo mota daude 'aberatsen kooperatibismoa' eta 'behartsuen kooperatibismoa', eta Brasilgo Estatuak indarrean duen legediak lehenengo beharrei erantzuten die. Bada beraz, haustura ideologiko bat esplizitatez komeni dena. Teorian ez litzake bi kooperatibismoen artean bereizketarik egin beharko, hau da, 'egiazko kooperatibismo' eta 'kooperatibismo faltsu' baten artean. Honako elementu hauetan ezarri genezake indarra: a) mugimendu kooperatiboaren barnean dagoen gatazka politikoa; b) kooperatiba kontzeptuaren gaineko disputa; eta bigarren honen harira dator kooperatibismo hegemonikoaren (konbentzionala) eta kooperatibismo popularraren (autogestionarioa) arteko gatazka, lehena zalantzazkoa eta bigarrena nabarmenagoa.

5.764/71ko legeak ez du jakin kooperatibismoaren printzipio eta baloreak zaintzen eta babesten eta guzti hau, besteak beste, kooperatiben barnean soldatapeko lana onartu duelako.

Teoria kritiko latinoamerikarraren oinarrietatik Brasilgo errealitatera begira jarrita, uste dugu Ekonomia Solidariotik eraiki beharko litzateke legedi kooperatiboa. Ekonomia Solidarioak bere baitan hartzen ditu teoria kritikoaren helburu eta oinarriak.

Teoria kritikoaren berreraikitze proposamena zuzenean lotzen da sektore popularrekin. Borroka sozialen fruitu eta alternatibitatearen adierazpide izan nahi du. Diziplinartekotasunean oinarritutako proposamena da eta paradigma moduan begitnantzen du, partehartzailea izango den aniztasun juridiko komunitarioa.

Teoria honek defendatzen du iturri desbedinetaik datozen arautegiak egon behar direla: gatazka eta borroka sozialetatik datozenak, kontraesanetatik eta indar korrelazioetatik datozenak, eta baita giza errebindikazio eta giza beharrianetatik datozenak ere. Aniztasun juridiko latinoamerikarrak oinarritzko baldintza bat du: espazio irekiak, deszentralizatuak, partehartzaileak eta demokratikoak eraikitzea eta karentzia eta beharretatik eskubide 'berri'ak positibizatzea. Eguneroko interes indibidual eta kolektibo guztien sintesi bat da. Tradizionalki elitista, kontserbadorea, eta basatia izan den demokrazia liberal eta burgesak proiektatutako aniztasunari kontra egitera datorren proposamen bat da. Proposamenak beti lehenetsiko ditu sektore baztertuen interesak eta erabaki ahalmena duten gutxiengoak.

Aniztasun juridiko latinoamerikarra borroka, errebindikazio eta latinoamerikako gizartea osatzen duten, sektore zapaldu eta baztertuek mundua ikusteko daukaten moduaren fruitua da.

Balore berrien sorgunea izan behar da, bai eta, demokrazia eta justizia bizi eta ulertzeko beste modu bat ere. Bere baitan hartuko ditu: subjektu kolektibo berrien legitimitatea (mugimendu sozialak), beharrak asetzeko balio duen sistema baten egikaritzea moduan eta partehartzailea izango den espazio publiko baten deszentralizazioa eragingo dituen, elkartasun etikaren garapen pedagogikoa eta arrazionalitate emanzipatzaile baten prozesuen kontsolidazio izango dena.

Besteak beste estrategien artean politika partehartzaileagoen aldeko interesa piztea, praktika sozialetako espazioak berdefinitzea, eta sujeta politiko berriekin aliantza eta estrategiak burutzea (eta sortzearen dauden taldeen esperientziekin) gizarte zibila mobilizatu eta kontzientziatzea kokatzen dira. Estrategia hauen barnean beraz, kokatzen dugu Brasilen behar izan egoeran daudenen interesak defedentzeko sortzen ari den Ekonomia Solidarioa bera ere.

Brasilen kooperatibismo tradizionalaren ordezkari izan duen Organizaçao das Cooperativas Brasileiras-ek Kooperatibismoaren gaineko ordezkari eta gainerako eskuduntzak izaten jarraitzea kooperatibismoaren garapen bidean eragozpen bat da.

Ikusi dugu OCB-ren jatorria eta ibilbidea zein izan den eta baita gaur oraindik ere betetzen jarraitzen duen funtzioa eta dituen eskuduntzak. Badirudi aurrera begira onartze bidean dauden lege proiektu denak (OCB-renak izan ezik) aurreikusten dutela ordezkari bakarra iraungitzea. Beraz, brasilgo kooperatibismoaren gaineko interlokuzioa eta ordezkari berrantolatu behar da. Honen harira, euskal kooperatibagintzaren egituratzea izan daiteke erreferentzia egokia kooperatibismo brasildarra antolatzeke.

Ordezkaritza eta interlokuzioaz gain, gaur, oraindik OCB-k betetzen dituen erregistro funtzioak betetzeari utzi beharko lioke. OCB-ren boterea eta indarraren sostengu nagusietako bat da betetzen dituen eskuduntzetatik datorkiona beraz, beren beregi sortuko den kooperatiben erregistroari esleitu behar zaizkie eskuduntzok.

OCB-k urtetan zehar bete duen paperarekin eskarmentu eta ezagutza bat eskuratu duela garbi dago hala ere, onargarria ez dena da ezagutza eta eskarmentua soilik elkartera afiliatuta dauden kooperatiben onuran erabiltzea. Kooperatibismoaren interes orokorren defentsa egin beharko luke eta ez euren afiliatuen onuran soilik; kooperatibismoaren 'interes orokorren' alde baizik. Kooperatibismoan adituen iritzia behar denean OCB-ra kontsulta egitea zilegi da baina, aldi berean, orain errealitate kooperatiboa osatzera datozen elkarte edo egitura kooperatibo berriei ere espazioa utzi behar zaie.

Historikoki kooperatibismoaren titulupean jardun izan duten hainbat ekimen berez, izatez, ez dira izan kooperatiba baloreak praktikara eramán dituzten egiturak. Kooperatibak Brasilen bertako lan erregimenak ezartzen dituen eskubide eta obligazio sozialei ihes egiteko tresna izan dira.

CLT-n jasotzen diren lan eskubide eta obligazioetatik kanpo daude kooperatibak. Ez dauzkate brasilgo lan legediko eskakizunak bete beharrik eta hain zuzen ere, luzaroan formato honek eskaintzen duen askatasuna baliatu dute lana terzerizatzeke (azpikontrataziorako). Bitartekaritzarako tresna bihurtu dituzte kooperatibak. Honek kooperatiben ospe edo izen ona kaltetzea eragin du.

Kooperatiben erabilera okerra ekidin nahi bada beharrezkoa da lan bazkideen lan errejimena finkatzea. Lan Kooperatibak arautuko dituen legea onarpena bidean dago. Lege honek beharrezko du kooperatiben estatutu sozial eta barne araudiarekin osatutako eta indartutako marko orokor bat eskaintzea. Euskal eredia oso baliagarria da.

Norbere buruaren ugazaba izateak hau da, autonomo izateak, ez du suposatu behar derrigorrez lan baldintza kaxkarretan lan egin beharra. Kooperatiba egoera ekonomiko onean dagoenean bertako bazkide direnak lan baldintza duinak izateko eskubidea dute. Ez dira autonomoak soilik lan baldintza kaxkarrak dituztenak, baita inoren konturako langileak ere. Beharrezkoa da legediak gutxienekoak finkatzea; beti ere, kooperatiben autonomia printzipioa errespetatuz.

Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren garapenean ezinbesteko bidelagun izan den 4/93 Euskadiko Kooperatiben Legeak, baditu Brasilgo errealitate kooperatiborako lagungarri diren hainbat ekarpen.

4/93 legea era klasikoan sortua izan den legea izan da, teoria kritiko latinoamerikarra ikusi dugunean azaleratu diren kritikak aipatu daitezke une honetan. Gure proposamenak datoz sistema klasikoaren (legebiltzarrean egin den legea da eta beste eredu batzuk hartuz) arabera sortua izan den lege batetik. Egia da bestalde euskal mugimendu kooperatiboak izan duela zeresana legearen eraketa prozesuan, beraz, protagonisten eskutik sortua den legea dela esan daiteke. Agian norbaitek kritika luzatu dezake esanez, ez dela errealitate kooperatibo osoaren iritzia kontutan izan. Baina, bere argi eta ilunekin nahiko ongi ordezkaturako mugimenduak eginiko legea da.

Brasilgo kasura etorri eta teoria kritikoaren mezua gure eginez, lege kooperatiboaren sortze prozesuan, nahiz eta Ekonomia Solidarioko kooperatibek ordezkartza bakarra ez duten

ahalegina egin beharko litzake interes guneen iritziak kontutan hartuak izan daitezzen. Eurak dira sektore baztertu eta behar egoera larriaren ordezkariak dutenak eta beraz, legea euren neurrira egin beharko litzake.

Nire lege ekarpenetan kontutan hartuak izan dira euren iritziak eta behar egoera larriena dutenen iritziak errespetatzen ahalegina egin dut. Kooperatibismoak, Ekonomia Solidarioarekin eta teoria kritikoarekin daukan harremana oso estua eta aldi berean, koherentea eta konkordantea dela esan behar da. Balio eta irizpide antzekotan mugitzen direlako hirurak ere.

Brasilen indarrean den legera honako ekarpenak egiten ditugu:

- **Eraketarako gutxieneko bazkide kopurua eta gutxieneko kapital soziala.** Brasilgo kooperatiba legedian kooperatiba eratzeko gutxieneko bazkide kopurua hiru, bost edo zazpikoa izan beharko litzateke (ez dugu adostasunik ikusi kopurua zehazterako orduan). Oraingo hogeiko kopurua gehiegizkoa da. OCB-k hogeiki eskatzen jarraitzea salagarria da, azken finean, eskaera honen oinarri bakarra kooperatiben eraketa zailteza eta Ekonomia Solidarioari kooperatibak sortzerako orduan eragozpenak gehitzea delako.

Gutxieneko kapital soziala eskatzearen aldekoak gara. Ekimenak gutxieneko oinarri ekonomiko baten beharra dauka. Hori bai, ezintasun larrian dauden sektoreei ekimenak martxan jartzen laguntzeko eta batez ere, gutxieneko kapitala ipini ahal izateko laguntza eta babesa behar dutelakoan gaude. Beraz, gutxieneko kapital galdapenak behar du babestu eta laguntza eskainiko duen politika publiko egoki bat eta baita, banku publikoen babesa ere.

- **Bazkide tipologia berriak sartzeara.** Bazkide laguntzaile eta erabiltzaile figurak sartzearen aldeko proposamena egin dugu. Bazkide figurak kooperatiba lagundu, indartu eta aberastu dezakete. Interkooperazioa eta kooperatiben arteko sarea sortzeko tresna baliagarriak dira. Bazkide erabiltzaileak, besteak beste, bezeroak proiektuan integratu eta erabaki ahalmen bat emanaz fidelizatzeko balio lezake. Zerbitzu eta produktu hartzaile legez, proiektuan integratu eta bermatu, beste hornitzaile batzuek joatea kostako zaiola.

Bazkide laguntzailearen figura sartzeara ere aurreikusi dugu proposamenean. Bazkide laguntzaile figuraren bitartez proiektuari, lagundu nahi dionari kooperatiban sartzeko aukera eskaintzen zaio. Ez da behar bezero (zerbitzu edo produktua hartzaile) izaterik nahikoa da proiektuan laguntzeko interesa izatea. Erakunde publiko zein pribatu,

pertsona juridiko zein fisikok dauka aukera kooperatiban sartzeko filtro edo bide honen bidez.

Bestalde lan bazkidearen figura dago. Hemen arazoa terzierizazioarekin lotuta aurkitzen da. Lan bazkideek kooperatibaren bidez lan baldintza duinak lortzea helburu izan behar da. Lan erregimen duinarekin lan bazkidearekin figura indartzea ere beharrezkoa da. Zentzu honetan Lan Kooperatiben erregimena arautuz lege bat onartzea aurrerapen positiboa da. Jardunik gabeko bazkide figura daukagu, honen garrantzia erlatibizatu egin behar da. Hau kooperatiban jardun duten eta lotura eten dutenak haria mantentzeko modu bat besterik ez da.

Bazkidetza eta lan harremanaren artikulazioan daukagu iraunpen jakineko bazkidearen figura. Bazkidetza eta soldatapeko lan kontratuaren artean zubi lana egiten duen tresna da. Froga moduko bat litzake. Behin betiko izaera daukan bazkidetza lortu aurreko fasea. Erabilpen egoki batekin proposatzeko moduko figura da.

- **Bitariko kooperatibaren ezarpena.** Kooperatiba motak azaldu ditugu eta orokorrean antzekotasun handiak daudela esan daiteke. Bitariko kooperatiba sartzaren aldeko hautuak aldeko arrazoi nagusi moduan dauka, batetik, kooperatibara ekarpen ekonomikoa egiteko aukera zabaltzen duela eta bestetik, botere edo erabaki ahalmena ponderatzeko aukera eskaintzen duela.

Figura hau gurean sartu zenean kritikatu izan zen eta zalantzak sortu zituen kooperatiba mota izan zen. Gerora eta gaur inoiz baino gehiago, kooperatibak dituzten erronken aurrean oso figura erabilgarri eta praktikoa dela esan daiteke. Beste batzuren artean aipatu daitezke Kooperatiben nazioarteratzean edo filialak eskuratzean aukera interesgarriak eskaintzen dituela. Botere edo erabaki ahalmen nagusia mantentzeko aukera eskaintzen du kontrola galdu gabe eta hau inbertsio handiak eta esfortzu handiak egiten diren proiektutan komeni izaten da. Brasilerako ere, abantailak desbantailak baino gehiago dituela uste dugu.

- **Kooperatibentzako berariazko erregistroa sortzea.** Erregistroari garrantzia aitortu beharrean gaude. Brasilgo egoera irregularra dalako. Ez dago argi kooperatibak euren izaera non eskuratu behar duten edo Junta Komertzialetan edo Cartoriotan. Batzuk izaera merkantileko enpresekin batera egiten dute errolda eta besteak berriz, irabazi asmorik ez duten elkarteekin batera. Gure ustez bien artean bat aukeratu beharra balego, lehenaren aldeko hautua da egokia. Kooperatibak ere, enpresa jarduna dutelako eta ez elkarteek dituzten helburu komunak aurrera ateratzeko objektua.

Beraz, nahiz eta tramiteak errezagoak eta merkeagoak izan, bien artetik, Junta Komertzialen aldeko hautua egiten dugu. Hala ere, gure proposamena kooperatibena soilik izango den erregistro bat eskatzea litzake. Kooperatiben izaera berezia ongi ezagutu eta aparteko gestioa erametako gai izango den erregistro bat.

Erregistro honek, soilik, bete ahal izango ditu kooperatibek legalitatea betetzen dutela bermatzeko beharrezko diren eskuduntzak. Kooperatiben gaineko 'polizia' ahalmenak eta honek dakartzan potestateak soilik erregistroak beteko ditu. Egitura publiko baten esku egon ahal izango dira legea betetzen dela bermatzeko beharrezkoak diren prerrogatibak. Erregistroan burutzen diren inskripzioen bidez bermatzen da legalitatearen betetzea. Eta ezinbestekoa da eskuduntza hauek OCB-ren eskuduntza esparrutik ateratzea eta honek berarekin dakarren botere konzentrazioarekin amaitzea.

- **'Ekintza kooperatibo' kontzeptua zabaltzea.** Ekintza kooperatiboak ardazten du brasilgo legedi kooperatiboan kooperatiben tratamendua. Kooperatibek, soilik jasotzen dute gainerako merkataritza enpresengandik berezia den lege tratamendua, ekintza kooperatiboa burutzen dutenean. Ekintza kooperatiboa sortzen dute, kooperatibak bazkideekin edo kooperatibek euren artean burutzen dituzten ekintzak Merkatura begira eta irabazi asmoarekin burutzen diren ekintzak, ez dira kontzeptu honen barnean sartzen.

Kontzeptua latinoamerikako legedi kooperatibotan indarrean dagoena izanik, eta orokorrean, garrantzia eta pisua aitortzen diotenez, badirudi, bertako ajenteen nahia kontzeptua mantentzearen aldeko dela. Gu, gure erdua ezartzearen aldekoak gara eta beraz, kooperatiben tratamendua izaera kooperatibotik bertatik esleitzearen aldekoak eta ez burutzen dituzten ekintzen arabera. Erraztu egingo luke kooperatiben gaineko errejimen juridiko guztia.

Hala ere, ikusirik bertako protagonisten jarrera kontzeptua mantendu, zabaltze eta malgutzearen aldekoa dela, ordezeko aukera gisa aurreikusten dugu. Guk lehenetsi dugun aukera posible ez bada, bide hau zabaltzea proposatzen dugu. Ekintza kooperatiboa onartu eta kontzeptuaren esanahia eta interpretazioa zabaltzea ezinbestekoa da, merkatuan lehiatzeko tresnak eskaini nahi badira.

- **Eraentza fiskala eta kontablea eta tramite administratiboak erraztea.** Ez ditugu zehatz aztertu ez tramiteak ez eta errejimen fiskal eta kontablea ere. Hala ere, orokorrean esan genezake: tramiteak ugariak eta garestiak direla eta 'ekintza kooperatiboaren' baitako errejimen fiskal eta kontablea eramatea ere oso konplikatu

dela. Brasil da kooperatiba bat eratzeko zailtasun gehien aurkezten dituen herria eta denbora gehien behar izaten den herrialdea kooperatiba eratzeko.

Ekintza kooperatiboa mantentzen bada eta horren arabera jarraitu behar bada kooperatibaren errejimena arautzen (eta ez sozietate izaera bera kontutan izanik) tramiteak erraztea proposatzen dugu. Hemen ere, OCB-ren kontrako jarrera tinkoa da.

OCB-ren aburuz, beharrezkoa da, tramiteak konplikatuak izatea. Burokrazia eta tramite administratibo zailak eragotziko dute kooperatiba izaeraren erabilera okerra. Zenbat eta eskakizun gehiago orduan eta zurruntasun gehiago eta beraz, zailagoa izango da kooperatibaren erabilera okerra egitea. Eurak dira gainera horren zaintza dutenak. Arrazoi hau ez da onargarria. Gaurko joera kontrakoa da. Kooperatiben eraketarako tramiteak erraztea eta arintzea da bai gurean eta bai Europa mailako tendentzia, hau honela izanik, ezinbestean gure proposamenak hortik jo behar du. Eta kontraesana dirudi kooperatibismoa sustatzeko ardura daukan egiturak tramiteak erraztera baino zailtzera jotzea.

Laburtuz beraz, tramite administratiboak eta kontableak erraztearen aldeko proposamena egiten dugu. Ekintza kooperatiboaren arabera baino, egokiagoa da sozietate kooperatibo izaeraren arabera ardaztea baina hala ez egitea erabakitzen bada ere, beharrezkoa da tramiteak erraztea. Ekintza kooperatibo terminoa malgutzearekin batera.

- **SESCOOP eta formaziorako laguntzak kooperatiba guztiei zabaltzea.**

Formazioak, bai teknikoak eta bai kooperatiboak, daukaten garrantzia kontutan izanik, beharrezkoa da formazio horren onuradunak kooperatiba guztiak izatea. Esan dugu S sistema dela indarrean dagoena. Kooperatiba guztiak, dituzten soldatapeko langile bakoitzagatik (ordainsari orrian ezarritakoaren %1a) ordaintzen diote zerga bidez administraziori eta ondoren, hau arduratzen da pilatutako fondoak SESCOOP-era bideratzeaz. SESCOOP-n formazio eskaintza soilik OCB-ra afiliatutako kooperatibak jasotzen dute.

Sistema ez da onargarria. Ez da normala denek hornitzen duten kutxatik soilik kooperatiba batzuk jasotzea onura. Sistema berrantolatzea beharrezkoa da.

Bestalde esan beharra dago kooperatibak direla, kooperatiba izaeragatik subentzio publikoa jasotzen duten bakarrak. Sektoreka dauden antolatuta Brasilen subentzioak eta ez izaera sozietarioaren arabera. Salbuespena da beraz, sektore kooperatiboak jasotzen duen laguntza.

Mahai gainean dauden lege proposamenetako batek ere ez du sakoneko aldaketarik proposatzen gaur indarrean den legearekiko. Kooperatiben ordezkariak eta Sozietate Sinplearen figura lirake proposamen ausartenak. Ordezkariaren gaitasun garbi dago OCB dela jarrera tinko mantentzen duena. Bere orain arteko botere eta eskuduntza esparrua mantentzeko helburua du. Eskala edo maila bat lortzen ez duten ekimenak kooperatiba izaera barik Sozietate Sinple izaera hartzea ez dugu egoki ikusten. Eduardo Suplyciren kooperatiba berezien formula ere nahiko zalantzarria da. Kooperatibak sailkatzen eta mailakatzen ari bait gara. Egokiagoa da hori baino, kooperatiba izaerari orokorrean eraketa eta funtzionamendu baldintzak erraztea eta arintzea; figura berezituak sortu beharrean.

Brasilen orain dagoen banaketak kalte egiten dio kooperatibismoari. Kooperatibismo tradizional eta enpresarial deituaren eta kooperatibismo sozialaren arteko bereizketak ez du onik egiten. Bat eta bakarra behar du izan kooperatibismoak Brasilen.

Printzipio eta baloreez batetik eta lege egoki batez bestetik, hornituko den kooperatibismo bat behar da. Ez errentagarritasun eta irizpide ekonomiko klabetan oinarrituko den kooperatibismo bat eta irizpide sozialetan oinarrituko den beste bat. Hartzen diren neurriak kooperatibismo bakarraren, hots, soziala eta bideragarria izango den kooperatibismoaren beharren harira etorri beharko dira.

OCB izan da diskurtso hori sortu eta zabaldu duena. Badela kooperatibismo bat, errentagarria, eskalako ekonomia egiten duena eta bideragarria dena eta hor kokatzen ditu bere taldeko kooperatibak. Eta badela, beste kooperatibismo bat, 'asistentzialismoan' oinarrituta dagoena, behartsuena eta formazio eta gaitasunik ez dutenena, hau da, gaur Ekonomia Solidarioaren baitan kokatzen dena. Bigarren hau da, kooperatibismoaren printzipio eta baloreekin egokien uztartzen dena.

Kooperatibismoa bakarra da. Ez dira bi izaera desberdin, bi izaera batean baizik. Beraz, kontraesana nabarmena izanik OCB-k planteatzen duena, albo batera laga behar dela uste dugu. Honekin lotuta OCB-k proposatzen eta bultzatzen dituen Sozietate Sinple figurak, kooperatibak ordezkatzeko aukera moduan ez ditut ikusten. Sozietate Sinple izaera kooperatiba izaeraren ordezkariak ekimenok kooperatiben esparrutik kanpo lagatzea suposatzen du eta.

OCB-k borondatez bertan kide egin nahi dutenen beharrak asetzera bideratu beharko du bere jarduera. OCB Kooperatiben ordezkartzarako erakundea bat gehiago izango da, sortu daitezkeen beste batzurekin batera. Beharrezkoa da Ekonomia Solidarioaren txapelaren pean dauden errealitateek euren ordezkartza eramango duen elkarte bakarra sortzea.

Bi lege proposamenek (OCB-koa izan ezik) ordezkartza eta elkarte askatasuna aldarrikatzen dute. Brasilgo Konstituzio Federalak jasotzen duen elkarte askatasunak ezinbestean dakar indarrean dagoen lege kooperatiboa aldatzea. OCB-ri ordezkartza eskusiboa kendu eta bere gain dituen eskuduntza eta funtzioak ere aldatu beharra suposatzen du.

Urteetan zehar eman den ibilbideak eta OCB-k eskuratu dituen eskuduntzak ekarri dute gaur duen boterea eta eramaten dituen politikak gauzatzeko daukan indarra izatea. Elkarte askatasuna onartzearekin orain arte eta gaur oraindik orain dagoen egoera mantentzea ezinezkoa da. Kooperatibak autonomia eta askatasuna izango dituzte oinarrizko irizpide eta ondorioz, eurak erabaki beharko dute non elkartu. Hau beti ere, adostasun osoz sortutako elkarte bat eratzen ez bada. OCB estatuaren bultzadaz sortua izan zen eta gaur beharrezkoa da aniztasuna errespetatuz kooperatibak eurek nahi dituzten elkartetan bazkidetzak egitea. Elkarte hauek eskaini ahal izango dizkiote euren bazkideei aholkularitza eta formazio asistentzia.

Erregistro eta legalitatearen zaintza izango ez diren kooperatiben gaineko funtzioak beteko dituen egitura neutral bat sortu beharko da. Kooperatiben ordezkartza, sustapena eta Administrazio Publikoarentzako aholku organoa izango den egitura berri bat.

Euskal eredura izan daiteke baliagarri. Batetik kooperatibak askatasuna dute nahi duten elkartetan afiliatzeko eta nahi ez badute berriz, ez afiliatzeko. Hala ere, erregistro funtzioak ez diren beste sustapen, ordezkartza eta aholku organo izateko balioko duen organo adostu berri bat sortzea komeni da. Ahal den neurrian errealitate kooperatiboa osatzen duten egitura guztien adostasunez eratuko dena.

Nazioarteko Aliantza Kooperatiboan indarrean dauden 'autonomia eta independentzia' printzipioak kontutan izanik eta OCB-ren jatorria eta gaur oraindik betetzen duen papera ikusita, auzitan jarri beharko litzatekeen kontua da OCB-k NKA izan beharreko permanentzia.

Ezin da ahaztu kooperatibismoaren izateko arrazoia zein izan den, nahiz eta orain kooperatibismoa kapitalaren logikak barneratua izan. Kooperatibismo brasildarraren logika, -latinoamerika guztian zehar antzekoa dena- izan da hori. Nazioarte mailan NAK-k defendatu duena eta Brasilen OCB-ren eskutik babesa jaso izan duena. Bai OCB eta bai NAK-k aurrera eramane eta defendatu duten ildoak berdina izan da. Kapitalaren logika babestu dute, nahiz eta kooperatibismoaren jatorrizko balore eta printzipioekin kontraesan nabarmena izan.

NKA-k diskurtso eta teoria mailan izan du kezka kooperatiben printzipio eta baloreen zaintzaren gainean. NKA-aren urtetako kezka izan da kooperatibak euren autonomia eta euren burua gobernatzeko daukaten gaitasuna zaindu eta bermatzea. OCB-ren sorrera estatuaren interes eta bulkada batetik sortzen da (kooperatiben esparrua estatutik bertatik eramane eta zuzendua izateko interesetik), eta urteetan pilatzen joan den boterea gaur mantendu egiten du.

Junta Komertzialetan dituen injerentzietan eta berak bere buruari aitortuta dizkion funtzioek argi irakasten dute ez duela ez autonomia ez eta independentzia printzipioa betetzen. Brasilgo kooperatibismoaren ordezkari bakarra izan da urtetan zehar baina, gaur mapa aldatzen hasi da eta beharrezkoa da planteamendua aldatzea. Auzitan jarri beharra dago OCB, bai barnera begira (erregistro, sustapen, aholkularitza...) mailan betetzen dituen funtzioak eta baita kanpora begira (NKA-n besteak beste daukan ordezkariarekin) betetzen dituen funtzioak.

Mundu mailako kooperatiben ordezkariak daukan egiturari OCB izateak kontraesankorra dela deritzogu.

OCB-k betetzen dituen funtzio eta eskuduntzak berrikusi egin behar dira.

OCB-ren estatutuen azterketa egin ondoren jasota dituen eskuduntzak gehiegizkoak direla forgatu dugu. Gure ereduarekin alderatuz, gurean hainbat erakunderen artean banatzen diren eskuduntzak hartzen ditu bere gain OCB-k.

Gurean Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak nagusiki, ordezkariak, sustapen eta aholkularitza funtzioak betetzen ditu. Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak nagusiki arbitrai lanak eta lege betearazpenarekin lotura duten hainbat funtzio betetzen ditu. Azkenik, Kooperatiben Erregistroak legalitatearen betearazpena bermatzen du. Eredu hau jarraituz garatu beharko litzake Brasilgo egituratze kooperatibo berria.

Euskal Institutuzio kooperatiboei dagokienean esan behar da, Euskadiko Kooperatiban Goren Kontseiluak hainbat lege betearazpen funtziotaz gain duen eskuduntza garrantzitsuena, kooperatiben arteko auzietan arbitrajea eskaintzea dagoela. Kooperatiben erregistroak, kooperatiben eraketa eta funtzionamenduan legea betetzen dutela frogatzea eta bermatzea dutela ardura nagusi. Eta azkenik, esan behar da, federazio eta hauek batzen dituen konfederazioa direla eskuntza zabalena dituzten egiturak. Formazio, sustapena eta kooperatiben ordezkartza eramatea dagokie. Eta hauek bai kooperatiben borondatezko afiliazioa dutenez, badute ordezkartza hau izateko legitimitatea.

Brasilgo egituratze kooperatiboa euskal eredura ekartzea proposatzen dugu.

Etorkizunera begira

Amaitzeko esan, tesi doktraleko ondorio hauek oinarri hartuta lan dokumentu bat egingo dugula. Lan dokumentu hau Brasilen lege proiektu eta politika publikoak formulatzea helburu izango duen eztabaida zabal baterako giltza izango da. Ekonomia Solidarioko mugimenduak, gobernu eta senatuko kideak eta Unibertsitateko ikerlariak hartuko dute parte eztabaidetan. Gure ondorioak eta proposamenak beraz, eztabaidagai izango dira. Azken emaitza, tesi honen ondorioen eta eztabaidaren emaitzen fruitua izango da.

Etorkizunera begirako iker ildoak dagokionez bi azpimarratuko genituzke. Brasilgo eredu lantinoamerikako gainerako herrialdeetako ereduaren parekoa denez, herrialde hauekako legedi eta errealitate kooperatiboen azterketa burutu daikeela uste dugu tesi honetako ondorioak oinarri hartuta. Bestalde berriz, onartuko balira tesiaren ondorio edo emaitzak etorkizunean garatu beharreko atalak daude. Proposatzen den puntu bakoitzaren garapena egitea eskatuko luke etorkizuneko lanak.

BIBLIOGRAFIA

BIBLIOGRAFIA

- AGIRRE, N., AZKARRAGA, J., ELIO, E., GARCÍA, O., SARASUA, J., UDAONDO, A. Lankidetzeta. Arizmendiarrretaren eraldaketa proiektua. LANKI, 2000.
- Aliança Cooperativa Internacional. El cooperativismo em el mundo. www.aciamericas.coop. 2007
- ATLAS DA ECONOMIA SOLIDARIA NO BRASIL. Ministerio do Trabalho e Emprego. 2005.
- AZURMENDI, Joxe. El hombre cooperativo: pensamiento de Arizmendiarrreta. Caja Laboral- Euskadiko Kutxa, 1984.
- AZURMENDI, Joxe. Pensadores vascos: José María Arizmendiarrreta. Ponencia presentada en los Cursos de Verano de la UPV, 2000.
- ARIZMENDIARRRETA, José María. Pensamientos. Otalora, 1999.
- ARRIETA, L; BARANDIARAN, M; MUJICA, A; RODRÍGUEZ RANZ, JA. El Movimiento Cooperativo en Euskadi, 1884-1936. SABINO ARANA Elkargoa.
- BONAVIDES, P. Curso de direito constitucional. 13. ed. 2 tir. Sao Paulo: Malheiros Editores, 2003.
- BONAVIDES, P; ANDRADE, P. Historia constitucional do Brasil. Porto: Universidad Portucalense Infante D. Henrique, 2002.
- BOAVENTURA DE SOUSA SANTOS. La Globalización del Derecho. Los nuevos caminos de la regulación y la emancipación. ILSA, 1998.
- BROSETA, M., La empresa, la unificación del Derecho de obligaciones y el Derecho mercantil, Madrid, 1965.

- BUITRON, P. Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilauren egitekoen egiturazko azterketa eta mugaketa. Gasteiz, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua, 1998.
- CALDAS, Andressa. La regulación jurídica del conocimiento tradicional: la conquista de los saberes. Bogotá. 2004.
- CANOTILHO, José Joaquim. Direito Constitucional. Coimbra: Almedina, 1992. p. 171.
- CANOTILHO, J.J. G. Estado de Direito. Lisboa: Gradiva, 1999
- CANOTILHO, J. J,G; MOREIRA, V. Fundamentso da Constituição. Coimbra: Coimbra Editora, 1991
- CARBONELI, Miguel. La enseñanza del derecho. 2ª edic. Porrúa-UNAM, 2006.
- CARDOSO, F. H; FALEITTO, E. Dependencia e desenvolvimento na Anérica Latina: ensaio de interpretação sociológica. 7 ed. Rio de Janeiro: Zahar, 1984.
- CRACOGNA, D. La supervisión de las cooperativas en América Latina. España, Ciriec, 2003.
- COGGIOLA, O. Governos militares na América Latina. Sao Paulo: J. Pinsky, 2001.
- CORAGGIO, JL. 'La economía social y solidaria como estrategiade desarrollo en el contexto de la integración regional latinoamericana'. 2008ko urrian Montevideon, Ekonomia Soldarioa eta Bidezko Merkataritzari buruzko 3. Bilkuran aurkeztutako ponentzia egokitua. RIPPES-ek antolatuta.www.coraggio.economía

- CORREA, M. In: CONGRESSO NACIONAL DE ADVOGADOS PRÓ-CONSTITUINTE, II, 1985, Brasília. Anais do II Congresso Nacional de Advogados Pró-constituente. Brasília: Conselho Federal da Ordem dos Advogados do Brasil, 1986.
- COUTINHO, C, N. O pensador hegemónico. Folha de Sao Paulo, Caderno Mais! 21 nov. 1999
- CORAGGIO José Luis. Desenvolvimento Humano e Educação, Cortes, 1996
- CUT, Florianópolis: Terra Solidária, 2000. AGRICULTURA FAMILIAR E SÓCIOECONOMIA SOLIDÁRIA. Convênio MTE/SEFOR/CODEFAT 007/2000
- DE MELLO, CELSO ANTÔNIO BANDEIRA. Elementos de Direito Administrativo. Malheiros Editores. San Pablo, 1992.
- DIVAR, J., Introducción al Cooperativismo, en primeras jornadas de Cooperativas de Euskadi, 1982. 'La Democracia Económica, Bilbao, 1990.
- ENCISO, M. La regionalización de la alianza cooperativa Internacional. Análisis específico de la situación en Europa. 2000
- ESTRADA DÍAZ, Juan Antonio. La teoría crítica de Max Horkheimer. Granada. Universidad de Granada, 1990.
- FARIA, J.E. O Brasil pós-constituente. Rio de Janeiro: Graal, 1989. p. 62.
- FERNANDES, F. A revolução burguesa no Brasil. Rio de Janeiro: Zahar, 1975
- FLORES, Imer. La concepción del derecho en las corrientes de la filosofía jurídica. Boletín de derecho comparado. México. UNAM. 1997.
- GADEA, E. Kooperatiba legediaren bilakaera Espainian. Gasteiz, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua, 1999.
- GARCÍA VILLEGAS Mauricio y Cesar A RODRÍGUEZ. Derecho y sociedad en América Latina. Bogotá, ILSA, 2003.

- GEDIEL, J. A. P. Cooperativas Populares. A legislação como Obstáculo. In MELLO, S.L. de (ORG). Economia solidária e autogestao: encontros internacionais. Sao Paulo: PW, 2005.
- GEDIEL, J. A. P. (Org). Estudos de direito cooperativa e cidadania. Curitiba: Programa de Pós-graduação em Direito da UFPR, 2005.
- GEDIEL, J. A. P. (Org). Os caminhos do cooperativismo. Curitiba: Editora UFPR. 1999-2000
- GIRÓN TENA, J., Sociedades civiles y Sociedades Mercantiles: distinción y relaciones en el Derecho español, RDM, 1947.
- GOMES, C. Via Campesina Define Plano de Lutas. Revista Sem Terra, Movimento Social, Sao Paulo, n. 25, p. 33-35, jul.- ago 2004.
- GOMEZ, L; MARTINEZ CHARTERINA, A. Origen y alcance del principio de autonomía e independencia de las Cooperativas. Asociación Internacional de Derecho Cooperativo, 1998.
- GOMEZ, L, La Alianza Cooperativa Internacional su desarrollo como institución y en especial como instrumento transformador de la sociedad. 1998
- GOHN, Maria Glória (org.). Movimentos Sociais no Início do Século XXI – Antigos e novos atores sociais, Petrópolis: Vozes, 2003.
- GOHN, Maria Glória (org.). História dos Movimentos e Lutas – A Construção da Cidadania dos Brasileiros, 2a ed., São Paulo: Loyola, 2001.
- HABERMAS Jürgen. Pensamiento metafísico. Madrid. Trotta. 1990.
- HERMI ZAAR, Miriam. El cooperativismo agrario en Brasil. Universidad de Barcelona, 2007.
- HORKHEIMER, Max. Dialéctica del iluminismo. Editorial Sudamericana, Buenos Aires, 1969.

- IRIGOYEN, I. Economía popular en Brasil: experiencias de economía solidaria (argitaratu gabe)
- Incubadora tecnológica de cooperativas populares: a experiencia da UFPR, 2002.
- J. Sarasua, A. Udaondo. Lanki kuadernoa. Autoeraketa globalitatea. Autoeraketa ekonomikoaren kokapena egungo munduan. 2004.
- JUSTINO, Maria José (org.). Incubadora Tecnológica de Cooperativas Populares – a experiência da UFPR, Curitiba: UFPR/PROEC, 2002.
- KAREAGA, A. Gerra aurreko kooperatibismoa. 2001.
- KRUEGER, G. Comentarios á Legislaçao das Sociedades Cooperativas. Tomo I. Brasil, Mandamentos, 2007.
- LANKI, Larraitz Altuna. La experiencia cooperativa de Mondragón una síntesis general. 2008.
- LONDOÑO, C. El Movimiento cooperativo y el Estado. Argentina, Intercoop, 1978.
- RAZETO, L; Economía Popular de Solidaridad. Edición Conferencia Episcopal de Chile, 1986.
- LUZ FILHO, F. O direito cooperativo. Rio de Janeiro: Pongetti, 1962
- MARTÍNEZ MUÑOZ Juan Antonio. El conocimiento jurídico. Madrid. Universidad Complutense. 2005.
- MAUAD, M. Cooperativas de trabalho. Sua Relaçao com o Direito do Trabalho. Sao Paulo, Editora LTDA, 2001.
- MAURA, M. O controle interno em cooperativas. Curitiba, OCEPAR, 1992.

- MCC. El éxito de Mondragón. Futuros. Revista Latinoamericana y caribeña de desarrollo sostenible, nº 6, vol. II, 2004.
- MCC. Mondragón. Cuarenta años de historia cooperativa. MCC, 1997.
- Ministerio do Trabalho e Emprego. Autogestao e economia solidaria. Uma nova metodologia. 2008
- Ministro Eduardo Ribeiro, STJ/DJU de 08.09.98, p. 61.
- MONEDERO Juan Carlos. En la presentación que hace de B. de Sousa Santos en El milenio huérfano. Madrid. Trotta. 2005.
- MONTOLIO, JM. Legislación cooperativa en América Latina. Centro de Publicaciones Ministério de Trabajo y Seguridad Social España, 1986.
- MOREIRA, V. A ordem jurídica do capitalismo. 3. ed. Coimbra: Centelha, 1978.
- MELO NETO, J. F de Popular. IN: GEDIEL, José Antonio Peres (org). Estudos de Direito Cooperativo e Cidadania. Curitiba: Progrma de Pós- Graduação em Direito da UFPR, 2005.
- MENDES, J.C. Direito comparado. Lisboa: aajdl, 1982-1983.
- MIAILLE, M. Introdução crítica ao direito. 2. ed. Lisboa: Estampa, 1994.
- MIRANDA, J. Manual de Direito Constitucional. Coimbra: Coimbra Editora, 2000. Tomo 4.
- NAMORADO, R. Horizonte cooperativo: política e projeto. Coimbra: Almedina, 2001.
- NAMORADO, R. Introdução ao direito cooperativo: para uma expressao jurídica da cooperatividade. Coimbra: Almedina, 2000.

- MONTOLÍO, JM. Legislación cooperativas en America Latina. Situación, Derecho comparado y Proceso de armonización. Madrid, Ministerio de Trabajo y Seguridad Social, 1990.
- Núcleo de Direito Cooperativo e Cidadania-NDCC. META FISICA 4. Investigar modelo de regulação jurídica das cooperativas coerente com a realidade e a Constituição brasileiras. 2006.
- OLIVEIRA, F. Crítica á razao dualista o ornitorrinco. 1. ed. Sao Paulo: Boitempo Editorila, 2003. Sobre os efeitos das políticas neoliberais no Brasil.
- OCESP/SESCOOP, 2006. Cooperativismo al alcance de todos.
- OCESP/SESCOOP, 2004.O ABC do Cooperativismo.
- OCESP/SESCOOP, 2005. Cooperativa: um empredeendimento participativo.
- OCESP/SESCOOP, 2001. Empreendimento Cooperativo: um novo agente económico.
- OCESP/SESCOOP, 2001.Cooperativas: economia, crescimento e estrutura de capital.
- PASTORINO, J. Teoria General del Acto Cooperativo. Buenos Aires, INTERCOOP, 1993.
- PLÁ, A. J. Del estado nacional al estado del ajuste neoliberal. IN: DAYREL, E.G; IOKOI, Z. M. G. (orgs). América Latina Contemporanea: desafios e perspectivas. Rio de Janeiro: Expressao e Cultura; Sao Paulo: Edusp, 1996, p. 153.
- PERIUS, V.F. Cooperativismo e lei. Sao Leopoldo: Unisinos, 2001.
- PINHO Diva B. Memória do cooperativismo a nivel nacional: importância e objetivos. In As grandes coordenadas da memória do cooperativismo brasileiro. Brasília: Organización de las Cooperativas Brasileiras, 1991 p. 9-114, vol I

- PINHO, Diva Benevides. O Cooperativismo no Brasil: da vertente pioneira à vertente solidária. São Paulo: Ed. Saraiva, 2004.
- PINHO, Carlos Marques. Evolução da legislação cooperativista no Brasil. In As grandes coordenadas da memória do cooperativismo brasileiro. Brasília: Organización de las Cooperativas Brasileiras, 1991, p. 115- 217, vol I.
- PONTES, Daniel Regina.; GEDIEL, Jose Antonio Peres, FARIA, Jose Enrique. Configurações contemporâneas do cooperativismo brasileiro : da economia ao direito Universidade Federal do Paraná. Setor de Ciências Jurídicas. Programa de Pós-Graduação em Direito., 2004 (tesia)
- RHODES, R. Thematic guide to ICA congresses 1895-1995. Geneva, International Co-operative Alliance, 1995.
- SANCHEZ FERNÁNDEZ Luis Manuel. Ironías, falacias, perversiones, enigmas: sobre el positivismo y la tesis de la separación. Doxa. Núm. 25. 2002. Alicante.
- SANTOS, Boaventura de Sousa (org.). Produzir para Viver – Os caminhos da produção não capitalista, Rio de Janeiro: Civilização Brasileira, 2002.
- SAÚDE MENTAL e ECONOMIA SOLIDARIA: Inclusão Social pelo Trabalho. Brasília, 2005.
- SARRIA Icaza Ana Mercedes. Economía Solidaria en el Sur de Brasil. Universidade do Vale di Rio dos Sinos, UNISINOS, 2006.
- SILVA, Eduardo Faria. A Organização das Cooperativas Brasileiras e a negação do direito fundamental à livre associação. Dissertação. (Mestrado em Direito Cooperativo). Curitiba: Universidade Federal do Paraná. 2006, p.4.
- SINGER, P. Introdução à Economia Solidaria. Fundação Perseu Abramo. Sao Paulo, 1996.
- SINGER, Paul. Uma utopia militante: repensando o socialismo. Petrópolis: voces, 1998. p. 71.

- SINGER, P. A crise das relações de trabalho. In: O VALOR simbólico do trabalho e o sujeito contemporâneo. Porto Alegre: Artes e Ofícios, 2000. p. 57-65.
- SINGER, Paul e SOUZA, André Ricardo de. A Economia Solidária no Brasil – a autogestão como resposta ao Desemprego, São Paulo: Contexto, 2003.
- The International co-operative alliance statement on the co-operative identity. The Co-operative Principles. Gasteiz, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua, 1996.
- VENTOSA ROIG, J. Las Cooperativas y el Estado. Madrid, Asociación de estudios cooperativos, 1962.
- Vergilio Frederico Perius. Cooperativismo e Lei. Unisinos, 1985
- WELLMER. Habermas y la modernidad. México. Editorial REI. 1995.
- WITKER Jorge. Técnicas de la enseñanza del derecho. 4ª edic., Editorial Pac-UNAM, 1985.
- WOLKMER, Antonio Carlos. Pluralismo Jurídico. Sevilla. Editorial Mad. 2006.
- ZAAR, M. El cooperativismo agrario en Brasil. Barcelona, Universidad de Barcelona, 2007.
- 4/73 Euskadiko Kooperatiben Legea.
- 1/2000 Kooperatiba Legearen aldaketa.
- 5.764/71 Brasilgo Kooperatiben Legea.

Webguneak

- [www. Brasilcooperativo.coop.br](http://www.Brasilcooperativo.coop.br) . 'O Portal do Cooperativismo Brasileiro'
- www.coraggio.economía

ERANSKINAK

ERANSKINAK

ERANSKINA (I)

Erabilitako legeen erreferentzia

- 1978ko Konstituzio espaniarra
- 4/1993 Euskadiko Kooperatiben Legea
- 1/2000 legea, 4/93a aldatzen duena
- 6/2008 Kooperatiba txikien legea
- 14/2006 Nafarroako Kooperatibak arautzen dituen lege forala
- 1947ko Frantziako Kooperatibak arautzen dituen legea
- 5764/71 Brasilgo Kooperatiben Legea
- 1988ko Konstituzio Brasildarra
- Decreto con fuerza de Ley Especial de Asociaciones Cooperativas del 18 de septiembre de 2001 de Venezuela
- Ley General de Sociedades Cooperativas, de 4 de junio de 2001 de Méjico
- Ley de Cooperativas de Argentina, nº 20.337 de mayo de 1973
- Decreto con fuerza da Ley nº 5 del 17 de febrero de 2004 de Chile
- Proyecto de Ley para las Cooperativas de America Latina

ERANSKINA (II)

Brasilgo elkarrizketa eredia

Potenciando a figura societaria de cooperativa em Brasil, da perspectiva legal

1.- Qual é a sua opinião sobre a realidade das cooperativas em Brasil hoje?

2.- Em geral, quais são os elementos que ajudam a potencializar a realidade cooperativa?
¿quais os elementos que dificultam/impedem um bom desenvolvimento das cooperativas?

3.- Quais são os elementos mais positivos que contém a ' Lei do Cooperativismo 5.764/71'? E quais os mais negativos?

- Qual teria que ser a *quantidade mínima de sócios* necessária para constituir uma cooperativa? Por quê?
- Qual é sua opinião sobre a inserção das figuras de *socio colaborador e socio usuario*?
- Acha que seria necessário *aumentar a tipologia* de cooperativas? (cooperativas mixtas).
- Acha que seria necessário *facilitar o funcionamento administrativo e social* da cooperativa?.
- Acha que seria necessário modificar o *régime económico* da cooperativa? Facilitar a inserção de capital
- Acha que seria necessário *inserir elementos de Régime fiscal*?
- Qual seria sistema apropriado de *representação oficial das cooperativas*?
- Qual é o *régime de trabalho atual* dos cooperativistas?
- Qual é o *régime de previdencia social atual* dos cooperativistas?
- Outros.

4.- Conhece outras legislações cooperativas de outros países (exemplo: Lei 4/93 de Cooperativa de Euskadi). Qué acha que podem aportar à realidade brasileira?.

5.- Para conseguir que as empresas participadas de MCC sejam coerentes com os princípios e valores cooperativos, que teriam que melhorar? À nível de legislação? À algum outro nível (apojo do governo...)

6.- Quais são as carências da Economia Solidária do Brasil? (principalmente das que são cooperativas)